

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Oñati*



Aurkibidea

# Udalerrria: Oñati

## Sarrera



Ingurune menditsuan kokatuta, Aizkorri, Aloña eta Elgea mendilerroen artean, Gipuzkoako udalerririk zabalena da eta bere lurretan daude Arantzazu, Araotz, Uribarri, Berezaio, Garagaltza, Larraña, Olabarrieta eta Zubillaga baserri auzoak. Kooperatibismoaren eta industria-sektorearen protagonista izan da azken hamarkadetan. Oñatiarrek *txantxiku* ('igel') ezizena dute.

Argazkia: [Wikipedia](#).

- **Biztanleak:** 11.033
- **Euskaldunak:** %77,3

## Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **223**
- Zintak: **294**
- Pasarteak: **1.965**
- Transkribatutakoak: **301**
- Audioak: **178**
- Bideoak: **1.784**

## Proiektuak

- 101L - Herriz herri
- AED elkarte
- Ander Lizarralderen fonoteka
- Artixa Kultur Elkartearen elkarrizketak
- Bergarako hitzaldien grabazioak
- Burdina: errementariak eta perratzaileak
- Deba eskualdeko ahotsak - Oñati
- Dialektologia-EHU
- Euskal Herriko Ahotsak
- Euskararen historia soziala Bergaran
- Ez dago sinesterik zenbat kanbiatu den!
- Gazte gara gazte
- Gerra Gogoratu Guran
- Gipuzkoako zuhaitzi motzak
- Karobiak, txondorrak eta elurzuloak
- Legazpiko ahotsak
- Linua, ehuna eta artilea
- Loramendi Euskara Elkarte
- Mondragon Unibertsitatea
- Oñati Irratia

- Oñatiko Ahozko Ondarea
- Oñatiko kriaden berbetia
- Oñatiko Murgia auzoa
- Oñatiko noka: Ingo Xonau!
- Roberto Altunaren fondoa
- UEU Udako Euskal Unibertsitatea

## Hizlariak

### **Maria Abeldi Orduña *Plantxadoria*** (1912-1997)



Umerez baserrian hazi zen. Neskatilatan Eulojio Maleta zenaren tabernan lan egin zuen eta gerora neskame lanetan ibili zen urte askoan Bartzelonan, Bilbon, Mallorcan eta Donostian. Azkenean, betidanik gustuko izan zuen ofizioagatik egin zen ezagun herrian Maria "Plantxadoria". Neskame zebilela ikasi zuen arropak lisatzen. Ezkondu zenean Oñatira etorri zen berriz bizitzera eta Kale Zaharrean jarri zuen "plantxalekua". Horren gaineko azalpen ugari eman zituen 1994an "Kontzejupetik" aldizkarirako egin zitzaion elkarrizketan.



### **Maria Jesus Aberasturi Isasti** (1946)

Taxi gidaria.



### **Rufino Agirre Alzelai** (1928-2016)

Zubillaga auzoko Alkorta baserrian jaioa. Murgia auzoko "Iziargoikua" (Eiziargoikoa) baserrira ezkondu zen.

### **Nerea Agirre Kortabarria** (1977)



Murgia auzoko Iziar Goikoa baserrikoa, ama bertakoa du eta aita Zubillagako Alkorta baserrikoa. 2 ahizpatan zaharrena da. Olabarrieta auzoan bizi da, Juanpueneko Iñaki Agirregabiriarekin, eta 3 seme-alaba dituzte: neska bat eta bi mutil. [Ingo Xonau!](#) proiekturako, Oñatiko noka jasotzeko egindako elkarrizketa. Amak bi alabei hika egin izan die, eta Nereak berak amarekin, ahizparekin eta alabarekin hika egiten du batzuetan, ez beti. Ingo Xonau! proiektuko lantaldekoa da.

### **Aintzane Agirre Urzelai (1981)**



Oñatin jaioa, berez kaletarra, Larraña auzoko Errekalde baserrian bizi da senarrarekin eta lau umeekin (bi neska eta bi mutiko). [Ingo Xonau!](#) proiekturako, Oñatiko noka jasotzeko egindako elkarrizketa. Aintzane ez zuen etxean jaso, eta bere kabuz hasi zen erabiltzen. 10 urtez Villabonan bizi izandakoa, bertan hasi zen hika egiten, lankideekin. Eta orain Oñatikoa erabiltzen hasi da. Elkarrizketa hika izan da (mintzapraktikaren parte gisa). Ingo Xonau! proiektuko lantaldekoa da.



### **Jabier Aiastrui Agirre (1932)**

### **Bixenta Aiastrui Aiastrui (1933)**



Garibai auzoko "Koixkar Garaikua" (Korosbizkar Garaikoa) baserrian jaio zen 1933an. Aita zuen bertakoa eta ama, berriz, Berezaio auzoko Ertzil baserrikoa. Bederatzi anai-arreba izan ziren. Sarramendiko eskolan ikasi zuen lau urterekin hasi eta hamahiru urtera arte, Gregorio Larrañaga maisuarekin. Neskame egon zen bi urtean Bergarako Ozaeta Jauregian, eta beste hiru urte Oñatiko Zañartu auzoko Etxenagusi baserrian. Hemeretzi urterekin Askazubi baserrira ezkondu zen, bertako Joxe Lizaurrekin. Bost seme-alaba izan zituzten.

### **Esperanza Aiastrui Aiastrui (1942)**



Garibai auzoko Koixkar Garaikua (Korosbizkar Garaikoa) baserrian jaioa. Aita zuen bertakoa eta ama, berriz, Berezaio auzoko Ertzil baserrikoa. Bederatzi anai-arreba izan ziren. [Ingo Xonau!](#) proiekturako, Oñatiko noka jasotzeko egindako elkarrizketa, Larrañako [Pilar Guridi](#) eta Garibaiko [Joxepi](#) eta [Mariaxun](#) ahizpa bizkiekin batera. Gurasoek ez zieten hika egin, eta etxean ere ez dute egin anai-arreben artean. Auzoko lagunekin ere ez. 14-15 urterekin kalera joan zen, eta orduantxe hasi zen hika erabiltzen, Larrañako lagunekin. Bere ahizpa [Bixenta](#) ere elkarrizketatuta dago.

### **Angel Aiastui Elortza (1933)**



Zubillaga auzoko Farretzekoa (izatez Paterretxe). Aita zuen bertakoa. 10 anai-arrebatatik zortzigarrena. Aitaren hiru anaiak txirringulak izan ziren eta Benito izan zen hiruretan ezagunena. "Gerra Gogoratu Guran" proiekturako egin zitzaion elkarrizketa, gerrako kontuak jasotzeko.

### **Felipe Aiastui Galdos (1925-2020)**



Larraña auzoko Olabarri baserrian jaio zen, zazpi anai-arrebatatik bosgarrena. Aita bertakoa zen, eta ama Uribarri auzoko Aingeru baseritik etorritakoa. Sarramendiko eskola berrian, Larraña, Garibai eta Zubillagako beste 60 bat ikaslerekin batera ikasi zuen, zazpi urtetik hamahirura. Etxean, baserriko lanetan eta idiekin egur garraioan jardun zuen. Igartua lantegian ekin zion lanean 35 urterekin, kateak eta kale-argientzako kakodun metalezko zutabeak egiten. Handik gutxira Murgia auzoko Estenaga baserrira ezkondu zen, bertako Karmen Arriaranekin. Seme-alaba bi izan zituzten. Felipe Estenagan esne-behi batzuk jartzen hasi zen, eta elkarrizketa egin zitzaionean baserria esne-behi ustiategi (herrian bakarra dena) bihurtuta zegoen, Feliperen semeak kudeatuta.

### **Justa Aiastui Ormazabal (1900-2001)**

Berezaio auzoko Ertzil baserrikoa. Maider Irizarrek egindako elkarrizketan, elurzuloen eta baserriko kontuen inguruko azalpenak ematen ditu.

### **Jenaro Aizpeurrutia Etxeberria (1935-2014)**



Olabarrietako errementaria, 1935 urtean jaio zen Oñatiko Olabarrieta auzoko Errementarikua baserrian. Aita oñatiarra eta ama aramaioarra. Bere aitajaunarekin ikasi zuen ofizioa, eta fabrikako lanarekin tartekatu zuen zorroztura eta baserriko lanabesen konponketa.

### **Nati Altube Iñurritegi (1949)**



Lekunberri auzokoa (Triana bezala ere ezaguna). Aozaraza kaleko Portalekokua etxekoa. Aita Ugaztegi baserrikoa zuen (Aretxabaleta) eta ama Oñatikoa, kalekoa. Hiru senidetan zaharrena. Oñatiko noka jasotzeko egindako elkarrizketa, [Karmen Iñurritegi](#)rekin batera. Senarra Beasaingoa dauka, eta harekin ere hika egiten du Natik. Euskalki nahasketa antzematen zaio.



**Felisa Altube Irizar (1924-2016)**

Murgia auzoko Murgialdai baserrian jaio zen, hamar anai-arrebetatik zazpigarrena izan zen, Juli izeneko beste ahizpa baten biki-laguna. Baserritik irten eta neskame ibili zen, gero fabrikan ere bai eta ondoren Santxolopetegi auzoko Pardioskua baserrira ezkondu zen eta hamar seme-alaba izan zituen. Bertan hil zen laurogeita hamabi urte gaz.



**Frantziska Altube Irizar (1913-1998)**

Murgia auzoko Murgialdai baserrian jaio zen, hamar anai-arrebetatik bosgarrena izan zen. Olabarrieta auzoko Amiño baserrira ezkondu zen Pedro Urzelairekin eta hiru seme-alaba izan zituzten. Baserrian jaio eta baserrian hil zen, bizi guztian baserriko bizimodua aurrera eramanez: etxeke lanak, ortua... etab.



**Maritxu Altube Irizar (1929-2014)**

Murgia auzoko Murgialdai baserrian jaio zen, hamar anai-arrebetatik gazteena izan zen. Baserritik jaitsi eta kalean lanean hasi zen. Geroago Beasainera ezkondu zen eta han bizi izan zen hil zen arte. Hiru seme-alaba izan zituen.

**Jose Antonio Altube Madinagoitia (1946)**

Murgia auzoko Murgialdai baserrikoa. Fermin Altube frantziskotarrak egin zion elkarrizketa "Oñatiko Murgia auzoa" lanerako.

### **Francisca Altube Moia Patxika (1918-2017)**

Larraña auzoko Dominguenta baserrian (gaur galdua; Alejona izenez ere ezagutua) jaio zen, aitaren bigarren ezkontzako lau anai-arrebatatik zaharrena. Lehenengo ezkontzako beste sei anai-arreba zituen. Aita bertakoa zen eta ama, berriz, Berezaio auzoko Mendikoa baserrikoa. San Juan auzoko Metalgua baserrian (gaur galdua) umezain zegoela, hamar urterekin, izan zuen eskolara joateko aukera, itaurrean egin behar izaten ez zuenetan. Handik Olabarrieta auzoko Simonena baserrira joan zen neskame. Etxera itzuli eta josten ikasi zuen, Olabarrietako Ugarte Txikiko Ixabel maistra izan zuela. Ikasi eta etxez etxe ibili zen joskin lanak egiten, harik eta josten joaten zen Santa Marinako Garainena etxean umezain geratu zen arte. Bertan zortzi urtez jardun ondoren ezkondu egin zen, Murgia auzoko Juanikogarrena (Juaniko Agirrena) baserriko Prudentzio Etxezarretarekin. Bost seme-alaba izan zituzten. Ezkondu eta gero josten jarraitu zuen, baita josten irakasten ere. Berari elkarrizketa bat egin zitzaion, eta "Mahai-ingurua Oñatin 1" grabazioan ere parte hartu zuen.



### **Julian Alustiza Jauregi Aztiri (1913-2005)**

Euskal idazle, poeta eta sermolaria. Gabiri herriko Aztiri baserrian jaio zen, eta izen hori goitizentzat hartu zioten. Sermolaritzan dohain berezia zuen, erabiltzen zuen hizkuntza aberatsarengatik. Valladoliden apaiz frantziskotar ordenatu zen eta Tolosa eta Zarauzko komentuetako nagusia izan zen. Gaztelan, Erriberan, Arantzazun eta Gipuzkoako eta Nafarroako hainbat herritan ibilitakoa. Azken 50 urteak Arantzazun eman zituen. Hainbat lan ere argitaratu zituen.



### **Jabier Arana Lizarralde (1960)**

Arantzazuko Begirolatza baserrikoa. "Gipuzkoako zuhaitzi motzak" proiekturako egin zitzaion elkarrizketa, Azpilleta baserriko [Jabier](#) eta [Mikel Arregi](#) anaiekin batera.



### **Santiago Aranburu Umerez (1954)**

### **Gregorio Arejolaleibar Ojanguren (1926-2010)**

Zubillaga auzoko Erguñazarra baserrian (Aretxabaleta eta Oñatiko mugan) jaio zen 1926an, hiru anaietatik gazteena. Ama bertakoa zen eta aita Eskoriatzako Marin auzoko Mañarte baserritik etorritakoa. Aita gerra aurretxoan hil zitzaion. Madalena auzoko eskolara joaten zen ahal zuenetan Gregorio. Ama gaixorik zegoela, Oñatiko Alzuru medikua kotxez etortzen zen Zubillagara, baina oinez ibiltzeko gauza ez zenez, Gregoriok eramaten zuen asto gainean etxeraino (3 km.). Baserrian egon zen harik eta Zubillagako Gaitu lantegian ekin zion arte, baserrirako lanabesak egiten. Gaituk Zubillaga utzi zuenean, Gregorio artzain hasi zen. 46 urtez Deguria mendira joan izan da udako hilabeteetan bere ardiekin. Santu Guztien egunean etxe ingurura ekartzen zituen ardiak, eta udaberrian, orduan Aretxabaletakoa zen Bedoña auzoko Uriñe baserrira eramaten zuen artaldea, bildotsak jaiotzeko garaian. Gazta egiteko esnea etxera eramaten zuen egunero. Maiatzean berriz Aretxabaleta eta Eskoriatzako Deguria mendira joaten zen ardiekin. Bertan jarraitzen zuen gazta egiten harik eta ardiak antzutu arte. Artzaintzarekin lotutako hainbat xehetasun ematen ditu Gregoriok. Gregorioren berbetan Leintz aldeko ukitua igartzen da.



### **Luis Arkauz Aiastrui (1935)**

Garagaltza auzoko Garagaltza Handia baserrian jaio zen, lau anai-arrebatatik gazteena. Aita bertakoa zen eta ama, berriz, Larraña auzoko Joxiarena baserrikoa. Umetan kaleko Ospitaleko eskolan hasi, eta gero Unibertsitateko Maristekin jarraitu zuen hamalau urtera arte. Handik Arrasateko Eskola Profesionalera joan eta bertan ikasi zuen, elektrizitate-peritu titulua atera zuen arte. Orduan Fagor kooperatiban hasi zen lanean, eta Etxetresna Elektriko sailean eta Zerbitzu Zentraletan lan egin eta gero, Altzairu sailean jardun zuen jubilatuta zen arte. Garagaltzaundian ganaduaz gain fruta-arbola asko zituzten. Amak azokan saltzen zituen sagar, udare, gerezi, eta beste hainbat fruta eta, horretaz aparte, etxean milaka litro sagardo egiten zuten. Sagardogintzari buruzko hainbat azalpen ematen ditu Luixek. Gerra hasi zenean, aitak Txilera ihes egin zuen beste hiru oñatiarrekin, eta itzuli zenean, Luisek zazpi urte zituela, ezagutu ahal izan zuen bere aita zena. Lazkaomendiko Mertxe Esnaolarekin ezkondu zen eta bost seme-alaba izan zituzten. Elkarrizketa garaian, emazteak eta biek etxe ondoan ireki duten landetxe bat kudeatzen zuten.





### **Joxepi Arregi Aranburu (1936)**



Garibai auzoko Koixkar Azpikoa baserrikoa, aita bertakoa zuen eta ama Garagaltza auzoko Etxeberrialdekoa. 7 senidetan gazteena, ahizpa bizkiarekin batera (gainerakoak mutilak). Gurasoek hika egiten zieten guztiei, eta beraiek bi ahizpen artean eta anaietako bati egin diote hika. Auzoko lagunekin ere egiten dute. [Ingo Xonau!](#) proiekturako, Oñatiko noka jasotzeko egindako elkarrizketa, bere ahizpa [Mariaxun](#)ekin, Larrañako [Pilar Guridi](#)ekin eta Garibaiko [Esperanza Aiastui](#)ekin batera.

### **Mariaxun Arregi Aranburu (1936)**



Garibai auzoko Koixkar Azpikoa baserrikoa, aita bertakoa zuen eta ama Garagaltza auzoko Etxeberrialdekoa. 7 senidetan gazteena, ahizpa bizkiarekin batera (gainerakoak mutilak). Gurasoek hika egiten zieten guztiei, eta beraiek bi ahizpen artean eta anaietako bati egin diote hika. Auzoko lagunekin ere egiten dute. [Ingo Xonau!](#) proiekturako, Oñatiko noka jasotzeko egindako elkarrizketa, bere ahizpa [Joxepi](#)ekin, Larrañako [Pilar Guridi](#)ekin eta Garibaiko [Esperanza Aiastui](#)ekin batera. Mariaxunek ez du ohiturarik semei hika egiteko.

### **Bixenta Arregi Arregi (1937-2018)**



Murgia auzoko Errotan jaio zen. Aita bertakoa zen eta ama berriz, Fraisoroko umezurtz-etxetik etorritakoa. Berezaio auzoko eskolan ikasi zuen sei urtetik hamabira arte. Gero baserriko eta baso lanetan jardun zuen aitarekin. Hamazazpi urterekin Garai lantegian ekin zion lanean. Bost urtez bertan lan egin eta gero, Joxe Antonio Aranbururekin ezkondu zen eta lau seme-alaba izan zituzten. Ezkondu eta gero, urtebetez Diotxuena tabernan (gaur itxita) egin zuen lan, bere ahizpa Marixabelarekin.

### **Maria Isabel Arregi Arregi *Marixabel* (1931)**



Murgia auzoko Errotan jaio zen. Aita bertakoa zen eta ama berriz, Fraisoroko umezurtz-etxetik etorritakoa. Beneditar mojen eskolan ikasi zuen lau urtetik hamaseira arte, eta gero urtebetez egon zen Donostian sukaldaritza ikasten. Oñatiko Diotxuena taberna (gaur itxita) hartu eta hamabost urtez kudeatu zuen, aldika bere ahizparen batek lagunduta. Triana auzoko Joxe Bitor Urrestarazurekin ezkondu zen eta bost seme-alaba izan zituzten.

### **Maria Pilar Arregi Arregi (1943)**



Murgia auzoko Errotan jaio zen. Aita bertakoa zen eta ama berriz, Fraisoroko umezurtz-etxetik etorritakoa. Berezaio auzoko eskolan ikasi zuen sei urtetik hamalaura arte. Gero Olabarrieta auzoan etxean bakarrik bizi zen izeba batekin egon zen urte pare batez. Ahizpa Marixabelerekin Diotxuena tabernan (gaur itxita) beste urte pare bat lana egin ondoren, Xexarionen (Cesareo Uribarri S.A.) lantegian hasi zen bisagrak egiten. Xexarionetik Loiola txokolate lantegira joan zen, eta hemen hiru urtez jardun eta gero ezkondu egin zen. Espainiako León probintzian jaiotako Tomas Pintorekin ezkondu eta hiru alaba izan zituzten.

### **Franzisko Jabier Arregi Erostarbe (1953)**



Arantzazuko Azpilleta baserrikoa. "Gipuzkoko zuhaitzi motzak" proiekturako egin zitzaion elkarrizketa, [Mikel](#) anaiarekin eta Begirolatza baserriko [Jabier Arana](#)rekin batera.

### **Mertxe Arregi Erostarbe (1953)**



Arantzazu auzoko Azpilleta baserrikoa, ama araoztarra zuen eta aita Azpilletakoa. Zazpi anai-arrebatan azken-aurrekoa, bere bizkiarekin batera. Oñatiko noka jasotzeko egindako elkarrizketa, [Rosa Igartua](#)rekin batera. Etxean jaso zuen hitanoa Mertxek.

### **Mikel Arregi Erostarbe (1947)**



Arantzazuko Azpilleta baserrikoa. "Gipuzkoko zuhaitzi motzak" proiekturako egin zitzaion elkarrizketa, [Jabier](#) anaiarekin eta Begirolatza baserriko [Jabier Arana](#)rekin batera.

### **Maria Arregi Idigoras (1922-2020)**



Olabarrieta auzoko lmittola (lmitola; gaur galduta) baserrian jaio zen 1922an. Aita Arantzazu auzoko Gesaltza baserrikoa zuen, baina berak 8 urte zituela hil zen eta 5 anai-arreba geratu ziren amarekin. 7 urterekin hasi zen Olabarrietako eskolan, baina 10 urterekin umezain joan zen kalera. Han 16 hilabete egin ostean etxera itzuli zen, baina laster Legazpiko Lekuona baserrira joan zen berriz umezain. Urte eta erdi han pasa ostean, etxera itzuli eta bertan geratu zen harik eta 26 urterekin Arantzazu auzoko Arrikurtz baserrira ezkondu zen arte. Bost seme-alaba izan zituen.

### **Ascension Arregi Leturiaga (1916-2019)**



Arantzazu auzoko Azpilleta baserrian jaio zen 1916an. Aita bertakoa zuen eta ama Uribarri auzoko Banastaingua baserrikoa. Hiru urte zituenean aita hil zitzaien, eta hamaseirekin ama; aitita-amamekin hazi ziren. Bost anai-arreba izan arren, bi umetan hil ziren. Arantzazura joaten zen eskolara auzoko beste umeekin batera. 28 urterekin Gesaltza baserrira ezkondu zen eta bertan bizi da orduetik.

### **Felix Arregi Zendoia (1925-2018)**



Oñatiko Kale Zaharrea jaio zen 1925ean. Eskolan lehenbizi agustinoetan ibili zen eta geroago Deustura joan zen salesiarrekin elektrizitatea ikastera. Bost urtez Deustun egon ostean, soldadutzara joatea tokatu zitzaion. Berangon egin zuen soldadutza. Hiru urteren buruan itzuli zen etxera eta berehala hasi zen lanean elektrikari gisa. Gurasoek txokolate fabrika eta janari denda zituzten. Solfeoa ere ikasi zuen mutikotan eta 6-7 urte zituenetik parrokiako koruan abesten du.

### **Maribi Arregi Zufiria (1943)**



Atzeko Kaleko Juanitosa dendan jaio zen. Aita kale bereko Urrutxunean jaio zen. Ama berriz, Zufiriane. Hamar urte arte Benediktina mojen eskolan ikasi ondoren, merkataritza, dekorazio eta joskintza ikasketak egin zituen. Bizi guztia eman du dendari lanean, denetik saltzen. Bittor Perosterenarekin ezkondu eta hiru seme alaba izan zituzten.



### **Karmen Arriaran Erostege (1923-2021)**

Murgia auzoko Estenaga baserrikoa. Olabarriko Felipe Ayastuyrekin ezkondu zen. Fermin Altube frantziskotarrak egin zizkion zenbait elkarrizketa "Oñatiko Murgia auzoa" lanerako. Grabazioetako batean [Bernabe Guridi](#) bizilagunarekin batera azaltzen da.

### **Jone Arriaran Etxeberria (1937)**



Oñatiko Lekunberri auzoan jaioa. Gurasoak baserrikoak ziren, ama Karriuena, eta aita Eztenagakoa (Murgia). 7 seme-alabei hika egin zieten gurasoek, eta anai-arreben artean hika egiten jarraitzen dute. Gaztetxotatik hasi zen lanean: 12 urterekin umezain. Bi alaba eta seme bat izan zituen. [Ingo Xonau](#)! proiekturako, Oñatiko noka jasotzeko egindako elkarrizketa, [Mari Karmen](#) ahizparekin batera.

### **Mari Karmen Arriaran Etxeberria (1935)**



Oñatiko Lekunberri auzoan jaioa. Gurasoak baserrikoak ziren, ama Karriuena, eta aita Eztenagakoa (Murgia). 7 seme-alabei hika egin zieten gurasoek, eta anai-arreben artean hika egiten jarraitzen dute. Mari Karmen Garai lantegian ibili zen lanean, ezkondu aurretik, eta Txaketua tabernan zerbitzen ere jardun zuen. Lau seme ditu. [Ingo Xonau](#)! proiekturako, Oñatiko noka jasotzeko egindako elkarrizketa, [Jone](#) ahizparekin batera.

### **Ziriako Arriaran Txintxurreta (1905-2004)**



Lehengo "Calle Colegio"n (gaurko Aita Madina kalea) jaioa. 7-8 urterekin hasi omen zen lanean eta ez omen zuen eskolarik ikasi 21 urtera arte. Eskolarik ez zuela-eta, 21 urterekin maristetan hasi zen urtebetean zerbait ikasteko asmoz. Hurrengo urtean Gasteizko Seminariora joan zen eta 12 urte egin zituen bertan. Irakasle onak izan zituen, tartean On Joxe Migel Barandiaran eta On Manuel Lekuona. Ikasketak ordaintzeko era guztietako lanak egin behar izaten omen zituen Seminarioan: sukaldean lagundu, gelak garbitu, oheak egin, zapatak garbitu... Azkenik, 1934an apaiztu zen Gasteizen. Arabako Okinara destinatatu zuten hasieran, baina laster Oñatiko Urrusola auzora aldatu zen. Gerraosteko kontuen eraginez, urte batzuk Tolosako Aldaba auzoan pasatu zituen arren, Urrusolara itzuli zen berriz.



**Maria Asun Arzuaga Lasagabaster (1930)**

Oñati irratian elkarrizketa egin zitzaion, Migel Mari Guridirekin batera, "Nagusilan" proiektuari buruzko azalpenak emateko.



**Mari Tere Azkoitia Guridi (1948)**

Araozgo Maiña (Madina) auzoko Azpiko Txiki baserrikoa. 7 senide ziren. Oñatiko noka jasotzeko egindako elkarrizketa, [Maria Angeles Zelaiarekin](#) eta [Jesusa Zumalderekin](#) batera.



**Irati Barrena Bolinaga (1999)**

[Ingo xonau!](#) proiekturako, Oñatiko emakumeen hika jasotzeko egindako elkarrizketa, [Marixol](#) amarekin batera. Amari hika egiteko eskatu dio alabak, ikasi nahi duelako. Elkarrizketaren unean Bilbon bizi zen, eta Kazetaritza ikasten ari zen EHU.

**Pilar Barrena Kortabarria (1922-2014)**

San Anton kalean jaio zen, baina 6 urte zituela Mendiko kalera joan ziren bizitzera. 3 anai-arreba ziren. Aita Torreazoko Munazategi baserrikoa zuen eta ama Zubillaga auzoko Matromaikoa. 11 urtera arte ibili zen eskolan. Goizean eskolara joan eta arratsaldean umezain ibiltzen zen. Gerra amaitu zenean, Soraluzen egon zen neskame. 3 urte egin zituen han eta geroago Garai fabrikari hasi zen lanean. 19 urte egin zituen bertan. Saskigintzan (zestero) ere ibilia da. Senarra oñatiarra zuen, Murgia auzoko Biain (Bixain) baserrikoa.



**Benito Barrena Odriozola (1937)**

Araotz auzoko Otaloraundi baserrian jaioa.

**Pilar Barrena Odriozola (1920-2008)**



Araotz auzoko Otaloraundi baserrian jaioa. Aizkorbe Azpikoa baserriko [Eugenio Zumalderekin](#) ezkondu zen eta bertan bizi izan zen ordutik. Senar-emazteei batera egin zitzaien elkarrizketa.

### **Mari Jose Bastarrika Garate (1952)**



Urretxun jaio zen. Jaiotzako arazo bat du begietan eta umetan hobeto ikusten zuen arren, 17-18 urterekin ikusmena asko jaitsi zitzaion. 1983 inguruan erroldatu zen Oñatin, oñatiar batekin ezkondu ostean, baina hasieran Urretxun pasatzen zuen denbora gehiena, han lan egiten zuen eta. Lehenengo semea jaio zenean Oñatin gelditu ziren. 1993an hasi zen Oñatin ONCEko kupoiak saltzen. Kontzejupetik aldizkarirako egin zitzaion elkarrizketa 1994an.

### **Alaia Beitia Bolinaga (1985)**



Uribarri auzoko Otae-Txiki baserrikoa. Aita bertakoa du eta ama Araozgo Beitia baserrikoa. Umetatik entzun du hika etxean. Guraso biek hika egiten dute senideekin, baina berari zuka egin diote beti. [Marixol Bolinaga](#) lehengusuarekin hika egiten saiatu zen bolada batean. Oñatiko emakumeen hika jaso eta biziberritzeko sortu den [Ingo Xonau!](#) proiektuko kide da Alaia, eta hika praktikatzen eta erabiltzen hasteko gertu dago.

### **Milagros Beitia Lizarazu (1933)**



Garibai auzoko Kastillokua baserrikoa. Eskola bukatu eta 16 urterekin neskame joan zen Letamendi etxera. Ezkondu arte, 22 urte ingurura arte egon zen bertan. "Oñatiko kriaden berbetia" proiekturako egin zitzaion elkarrizketa.

### **Joxe Mari Beitia Ugarte (1940)**

Urrusula auzoko Aialde baserrian (gaur galduta) jaio zen, zortzi anai-arrebatatik gazteena. Ama bertakoa zen eta aita Arantzazu auzoko Kortakogaineko Benta baserritik etorritakoa. Urrusula auzoko eskolan sei urterekin hasi zen, eta hamaika zituela Arantzazuko frantziskotarren ikastetxera joan zen. Aitak etxetik kanpo egiten zuen lan batzuetan, eta anai-arreba zaharrenak morroi edota neskame joanak zirenez, amak eta bi anai-arreba gazteenek egiten zituzten etxeko lanik gehienak. Anaia zaharragoak Arabatik estraperloan ekarritako garia Joxe Marik eramaten zuen astoan kalera saltzeko. 60ko hamarkada hasieran Aialde baserriko etxebizitza biak eta Erostarbekoa utzi egin behar izan zituzten, urak etxeak mugitu zituelako. Frantziskotar ikasketak bukatu eta abitua hartu zuen. Lehenengo meza 24 urterekin eman zuen. 25ekin Koreara joan zen misiolari, eta bertan jardun du azken 45 urteetan, erretore lanetan eta frantziskotar berriak hezten.



### **Juana Beitia Ugarte (1936-2021)**

Urrusula auzoko Aialde baserrian (gaur galduta) jaio zen. Ama bertakoa zen eta aita Arantzazu auzoko Kortakogaineko Benta baserritik etorritakoa. Urrusula auzoko eskolan hasi zen, baina hamaika urterekin Ormaiztegira joan zen, bertan bizi zen ahizparen umeak zaintzera, eta ahizparen tabernan lan egitera. Ormaiztegin eskola partikularrak jaso zituen. Hamasei urterekin etxera itzuli zen aita zaintzera. Ursulabeitti (Urrusulabeitia) baserrira ezkondu zen, etxeko Juan Elorzarekin. Zortzi seme-alaba izan zituzten.



### **Bernabe Belategi Lopez de Egin (1931)**

Olabarrieta auzoko Tiruena baserrian jaio zen. Aita bertakoa zuen; ama, berriz, arabarra zen, Erentxun herrikoa, baina neskame etorri zen Oñatira, artean neskabila zela. Bernabek 7 urte zituela aita hil zitzaien eta ama aitaren anaiarekin ezkondu zen. Hamar urtera arte ibili zen auzoko eskolan, baina tarteka bakarrik joaten zen, baserriko lanak egin behar izaten zituztelako. 10 anai-arreba ziren. Meza-mutil ere ibilia da mutikotan. Basoan aritu zen lanean denbora batez, baina 35 urterekin ULMA lantegian hasi zen lanean.



### **Malen Berakoetxea Hidalgo Mikelaerrero (1912-2001)**

Ordiziarra izatez. Neskabila zela, Oñatiko "Santosena" 1931n Ordizian ireki zuen Loyola txokolate lantegian hasi zen lanean, txokolateak zilarrezko paperean biltzen. 1938an Oñatiko fabrika neska batzuentzat lana zegoela eta Oñatira etorri zen eta bertan lan egin zuen erretiroa hartu arte. Oñatira etorri zenean "Mikelaerrero" renean jarri zen bizitzen eta dendan ere egoten zen. Mikelaerrero mertzeriako [Iñaxi Madinazkoitia](#) rekin batera egin zitzaion elkarrizketa 1994an.

### **Eustaki Bergara Guridi (1917-2016)**

Araotz auzoko Txantonbalduena baserrian jaio zen. Aita bertakoa zen eta ama Oñatiko Landeta kale-baserrikoa. Amaren iritziz, neskek ez zuten eskola beharrik, eta ikatz puskekin sukaldeko zoruan margotzen ikasi zuen Eustakik idazten. Bederatzi urterekin umezain bidali zuten kalera. Geroago Legazpin jarraitu zuen umezaintzan. Donostian lehenengo eta Pasaiko Botero tabernan gero, neskame jardun zuen. Beste araoztar batekin batera arrandegia jarri zuen Oñatin, hasieran Berdura Plazan eta gero Atzeko kalean egon zena. Arrandegia itxi zuenean, lokala Zeziñena ile-apaintzaileari pasatu zion. Bere azken lan urteak Garai lantegiaren Ekonomatoan eman zituen. Pasaian ezagutu zuen Julio Txopitea itsasgizonarekin ezkondu zen. Hiru alaba izan zituzten. Berari bi elkarrizketa egin zitzaizkion, eta "Mahai-ingurua Oñatin 1" grabazioan ere parte hartu zuen.



### **Frantziska Biain Biain (1924-2011)**

Murgia auzoko Jauregi baserrikoa. Aita Jauregikoa zuten eta ama Murgia auzoko Arretxe baserrikoa. Sei ahizpa izan ziren. Fermin Altube frantziskotarrak egin zion elkarrizketa [Luziana](#) ahizparekin batera.

### **Joxe Mari Biain Biain Txoriñekua (1920-2017)**

Kanpantxo kalean jaioa Txoriña kale-baserrian. Aita bertakoa zuen eta ama Murgia auzoko Arretxe baserrikoa. Ospitaleko eskolara joan zen mutikotan; maristekin eta agustindarrekin ere ibili zen. 16 urterekin plantxa lantegian hasi zen lanean. Gerra hasi zenean, soldadu eraman zuten Lizarrara. Gero Ebroko borrokan egon zen, Montejurra tertzioarekin. Kataluniako frontean ere jardun zuen. Ulma kooperatiban ibili zen lanean erretiroa hartu artean.





### **Kontxita Biain Biain (1928)**



Kanpantxon jaioa, aita bertakoa zuen eta ama Murgia auzoko Arretxe baserrikoa. Lau senide ziren; hiru neska eta mutil bat. Oñatiko noka jasotzeko egindako elkarrizketa, [Mari Tere Biain](#) lagun eta auzokidearekin batera. Kontxitak ez zuen hitanoa etxean jaso; lehengusu batekin eta koadrilako lagunekin erabili izan du batez ere. Hala ere, emakumeak hika jardutea baserritarren kontua iruditzen zitzaien sasoi batean.

### **Luziana Biain Biain (1921-2012)**



1921eko maiatzaren 30ean jaio zen, Murgia auzoko Jauregi baserrian. Aita Jauregikoa eta ama Murgia auzoko Arretxe baserrikoak ziren. Sei alaba izan zituzten, Luziana bosgarrena. Sei urterekin plazako eskolan hasi zen, Doña Cervina maistrarekin. Handitxoagoa zela Ospitaleko eskolara pasatu zen eta 14 urtera arte Sor Elisearekin ikasi zuen. Lau urtetan neskame jardun zuen, Oñatiko notario durangarra zenaren etxean. Ahizpa bat Kuban eta beste bat Frantzian hil zitzaion, bizi osoan zehar moja izan eta gero. Ez da inoiz ezkondu. Jauregi baserrian eman du bere bizi osoa.

### **Regino Biain Guridi (1916-2016)**



Kale Zaharrea jaio zen, zazpi anai-arrebatatik zaharrena. Aita bertakoa zen eta ama Torre Auzoko Torre baserrikoa. Unibertsitatean zegoen Maristen eskolan ikasi zuen hamabi urtera arte. Maristek alde egin zutenean, "Instituto de Enseñanza Secundaria" jarri zuten eta bertan ikasi zuen hemezortzi izan zituen arte. Etxean dirurik ez eta "Perito Mercantil" ikasketak bide batez egiteko asmoarekin, boluntario joan zen soldaduskara Donostiara. Soldaduskan zegoela gerra hasi zen, eta "Batallón de Trabajadores"etik pasatuta, lau urte egon zen Oñatira etorri gabe. "Fábrica de Carretillas y mangos de Herramientas" Galdos lantegian hamar urtez, eta "Fábrica de Herramientas Onraita S.A."n beste 32 urtez egin zuen lan administratzaile ardurarekin. Oñatiko Ospitale Zaharrea hasita, Etxaluzekoan jarraitu eta San Martineko Egoitzan bukatuz, administratzaile lanak egin zituen dohainik 36 urtez. Mendizale amorratua, ia jaiero joaten zen Urbiara 85 urte izan zituen arte. Bertan Aita Lasari meza ematen laguntzen zion, eta Perusaroiko elkartearen fundatzaileetako bat izan zen. Juanita Zubiagirre "Pollangua"rekin ezkondu zen eta lau seme-alaba izan zituzten.

### **Mari Tere Biain Iñurritegi (1928)**



Kanpantxon jaioa, ama Olakua baserrikoa zuen eta aita kaletarra. Sei senide ziren, lau mutil eta bi neska. Oñatiko noka jasotzeko egindako elkarrizketa, [Ingo Xonau!](#) proiekturako, [Kontxita Biain](#) lagun eta auzokidearekin batera. Mari Terek etxean jaso zuen hitanoa, baina ez zuen begi onez ikusten hika aritzea, baserritarren kontua iruditzen zitzaiolako.



### **Florentino Biain Kortabarria (1906-2000)**

Murgia auzoko Arretxe baserrikoa. Fermin Altubek grabazioa egin zion auzoaren berri jakin asmoz. Bere seme Domingo ere azaltzen da grabazioan.

### **Juana Biain Kortabarria *Poparretxekua* (1920-2008)**

Garai bateko "Auzotxo"-ko, (gaur Marzelino Zelaia kalea), Poparretxe kale-baserria izandakoan jaio zen. Murgia auzoko Elorrixa (Elorriaga) baserriko Fernando Urrutia ezkondu zen Poparretxera Juanarekin. Juanak gaztetan Oñatiko TUDOR pila lantegian egin zuen lan, harik eta lantegi hori Zaragozara eraman zuten arte. GARAI lantegian ibili zen gero, lehenengo umea izan zuen arte. Fermin Altubek egin zion grabazioa Murgia auzoaren berri jasotzeko.

### **Felix Biain Urzelai (1932-2005)**

Murgia auzoko Bustinzurieta baserrikoa. Fermin Altube frantziskotarrak egin zion elkarrizketa "Oñatiko Murgia auzoa" libururako.

### **Jabier Bikuña Urzelai (1935-2022)**



Garagaltza auzoko Albarditzaga (Albarritza) baserrian jaio zen 1935ean. 4 anai-arreba izan ziren. Ama Albarditzaga bertakoa zuen eta aita Txopekoa. Aita baserriko arotza zen, baina Arrasateko zerrajeran ere ibili zen lanean. Aitajauna hargina zen eta harengatik hasi zen bera ere lanbide horretan. Arantzazun igeltsero lanetan ibili ostean, hargin lanetan hasi zen aitonak bultzatuta. Parrokian lan ugari egin zituzten eta portugaldar bat izan zuen irakasle. Herritik kanpora ere hainbat lan egin zituen eta ondo ezagutzen zituen inguruetakako harrobiak. Emaztea ere oñatiarra, Antzuelas baserrikoa.

### **Antonio Billar Erauzkin (1927)**

Santxolopetegi auzoko Santurukua baserrikoa.

### **Marixol Bolinaga Erostarbe (1962)**



Araozgo Beitti baserrikoa, aita bertakoa zuen eta ama ere auzokoa, Etxatxokoa ([Frantziska](#)). Bi mutil eta neska bat ziren, baina mutiletako bat umetan hil zen. Marixoli gurasoek ez zioten hika egin. Auzoan ikasi zuen, lagunekin. [Ingo xonau!](#) proiekturako, Oñatiko emakumeen hika jasotzeko egindako elkarrizketa, [Irati](#) alabarekin batera. Amari hika egiteko eskatu dio Iratik. Bi alaba ditu.

### **Jerardo Elortza Egaña (1944)**



Oñatiko Kale Zaharrea jaio zen. Aita Torreauzoko Lazarraga (Elazarra) baserrikoa zen eta ama, berriz, Garibai auzoko Dolaetxe baserrikoa. Aleman filologia ikasi zuen Deustuko eta Münster-eko (Alemania) unibertsitateetan. Bergarako Aranzadi ikastolan hiru urtez irakasle jardun eta gero UNEDeko Euskal Kultur departamentuan beste 19 urtez jardun zuen. Eusko Jaurlaritzako Kultura sailean urtebetez lan egin ostean, Oñatiko Mondragon Unibertsitatean irakasle izan zen erretiroa hartu zuen arte. **Bidegileak** liburuxken bilduma zuzendu du. Euskaltzale eta historiazale amorratua da Jerardo. Oñatiko Teresa Letamendirekin ezkondu zen eta seme-alaba bi izan zituzten. Hainbat elkarrizketa egin zaizkio, gai askori buruz hitz egin du.

### **Elias Elortza Ugarte (1945)**



Olabarrieta auzoko Auntzerreka baserrikoa. Bere zaletasun edo espezialitateetako bat frutagintza izanik, horri buruzko azalpen ugari eman zituen 1995ean "Kontzejupetik" aldizkarirako egin zitzaion elkarrizketan.

**Francisco Elorza Igartua *Patxitxo*** (1911-2001)



Murgia auzoko Santakurtz errotan jaioa. 28 urterekin Arrasaten hasi zen lanean eraikuntza-lanetan eta gero Zubillagan hasi zen. Ikasle garaian sortu omen zitzaion argazkilaritzarako zaletasuna, Ixidoro fraidea argazkiak errebelatzen ikusita. Argazki kamera erosi eta bere kabuz ikasi zuen lanbidea. Urte batzuetan Zubillagan forjan lan egiten zuen egunez eta iluntzeetan eta asteburuetan argazkilari lanak egiten zituen. Gero argazkilaritzarako lokala ere izan zuen.



**Felisa Enparantza Galdos *Feliatxo*** (1911-1996)

1911n jaio zen Felisa Oñatin. Euskararen alde lanean gogotsu jardundakoa.



**Itziar Erle Lizarralde** (1929)

Kanpantxo kaleko Erlena kale-baserrikoa.

**Frantziska Erostarbe Aginagalde** (1931)



Araozgo Etxetxo baserrian jaioa. 3 mutil eta 4 neska ziren, eta bera azkenaurrekoa. Aratzurte Beittikora ezkondu zen. Oñatiko noka jasotzeko egindako elkarrizketa, auzoko beste hiru emakumerekin batera: [Bittori Goitia](#), [Enkarna Grisaleña](#) eta [Xeferi Erostarbe](#) (lehengusiña). Bittori Oñatira bizitzera joan zen aspaldi, eta harekin hika egiteko ohitura galdu egin zuten.

**Xeferi Erostarbe Lazkano** (1933)



Araotzen jaioa, 7 senidetan gazteena. Agerre Garaikua baserrira ezkondu zen. Oñatiko noka jasotzeko egindako elkarrizketa, auzoko beste hiru emakumerekin batera: [Bittori Goitia](#), [Enkarna Grisaleña](#) eta [Frantziska Erostarbe](#). Bittori aspaldi joan zen Oñatira bizitzera, eta elkarrekin hika egiteko ohitura galdu egin zuten.

### **Lorenza Erostarbe Leibar (1901-1995)**

Urrexolako Erostarbe baserrian jaio zen. Hogeita zazpi urte zituela, Olateko argindar-etxean lanean ziharduen Olabarrietako Xabalo (Zabalena) baserriko Feliziano Zabaletarekin ezkondu zen Olateko etxe batera, eta bertan bizi izan ziren hirurogeiko hamarkada arte. Ondoren, kalera etorri eta Kale Zaharrean bizi izan ziren seme baten etxean, hil arte. Guztira sei seme-alaba izan zituzten. Hamalau urte zituenean, Bitoriara joan zen erdaraz ikastera etxeko astoa lagun hartuta. Han zenbait lan egin behar izan zituen bizimodua ateratzeko, upelak garbitzea, adibidez, eta hiriburutik etxerako joan-etorriak aprobetxatzen zituen astoarekin jeneroa ekartzeko eta salerosketan diru apur bat irabazteko. Sukaldari bikaina izan zen, ogigilea eta talogilea, etxean eta auzoan, eta joskina ere bai. Langintza horretan etxerik etxe ibiltzen zen josteko makina bizkarrean hartuta. Joko zalea izan zen, briska zalea, batez ere, oso ona, gainera. Laburbilduz esango dugu, emakume argia, gogorra, ausarta eta nortasun handikoa izan zela.



### **Jon Etxaniz Ugarte (1926-2017)**

Kale Zaharreko Aitzekua etxekoa.



### **Leire Etxeberria Elorza (1980)**

Oñatin jaioa, herrian bertan egin zituen oinarrizko ikasketak eta ondoren Informatikako Ingeniaritza ikasi zuen Arrasaten. Doktorego tesia egin ostean, Mondragon Unibertsitateko irakaslea eta ikerlaria da. Bere denbora librean hainbat GKEtan hartzen du parte. Arrasateko AMS-Mundu Solidarioa Helburu GKEko boluntarioa da eta baita Hotz Oñati taldekoa ere. Birritan egon da Grezian errefuxiatu kanpalekuetan laguntzen. GKEei buruzko elkarrizketa egin diogu.



### **Pili Etxeberria Kortabarría (1960)**

Olabarrieta auzoko Etxeberri baserrikoa. Aita bertakoa zuen eta ama auzoko beste baserri batekoa. Etxean jaso zuen hika, eta anai-arrebekin hika egiten du; baita lagun batzuekin ere. Ilobekin, ordea, ez. Oñatiko noka jasotzeko egindako elkarrizketa, [Kontxi Martinandiarena](#) eta [Marilu Orueta](#) lagunekin batera.



### **Bitoriano Etxezarreta Galdos (1925-2014)**



Torrauzoko Etxeaundi baserrian jaio zen 1925ean. Etxera ezkondu zen eta 3-4 urte egin zituen bertan bizitzen 29 urtera arte, baina gero kalera jaitsi ziren bizitzera. Bakuetik aurrera, Aretxabaletako mugan, Iturrixar izeneko parajea iturria berritu zuen eta harekin zerikusia zuten kontuak kontatu zituen 1996an "Kontzejupetik" aldizkarirako egin zitzaion elkarrizketan. Gerora, 2008. urtean, Deba Eskualdeko ahozko ondarea jasotzeko proiekturako ere beste elkarrizketa bat egin zitzaion.

### **Joakin Ezpeleta Agirrebengoa (1934)**



Zañartu auzoko Zelakogoikoa baserrian jaio zen 1934an. Aita bertakoa zuen eta ama auzo bereko Etxezuri baserrikoa. Sei anai-arreba ziren. Eskolan Zañartu auzoan bertan ibili zen zazpi urterekin hasi eta bederatzia urtera arte; geroago, maristetan ere ibili zen. Eskola utzi ondoren, 17 urtera arte, aita hil zitzaian arte, egur-lanean ibili zen aitarekin. 1966an, ezkondu zenean, Zelaberri etxera aldatu ziren bizitzera eta bertan bizi da orduetik.

### **Eli Galarza Zulueta (1931-2022)**



Aita Antzuolakoa zuen. Mediku gisa joan zen Oñatira eta bertan ezkondu zen Mirenen amarekin. Zortzi anai-arreba izan ziren. "Gerra Gogoratu Guran" proiekturako egin zitzaion elkarrizketa, gerrako kontuak jasotzeko.

### **Miren Galarza Zulueta (1918-2007)**



Aita Antzuolakoa zuen. Mediku gisa joan zen Oñatira eta bertan ezkondu zen Mirenen amarekin. Zortzi anai-arreba izan ziren. Mirenek 1936an amaitu zuen batxillerra eta gerraostean Madrilera joan zen botikari ikastera. 1948an hasi zen botikari lanetan, ikasketak amaitu ostean. Lehenengo Zestoan ibili zen eta gero Zegaman ere egin zituen hilabete batzuk. Azkenik, Oñatin botika hartzeko aukera izan zuen.



### **Juanito Galdos Guridi Migelena (1935-2010)**

Garibai auzoko "Migelen Haundixa" baserrikoa. "Karretero" izandakoa. Lanbide berean jardundako [Migel Moiu](#)arekin batera egin zitzaion elkarrizketa 1994an.

### **Segundo Galfarsoro Arralde (1928-2019)**



Arantzazu kaleko 13. zenbakian jaio zen. Santa Lutzian ibili zen lehenbizi eskolan eta gero Santamañako eskola munizipalean. "Gerra gogoratu guran" proiekturako egin zitzaion elkarrizketa, gerrako kontuak jasotzeko.

### **Carmen Garitaonandia Lizarralde (1928-2016)**



Bergarako Elorregi auzoko Elorregigoiti baserrian jaio zen 1928an. Aita bertakoa zuen eta ama auzo bereko Zabaldo baserrikoa. 14 anai-arrebatatik seigarrena izanda, oso bizimodu gogorra ezagutu izan du. 7 urte ingururekin hasi zen auzoko eskolan. 13 urterekin Segurara joan zen neskame okindegi batera. Handik Bergarako Ugarte baserrira joan zen neskame eta 17 urte zituela Oñatiko Murgia auzoko Biain baserrira. 21 urterekin auzo bereko Azkarreta baserrira ezkondu eta 8 seme-alaba izan zituen.

### **Pruden Gartzia Isasti (1964)**



Historian doktorea da, UEUko zuzendaritza eta liburugintza batzordeko kidea eta Euskaltzaindiaren Azkue Liburutegiko eta Artxiboko zuzendaria da.

### **Bittori Goitia Larrañaga (1928)**



Araotz auzoko Gerneta Etxeberri baserrikoa, aita bertakoa zuen eta ama ere auzokoa, Boliño baserrikoa (nahiz eta gurasoak Aizpurutxokoak zituen). Zortzi anai-arrebetan bosgarrena. Neskame lanetara bidali zuten gaztetxotan. Oñatiko kalera ezkondu zen, eta lau seme-alaba izan zituzten. Oñatiko noka jasotzeko egindako elkarrizketa, auzoko beste hiru emakumerekin batera: [Enkarna Grisaleña](#), [Zeferina Erostarbe](#) eta [Frantziska Erostarbe](#). Bittori aspaldi joan zen Oñatira bizitzera, eta elkarrekin hika egiteko ohitura galdu egin zuten.

### **Manuel Goitia Orueta (1922-2013)**



Araotz auzoko Gerneta baserrian jaio zen 1922an. Aita bertakoa zuen eta ama auzo berekoa. Zazpi anai-arreba ziren. Zazpi urterekin auzoko eskolan hasi zen. Gerora Gasteizera joan zen gaztelania ikastera eta sukaldari-laguntzaile lanetan aritu zen bertan. Soldadutzan eskiatzen eta eskalatzen ibilia da, Auritz inguruan lehenbizi, geroago Gironan, eta azkenik Bera inguruan. Bizi osoa baserrian egin du eta mutikotatik artzain ibilia da, batez ere Urbia eta Degurixa inguruan. Artzaintzari buruzko hainbat kontu kontatu zituen.

### **Enkarna Grisaleña Gil (1928-2022)**



Zizurkilen jaioa, Ugaztegi baserrian (Aretxabaleta) hazi zuten. Aita bertakoa zen eta ama Zumalde baserrikoa (Araotz). Bost senidetan gazteena izan zen Enkarna. Araozgo Txomenena baserrira ezkondu zen. Lau seme-alaba izan zituzten. Bi zaharrenei zu esaten die eta bi gazteenei, berriz, hi. Oñatiko noka jasotzeko egindako elkarrizketa, auzoko beste hiru emakumerekin batera: [Bittori Goitia](#), [Xeferi Erostarbe](#) eta [Frantziska Erostarbe](#).

### **Juana Guridi Agirre (1917-2012)**



Araotz auzoko Araotzurrutigoitikoa baserrian jaio zen 1917an eta bertan bizi izan zen. Bederatzi seme-alaba izan zituen.



### **Maria Guridi Aiastui (1925-2014)**

Larraña auzoko Antzuelasbeiti baserrian jaioa.

### **Pilar Guridi Aiastui (1935)**



Larraña auzoko Antzuelas Beitti baserrian jaioa. Aita bertakoa zuen eta ama, berriz, Koixkar Garaikoa baserrikoa (Garibai). 9 senidetatik 8 irten ziren aurrera, eta bera gazteena da. 4 anai-arreba gazteenek hika egiten dute beraien artean. Seme bat eta bi alaba izan zituen. [Ingo Xonau!](#) proiekturako, Oñatiko noka jasotzeko egindako elkarrizketa, Garibaiko [Joxepi](#) eta [Mariaxun](#) Arregi ahizpekin eta [Esperanza Aiastui](#)rekin batera.



### **Rosario Guridi Aranburu Txolo** (1927-2006)

### **Enrike Guridi Egaña** (1931-2009)



Torrauzo -edo San Pedroko- Torreko baserrian jaio zen 1931n. Gurasoak ere bertakoak zituen, biak oñatiarrak. Mojekin ibili zen lehenbizi eskolan, auzoan bertan, eta gerora maristekin, 14 urte ingurura arte. Handik aurrera hainbat lanbide probatu zituen: basoan pinuak botatzen, ikazkintzan, eskopetak egiten eta, amaieran, forjan. "Forjas de Zubillagan" lan egin zuen lehenbizi, baina hura Azkoitira joan zenean, beren kontura ipini zuten lantegia. Hasieran "Gaitu" jarri zioten izena eta geroago "Enara" izena hartu zuen.

### **Mirari Guridi Grisaleña** (1955)



Araozgo Txomena baserrikoa. Aita bertakoa zen eta ama, [Enkarna](#), Ugaztegi baserrikoa. Hiru ahizpa dira. Gurasoek bi zaharrenei hika egiten zieten, eta gazteenari, berriz, zuka. Ahizpen artean zuka egiten dute. Auzoko lagunekin, berriz, hika. [Ingo Xonau!](#) proiekturako, Oñatiko emakumeen hitanoa jasotzeko egindako elkarrizketa, [Agurtzane](#) eta [Koldo](#) Zumalde anai-arrebekin batera.

### **Migel Mari Guridi Guridi Txome** (1942)



Araotz auzoko Txomena baserrikoa. Musikaria. Oñati irratian elkarrizketa egin zitzaion Maria Asun Arzuagarekin batera, "Nagusilan" proiektuari buruzko azalpenak emateko.

### **Plaxido Guridi Guridi Torrekua** (1908-1997)



Torrauzo -edo San Pedroko- Torreko semea. 12 urtera arte ibili zen eskolan, lehenbizi San Pedron eta geroago Madalenakuan eta Zañartun (mojekin). Lanbide ugari probatu izan ditu. Mutikotan baserrian lan egin behar izaten zuen eta otarrandiak egiten ere ikasi zuen anaiarekin. Eibarreko armagintzan ere jardun zuen lanean 6 urtean; armak etxean egin eta gero, Eibarrera bidaltzen zituzten. Baina 1936 inguruan lana gutxitu egin zen eta Zubillagako Altunarenera joan zen lanera. 33 urte egin zituen bertan. Lehenagoko bizimoduaren gaineko azalpen ugari eman zituen 1993an "Kontzejupetik" aldizkarirako egin zitzaion elkarrizketan.

### **Bernabe Guridi Urkia (1925-2008)**

Murgia auzoko Estenaga baserrikoa. Teilerian lan egindakoa. Fermin Altube frantziskotarrak egin zizkion elkarrizketak. Elkarrizketetako batean [Karmen Arriaran](#) auzokoarekin batera azaltzen da.

### **Inazio Guridi Zumalde (1919-2010)**



Larraña auzoko Urikoazpikoa baserrian jaio zen 1919an eta bertan bizi izan da beti. Ama Gesaltzakoa zuen eta aita bertakoa. Kalera joaten zen eskolara, lehenbizi maristetara eta gero agustinoetara. Aitarekin ikasitako gurdizain lanean ibili izan da beti. Oñatin egin izan den idi-proba lehiaketa bakarra berak irabazi zuen, 1952 inguruan. Olabarrieta auzoko Etxebarrikoa du emaztea eta seme bat izan dute.

### **Jose Mari Ibabe Elortza (1940)**

Araotz auzoko "Agerre Garaikua" baserrikoa. 9 anai-arreba ziren. 14 urtera arte ibili zen eskolan, baserriko lanekin tartekatuz, eta 14 urterekin Eskola Profesionalera joan zen. Gasteizen bizi da urte askoan, baina ez du galdu harremanik Oñatirekin.

### **Juanito Ibarrondo Urzelai (1921-2012)**



Oñatiko eskiatzaileen aitzindaria 40 eta 50eko hamarkadetan. Gundel familiak Oñatin utzitako eskiekin eta beraiek egindako trineoekin ibiltzen ziren herriko zelaietan mutikotan. Gero, soldadu zegoela, "Esqui de descenso" liburua erosi omen zuen Donostian eta, hura hartuta, bere kontura eskiatzen ikasten ibili zen beste herritar batzuekin batera. 1953an Otzaurten jokatzeko eski-txapelketa ikustera joan ziren eta slalom-eko frogan parte harrarazi zieten. Ustekabean Navacerradan jokatzeko Espainiako txapelketarako aukeratu zituzten Pedro Maiztegi eta biak. Handik aurrera txapelketa gehiagotan parte hartu zuen eta baita batzuk irabazi ere. Horretaz gain, Oñatiko Musika bandaren euskarri nagusienetako bat izan zen Juanito. Bederatzi urteko mutil koskorra zela hasi zen solfeoa ikasten Antonio Ibarrondorekin, eta 77 urtez jo izan zuen klarinetea musika bandan.

### **Pako Idigoras Guridi Artxubi** (1932)



Larraña auzoko Antonena baserrian jaio zen, bederatzi anai-arrebatatik gazteenaren aurrekoa. Aita bertakoa zen eta ama Garagartza auzoko Urrutxu baserrietik etorritakoa. Ospitaleko eskolan hasi zen ikasten. Gero Santa Marinakora eta handik Unibertsitateko Maristen eskolara joan zen eta bertan bukatu zituen eskolok. Anaiarik zaharrena gerran galdu zuen. Beste anaia bat agustindar joan zen, eta arreba bat moja. 1945. urtean aitak eta koinatuak zerrategi bat ireki zuten Artxubi baserrian, eta bertan egin zuen lan 30 bat urtez Pakok. Zerrategiko lanei eta zuhaitzak botatzeari buruzko hainbat azalpen ematen ditu. Auzoan gertatutakoak, galdutako baserriak, Oñatiko uztargileak, Olabarrietako "Tierra Santa", Oñatiko zerrategiak, Artxubiko eta Oñatiko sagardotegiak, Brinkola eta Udanako tabernak, amerikanoen lanak eta beste hainbat konturen inguruan egiten du berba Pakok. Hika dihardu pasarte batzuetan.

### **Markel Igartua Amestoi** (1912-1997)



Ama nafarra zuen. Oñatiko San Anton klaean jaioa eta bertara ezkondua Jesusa Altuberekin. Seme-alaba bi izan zituzten. Oñatiko Zubillaga auzoko Forjas lantegian ibili zen jubilatuta arte. Abertzalea, Oñatin Frente Popularrarekin batera matxinoen kontra sortutako batzordean parte hartu zuen eta Eusko Gudarosteako batailoi bateko teniente ere izan zen.

### **Felix Igartua Iarza** (1916-2005)

Olabarrieta auzoko Arostegi baserrian jaio eta bizi izan zen Felix.

### **Bittori Igartua Igartua (1919-2016)**

Uribarri auzoko Sagastizabal baserrian jaio zen, bederatzai anai-arrebatatik laugarrena. Aita etxekoa zen eta ama, berriz, Larraña auzoko Elordui baseritik etorritakoa. Auzoko eskolan ikasi zuen, lau urterekin hasi eta hamar izan zituen arte. Gasteizera bidali zuten neskame hamar urterekin. Hiru urte bertan egin ondoren, Legazpiko Makatzaga baserrian jardun zuen neskame beste urtebete. Gero beste hiru urtez Oñatiko Ginea palazioan aritu zen. Aldi batez etxean egon eta gero, frantsesa ikastera joan zen Bordele ondoko Langon herrira. Handik Parisera joan zen judu familia baten neskame. Parisen estetizista ikasi zuen. Ahizpa gazteena ile-apaintzailea zuen eta harekin batera ile-apaindegi eta estetika jarri zuen Kale Berrian; mota hartako lehena izan zena Oñatin. Bertatik hartu zuen erretiroa. Bidaiatzea eta irakurtzea maite ditu. Berari elkarrizketa bat egin zitzaion, eta "[Mahai-ingurua Oñatin 1](#)" grabazioan ere parte hartu zuen.



### **Roman Igartua Irizar (1913-1996)**

Olabarrieta auzoko Igartuenea baserrian jaioa. Baserrian taberna zaharra izan zuten. Txirrindularia izan zen Roman. 1930etik aurrera "C.D. Oñate" izeneko taldean korritzen zuen eta sariak ere irabazi zituen, esaterako, Antzuolan 1932an, 1933an eta 1934an. Beste hainbat lasterketatan ere parte hartu izan du, hala nola, Bilboko Santo Domingorako igoeran. Lanari dagokionez, "kamiñero" lanetan ibili zen Zumarraga inguruan. Gerra ostean inon ez zegoen lanik eta 1940an bizikleten alokairua jarri zuen Kale Zaharrea. Beste lan batzuetan ere ibili zen: postari eta saltzaile lanetan, adibidez. Bere ekintza gogoangarriena bizikletaren piezekin kotxea egitea izan zen. Horiek eta beste hainbat kontu azaldu zituen 1994an "Kontzejupetik" aldizkarirako egin zitzaion elkarrizketan.



### **Pedro Igartua Ugarte (1920-2019)**

Uribarri auzoko Azkarraga Haundi baserrikoa. Karegina; karegintzaren inguruko azalpenak eman zituen egindako elkarrizketan.



### **Rosa Igartua Urkia Ros (1952)**



Uribarri auzoko Sagastizabal baserrikoa. Aita bertakoa zuen eta ama, berriz, Ugaztegiakoa. 3 anai-arrebatan gazteena. Sua bitxidendaren arduraduna da, dendaria. Oñatiko noka jasotzeko egindako elkarrizketa, [Mertxe Arregi](#) dendariarekin batera. Hitanoa ez zuen etxean jaso: gurasoek ez zioten hika egiten eta anai-arrebekin ere ez du egin izan.

### **Eli Igarzabal Erostege (1947)**



Zubillagako Arotzena baserrikoa, aita bertakoa zuen eta ama Kortazargoa (Zubillaga). Hiru senidetan zaharrena. Oñatiko noka jasotzeko egindako elkarrizketa, [Sara](#) eta [Mila](#) Martinez de Zuazorekin eta [Mariaxun Villarrekin](#) batera. Guraso biek hika egiten zioten. Senarrarekin ere hika egiten du. Seme-alabekin ez. Hernanin bizi da, eta hango hika ere badarabil. Mariaxunek eta biek Zubillagarari buruzko liburua plazaratu zuten: "Antxinako Zubillagari begirada bat".

### **Benigno Iñarra Lizarralde (1915-1993)**



Bergaran jaio zen 1915ean. 12 urterekin Saturrarango Elizbarrutiko Seminariora joan zen eta urte batzuk geroago Gasteizkora. Gerra Zibilera joan behar izanagatik, hiru urtez ikasketak eten ondoren, azkenik, 1943an apaiztu zen. Beste herri batzuetako apaiz izan ostean, 1949an Oñatiko Parrokiara iritsi zen eta 43 urte egin zituen bertan. On Jose Maria Agirrebalzategi eta On Ziriako Arriaran abade oñatiarren ibilerak kontatu zituen 1992an egindako grabazio honetan.



### **Xabier Infante Borinaga Hartza (1958)**

Gasteizen jaioa. Azkeneko hogeita hamar urtetan Oñatiko udal kiroldegiko sorosle eta Aloña Mendi kirol elkarteko igeriketa saileko entrenatzaile.

### **Karmen Iñurritegi Altzelai (1936)**



Lekunberri auzoko (Triana bezala ere ezaguna) Portalekua etxekoa. Aita bertakoa zuen (haren gurasoak Olarangoak ziren arren) eta ama Garibai auzoko Juliangoa baserrikoa. Hiru ahizpa eta mutil bat ziren, baina mutila umetan hil zen. Hiru ahizpatan bigarrena da. Oñatiko noka jasotzeko egindako elkarrizketa, [Nati Altube](#)rekin batera. Gurasoek hika egiten zioten Natiri eta ahizpekin hika egin izan du beti; baita auzoko askorekin ere.

### **Bixente Inza Iñurritegi (1916-2010)**



Murgia auzoko Murguzur baserrian jaioa. Jose Miguel Inza eta Sabina Francisca Iñurritegiren bost seme-alabetatik hirugarrena. Murgiko Jauregi baserriko Andresa Biainekin ezkondu eta lau seme-alabaren aita. Onraitia forjako enpresan lan egin zuen; ogibidea Bidaurretako komentuko sakristau lanarekin batera eroan zuen. Fermin Altubek egin zion grabazioa Murgia auzoaren berri jasotzeko.



### **Juana Inza Iñurritegi (1911-2006)**

Oñatiko Murguzur baserrian jaioa, Murgia auzoan, eta bertan bizi izandakoa hil arte. Ogibidez joskina. Lana egin zuen Oñati guztian zehar, etxez etxe ibilita.

### **Mari Karmen Inza Iñurritegi (1953)**



Murgia auzoko Murguzur baserrikoa. Aita bertakoa zuen eta ama, berriz, Olakua auzoko baserri batekoa. Bost anai-arrebetan laugarrena. Oñatiko noka jasotzeko egindako elkarrizketa, auzoko [Marije](#) eta [Beatriz](#) Ugarte ahizpekin batera. Karmenek auzoko lagunekin ikasi zuen hika egiten, ez etxean.

### **Joxe Inza Leturiaga (1926)**



Murgia auzoko "Bixain Urrutia" baserrian jaio zen, sei anai-arrebatatik bigarrena. Aita bertakoa zen, eta ama, berriz, Araotz auzoko Zeziña (gaur galduta) baserrik etorritakoa. Olabarrietako eskolan ikasi zuen, eta gero negu batez don Jose Luis abadearen eskolan ibili zen, Kale Zaharrear. Francoren tropek Teruel hartu zutenean Oñatin egin ziren ospakizunak gogoratzen ditu, bera eskolan zebilela. Olabarrietako Aiaitui eta Erretxingua zerrategientzako egin zuen lan soldaduskara joan zen arte. Basoan lan asko egindakoa da; zuhaitzak botatzen eta idiekin zerrategietara garraiatzen. Zumarragako tren geltokian ikatza eta egurra bagoietan kargatzen ere jardun zuen. Bixainen eman du bere bizia, ganadua eta behorrak zaintzen.

### **Miren Iraola Billar Txapa (1920-2012)**



Eibarren jaio zen, ama hangoa zelako, baina Oñatin bizi izan da beti. Lehenengo, Kale Zaharrear eta gero Moyua kalean. Hiru senide ziren. Aita tornularia zen, eta etxean negozioa ere jarri zuten: El Leon garagardoak partitzen zituzten; sifoiak eta gaseosa ere egiten zuten. Umetan poxpolinetan ibili zen Miren, Batzokiko dantza taldean. Ospitaleko eskolara joaten zen, mojetara. Gerra hasi zenean, ahizpak eta biek Lekeitiora egin zuten ihes. "Habana" ontzian Erresuma Batua eraman zituzten gero. Bi urtetik gora egin zuten ama eta anaia ikusi gabe. Aita kartzelan egon zen. Josten ikasi zuen Mirenek; etxeko negozioan ere jardun zuen. Arrasateko batekin ezkondu zen, eta hiru seme-alaba izan zituzten.

### **Pili Irazabal Gorosabel (1953)**



Larraña auzoko Irazabal Haundi baserrikoa. Aita bertakoa zuen eta ama, berriz, Bergarakoa (San Prudentzio auzokoa). 11 senidetan 9.a. Oñatiko noka jasotzeko egindako elkarrizketa, Torreausoko [Beatriz Irizarrekin](#) batera. Etxean jaso zuen hitanoa, eta anai-arreba guztiekin egiten du hika.

### **Beatriz Irizar Elortza (1948)**



Torreausoko Elazarra baserrikoa. Ama bertakoa zuen eta aita Olabarrieta auzoko Aittape baserrikoa. Bost senidetan 3.a, eta neska bakarra. Oñatiko noka jasotzeko egindako elkarrizketa, [Pili Irazabalekin](#) batera. Hika egiteko ohitura dauka, baina ez du etxean jaso, eta ez du anaiekin hika egin izan.

### **Jesus Irizar Etxezarreta Txutxin (1949)**



Dantzaria. 60. hamarkadaren erdialdera hasi zen Jesus Irizar "Txutxin" dantzan. Aita ere dantzaria zuen. Jendaurreko lehen agerraldia Lazkaon egin zuen. Hasieran, Oñatiko dantzak soilik egiten zituen arren, euskal folkloeari dagozkion beste batzuk ikasi zituen Eskoriatzan eta Eibarren, haurrei erakusteko asmoz. Eta horretan eman du ia bizi osoa. Oñatz Dantza Taldearen sortzaile eta bultzatzailea.

### **Pedro Irizar Guridi (1916-2016)**



Zubillaga auzoko Martelopezkua ("Martezkua") baserrian jaioa. 8 anai-arreba ziren. Madalenako (Santsolopetegi auzoa) eskolan ibili zen lehenbizi, baina 8 urterekin Antzuelas Beittira joan zen morroi, osabarenera, eta Sarramendiko eskolan ibili zen. 12 urterekin etxera itzuli eta beste urtebete egin zuen Madalenako eskolan. 14 urterekin zerrategian hasi zen lanean eta bertan jardun zuen soldadutzara joan arte 20 urte zituela. Gerra ondoren Zubillagan hasi zen lanean eta denborarekin bazkide batzuen artean zerrategia erosi zuten. Handik zotz-fabrikara pasa ziren gero. Emaztea ere oñatiarra du, Olabarrieta auzokoa.

### **Maidar Irizar Kortabarría (1975)**



Uribarri auzoko Gorordo baserrikoa, ama bertakoa du eta aita Antzuolakoa. Hiru anai-arreba dira. Euskal Filologia ikasi zuen, Gasteizen, eta bertan bizi da. Oñatiko noka jasotzeko egindako elkarrizketa, [Ingo Xonau!](#) proiekturako. Maidarrek etxean jaso du hitanoa: aita egiten dio hika, antzuolarrez; amak, ordea, ez. Ahizparekin eta anaiarekin ez du egiten. Bere kabuz hasi zen Oñatiko hitanoa erabiltzen, lagun solteekin. Ingo Xonau! proiektuko kidea da.



### **Pilar Irizar Markuleta (1937)**

Olabarrieta auzoko "Aittape" baserrikoa. Bizente Arzelus medikuaren etxean neskame egon zen 1952tik 1955era bitartean. "Oñatiko kriaden berbetia" proiekturako egin zitzaion elkarrizketa.



### **Martin Jauregialtzo Arriaran (1919-2002)**



Oñatiko Mendiko kalean jaio zen 1919an. Banastagin familiakoa. Kalean jaioa izan arren, bazituzten lur-sailak etxe inguruan. 12 urtera arte ibili zen eskolan, lehenengo Juan Moreno maisuarekin eta gero agustinoetan. Eskolan zebilen artean ere aitari laguntzen zion banastak egiten, baina eskola utzi eta gero lanbide horretan jardun zuen buru-belarri 38 urtera arte. Banastagintzatik diru gutxi irabazten zuenez eta ezkontzeko asmoa ere bazuenez, fabrikan hasi zen lanean 38 urterekin. Handik 7 urtera Garaiñeko ekonomatuan hasi zen lanean eta 20 urtez jardun zuen bertan, erretiroa hartu arte.

### **Migel Jauregialtzo Arriaran (1922-2020)**



Mendiko kalean jaio zen 1922an. Eskolan lehenengo ospitalean ibili zen eta gero agustinoetan. Eskolatik irtendakoan, Garagaltza baserrira joan zen morroi, eta hiru urte egin zituen bertan. Hamalau urte bete barik zituela, Zubillagako Altuna Hnos lantegian hasi zen lanean, hango forjan. Soldadutza Afrikan egin zuen eta hiru urtez egon behar izan zuen bertan. Handik itzultitakoan, Altunarenean jarraitu zuen 1966ra arte, hau da, hogeita hamar urte egin zituen han, eta, urte horretan, Ulma lantegira aldatu eta bertan jarraitu zuen jubilatuta arte. Otarregile edo banastagin familiakoa da eta bera ere aritu izan da lan horretan.

### **Paulina Kernstock Biain Alemanena (1937)**



Alemanian jaio zen Paulina, Nuremberg hirian. Aita alemaniarra zuen eta ama, berriz, oñatiarra. Aita gaztetan etorri zen Oñatira beste bi alemaniarrekin batera eta bertan geratu zen Paulinaren ama ezagutu ostean. Paulinaren anaia zaharrena jaiota zegoela, Alemaniara joan ziren bizi izatera, 36ko gerra garaian. Urte gutxi batzuk egin zituzten han; II. Mundu Gerrako mugimendua hasi zenean, Oñatira etorri ziren berriro. Tarte hartan jaio zen Paulina eta bera izan zen anai-arrebetan Alemanian jaiotako bakarra. 2 urte zituen Paulinak familia berriz Oñatira bizi izatera etorri zenean. Jendeak "*Paulina alemaniarra*" bezala ezagutu izan du beti. Ikastolako irakasle izan zen urte askoan. Corpus eguneko prozesioan parte hartzen lehenengo emakumea izan omen zen, eta 30 urtetik gora egin ditu San Migelen laguntzaile moduan. Sendabelarren bilketan eta erabileran ere aditua da. (argazkia [www.goiena.eus](http://www.goiena.eus) webgunetik hartua)

**Jose Mari Kortabarría Agirre (1918-2015)**



Larraña auzoko Sarramendi baserrian jaioa. 4 anai-arreba ziren. Hasiera batean haien baserrian zegoen auzoko eskola, baina gerora eraikin bereizi bat egin zuten. Han ibili zen 14 urte ingurura arte. 18 urterekin gerrara joatea tokatu zitzaion soldadu eta 5 urte egin zituen Espainian zehar hara eta hona. Handik itzultitakoan Garai lantegian hasi zen lanean eta bertan egin zuen lan jubilatatu arte.



**Enrike Kortabarría Moiuá (1921-2013)**

Olabarrieta auzoko Sustiabe baserrikoa.

**Rosario Kortabarría Urrutia (1908-2014)**



Uribarri auzoko Gorordo baserrian jaio zen 1908an. Aita bertakoa zuen eta ama Goroetakoa (Korueta). Sei anai-arreben artean erdikoa zen bera. Bederatzi urterekin hasita, zazpi urtez egon zen neskame Olabarri baserrian. Arabara ere joan zen gaztelania ikastera, baina denbora gutxi egin zuen han. 100 urterekin egin zitzaion azken grabazioa, Otaduitxiki baserrian.

**Jose Mari Larrañaga Azkarreta (1944)**



Berezao auzoko Santa Lutzia baserrian jaio zen 1944an. Ama bertakoa zen eta aita Bergarako Elorregi (San Prudentzio) auzokoa. 4 anai-arrebatatik zaharrena da bera. Auzoko eskolan ibili zen 14 urtera arte eta horren ostean osabari laguntzen zion baserriko lanetan. 15 urterekin zotz edo palillo-fabrikari hasi zen lanean eta 45 urte egin ditu bertan.

### **Eusebio Lazkano Lizarralde (1917-2010)**



Araotz auzoko Agerre Etxeberri (gaur ezkutatua) baserrian jaio zen. Umea zela, auzoko Antzuenena baserrira joan zen familia osoa bizitzera. Aita Aratz Urrutiko Garaikoa baserrikoa zen eta ama Jausoro Azpikoa baserrikoa, biak araoztarrak. Zazpi seme-alaba izan zituzten, Eusebio laugarrena. Zortzi urtetik hamabi urtera arte Araotz auzoko eskolan ibili zen, Claudio Alvarez ("Cristobal Colón") maisuarekin. Gero etxean gelditu zen, harik eta 19 urterekin gerrara eraman zuten arte. Hiru urte pasatu zituen fronte askotan; balaz zauritua ere izan zen. Errasti baserriko Bittori Oruetarekin ezkondu zen. Sei seme-alaba ditu. 1941. urtean Zerrajeran hasi zen lanean; kanalgintzan 12 urte eman eta gero Olateko argindar zentralean jardun zuen jubilatuta arte. Elkarrizketan Eusebioaren semea Iñaki ere egon zen.



### **Gregorio Leibar Urkia (1928-2009)**

Urrusula auzoko "Garaikua" ("Baiñuetxe Goikua" ere deitua) baserrikoa.

### **Jexus Letamendi Arrazola (1926-2000)**



Oñatiko Garibai auzoan jaio zen 1926an, gaur egunean desagertuta dagoen baserri batean. Etxe hartan alokairuan zeudenez, hura utzi eta Kale Zaharrera joan ziren bizi izatera. Bertan denboralditxo bat bizi eta gero Santa Marinara pasatu ziren beste etxe batera. Bizimodua ateratzeko, banastak egiten jardun zuen 31 urtera arte etxe horretan. Ondoren Bergarara ezkondu eta Labe Garaietan lanean ibili zen, baina berriz herrira itzultzeko aukera izan zuen *Ulma* enpresan lana sortu zitzaionean, eta bertan lan egin zuen jubilatuta arte. Lau seme-alaba izan zituen.

### **Balentin Letamendi Lezeta Maala (1915-2006)**

Murgia auzoko "Maala Korostola" baserrikoa. Fermin Altubek egin zion grabazioa Murgia auzoaren berri izateko.

### **Anjel Leturiaga Moia (1942-1991)**

Zañartu auzoko Exibai baserrikoa.

**Maxima Leturiaga Moiu** (1930-2007)

Zañartu auzoko Exibai baserrikoa.



**Gregorio Lizarra Udaeta Etxatxo** (1913-1999)

**Jaxinto Lizarralde Aiestaran** (1931)

Aita Arantzazu auzoko Begirolatza (Bellotza) baserrikoa eta bera Atzeko Kalekoa. Maristetan ibili zen eskolan, baina 9 urterekin utzi egin behar izan zuen, lan egiteko. Denetarik egin zuen soldadutzara joan bitartean: artzain, ikazkin, morroi, ganadu-tratulari... Gero, aitarengandik lanbidea ikasi eta harakin lanean jardun zuen. Mendia izan du zaletasun nagusienetakoa eta ibilaldi luzeetan ere parte hartu izan du, "Hiru handiak" mendi itzulian, esaterako. 1980an, 49 urte zituela, bost aldiz igo zen Aizkorriera egun berean.



**Markele Lizarralde Arbulu** (1926-2017)

Oñatin jaioa, Olabarrieta auzoko Ugarte Handi baserrian. 20 urterekin Bilbora joan zen bizitzera. Han mediku baten kontsultan lan egin zuen bizi guztian, harik eta 2014an Oñatira itzuli zen arte.



**Marzela Lizarralde Arbulu** (1923)

Olabarrieta auzoko Ugarte Handi baserrian jaioa. Etxeko lanetan eta joskintzan jardun zuen bere jaiotetxean, Bergarara joan zen arte 30 urte zituela. Bergaran, "Deportibua" taberna hartu zuen eta urte askoan negozio hori eraman zuen aurrera. Hura bukatutakoan, beste taberna batean ere ibili zen lanean. Ondoren, Bergarako enpresa baterako frakak eta alkandorak josten ibili zen aste barruan, eta asteburuetan, berriz, Gatzagako 'Benta Fria' jatetxean ibili zen zerbitzari. Handik, Artxandako erresidentziara joan zen eta bertan lan egin zuen sukaldean, jubilatatu zen arte. Harrezkero Oñatin bizi da.



**Juan Lizarralde Elorza (1926-2019)**



Arantzazu auzoko Begirolatza baserrikoa. Elkarrizketa egin zitzaionean 84 urte zituen. Elkarrizketan, [Jabier Arana Lizarralde](#) agertzen da berarekin batera.

**Gregorio Lizarralde Galdos Kapo (1907-1998)**



Oñatin jaio zen 1907an. Bera kaletarra izan arren, aita Garibaiko Errotakoa zuen eta ama Lezesarri auzoko Gastiasorokoa. Eskolan lehenengo Santa Marinan eta gero maristetan ibili zen. Altsasuko Frantziskotar Kaputxinoetan ere lau urte egin zituen. Gerra aurretik abarketagintzan ibili zen lehenengo, eta fundizioan gero, gerra hasi zen arte. Gerra ostean peoi moduan ibili zen denboralditxo bat; eta gero jubilatuta arte Plantxa fabriketan ibili zen. 1942an Sestaon ezkondu zen, kartzelako "Madrinia" (bisitak egin, arropak garbitu, jatekoa ekarri, etab. egiten zuena) izan zuenarekin: Primiangoko (Asturias) Florentina del Valle Balmorizekin (1907/V/02), hain zuzen. Bi seme izan zituzten. Alejo Ugarterekin batera 1997an egin zitzaion elkarrizketa, eta bere seme Fernandok ere parte hartzen du tarteka.

**Joxe Lizaurre Larrañaga (1923-1999)**



Zubillaga auzoko Askazubi baserrikoa. Bere jaiotetxe eta bizileku izandako Askazubi baserrian tresna eta erreminten bilduma ederra izan zuen. Baserriko tresnen eta bilduta zituen materialen gaineko azalpen ugari eman zituen 1995ean "Kontzejupetik" aldizkarirako egin zitzaion elkarrizketan.

**Baxili Madina Anduaga (1914-2013)**



Uribarri auzoko Latostegi ("Datustegi") baserrian jaio zen 1914an eta bertan bizi izan da beti. Zortzi anai-arrebatan gazteena zen, eta bi urte besterik ez zituen aita hil zitzaizenean. 14 urtera arte Uribarri auzoan bertan ibili zen eskolan eta geroago beste bi urte egin zituen kalean mojekin. Senarra ere oñatiarra zuen, Lezesarri auzoko Goienetxe baserrikoa.

**Benigno Madina Biain (1925-2016)**

Murgia auzoko "Aixerikua" baserrian jaioa. Fermin Altubek egin zion grabazioa Murgia auzoko berri jasotzeko.

### **Sinforoso Madinabeitia Oñate (1918-2013)**



Urrusulako Errotan jaio zen. Auzoko eta Uribarriko eskoletan ibili zen umetan. Geroago maristen gau-eskolan ere ibili zen, Zelaakoa baserrian morroi zegoela. Beste urtebete Gasteizko Korazonistetan egin zuen; hemen jolas-orduetan eskola garbitzen zuen, ostatua eta beste gastuak ordaintzeko. Soldadutzan eta gerran zazpi urte eman zituen. Gerran transmisiotan jardun zuen, morse kodigoa ikasi eta gero. Pinuak botatzen egin zuen lan Zelaakoan egon zenean. Gerratik itzuli eta gero, 1945. urtean Zerrajeraren Olateko zentrolean hasi zen lanean eta han jarraitu zuen erretiratu arte. Erostarbe baserrira ezkondu zen, bertako Inazia Erostarberekin. 1960ko neguko euriteengatik baserria mugitu egin zen eta etxea utzi egin behar izan zuten betirako. Orduan, Zañartuko eskolako hutsik zegoen moja-etxera joan ziren bizitzera, eta geroago kaleko etxe batera. Bost seme-alaba izan zituzten.

### **Jesus Madinabeitia Uriarte (1942)**



Urruxolako errotan jaioa. Bertan bizi izan zen 1983an Uribarri auzoko Soldadukoa baserrira ezkondu zen arte. Kalean egin zuen lana arotz moduan Edor Moyuaren arotzerian, jubilatatu arte. Ez du familiarik izan.

### **Jose Luis Madinabeitia Uriarte (1941)**



Urrusula auzoko Errotan jaio zen 1941ean. Ama Araozkoa zuen, Txantonena baserrikoa, eta aita Errotakoa bertakoa zen, nahiz eta haien aurrekoak ere Araoztik etorriak izan. 7 anai-arreba ziren. Sei urte ingururekin hasita, Urruxolako eskolan ibili zen, baina sarri ez zen joaten eskolara baserrian lanak egin behar izaten zituelako. Gerora maristetan ere ibili zen, baina oso gutxi. 13 urterekin basoan hasi zen lanean, harik eta soldadutzara joan zen arte. Santa Cruz de Tenerifen egin zuen soldadutza. Handik itzuli zenean pila-fabrikan hasi zen lanean, eta bertan jarraitu zuen 58 urterekin erretiroa hartzeko aukera izan zuen arte. Urruxolako errotan "uratzak" (ur sufretsuak) eta bainuak umetatik ezagutu ditu. Amonak eta amak bainuak prestatzen zituzten eta udazkenean jende asko etortzen zitzaien tratamendua hartzera. Jose Luisek umetatik izan du ardiekiko zaletasuna eta artzain-txakur txapelketetan ere ibilia da.

### **Markox Madinabeitia Yarza (1924-2020)**



Larraña auzoko "Antzuelas Goitti" baserrian jaio zen. Aita Aretxabaletakoa zuen, eta ama Antzuelas bertakoa; 4 anai-arrebaren artean, bera da zaharrena. Aita ikazkina zen, eta emaztearen etxera ezkondu bazen ere, bizimodu zaila izan zuten; horregatik, baserria saldu, eta Oñatiko kalean egon ziren bizitzen, harik eta Telleriarteko Telleri baserrira joan ziren arte. Telleriarteko eskolan ibili zen. 12 urte zituenerako, morroi joan zen Brinkola-Zaharrera, eta 3 urte egin zituen bertan. Beste etxe batzuetan ere egon zen morroi. 15 urterekin Patrizio Etxeberria lantegian hasi zen lanean, eta 45 urte egin zituen bertan.

### **Iñaxi Madinazkoitia Mujika Mikelaerrero (1906-1995)**



Oñatiko Mikelaerrero dendakoa. Iñaxiren amaren gaitzizena omen zen "Mikelaerrero", amaren izena Mikela zelako eta aita errementaria zelako jarritakoa. Iñaxiren ama jostuna zen eta berak, haren hariari tiratuz, jostunentzat denetarik zuen mertzeriarekin jarraitu zuen. 1994an egin zitzaion elkarrizketa berarekin batera dendan lan egindako [Malen Berakoetxea](#)rekin batera.

### **Mahai-ingurua Oñatin 1**



Larraina auzoko Patxika Altube, Auzotxoko (gaur egun Marzelino Zelaia kalea) Susana Ugarte, Uribarriko Bittori Igartua eta Araozko Eustaki Bergara, denak baserrian jaio eta hezitakoak, elkarrekin ditugu tertulia honetan. Umetako eskola (edo eskola eza), umetako kantak, umeei (mutil eta neska) etxean irakasten zieten, umeen lanak, neska-laguntzea eta nobio kontuak, elizak gizartean zuen eragina, komenentziako ezkontzak, erditze eta emagin kontuak eta abar aipatu dituzte. Baita gerra denboran Oñatin ikusi eta bizitako pasadizo batzuk ere. Lihoa soroan eta ehungintza ezagutu zituzten, gazteak zirenean. Ezkerretik eskumara: Patxika, Susana, Bittori eta Eustaki.

## Mahai-ingurua Oñatin 2

Urrexola auzoko (Aialdeko) Juana Beitia, eta Murgia auzoko Errotako Marixabel, Bixenta eta Pili Arregi Arregi ahizpak, denak baserrian jaio eta hezitakoak, elkarrekin ditugu tertulia honetan. Umetako kontu ugari; bertako neska politak ikusteagatik, Murgiako errotara zenbat baserritarrek eramaten zuten euren alea ehotzera; amandrea Debara urak hartzera eta berarekin joaten zirenekoak; morroi kontuak; estraperloa eta errotan jasandako salaketak; mutilak zirriak egiten zizkietenean nolako belarrondokoak itzultzen zizkieten; kaletik baserrira gauzez joaten zirenetan pasatutako beldurrak eta sustoak; Diotxuena tabernan (gaur itxita) lanean zihardutela egoten ziren astakume janak, eta bi neska gaztek hainbeste gizonen artean sortzen zituzten arazo eta ezinezko amodioak, eta beste mila istorio azaltzen dira bat-batekoa eta oso alaia den tertulia honetan. Ezkerretik eskumara: Juana, Marixabel, Bixenta eta Pili.



## Maria Luisa Maiztegi Arabaolaza (1924-2012)

Bidaurreta ondoan zegoen Maiztegi txokolateriako alaba. Bilbora ezkondu zen eta jantzigintza-tailerra jarri zuen etxean. Lanean 15 jostun izateraino iritsi zen. Berak diseinatzen zituen arropak, eta geroago Espainian saltzen zituzten. 6 seme-alaba izanda, asko lagundu zion tailerra etxean izateak. Betidanik izan zuen pinturarako zaletasuna. Hasieran beste baten izenean saltzen zituen bere margoak, baina pixkanaka ausartu zen bere izenean erakusketak egin eta margoak agertzen. Handik urte batzuetara Oñatira itzuli zen bizitzera. Kontzejupetik aldizkarirako egin zitzaion elkarrizketa 1995ean.



## Maritxu Maiztegi Arregi (1929)

Arantzazu auzoko Goiko Benta ostatu-baserrian jaio zen, zazpi anai-arrebatatik laugarrena. Aita bertakoa zen, eta ama auzo bereko Arrola baserrikoa. Auzoko Eskola-etxean ikasi zuen, Aita Sarrigoitia frantziskotarra irakaslearekin. Urbiako artzainen umeek ere bertan ikasten zuten. Maritxuren etxeko Bentan etxeko ortu eta ukuilutik sortutako jakiak ematen zituzten. Etxean egiten zituzten odolki, txorizo, gazta eta abarrei buruzko azalpenak ematen ditu Maritxuk; nola egin eta kontserbatzen zituzten. Maritxuk hogeitaz inguru izan zituen arte, telefonotik deitzeko frantziskotarren Arantzazuko hospederiara joan behar izaten zuten. 1940ko hamarkadan, Francoren emaztea egon zen bazkaltzen Goiko Bentan. Basilika berria eraiki zutenean, Oteizak eta Basterretxeak hartu zuten ostatu Maritxuren etxean.





### **Migel Maiztegi Arregi (1935)**



Arantzazu auzoko Goiko Benta ostatu-baserrian jaio zen, zazpi anai-arrebatatik gazteena. Aita bertakoa zen, eta ama auzo bereko Arrola baserrikoa. Auzoko Eskola-etxean ikasi zuen hamabi urtera arte. Gero Oñatiko "Ductor" ikastetxe pribatuan batxilergoa eta merkataritza ikasi zituen beste hiru urtez. Donostiako Peñafloredako institutuan batxilergoa bukatu eta etxera itzuli zen. Ostalaritzan eta baserrian jardun du bizi guztian. Ganadu tratulari ere jarduna da. Bere etxeko eta Arantzazuko ostalaritzaren historia eta bertako eta Urbiako ganadu zaintzari buruzko azalpenak ematen ditu. Fraideen eragina, Calahorra eta Arantzazurako galtzadak eta bentak, otsoen ipuin zaharrak, aurkikuntza arkeologikoak, Euskal Herri osoko ganadu feriak, eta beste hainbat konturen inguruan berba egiten du Migelek.

### **Mila Maiztegi Bengoa (1949)**



Arantzazu auzoko Arrikutz baserrikoa. Araotzen ibili zen eskolan. Oñatiko noka jasotzeko egindako elkarrizketa, [Maria Jesus Markuleta](#) eta [Belen Zumalde](#)ekin. Bere 6 anai-arrebeekin hika egin izan du beti, eta baita lagunekin eta ilobekin ere.

### **Maria Jesus Markuleta Lete (1952)**



Olabarrieta auzoko Baxazabal baserrikoa. Ama Aretxabaletakoa zuen. Sei anai-arreba ziren, lau neskak. Oñatiko noka jasotzeko egindako elkarrizketa, Arantzazu auzoko [Mila Maiztegi](#) eta [Belen Zumalde](#)ekin batera. Maria Jesusek etxean ez du hika egin izan, eta Olabarrietako lagunekin ere ez. Seme-alabei zuka egiten die. Arantzazu eta Araotz auzoetako emakumeen eraginez hasi zen hika egiten.

### **Kontxi Martinandiarena Telleria (1961)**



Oñatin jaioa, guraso biak kanpokoak zituen: ama Zeraingoa eta aita Aranazgoa (Nafarroa). Gurasoek ez zioten hika egin, eta kalean ere ez zuen jaso. Lagun koadrilako olabartarrerekin ikasi zuen hika egiten, 13-14 urterekin. Alabari zuka egiten dio normalean. [Ingo Xonau!](#) proiekturako Oñatiko emakumeen hika jasotzeko elkarrizketatua, Olabarrietako [Marilu Orueta](#) eta [Pili Etxeberria](#) lagunekin batera.

### **Mila Martinez de Zuazo Unzurrunzaga (1943)**



Zubillagako Etxailaretakoa, ama auzo bertakoa zuen eta aita arabarra. Gazterik hil zitzaien ama, eta izebak eta amandreak hazi zituzten bera eta gainerako anai-arrebak. 5 senidetan zaharrena da. Oñatiko noka jasotzeko egindako elkarrizketa, Zubillagako beste hiru emakumerekin batera: [Sara Martinez de Zuazo](#) ahizpa, [Eli Igarzabal](#) eta [Mariaxun Villar](#).

### **Sara Martinez de Zuazo Unzurrunzaga (1944)**



Zubillagako Etxailaretakoa, ama auzo bertakoa zuen eta aita arabarra. Gazterik hil zitzaien ama, eta izebak eta amandreak hazi zituzten bera eta gainerako anai-arrebak. 5 senidetan 3.a da. Oñatiko noka jasotzeko egindako elkarrizketa, Zubillagako beste hiru emakumerekin batera: [Eli Igarzabal](#), [Mila Martinez de Zuazo](#) ahizpa eta [Mariaxun Villar](#).

### **Gloria Mendiola Lauzirika (1930)**



Oñatin jaio zen 1930ean. Aita oñatiarra zuen eta ama, berriz, Forondakoa. Haurreskolan ibili ostean eskola nazionalera pasa zen 6 urterekin. Orduan hasi zen gerra. "Gerra gogoratu guran" proiekturako egin zitzaion elkarrizketa, gerrako kontuak jasotzeko.



### **Migel Moia Igartua Mendi (1915-1998)**

Berezo auzoko "Mendikua" baserrikoa. "Karretero" izandakoa. Lanbide berean jardundako [Juanito Galdosekin](#) batera egin zitzaion elkarrizketa 1994an.



### **Julia Murua Agirre (1927-2017)**

Santxolopetegi auzoko Antuenatxiki baserrikoa. Auzo bereko Garibarren baserrian neska egon zen 1941etatik 1949ra bitartean. "Gizonezkoen lanak" egitea tokatzen omen zitzaion askotan. "Oñatiko kriaden berbetia" proiekturako egin zitzaion elkarrizketa.

### **Karmen Odriozola Igartua (1930-2011)**

Arantzazuko Aixkirri baserrian jaio zen 1930ean. Arantzazuko eskola-etxean ikasi zuen, 7 urtetik 12ra arte. Aita Aixkirrikoa bertakoa zuen eta ama Azpilletakoa. Aita astazaina izan zen gerra iritsi zen arte eta geroago idi parearekin ibili zen ikatz-garraioan. Karmen baserrian egon zen 23 urte izan zituen arte. Horren ondoren, Hernaniko jatetxe batean, Arantzazuko Hospederian eta Asturiasen jardun zuen zerbitzari lanetan. Gerora Parisera joan zen eta 25 urtean han bizi ostean, senarraren Burgosko herrira etorri zen. Alaba bat dauka. Sabina ahizparekin batera egin zitzaion elkarrizketa.



### **Mertxe Odriozola Igartua (1956)**

Arantzazu auzoko Aixkirri baserrikoa, ama bertakoa zuen, eta aita aldameneko baserrikoa (Aixkirri 2). Zortzi anai-arrebatan gazteena. 16 urterekin Garai lantegian hasi zen lanean. "[Ingo Xonau](#)" proiekturako egindako elkarrizketa, noka jasotzeko, Gaztelondoko [Eduarne Olalde](#)rekin batera. Mertxek anaiekin (5 mutil) hika egiten du, eta ahizpekin zuka. Gurasoek semeei hika egiten zieten, baina alabei ez. Lantokian hasi zenean ekin zion hika hitz egiteari.



### **Sabina Odriozola Igartua (1934)**

Arantzazuko Aixkirri baserrian jaio zen. Aita Lasarekin ikasi zuen Arantzazuko eskola-etxean. Aita Aixkirrikoa bertakoa zuen eta ama Azpilletakoa. Aita astazaina izan zen gerra iritsi zen arte eta gero idi parearekin ibili zen ikatz-garraioan. Hainbat lekutan ibili zen lanean Karmen ahizparekin batera: Aixkirrin, Arantzazuko Milikua taberna-jatetxean, Bergarako Zubikoa baserrian, Hernanin eta Asturiasen. Parisera joan eta 35 urte bertan egin ostean itzuli zen Oñatira. Alaba bat dauka. Karmen ahizparekin batera egin zitzaion elkarrizketa.



### **Bittor Olalde Beloki *Kamiñero* (1928-2016)**

Zubillaga auzoko Kamiñeruena baserrikoa. Musikaria eta txirrindularia. Gaztetatik izan zuen musikarako zaletasuna eta Zubillagan bizi arren egunero joaten zen Oñatira solfeoa ikastera. Urte asko egin zituen Oñatiko bandan eta, horretaz gain, musika-taldearekin plazaz plaza ibili zen. Erretiratu ostean bizikletan ibiltzen hasi eta urte batean 6.400 km egitea lortu zuen. Bi zaletasun horiei lotutako kontu ugari kontatu zituen 1991n Oñati Irratirako egindako elkarrizketan.



**Angeles Olalde Biain Sillerona (1923-1997)**



12 urtera arte ibili zen eskolan. Gero orga bat hartu eta aitari laguntzen zion batetik bestera abarketak, abarkak, erremintak eta baserriko tresnak saltzen. Gerra sasoiari hasi zen Angeles abarketak josten. Erretiratu arte dendaria izan zen.

**Eugeni Olalde Goitia (1936)**



Oñatiarra, Araotz auzoko Zumalde baserrian jaioa. Taberna eta estankoa zituzten bertan. Bederatzi urterekin Aizkorbe baserrira joan zen bizitzera, osaba-izebei laguntzera. Besteak beste behizain ibili zen. Hamahirurekin Gasteizera bidali zuten, kolegio batera. Bueltan Zahor txokolate-fabrikako bulegoetan hasi zen lanean. Ezkondu arte ibili zen bertan.

**Edurne Olalde Igartua (1958)**



Garagaltza auzoko Gaztelondo baserrikoa, aita bertakoa zuen eta ama, berriz, Uribarri auzoko Otadui baserrikoa. 8 anai-arrebatan zazpigarrena da Edurne (5 mutil eta 3 neska). 14 urterekin Garai lantegian hasi zen lanean, eta hantxe hasi zen hika hitz egiten. Etxean eta auzoan ez baitzuten ohiturarik. "[Ingo Xonau!](#)" proiekturako egindako elkarrizketa, noka jasotzeko, Aixkirriko [Mertxe Odriozola](#)rekin batera.

**Maria Luisa Olalde Ituarte (1925-2012)**



Gerra sasoiari Bilbora alde egin behar izan zuen familiak. Han, egoera beltzak bultzatuta, gurasoek atzerrira bidali zituzten barkuan Maria Luisa, alaba zaharrena, eta bere hurrengo anaia. Lehenengo Frantzian egin zituzten hiru hilabete inguru eta handik Belgikara eraman zituzten. Sei urte egin zituen atzerrian. Etxera itzuli eta laster ama hil zitzaian eta familiaren kargu egin behar izan zuen. "Txaketuanian" ibili zen lanean. Gero, "Kastilloneko" Joxe Beitiarekin ezkondu zen eta Castillo tabernaren ardura izan zuen. Jolaslekua ere ireki zuten gerora.

**Marilu Orueta Biain (1962)**



Olabarrieta auzoko Juntuartena baserrikoa. Anai-arrebekin hika egiten du, eta baita koadrilako 6-7 lagunekin ere. Oñatiko noka jasotzeko egindako elkarrizketa, [Kontxi Martinandiarena](#) eta [Pili Etxeberria](#) lagunekin batera.

### **Eusebio Palacin Bueso (1940)**

Caceresko Moraleja herrian jaio zen. Aita-amak bertakoak ziren. Aitak, Moralejako bizimodu kaxkarra ikusita, tren hartu eta Brinkolara heldu zenean, Oñatira etortzea erabaki zuen. Bera bakarrik etorri eta "Forjas Zubillaga"n hasi zen lanean. Aitzekua etxearen ganbaran etxebizitza bat prestatu eta bere emaztea eta bi umeak ekarri zituen Oñatira, Eusebiok sei urte zituenean. Oñatin urtebete egin zutenean, krisia etorri zen eta Moralejara itzuli ziren. Handik urte erdira gauzak konpontzen hasi ziren eta aita berriz itzuli zen Oñatira. Triana auzoan etxea aurkitu eta familia berriz ekarri zuenerako, hirugarren semea jaiota zegoen. Oñatin jaio zen laugarrena, hau alaba. Eusebio ez zen eskolara joan. Bederatzi urterekin zumar-zuritzen hasi zen lanean, Madinaren otzara eta jarleku lantegian. Bertan bi urte eman eta gero, Egaña okindegian egin zuen lan, gauzez, bost urtez. Gero "Pilas Tximist"en (gaurko Cegasa) hasi zen, eta bertan jardun zuen jubilatuta arte. 23 urterekin, Tximistek ordainduta, eskolatu zen eta ekoizpenerako "Métodos y Tiempos" ikasketak bukatu zituen 25 urterekin. Oñatiko Portalekua etxeko Pilar Iñurritegirekin ezkondu zen eta hiru seme izan zituzten. Euskara ez ezagutzeak are gogorragoa bihurtu zuen moralejatarren bizitza hasieran, eta Eusebiok eta bere anai-arreba guztiek euskara ikasi zuten.



### **Yuri Paramos Lazkanoiturburu (2000)**

Neska trans oñatiarrak bere esperientzia kontatu digu. Zinema ikasketak egiten ari da Madrilén.



### **Maria Pilar Sagastizabal Agirre *Bixain* (1942)**

Murgia auzoko "Bixain erdikua" ("Maioraskuena" ere deitua) baserrikoa.

### **San Martin egoitzako emakumeak**

Oñati Irratiak San Martin egoitzako emakume edadetuei Gabonen inguruan egindako elkarrizketa.

### **Wednesday Silva Lopez (1976)**



Ginea Bissaun jaioa, Bissau hiriburuan, 11 urterekin Kubara joan zen ikastera, beka batekin. Handik Portugalera joan zen bi urterako, eta ondoren Oñatira, master bat egitera. Elkarrizketa egin genionean, hamar urte zeramatzan Oñatin bizitzen. Euskara nola ikasi zuen kontatu zigun, eta baita beste hainbat kontu ere. [101 L proiekturako](#) ere elkarrizketatu genuen, Ginea Bissauko kriolera jasotzeko.

### **Eugeni Sukia Garmendia Donostiako errekadistia (1910-2001)**



Txarridunaneke alaba. Batzokiaren ardura izan zuen senarrarekin batera gerra aurretik. Nazionalak sartu zirenean, gizonak Frantziara ihes egin behar izan zuen, etxeko diru apurrak hartuta. Eugeni hirugarren umea izateko zegoen. Bizimodua aurrera ateratzeko, errekadista lanetan hasi zen. Hasieran Txarridunaneke harategiko bildotsak eramaten zituen Donostiara, gerraren ondorioz herrian ezin baitzituzten saldu. Gerora, beste enkargu batzuk ere egiten hasi zen eta urte askoan jardun zuen lan horretan. 1965ean utzi zion lan horri, 55 urte zituela.

### **Baxili Txintxurreta Goenaga (1922-2013)**



Lezesarri auzoko Goienetxe baserrian jaio zen 1922an. 9 anai-arreba ziren, baina lehengusu bat ere eurekin batera hazi zen, ama barik geratu zelako. Lehenbizi Plazako eskolan ibili zen eta geroago Berezaoko eskolan, hura egin zutenean, harik eta gerra hasi zen arte. Gerra ostean al baitariaren eskolan ibili zen, baina ez zuen denbora asko egin. Agustin Kortabarriarekin ezkondu zen eta 4 seme-alaba izan zituzten. Elkarrizketan senarrak ere hitz egiten du tarteka.

### **Maritxu Txintxurreta Goenaga (1918-2014)**




Lezesarri auzoko Goienetxe baserrian jaio zen 1918an. 9 anai-arreba ziren, baina lehengusu bat ere eurekin batera hazi zen, ama barik geratu zelako. Lehenbizi Plazako eskolan ibili zen, geroago Ospitalean mojekin eta azkenik Berezaoko eskolan, hura egin zutenean, harik eta gerra hasi zen arte. Gerra-garaian Donostian neskame egon zen katalan batzuekin. Gerra-garaian ihesean ibili ziren eta Avilesetik Frantziara joan zen itsasontziz ahizparekin batera; 7 hilabete inguru egin zituen bertan. Berezaoko auzoko Mendikua baserrira ezkondu zen eta bertan bizi da ordutik.

### **Maritxu Ugarte Aiastui (1921-2010)**




Olalde kale-baserrian jaioa, Oñatin. Aita bertakoa zen eta ama Askazubi ("Askazui") baserrikoa. Bost senide irten ziren aurrera. Ospitaleko eskolan ibili zen, eta gero nazionaletan ere bai. 14 urterekin Donostiara joan zen, izebarengana, ile-apaintzaile ogibidea ikastera. Gerra hasi zenean, Zeferino anaia preso hartu zuten, eta ondoren fusilatu egin zuten, Oiartzunen, Oñatiko beste hiru gazterekin batera. Oñatira bueltatzean, ile-apaindegia jarri zuten Maritxuk eta Martina ahizpak elkarrekin. Miguel Azpiazurekin ezkondu zen; Euzkadiko gobernuak kapitain izendatu zuen gerra sasoiaren, eta hainbat kartzelatan egon zen preso. Bost seme-alaba izan zituzten.

### **Martina Ugarte Aiastui (1923)**



Olalde kale-baserrian jaioa; aita bertakoa zuen, eta ama, berriz, Askazubi ("Askazui") baserrikoa. Bost senide atera ziren aurrera. Martina ospitaletako eskolan ibili zen, eta baita nazionaletan ere. Gerra etorri zenean, Ceferino anaia preso hartu zuten, eta gero fusilatu. Maritxu ahizpak eta biek ile-apaindegia jarri zuten Kale Zaharrean. Martinaren senarra Amaiur batailoian ibili zen; hiru seme-alaba izan zituzten.

### **Jose Ugarte Arregi (1916-2013)**



Arantzazuko Errota baserrian jaioa. Aita bertakoa zen eta ama Gesaltza baserrikoa. Hamar senide ziren. Garia eta artoa ehotzeko errotaz gainera, argi zentrala (Arantzazuko fraideen jabetzakoa) ere bazen Errota. Gerra hasi zenean, Gomistegi baserrian zegoen morroi Jose, osaba-izeben etxean. Aita nazionalistentzat botoa biltzen ibili zen gerra aurrean, eta semeak bete zuen hari jarri zioten zigorra: Bergararik frontera armak eramatea nazionalentzat. Gero, 1937an soldadu eraman zuten (Arapiles konpainian egon zen lehenengo eta Osasun Militarreko talde batean gero). Besteak beste, Lemoako borrokan, Guadalajaran eta Teruelen egon zen. Bueltan, ikazkin eta karretero ibili zen. Bergarako baserri batera ezkondu zen, eta handik Eibarrera joan ziren bizi izatera. Bitor Sarasketaren lantegian jardun zuen lanean, eskopetak egiten.

### **Klaudio Ugarte Arregi (1905-1999)**



Arantzazuko errotako semea. Euren familiak izan zuen Arantzazuko errotaren ardura urte askoan. Bera ez zen asko ibili lan horretan, astoarekin ikatza garraiatzen ibiltzen zen eta. 30 urte inguru zituenean, ikatza gutxitzen hasi zen. Horregatik, Bergaran bi urte eta Eibarren beste bi egin zituen astoekin obratako materialak garraiatzen. Bere emazte Serafina Arregirekin batera orduko errotari eta baserriarren bizimoduaren gaineko azalpen ugari eman zituen 1995ean "Kontzejupetik" aldizkarirako egin zitzaion elkarrizketan.

### **Ixabel Ugarte Elkorobarrutia (1918-2018)**



Oñatin jaio zen Ixabel, Santa Marinako plazatik behera doan kaleko etxe batean. Gurasoak oñatiarrak zituen: aita Kortabarrikoa eta ama Erostegekikoa. Zortzi anai-arrebaren artean bigarrena izan zen bera. Kaletik Lezesarri auzoko "Altzibarrazpikua" baserrira (gaur egun kale-etxe bihurtua) aldatu ziren lehenbizi eta zazpi urte zituela, Legazpiko Azpikoetxe baserrira joan ziren bizitzera, errentero moduan. Lau urte bertan egin ondoren, Bergaretxera joan ziren. Oñatiko ospitaleko eskolan eta plazako eskolan ikasi zuen. 11 urterekin utzi zuen eskola, eta neskame-lanetan hasi zen: besteak beste, Bergarako Azpilleta baserrian. 15 urterekin bueltatu zen bere baserrira. Baserriko lanetan aritu izan da beti eta tratura egunero joan ohi zen Bergarara azokara; esne-saltzen ere aritzen zen. 26 urterekin ezkondu zen, eta Pastaiñen jarri zen bizitzen.

### **Jose Ugarte Ezeolaza Azkonitza (1924-2000)**



Oñatiko Azkonitzaga (Azkonitzaa) baserrian jaioa, Torreauzo auzoan, eta bertan bizi izandakoa hil arte. Baserriko maiorazkoa, Bergarako Rosario Villarekin ezkondua. lau seme-alaba izan zituzten. Ogibidez gaztetan karretero eta geroago ULMAko langile.

### **Ane Ugarte Garitaonandia (1993)**



Murgia auzoko Azkarreta baserrikoa. 7 urtetatik unibertsitate garaira arte Laudion bizi izandakoa, ondoren Oñatira bueltatu zen. [Ingo xonau!](#) proiekturako, Oñatiko emakumeen hika jasotzeko egindako elkarrizketa. Aneri amak ([Marije](#), proiektu bererako elkarrizketatua) hika egiten dio.



### **Beatriz Ugarte Garitaonandia (1961)**



Murgia auzoko Azkarreta baserrikoa. Aita bertakoa zuen eta ama San Prudentziokoa. 8 senide ziren (5 mutil eta 3 neska), baina mutiletako bat umetan hil zen. Beatriz azkenaurrekoa da. Berezaoko auzo-eskolan ibili zen umetan, eta gero herri eskolan. Oñatiko noka jasotzeko egindako elkarrizketa, [Marije](#) ahizparekin eta auzoko [Karmen Inza](#)rekin batera. Etxean jaso zuen hika. Arantzazu auzoan bizi da.

### **Marije Ugarte Garitaonandia (1956)**



Murgia auzoko Azkarreta baserrikoa. Aita bertakoa zuen eta ama San Prudentziokoa. 8 senide ziren (5 mutil eta 3 neska), baina mutiletako bat umetan hil zen. Marije laugarrena da. Berezaoko auzo-eskolan ibili zen umetan, eta herri eskolan gero. Oñatiko noka jasotzeko egindako elkarrizketa, [Beatriz](#) ahizparekin eta auzoko [Karmen Inza](#)rekin batera. Etxean jaso zuen hika. Ane alabari hika egiteko hautua egin zuen, duela urte gutxi. Laudion bizi da.

### **Kontxi Ugarte Garzia Kamela (1942)**



Murgia auzoko Kamela baserrian jaio eta zazpi anai-arrebetatik bigarrena izan zen. Bere lehenengo eskola Olabarrietako auzokoan hartu zuen eta bertan ibili zen hamar, hamaika urte arte, gero kaleko eskolara aldatu eta Milagrosetan ibili zen urte eta erdi, eta ondoren beste urte pare bat Benediktinetako mojekin. Gero baserrira itzuli zen baserriko lanak egitera berriz ere, eta horretan ibili zen hogeitaz urte izan arte. Adin horrekin kalera jaitsi eta bi etxetan bili zen zerbitzatzen, Herediarenean, plazan bertan, eta Garairenean, itsuarenean; guztira zortzi bat urtean. Hogeita hamar urterekin ezkondu, eta Errekalde auzoan jarri ziren bizi izaten. Hiru alaba izan dituzte. Ezkondu eta gero lan apur bat ere egin zuen etxetik kanpora, egun erdiz Larraña barnetegian, hamar bat urtean. Hainbat bilobaren amandrea da eta azken urteetan amandre lanetan eta etxeko lanetan jardun izan du.

### **Felisa Ugarte Martinez de Zuazo (1926)**



Oñatin jaio zen Felisa Urrusula auzoan dagoen Olateko zentrolean. Aita, Hilario Ugarte, Arantzazuko Errotako semea zen eta ama, Felipa Martinez de Zuazo, berriz, Elgeakoa. Bederatzi anai-arreba izan omen ziren, baina berak zazpi ezagutu zituen. Aitak basoan lan egin zuen hasieran eta gero Olateko zentrolean. Felisak josten egiten zuen Oñatin, baina ezkondu ostean utzi egin zuen. 1964an ezkondu zen Ozaetako Candido Ruiz de Azuarekin eta bi seme-alaba izan zituzten. Gasteizen egin zion elkarrizketa Beñat Garaioiok "Ez dago sinisterik zenbat kanbiatu den!" proiekturako.

### **Alejo Ugarte Moia (1907-2003)**



Olabarrieta auzoko Urraburu baserrian jaio zen 1907an. Aita Urraburukoa bertakoa zuen eta ama Berezaio auzoko Mendikua baserrikoa. Olabarrietako eskolan, Santa Marinaran eta maristekin Unibertsitatean ikasi zuen. Kartzelan zegoela, merkataritza-agente ikasketak egin zituen. Gurdiarekin edota astoarekin Errotabarriko garia eta irina garraiatzen urtebete ibili eta gero, parrokiako sabaiko harriak garbitzea izan zen bere lehenengo lana kalean. Gero Legazpiko Papeleran jardun zuen gerra hasi arte, eta gerra ostean beste lau urte. Kartzelako ikasketez baliatuz, Papeleratik irten eta eraikuntzarako materiala saltzen ibili zen jubilatuta arte. 1944an ezkondu zen Garagaltza auzoko Kurpide baserriko Luisa Ojangurenekin. Gregorio Lizarralde "Kaporekin" batera egin zitzaion elkarrizketa 1997an.

### **Susana Ugarte Ugarte (1913-2011)**

Oñatiko Kristobalena kale-baserrian jaio zen, Auzotxo esaten zioten kaleko auzune batean, gaur egungo Marzelino Zelaia kalean. Aita bertakoa zen eta ama Arantzazu auzoko Arrikurtz baserrikoa. Sei anai-arrebatatik bosgarrena izan zen Susana. Ospitaleko eskolan ikasi zuen, zazpi urtetik hamahiru urtera arte. Eskolan zebilela, bostetan irten eta zortziak arte umezain lan egiten zuen erreal baten truke. Jolas gutxiko umea izan zen. Hamahiru urterekin Garai lantegian hasi zen lanean. Lau urte geroago neskame joan zen Tolosara, bertako alkate zen Antonio Labaienaren etxera. Gerra hasi zenean etxera itzuli eta Garainean eman zituen beste zazpi urte. Harrezkero zerbitzari edota neskame lanetan jardun zuen Baionan. Azken ugazabak hil zirenean, eta harik eta Oñatiko Zaharren Egoitzara etorri zen arte, haien senideentzako (Parisen bizi zirenak), Baionako etxea zaindu zuen urteetan. Istripu bat izan berri zuen elkarrizketa egin zitzaionean. Berari elkarrizketa bat egin zitzaion, eta "Mahai-ingurua Oñatin 1" grabazioan ere parte hartu zuen.



### **Nikolas Ugarte Umerez Barberua (1942-2021)**

Ile-apaintzailea. Garai bateko ile-apaindegiko kontuak nola izaten ziren azaltzen du.



### **Maria Umerez Agirre (1927-2018)**

Murgia auzoko Umerez baserrikoa.



### **Maixabel Umerez Ezeolaza (1936)**

Oñatiko Kanpantxo kalekoa. Zulueta medikuaren etxean neskame egon zen 1954tik 1958ra bitartean. Ahizparekin batera egon zen neskame. "Oñatiko kriaden berbetia" proiekturako egin zitzaion elkarrizketa.




### **Miren Uriarte Eizagirre (1934)**



Araotz auzoko Errekatziki baserrian jaio zen 1934an. Bizimodu gogorra izandakoa da umetatik, aita kartzelan izan zutelako denbora luzean eta 6 urte zituenean ama hil zitzaielako. Bera eta anaia gaztea ospitalean hazi ziren, harik eta aita bigarren ezkondu zen arte. Ama gaixorik zegoela, Zumarragan bizi izan ziren denbora batez. Gerora han eta hemen ibili zen neskame, esaterako, auzoko Gerneta baserrian. "Ara(o)tzurruti" auzuneko Amiamena baserrira ezkondu zen eta 4 seme-alaba izan zituen.

### **Felipa Urkia Elorza (1922-2021)**



1922an jaio zen Ugaztegi auzoko Erdikoetxe baserrian (Ugaztegi auzunea elizaz Araotz auzoari dagokio, baina udalez Aretxabaletari). Aita zuen bertakoa, eta ama, berriz, Aretxabaletako Goroeta auzoko Errekabitarte baserrikoa. Hamaika seme-alaba izan zituzten. Felipak bi urte zituela Ugaztegiko Bekoetxera pasatu ziren. Goroetako eskolan hilabete egin ondoren, Oñatiko Uribarri auzoko eskolara joan zen beste lau urtean, Don Felipe maisuarekin. Neskametzan jardun zuen Donostian urtebetez eta Oñatin (Usakon eta Jaumendin) beste hiru urtean. Ezkondu eta gero, Patrizio Etxeberriaren Burgoseko lursailean (finkan) egin zuen lan lau urtean, bertako langileen ostatua kudeatzen. Uribarriko Aingeru baserriko Santiago Galdosekin ezkondu zen; bi seme izan zituzten. Bertsoak idazteko zaletasuna du.

### **Juane Urkia Elorza (1928-2015)**



Aretxabaletako Goroeta auzoko Bekoetxe baserrian (Ugaztegi auzunea) jaio zen. 11 anai-arreba ziren. Bekoetxe baserria oso altu dago eta Goroeta auzokoa izan arren, Oñatiko Araotz auzotik hurbilago dago (Ugaztegi auzunea elizaz Araotz auzoari dagokio, baina udalez Aretxabaletari). Eskolara joan ahal izateko, Uribarri auzora joan zen morroi 7 urterekin eta bertako eskolan ibili zen 3 urtean. Denbora batez aitari ikazkintzan laguntzen ibili ostean, Goroetako eskolan hasi zen, eta geroago marianistekin ere ibili zen urte eta erdiz. Elorrion egin zituen 6 hilabete marianistekin nobiziotza egiten, baina utzi egin zuen. Soldadu joan bitartean, Bergaran egin zuen urtebete okindegian eta landareekin ere ibili zen lanean. 1951n Gasteizera joan zen soldadutza egitera. Handik etorritakoan saltzaile ibiltari gisa ibili zen Araban eta herriz herriz ibiltzen zen astoekin hainbat gauza saltzen. Zerbitzari lanetan ere ibili zen asteburutan Eibarren "Gau-txori" tabernan. 1959an Garai fabrikari hasi zen lanean eta bertako txofer izan zen jubilatuta arte. 1960an Urruxola auzoko Aginalde ("Aialde") baserrira ezkondu zen.

### **Juanita Urkia Ugarte (1929)**



Ugaztegi auzoko Erdikoetxe baserrian jaio zen, hamabi anai-arrebatatik bosgarrena. Aita bertakoa zen eta ama, berriz, Araotz auzoko Borjena baserrikoa. Araotzeko eskolara joan zen, sei urtetik zortzira (Ugaztegi auzunea elizaz Araotz auzoari dagokio, baina udalez Aretxabaletari). Etxean batez ere umezaintzan jardun zuen, eta hamabost urterekin Oñatiko Olabarrieta auzoarekin mugan dagoen Satui baserrira (Legazpi) joan zen neskame. Han baserriko lan guztietan jardun zuen. Olabarrietako Kortabarri, Imitola eta Sustiabe baserriekin egiten zituzten auzolanak Satui baserrikoek. Geroago Durangoko ikastetxe batean egon zen neskame. Bertan gaixotu eta hamar urtez gaixorik egon ondoren, erreuma eta tifusa sendatuta, Zahor lantegian jardun zuen lau urtez. Ondoren Garibai auzoko "Arrixagakua" (Arriagakua) baserrira joan zen neskame. Handik bertako nagusi alargundu berriarekin Bilbora joan zen neskame lanetan jarraitzeko. Bilbon egon zen jubilatuta arte.

### **Margarita Urkia Ugarte (1923-2017)**



Aretxabaletako Goroeta auzoko Ugaztegi auzunekoa da jaiotzez, baina hurbiltasunagatik Araotzera izan zuten beti joera (Ugaztegi auzunea elizaz Araotz auzoari dagokio, baina udalez Aretxabaletari). Goroetako eskolan ibili zen umetan. Araotz auzoan eta Donostian neskame egondakoa. "Oñatiko kriaden berbetia" proiekturako egin zitzaion elkarrizketa.

### **Doroteo Urrutia Anduaga (1925-2013)**



"Kiputxe" (Gipuzetxe) etxean jaio zen 1925ean. Ama zuen bertakoa eta aita, berriz, Aretxabaletako Goroeta auzokoa. Aitak lehenengo emaztea Goroetakoa zuen, baina emaztea bigarren umearen erditzean hil zitzaion eta Doroteoren amarekin ezkondu zen gero. Hasieran Goroetan bizi izan ziren eta gero Aizpurun (Araban), baina azkenean Kiputxera itzuli ziren eta bertan jaio zen Doroteo. 9 anai-arreba izan ziren. "Gerra Gogoratu Guran" proiekturako egin zitzaion elkarrizketa, gerrako kontuak jasotzeko.

### **Benigno Urrutia Zelaia (1913-2004)**

Murgia auzoko Elorriaga baserrikoa. Fermin Altubek egin zion elkarrizketa "Oñatiko Murgia auzoa" lanerako. "Karretero"en inguruko kontuak kontatzen ditu grabazioan.

### **Regina Urrutia Zelaia (1922-2008)**



Murgia auzoko "Elorrixaga" baserrian jaio zen. Balantzategiko bere senar Migel Ormazabalekin batera Madalenako ermitari erantsita dagoen etxera ezkondu ziren, ermitari kargu egingo zion "bietia" behar zela eta. Lanbide horren gaineko azalpen ugari eman zituen 1995ean "Kontzejupetik" aldizkarirako egin zitzaion elkarrizketan.

### **Juane Urzelai Agirre (1946)**



Uribarri auzoko Urtzelai baserrikoa. Bertan bizi da. Gaztetan baserriko lanetan, hau da, ardiekin, behiekin, soro-lanetan (garia ereiten eta abarretan) eta karea egiten ibili zen; urtean etxeokoekin batera bi edo hiru karobi erretzen zituzten. 1967an utzi zioten langintza horri. Hamazazpi urte zituela hasi zen lanean fabrikan, lehenengo hamaika hilabete Zahor txokolategian, eta, ondoren, Garayrenean beste berrogeita bat urte mantentze lanetan. Handik jubilatuta zen. Alkorta baserriko M<sup>a</sup> Isabel Agirrerekin ezkondu alaba bat izan dute. Karegintzaz hitz egin zuen egindako grabazioan.

### **Jesus Urzelai Aiastui (1929-2022)**



Santsolopetegi (Madalena) auzoko Anduagakua baserrian jaio zen 1929ko urteberri egunean. 8 anai-arreba ziren. Gurasoak ere oñatiarrak zituen, aita bertakoa eta ama Ertzil baserrikoa. Zañartu auzoan ibili zen eskolan gerra garaian, eta geroago Madalenako eskolara pasa ziren. 11 urtera arte ibili zen eskolan, baina lanean hasi ondoren gau-eskoletan ere ibili zen. 14 urterekin Garai lantegian hasi zen lanean.

### **Eulali Urzelai Altube (1944)**



Olabarrieta auzoko Amiño baserrian jaioa. Aita bertakoa zuen eta ama Murgia auzoko Murgialdai baserrikoa. Hiru senidetik bi atera ziren aurrera: Bizente eta Eulali. Ume-umetatik trebatu ziren baserriko lanetan: Eulali ardizain ibiltzen zen. Behiak eta ardiak zituzten. Amiñoko gazta eta ogia ezagunak dira Oñatin eta inguruetan. Bizentek gazta saltzen zuen Arantzazun. Eulalirik, berriz, ogia Olakua auzoan, bertara astoarekin eta esku-karroarekin joanda.

### **Andres Urzelai Biain (1924-2005)**



Oñatiko Arantzazu auzoko Soroaundieta baserrian jaio zen. Ezkondu zenean, Oñatira (herrira) joan zen bizitzera. Baserriko karobian karea askotan egin zuen eta bere anaiak karobi barruko arkuak egiten ere bazekien. Ikazkintza lanean ere aritua da eta azkenengoz 1989an Oñatiko Kilometroetan egin ziren txondorretan lanean jardun zuen beste batzuekin batera.

### **Juane Urzelai Biain (1920-1997)**



Arantzazu auzoko Soroaundieta baserrikoa. Arantzazuko eskolan ibili zen, baina gutxi ikasi omen zuen, etxean lana izaten zutelako. Gerora, soldadutzan ikasi omen zuen ikasitako apurra. Gerra garaian eraman zuten soldadu lehenengoz. Andaluzian egon zen, Peñarroyako ikatz meategiak zaintzen. Gero Afrikan ere bai. Gerraostean berriz deitu zioten eta beste hiru urte egin zituen Gasteizen. Lan ugari egindakoa: erlezain, arotz, hargin...

### **Mariaxun Villar Lizarazu (1948)**



Zubillagako Arretxe Haundi baserrikoa. Aita bertakoa zuen eta ama, berriz, Legazpikoa. Oñatiko noka jasotzeko egindako elkarrizketa, [Sara](#) eta [Mila](#) Martinez de Zuazo eta [Eli Igarzabalekin](#) batera. Mariaxunek ez zuen hitanoa gurasoengandik jaso. Auzoko lagunekin hasi zen hika erabiltzen. Elirekin batera Zubillagari buruzko liburua idatzi du Mariaxunek: "Antxinako Zubillagari begirada bat"

### **Jose Antonio Villar Oiarzabal (1939)**



Maletenean jaioa, Santa Marinan. Aita Olabarrietakoa zuen eta ama inklusakoa, 12 urtera bitarte Villabonan bizi izandakoa. Hiru senidetan zaharrena, gerra bukatu berritan jaioa. 3-6 urte artean mojekin ibili zen eskolan, eta ondoren maristekin; fraidekume joan zen Nafarroara eta Antzuolara, baina ez zen fraide bihurtu eta 19 urterekin Oñatira bueltatu zen. Garay lantegian hasi zen lanean. Garai horretan bakarlari moduan kantuan hasi zen eta baita gitarra irakasten ere. Oñatiko Irintzi zortzikotearekin ere ibili zen. Ez Dok Amairu taldearen sorreran egon zen eta bi disko txiki klandestino grabatu zituen, euskaratutako abesti dantzagarriekin. Bergarako Ariznoa dantzalekuko orkestrako abeslaria izan zen hogeitau urtean. Hainbat lanetan jardun du: besteak beste, musika-tresnen denda eduki zuen, soinu teknikari gisa aritu izan da, aktore lanetan ibili zen Goenkalen eta idazlea ere bada. Laboratorium museoan egindako elkarrizketa, Bergarako euskararen historia soziala jasotzeko.



### **Jazinto Zabaleta Kortabarria (1931-2014)**



### **Maria Angeles Zelaia Zubia (1946)**



Araotz auzoko Elorto baserrikoa. 5 senide ziren. 18 urterekin joan zen kalera bizitzera. Oñatiko noka jasotzeko egindako elkarrizketa, [Jesusa Zumalde](#) eta [Mari Tere Azkoitia](#)rekin batera.

### **Inaxio Zubia Umerez (1943)**



Olabarrieta auzoko Zelaibarren baserrian jaioa.

### **Jesus Zufiria larza (1929-2018)**



Garibai auzoko "Koixkar Garaikua" baserrian jaio zen. Ama bertakoa zen eta aita Aretxabaletako Goroeta auzoko Markietegi baserritik etorritakoa. Zortitik hamabi urtera bitartean Sarramendiko eskolara joaten zen, eguraldi txarra zenean batez ere. Euskaraz berba egiten zuenean, maisuak beheko pagadira bidaltzen zuen, bere etxerako su-egur bila. Amarengandik jaso zuen artzaintza jakinduria, eta aitarengandik berriz ikazkintzakoa. Baso lanetan urte askoan jardundakoa da. Bizi guztia eman du baserrian. Anaia Felix ere egon zen elkarrizketan.

### **Agurtzane Zumalde Barrena (1956)**



Araozgo Aizkorbe Azpikoa baserrikoa, bi gurasoak araoztarrak zituen. 6 senidetan azkenaurrekoa. Gurasoek seirei hika egin diete, eta anai-arreben artean egiten dute; baita beste sebide batzuekin eta lagunekin ere. Lantegian hika egiteko arazoak izan zituen, gizonetzko lankideekin. [Ingo Xonau!](#) proiekturako, Oñatiko noka jasotzeko egindako elkarrizketa, [Koldo](#) anaiarekin eta [Mirari](#) Guridi auzotarrarekin batera. [Jesusa](#) ahizpa zaharrena ere elkarrizketatu genuen.

### **Belen Zumalde Barrena (1963)**



Arantzazu auzoko Gesaltza baserrikoa. 4 anai-arreba dira. Kalera joan zen Bigarren Hezkuntza ikastera, eskola publikoetara. Oñatiko noka jasotzeko egindako elkarrizketa, [Maria Jesus Markuleta](#)rekin eta [Mila Maiztegi](#)rekin. Ohitura handia dauka hika egiteko. Hori bai, amak ez zion hika egiten eta berak ere alabari ez dio egiten; semeari, berriz, bai.

### **Jesusa Zumalde Barrena (1947)**



Araozgo Aizkorbe Azpikoa baserrian jaioa, 6 senidetan zaharrena. 16 urterekin Milikuenean hasi zen lanean asteburuetan eta 17rekin Etxeberria jatetxean; orduetik Oñatiko erdigunean bizi da. Oñatiko noka jasotzeko egindako elkarrizketa, [Maria Angeles Zelaia](#) eta [Mari Tere Azkoitia](#)ekin batera. Bi seme ditu eta biegi egiten die hika.

### **Koldo Zumalde Barrena (1957)**



Araozgo Aizkorbe Azpikoa baserrikoa, bi gurasoak araoztarrak zituen. 6 senidetan gazteena. Gurasoek seirei hika egin diete, eta anai-arreben artean hika egiten dute; baita beste sebide batzuekin eta lagunekin ere. Udal euskaltegiko irakaslea da, Oñatiko euskarari buruzko liburuaren egileetako bat. [Ingo Xonau!](#) proiekturako, Oñatiko noka jasotzeko egindako elkarrizketa, [Agurtzane](#) arrebarekin eta [Mirari Guridi](#) auzotarrarekin batera. [Jesusa](#) arreba zaharrena ere elkarrizketatu genuen proiektu bererako.

### **Iñaki Zumalde Romero (1926-2011)**



Idazle eta historialari oñatiara. Eusko Ikaskuntzako kide izan zen eta 1980-1985 urte bitartean Historia-Geografia saileko lehendakari ere bai.

### **Eugenio Zumalde Ugarte (1916-2002)**



Araotz auzoko Aizkorbe Azpikua baserrian jaioa. Emaztea, [Pilar Barrena](#), auzo bereko Otaloraundi baserrikoa. Senar-emazteei elkarrekin egin zitzaien elkarrizketa.

### **Paulo Zumalde Ugarte (1918-2011)**



Araotz auzoko Uxarte auzuneko Borjena baserrian jaio zen. [Joxepa Zumalde](#)ekin ezkondu zen eta haren etxera joan zen bizitzera, Aizkorbe auzuneko Migelen Txiki baserrira. Sei alaba izan zituzten. [Joxepa](#) emaztearekin batera egin zitzaion elkarrizketa "Gerra gogoratu guran" proiekturako.

## Joxepa Zumalde Zumalde (1919-2019)



Araotz auzoko Aizkorbe auzuneko Migelen Txiki baserrikoa. Guraso biak araoztarrak zituen. Hiru senidetan gazteena, ez zuen aita ezagutu: gripe urtean hil zen, 1918an, Joxepa amaren sabelean zegoela. Uxarte auzuneko Borjena baserriko [Paulo Zumalde](#)rekin ezkondu zen, 24 urterekin, eta sei alaba izan zituzten (horietako lau "[Ingo Xonau!](#)" proiekturako [elkarrizketatuak](#)). [Paulo](#) senarrarekin batera egin zitzaion elkarrizketa "Gerra gogoratu guran" proiekturako. Ondoren, Oñatiko noka jasotzeko beste elkarrizketa bat egin genion, ia 100 urterekin.

## None Zumalde Zumalde ahizpak



Araozgo Aizkorbe auzuneko Migelen Txiki baserriko sei alabetatik lauri egindako elkarrizketa, "[Ingo xonau!](#)" proiekturako, Oñatiko noka jasotzeko. Ezkerretik eskubira: Eugeni (1949), Nati (1946), Ana Mari (1944) eta Arantxa (1951). Guraso biak ere elkarrizketatuta daude: [Joxepa Zumalde](#) eta [Paulo Zumalde](#).

## None Zurutuza Urrutia anai-arrebak



Arantzazu auzoko Arendui baserrikoak, aita bertakoa zuten eta ama Santa Lutziakoa. 10 senidetako bat umetan hil zen. Ezkerretik eskubira, Bernardo (1958), Edurne (1954) eta Karmen (1951). [Ingo Xonau!](#) proiekturako, Oñatiko noka jasotzeko elkarrizketatu ditugu. Gurasoek ez zieten hika egin etxean, baina beraiek beti hika egin dute anai-arreben artean, auzoan ohitura hori zegoelako (gurasoek ere anai-arrebekin egiten zuten). Seme-alabei zuka egiten diete.

## Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

### 1. Aisia

#### 1.1. Lehen dantza gehiago egiten zen

- **Hizlaria(k):** Olalde Beloki, Bittor
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Oñati
- **Erref:** ONA-004/003
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:02:20. **Bukatu:** 00:05:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**
  - Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
  - Aisia » Kultura » Musika

- **Laburpena:** Taldearekin hasi zirenean Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako erromerietan jotzen zuten eta baita ezkontzetan ere. Garairik onenetan 60 ezkontza izaten zituzten urtean. Lehen dantza gehiago egiten zen ezkontzetan, beharbada jai gutxiago zeudelako gaur baino. Bestalde, lehen ezkonduak ez ziren erromerietara joaten.

### Transkripzioa

- Oin dala 38 urte gutxi gorabehera, nun ibiltzen ziñan jotzen, musika jotzen?
- Ni ibilli naiz ba, Bizkaixan eta Araban eta bueno, Gipuzkoan ba hemen ingurutan, danian, hamen inguru danian, Araban bastante, Bizkaixan gutxitxuau baiña Araban asko.
- Eta klaro, garai hartan erromerixatan?
- Erromerixetara, klaro, erromerixetara fan bihar izaten zan.
- Eta bestela ere, ezkontzetara eta bodetara ere deitzen zizuten?
- Bai, bai, asko, bai, asko. Araba aldera eta bodetara gutxi faten giñan, hara gehixen bat erromerixia, ezta? Baiña hemen Gipuzkoa aldiar boda asko, hemen Bergaran, Mondrauen, Oñatin asko, Arantzazun be bai, danian.
- Eta adibidez, urte batean zenbat bodatara faten ziñaten?
- Hirurogei bat boda, hola itten nittuan nik urtian, orduan, epokarik onenian. Gero bajauaz fan giñan. Hor ibilliko da, hirurogei bat boda.
- Beraz, astean bat gutxiñez!
- Bai, egunian bi eukittakuak be bai. Atsaldian alde baten, eta gabian beste toki batera.
- Eta adibidez, garai hartako, hasiera haietako bodak eta ya amaierarako bodak diferenteak al ziren?
- Bai, bai, diferentiak bai, oso diferentiak be. Orduan, oin erromerixetan pasaitten dana pasaitten zan orduan be. Orduan jentia anbientian jarten zan lehenau, gaiñera alkartasun gehixao eguen gaur baiño. Orduan zaharrak eta gaztiak eta dantzan zera itten zan ezta? Gaur berriz ba, dantzan oso gutxi azkenera behintzet dantzan oso gutxi itten zan. Eta segun gaiñera, guri esaten oskuen geu konjunto bat, neu betik ibilli naiz konjuntu edo ze horretan, ba, betik mejikania eta pasodoblia eta, ezta? Gauza errezak jotzen, eta horrekin uste dot gehixau animaitten gebela, geuri esaten oskuen posturan. Beste konjunto honeik, gitarristok eta faten zirala eta ezin animau bodarik, ezta? Eta guk ba jokaera horretara itten geben.
- Eta horrela behintzat eragitten zenuten jentia pixka bat dantzatzera ezta?
- Bai.
- Eta, bueno, ba, orduan garai batean gehiago dantzatzan zan? Arrazoa zergatik, beharbada festa gutxiago zegoelako? Eta zegoenean ondo aprobetxatzen zelako?
- Baleike hori izatia, bai, baleike hori izatia. Orduan fiestak bai auzounatan egoten ziran ezta? Baiña auzounatara eta pasaitten zana, ezkonduak eta ez ziran faten! Ezkonduak eta baikotzak bere gauzak eukitten zittuein etxian eta... Hori be pasaitten da, gaur ez dako hainbeste inportantziarik, gaur ba ezkonduak eta solteruak, bale!

## 1.2. Lehenagoko erromeriak altabozik gabe; amaitzeko ordua

- **Hizlaria(k):** Olalde Beloki, Bittor
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Oñati

- **Erref:** ONA-004/005
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:05:45. **Bukatu:** 00:08:05
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak  
Aisia » Kultura » Musika
- **Laburpena:** Lehenagoko erromeriak gogorrakoak izaten ziren musikarientzat, altabozik gabe jotzen zutelako. Gauean jo eta hurrengo egunean etxerik etxe joaten ziren dirua batzera. Erromeria noiz arte egin jakiteko baimena eskatzen zen. Gero Guardia zibilak etortzen ziren zaintzera eta ordua iritsitakoan musika bukatzeko agindua ematen zuten.

### Transkripzioa

- Garai hartako erromerixak nolakoak ziren?
- Erromerixak gaur baiño gogorruak izaten ziran. Zeatik ba gaur be altabozak ipini eta bueno, ba, ze itten zan, baiña orduan "a presión de alubias" jo bihar zanian, orduan, Arabara joan eta zelaixen erdi-erdixan, ez paretarik eta ezebez, jarri karro zahar baten gaiñian eta jo eta jo, goizeko ordu bixak arte jotzen, eta huringo egunian gero, goizian zortziretan jaiki eta "alborada" esaten otsein zerian eta etxerik-etxe batzen ibiltzen giñan, eta ha izaten guretako eskaxena ha izaten zan, deskantsau, bihar dan moduan deskantsau barik, zera, etxera, batzera, diru-batzera joan bihar.
- Eta luze egingo zan gaiñera.
- Bai, bai, luze itten zan klaro, Araban ba herrixak, herri zerak, txikixak izaten dira, ezta? Baiña baserri batetik bestera leku asko, osea ke distantzia haundixak.
- Eta honuntza etorri izan diren pertsonak askotan esan digute ba musika izaten genuen, eta musika bukatzen zela edo esateko guardia zibillak etortzen ziran. Zenbat aldiz ikusi dituzu zuk guardia zibillak bukatzeko esatera?
- Bueno, guardia zibillak hemen Madalengan urtero, eta San Pedron be bai, hemen Oñatin bastante, bastante, erromerixatan guk klaro, guk eukitten geben zer bat, auzounak eskaketan zittuan, Aiuntamientua etorri, etxafleruak botateko autorizaziñua eta ze ordu arte erromerixia, ezta? Eta herrixan denpora gehixau emuten euein auzounatan baiño, auzounatan emuten ebein ordua, ba ordurako guardia zibillak etorten ziran, ze ordura arte autorizaziñua eskaketan ebein eta batzutan ordu laren bat edo ordu erdi bat gehittu igual, ezta? Orduan be diferentzia haundixa egoten zan, guardia zibillak kafetxo bat emuten baotsein, purutxo bat emuten baotsein ba, bizkarrian ondo jo eta orduan ordu bete igual eta hori kaltia izaten zan guretako, musikuendako.
- Hori, batzuetan zuek deseaiten ibilliko ziñaten aber noiz bukatuko eta.
- Bai baiña, ambiente ona egoten zan bai, eta ambiente ona dauenian ezta? Ba ni neu gustora pasaitten neben, txarra izaten zan Madalengan plazia bete-bete-betian eta itsuak nola ez dauen ikusten anbienterik eta zera, hareik orduak pasautakuan, hareik luze itten xakon gero, hori bai.

### 1.3. Urtebetean 6.400 km. bizikletan

- **Hizlaria(k):** Olalde Beloki, Bittor
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Oñati

- **Erref:** ONA-004/014
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:22:20. **Bukatu:** 00:23:15
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Aisia » Kirola » Txirrindularitza
- **Laburpena:** 1989an urte lehorra izan zenez 6.400 km. egin omen zituen urtebetean. Neguan ere ibiltzen da bizikletan, baina ateri dagoenean soilik.

### Transkripzioa

- Bueno, badakigu orain dala bi urte, bueno, nahiko urte politta egin zun, bueno, urte politta, sekulako lehorrea izan genuen 89an, eta orduan nahiko errekor politta egin zendun zuk ere. Zenbat kilometro gutxi gorabehera?

- 6.400 kilometro in nittun urte hartan.

- 6.400 kilometro!

- Bai, bai, oseake neretako denporia zelakua itten dauen, hola izaten da. Aurten be politto nebillen, baiña oin San Migelak ezkeru eurixa hasi dau eta ba ez, holako denporiakin ezin leke urten.

- Negua aurten oso oso goiz sartu zaigu.

- Bai, bai, goiz etorri da bai, goiz. Baiña bueno, ni neguan be igual-igual ibiltten naiz, oseake izotza goizian izugarrixa egiñatik be, bazkal ostian eguzkixa baldin badau, gertatu eta besterik ez bada, 50 kilometro ittera. Klaro illunkaran lehenau etxera etorri bihar dozu, behin bostak ezkeru hotziketan hasten da, ezta? Eta ba ordu horretarako etxera etorri bihar; ba, hiru bat ordu bizikletan in eta ba etxera.

### 1.4. Herriko kirolariak

- **Hizlaria(k):** Lizarralde Galdos, Gregorio; Ugarte Moiuia, Alejo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Jerardo
- **Erref:** ONA-020/013
- **Iraupena:** 0:05:11. **Hasi:** 00:28:30. **Bukatu:** 00:33:41
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Aisia » Kirola » Futbola  
Aisia » Kirola » Txirrindularitza  
Aisia » Kirola » Boxeoa
- **Laburpena:** Gregorio eta Alejoren gazte-denboran futbolari, txirrindulari eta boxeolari ezagunak zeuden herrian. Orain Aterpe Elkarte dagoen lekuan entrenatzen zuten.

### Transkripzioa

- Ikusi dogu apur bat mutikotako, gazte denporako ta lan kontuak apur bat. Oin, zuen gazte denporan beste alderdi batzuk ikutuko dittugu. Zuek gaztiak ziñaila hemen Oñatin egon zan fubolerako, antxintxikalarixak, korredoriak eta afiziño bastante egon zan, ezta? Hemen inguru honetan? Zeintzuk ziran hemen gehixentxuen destakau ziranak deportian eta, epoka horretan?

G: Fubolian Emilio Etxeberria, ha zan gehixen aginketan ebena; eta antxintxika, berriz, Gregorio Guridi "Torre" eta Martiñola, ha zera da, Agustin Iñurritegi.

- Martiñola zein, dultzaiñia joten eben...?

G: Ez, haren semia, eta gero pelotan, berriz, hemen Arralde, Jose Maria Arralde eta Iñaxio Altuna.

A: Manuel Mikeletien semia.

- Mikeletiena.

- Gero Astigarraga be ibilli zan, ez? Joxe... Joxe ez, Karlos.

G: Hipolitto gehixau, oin Donostian edo hor egon bihar dau.

- Hipolitto zein, Astigarraga hori be, anaia?

G: Anaia, anaia, hori onena hori zan.

- Eta boxeuan?

G: Hemen orduan Azkabide, Fidel. Eta gero beste bat, hori...  
Fernando Lizarralde: Eta "Morroi"?

G: "Morroi" kriaia zan, Bergararra, kriaia zerien egon zan...

- Izenakin akordaitten zara? Ze izen eukan edo?

G: Ez naiz akordaitten.

- Danak "Morroi" eta kitto.

F: Baiña gerran batera ibilli ziñain.

G: Gerran batera ibilli giñan, bai. Baiña ez naiz akordaitten izena.

F: Nik ha ezagutu neben trenian, mendizale zera eta joiño, Oñatiarra ala? Eta bai, eta Benedito eta ezagutzen zittuen, Beneditto ta hola. Eta gero, ba, ni zure semia naizela eta ezagutzen eben ba gerratik, eta ez dakit, ez naiz gogoratzen zeñeatik baiña baten bat gerran heriuta eta: "Kapo, ura" eskatu ebela eta hala hil zala.

G: Bai, Benitto zuan hori, "Butron".

- Baiña hori "Morroi" hori ala beste bat? A! Horrek kontau in eben.

G: Hil zana, hil zana.

- Benitto nungua, Oñatikua?

G: Oñatikua, bai. Benitto "Butron".

- Butron apellidua eukan?

G: Ez, apellidua eukan Etxaniz. Bai, hor zerian bizi zan, zine, zineko han etxe batzuk badauzen, ba?

- Zine ostian? Zine ostian egozen hareik Bidebarrietaruntz egozen etxe hareittan? Oin bota (di)ttue, bai.

G: Hor bizi zan. Bota (di)ttue bai, hor bizi zan.

- Eta boxeua nun itten euein hemen, boxeuan ala... entrenamientuak eta?

G: Boxeuan hortxe zerien, Trianan, hemen zerian, Diortxuena, haren parian... A, ez.

F: Errastiñian.

G: Oin etxia bota dau zerak...

- Hemen aurrekaldian.

G: Errastik.

F: Dendia dau hor.

- Dendia ala soziedadia?

G: Oin ez dau dendarik.

F: Dendia kenduta dau baiña dendia euen lekuan.

- Soziedadia, zela dok...?

F: Bai, Aterpe.

- Aterpen. Aterpe dauen lekuan, hor bertan?

G: Bai, Aterpen, bai, hortxe. Hor danera itten zan lehen, bizikletan be bai ta boxeuan be bai ta.

### 1.5. Erromeriak eta jaiak

- **Hizlaria(k)**: Kortabarria Urrutia, Rosario

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-045/009
- **Iraupena**: 0:04:31. **Hasi**: 00:23:46. **Bukatu**: 00:28:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena**: Urtiagaineko erromeriak, dantzak eta neska-laguntzeak. Arantzazura sarri joaten ziren. Oñatiko jaietan barraketara ere bai. Corpus Egunean eta Aste Santuetan, berriz, prozesiora.

### Transkripzioa

- Eta domeketan gero ya nagusituaguak indakuan, erromerixara eta juango ziñazien, ez?
- Nora?
- Erromerixara.
- Erromerixara? Erromerixara gutxittan faten giñan gu, erromerixia bertan egoten zan, auzuan, hortxe Urtiagaiñen. Oin aiña kotxe ez zan ibiltten ta, kamiñuan.
- Eta ze egoten zan, soiñujolia egoten zan?
- Bai. Akordeona jotzen euen.
- Zein egoten zan?
- Ba hementxe auzoko mutikote batzuk egoten ziren, batzuetan ahokua, beste batzuetan eskuetakua ta holaxe.
- Eta "agarrauan" be itten zenduen dantzan?
- Huum! Agarrauan... ez hoba!
- Zer, abaria begira?
- Bai.
- Ez zeban lagatzen abadiak ala, agarrauan itten?
- Ez hainbeste.
- Eta gero neska-laguntziak eta itten ziran?
- Neska-lagunketiak eta? Bai behin neska ta mutil egin ezkeru, lagunketan euen.
- Zelan izaten zan? Dantzan egin lehenengo eta gero lagundu etxera ala?
- Bai.
- Eta hor Urtiagaiñen erromerixia egoten zanian, ya ordurako tabernia baeuen?
- Bai, Bixente ta Maria.
- Ez xat itten ezagunak izenak.
- Ezetz? Ba haren seme-alabak ondiok bizi dira.
- Horreik bai, seme-alabak bai baiña bera...
- Alaba: baiña horrein aitta, neu justo-justo akordaitten naiz ta.
- Zu be ez?
- Alaba: ni bai, ni akordaitten naiz, baiña ni artian oso gaztia nintzala hil zan hori.
- Flakotxo bat zan.
- Bai, akordaitten naiz.
- Ta Arantzazura eta faten ziñain?
- Bai, Arantzazura bastante faten giñan.
- Mezetara edo...?
- Mezetara edo, bai. Mezetara Ama Birjiña egunian behintzet segiru faten giñan, urtero, eta bestela be bastante sarri.
- Eta inguruetan beste erromeririk egoten zan?
- Inguruetan? Ba auzo danetan egoten zan, auzo danetan, baikotza bere auzuetan.



- Eta juaten ziñazien zuek?  
- Ez, gu bertan geraketan giñan, bertan ibiltten giñan gu.  
- Eta kalera jaixetan?  
- Kalera be jaixetan ez, San Migeletan ta Corpus Egunian ta holakotxietan.  
- Ta ze egoten zan San Migeletan kalian?  
- San Migeletan? Ba barrakak eta orduan be egoten ziran, barrakak, bai.  
- Zelakuak egoten ziran barrakak orduan?  
- Zelakuak? Ba astotxuak eta... hola bueltan ibiltten ziranak eta.  
- A, bai?  
- Holakotxiak.  
- Astotxuak lotuta bueltan, igual sei-zortzi astotxo edo?  
- Tiobibuak.  
- Oin tiobibuak esaten xakona?  
- Tiobibuak.  
- Alaba: katiakin egoten ziren, hori, kolunpixo moduko horreik.  
- Eta ze gehixago egoten zan, musikia edo?  
- Bai, musikia, musikia egoten zan, eta tanborradia be bai.  
- Tanborradia ta. Corpus Egunian prozesiñua, eta Aste Santuan be bai, Aste Santuan be prozesiñua egoten zan. Holakotxiak egoten ziren, beste ezer asko ez.

#### 1.6. Arto zuriketa festa

- **Hizlaria(k):** Jauregialtzo Arriaran, Migel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-051/007
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:13:33. **Bukatu:** 00:15:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak  
Baserría » Baserríko lanak » Artoa
- **Laburpena:** Beliendarren familiak antolatzen zituen jaiak Mendiko Klean, arto zuriketa probetxatuz.

### Transkripzioa

- Gure gazte denporan, hemen aldean, Belienarrak bizi txiuzan. Belienak.
- Belienak?
- Bai. Ta el año trentaiunuan fan txiuzan Portugaletera bizittera. Txiuzan bost anae eta arreba bat enda gu baño zahartxuauak, hareik orduko soldautzaia ta indda xakuein, "el año 31" ordurako lizenziauta ta etorritta ta danak indda xazaken hareik, gu baño zaharrauak txiuzan, ta hareik izaten txiuzan hemen fiesta danak organizaitten zittueiñak, Mendiko Kalen fiesta haundixak itten ziuzan. Eurak eukitten xuein behixak be bai, txarrixak be bai, Torrealden lurrak be baxakuein, enda hau garai hontan Santu Guztietatik hemen garai hontan, zera itten xuein artua zuriketean, arto zuriketean ibiltten txiuzan, eta arto zuriketako Mendiko Kaleko famelixa danak inbitaitten txuein, eta gero akaberan, sagardaua ta gaztaña-erriak ta tremendako fiestia formaitten xuein.
- Guk, Arantzazun, nik ama Arantzazukua dakot, guk esaten dogu "artua irakurri".
- Bai, hori onddiok leku askotan itten dok, oin artuak gastau inddok eta, baiña orduan garai haretan bai, e? Holaxe gure bizimodua.

### 1.7. Erromeria zaharra

- **Hizlaria(k):** Kortabarria Agirre, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-053/010
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:23:04. **Bukatu:** 00:24:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena:** Azalditan hasiera baten eta Lizargaraten gero elkartzen ziren urtean behin auzokoak bergarar eta antzuolarrekin oso giro onean.

### Transkripzioa

- ... jai egunetan ta goixan Lizargarate egoten zan, Antzuelakuak be etorten ziren hara, Bergara aldeko baserrikuak be baitta, han goixan ha betik egonda paraje animaua edo, Bergararrak be bai, Antzuolarrak be bai, ta hemenguak eta...
- Hori noiz, domeketan ala...?
- Bai, domeketan. Baiña hor Lizargaraten, gu baiño, amandriak eta esaten euen handik harutzatxuao Azalditta edo holako zer bat, han egoten zan holako zer bat, juntaitten zirala domeketan eguraldi ona euenian betik juntaitten ziran, Antzuolakuak be bai, Bergara aldeko baserri danekuak be bai, ta horkuak be bai, hantxe juntaitten ziren, eta gero handik ba Lizargaratera pasau zan hori, han Lizargaraten baserrixa eta taberna pittin bat edo ifiñi euen eta ba...
- Ezagutu neben nik hori.

## 1.8. Hegaztiak gutxituaz

- **Hizlaria(k):** Etxezarreta Galdos, Bitoriano
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-054/018
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:48:03. **Bukatu:** 00:50:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- **Laburpena:** Hegazti mota eta kopuruaren beherakadan izan omen du zerikusia ehiztarien jokabideak.

### Transkripzioa

- Eta zuk uste dozu txorixak eta gutxittu in dirala?
- Gutxittuko ez ziren ba.
- Baiña kazarixak euki daue hor ze ikusirik?
- Eukiko ez daue ba. Jo ta tiruka erreten (di)ttu danak bazter guztiok eta. Tiratu bihar xakonian eta ez xakonian, danian. Kazarixak asko ze ikusi euki dau, zeatik ez e, pasiari bere momentua allaitten xako. Hemen iaz bertan, iaz bertan ez, aurten bertan notau dan gauzia, oktubrian hemengo jentiak, da, Usakoetxenea ta fan bai eta tapa-tapa-tapa usua. Baiña artian eregi barik, "doce de octubrian" usua ereitten zan bai, eta handik aurrera bapez, zeatik hortikaldian egurra emun, (...).
- Hona aillau ez, e?
- Beste direktziño bat hartu usuak. Ene guk zenbait tontokeri inddakuak garien, ene, ene. Zenbat bokadillo basuan jan ta, bokadillua jan ta aurrera.
- Baiña gustora!
- Goizeko hiruretan hemen urten bai; hiruretan? Edo bai, hiru ta erdittan urten hemen bai, eta asaldeko lau ta erdittan egoten zan automobilla Arantzazun, aintxintxika in ta harrapo. Ha harrapaitten gebenian gustora. Zenbat ibiltten giñan gu orduan, geratu be ez e? Geraketarik!
- Eta automobilla Arantzazun, autubusa?
- Autubusa egoten zan.
- Herrira bajatzeko?
- Herrira bajatzeko.
- Oseake egun osua pasatzen zenduen.
- Eguna? Egun osua eta hurringo eguna be bai ixa, zati bat.
- Goiz jaikitta.
- Ibilli!

## 1.9. Perretxiko bila

- **Hizlaria(k):** Etxezarreta Galdos, Bitoriano
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-054/019
- **Iraupena:** 0:03:57. **Hasi:** 00:50:00. **Bukatu:** 00:53:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Aisia » Mendia eta hondartza » Perretxiko bila

- **Laburpena:** Perretxiko asko batzen zuen. Ormaiztegiko plazan saltzeko bidaltzen zituzten perretxiko zakukadak. Urbia aldera joaten ziren gehienbat perretxikotara.

### Transkripzioa

- Eta perretxikutarako?
- Perretxikotarako tremendako afeziñua.
- Afeziñua, bai?
- Guk? Ekarri be. Ekarri, perretxikuak ekarrirra gaoz gu gibelurdiñak, honguak eta honaik zerak, gehixen gibelurdiña eta honguak Urbixatik. Hor egoten zan orduan norberak gura dan beste hartu eta etxera, holaxe. Iñor ez zuan faten ta. Gaiñera olixua karu xauan orduan ta olixuak be zearik ez ta, oin fan hai! Oin ez da... oin ez da zerik itterik. Orduan ekarten giñuan geuk gura beste perretxiko eta geuk gura geben modukuak.
- Eta ze perretxiko klase hartzen zan gehixen? Hongo eta gibelurdiña?
- Hongua eta gibelurdiña.
- Eta beste zer gehixau?
- Saltsa perretxikua be hartzen zan.
- Eta korosua.
- Korosua.
- Korosua zer da?
- Gibelurdiñen famelixakua, berdia.
- A, bai.
- Eta gero guk beste gauza bat, kalian geozela in giñuan zera, saldu itten gitxuan orduan perretxikuak, zera, Ormaiztegiko plazako jentia dok ha, eta hari bialketan gitxan. Horreik egoten (di)ttuk ba zerian, basuan? Zeran modukuak, saltsa perretxikuak moduko morduak egoten (di)ttuk horreik zerian...
- Piñudittan?
- Piñudittan, bai.
- Piñutelak.
- Piñutelak ez, ez, ez, beste klase bat. Piñutelaz aparte, beste klase bat, eta hareik bialketan gitxun guk zerera, horra, Ormaiztegira, Ormaiztegin [...], Ormaiztegin plazan saltzen zittuein baiña, baiña guk hareik bilaketan gitxun morduak, zakukadak bialketan gitxan guk hareiri.
- Holan horixak esaten dozu?
- Horixak, horixak.
- "Lenguas de vaca"?
- "Lenguas de vaca, esactamente, lengua de vaca", horreik, eta hemen horreik ez (di)ttu sekula jaten.
- Ez, hemen, mikatzagua edo da, ezta?
- Nik ez dakit zelakuak diren, baiña guk zenbait halako bialdu? Zakukadak, e? Bialketan (di)ttugun Ormaiztegira. Hareik plazan saltzen xuein, dirua erdibana itten giñuan, guk ondo urteten giñuan eta eurak be bai, (...).
- Hemen egoten zan kuletua edo?
- Kuletua bai.
- Bai?
- Kuletua, kuletua gutxi.
- Gutxi, ene... hori e...
- Nik sekula ez dot ikusi.
- Nik bi, Zubillagan.
- Baiña gutxi egoten zan orduan be.
- Bai, kuletua hori oso eskasa, hori da zerian zera topaittia moduan.
- Urria.
- (...).

- Urria.
- Urria topatzia moduan da.
- Susatan ibilli ziñan udabarrixan?
- Ez, susatan ez. Susatan ibiltten nitzan, ibilli nintzan, oseake bi edo hiru urtetan zerakin, hau Kazintto zera, Umeretz, Umeretz.
- A, Umeretz.
- Eta bestia zera, Bixain, Klaudio Bixain. Ezagutu zittuan horreik? Ez zittuan ezagutuko. Horreik ziren susazale amorratuak, eta horreikin faten nitzan baiña urtian baten suertaitten bazan hola, zera, eskukada, hola eskukada bana partitteko, kitto! Oseake lekuak bai, hemen be bai, eta zeren bat, txikiñen bat, eta han be bai eta bestian be bai ta, susatan ez, [...] hortan ez xok mereziu ibiltterik. Gero susak jateko grazia gutxiau perretxikuak baiño. Nik neuk perretxikua asko gurau xuat susia baiño.
- Bai, neuk be bai.
- Oseake, susia ya, nik hartzen xaot (...) Gauza fuertia, ha dok gustua emuteko bakarrik tortilliari.
- Eta ze ingurutan ibiltzen ziñazien gehixen? Edo zein zan hemen paraje onena perretxikutarako?
- Perretxikutarako? Urbixa aldia.
- Urbixa aldia?
- Pagua ugari, hasi hor zerien Arantzazun ta Urbixa ta, ba! Lekuak.

### 1.10. Perretxiko sasoiak

- **Hizlaria(k):** Etxezarreta Galdos, Bitoriano
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-054/020
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:53:57. **Bukatu:** 00:56:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Aisia » Mendia eta hondartza » Perretxiko bila
- **Laburpena:** Olio gabeziak mugatzen zuen perretxiko zaletasuna. Poteetan ere gordetzen zituzten perretxikoak kontserban. Perretxiko sasoiak behetik gora egiten du, kaleko basoetan hasita; ziza goian bukatzen denean behean perretxikoa hasten da.

### Transkripzioa

- Lehenau be bazeuan afeziñua perretxikotarako?
- Lehenau, lehenau ez euen, zeatik olixorik ez euen bai orduen, olixua egon bai baiña garesti, garesti, eta...
- Olixo asko gastatzen zalako?
- Gurian berriz esan nostain, zuk ekarri olixuatik, zuk ekarri. Gure etxian danak jaten ziren. Gero zerien konserban be bai ifintten zittuan. Honeik zertu, garbittu, zatixak in eta ifiñi pote baten, ifintten zan bere urakin eta hareik baño marian eukitten zittuan, baiñu marian euki eta gero jan bihar ziran arte potian egoten ziran, trak erei ta. (...)
- Bai, e?
- Bai, haxe be asmau gotsan guk hareiri.
- Urte dana perretxiko jaten.
- Urte dana perretxiko jaten, bueno, gura gebenian behintzet. Babak jaten gehixau baiña... Barre itten xok horrek.
- Eta hori, ze sasoi izaten zan perretxiko baikotzandako edo? Perretxiko

bakoitza ze sasoittan hasten zan edo?

- Perretxikuari in bihar xakon jarraitu behetik gora. Oseake esan gura dotena, leheningo hemen behian hasten zan, gerotxuau suabe, politto-politto, oseake maillaka-maillaka-maillaka igoten xuan zerak. Zera, beharra ta, gauza... hasten dan moduan. Behian leheningo eta gero gorau, gero atzera bigarren bueltia etorten zan, ezta? Baiña... halaxe, guk hala jarraitu, guk "paso a paso" jakitten geben nundik nora topau bihar dan perretxikua. Bijaie hutsik ez, oin sikutiakin ezpeuen ba ez xauk, ezta? Baiña bestela, hantxe egon bihar xok perretxikua, taka-ta ta fan ta batu eta etxera.

- Esan dogu zuzia udabarrizan eta gero, ze sasoittan hasten dira honguak eta gibelurdiñak eta?

- Ba hor zerak dauz, susia goixan gastau eta behian perretxikua hasi.

- Setienbre inguruan edo oktubre edo? Abuztuan.

- "Agosto"? Baitta, baitta "mayo" be bai, "mayo" be bai.

- Honguak be bai?

- Bai. Leheningo-leheninguak bai.

- Leheninguak bai. Makiña bat jandakuak gaz gu.

- Perretxiko guztiak sasoi hortan hasten dira? Maiatzian edo, batzuk, zeintzuk lehenau ta?

- Leheningo ba leheningo hemen urten izan daue honguak, eta gero ba saltsak eta gibelurdiñak eta, horreik ba gerotxuau.

- Gerotxuau.

### 1.11. "Cuba" taberna

- **Hizlaria(k)**: Guridi Zumalde, Inazio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-065/001
- **Iraupena**: 0:04:08. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:04:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- **Laburpena**: Torrera bidean etxe baten kantalean zegoen "Cuba" izeneko taberna txikian elkartzen ziren "karreteroak", lana bukatu ondoren.

### Transkripzioa

- Lehen esan doskue karreteroak "Cuba" tabernan juntaitten ziñaziela.

- Cuba etxia izaten zan guretako. Illunkaran basotik etorri, idixak bialdu etxera eta Cubara tragau hartzera. Hori seguru.

- Han karretero danak juntaitten ziren?

- Ba gu kuadrillia beti Cubara.

- Amerikano bihurtu arte ixa.

- Bai, antzera.

- Karretero asko zeguan herrizan? Karretero jente gehixau be bazauan?

- Bai, bastante asko, bai.

- Eta Cuban ze itten zeuein, jan, eran, musian, kantuan?

- Musian ta ez,ez, hori ez. Gu hona, bokailua ekarten eben arrebatek-edo ekarten eben bokailua hartu edo bestela idixen buruan ibilita ta gero han trago bat jo eta kitto, etxera. Goizian listo ibili bihar, goizian ganauari jaten aurretik emun bihar, gobernau eta ondo jaten beuen artian konforme.

Idiekin lana txarra izaten zan.

- Eta hor Cuba, nik ez dot ezagutu Cuba tabernia, ze zan, taberna haundixa edo ze?

- Keba, holakotxe zer txiki bat, hutsa. Onddiok Karmen biziko dok hangua, hau, zeren andria, ez xat akordauko ta. Han Torrera doian bidian aldamenian.

- Nun dauen, nun egon zan badakit, baiña neuk ez dakot goguan.

- Ba hantxe hutsa baiña, holako taberna txiki bat. Hau sukaldiau asko gehixau ez.

- Eta mahairik eta holakorik ez?

- Baazen, ardaua zertu ta itteko, hona, mostradoria eta aldamenian mahai bat edo bankua jasarri eta hantxe.

- Ardaua zela egoten zan, barrikatan edo zela egoten zan?

- Leheningo zeretan, bertakuak, harek saraixetan ekarten eben Edmundo Geretanetik. Gereta.

- Edmondonetik hara ekarri eta saraittik ...

- Gero saraittik etaraten eben pitxarrera edo botillara baiña handik.

- Zuk lehen esan dozu Hillariona-ta horreik be ...

- Hillariona eta horreik, Hillariona geruaukua zan. Cuba, gu han egoten giñan Cuban.

- Eta Elvirana zer da, Cuba baiño barrixaua?

- Geruaukua.

-Elvirana ezautu naberen.

-Elvirana hori Kortabarrikuakin ezkondu zan, enda zerien eukein Goñiñeko zerian Kale Nagusian, enda handik gero ezkondu zanian honutz, hori Kortabarriko etxia nola zan, hemen oin Mendiko Kalian dakon ezkiñakua ba ha gero etorri zan.

- Taberna eta almazena eta dana eukan.

- Almazena eta danak hor, eta bizittera be horraxa etorri ziren.

- Eta hori Cubako hori ze moduko, ez dakit, mostradoria zelakua zan edo. Ze zan kuadraua-edo?

- Keba, holakotxe mostradore bat ze bat eta bestekaldera mahaixa eta erateko bankuak edo ze bat, asientuak inda ta hantxe ze bat, kitto. Ha izaten zan gure egonlekuori.

### 1.12. Idiak gidaririk gabe etxera

- **Hizlaria(k):** Guridi Zumalde, Inazio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-065/002
- **Iraupena:** 0:04:06. **Hasi:** 00:04:08. **Bukatu:** 00:08:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**
  - Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
  - Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Lanean bustitzen zirenerako, idien buruan eramaten zituzten aldatzeko arropak. Hori zen karreteroan aldagela. Laneguna bukatzen zuenean, Santa Mariñako plazatik idiak etxera bidali eta eurak "Cuba" tabernara joaten ziren etxera itzuli aurretik. "Cuba" taberna itxi zutenean "Xabalonera" joaten hasi ziren, perratoki aurrealdean zegoen tabernara.

## Transkripzioa

- Eta egunero joaten ziñazien?
- Sarrittan bai, segun zela gabiltzen lanian, lanian ibilli ezker harutz.
- Eta han jarri, deskantsua hartu eta tertulixan?
- Mundua goberanau edo zera in.
- Eta zuek klaro, zuek ez zeuen biheko kalera fateko jztetxerik ez zeuen biheko, ezta?
- Idixen buruan ibiltten geben guk, hona, sarrittan bustitta igual, hona, idixakin ibilitta bai, eta aldatu ta ia arriua konpletua idixen buruan, kaltzak eta oiñetako zerak abarkak zerak-eta, hareik idixen buruan ibiltten ziren hareik, idixen buruan.
- Zuen jztetxia idixen buruan zan?
- Idixen buruan. Idixen buruan han zertu eta bustitta edo zera bageozen, di-da!
- Kontau oskun Miel Jauregialtzokin egon giñan oin dala hamabost egun-edo? Hiru aste-edo? Eta euren zala sarramenditarren edo ez dakit noren jztetxia zala.
- Bai, haik klaro, aurrerakuan, zerana, ldefontsona, banastagiñan.
- Bai, banastagiñan. Eta orduan klaro, zuek ez zeuen bihar jztetxerik, idixan bazeukein ba...
- Ez, ez, gu handik... Santa Mariñatik danak harutz.
- Zeatik hor, Akelena ta lehenao Simona bizi zan etxia eta horreik be jztetxiak izaten ziren, ezta? Beste Mendiko...
- Mendiko etxiak kuarton bat edo trasten bat eukitten euen oiñetakuak aldatu ta kalera mezetera edo juteko.
- Ze ibiltzen ziñazien bestela, beti abarkekin.
- Orduan abarkia izaten zan gure denporan. Epoka txarra egon zan hor danak puskatu itten zirela kubiertia zertu ta ... bai zera, hona, lurrakin inddako gomak eta hareik puskatu itten ziren segittun ta bueno ...
- Eta alfarketak-eta ebalten zittuein?
- Alpagatak-eta bai, baiña gutxi.
- Eta zapatak?
- Zapatok e ...
- Kalera juateko?
- Kalera juteko zerak, ta kalera juteko bidiak nolakuak? Senda koxkor bat zerak eta bueno, danak losakin inddako zerak norbera ibiltteko, personak ibiltteko.
- Baiña horra, Cubako kontuakin, idixak etxian itxitta faten ziñain hara? Edo ...
- Etxera Santa Mariñatik bialduta etorten ziren hareik! Baikotza bere etxietara. Horixe, irakutsitta, hareik ...
- Zuek zerratik etorri ganauakin, ganauak etxera bialdu eta zeuek tabernara?
- Geu tabernara. Etxian zenonak ba eskatu eta bere tokira joaten ziran ganauak, idik eta.
- Ganau formalak zekazuezen orduan.
- Irakutsi in bihar ondo.
- Eta denpora asko pasatzen zenduen han? Denpora asko egoten ziñazien tabernan, han Cuba tabernan?
- Illuntzian sartu eta barriketia nora jutun zan.
- Eta noiz juaten ziñazien, illunkaran-edo?
- Illuntzian, bai. Illuntzian jeneralien. Gero Cuba zarratu zanian, zarratu zan gure aitta hil zan urtia ez jakiat ez zan. Bai? Eta ha zarratu zanian Xabalonera, perratoki aldamenian, aurrekaldian zeona, Xabalona. Hantxe,



### 1.13. Idi-probetan parte hartzera

- **Hizlaria(k):** Guridi Zumalde, Inazio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-065/003
- **Iraupena:** 0:03:39. **Hasi:** 00:08:14. **Bukatu:** 00:11:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- **Laburpena:** Etxeko idiak harriari tiratzeko gauza zirela probatu ondoren San Isidroetako idi-probara aurkeztu ziren auzoko hiru baserritako idi pareak. Proba egunean, kaleko ukuilu baten utzi zituzten idiak, proba aurretik meza entzutera joateko.

#### Transkripzioa

- Oñatiko idi probatan zer? Premiso asko atara zittun-edo?

- Lehenengoa atara gendun behintzet.

- A, bai?

- Idi proban. Ondiok hau beheko Idiazabal eta biok jun giñan, hona, leheningo in gendun Santa Mariñan, harri ha ez dakit nun dauen baiña, harrikin prueba. Prueba itteko, ez genekien idik ibiliko zuten, harria ibiliko zuten ala ez, eta zera lehen, San Isidro egunian zan ta aurretik, Oñatin zenbat idi zeuen ordun, garai horretan ikaragarri egon be, eta Arrasate Mondrauera jun ziren ferira eta feritik etorri, Txarridunian egon eta zera, hona, Sindikatuko Juanek esan, baiña, San Isidro egunerako plazan idikin in bihar zala prueba, harriekin arrastaka in bihar zala ta, baiña Oñatin gu idi probara? Hola zera ta, eta zertu, harek animatu zittun hona, gure aitta eta Idazabalgua eta Elorduiko ta ferien Mondrauen egondakuak danak. Enda gabian hamabixak inguruan aitta etorri xatan, hona, "zer?" "jaiki!" "ze ba?" Ta "oin?" eta Mondrauen egon zirala eta idiak probatzera joan bihar zula, hona Santa Mariñara, harria ibiltzen zuen ala ez probatzeko. Ta "baiña oin?" "Mondrauen ala Santa Agedara zeatik ez zai jun?" ondiok neuk erantzun notsan. Eta, "ez", "bueno, aldatu, juan ikuillura eta lotu idik" eta juan nitzan, aitta eta biok zerokin Santa Mariñaraiño, ta probatu ta ibilli hartu gendun harriori, erantzi eta ibilli han Santa Mariñako arboladui barrenien orduen kaltzada nola zeon, kaltzadan ibilita "aprobado"; gure hurrengo bestia, harek be igual-igual, Idiazabalgua be, danak ibiltten ginddun, gu hirurak Idiazabalgua, Errekaldekua eta gu, hiru idi pariak aprabau San Isidro egunian itteko. Bueno, gero San Isidro egunerako ze zan ta, hona, beste bat agertu zala Araozko Joxe Txikiña, Jose Txiki berriz ta, harek ba orduan leheningo jokatu daixela berak, Joxe Txiki, ta horixe in zien kastigau, "ya que" gu apuntauta geontzen eta ha gero ha, eta ha etorri eta leheningo harek, ta ni ibilli nintzan goizian, bi goizian, ta orduan lau idi pare ba, bi goizian eta bi arratsaldian itteko. Goizian fan giñan eta onddiok meza aurretik Santa Mariñara eruen idik eta Mikelen zerien, ikuillura sartu, sartu idiak enda mezetara.

### 1.14. Idi-probetan Iñazio txapeldun

- **Hizlaria(k):** Guridi Zumalde, Inazio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-065/004
- **Iraupena:** 0:04:57. **Hasi:** 00:11:53. **Bukatu:** 00:16:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- **Laburpena:** Meza ondoren idiok lotu eta herriko plazara jo zuten. "Joxe Txiki" araoztarrak ekin zion goizean probari. Iñazio bigarrena izan zen, araoztarraren marka gaindituz. Gero lau parte-hartzaileak bazkaltzera joan ziren elkarrekin. Azkenean, Iñazio irabazi zuen. 1952. edo 1953. urtean izan zen gertaera hori. Idi-proba bakarra jokatu da Oñatin eta Urikoko idiek irabazi zuten bertan.

#### Transkripzioa

- Mezia akabo zanian etorri, lotu idik eta plazara, lehengo ordutik araoztarrak Joxe Txiki in zun ta harek in zun ta hurringo gu ta neri orduan kutxillua sartzen banosten ez zebeñ odolik etarako, hori garbi, jo! Eske, plazan han jente guztia begira, bueno, bueno, ekin giñan gure taktikia zan Joxe Txikin marka apurtzia, horixe zan zeori, enda ekin giñan ta hala ibiltzen harriori ta aprobau, apurtu in gendun zeori, gero arratsaldian bestiak. Bazkaltzera onddiok jun giñan zerian, hona, kalia zerian, oin perratzaillien tabernia baxaok ba, han bestekaldetik Inesena edo tabernia euen, eta Inesenian bazkaria. Gu inda geukelako, hona, gere ekiñaldixa inda geukelako ja baiña gere lekutik urtenda, jana sobrau! Ezta bazkaldu ez gendun, eta bestiak berriz, gero artian in bihar zutenak! Hareik esaten eueñez beste hainbeste, eta hareik itteko nola zeuden eta danok pasatu giñan pasatuta gere tokittik. Holaxe ba irabazi gendun ta.

- Ze in zenduen, batzuk goizian eta bestiak arratsaldian.

- Bai, bai.

- Enda orduan denporarik gehixen edo metrorik geheixen zeuenak arrastau eben?

- Bai, periodikua be gurian han egongo dok periodikua ordukua.

- Ze urtetako kontua da hori?

- Ez dakit ze urtetan, ja urtiak juanda dakot, ixa urte mordua hori.

- (Semia): "Cincuenta y dos" edo izango da. "Cincuenta y dos- Cincuenta y tres" holakon bat. Berrogeita hamabigarren urtia edo berrogeita hamahirugarrena.

- Periodikua hor xaok, "La Voz de España"

- Eta harrezkeroko beste idi proba batzutan egon zara?

- Ez.

- Behin bakarrik?

- Behin eta haxe in gendun. Besterik ez.

- Behin in eta irabazi.

- Zeiñek irabazi, ha zereko premixua zan, baserritarren zerian ba, "Cámara Agraria" edo ez dakit zer, harek itten oskun premixuori. Dana, geuk xemikorik be kobratu ez, gero hurringo egunetan, hurringo urtietan, bazkaltzen edo meriendan bat inda, hartan gastatu zan han irabazittakuori. Eta goguan dakot zera, idi proba in bihar zan probalekuori neurtzera, hona, zenbait metro zeukan luzeera harri hori ibiltzeko eta Idiazabalgo Manuelek eta bixok Bergararan bagekixen idi probaren probalekuak zenbat zeukan ta joan giñan biok neurtzera; zeon feria, metruakin neurtzen ezin ibiliko

gaittuk behintzet eta pausoko neurri gendun Bergarako zeori eta atzera pausoko leku honenbeste pauso, honenbeste pauso Txurrukan aurrekaldeko zerian, ta batetik bestera barrenien, plaza barrenian, hona, hainbeste neurritz eta hantxe markak in eta kitto, halaxe in zan prueba. Hori goguan dakot.

- Eta zenbat denpora in zenduen, zenbat... bakoitzak?

- Ez dakit zenbat denpora izaten zan.

- Ordu laurden?

- Ordu laurden edo zenbat izaten zan be, ez dakit. Ez dakot idearik be.

- Eta hori ze izan zan hori, Oñatin in zan kanpeonatua, urte hartan bakarrik ala urtero itten zan?

- Keba, urte hartantxe eta kitto! Gehio ez da in.

- Okurridu ta in ta ...

- Ez dakit harria nun dauen be oin. Lehen Santa Mariñan egoten zan baiña oin ez dakit nun dauen be.

- Hori ez zan izango han frontoian, Gernikako arbolaren onduan egoten zan harrixa?

- (Semia): haxe.

- Bera?

- (Semia): haxe izan biok.

- Onddiok han xaok ha? Ez nauk aspaldixan fijau.

- (Semia): Gernikako arboliaren aldamenien.

- Lehen halako tipo hortako hari bat baxauan han.

- (Semia): haxe izan biok.

- Orduen Oñatin idi probia behin bakarrik jokatu da?

- Orduentxe.

- Eta bera Urikok irabazi?

- Bai, bai, irabazi, haxe in zan.

- Klaro, oin ya gaiñera ezin leike in holakorik.

- Oñatin bazaguan garai hartan idia. Bueno, bueno! Ha in zan eta ba kitto.

Jentia etorten bai, hemetik aurrera makiña bat prueba edo desafio izango

dek, eta ezta gehiorik ere. Ez jokalaria ez e, Azpitti aldian eta beste toki

batzutan izaten diren modura, baiña holaxe.

### 1.15. Asalditako erromeria eta Corpusak

- **Hizlaria(k)**: Aiaitui Aiaitui, Bixenta
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-105/037
- **Iraupena**: 0:01:12. **Hasi**: 00:40:21. **Bukatu**: 00:41:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  - Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
  - Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena**: Inguruko herrietatik joaten ziren Asalditako erromeriera. Makatzak eramaten zituzten San Prudentziotik eta antzuolatarrak ardo kupelak. Corpus Egunean eta Arrosario biharamunean Oñatira joaten ziren, herrira.

### Transkripzioa

- Inguruko herritako jente pillia...

- Bai, asko! Legazpi, Antzuela, Antzuela gehixena Asaldittara, Bergaratik, San Prudentziotik... bai. Jente asko juntaitten zan. Ta San Prudentzio

Ubittakuak eruaten zittuan makatzak, bi astokada edo hola. Eta geuk be orduan andra ta gizon ta ume ta danok faten giñan.

- Ta Asaldittan ardaa ta ardaa kupelak eta...
- Bai, horreik antzuelarrak, antzuelarrak eruten euen bai. Irixakin goizian igoten euen ta antzuelatarrak izaten zian.
- Asaldittan.
- Bazkaixakin orduan be, Asaldittara bai.
- Eta hortik aparte, beste norabaittera jai, jaigirora fateko ohitturik bazeukatzuein?
- E, Korpus Egunian kalera batzuk, beste batzuk ez. Neu sekula behin egon nintzan Koixkardik Korpus Egunian.
- Eta San Migeletan?
- Errosaixo domeka bixamona. Errosaixo domeka bixamonian. Baitta, Pazkua bigarrenian be bai jentia faten zan hemendik. Neu sekula ez dakit fan naizen, baiña faten zan hemen kuadrillia. Ta gero oiñez etorri gaiñera, e!

## 2. Ohiturak eta bizimodua

### 2.1. Arabako herrietako bizipenak, musika jotzera joanda

- **Hizlaria(k)**: Olalde Beloki, Bittor
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Oñati
- **Erref**: ONA-004/007
- **Iraupena**: 0:00:45. **Hasi**: 00:09:40. **Bukatu**: 00:10:25
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak  
Aisia » Kultura » Musika
- **Laburpena**: Taldearekin bizi izan zituzten anekdota asko ez direla kontatzeko modukoak dio. Araba aldean, sarritan garbitzera joan eta ez komunik eta ez urik ez zuten izaten etxeek.

#### Transkripzioa

- Anekdotarik edo izango ditzuzu, ez? 33 urtetan horrela ibilita.

- Bai, bai, anekdotak bueno, hemendik, hemen ezin leike kontau, nik anekdota horreik kontaitten dittut gustora etxian, eta lagun artian eta hola, baiña hemen... anekdota batzuk daoz ezin lekienak kontau, Araba aldian eta pasautakuak eta, bueno, bueno, bueno, barre itteko.

- Garai haiek ez ziran gaur egungoak bezela.

- Ez, ez, ene!

- Eta, horixek, garai hartako beharrak askotan anekdota bihurtzen dira gaur egun, ezta?

- Bai, han joan baserri batera eta ez argirik be ez, urik be ez, eta kumunik be ez, eta garbiketako fan bihar eta, ba ganauakin batera, erreka ezkiñara, askotan, hori Bittorixatik urrin barik, e? Bittorixatik hamar kilometrora hori e?

## 2.2. Maisu eta sakristau

- **Hizlaria(k):** Lizarralde Galdos, Gregorio; Ugarte Moiuia, Alejo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Jerardo
- **Erref:** ONA-020/003
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:02:55. **Bukatu:** 00:05:59
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Alejo Olabarrietako eskolan hasi zen, baina bai bera eta bai Gregorio Santa Marinako eskolan eta maristetan ibili ziren. Don Frutuoso biek izan zuten maisu. Olabarrietako eskolan bertako seme bat izan zen maisu, maisu eta sakristau ere bazena.

### Transkripzioa

- Oseake aitta Urraburukua eta ama Mendikua. Eta eskolara zu nora joan ziñan? Hemen kalia, ala...?

G: Bai, kalia be bai, Don Fruktuosokin zerien, hor, Santa Mariñan. Eta Maristetan.

- Maristetan be bai, zure denporako mutikotan Maristak baziran Oñatin?

G: Bai, bai, hemen egozen.

- Fruktuoso zein zan? Elias zan? Gero Agustiniñuen aitta izan zana, agustiñua... Padre Eliasen aitta izan zan, ezta?

G: Bai.

- Eta harekin Santa Mariñan. Eta gero Maristetan nun, Unibersidadian?

G: Unibersidadian, hor ibilli nintzan.

- Eta zuek, eskolan, nun?

A: Ni leheningo Olabarretan, eta gero Santa Mariñan eta gero Maristetan.

- A, oseake zure antzera. Olabarretan zein zan maixua orduan?

A: Orduan Jose Julian Enparanza.

- Nungua?

A: Bertako semia zan, Olabarretakua.

- Zein baserritakua?

A: Bueno, eliza kontran dauena, Sankristau eta danak itten zittuan harek.

- Zein, ha... Komenientzietxea esaten xakona ala...?

A: Bai, Komenientzietxia besta bat zan.

- Ze izen dako etxe harek, Sakristauenak?

A: Maixuen Etxia, eztakit, Jurgiñen onduan illaran dauena. Elizien kontran dauena. Itten eben harek Sankristau eta maixu.

- Eta Santa Mariñan?

A: Santa Mariñan Fruktuoso.

- Oseake Gregorio moduan, Fruktuosokin. Eta Maristetan?

A: Maristetan euki ninttuan hiru klasetan, hiru maixu. Bat Antzuolarra zan eta bestia, azkenian komerziuan, Don Ildefonso, eta gero azkenian Fruktuoso, frantsesa, buru luze bat zan; hantxe batxilleratu ninttuan 7-8 bat hillabete eta gero lanera urten bihar.

## 2.3. Gregorio fraideekin ikasten Altsasun

- **Hizlaria(k):** Lizarralde Galdos, Gregorio; Ugarte Moiuia, Alejo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Jerardo
- **Erref:** ONA-020/005

- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:07:40. **Bukatu:** 00:09:04
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo
- **Laburpena:** Gregoriok lau urte egin zituen ikasten Altsasun, Frantziskotar Kaputxinoen ikastetxean.

### Transkripzioa

- Eta egon zifan beste estudixon batzuk itten edo, kanpuan?

G: Ni, zerian, fraile.

- Zenbat denpora in zeben?

G: Fraile in neben lau urte.

- Eta zein lekutan?

G: Alsasun.

- Alsasun, ze fraile klasetan?

G: Franziskanos.

- Franziskanos, baiña Alsasun Franziskano Kaputxinuak, ezta?

G: Bai, Kaputxinuak.

- Eta akordaitten zara orduko maixun bat edo, zuek eukittako irakasle edo profesore bat?

G: Bai, maixua akordaitten naiz ni: bat zan Padre Zakarias, beste bat Padre Bernardo eta ez dakit, oin ez xat akordaitten baiña gero akordauko naiz.

- Hor Kaputxino famosuak izan ziran garai hartan, ez dakit zure denporan ordurako ezagunak ziran baiña Aitta Donostia eta, horreik handik ez ziran pasau, Alsasutik?

G: Ez, ez.

- Eta beste bat zan, Aitta Polikarpo eta honeik, e...

G: Horreik ez ziran han egon.

- Han ez ziran egongo, ezta? Orduan egon zifan zu Alsasuko kolejixuan.

- Bai.

## 2.4. Patrizio Etxeberria eta Arralde taxilaria

- **Hizlaria(k):** Lizarralde Galdos, Gregorio; Ugarte Moiuia, Alejo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Jerardo
- **Erref:** ONA-021/015
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 00:54:04. **Bukatu:** 00:57:16
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena:** Patrizio Etxeberria Arantzazun harrapatu zuen gerrak. Arralde taxilariak eraman zuen Legazpira bueltan. Gerora, Arralde heriotza-zigorra jaso zuen. Patriziok atera zuen kartzelatik. Ezkioko Ama Birjinari buruzko kontuak era aipatzen ditu.

### Transkripzioa

-Patriziona lehen hasi zarai kontaitten... eta Patriziona zer izan zan?

Arantzazun euen Patrizio orduan?

G- Zein?

-Patrizio Etxeberria, Arantzazun tokau za...

G-Arantzazun suertau zuan ha, (...) ha fango zuan betiko moduan ba eguna pasaittera eta gerriak han harrapo.

A-Illunkara baten, illunduta orduko, eta Kurtze Baltzen kotxia geratu zan eta...

-(...)

G-Ha Arraldek ekarri xuan.

- Baiña noz?

G- Han euela, konbentuan. Gero konbentutik Arraldek eruan xuan etxera, Legazpira.

-Eta ze euen, bilddurrez etorteko, bera, kontrolatik billurrez-edo?

G-Ez, ha lehen be Arantzazun asko egoten zan, Patrizio.

-Baiña esan gura dot, berak keskia eukan pasaitteko Oñatitik -do? Fitxauta euen-edo...

G-Bilddurra euko eben, baiña gero esango euen hemen Aiuntamentuan edo: ha han xak eta... Arralde fan eta ekarri eben. Eta gero uste dot berak librau ebela kartzelatik. Pena de Muertiakin egon zan Arralde.

-Arralde zer zan, Republikanua?

G-Bai.

-Baiña esaten daue Ezkioko Ama Birjiñiakin sinistu itten ebela, ez?

G-Bai, sinistu bai... baleittek, zeatik e, harek taxixa eukan bai eta komeni xakon hari.

-Jente asko Ezkiora.

A-Ezkiora ni beratzi egunetan illaran fanda nago. Pentsauizu ze fedia euko neben

-Beratzi egun?

A-Beratzi egunetan illaran fanda nago ni Ezkiora, eta harek Beizamako neskiak emun nostan izugarriko atentziñua, begirakuna, oseake fletxazo moduan, eta preguntau nostan nungua nintzan eta danak eta esan notsan: "zer ikusten dozu zuk hor zerian?" Gu Legazpittik bi-hiru-lau lagun faten giñan eta ikusten nebela batzutan ezpatiakin, Ama Birjiñia ezpatiakin, odolaz mantxauta, esan notsan, orduantxe zarradan pasau zan; emakumia gustaitteko modukua zan, e?

-Zenbat urte eukan?

A-Harek gure moduan euko eben hogeta pare bat, hiru bat-edo.

## 2.5. Lehen ohikoa zen ile-apaindegian bizarra moztea

- **Hizlaria(k):** Ugarte Umerez, Nikolas
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Oñati
- **Erref:** ONA-039/002
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 00:01:25. **Bukatu:** 00:04:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**
  - Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Orrazkerak
  - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  - Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
  - Lanbideak » Negozioak, dendak
- **Laburpena:** Bera gaztea zela ikasketak 14 urterekin bukatu ohi ziren; ikasten jarraitu nahi izanez gero, Arrasatera joan behar. Berak aita bizargina zuenez, haren laguntzaile gisa hasi zen eta 50 urte egin ditu ile-apaindegian lanean. Gaur egun bizarrik ez da moztzen ia, baina lehen asko. Kanpoan "barber&iacute;a" eta "peluquer&iacute;a" kartelak

jartzen zituzten. Zenbatero etortzen ziren bezeroak ilea edo bizarra moztera edo kokota konpontzera.

### **Transkripzioa**

- Izan be, zu lanian hasi ziñanian, horrela hasi ziñan, oin dala 50 urte, 50 urte ulia mozten.

- Bueno, ba bai, porke nik oin 65 urte in bihar dittut, eta gure sasueko eskolak, hamalau urtekin hemen Oñatin behintzet akabo eitten gittuan. Batzuek Mondrauera joaten ziran, eta ba neri tokau xatan ba, aitta barberua neukalako, zela falta itten otsan berari be laguntzaille bat, ba neu geldittu nintzan aittakin. Eta nere lagunak, gehixenok, Mondrauera jua ziran.

- Aitta barbero, eta Nikolas, barbero, pelukero, zuk zer jartzen diozu atzetik?

- Ba, ni, neri ez dost zerik emuten, batzuk, oingo gaztiak ez dakit hola ofendiu itten diran barbero edo aittaketan dogunian, baiña nik ez dakot lotsarik esateko barberua izan naizela eta pelukerua be bai porke bixetara, oin ez da bizar kentzen lan asko itten, baiña lehen, bizar kentzen lan asko itten zan, eta gaiñera muestria dau ni goizian hona etorten nintzarian aittakin, lehenengo lana izaten zan, hor atetan geukan bi gantxo eta jarten gittuan bi katxarro, alde batetik eukitten eben "BARBERÍA" eta beste aldetik eukitten eben "PELUQUERÍA", bere zerakin, irudi bat, barberuan irudixa, "La Vacía" esaten dana, holako katxarrotxo bat txintxilizka dauela. "Así que" barbero esatiari ez dot uste zerik, e, desprestigiorik hola danik.

- Gaur egun, egia esan, halako lan gutxiago egingo dozue, askoz be gutxiago, ez?

- Ba bai, bueno, oso gutxi, oso oso gutxi. Lehen normala izaten zan, bezero asko geukan, astian behin behintzat barberixan bizarra kentzen ebeñak. Batzuk eozen bi aldiz, eguaztenian eta zapatuan, edo bestela domeka goizian, porke lehen domeka goizetan be nere aittak lana itten eben. Nik justuan ezagutu neben, neuk ez neben lanik in, baiña aitta lanian domeketan ezagutu neben. Eta gutxi edo asko labaiña norberak etxian kentzeko be gehixenak eukein, eta horreatik euen ohittura hori, astian zihar barberixan igual kendu eta gero batzuek aste bukaeran eurak etxian be baitta baiña beste batzuek barberixara etorten ziran bizarra kentzera. Ulia mozteia normala izaten zan hillian behin, eta tarteka-tarteka jente batzuk eozen hamabostian behin kokotia arreglau eta bizarra kendu itten ebeñak barberixan.

- O sea ke gaur egun pentsaitten dogu norberaren irudia zainketa, gaur egungo modia dala, baiña lehenago be jentiak zainketan eben ondo, e?

- Ba bai, bai, segun ze edadetako mutillak, ba horixe, esaten dotsuten moduan, geukan hamabostian behin kokotia arreglaitten ebeñak, eta gero hillian behin ulia mozten ebeñak.

- Eta mutillak, esan gura dot, behin edade bat ezkeroztik jentiak ez otsan hainbeste begiraketan norberaren irudiari?

- Ba ez dot uste, nik neuk nere rekuerdia dakot mutilletan, hola "más bien" neskakin ebitzeiñak, nobixotan eta, gaztiak, ya behin edade batera ezker hori uste dot galdu egin zala.

## **2.6. Lehen jaunartzea; Gabonak**

- **Hizlaria(k)**: Kortabarria Urrutia, Rosario
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa



- **Erref:** ONA-045/014
- **Iraupena:** 0:05:45. **Hasi:** 00:40:40. **Bukatu:** 00:46:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Sakramentuak
- **Laburpena:** Bederatzi urterekin egin zuen lehenengo jaunartzea. Bere alaba batek bost urterekin egin zuen. Gabonetako ospakizunak eta Erregetako oparitxoak.

### Transkripzioa

- Eta komunixua, komunixua nun egin zendun?
- Komuniua? Oñatin.
- Kalian?
- Bai.
- Parrokixan?
- Bai, parrokixan.
- Eta zelakua, zelan izaten zan lehenao?
- Lehenao? Ointxe letxe. Dotriña jakin bihar izaten zan. Dotriña preguntaitten euen ta erantzun in bihar, eta ikasten dauenak itten euen eta bestela hurringo urterako ez ekixenak.
- Eta joaten ziñazien diferente jantzitta edo?
- Euki ezkeru bai, euki ezkeru diferente jantzitta, baiña orduan zuriz jantzitta banaka batzuk faten zien bakarrik.
- Eta neska ta mutil batera itten zenduen?
- Bai, batera.
- Zenbat urtekin itten zan?
- Ba zortzikin edo beratzikin, nik beratzikin in neben. Hemen gure aldameneko etxian euen neska bat tartamutia zan, eta ha ni baiña zahartxuaua zan eta nerekin, ni lagun nebela fatiatik, ni fan nintzan zortzi urtekin, beratzikin jeneralian itten zan, ta ha beratzikin, bixok faten giñan. Ha bakarrik ez bialketiatik.
- Oseake urte bete aurreratuta in zebeu zuk leheningo komunixuori?
- Bueno, bai. Gurian honen ahizpiak lau urtekin, lau-bostekin, bostekin in eben.
- Bai? Zelan ba bostekin?
- Alaba: nik dakot ahizpa bat minusbalia, onddiok be poliosa jota dago. Orduen ez euen oingo moduko eskolara fateko eta ikasteko erosotasunik, umiak eskolara...
- Orduan ezin lekien, eskolarik ez euen auzuan bertan, edo beuen baiña ezin gekien eruan eskolara, eta euki geben Eskoriatzan, zazpi urte in zittun ezta?
- Alaba: baiña bueno, etorten ziran, maistria etorten zan etxera, abaria be bai. Gero, ha etorri zanian bertan irakutsi otsain dotriña eta geuk geure artian eta preparau zan komuniua itteko. Ta bestia txikixaua ba onduan egoten zan, ta harek lau urtekin ikasi eben, bueno, karretilla bat.
- Harek ikasi eben, bueno, eskolia harek, dotriña eta be(hi)ntzet ikasi eben...
- Alaba: ikasi eben komuniua itteko, karretilla baten ikasi eben, ta lau urtekin. Orduan don Juan etorten zan eta astian pare bat buelta edo harek itten zittuan eta harek gura eben lau urte eukala eta beekixela bai eta eragin in bihar xakola eta lau urteko umia zela eruango zebeu ba, be(hi)ntzet bost urte arte be(hi)ntzet itxi iozu. Bost urtekin in eben harek.
- Ba hori rarua izango zan, ezta?

- Alaba: ba oso rarua.
- Eurak, abariak eurak onartzia be hori ittia.
- Alabia: berak gura eben ittia, klaro, harek, ha onduan hantxe egoten zan bai entzuten, bestiak ba txikixak dana ikasi eben, ta klaro, komuniua itteko preparau zanak beste beekixen lau urtekuak, ta orduan ba esan euen, bueno, honek dana daki ta egin in bihar xako, holakorik ez da ikusi ondiok bai, eta eragin in bihar xatzu, ta esan otsan ondiok lau urteko umia zertara doia, ez daki zertara doian ta...
- Ta zuek in zenduenian komuniua, gero zelebraziañorik edo eitten zan? Zelebratzen zan gero?
- Bai, zelebrou, zerbait partikulartxua betik itten zan.
- Oingo moduan erregalorik eta ez zan egongo.
- Ba, erregaluak be bai, erregalotxuak izaten ziren, ez oin lako erregalotzarrak-eta, baiña erregalotxuak orduen be gustora hartzen zien.
- Eta Erregenetan? Egoten zan erregalorik?
- Baitta Erregenetan be, erregenetan be izango bada mandarinatxon batzuk edo pikuak edo zerbaitzuk betik izaten ziren, eta gustora, oin besteko [...] gaiñera.
- Ta Gabonetan? Jateko ezpeziala eukitzen zenduen?
- Bai, Gabonetan be betik izaten zan zerbait, Gabonetan be Gabona hutsak zelebraitzen zien.
- Eta zer jaten zan Gabonetan espeziala?
- Espeziala? Ba bakaillaua ta ardin bat hil eta buzkantzak eta holakoxiak. Orduan be zerbait moldaitzen zan.

## 2.7. Auzo parrokiak

- **Hizlaria(k)**: Kortabarria Urrutia, Rosario
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-045/018
- **Iraupena**: 0:00:38. **Hasi**: 00:54:33. **Bukatu**: 00:55:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- **Laburpena**: Auzoko elizara abadeak kaletik etortzen ziren. Araotz eta Urrusula dira parrokia eta abadedun auzo bakarrak Oñatin.

### Transkripzioa

- Orduan hemengo auzoko elizara kaleko abaria etortzen zan mezia emutera?
- Bai, kaleko abariak etortzen ziren, hiru txandan.
- Alaba: hori, bertan dagozen izango dira parrokixia dakueiña, Urrusulan ta Araotzen ta.
- Urrusulan ta Araotzen ta ez dago besterik.
- Horreitek egongo dira. Auzuetan eta abadia dagozenak, parrokixia dauen lekuan, Araotzen ta Urrusulan.
- Bai, Araotzen ta Urrusulan, beste lekutan ez da egongo.
- Alaba: ez ba, Oñatin horreitek egongo dira parrokixia dagozenak.

## 2.8. Meza eta arrosarioak

- **Hizlaria(k):** Kortabarria Urrutia, Rosario
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-045/021
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:58:19. **Bukatu:** 00:59:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
- **Laburpena:** Mezak latinez ematen zituzten orduan. Etxean arrosarioa ia egunero errezatzen zuten.

### Transkripzioa

- Ta mezia euskeraz emuten zeben?
- Ez, orduan latin.
- Latiñez.
- Bai.
- Zeuek ikasi zeuein, latin ikasi zeuen?
- Horixe ikasi!
- Orduan zuek errezuak eta be latiñez egingo zenduezen, ez?
- Bai, eurak itten zittuen errezuok, guk entzun bakarrik. Guk ze ingo geben ba.
- Entzun bakarrik.
- Eta etxian bazekazuen ohitturarik errosarixua errezatzeko? Errosarixua errezatzen zenden?
- Bai, errezaitten geben ba.
- Egunero.
- Egun dan-danetan ez dot esaten, baiña gehixenetan bai. Gure amandriak luzia gaiñera errezaitten eben harek.
- Alaba: bai horixe, makiña bat santu badira hor, hartutakuak, astinddu ederrak.

## 2.9. Zazpi apaiz Oñatin

- **Hizlaria(k):** Madina Anduaga, Baxili
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-046/005
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:06:00. **Bukatu:** 00:07:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- **Laburpena:** Herriko apaizak: Don Zabaleta, Don Leonardo, Don Miguel... Zazpi apaiz omen zeuden orduan Oñatin. Hiletan inguruko kontuak. Istripu handi bat egon zen trenbidean eta jende asko bildu omen zen orduko hiletan.

### Transkripzioa

- Leheningo etorri ziren hona... Zabaleta, don Leonardo Zabaleta, hemen etxia eukein gaiñera horreik, eta bestia zan don Dionixio, hori mutillen kongregaziñokua zan parte, eta gero don Miel, eta... Don Miel grazia

haundixa itten eben sermoia itten, egun baten esan oskun: "Ni gaur hona etorri naiz, eta eztakit atzera fango naizen". Berak holaxe itten eben, holaxe. Hari mehe-mehe-mehe baten txintxilizka gaizela han danok. Eta nere artian: "Ez al da ba etengo momentuan behintzet, dakozun pixuakin" pentsaitten neben.

- Zer zan, haundikoten bat?

- Holakotxia, trena lakotxia. Esaten euen gaixorik egon zala eta gero orduan ofrezu ebela, osaketan bazan, apaiz fateko, baiña kosta in xakon puxka bat itxuria hor, hor, tramo hortan, baiña aurrenengo puntan, klaro, Oñatin herrixan 7 abare zerak, elizbarrukuak, 7, eta gero entierro bat bazan be, goikua bazan..., gora urteten euen, Itturritxoraiño; Kalebarrakua bazan Kalebarriraiño, illariak urteten euen. Baiña illararik haundixena egon zan hor, egon zan izugarriko zer bat, akzidente bat pasonibelien, Oñatin, oin dala 50 urte inguru.

## 2.10. Oñatin gertatutako istripu baten inguruko kontuak

- **Hizlaria(k)**: Madina Anduaga, Baxili
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-046/007
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:08:40. **Bukatu**: 00:09:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  - Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
  - Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak
- **Laburpena**: Izugarrizko istripua gertatu zen Oñatin, trenak kotxe bat harrapatu zuenean. Orduko hiletetan jende asko bildu zen. Martin Zulueta ren familiakoak ziren istripuan hildakoak.

### Transkripzioa

- Halakorik, Oñatin halako entierro rik sekula ezta egon. Nik tarjetia dakot, Kirriñenian saltzen egon zien ta erosi neben bat, dana dago baltz.

- Baiña ze akzidente egon zan?

- Akzidentia pasonibelian euki euen horreik akzidentia.

- Kotxia harrapo trenak?

- Bai, pasonibelian eztakit kotxia, trena edo zek harrapo eben baiña trena izango zan pasonibelien, zabalik egon, eta horreik fan zien Gabonetako jostailluak erostera Bilbora, umiendako jostailluak erostera, eta bera etorren, txikixena 5 hillabetekua edo, hari[...] etorren, baiña begira ze, ze atsekabia izan zan hori, gogorra izan zan, gogorra.

- Zeintzuk zien, zela zan izena, hor hil zianen izena?

- Martin Zulueta. Hori zan amerikanua, Amerikan egoten zan asko edo holakoren bat zan. Martin Zulueta hori famosua zan.

## 2.11. Egunero eskolara; gau-eskolak

- **Hizlaria(k)**: Madina Anduaga, Baxili
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-046/016

- **Iraupena:** 0:03:48. **Hasi:** 00:35:22. **Bukatu:** 00:39:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Eskolako egutegi eta ordutegiak; domeketan ere eskolara joaten ziren. Garai haietan ere izaten ziren gau-eskolak.

### Transkripzioa

- Eta liburuak eta euskeraz eukitzen zenduezen? Edo erderaz?
- Erderaz liburu asko eukitten geben erderaz, guri esaten oskuen erdera falta gebela guk.
- Baiña euskerazko libururik bazeukatzuein?
- Euskerazko neri harek bat erregalau in nostan ederra, abare batek bere amari eitten otsan kartak dia. Jerusalem aldiñ ibilli zan abare hori, ta euskeraz itten otsan kartak bere amari egunero-egunero, ta hor dakot goixan hori. Liburu hori herrixan bat edo bi dagoz bakarrik, e?
- Eta baiña eskolan euskerazko libururik, eskolako libururik eukitten zeuein?
- Bai, euko gittuan guk euskerazko liburuak, bai.
- Bazan bat, "Xabierto" edo...
- Bueno, hori gerotxuagokua zan hori, "Xabierto" eta horreik, horreik "como dibujos animados" ta gauza asko dagoz hor, baiña guk horixe, eskolia ikasten geben mas bien zera, kontuetan.
- Kontuak.
- Hori asko, problemak. Ba ibiltten gittuan "regla de tres", "regla de interés", "regla de interés compuesto", ta nik eztakit noraiño allau giñan, orduko, holako, holako zerak... Eta baiña sumarra, sumarra irakusten beste bat euki geben izugarrixa, holakotxe sumarra bai eta "ta-ta-ta-ta" ez euen harrapoko ebenik, "maixu luzia" esaten gotsan, hola etorri zan Araoztik, eta haren zera, baiña rapidezia kontuak etaraten, izugarrixa zan.
- Eta ze joaten ziñazien, astelehenetik eguaikotzera...
- Bai, baiña gero horrek maixu horrek, lehen esan doten horrek, domekan be lan asko eukan. Leheningo mezia, mezia erantzun, hango bazter danak, eliza dana ondo ifiñi, altaria eta zerak eta, kanpada danak jo ta, haik errekojiu ta; gero arratsaldian atzera errosarixua eta eskolia eta domeketako eskolia.
- Domeketan be eskolara faten ziñain?
- Bai ba, esan dot ba lehen be hori, domeketan be eskolia. Errosarixua, galbarixua eta...
- Horreik zien domeketako eskolia?
- Bai, eta gero ondorian domeketako eskolia, don Felipek.
- Eta bestela astian zihar goiz ta atsalde joaten ziñazien?
- Bai, bai, bai, betik goiz ta atsalde, betik. Goizian 9ttan eta gero ba 12xak arte. Arratsaldian atzera ordu 2 ta erdixak edo hor sartuko giñan, eta arratsaldeko 4 ta erdixak. Bai, segun udia bazan negua bazan, hor be kanbixaitten zan pittin bat. Eta gero egoten zan zera, gau-eskolia mutillendako. Mutil nagusixak eukitten euen illunkaratan eskolia.
- Etxeko lanak akabo eta eskolara?
- Bai, gau-eskolia eukitten euen, bai, eta hori be inportantia zan, eta mutillak be hantxe ba barreztaitten zittuen euren eskolak, lehenau ikasittakuak eta ba...

## 2.12. Kalera eskolara

- **Hizlaria(k):** Madina Anduaga, Baxili
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-046/017
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:39:10. **Bukatu:** 00:41:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**
  - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
  - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- **Laburpena:** Klean ibili zen eskolan bi urtean, Ospitalean. Bere anaia, berriz, maristetan. Marista, Agustino eta Frantziskotarren inguruko kontuak.

### Transkripzioa

- Eta bueno, gero ni be kalera fan nintzan eskolara, beste bi urte kalian in nittuan, hamabost ta hamalau urte hemen, legia zan hemen ibili bihar zan hamalau urte, eta hori kunpliu nebenian, kalian ibili nintzan beste bi urtian, Residentziako mojakin, Sor Pia, Sor Grazia, Sor Epifania.

- Eta nun zera, Ospitalian, eskolia Ospitalian euenian?

- Bai.

- Neu be ibillitta nago han.

- Han, han ibilli nintzan ni han, Ospitalian.

- Ni umetan, lau urtekin.

- A, zu behian parbuluetan ibilliko ziñan ezta, igual?

- Bai baiña, klaro, ni ibilli nintzan han oin dala 46 urte; zu, berriz, oin dala 80 urte.

- Ene! Ni antxiñako kontua! Mojok be oso poltxikan euki gittuan, gu betik ogixa edo tremesa edo eruan be itten gosten, gura euena, intxaurra edo gura dana. Eta berriz eskolan ondo preparauta geontzen, hango eskolia ez zan sekula be...

- Eta zuek anae-arreba danok faten ziñain eskolara?

- Bueno, danok, ba, ni baiño zaharraguak ya... Beste anae bat neukan oso listua eskolan, oso listua, maixuak esan otsan berak dakixen danak erakutsiko otsala hari esan otsan. Ameriketara fan zanari be igual esan otsan eta bestiari be bai. Eta orduan ha be gero partikular maristakin ta, hola ibilli zien beste batzuk orduan; lehen Maristak zian, nire semia Maristakin ibilli zan urtietan, gero Maristan eskolia ezkutau in zan hor, ezta?

- Ni neu ez naiz ibilli Maristakin.

- "Calle Amara" edo zela da hori? "Tamara" edo, Maristen nagusixen izena dako horrek kaliorrek, Agustiñotarako kale horrek, bai. Hori, liburu bat ekarri nontan Jabierrek, geixoren bat zainketan nauela, ta ez zeukan beste libururik? Ta zan Oñatiko Agustiñuena, hasi nintzan irakurten eta gustau xaten. Irakurri neben dana. Hemen pasau zien gauzak! Ta klaro, oñatiarrak zien gehixenok, zerok, Maristok, gero Agustiñuak be, hemen Agustiñotan sartu ez zan mutikorik ixa ez euen, danak leheningo Agustiñotan ifiñi eta gero, ba, eskolak ikasten zittuein behintzet onak, eta Arantzazun igual, Arantzazun mutikuak egoten zien "hasta 300 e, 300", eta hareiri danairi emun in bihar xate, zu. Eta Arantzazuko frailliak hemen Otadui etxe baten be etxia erositta euki euein eta gero behixak edo zerbait, esnia behintzet eukitteko umiendako eta zera, ezta?

### 2.13. Oporrik ez

- **Hizlaria(k):** Madina Anduaga, Baxili
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-046/021
- **Iraupena:** 0:00:13. **Hasi:** 00:50:00. **Bukatu:** 00:50:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Oporretan ere lanean jardun behar.

#### Transkripzioa

- Eta bakaziñuak eukitten gittuan agostuan, arbixa eritteko garaixan, ta jakiña, bakaziñuak hartu biharrian jolas egitteko, ittaurren itteko, bueno, bueno.

### 2.14. Eskolan mojekin

- **Hizlaria(k):** Ugarte Umerez, Nikolas
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-049/004
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:12:05. **Bukatu:** 00:14:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- **Laburpena:** Ospitalean hasi zen eskolan mojekin. Orduko umeek negar asko egiten zuten eskolan.

#### Transkripzioa

- Eta eskolan nun ibilli ziñan?  
- Ni eskolan? Ba lehenengo guk Ospittala esaten gotsan, oin Residentzia esaten dan moduan orduan Ospittala zan, ta monja eurak erabilten ebein eurak hori, Ospittalian, harik eta ba ez dakit nik maristetara zenbat urtekin pasaitten giñen, han bost gela egozen, hamalau urtera arte izaten zan, ba 7-8 bat urte arte? Ospittalian izaten zan, parbularixuak oin dian moduan, monjakin, eta gero Maristak, hemen gure sasoian Maristak euzen.  
- Unibersidadian?  
- Unibersidadian, ziran bost gela, atzenengo gelan batzuk bi urte itten ebein, baiña hamalau urte arteko zerak maristekin izaten zan, herriko gehixenak, auzuetatik hola batzuk etorten ziran, beste batzuek ez, baiña kaleko mutikuak hara joaten giñan maristetara.  
- Eta monjetan, ze moduzkuak ziren monjak?  
- Bueno, ez dakot nik holako... bueno! Ni akordaitten naizena da oingo aldian umiak itten zittuein negarrak eskolara ta fateko, bueno, ez dakit zeatik izaten zan.  
- Gogorrek zian?  
- Ez, bai zera, gogorragatik ez, ez geontzen ohittuta edo, ez dakit zeatik izaten zan, gogorragatik ez, monjak zela izango zien ba gogorrek. Ez, ez, nik ez dakot... ba, bakarren bat betik egoten da, ezta?  
- Zorrotzagua edo.  
- Baiña ez dot uste, ez dot uste, sarritan merezi be bai noizian behin

zaplada bat. Baiña negarrak, kalietan ekusten ziren umiak arrastan eruan ezindda eskolatara, nik hori geruau ikusten neben nere sasoian ez, baiña geruau ikusten neben zelako negarrak, geure denporan be ume batzuk jarten ziran erueten euein momentutik jarten ziren urteteko ate kontran ta negar ta negar ta negar, hola baiña, baiña...

- Eskolan bertan?

- Eskolan bertan horixe, bueno, negarrak izaten ziran... pufa! Izugarriak itten ebein. Zeatik? Ez dakit. Oin oingogo umiak hainbeste gauza ikusten (di)ttue oin umiak, ba oso gutxik itten daue, nere illobia oin hasi da eruaten, banakan batek edo hola, igual egunen baten beorrek be ingo dau igual, ezta? Baiña oin zortzi egun egonda gaixorik bai, ha bueno, esan otsanian amak ikastolara, "echando betún" deziditten joateko.

- Diferente.

- Bueno, eta ba oin dakoi jostailluak, beste modu batera zeraittettue, eta orduan ez euen ez jostaillurik eta ez istorixarik!

## 2.15. Eskolan maristekin

- **Hizlaria(k)**: Ugarte Umerez, Nikolas
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-049/005
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:14:45. **Bukatu**: 00:16:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Maristetan 14 urte bete arte ikasi zuen eta handik aitarekin lanera joan zen.

### Transkripzioa

- Eskolan? Horixe ez dakot goguan, baiña ez dakit, nik izango zan bost-sei-zazpi urtekin edo izango zan? Bost-seikin, han igual urte paren bat edo uste dot nik ingo gebela e? Hola ez naiz ni akordaitten hola exaktamente zenbat urtekin. Baiña goguan dakotena da horixe, nik hamalau urtekin itxi notsan eskoliari, hamalau-hamabost bittartian. Bost urte izaten zian maristekin, eta nik igual sei urte ingo nittuan maristetan, bosgarren kursuan bi urteko zera, danak ez euen hori itten baiña uste dot neuk hola in nebela. Hamalau urtera itten zan lagunak, orduan aurrez be ya jentia Mondrauera joaten zan, baiña ondiok bastante bertan herrixan geldiketan zan, taillerren batera, aprendiz ofizion bat ikastera edo... nik aittagana.

- Ya hamalau urtekin hori.

- Hamalau urtekin, bai, bai, hamalau urtekin.

- Osea ya hemen amaitzen zian ikasketak, eta nahi zebeak jarraitzia, Mondrauera.

- Nere lagunak batzuek Mondrauera joan zian, beste batzuek hemen bertan taillerretan hasi zian, gero fabrikak eurak be emun osten aukerak bertan zerak itteko, kursilluak eta gabian ta illunkaratan ta hola. Garaik be euki eben hantxe eskola bat montauta, Aleitarren bajuetan eta holako gauzak egon zien, ezta? Baiña Mondrauera peritajia gehixen batzuk, peritajia horko orduko peritajia izaten zan. Ba ordurako be ya baeuzen gazte batzuk ya karrerak ez dot esaten akabota baiña, ya Mondrauen ebitzeiñak estudixaitten, bai.



## 2.16. Batxilergoa maristetan; Ospitalean bizargin

- **Hizlaria(k):** Ugarte Umerez, Nikolas
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-049/007
- **Iraupena:** 0:04:14. **Hasi:** 00:20:58. **Bukatu:** 00:25:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Zer ikasketa mota izaten zuten. Nikolas maristetan bukatzeaz zela, batxilergoko lehen urtea eman zuten maristek. Astean sei egunetan joaten zen eskolara; zapatuetan Ospitaleko gizonei bizarra kendu ondoren.

### Transkripzioa

- Eta ze ikasten zenuen?

- Ze ikasten geben? Ba hori "lo básico", handik ba "sumar, restar, multiplicar y dividir", eta gero kebraduak eta, oin ez dakit kebraduak dauen oin? Badauz oin kebraduak, "un medio y dos cuartos y tres cuartos" eta holako zerak eta?

- Nik horreik ikasi (di)ttut.

- Eta gero algebra apur bat, baiña algebrakin pasau xakun, ez algebrakin ez, hori pasau xakun frantsesak, 5. kursuan maixu batek asignatura moduan hasi xakun frantses irakusten eta urte bete in geben. Eta gero hurringo urtian aldatu ebein direktoria, 5. urtia direktoriak emuten eben eta harek zera... ez, geixki nabil. Batek intentau oskun kontabilidadia, kontabilidadia intentau oskun batek irakustia, ezta? Eta urtebete in geben kontabilidadia asignatura moduan, eta gero beste maixu bat etorri zan eta harek kontabilidadia alde batera itxi eta gura izan oskun frantses irakustia, eta geldittu giñan ez kontabilidate ta ez frantses. Kitto!

- Zuek oso triste, ezta?

- Bai zera, ordurako ez zan, orduan e, eta ba horreitxek, eta behin hamalau urterako ba esaten dotsuten moduan, ni 5. urtian nenguela sortu zan maristetan batxiller zera, leheningo urtia, bai, eta eskatu ebein boluntarixuak, aber zeñek gura eben batxilleratua hasteia, ezta? Ta sortu zan talde bat eta han hareik hasi ebein gaurko estankukua Irizar ta Kintin, Jose Luis Kintin esaten gotsana ta kuadrilla bat, Leontxi Lana ta hola hareik batxillergo leheningo urtia hasi ebein maristetan. Ez naizena akordaitten urte asko ez ebein ingo porke esan dotsueten moduan han hamabost urte arte edo egoten zan, eta gero ya joaten zienak batzuk joaten zien Mondrauera, beste batzuk joaten zien beste eskola partikular batzuetara eta hola joaten zien, baiña hasieria han emun otsain batxillerrekua.

- Eta zu aittakin lanera.

- Ni aittakin, nere aittak laguntzaillia bihar eben eta ba benga, haraxe, eskolan nebillela be joaten nintzan lagunketara, porke nik dakot goguan zapatu goiz danetan goizeko zortziretarako joaten giñan Ospitalera, hango gizonairi ulia edo bizarra edo kendu, ta ni beratzixak arte, aitta beratzittan barberixara eta ni joaten nintzan maristetara eskolara. Leheningo pausuak hareik izan zien aittakin.

- Zapatuan be bei maristetara joaten ziñan?

- Bai, bai, orduan bai, eguardira arte.

- Sei egun egitten zenduezen eskolan?

- Eguena? Eguen arratsaldia? Ez dakit ez geben jai eukitten, uste dot

baietz, eguena uste dot jai eukitten gebela, bai. Baiña zapatua goiza? Ta ez dakit arratsaldia be ez geben eukitten. Bai, bai, orduan uste dot arratsaldian be joaten giñala eskolara, bai, eguena eukiko geben eguena arratsaldia jai. Bai.

- Bestela eskolan oporrak eta normal eukitzen zenduzen?

- Bai, bai, udako zerak, bai.

- Gabonetan ta...

- Bai, bai, oporrak bai, baiña astian zihar, ta gero asmau zittuein beste ordu horreittatik kanporakuak, "clases de vigila" ta deberiak ittia gura ebenak han bertan ta holako gauzak, baiña bestela bostetan akabaitten geben zera, eskolako lanak, bai.

## 2.17. Afrikan soldadu

- **Hizlaria(k):** Jauregialtzo Arriaran, Migel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-051/004
- **Iraupena:** 0:05:48. **Hasi:** 00:03:01. **Bukatu:** 00:08:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- **Laburpena:** Melillara joan zen soldadu. Lehenengo urte osoan kanpindenda txiki bat besterik ez zuten izan bizitzeko. Sei urtean lizentziatu gabeko Oñatiko soldaduekin elkartu ziren han. Lau hilabete Tetuanen eta handik ez urik eta ez komunik ez zegoen Reayara. Han beste 15 hilabete egin ondoren Huescara bidali zituzten, Horna de Gallegora.

### Transkripzioa

- Ta Afrikara, hau zona zera ibiltten gebena zona hau, Españak ibiltten eben zona gehixena pasaittia tokau xataken, leheningo Melillara fan nintzuan eta gero Melillatik Alhuzemasera, Alhuzemas galdu in eben San Jurjok, Alhuzemas hori "desastre del año 1921 y 22"ian Oñatiko asko egon txiuzan (zittuan) han, han euki xuein tremenduko txokia moruekin, enda hemen Urtzeillakoko Nikolas eta Urtzeillako Pedro bat eta gure zereko, Brinkolako primo bat eta han ibillittakuak txiuzan, gerran ibillittakuak txiuzan, eta beste bat Miel Torre. "El año 1900" zuan hori, unuan edo dozian, hori Afrikako desastriori, eta Miel Torrek eta nik hogeitun urten aldia giñaukan, ni beintitreseko kuarentaitreseko kintua nintzan moduan, ha zuan beintidoseko kintua. Eta gero urtebete in gixuan abillian "1 de" abillian ailligau gitzuan gu barkuan Melillatik zera, ez, Malagatik Melillara, ta zuan "1 de abril", ta orduan Franco gerria, gerria akabo barrixa zuan eta orduan tremenduko desfilia, ta xazaken bi oñatiar lejionarixuak.

- Bi oñatiar?

- Bi oñatiar. Bat honen primo bat, Joxe Castillo hil zan amerikanuori.

- Bar Castillokua?

- Bai, Bar Castillokua, eta bestia Illarramendi. Fan gu, kuartel barik, erropa barik, alpargeta zurixakin banderia jurau giñuan guk Melillan, zortzi kinto gauzaken eta guretako [...] fan gitzan, soldau han? Holako atrasa zela llekek hori? Gu urte betian aire librian egon gitzuan, tienda de kanpaiñarik be ez, honeik izaten (di)ttuk ba tienda kanpaiña ttiki horreik, holakotxe batzuk ipiñi eta hareixen behiean, behian urtebetian, enda kuartela

desagertuta egon zuan, kuartela be.

- Eta zuek gerran edo ...?

- Haik ziuzan gerran ibillittakuak, "zona rojan" ibillittakuak, honeik trentaisieteko kinttuak, trentaisieteko kinttuak artian etxera bialdu barik, lizenziau barik, eta zuan "el año 1943", sei urte, sei urteko soldau luziak artian ejerzitan.

- Hareik desesperauta egongo ziren, e?

- Desesperauta, zein? Gu be bai ondo, e? gu be. Ez euen guretako, bai jana emuten oskuen, arrantxo edo emuten oskuen baiña lekurik ez ta gero bialdu geuzen beste regimento artillerixa batera, Tetuanera. Tetuanen egon giñan Rincón de Merín, Rincón de Merín dok Tetuanek dakon parajerik polittena, zortzi kilometro xakok plaia, ezt dago hor beste inguruan, haik eta Tangerera arte ez jagok plaiarik, ta hantxe egon gitzuan lau bat hillabetian ta gero handik destinau gauzaken Reayara, kanpamentu batera, ta milla soldau batera fan bai, ta milla soldauntzako urik ez, barri-barrixa e? Zemento armauakin inddako kuartela, barri barrixa, ez kumunik ez urik eta ez ezebez, ta errekia bi kilometrorra giñakuan, Tangerdik 20 kilometrorra, gu Tangerera oiñez faten gitzuan.

- Hoge kilometro.

- Hoge kilometro oiñez itten gittun. Han in giñuan beste urte bete eta hiru hillabete, hogeta zazpi hillabete in bai Afrikan, eta etorri gitzuan Española, eta Españan orduan ba gerrako denporako ibillittako Makixak eta zauzaken, orduan ba artian ze in barik zauzaken, enda Huescara. Huescan, honeik Sabiñanigo eta oin herritxuak dittuk, Horna de Gallegon baserrixo baten egon gitzuan ba, gu soldauak han egongo gitzuan gutxiena berrehun bat soldau edo, berrehun bat artillero egongo gitzuan, berrehun bat. Gu egon gitzan baserri etxia, oin be han xagok, andriakin hiru-lau aldiz fan nauk ni hara, oso etxia politta, etxe ona, eta pasaitten zuan Rio Gallego han goittik behera, amorraiñak, errekia, gaur fan bai, ta lehen ezagutu gebenak ez lekek ezagutu ingo Horna de Gallego dan edo beste herri bat dan. Ha errekiak harek jasoten eben moduan bai, ta oin errekarik ez dok bapebe zer itten.

- Tapauta egongo da.

- Dana enkajonauta xakuei euren zeretan.

- Hementxe letxe.

- Sabiñanigon inguruan sartzen (di)txuei beste zona batera.

## 2.18. Soldadutzako kontuak

- **Hizlaria(k):** Jauregialtzo Arriaran, Migel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-051/009
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:18:15. **Bukatu:** 00:20:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- **Laburpena:** Melilla eta Tetuandik baimenarekin etortzen zen etxera. Soldadutzan 40 kilometro oinez egin behar izan zuen hagin bat ateratzeko. Afrikatik Huescara bidali zuten soldadutza bukatzera.

## Transkripzioa

- Ta guk etxian dirua bihar eta gure aittak eta Afrikara neri, eurak dirurik ez

eta zela bialduko nostain ba? Hiru urtian hala be soldautzan, ta gure aittak esaten xuan, ni hiru urtetan etorri nintzuan permisuakin, ta biajia 1.000 erriel kostaten xatala neri, aittari, eta handik etortia kostatzen be bai, e?

- Klaro, biajia.

- Fan-etorrixa ezta?

- Fan ta etorri ittia.

- Eta zela etortzen ziñan, barkuan?

- Barkuan, leheningo Melillatik Malagara eta Malagan 13 bat orduko rekorrdua itten xuan barkuak, ta bigarrenian handik zera pasau gitzuanian Tetuan aldera pasau nintzanian, Tetuandik Ceutatik zera Algecirasera ordu ta erdi bat bakarrik barkuak itten xuan. Bistan, bistan xauk Algeciras hori. Estrecho de Gibraltar edo zeori.

- Eta gero trenez?

- Eta gero trenez; 50 km. Tetuanera, beste 50 ettuk egongo, baiña 45 bat Tetuandik Tangerera. Tangerera autobusak egoten txiuzan. Tetuandik Tangerera oiñez fanda ñauk handik Reaya erdi-erdixan xauan kanpamentuan egon nintzan lekua, eta agiña etaratera be zetik Tetuanera etorritta ñauk, 40 km.an agiña etaratera Reayatik.

- Oiñez.

- Oiñez. Hortxe in gitxuan beste 27 hillabete, eta hortik atzenengo zortzi hillabete edo beratzi hillabetiak Horna de Gallegotik, hortxe Sabiñanigon ta Formigalen ta Escarrillasen ta, honeik kanpo de tiruak eta izaten ziranian, egoten ziranian maniobrak Escarrillasera faten gitzuan, baiña Escarrillasen hil pare bat egitten giñuan.

- Eta handik, Afrikan egon zeontzenetik zenbat aldiz etorri ziñan permisuakin?

- Hiru aldiz.

- Hiru aldiz. Hiru milla errial orduan.

- Bai, eta orduan? Orduan badakik zenbat balixoen horrek?

- Asko.

- Orduan behixak be, Oñatin ziranik onenak be 1000 pezetatik azpira izaten txiuzan.

## 2.19. Gerra latza izan zen

- **Hizlaria(k)**: Kortabarria Agirre, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-053/005
- **Iraupena**: 0:03:55. **Hasi**: 00:07:59. **Bukatu**: 00:11:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren jarrera
- **Laburpena**: Onik itzuli zen gerratik. Baimen batzuk izan zituen, baina arazoak zeuden etxera etortzeko. Gerrako kontu latz batzuk azaltzen dizkigu.

### Transkripzioa

- Eta bueno, ha akabo zan ha be. Osasunakin etorri giñan, hasi giñan lanian fabrikan ta ezkondu giñan ta honeik be etorri ziran ta segi aurrera!

- Eta hor denpora guzti horretan han egon ziñanian etxera etortzen ziñan noizian behin?

- Bai, noizian behin bai. Ez behinguan ez, baiña ba ze esango dotsut ba nik,

ba ni handik etorriko nintzan ba leheningo fan nintzanetik eztakit ba nik, zortzi hillabetera edo, sei hillabete zortzi hillabetera edo holakon bat. Emuten oskuein permisua ikual zortzi egun ta hola, baiña problemak egoten ziran orduan, etorri ta, por ejemplo Teruelen bai, eta emun oskuen permisua eta zela etorri? Ez euen trenik, ez euen autobusik, ez euen ezebe. Kamiñora urten ta obligaziñua eukein kamion militar danak kamiñuan geratu in bihar ziren, eta geraketan ziran kamiñuan eta gañian jarri ta Zaragozaraiño, eta behin Zaragozara ezkerro egoten zan trena baiña zona horreittan ba pentsau, eta gero etxera etorri ta holaxe, zelabait, behin akordaitten naiz, egon be holaxe konbinaziñuak, trenak etorten ziran ba nunbaittetik nunbaittera, eta nik neukan beste lagun bat Araozgua, eta bagetozen eztakit nundik zan, Terueldik ala hor nunbaittetik eta Brinkolan geratu zan trena eta baziran ordua de atake edo gabian, eta guk ze ingo xuau ta bajau giñan eta bixok goizeko ordu batak edo zerien, bajau Brinkolan ta Oñatira, ha Araotzera eta ni Sarramendira, goiza, eguna zabaldu orduko Sarramendira. Bai hareik egun latzak izaten ziren, gero puska bat normalizau ziren baiña geizki ibilli bihar izaten zan. Gero bai, ni gero fan nintzan mobilizauta ta orduan trenak eta danak egozen martxan, gaiñera salbokonduktua emuten oskuen eta ondo. Baiña gerra pasau zanian eta orduan, haik oso egun eskasak izan ziren.

- Eta ze itten zenduan zuk? Ze misiño edo ze funziño, ze itten zenduan? Ze lan?

- Guk zerien geukan artilleria, kañoiak geukan, baiña han infanteriakuk eta ibiltten ziren, ta gaur esanda ezta sinistu be in, orduko gauzak. Han ba republikanuok edo, handikaldekuok, atakiak egoten ziranian ta bata aurrera eta bestia atzera, lurrian hilda egozenai, hilddakuai, erropak kendu eta jantzi, e? [...] Hotzagatik, e? Hotzagatik. Hilddakuak pilluzik egoten ziren, zerien, lurrien. Ha oso serixua zan, gero mobilizau giñanian orduan fan gitzan [...] orduan gosia, jan ez, jan gutxi, eta artian hantxe egon bihar.

- Eta lo itteko ta?

- Ba lo in, han basuan? Jarten ba zan lurrien ba sua indda, ba hantxe zutittu barik, hantxe geldik. Eta bestela zanga bat jo, zangatxo bat jo ezkio, eta lurrien zangan sartu eta han aiziak etzan korritten, eta hantxe bestela ba... Eta bueno, holaxe fan ziren.

## 2.20. Soldaduekin eskolan

- **Hizlaria(k):** Etxezarreta Galdos, Bitoriano
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-054/009
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:21:00. **Bukatu:** 00:23:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo
- **Laburpena:** Asteburuetan ez zuten izaten ikastetxetik irteterik. 200 mutiko inguru zeuden "Padres Paules"-etan. Gerra denboran soldadu italiar, alemaniar eta espainiarrekin batera egon ziren ikastetxean.

### Transkripzioa

- Eta eskolatik gabetan edo aste goixenetan edo urteterik izaten zeuein?

- Ez! Han iñundik urteterik. (...)

- Klausura?

- Klausura morrailluen azpitan. (...)
- Eta mutillak bakarrik, klaro.
- Mutillak bakarrik klaro. Haxe bihar geben! Neskak egon ba ziran han! Orduen be beste zeozer asmauko zan.
- Eta zelakua zan bera, kolejixua?
- Kolejixua haundixa.
- Haundixa, ume askko zeban?
- Kolejixua? Han e... hortxe zerian, hori Murgiatik zerera, Murgiatik handik nora faten da? Bilbora atzekaldera, atzekaldera faten da, baiña ha haundixa kolejixua, bueno!
- Zenbat izango ziñain? Badakotzu goguan zenbat mutiko ziñain?
- Han mutikuak? 200 bat igual.
- Etxetzarra orduan.
- Bueno, kolejixo haundixa, oso haundixa. Gero soldauak egon ziren gerra denporan. Soldauak baiña, gero prisoneruak, baiña tremendako jente pilliak egon ziren han, e? Eta gu euren artian danak nahasi eta ha zera, azkenian ezebez.
- Eta han be babia emuten zotsuen bazkaltzeko?
- Han eztakit ze emuten euein baiña, etxian behintzet makiña bat, majo jaten geben. Horixe goguan hartu dozu ba, e?
- Eta hori esan dozu, gerra denporan soldauak eta egon zirala, eta zuek be han gerra denporan?
- Bai, hantxe-hantxe, soldau pillan, soldauak egon ziran han italianuak, alemanak, egon ziren hemenguak be bai zerak, infanterixia, artilleria, danetakuak egon ziren han. Baiña zenbait soldau eta zenbait... bueno!
- Eta zuek klasiak eukitten zittuein soldauak egon ziran bittartian?
- Bai, zerbait, gerra denporan ezebez ixixa, errezau ta errezau, "Santa Maria" eta "Santa Maria".
- Soldauen alde errezau, ezta?
- Bai, soldauen alde edo kontra...
- Bueno, baiña norbaiten alde ingo zeuein.
- Bai, bai.
- Francon alde izango zan.
- Bai, francon alde, francon alde gutxi itten xuan han jentiak.
- Eta gero handik Panplonara, beste kolejixo batera?
- Ez, kolejixua bera.
- Bera baiña...
- Bai, bai, beste kolejixo batera.
- Eta han be antzera?
- Han be antzera, (...).
- Eta zenbat urtekin bueltau ziñen handik?
- Ba nik orduan 13 urte edo euko nittuan, etxera etorri nitzanian, (...).

## 2.21. Dantza egitea bekatu

- **Hizlaria(k):** Etxezarreta Galdos, Bitoriano
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-054/012
- **Iraupena:** 0:03:47. **Hasi:** 00:26:09. **Bukatu:** 00:29:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra  
Aisia » Kultura » Musika

- **Laburpena:** Igandero etortzen ziren kalera plazako dantzaldira. Horrela ezagutu zuen bere emaztea izango zena. Dantzaldietan beti bederatzi pieza jotzen zituzten. Behin Aita Langarikak neskei dantza egitea debekatu zien.

### Transkripzioa

- Eta zelan ezagutu ziñazien, erromerín baten edo? Erromerixan edo?
- Erromerixara, gu faten giñan erromerixara, bueno! Neskak gura dan beste egon be orduan, neskak?!
- Baiña zeure andria dana ezagutu zebeñ erromerixa baten?
- Erromerixan? Guk segiru itten geben dantza horreikin ta. Domeka ixixa gehixenetan. Domeka daneta ez, zeatik ez orduan itten geben gauza bat, nola aurrerako biderik ez euen, fan zan domekan hareikana fan gitzuan, ta gaur beste batzuekana fango gaittuk, (...). Baiña behin kalera etorri giñanian orduan bihar zan, ta bueno, orduan bihar zan ta bueno. Aurrera in? Atzera in? Bueno, ba aurrera, ta listo.
- Baiña domekero egoten zan erromerixia orduan?
- Musikia.
- Nun, plazan?
- Plazan musikia.
- A, eta kalera etorten ziñazien?
- Klaro ke etorten giñana. Hainbesterako zerak be ez giñan, e? (...)
- Ez, baiña pentsatzen igual auzuan...
- (...).
- Ba Torre Auzoko erromerixia be famosua da ba.
- Baiña bat, urtian bat. San Pedrokua orduan be itten zan, baiña gaur ezebez, gaur... gaur be urtero faten gara gu, onddiok segitten xuau, zera bazkerixa (...) andria, semia eta danok batera.
- Orduan egoten zan domeketan musikia plazan?
- Plazan.
- Bandia edo zer?
- Bandia, bandia. Bandia eta gero ttunttuna be gura dabenak dantza in.
- Eta ze izaten zan, illuntzixan edo ze orduan? Gabian edo illuntzixan edo?
- Ba hor egoten zan, horarixo diferentiak eukitten zittuan, udatik negura kanbixau itten ziren, segun esto, baiña musikia jotzen zittuein beratzi pieza.
- A, bai e?
- Leheningo bi, gero beste bi, gero beste bi eta azkenenguan hiru.
- Extra.
- Ez, zera, azkenenguan sueltua erdixen, bat. (...)
- Eta zela izaten zan? Mutillak joaten ziran neskiana dantza eskatzera eta...
- Klaro! Gu orduan, orduan be rekorra indda xakuat nik, (...). Han zerak egon ziren, zela esaten xako horri? Ejerziziuak zerien, mutillak eta neskak danok.
- Ejerziziuak?
- Edo, zerak... Elizan, zela egoten dira? "Ejercicios espirituales". Zela esaten xako horri euskeraz? (...). Entendiu dozue?
- Bai.
- Bien, haren ondorian, Padre Langarikak batek, emakumiak sartu txuan zera iño, infernuraiño sartu zan atzeruzka, eta iñok be ez dantzarik itteko. Eta fan gaittuk dantzara eta kalabazia, segiru dantza emuten oskunak, ha zuan penia! Fan beste baterana, kalabazia. Ez ba, gaur dantza in bihar xuau, han nun dauzen bi kanpotar, guazen hareitxekana! Osea Oñatikuak ez diranak, oseake fan ta hareitxek soltau. Dantza itten, hau da gustua hau. Ze ba? Eta gaur hau ta hau pasaitten xaku, hemen hau dau, (...).
- Osea, apaizak esan zeban, dantzarik ez itteko neskiari?

- Danak.
- Pekatua, ezta?.
- Pekatua, pekatua mortala gaiñera, dantzarik ez ittia, ene mutillak! Gu zelakuak, gu (...) bizittakuak gara gu gero, e?
- Zuek eta andrak be bai, gizurrakin ta...
- Bueno, gure epokakuak esan gura xuat. (...)

## 2.22. Ospitaleko bizimodua; "Neskapasauak" eta "andra-neskak"

- **Hizlaria(k):** Uriarte Eizagirre, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-057/005
- **Iraupena:** 0:04:40. **Hasi:** 00:07:28. **Bukatu:** 00:12:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola  
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak
- **Laburpena:** Ama galdu zuenean Ospitalean egon zen bere anaia txikiarekin bizitzen. Eskolak ere jaso zituzten bertan. "Neskapasauen" umeak ere eramaten zituzten Ospitalera. Mirenek bere bizitzan lau emakumeri "ama" deitzeko aukera izan du.

### Transkripzioa

- Eta Ospitalian mojakin egoten ziñazien, ezta?
- Bai, mojakin.
- Moja asko zeguan edo...?
- Orduan bai, beratzi edo b(a)eozen, han geixueri atendittekko eta eskolia emuten euen, beratzi moja edo.
- Eta Ospital hori izaten zan etxerik ez eukeiñentzako ta... ?
- Herriko nezesituendako ta ba kanpotik be, beste leku batzutatik be han por ejenplo, neurekin bat egon zan mutikotxo bat Donostiakua zana, ama solteria euken baiña ama sekula ez zan etorten; Moreno euken apelidua, Segundo Moreno, ta ama sekula ez zan etorten, guk ez geben ikusten. Etorri ingo zan igual, ta egon zan denporalditxo baten, baiña bera Donostiakua zala esaten euen, eta klaro, lehen esan gebena, neskapasauak izaten zien lekuetatik umiak eruan itten zittuein ba beste leku batzutara, ta holakon bat izango zan ha be. Moreno hori, gero eruan euela, gero akordauten naiz zela eruen euen.
- Bai eta, neskapasauena aurrekuan komentau geben, badakitzu zer dan neskapasaua?
- A neskapasaua?
- Ezkondu barik haurdun geraketan dan andria. Eta gero umia eukitten dauenian zela esaten xaue horreiri? Ez da andra-neskia?
- Andra-neskia izango da. Hori izan leike, andra-neskia, baiña aurretik ba horixe, neskapasaua. Famelixia euki dauenian neskia neskatik pasauta, neskapasaua. Hori ondo esanda dago egon, neretako, neskapasaua.
- Orduan solteratan haurdun gelditzen zianairi esaten...
- Neskapasaua.
- Eta gero eukitten euenian umiori aitta barik, orduan ya andra-neskia.
- Andra-neskia. Klaro, andria, neskia, ezkondu barik euen.
- Eta orduan anaia ta bixok egon ziñazien han, ezta?
- Bai, bai, atzera berriro aitta ezkondu arte.



- Eta zela egoten ziñazien, neskak eta mutillak aparte egongo ziñazien eta...

- Ba anaia txikitxua zan eta holaxe, illara baten egoten giñan neskatillak eta bestekaldian mutikuak eta, hori komedorian andrak alde batian eta gizonak bestian, komedoria haundixa zan, ez hola mahaitxuetan eta mahaitxuetan, e? "En fila", fila indian danok, erdixa dana libre, eta habitaziñuetan be bai, kriston [...] orduan ez xauan kalefaziñorik eta puñetarik, a ze hotzak pasauten gittun, etxetzar horreik, zera, Ospittal zaharra. Han nik ez dakit zenbat lagun egongo giñan, baiña bastante, bastante jente egoten giñan, akordauten naiz ni, ta gaixuak be egoten ziran batzuk uhera dana, ohia in bihar izaten xatenak eta mojak, berriz, euren lanak eukitten zittuen. Bat enfermera lanak itten ebena zan, baiña eskolia emuten eben. Gero "Madre superiora" esaten gotsana ha berriz, ni egon nintzan denpora dan-dan-danian bat egon zan, sor Aurelia Garaikoetxea naparra, neretako ona izan zan. Nik lauri esan dostet "ama", lau personari: nere amari "ama"; horri monjiorri, sor Aurelia Garaikoetxea horri be "ama", "madre".

- Horri erderaz, "madre".

- Erderaz: "madre". Gero aitta ezkondu zan atzera ta hari be "ama"; gero neu ezkondu nintzan hona eta hemenguari be "ama" esan xat. Lau emakumeri "ama" esan dostet nik, ta neriaena ba gutxi, zeozer bai badakot, sei urtetik suerte haundi barik hil xaten neri ama eta, ba, badakizu, sei urteko personia ta artian ez dakuei gauza danak goguan geldiketako abilidadiori. Oin gauza asko, ba, bai, badakot, geldittuta dakot, "en cambio" nere anaiak ez, nere anaiak, ta betik euki eben bere penatxua, amaren hori abozori eta ez eben ezaguketan; "Hik sikiera amen berbia ezagutu hunan, nik haxe be ez".

## 2.23. Putreak uxatzen

- **Hizlaria(k)**: Uriarte Eizagirre, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-057/012
- **Iraupena**: 0:04:03. **Hasi**: 00:30:00. **Bukatu**: 00:34:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak  
Natura » Fauna
- **Laburpena**: Tiroa bota zieten etxe ingurura etorri ziren putreei, baina ez ziren asko urrundu. Miren joan eta putreak berari begira-begira zeudela, putreak uxatzen saiatu zen. Txakurrak ere hipnotizatuta zirudien. Txerriak esekita ikusi zituzten, baina etxean ez zegoen inor. Izu handia pasa zuen.

### Transkripzioa

- "Zer? Txapelenak txakonai bi txarri hilda hortxe bai eta atzenian buetrak jan bihar ostenai". "Nun xakon..."

- Sikaketan?

- "Nun xakonai ba?" "Hortxe bordepeian". Eta hutsa, geuk medikura fateko ordua xakonau ta urtenda bagaozen biharrao gazen". "Hor behiean zein xabin, ba?", hankak ikusten nittun han ittuako atetik pikupeien hankak

harutz ta honutz ta, "Hor? Gure Antonio". In eben buelta batzuk; hor egon hari hola! "Tiratuxek tiruori!" Ta tiratu een tiruori Antoniorrek, ha zan buetra pillia, artaldia baiña hola haundixa, e? Danak "tiki-taka", "tiki-taka", patuan moduan. Hori etxe bixan bittartian dau pasua, hor urten eben buetriak, ta larrañian takata, txakurra be hipnotizauta letxe holaxe euen, euri begira.

- Sustauta egongo zan.

- Bai, sustauta "completamente"!

- Txakurrentzako bitxo barrixak.

- Bai, txakurra euen holaxe, hipnotizautako moduan, ta teillatutik be holaxe begira ta neri be hola begiraketan nostain ta tirua entzun ebenian Frantziskak nola fan bihar euen medikuana, txandia hartuta eukein, aide fan zan. [...], "horreik badoiazela, Jose Ramon fan dok, honeik buetra zaharro txarrixok!", hola fan hara eta amantala ointxe letxe, hauxe amantal hau, gaiñera, hola zaratia ataraten neu ta eskuan neuken batuta jerseixa, orratz bixak holaxe gora dittutela, hola astinketan amantaleri eta hor larrañian oin be hor egongo da, ez etxe aurrera eruanda da, euen zera, enpaketadoria, enpaketadorien gaiñian toldua, ta ha toldua zaratak ataraten eta zaratak ataraten ta hola nebillen eta etorten xat gero Estebanen semerik zaharrena, ointxe karneta etarata, aurreko egun baten etarata karneta, ta "Ene! Zeu etorri zara kotxian?" esan notsan. "Bai, ze pasauten da amama?" Ze ba? Ta txotxolatu in naizela pentsau eben harek. "Zetan zabitz ba?", "Ez (di)ttuk ekusten horreik?", "Ba nik horreik ikusi (di)ttut, baiña"... Ba harendako "como cosa normal" buetrok. Eta "Hola ta hola Frantziska Beittikuak esan xostak bi txarri dagozela. Fan zatez Goittikora aber iñor dauen hor". Fan zan ta tinbria jo eta tinbria jo ta, fan nintzan neu eta esan notsan: "Ez daue erantzuten?", "Ez", "Juana egongo da bakarrik. Goazen bixok aber ze txarri edo zer dauen hor". Fan giñan bixok eta han egozen txarri bi bordepeian esegitta txintxilil eta porru usaiña edo kipula usaiña eta ba txarri-lanak itten ibillittako moduko usaiña euen. Kotxe bat be han euen, txarrixak ekarteko karromatua be han euen, ta txarrixak txarri-lanetan ibillittako itxuria baeuen baiña iñor ez euen. Esan notsan: "Jo tinbria aber baten bat lo dauen hor, lehen ibilli diran txarri-lanak itten gabian ta aber oin lo dagozen". Jo tinbria eta jo tinbria eta nada. "Hemen ez xaok iñobe. Fan etxera eta ekarri eizu plastiko bat hantxe dago debittuko armaixuen gaiñian, komoda zaharren gaiñian, plastiko barri bat bai, eta ekarri eizu haxe, tapau behintzet in in biharko dittugu, horreik kapaz dia atzera etorteko hori buetra pillia, ta nola horreik buelua ezin dauen hartu zerian, ta nola pillan dabizen", harik eta hor gure etxeburuko zelaira puska bat zabaldu ziran arte ba, norberari atakauteko moduan, e? Emuten euen billurra eta dana ta, horreik ze ta, "fango (di)ttuk gura battuk", baiña nik esan notsan "itxi daigun bakian, gura dauena ingo xuai, tapau daigun txarrixak". Ta hori zan ba hamar ta erdixak, hamaikak bittarte hori.

## 2.24. Gabon-batzea Araotzen

- **Hizlaria(k)**: Uriarte Eizagirre, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-057/015
- **Iraupena**: 0:02:31. **Hasi**: 00:43:45. **Bukatu**: 00:46:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa

- **Gaia(k):**

Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

- **Laburpena:** Putreekin sustoa hartu eta hurrengo egunean Gabon-batzea izan zen Araotzen. Lasaigarria eta hunkigarria izan zen Mirenentzat, aurreko eguneko gertakizunak pasatu ondoren.

### Transkripzioa

- Beste semiak esan nontan, Kepak-eta esan nontan: "Ze ama, ze eballi dozue hemen buetrakin?". "Ze eballi doten buetrakin esaten dozue? Holakorik pasau bihar xatenik be ez nixuan pentsauko sekula santa. Baiña hemen etorten danakin enfrentau bihar izaten dok bai eta hau ta hau pasau da, baiña uste xuat Hollywoodeko artistarik onenak be makiña bat ensaio ingo xuei, baiña hain ondo urteteko moduen in giñuan lana, "que a la perfección" urten xok gauziorrek, baiña buetrak por txurro ez xuein jan txarrixak". "Eta zeu han egon ziñan?", "Egon? Ni neu fan in nintzuan ikustera txarrixak, "lo que pasa es que" nik ez nekixan txarrixak nun egozen, nik pentsaitten nixuan ba nola dakon hola arkuia etxiak, han arkupeko zerian egongo ziela, baiña han ez egozen, egozen larrain azpiko bordepeian egozen, ertz-ertzian esegitta zeakin, honeaz, poleakin, ondo esegitta egozen haik". Eta, baiña hareik bestiak ikusi, ikusi eta ze denpora gutxixan, berak esaten nebena, azpizak ataraten ibilli zanian hemen Goittiko beziñuaz, Joxe Mari Goittikuakin, "horreik zer xabillei hemen? Hainbeste buetrak?" "Zer ibilliko xuei ba? Jan billa ibilliko (di)ttuk", "Bai, itxuria halaxe xakuei honeik". Eurok komestaziñua eballi baiña okurriu be ez. Ta bestiak baekixen Goittikuak txarrixak hildda egozela Txapelenian, baiña okurriu be ez hori. Eta gero bestiak fan zintzan, eta guriak be bai, guriak hamarretan edo bokau bat in eben ta gertatu ta esan dotsutena, fan bihar eben Agrariakora eta dentistiana be bai ta, lan batzuk eukan itteko eta hara fan bihar eben ta urten eben, baiña "por un churro" neuk momentu batetik bestera pasauko dok ta... Geroko egunetan, hemen etorri ziran zera Txema ta Txuma ta belenaz tratoriakin ta ume pilla bateaz etorri ziren bai, artearte hainbestian egon nintzan, ta orduantxe in nintzan emozionau, hainbeste jente auzokua ikusi barik bai, ta aurreko egunian neu bakar-bakarrik buetra zaharrokin eta oin honeik danok hemen. In nintzan emozionau, e? Hori zan Gabon egunian.

- Igaz?

- Igez, igez, igezko kontua da.

## 2.25. Lehen dena bekatu

- **Hizlaria(k):** Goitia Orueta, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-058/018
- **Iraupena:** 0:04:12. **Hasi:** 00:56:18. **Bukatu:** 01:00:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**

Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- **Laburpena:** Orduan Deguriako artzainak ardiekin bizi ziren hauek antzutzen ziren arte. Igandetan meza entzutera Araotzera jaisten ziren.

Orduan dena zen bekatu eta orain ezer ez, Jaungoikoa lehengoa izango da, ba? Hausnarketa erlijioso bat egiten du Manuelek.

### **Transkripzioa**

- Han esan dot hamaika pastore. Garai hartan, ba, pastore horreik itten euen baserrixan hementxe itten dan letxe babak eta janarixak ba igual han, ta gero antzuketan zienian etxera faten zian, eta hola zortzixan edo ardixairi bisitta bat ittera mendira, eta etxeko baserriko lanetan eurak ta hola. Eta gaztaia dana itten euena, mendixen itten euena handik gero faten zien aldiko apur bat behera eruen ta saltzen faten zien, ta mendiko gaztaiak betik dako bere famatxua, hemen beheko zelaittan baiño betik mendixen... Zenbat eta mendi fiñaua eta larra fiñaua ta esne hobia da, ta hortxe saiaketan zien. Juergarik ezebez. Mutillak zian nere kinttuak. Etorren zien mezia entzutera hona, meza nagusira. Ardixak jaitzi, gaztaia itteko igual ez zian aillegauten ta gero itteko itxitta, gatzeittuta edo itxi eta hona, tabernara pentsau be ez, mezia entzun eta arriba. 18 urte 17-18 urteko lau kinto neriak batera egon zien, ta arriba! Eta uda danian mendixan bizimodua, aber gaurko 17-hemezortzikuari han, e? Etorri mezetara, mezia entzun ta hara. Aber, nun da oin lehenauko fedia eta oingua eta nun dia honeik? Ze pasauten da hemen? Aber, lehenao dana zan pekatu gu gaztiak giñanian. Hau esango dot baitta ehun erlijioso onduen baleoz be, danak entzuteko moduen. Dana zan pekatu, ta oin ixa ezebe ez da pekatu. Ze pasauten da? Jaungoikua lehengua egongo da, ba? Aber! Nire ustez.

- Jaungoikuak berak be igual eboluzionau ingo eben.

- Ba ni horrekin egoten naiz, ha lehenaukua ezin xeikien, ha lehenaukua nik kontuak itten, hau ez dok hola. Ni hola iñoiz ardittara fan eta, ardittara fandakuan ezin zeike neurtu holako ordutarako etorriko naiz, trenera fan bihar dozun edo autubus batera fan bihar dozun moduen, ezta hori! Mendixen lan ona ondo in gura badozu saiatu in bihar dozu, eta gero mezetarako bidian harrapoka etorri eta berandu in igual. Amak lehenengo dalako bronka eta beonek be bai. Ni nere buruari, e? Gura badozue sinistu eta gura badozue ez. Jaungoikua esaten daue alde danian dauela, "ikusi dozu nik mendixen in nittuanak? Ikusi dozu nola etorri naizen? Ikusi dozu hamen bronkia eta andriena?" Jaungoikuari, e? Direktamente. Aber, zeifñena da hemen arrazoia? Harek ez eben ezer esan, harek ikusi ninddun, ba ikusten ba(di)ttu danak, mendixen ikusi ninddun ni zela ibilli nintzan, zela etorri nintzan, gero zelako bronkia hartu neben. Aber, berba itteko balitzake segidan esango eben: "Ez, geldi itxi semiari, hori ahaleginddu da danak, horri ez eskatu gehixao". Baiña ez, ha ixilik egon zan, ta, ba, honeik eurena eta ni neriaz. Eta nik esan neben, nik esan neben, neure buruari esan notsan: "Nik in (di)ttuan lanak mendixen lana ondo itten, ni etorri nintzan moduen etorri, hau pekatua bada ez xaok ez zerurik eta ez infernurik". Neuk nere buruari, e? "Hau pekatua baldin bada, ni ibilli naizen moduen ibillitta, mezia utzi in duala eta, hau pekatua baldin bada, ez zerurik eta ez infernurik ez xaok". Zeatik ni seguru nenguen jaungoikuak, esan dot lehen be eta esango dot berriz be, saiatu in bihar zara duro bat etarateko, ez taillerretik sobria etorriko da, ez euen orduan holakorik, orduan saiatu in bihar zan. Ezta ba mezetara fatia, ondo da, mezetara fatia oso ondo da, neu ez naiz kontra, baiña ezin dozunien ezin dozu. Honbre, hori esaten dot, ta horreik mutiko gizajuok be mutil gaztetxuak etorri eta Degurixara, sikiera tabernara fan ta saldatxo bat hartu, ezta hori be, arriba.

- Baiña mezetara etorri in bihar.

## 2.26. Senarra gaixorik

- **Hizlaria(k):** Garitaonandia Lizarralde, Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-060/015
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 00:41:00. **Bukatu:** 00:44:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**
  - Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
  - Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- **Laburpena:** Senarra gaixotu eta ospitalean hil zen. "Agrariaren" jokabidea ez zen bidezkoa izan. Egur asko jasandakoa dela dio Karmenek.

### Transkripzioa

- Orduen gaiñera, Agraria beti pagau dogu ezkondu ondorien berihelaxe hasitta, baiña Agrariak be ez oskun abonaitten orduan. Operau zan, guntzurrunetik ebillen geizki, oso geizki, eta Vitorixan, medikuak, esan oskun Alvarez-edo orduan, gero Legazpira fan zana, eta berak eukala lagun bat oso ona zala, eta "tienes una operación" ez dakit zer esan otsan ta. "Pues por quedarme bien me importa, me importa un poco que me muera también", bueno Rafael, (...) eta famelixia amak jasoko dau, (...) eta holaxe esan otsan medikuak ba baietz, eukala medikua oso ona eta harek ondo ifiñiko ebela eta halaxe fan zan Vittorixara, Vittorixan egon zan, eta esan otsan medikuak bat dakola "completamente" hondatuta, eta oingua ez e? Aspaldittik dakola gaiñera. Eta bestia ez eukela ondo, ez eukela bestia oso ondo. Orduan esan oskun "no está del todo bien, kuntzurrun bakarra dakotzu, eta bera nehiko geizki". (...), azkenian haretxekin fan zan. Hirurogeta lau urtekin, artian zaharketako asti barik. Oso zahartu zan gaiñera han egon zan denporan, Vittorixan egon zan denporan oso zahartu zan. Nere ahizpia joaten zan ixa egunero joaten xakon ta, geure aittajuna emuten xon honek, esaten nostan, aittajuna emuten jon honek. Eta ze ingo xonat ba? Medikuen eskutan xaon, nik ze ingo xonat ba? Ez egidan holako tontokerixarik esan. Berak esaten nostan ba ez dakit ba ondo ittiatik edo geizki itteatik, baiña ez, nik ikusten neben berak letxe zela euan, ni joaten nitzan eta jentia begiratu itten nostan, neri ez nostan inporta jentia begiratuatik, zeu egoten baldin bazara hobeto zaos ta kitto.

- Ospittalian hil zan?

- Bai, orduan atzera etorri zan etxera eta esan nostan, hori zela da? Ez xat akordauko oin izena, hori da pagokua da gaiñera.

- Ospittala?

- Bai, eta Uribarriko segurua geukan orduan, beste seguru xeble bat egon zan, bueno harekin trankil egoteko modura geozela ta harek asko gehixau ez ekixen mediku harek be, gixajo harek, [...], ipiñi geben ba harekin, ta ez oskun Agrariak, Arabara joan gintzalako ez oskun abonau zeori, Agrariak.

- Arabara fan ziñailako?

- Arabara fan gintzalako, tokaitten zan Gipuzkoan bakarrik, (...). Nundik pasau naizen horreatik esaten dotzut ba nik. Horreik danok ikusten hasiko banitza ni jausi, jarritta egon ez ezkerro ni jausi ingo nitzake.

- Barre igual. barre.

- Ee?

- Barre. Horreik danok pasauta eta ondiok hementxe e?

- Ondiok hementxe nau bai, egixa da hori. Baiña nau paliza haundi bat hartuta, bizi danian palizan egon naiz ni, gaur egurra, bixar be egurra, etzi

be egurra, holaxe egon naiz ni.

-Eta sekula ez dozu hola, egun polittik pasau?

-Ez, [...] San Juanera fan nitzan, hori badakitdue, zazpi aldiz kontau dotsuet eta.

-Ez xatzu beste holakorik?

-Beste holakorik ezebez. Orduan kriadak ziren "muy estrictas", zeatik egon bihar zihan "a lo que mandaban", eta gaur ez dakotzu jai, ba etxian egon bihar dozu eta kitto. Holaxe bizi izan naiz ni, holaxe bizi izan naiz ni ta

## 2.27. Deustura ikastera

- **Hizlaria(k)**: Arregi Zendoia, Felix
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-062/002
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 00:04:05. **Bukatu**: 00:06:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Nahiz eta Felix txokolategile familiakoa izan Deustura bidali zuten elektrizitate ikasketak egitera.

### Transkripzioa

- Felix, eta abizena esan dozu lehen?

- Arregi.

- Eta bigarrena?

- Zendoia. Bai. Arregi Zendoia Bikuña Barrutia, lau behintzet badakit.

- Aitta esaten ibili zara lehen, nungua zan zure aitta?

- Nere aitta Jose Arregi, Arregi Bikuña, bueno aitta kalia jaixo zan baiña bere aitta zan Olabarrakua, Olabarri baserrixa, Torre Etxebarrittik gora, handik gora jarraitu eta zela dok ha gaiñeko baserrixa, gain-gain-gaiñekua? Pittin bat gertatu be in bihar da hola etorteko, e? Klaro... Ama zuan Sindikatua, Sindikatua, "sindicato de trabajadores no", e? "sindicato de caseros", bai.

- Eta zuek orduen, zure famelixiak txokolatia itten eben.

- Bai.

- Esaten dauenez oso txokolate ona.

- Bai, bai.

- Ze markakua?

- Oena.

- Oena markia.

- "Chocolates Oena".

- Zeuk in zebe lanik txokolaterixan?

- Bai. Ni neuk gutxi zeatik gero nik hamabost urtekin bialdu nindduein zera, "Escuelas Pofesionles Salesianas de Deusto", internauro.

- Eta ze ikasi zebe han?

- Ba elektrezista, elektrezista, eta harrezkero ba bizi guztia horixe, elektrezista.

- Eta han salesianotan zenbat denpora in zebe?

- Bost urte, hamabostetik hogeira, internauan gaiñera.

-Oñatin bertan zeguan hori?

- Ez, Deuston.

- Deuston, Deuston.  
- Deuston, gu giñan “parientes pobres”, Deuston dago unibersidadia, eta han oñatiar bat han estudixuan ebillen, eta futbolian be itten geben geure salesianotako ekipua unibersidadekuakin, eurak etorten zittuen gure kanpofubulera eta gu faten gitzuan hara eta de todas todas irabazi itten oskuen, hareik kategorixa gehixaokuak ziren, karrerak ziren.

## 2.28. Gerrarekin eskolarik ez

- **Hizlaria(k)**: Arregi Zendoia, Felix
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-062/003
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:06:50. **Bukatu**: 00:09:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- **Laburpena**: Eskolan ospitalean hasi eta gero Agustinoetan jarraitu zituen ikasketak. 1936. urtean amaitu ziren eskolak gerra hasi zenean. Mutikoak ezer ezean kalean ibiltzen ziren.

### Transkripzioa

- Eta eskola urtiak, Oñatin be ibilliko ziñan aurretik.  
- Bai, agustiñuetan, agustiñotan gero egon zuan epoka bat, ointxe pasau dira 70 urte, erderaz be in leke, e?  
- Bai, bai.  
- “Veintiuno de septiembre del treinta y seis” zerak, hona etorri zittuan “las liberadoras, tropas liberadoras del invicto caudillo franco”, in txuein hemen kristonak. Eta agustiñotako eskolia martxan euen, oin zera, “Muebles Idigoras” baxauk ba?  
- Bai.  
- Han hazaken hiru eskola, agustiñotakuak, Santa Mariñan erdiko eskolia leheningo Santa Mariñan, Santa Mariñako erdi-erdixan xauan agustiñuena, ni handik leheningo handik pasau nintzuan, Ospittaletik Santa Mariñara leheningo hara, gero handik beste hiru curso ya nagusixuaguak hor; eta hor geontzela alde in euein, zera agustiñuak be ba hiru edo lauk alde in xuein hemendik.  
- Gerriatik?  
- “Por rojo-separatistas”-edo, etxakixat ba, orduan danak egozen ... nazionalistagatik.  
- Agustiñuak be gorrixak ziren?  
- Agustiñuak “rojo-separatistas” ez baiña nazionalistak-edo ziralako-edo, bat e ..., orduko izenak eta akordaittia eta zaila dok baiña, han hiru, bat Larrakoetxea, Bedita Larrakoetxea.  
- Bai.  
- Ha hantxe xabillan hirugarrenian nagusixarenian, ni hara ez nintzuan aillau, ni hango leheningo edo bigarren maillan nebillela etorri zuan zeori eta kitto. Eta hor geratu gitzuan, ha izan zuan epoka bat baiña hola, mutikuok kalian libre, ez eskola, ez aguazil, ezebe barik. Nahiz ta nagusixak afusilau eta horreik danak egin, gu mutikuak kalian, libre egun guztia.

## 2.29. Berriro eskolara

- **Hizlaria(k):** Arregi Zendoia, Felix
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-062/005
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 00:13:48. **Bukatu:** 00:16:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Umetan lapurreta bategatik salatu zituzten Felix eta bere lagun batzuk. Epaituak izan ostean, lapurreta salatu zutenek ez zuten espero mutikoak itzuliko zirenik. Geroago eskolara itzuli eta beste urte pare bat egin zituen Udalak birmoldatutako eskolan.

### Transkripzioa

- Orduen libre itxi zinduein?

- Bai. Eta illunkaran atzera orduan autobusian Brinkolara eta Brinkolatik trenian Donostira itten zuan, Oñatiarreneko autobusa, eta Oñatiarreneko autobusak urteten xuan aiuntamientuko atzekaldian, kantuetxo hortan.

- Alondigia euená.

- Hori dok, alondigia bai. Alondigan urteten xuan autobusak eta autobusian bueltan entzun nuan gure denunzia sartutako emakume batzuk etxoitten egozela eta aurrez esan eueilla gu ez giñala bueltan etorriko, zera eruango gindduela, zela esaten dok?

- Reformatorixora.

- Reformatorixora eruango gindduela eta hola, eta bueltan han ei xazauken begira aber etorten giñan bueltan, eta danok etorri giñala bueltan-ta. Nik horreik entzundakuak aittari eta amari.

- Denunzia sartu zetzuenak orduan zuen zain egon ziran.

- Bai ba, atzera bueltan ez giñala etorriko, reformatorixora bialduko gindduela ta ez zan izan halakorik ezebe, ba mutikuak orduan hamaika-hamabi, hamaika-hamabi urte. Eta ze maliziarik eta ezebez, bai zera! Kalian egun guztian ezebe barik, ez eskola ta ez aguazil, geratu giñan ezebe barik.

- Eta militarrek eta asko ibiltten ziran kalian garai hartan?

- Keba! Ez, militarrek e...bueno gero gaiñera hemendik Mondraue be liberau xuein ta gero geratu zuan hor Intxortan frentia, setienbria eta negu guztia udabarrira arte frentia hor egon zuan. Alde batera gorrixak eta bestera zeok, reketiak eta falanjistak.

- Inbiktuak.

- "Invictos".

- Orduan zuk orduan ya eskola barik geratu ziñan.

- Bai. Gero ipiñi xuein bat, beste personaje famoso bat Don Jose Luis Arrazola abadia. Don Jose Luis Arrazola, beste bat, hor atzera lehen agustiñuak aldetako leku bertan eskolak ipiñi xuein eurok eta han jarraitu giñuan beste urte pare bat-edo. Gero maristak etorriko zittuan, ni maristakin ez nintzuan ibilli.

- Maristak unibersidadian.

- Unibersidadien, bai. Gero maristak. Gero urte pare bat edo hiru bat edo don Jose Luisekin eta hortxe, oin mueblerixia dakon... hor ziren hiru, hiru eskola, eta hirurak gero atzera martxan ipiñi xuein, bai. Don Jose maixu Don Jose Luis, eta beste bat, beste personaje famoso bat be ibilli zuan hemen. Hareik ba aiuntamientuak ipiñi txuan han eta han atzera gero jarraitu giñuan.



### 2.30. Argiketaria eta abeslaria

- **Hizlaria(k):** Arregi Zendoia, Felix
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-062/016
- **Iraupena:** 0:04:14. **Hasi:** 00:51:51. **Bukatu:** 00:56:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- **Laburpena:** Soldadutzatik itzuli zenean bere kontu hasi lanean eta erretiroa hartu arte argiketari lanetan jardun zuen. Oraindik egiten ditu lantxo batzuk. Bost urterekin hasi zen solfeo ikasten eta laster beteko ditu 80 urte Oñatiko parrokiako koroan abesten.

#### Transkripzioa

- Eta soldaduskaia akabo eta ya lanera.
- Ya etxera, lanera.
- Gaur arte.
- Eta lanian zure kontura hasi zifan-edo ...?
- Bai, nere kontura.
- Hasieratik.
- Bai. Euki neben okasiñua pila fabrikara lanera fateko. Lastima. Asko hobeto ibilliko nitzake.
- Igual ez.
- Jubilauta eta libre.
- Oin be libre zagoz.
- Bai libre. Han txapuzak juntau itten xatak neri beruela, e? Eta gero reklamaziñuak. Arregluak-eta. "Mis chapuzas". Oin semia dabil instalaziñotan eta telebisiñuak eruan ta ekarri ta horreik danetan. Eta ni Martiñolaneko kobazuluan. Martiñola kobazulua dok ha. Kobazulua, dana trastoz beteta.
- Nik uste dot azkenengo 40 urte honeittan nik ha betik igual-igual ezagutu dotela.
- Eta lehen esan dozu hori, eruan zinttuaiñian juiziu itteko ta solfeua galdetu zetzula; solfeua ikasten ibilli zifan orduan.
- Solfeua da beste istorixa bat politta. Beste urte pare ba edo hiru irauten battut mundu hontan ya kontau neke larogei urte doiatela parrokiako koruan kantuan hasi nintzanetik. "Que ya está bien". Zan, abade gazte bat etorri zan, etorri barri hona, organista famiak. Mutilla, bueno mutilla gizona, mutilla, mutiltzarra zan, atleta, tipua, Bermeotik, uste dot Bermeokua zala bera. "Don Ascensión Zabala" zan. Eta guk geukan tia bat, tia Karmen aman ahizpa bat, gure etxian aginketan eben gure aittak eta amak baño gehixau. Eta haren denporan etorri zuan hori zeori eta orduan egozen "Hijas de María" organizauta, "Hijas de María" oin ez dozue holakorik zuek ez dakitzue ta. "Hijas de María" eta "Hijas de María" edo izango zuan eta organista barrixori etorri zanian ba gura ebela ba mutikuakin korua ittia eta gure tia edo han izango zuan, eta gure tiak nik solfeora fan bihar nebela, ta eskolatik urten arratsaldian, ospittaleko eskolatik, bost urtekin-edo, eta meriendau eta zuzen Santa Mariñako erdiko eskolara gero agustiñuak egon ziren, Santa Mariñako oin eskolak dauzen lekua. Han egozen hiru departamento.
- Elizia euen lehen han.
- Elizia ez, eskolak, nik mutikotan eskolak.

- Elizia edo kapillatxo-edo ermitatxo bat euen lehen han.  
- Kapilla txikitxo... aldamenian? Kapilla txikitxua baiña ha dana zuan eskolia, e? “Escuelas Nacionales” xazaken han, “Escuelas Nacionales”, eta erdiko eskolan solfeora, ta ba derrior fan bihar. Zeatik aittak eta amak be, bai ba fan in biakozu, baiña zera zuan aginketan ebena, neskazaharra. Eta ba hala hasi nintzan eta han urte pare bat edo hiru bat-edo, ixa egunero solfeora hara, nerekin batera beste mutiko batzuk be bai, klaro. Nere lagunak, nere lagunetatik ba neu eta Federiko be probablemente Federiko difuntua, Federiko be bai, ibiliko zuan ha be Don Ascensionekin.

### 2.31. Eskola eta soldadutza

- **Hizlaria(k):** Bikuña Urzelai, Jabier
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-066/005
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:13:33. **Bukatu:** 00:17:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Soldaduen moduan ilarak osatuta abestu behar izaten zuten Cara al Sol, egunero, maristen eskolan. Soldadutzan ere berdin-berdin. Hondarrabiko Guadalupen lehenengo eta Loiolan gero, Ingenieroen alorrean egin zuen soldadutza baina, batez ere pikatxoia eta pala erabili zituen bide, horma eta zubigintzan.

#### Transkripzioa

- Eta pentsau egizu zelakua zan, eskua jaso ta “Cara al Sol” kantau goizian sartzeko, ta ikurriñori, banderiori Españako banderiori jaso gora eta arratsaldian eskola danak urten, bost eskola euzen, bostak formau soldauak formaitten diran letxe, formau banderiori begira eta atzera kantau ta rra, jaitsi ta erretiraitten euen, hola ibilli giñan.

- Egunero, egunero.

- Egunero, bai. Eta gozian fandakuan saldauak letxe formauta, aldiko bi, soldauak hiru illaratan kolokaitten dira baiña gu aldiko bi, illara bat lehenengo kursua, bigarrena, hirugarrena, laugarrena, bosgarrena, bost ziren, bai.

- Hori urtetzeko eskolatik, formatzen ziñazien?

- Sartzeko be baitta, gozian sartzeko be formau ta kantau, zeori banderiori jaso ta eguardixen ez, illunkaran jaisteko atzera. Soldautzan be holaxe itten geben. Soldautzan be bai kanpamentuan egon giñanian zerien, zerien Hondarrabin han goixan egon giñan eta han be tronpetia jotzen euen eta zerok armok ifiñi zerien eta ikurriña edo zeori banderiori jaisten zan eta jaso be igual; han Guadalupen goixan egon giñan, bai, han eta kuartelian zerian, Loiolako kuartelian. Gu zerak giñan, injeneruak, izena oso politta geukan guk, “Soldados de ingeniero” esaten oskuen guri, “Soldados de ingeniero” ta gure lana zan pikatxoia eta palia, “pico y pala”, bai. Zapadoriak giñan, zapadoriak ziran zubixak itten ta, han ibiltzen giñan egurrezko zubixak in ta.

- Zu ordurako baziñan ja hargiña?

- Ez, bai, bai.

- Horreatik hartu zindduein zu harako.

- Bueno, ez baiña nere modura asko egon ziren. Gu egon giñan euskaldunak, riojanuak eta galleguak egon giñan, bai.

- Eta orduan zubixak eta bidiak be bai itten zenduzen edo?

- Bai, kamiñua itten, Naparruan be ibilli giñan kamiñua itten. Han zerok porlan zakuak hartu, bixkarrian hartu porlan zakuak eta behetik gora pagoduixan gora igoten geben masia ta itteko, kanterillak eta itteko ta, ibilli giñan han be. Ezkiñan, erreka ezkiñan paretak eta in ta, hormak eta in ta, han be. Eta tiruakin, tiruak barrenua sartu ta tiruak zerak, dinamitiakin ta, sarjento batzuk bageukan hareik, guk ez gekixen asko baiña hareik be ez asko, han ibiltten giñan billurrez aidian, bai.

- Harrixak apurtzeko ta dinamitiakin.

- Bai. Bai, lekua itteko ta holako zerien ta.

- Ze urte zan zu soldauskan egon ziñanien?

- Berrogeta hamaseixan, cincuenta y seisian. Cincuenta y seisian... cincuenta y sietian fango giñan, bai.

- Oseake, ya gerraosteko gosiok-eta pasauta?

- Bai, bai, pittin bat pasauta, bai.

## 2.32. Presoak ihesean

- **Hizlaria(k)**: Bikuña Urzelai, Jabier
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-066/006
- **Iraupena**: 0:03:14. **Hasi**: 00:17:03. **Bukatu**: 00:20:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren jarrera
- **Laburpena**: Gerraostean, gerran zauritutako jendea eskean etortzen zen etxera; Frantziara bidean joaten ziren lan-esparruetatik ihesi.

### Transkripzioa

- Zer moduz izan zan hemen etxian gerraostiori?

- Hemen etxian? Ba gu mutikuak, mutikuak gu ba badakitzu, mutikuak giñan eta ezkeben holako zerik baiña asko ni akordaitten naiz zerak, jente asko etorten zan eskian. Zerbait, zerbait, ez, gerran ta ibillitako jentia ta, hola emuten gosten eta ikusi, hementxe, metralliakin ta baliakin ta, bernatan ta hanketan ta

eztakizu, zerak, metralliakin eta zertutakuak, eta guretzako orduan gaztiak, hareik edadekuak ete ziran baiña 30 azpittik, 30 urte azpittik izango ziren gehixenak. Eta gero hola, ba emuten xaten zeozer jaten etxien euena zeozer jaten ta faten ziren, eta Frantzia aldera. Frantzia! Frantzia! Esaten euen. Eztakit bidia eta jakin ez bidiak be ondo nundik ibilli ta, eta guk eztakigu ha gora ala behera ala nundik etorten ziren, ta gu mutikuak eta hor. Gero eskekuak be bai, eskekuak be etorten ziran. Eskekuak ja zaharrauak eta zerak eta hor ganauak, lehen ganauak be bageukan ta ganuan onduan aska aurrian jana eta egoten zan lekuan epel egoten zan eta hor lo in ta faten ziren. Gabaz igual etorten ziren gabaz ta illuna zerien ta aber lo itteko lekua edo zeozer ta ganauen onduan epel. Eta hor jaten emuten xaten zeozer eta goizian denporaz jaikitten zan hemen, esniak eta kalera ta eruan bihar izaten zan eta behixak jaitzi eta itteko eta gu esniakin batera faten giñan ba horixe, esnedunakin batera eskolara, beratzitarako faten giñan eskolara ta badakitzu, zazpiretan edo

jaikitta gebitzen jentia ta orduan ba eurak be jaikitten ziren eta zeozer jaten euen eta biaje. Eta hola.

- Eskekuak honaraiño, Albarritzaraiño!

- Bai, bai, eskekuak. Eta gerra ondorian akordaitten naiz gaztiak, hareik gaztiak ziren, zerak, holako zerak, zikatrizak eta besuetan, hankak eta frakak ta jaso ta.

- Horreik etortzen zirenak, kanpokoak izango ziren, hala?

- Frantzia aldera, Frantzia alderako martxia esaten euen. Hareik ihesi etozen, hareik e, honeik trabajadorietan edo, hor gero gerra ondorien asko ibili euen hor ta, tunelak eta itten ta trenbidia ta in bihar euela eta eztakit zer ta gauzak presuak moduan danian, eta handik ihes in dakuak izango ziren. Zeatik jente gaztia e? Hareik ihesi, ihesi norabait, hareik artian makilla peian.

- Harrapo ezkerro egurra.

- A bai, egurra? Atzera be lanera. Ba hola, bai. Ba horixe guk ezagutu geben, gero handik aurrera badakitzu, hasi giñan lanian ta handik aurrera ba...

### 2.33. Plazako herri-eskolan eta Ospitalean

- **Hizlaria(k)**: Barrena Kortabarria, Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-068/003
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:05:17. **Bukatu**: 00:07:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena**: Plazako herri-eskolan ikasi zuen "Señorita Pura"rekin. Aurretik Ospitalean ibili zen Sor Paulinarekin. Ospitaleko 3. mailara ezin izan zen joan, 2 zilarrezko pezeta ordaindu behar zirelako.

#### Transkripzioa

- Bai, bai, lehenauko kontuak. Oinguak ahaztu itten xaku asko.

- Eta orduan zu eskolan, fan ziñan, ezta?

- Ni plazako eskolan, plazako eskolia zan herri eskolia bai, oin Txantxiku lkastola dauen lekuan, behian beste, behian egoten ziran batzuk, haunditxuauak, ez txikitxuauak behien leheningo pisuan, eta bigarrenien gu giñan haundixok.

- Eta azpitan berdura plazia ez euen?

- Bai, baiña bi pisu dako horrek, zer horrek e? Leheningo pisuan...]Join badakixei umiok ze kursotakuak diren; orduen kursorik be, guk bagekixen holako gauzarik ala? Bahian ziran batzuk eta goixan gu haunditxuauak giñan, gu goiko eskolan, "Señorita Pura"kin gu eta horreik "Señorita Lola"kin.

- "Señorita" zela?

- "Señorita Pura", riojana batzuk ziran horreik bi neskazahar, eta hortxe zerian bizi ziren, Arzuaga eta bizi dira ba hor? Arzuaganak hor arkupetan? Hortxe bizi ziren bi ahizpa eta hareik ziren maistrak, bata "Señorita Lola" behian egoten zana eta "Señorita Pura" goixan gurekin.

- Eta ze egoten ziñain, neskaillak eta mutikuak alkarrekin?

- Ez, gu neskatiillak bakarrik.

- Neskaillak bakarrik?  
- Neskaillak bakarrik, gu gintzan neskaillak bakarrik giñan, eta aurretik parbularixuan Sor Paulinakin ospitalian. Sor Paulinakin ibilli ez dako umerik ez da hemen egongo. Oin aittajunak diranak be Sor Paulinakin ibillitta. Sor Paulina izan zan hemen hasierakuori, eta gero edo plazako eskolara edo zera, ospitalian bertan be beeeuen bigarrena eta gero hirugarrena beste bat, Sor Piakin hirugarrena. Baiña han bi pezeta pagau bihar zan hillian, eta gogua bai ospitalera fateko baiña plazara fan bihar. Han ez zan pagaitten ta; lehenao hola izaten ziren kontuak. Bi pezeta badakitzu, zidarrezko pezetak ziren, e? Oingo moduan hojalatazkuak ez, zidarrezkuak! Ba holaxe, gure denporia holaxe juan zan.

## 2.34. Erregeak edo olentzeroa

- **Hizlaria(k)**: Barrena Kortabarria, Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-068/021
- **Iraupena**: 0:04:45. **Hasi**: 00:51:45. **Bukatu**: 00:56:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- **Laburpena**: Gabonetako opariak laranja, mandarina edota pikuak izaten ziren. Diaboloa ere ekarri zioten urte baten. Bere ume denboran ez zegoen Olentzerorik; ikastolarekin batera etorri omen zen hori. Gabonetan neskatala-mutikoak jaiotza oinetako kutxa baten zeramatela, etxerik etxe Gabon kantak abesten joaten ziren, Gabon batzen.

### Transkripzioa

- Lehen Gabonak esan dogu, eta orduan erregetan edo erregalorik-eta ...  
- Bai, naranjak eta pikuak.  
- A, bai e?  
- Zapatia ifintten bazeben. Pikuak eta mandarinak be bai batzuetan.  
- Hori izaten zan erregalua?  
- Bai, bai, guretako horreitxek egoten ziren.  
- Gauza horreik, mandarinak edo naranjak edo pikuak normalia ez zittuein eukitten?  
- Ez, ez, ez.  
- Bakarrik gabonetan?  
- Gabonetan. Bueno, normalian ba noizian behin ekarten eben amak, mandarinak edo zeozer, baiña hori oin jaten doun moduan, egunero? Mandarinarik ez bada beste zeozer, orduan ez euen holakorik. Platerkada bat baba urdaixa eta txorixuakin.  
- Orduan Erregien erregalua jatekua izaten zan.  
- Bai, bai, ta leheningo hori leheningotan, ezta? Gero azkeningo akordaitten naiz azkenengo urte baten, ni horreik 'diaboluak' jakingo dozu zer diren, ezta? Ni haretxen inbirixan betik bai, haretxen inbirixan baiña ez nostain ekarten Erregiok eta azkenengo urte baten ekarri nostain horixe, diaboluori, gehixau ez daue ekarri. Ahaztu ziren!  
- Ha izan zan azkena?  
- Haxe izan zan azkena.  
- Eta zuk Olentzerua noiz ezagutu dozu?  
- Nik ez dot ezagutu Olentzerorik, nik askotan preguntaitten dot Olentzerua

zer zer, nungua da ba? Gure denporakua ezta, e? Gu hiru Erregekin ibiltten giñan, Olentzerua geroko, hemen ikastolak hasi ziranian Olentzeron izena entzun zan.

- Frankok igual billurtuta mendixen euko eben.

- Ez dakit, igual horixe be. Baiña hemen ezta entzun be ez zan baiña itten! Entzunda be ez geontzen baiña Olentzero. Nik leheningo entzun nebenian, "Olentzero? Olentzero zer da Olentzero". Ez, gure, nere denporakuak ez daue Olentzerorik ezagutu, gerokua da hori. Neri nok esan nostan? Hori Naparruan edo bazala, Naparruatik etorritakua edo, izango dala-edo.

- Beste herri batzutan, Zarautzen eta ezagutzen zebeu Olentzerua.

- Bai, e?

- Eta kantau itten zebeu kantua, Olentzero, bai.

- Neuk ez dot ezagutu.

- Olentzaro esaten zebeu.

- Olentzaro?

- Bai. Guk elkarrizketia egin gotzan gizon bateri koruan eta ibiltzen ziren eta harek Olentzeron kantua kantatzen zebeu.

- Nunbaitetik etorritakua bada hori. Jerardok uste dot esan nostala, hori Naparrua edo hor Naparrua edo zela esaten xako horri, Lapurdi eta horreik badira ba?

- Bestekaldian.

- Bai, horko zeren bat dala hori. Baiña horixe, Olentzero hori neretako barrixa izan zan.

- [...] bazegoen ohiturarik oingo moduan kalera urtetzeko kantuan?

- Neskatilla-mutikuak ibiltten ziren, zapata kaja holako zer baten, ipiñi bai ooldixakin eta jaiotza, ta etxerik etxe kantau eta txakur haundixak batzen, mixerixia, neu be ibilita nau neskatilla ninzarian.

- A, bai?

- Bai.

- Eta akordaitten zara ze kantatzen zan?

- Bai, oin asmauko nekien baiña...bai, bai.

- Zer ziran, euskal kantuak edo erdal kantuak?

- Bai, euskal kantuak kantaitten geben guk, euskeraz kantaitten geben. Zela zan be. "Gabon Gabonetan, Jesus jaio da eta, jo degun..." ez dakit zela zan kantua. Euskaldunak ziran kantuak, e? Euskerazko kantuak.

- Etxerik etxe ibiltzen ziñazian?

- Etxerik etxe ibiltten giñan.

- Eskian?

- Eskian. Gere zeori hartuta hiru lau neskatilla-mutiko.

- Hori da, ondiok be leku batzutan itten da, Gabon-batzeia.

- Gabon-batzeia, Gabon-batzen. Hori da.

- Arantzazun fan zan astian in euen.

- A, bai e?

- Eta ze emoten zetzuen etxietan?

- Ba xemikua edo, eta txakur haundixa be baitta. Eta bueno ba hareik kontau eta hareik partiu.

- Zeuen artian partiu.

- Bai, geure artian partiu.

- Gero itsulapikora?

- Bai, gastaittera ez behintzat, ama enteraitten zan ta. Gastaittera ez.

## 2.35. 40 ume ikasgela berean

- **Hizlaria(k):** Larrañaga Azkarreta, Jose Mari

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-070/002
- **Iraupena**: 0:02:56. **Hasi**: 00:03:26. **Bukatu**: 00:06:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Berezaoko eskolan ikasi zuen 14 urte arte. Gero baserrian geratu zen eta 15 urterekin hasi zen zotz (palillo) lantegian. Eskolan Rosita Aramendi irakaslearekin 40 ume inguruk ikasten zuten gela berean. Bi urtetik 14 urtera arteko umeak ibiltzen ziren. Hiru maistra izan zituen; hirurak Oñatiko euskaldunak izan arren, eskola erdaraz irakasten zuten. Euskaraz egiteagatik ez zuten zigorrik jasotzen, baina bai beste arrazoi batzuegatik.

### Transkripzioa

- Eta hemen eskolia auzuan zeguan edo zu...?
- Baitta, eskolia hemen zeguan, guk eskolia hemen ikasi geben. Guk ikasi gebena.
- Zenbat urte arte egon zifan zeu eskolan?
- Eskolan hamalau urte arte. Eta hamalau urte kunpliu nittuanian, ba ya eskolatik atera gifen, baserriko lanak itten. Tiori eta gurasuairi lagunketan. Eta gero hamabost urtekin hamasei in barik fabrikara, palillotara lanera, eta gartzetan ba lehenao akordaitten naiz horreik komuniua in gebenetik eta zeozer baiña asko ez.
- Eta eskolan ze maixo, ze maixu-edo euki zeuen?
- Maixu euki gifuan Rosita Aramendi. Hori maestria edo zuan, eta egoten gitzuan berrogei bat, batzuk bi urteko umiak eta beste batzuk hamabi-hamalaukuak.
- Danak alkarrekin?
- Danak alkarrekin.
- Neska eta mutil.
- Bai. Baikotza bere illaratan, edade batekuak illara baten, bestiak beste illara baten, bestiak beste illara, lau illaratan banatuta. Rosita Aramendi eta gero beste bat euki gifuan Maria Anjeles Goñi, ha be bai. Eta Rosita Aramendi gaixo egon zuan urte bete-edo, pulmoitako edo ez dakit zeozekin, eta orduan euki gifuan Miel Etxegoienen andria, Maria Axun Arzuaga. Ha be maestra eukittakua.
- Hori Oñatikua behintzet, beste bixak ez.
- Ez, bestiak be Oñatikuak.
- A, bai?
- Maria Anjeles Goñi; Bedia rekadistia, Donostira faten zana?
- Bai.
- Haren andria. Oin hor Euskal Telebistan itten dau lana alabiak.
- Bai.
- Haren ama. Potola bat fuerte bat.
- Bai, akordaitten naiz zein zan. Aiba!
- Ha maestra tokau xakun.
- Eta euskeraz edo erderaz jasoten zittuein?
- Erderaz. Guk eskola dana erderaz ikasi geben. Eta eskola gehixen dotriña eta "historia sagrada". Oin dana ahaztuta dakot baiña.
- Baiña hori zan mamiñori.
- Bai, mamin fuertiena, ba! Gero horixe, "sumar, restar, dividir, leer", matematikak, horreik danak.
- Baiña eurak euskaldunak ziran, ez?

- Danak, guztiz euskaldunak.
- Eta zueri ez otsuen lagatzen euskeraz egiten.
- Ez, euskeraz ez oskuen lagatzen.
- Iñungo kastigorik-edo izaten zeuein euskera ittiatik?
- Ez, euskeraz itteatik ez, baiña ba kastiguak bestela bai, hola geizki portaitten giñanian hola, paretara begira eskuak jarri hola ta aurrera begira.
- Libururik eta ez otsuen ifintten eskuetan?
- Bai, hemen liburuak, pixuaz, segun zelako kastigua zan, ba gehixau edo gutxiau.

## 2.36. Eskola nazionalak Berezaon

- **Hizlaria(k):** Larrañaga Azkarreta, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-070/003
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:06:22. **Bukatu:** 00:08:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Ostegun arratsaldeetan jai izaten zuten eskolan, baina zapatu goizean eskolara joaten ziren. Eskola oraingo elizpean zegoen. Gero aurrefabrikatutako pabiloi batean egon ziren eskola nazionalak. Duela 30 urte inguru itxi zuten Berezaon auzoko eskola. Kaletik ere ikasle asko etortzen ziren.

### Transkripzioa

- Eta zelan, ze itten zeuen, astelehenetik oingo moduen, ez?
- Bai, astelehenetik ba etxia han geukan, bazkaittera etxera, maestriak be egoten zanak hemen baserrixen bazkaitten zaben jeneralian, geurekin batera. Eta ba zapatu goizian be eskolia egoten zan, zapatu arratsaldia libre, ostegun arratsaldia izaten zan, eguena, hori jai hartzen zan, hori izate zan dotriña edo kalera juateko-edo hori jai egoten zan.
- Eta zapatu goizian?
- Zapatu goizian eskolia. Goizian beratzittatik hamabitta erdittara edo hola izaten zan, hori izaten zan.
- Eta eskolia hemen berta zeuan? Ermittia dauen lekuan?
- Bai, oin hor portiko bat dauen buzoiak eta dabena eliza kontran, hor zan elizia,beste lokal bat auzuak egindakoa, eskolia.
- Ondiok badao arrastorik horrenik-edo...?
- Ez, hori desagertu egin zan. Hori Julian Martes hona etorri zanian, Juliantxo, Loiolako jefia, ha etorri zanian gaiñian bibiendia egitteko hasi zan eta gero udaletxiak ez otsan utzi, teillatua kendu otsien eta "ruina" geldittu zan. Azkenian geuk auzuak kendu eta in geben elizpeia esaten dana oin.
- Ha behian, elizan oste hori?
- Bai, elizaren aldamera, aldameneko zera zuan. Eta gero in xuein horren ordia, hor goixen beste eskola bat "prefabricau" edo tubozko zer bat, Garaiñian inddako barrakoi bat. Horra etorri zuan "Escuelas nacionales"-edo sasoi baten. Gu ez gintzuan hor ibilli, gaiñera hor bandera española...
- Hori zuek eskolatik urten ta gero ya?
- Bai, gero zuan hori. Han bandera española eta dana jasoten xuein.
- Orduan noiz arte egon dira hemen Berezaon eskolak?



- Ba Berezaun eskolia, eskolia egon zuan, ba ointxe hogeta hamar bat urte kendu zuan guztiz.
- Jontxo!
- Bai, hemen kaletik etorten zuan jenta asko eskolara, hona.

### 2.37. Mutilen jolasak

- **Hizlaria(k):** Larrañaga Azkarreta, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-070/005
- **Iraupena:** 0:04:13. **Hasi:** 00:10:11. **Bukatu:** 00:14:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena:** Jolas-orduetan 'toke-torreka' edo 'pañueloka' jolasten ziren mutilak. 'Txingi-txanga'ka ere bai, hanka baten gainean antxintxiketan. Baita pilotan eta futbolean ere, Txorinean baloia bi txakur handitan erosita kuadrillan.

#### Transkripzioa

- Eta bueno, ze, jolas-ordua-edo eukiko zenduen, deskantsua?
- Bai, jolas-ordua izaten zan hamaiketan. Zeozer etxetik eruaten bazeben haura janaz jolasteko ordu erdi.
- Eta ze jolas egitten zenduen?
- Ba jolasak izaten zan gehixen be mutikuak ibiltten ziren mutikuakin, neskatiak neskatiakin. Eta mutikuena izaten zan ba jolasa ba 'toke-torreka', ez dakit sekula entzun be in dozuen.
- Toke-torreka?
- Bai, toke-torreka izaten zan, ikutu, bata ikutu eta ezkiñara erretirau in bihar izaten zan...ez dot esan, ezkiñan baten bat jarri, ba pañueluakin itten dan estilora, pañueluakin itten zan, gero pañueluen jokua izaten zan beste bat, bat itten zan pañueluakin hemen jarri, bi talde ifiñi eta egoten ziran baten hiru eta bestian hiru, hemen bat, eta izaten zan 'bat' zenbakia, talde baikotzian egozen bat zenbakia eukenak ta etortzen ziran hona eta pañuelua leheningo hartzen zabenak ihes itten zeben bere tokira atzera, baiña honek harrapaitten bazinduen zu atzetik, galdu itten zeben, fuera, eliminau. Ba hori izaten zan toke-torreka. 'Txingi-txangaka' be bai, hanka baten gaiñian.
- Orduen pañueluena da toke-torreka.
- Bai, toke-torreka, hori dok.
- Toke-torreka pañueluena.
- Toke-torre pañuelua, hori esaten gotsan guk, behintzet gure,gure ohitturia.
- Eta gero txingi-txangoka esan dozu?
- Txingi-txangaka, hori izaten zan hanka baten gaiñian.
- Karrerak?
- Bai, karrerak itten ziren. Ezkiña baten jarri eta jun ta etorri zeñek, zeñek azkarrago egin.
- Bai, toke-torreka Joxe Marik esan eben, eta nik ez nekixen, ez neben ezaguketan joku hori, eta orduan nere lagun...
- Nik entzunda nekan izena. Guk jolasten gendun hortara, pañueluakin-

eta, baiña izen hori, toke-torreka izena...

- Guk be itten geben paiñueluan baiña hori izen hori...

- Guk toke-torreka. Oin beste batzuk igual beste izen bat, paiñuelo jokua be esaten otsain beste batzuk, ha paiñuelo zan, erdera nola asko erabiltten zan.

- Eta pelotan ta itten zenduen?

- Bai, pelotan be bai. Pelotan...

- Hemen auzuan pelotalekurik?

- Ez pelotalekurik ez, baiña hortxe elizpeian ba bertan, motza, lokal honen estiloko zerien, ba han ibiltten giñan. Bestela hola pelota formalik ez zan.

Eta gero zerien, fubulian. Fubulian hor hariztuixan. Hori bai.

- Baloia eta nundik ateratzen zenduezen?

- Ba baloiak erregiak etorten ziren urtien behin ta hortxe, batak edo bestiak ondo zertuta eukitten geben. Eta erosi be in geben kuadrillan, Txoriñien, oin Mendizabal dana, Txori.

- Txoriñian, bai, bai.

- Akordaitten naiz, bi txakur haundi baloia.

- Zenbaten artian juntaitten zeuein?

- Ba bost-sein artian, bi txakur haundi zan, hogezi zentimo.

- Pezetianak.

- Bai, pezetianak. Ordurako dirua.

- Baloia erosteko behintzet.

- Baloia erosteko.

- Eta pelotak?

- Pelotak askotan etxian egitten gittun.

- Etxian?

- Bai, izaten zan katuen hestia edo edozeiñena, konejuena be bai.

Hestiakin, gero harixakin ondo lotu eta gero narrua josi; hori amak edo aittak edo baten batek.

- Eta zela itten zan, hestia ipiñi erdixan eta sokiakin batu bueltan?

- Ez, hestia izaten zan, hestiakin itten zan bolatxo bat, horrek saka itteko.

- Botia itteko, ez?

- Bai, botia itteko, guk saka esaten gotsan baiña. Saka eraitteko. Bestela harixakin edo espadrapua, espadrapua amari edo baten bateri harrapo eta...

## 2.38. Gau-eskolan urteetan

- **Hizlaria(k):** Larrañaga Azkarreta, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-070/009
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:22:49. **Bukatu:** 00:24:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**
  - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  - Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Lanean hasi zenean beste lau urte egin zituen Joxe Marik gau-eskolara joaten. Bai Berezaio auzoan jasotakoa eta bai gau-eskolakoa, eskola ordainduak ziren.

### Transkripzioa

- Gero klaro, baserrixan lana zeuen ta, batzuk kalera jua ziren eskolara ta

gu beheintzet hemen gelditu giñan. Eta handik hamabost urtekin ya fabrikara. Baiña gero jarraitu neban fabrika lana egin eta beste lau urte 'gau eskolia' esaten gotsan, honeik Rosita hemen egon zan ba, maestra horrek eskola partikularra emuten eben,

- Hemen bertan, auzuan?

- Ez, han bere etxian, han Mendiko Kalen. Eta han beste lau urte, lanetik urten ta...

- Gau eskolia ze izango zan, illuntzixan edo hola.

- Bai, illuntzixan. Seiretan lanetik urten, bokadillo bat jan eta sei tt´erdietatik zortzi tt´erdittara bi ordu.

- Han be neska eta mutil ibiltten ziñazien?

- Bai, danok nahasi, nahastuta. Asko ez e? Zortzi, hamar bat lagun hola eukitten zittuan.

- Eta horreik, klase horreikatik pagau itten zeuein?

- Bai. Horreik ordaindu itten geuen.

- Baiña hemen auzoko eskolak eta horreik debaldekuak izango ziran, ezta?

- Honeik, ez, honeik be ordaindu itten zittuan.

- Bai?

- Gu ibili giñan denporan ordaindu itten zuan. Gero hor goixan jarri zan eskola nazionala, hori doan izaten zuan. Hemen asko ez baiña zeozer ordaindu itten zan eskolia, maestriari.

- Eta gau eskolatan zer, ikasketa jeneralak-edo?

- Bai, jeneralak, puxka bat matematika asuntuan ta idazten eta holako... Eta han be holako...batzuk oso saiatuak izaten ziren baiña guk pittin bat, orduko diru asko ez baiña deziditten kanpora urteteko.

-Txikito bat hartu ta...

- Bai ba, txikitua-edo, txikitua baiño gehixau guk 'butanua' esaten gotsan orduan, hola naranjada moduko zera zuan, eta haura eraten giñuan.

- Butanua.

- Bai. Butanua esaten gotsan.

- Bai, goguan dakot.

- Zer zan baiña, naranjada-edo?

- Bai, naranjada zan, butanua, butanuen kolorekoa zan. Butano esaten gotsan, "etara butano!" Eta halaxe.

### 2.39. Tripa-truke Barrenekoa baserrian umetan

- **Hizlaria(k):** Urkia Elorza, Juane
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-071/004
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:04:10. **Bukatu:** 00:06:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena:** Juaneren amona eta aita ez omen ziren inoiz eskolara joan. Bere osaba bat Goroeta auzoko eskolara joan zen, baina behin bakarrik. Juane gerra denboran Barrenekoa baserrian, Uribarrin, egon zen. Hiru maisu izan zituzten Uribarriko eskolan. Barrenekoan morroi gisa egon zen, tripa-truke, zazpi urte zituela.

### Transkripzioa

- Eta eskolara? Nora joaten ziñazien?
- Eskolara iñora be ez igual.
- Eskribitten eta jakingo dozu.
- Nere amandriak esaten zan sekula ez zala fan.
- Zure amandria.
- Aitta be ez, eta Ezkorrittako tio ha behin fan zala kutxillua poltsikan kordelakin, [...] kordelakin, lotu eta hartu kutxillua poltsikuan eta behin fan zala eskolara.
- Kutxilluakin, bilddurrez ala?
- Ha be behin, e?
- Eta zure aitta ez zan juan eskolara?
- Ezta. Amandria be ez eta aitta be ez.
- Eta tiuori nungo eskolara fan zan?
- Koruetara, abadia egoten zan ta...
- Eta zu zeu ez ziñan aillau eskolara?
- Ni gerra denporan egon nitzan ni Uribarrin. Hiru maistro euki gittuan. Hau ezagutuko dok hik, honeik Jausoro ta, Garaiñian portero egon zuan.
- Baxilik be komentau oskun hori. Bai, Baxilik Latostegiko...
- Horrein aitta, Garain portero egon zana, ha egon zuan leheningo, gero mobimientua egon zanian hau, gero beste txapelgorri bat etorri zuan, ha nere antzekua, Txopekuan apopillo ta pattarrakin mosua garbittu eta eskolia emutera goizian.
- Eta zuek Ugastegittik egunero...
- Ez, ez, ni hemen Uribarrin egon nitzuan, hiru urte Barrenekuan.
- Osea han Ugastegin zegozen bittartian ez ziñan fan eskolara.
- Behin edo birritan edo fan nitzan Koruetara.
- Baiña klaro, urrin ha be, ezta?
- Baiña artian e, ni hona etorri nitzan zazpi urtekin.
- Eta hor, senidiak-edo, Uribarrin?
- Kriau. Bueno, kriau, ez jakiat ba, tripa truke, ezebez, zazpi urteaz... aurretik anaia eta arrebia egon zittuan ta... hareik txanda, bat etxera eta bestia hona ta, bestia fan zanian ni hona ta...
- Orduan garai hartan Araotzen ez euen eskolarik?
- Araotzen bai, baiña Araotzera zazpi urteaz zela etorriko nitzuan ba Araotzera eskolara? Zazpi urteko umia.
- Bueno, kriau zerien, Uribarrin modura.
- Baiña Araotzera be ordu erdi pasa bihar etorten.

### 2.40. Ikazkintzatik eskolara berriro

- **Hizlaria(k)**: Urkia Elorza, Juane
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-071/005
- **Iraupena**: 0:02:54. **Hasi**: 00:06:52. **Bukatu**: 00:09:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
  - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Hiru urte egin zituen Uribarri auzoko eskolan. Hamar urterekin aitari ikazkintzan laguntzen hasi zen. Gero beste urte bi egin zituen Goroetako eskolan, abadea maisu zuela. Eskoriatzako

marianisten eskolara joan zen gero; han marianisten behiak gobernatzen zituen. Beste hiru araoztarrekin egon zen marianistetan. Nobiziatua egitera Elorriora joan zen.

### **Transkripzioa**

- Orduan hemen egon zifan, Uribarrin egon zifan, ta hiru urte esan dozu in zenduzela?
- Bai, hiru urte partia gerra denporan, hiru maistrokin, baiña hiru karrera onak.
- Ze ikasten zenduen eskolan?
- Gero hortik atzera ba hamar urteaz aittari lagunketara ikazgiñera, beste hiru bat urtie, hamar urtekin. Gero atzera Koruetara, abadiana. Han beste urte pare bat edo, han eskolan, abadian beti be belarrondoko batzuk hartu ta...
- Orduan eskolan hiru urte, gero aittakin ikazkin...
- Ikazgiñan. Gero atzera eskolara.
- Gero atzera eskolara.
- Gero beste bi urte edo ze in nittun.
- Koruetan.
- Eta gero handik Eskoriatzako marianistatara berriz, behixak gobernau ta han beste apur baten.
- Marianisten behixak gobernaittera?
- Bai.
- Han be morroi?
- Baita azkenian bertan geratu be. Urte t´erdi edo ze ingo nittuen. Lau araoztar egon gitzuan, lau araoztar fan gitzuan gu hara. Onddiok bat, bat hil zuan Goittiko Joxe Mari, ezagutuko huan hik Joxe Mari Goittikua.
- Bat bai.
- Haxe zuan bat. Beste bat Jaturabekua. Ha ez jakiat bizi dan. Maiñakua bizi dok onddiok, Valladoliden edo, Segundo, Krispiñen-ta anaia.
- Jaturabe hau, udaletxian ibilli zana? Ez, hori zu baiño gaztiaua da.
- Ez, bestekua, Jaturabe beheko zulokua, Karlosena-edo.
- Lau araoztar orduan fan zifain marianista.
- Marianista fan, formal. Eta gero Elorrixon aspertu nitzanian, buelta in ta etxera.
- Eta ze ikasketa klase edo ze irakusten otsuein?
- Marianistak (di)ttuk horreik.
- Baiña ze irakusten otsuein, dotriña edo kontuak itten edo danetik-edo?
- Dotriña denporia pasauta nik ordurako, hamazazpi urte geukan eta. Dotriña ya...
- Hamazazpi urtekin egon zifan marianista?
- Bai. Urte bat, Elorrixon urte bat, urte bat be ez, sei bat hillabete ingo gittuan.
- Hori nun?
- Elorrixon. Elorrixon horreik etxia, nobiziaua Elorrixon.
- A, hori ez zan Atxabaletan orduan. Marianistak.
- Marianistak egozen Eskoriatzan, oin hotela edo badago ba Atxabaleta eta Eskoriatza bittartian? Haxe zuan marianistena. Ni lehengo baten pasau nitzuan eta oin hotela indda xak han.
- Bai, Ederlanen parian.
- Hori dok. Hor lehenengo estudixau hor eta gero Elorrixon nobiziaua.

## 2.41. Ia San Pedroko erromerian jaioa

- **Hizlaria(k):** Irizar Guridi, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-073/022
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:50:40. **Bukatu:** 00:53:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**
  - Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
  - Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikiak eta sasimedikuak
  - Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
  - Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- **Laburpena:** Trena jarri aurretik kalera oinez joaten ziren, eta geroago ere bai batzuk, txartela ez ordaintzeagatik. Zubillagatik kalera beharrezko gauzetara besterik ez ziren joaten. Pedro Torreauzoko jaietako erromeria gauean jaio zen, bere ama erromeriatik Zubillagara presaka etorri eta gero.

### Transkripzioa

- Zuek hemendik jokeria, jua izan zarai herrira askotan, edo auzuan egitten zenduen bizimodua?
- Herrira askotan ez, baiña fan bihar zanian ba trenien.
- Eta trena ifiñi aurretik ze ebalten zeuen, oiñez-edo?
- Oiñez, trena ifiñi ta gero makiña bat oiñez ibiltten zuan, trena pagau bihar zalako, nahiz ta zapata gehixau gastau.
- Eta hemendik Bergarara-ta bazakazuen be bai? Azkenian San Prudentzio-ta nehikua urrian dakazue ta...
- Ba San Prudentziora zetara fanik ez, San Prudentziotan eta. San Prudentzioko fiestak edo izan zien, orduen ba fiestetan-edo. Gu berriz, ni berriz ya fiestetan ez xuaut astirik euki fiestetara fateko.
- Zu gaiñera jaixo be, Zubillagako jaittan jaixo ziñan, ezta?
- Bai.
- San Pedruak dira hemengo jaixak.
- Baiña hor kuriosidade esaten xuan gure famelixan aittak eta danak. Ni atendi nindduan medikua, urte pare bat edo etorri zala, Zubillagan amistadiak baxakuan eta; San Pedron, auzo hau dok Zubillaga, San Pedruak xakok baiña, San Pedro inportantiaua zuan hau baiño orduan, itxuria. Eta han itten xuein erromerixia, eta ni amen tripan, aittakin, erromerixan San Pedron. Entenditten dok? Erromerixara fanda. Eta gabian hamarrak izango zirala, hamarrak inguru hori, eta hamaika t´erditarako jaixota nenguela. Oiñez etorritta, orduen trenik eta puiñetarik, e? Oiñez etorritta handik Zubillagara eta medikua Arzuru zuan orduan, medikua oso ona zuan. Eta medikuak "escasamente" etorriko zala berak esan baotsa zela eukan, handik Zubillagatik Martezkora. Ez dok entenditten? Zetik, San Pedrotik Martezkora, hau Martezkua zela dan etxe hau. Oiñez etorri eta bentaja in txan, itxuria, segiduan jaixo. Medikuari abixau txain eta medikuakin berba itten egonda, hamarretan San Pedron. Medikua gaztia zuan artian ta erromerixara. Eta gero sinistu ezindda.
- Oseake ixixa-ixixa Torreauzoko erromerixan jaixo ziñan?
- Ixixa bertan.
- Itxuria, itxuria dauenez. "veintinueve de junio", San Pedruan; Pedro hatik xakuat izena, bueno, hatik edo. Ba holaxe kontuak.

## 2.42. San Frantzisko Antsolopetegin bizitakoa

- **Hizlaria(k):** Urzelai Aiaitui, Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-075/003
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:10:17. **Bukatu:** 00:12:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak  
Natura » Meteorologia
- **Laburpena:** Auzo izenekin gorabehera handiak izan dira azken urteotan. San Frantzisko garai batean Antsolopetegin bizi izan zen. Madalenako ermita ondoan zegoen artea San Frantziskok landatutakoa omen da batzuentzat. Beste batzuentzat santuaren atseden leku zen arte horren gerizpea.

### Transkripzioa

- Oseake orduen oin dala larogei urte honi Madalena esaten xakon.
- Bai. Betik, nik betik hala ezagutu dot. Oin etorri ziren hemen, oin dala urte gutxi hasi ziren hola aldaketan gauzak. Badakitue, hemen lehenau be Urrusula, orduen betik Urrusula, gero Urrexola ta hasi ziran etorten. Urrexola, nundik nora? Guk betik Urrusula.
- Urrusula, bai.
- Urrusula, ba gero baten batek idatziko eben edo eskribiuko eben, esanez hau ez da Urresola, hau da Urrexola, Urresola ez. Ointxe puntuan egon nitzan Urrusulako elizan. Ez dakit sekula egon zarien.
- Ni eliza onduen azkenengo aldiz fan zan domekan, sarri-sarri, eliza barrura ez dakit sekula sartu naizen.
- A, bai? Geu be barrura ez giñan sartu, ba han dago haritz arbola bat, haritza, arbola, eta esan nontan ze batek, hori dala, eliziak beste urte dakola, eta bera elizia Oñatiko zaharrena dala. Ez, ezin leke hori esan.
- Parrokixia dakoi han.
- Bai, parrokixia, bai, bai. Eliziak beste urte ezin leke euki Urrusulako honek, haritz honek, zeatik haritzen bizimodua da, hemen e, nik bestela ez neben jakingo baiña, hau Gernikako arbolia badakitue Oñatiko plazan zela dauen, ezta? Horren diskuziñua atara geben baten, eta fan nitzan aiuntamientura eta aiuntamientuan topau geben noiz sartu zan ta dana. Sartu zan "el año quince" edo sartu zan.
- "Quince", fan zan gizaldixan?
- Hori da. Eta bizixa dako, gero irakurri neben, nunbaiten irakurri neben, haritz arbolien bizixa dala, ehun ta berrogeta hamar bat urte, hori luze jota.
- Bai zera.
- Hala esaten eben liburuak, nik irakurri dotenak behintzet.
- Nik uste neben bastante urte gehixao bizitten direla haritzak.
- Nik liburu baten irakurri neben hori. Eta hemen gero Madalengan, eliza aurrian, artia, zuk ez zebe ezagutuko, arta, arte, artia arbola bat izugarrixa.
- Euen hor?
- Madalenako eliza ate aurrekaldien. Ondiok be dau holako batetik ebagitta, eta han lora batzuk edo ipintten (di)ttugu, urtien behin edo ipintten (di)ttue, lehen neuk be bai baiña, ipintten (di)ttue. Esaten daue, gure hemengo aittari entzunda dakot, San Frantzisko hemen bizi izan

zanian, haren azpitan egoten zala deskantsaitten, lana inddu gero. Eta beste batzuk esaten daue berriz, San Frantziskok sartutako landaria zala ha.

### 2.43. Santa Cruz apaiza Oñati inguruetan

- **Hizlaria(k):** Urzelai Aiaitui, Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-075/006
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:18:14. **Bukatu:** 00:19:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak  
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- **Laburpena:** Jesusen amonak (Aretxabaletako Goroeta auzokoa zen), 12 urte zituela Santa Cruz apaiza ezagutu zuen. Auzoko gazte guztiak basoan ezkutatu omen ziren, bestela gerrillariak erreklutatu egingo zituztelako. Oñatiko Aurreko Mendian egon omen zen gerrillaria negu batean elurak harrapatuta. Aita Santuaren barkamenik lortu ez, eta Ameriketara alde egin omen zuen.

#### Transkripzioa

- Eta hemen gure amandria, Koruetakua, Koruetakua zan gure amandria. Eta harek ezagutu eben "Cura Santa Cruz".

- Ez da izango?

- Ezagutu eben harek.

- Elementu ona izan bihar zan ba...

- "Cura Santa Cruz" izan zan, badakitxue, gerrillerua izan zan, leheningo gerrillerua munduan esaten daue izan zala bai, eta gogorra.

- Txarra esaten dauenez.

- Txarra? Harek esaten eben hori agerketan zanian, hango gazte danak basora faten zirela, basora, basuen gordeten zirela. Horrek danak hartu eta aurrian eruaten ei zittuen.

- Danak reklutau.

- Eta kitto, eta ez, zera ez zana, blast, e? Fuera! Eta negu aldi bat, nik horreik liburuan nunbaitten nola etorri zan gurera, eta zan liburu bat deskribitten ebena, ez dakit zeintzuk ziren, baiña esaten eben erderaz esanda, "en defensa del Cura Santa Cruz, por las atrocidades que han dicho por el". Defensoria izan da be, artian, artian esaten zittuanak! Negu aldi bat Aurreko Mendixen pasau eben hamabost egun bat edurrak harrapota. Eta gero esaten da Amerikara fan zala, barkaziñua eskatu Aitta Santuak barkaziñorik ez, eta Suizan egon zala. Uste dot ofizialena Amerikara fan zana. Ameriketari "Cura Santa Cruz" famosua.

- Eta nundik ezagutu zeban zure amandriak?

- Koruetan, hamabi urte eukela ezagutu eben berak. Gure amandria Koruetatik etorri zan hona, ezkondata. "Cura Santa Cruz".

### 2.44. Jentilenak eta beste kontakizun batzuk

- **Hizlaria(k):** Urzelai Aiaitui, Jesus



- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-075/014
- **Iraupena**: 0:03:10. **Hasi**: 00:35:10. **Bukatu**: 00:38:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena**: San Pedroko zubia jentilek egin omen zuten. Jesus umea zenean, umeak beldurtzeko "Anbotoko Señoria" aipatzen zen edota San Juan Artiara morroi bidaltzearekin mehatxatzen zituzten. "Anbotoko Señoria" Aloñara etortzen omen zen.

### Transkripzioa

- Leiendak esaten daue San Pedroko Torreko etxia edo zubixa, in euela jentillak, entzunda dakotzu hori?
- Bueno, jentillen kontuak bai, baiña zubi horrenik ez.
- Ez dakotzu? Eta San Pedroko amandria, amandren batek, zubixa akabaitten baldin bauen eguna zabaldu orduko, alabia emun bihar osten. Hori entzunda dakotzu?
- Bai, bai.
- Eta itten euen hiru harrikadan, Iturri Zaharretik Bakuera harrikada baten; bigarren harrikadan Zañarturaino; Zañartutik Torrera beste harrikada baten, jentillak botaten euen. Eta azkenengo harrixa ipintten zebillela, kandeliao argixa ipiñi zerari, oillarrari, eta oillarrak kantau in eben. Eta esaten daue beheko harrixak dakola atzaparra markak. Leienda kontuak.
- Orduan amaittu zebeu zubixori?
- Amaittu eben itxuria, baiña azkenengo harrixa ipintteko geratu zan.
- Oillarrari kandelioa ifiñi otsan.
- Amandriak. Eguna argittu zala eta orduan oillarrak kantau in eben. Hiru harrikadatan. Bakuera, Bakuetik Zañartura eta Zañartutik San Pedrorra. Transportia.
- Zer kontatzen zebeu jentiak, zer zirala-edo?
- Jentillan historixak hemen badakitzue, zerien dakotzu Legazpiko kurtze onduen be Jentiletxe dau, ikusitta egongo zara igual. Legazpiko kurtzia, ezkertera honutzara hola harri pilla haundi bat, Jentiletxe esaten xaue. Jentiletxe, hemen leiendak ez dakit zenbat egongo diren, hori San Pedrokuori betik entzun dogu eta dakigu, entzunda e?
- Aixkirriko koban be Jentillen tesoria euela ta...
- Bai, lehenau be Anbotoko Señoria pasaitten zala hemen, hori entzun geben mutiko denporan billurketako, "Anbotoko Señoria etorriko dok!" Eta beste bat izaten zan hemen, zezer ez baldin baen ondo itten, kriau zera, San Juan Artixara, San Juan Artixara kriau! Hemen amenazua hori izaten zan. San Juan Artixa badakitzu nun dauen.
- Bai, baiña han Mikeletiak egozen.
- San Juan Artixan ez, San Juan Artixan famelixia bizi zan. Mikeletiak beherau egozen.
- Beheratxuau, bai, bai.
- Bai ba, bueno, betik amenazua. Mutikua! San Juan Artixan kriau hi!
- Eta zergaittik hori? Ze euen ba han?
- Ba urrin euen ha eta, urrin euelako izango zan edo. Pentsau itten dot nik.
- Urrin dagolako.
- (...)
- Eta sorgiñen kontuak eta entzuten ziren?
- Sorgiñen kontuak hemen, sorgiñen kontuak entzuten ziren hemen

Anbotoko Señoria. Anbotoko Señoria pasaitten zan Aloñara, Aloñatik Anbotora, Anbototik Aloñara esaten zan orduan: "Anbotoko Señoria pasau edo etorriko dok gero!"

## 2.45. Lapurrak bideetan

- **Hizlaria(k):** Urzelai Aia, Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-075/015
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:38:20. **Bukatu:** 00:40:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena:** Garai batean Fanderia inguruan lapurreta asko izaten omen ziren, harik eta Eibarren pistolak egiten hasi ziren arte. Pistolokin hasi ziren ibiltariak lapurrok uxatzen. Lapurrek ihes egiten zuten bidea oraindik ere "Lapur Bide" izenez ezagutzen da. Garai hartan inguruko ferietara jendea oinez mugitzen zen, lapurren zorionerako.

### Transkripzioa

- Eta sorgiñen kontuak ziren ba hemen sorgiñak Fanderixan. Horri Fanderixan Lapurbide ondiok be bide bati Lapurbide esaten xaue ondiok. Hor egoten ziren atrakuok eta zerok. Hemen Balantzategiko Mariano zan bat, harek esaten eben hori Eibarrek kendu zittuala danak, pistola etara ebenian.

- Hori entzunda dakat nik.

- Entzunda. Eibarrek kendu zittuala horreik danak.

- Lapurrok.

- Lapurrok orduan kendu zirela hemen. Ondiok be han dau bide bat, zuek ez zai konturatuko, hantxe dau goitik behera zoiazela ezkerretara, bide bat ikusiko dozue ondiok, oin nehikua garbi dau, ha da Lapurbide. Handik ihes itten euen lapurrok eta hari esaten xako Lapurbide, Fanderixan. Eta hor ibilliko ziran sorgiñok-eta.

- Lapurbide, lapurrak ze ziren, bide lapurrak edo?

- Klaro, bide lapurrak, eta gabien badakitzu orduan lapurrak egongo ziren oingo moduan edo antzera igual. Txahala saltzen, orduan ez zan automobilik eta trenik-eta, orduan oiñez ibiltten zan. Eta Mondrauera, ohitura haundixa euen Mondrauera ferixara fateko, asko egon zan hemen. Neu be aittakin fanda nago astuakin, astua saltzera Mondrauera, eta orduen bueltan oiñez etorten ziñan. Harutz oiñez eta bueltan be oiñez.

- Harutz diru barik eta honutz diruaz.

- Klaro. Eta han baten batek zainttu itten zeuen. Bueno, hola pentsau itten dot nik e?

- Bai, bai, hola izango zan.

- Eta hori esaten eben, hori Eibarrek kendu zittuala horreik, pistola etara ebenian, orduen fan zirala danok.

- Jentia pistolakin ibiltten hasi eta defendiu.

- Jentia defendiu, baten bat etorten bazan zera, pistola etara eta billurra, badakitzu. Bizixa estimau, normala dan moduen.

- Eta Sakamantekasena hemen zueri ez otsuen itten? Hemen ez zan entzuten?

- Bai entzun, entzun itten zan Sakamantekas gure mutiko denporan entzuten zan, bai. Sakamantekasak billurketara, billurra sartzeko.

## 2.46. Zañartu eta Madalenako eskoletan ibilia

- **Hizlaria(k):** Urzelai Aiastui, Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-075/017
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:43:56. **Bukatu:** 00:46:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**
  - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Gerra denboran, Zañartura joaten zen eskolara. Gerra-hegazkinen zaratarekin izututa, eskolatik etxera bidali zituzten. Gerraostean, Madalenako eskolara joan zen. Euskaraz hitz egiteagatik jipoiak ematen zizkieten ikasleei. Oso gaizki pasatu zuten ikasleek erdaraz ez jakiteagatik. Bost urtetik 14 urtera arteko neska-mutilek elkarrekin ikasten zuten, maisu batekin.

### Transkripzioa

- Eta gero gu gerra denporan egon giñan eskolan Zañartun, Zañartun egozen mojak, karidadekuak, han ibilli giñan gu. Eta hemen bonbardeua hasi zanian, hau frentia hasi zanian hemen etorri zan arioplanuak, gorrionak baiño gehixau, danbarradia... billurtuta, etxera. Gerria akabo zanian handik Madalenara pasau giñan, eskolara. Guk erderaz jakin ez, eta euskeraz gekixelako, euskeraz itten gebelako kriston palizak emuten oskuen.

- Palizak, e? Ez da eskola danetan pasau hori, e?

- Baiña Oñatin bai, Oñatin leku askotan, kaleko eskola nazionaletan be emuten euen, bai. Hemen Madalenan ez dakit zeatik.

- Kastiguak igual paretara begira, liburuak eusten ta hola.

- Holako zera ez, guri egurra.

- Egurra, e?

- Egurra. Gero anillua, eraztuna ibiltten zan. Klaro, ha hurringo egunian faten zana, ha etxera, eskolara faten zana harekin, palizia. Palizia sin mas, e? Bueno! Guk euki geben orduen kalbarixua, eta erderaz jakin ez. Erderaz badakitzu, zeozer jakingo geben, baiña etxian, jolasian eta betik ba euskeraz. Maixua ezkiñarik ezkiña zainketan. Ona izango zan igual erderaz ikasteko, eskolia ikasteko, baiña, baiña, bere misifua.

- Jentien gain amorrua sortzeko bidia.

- Eskolara joan gura ezta egongo zifazien orduan, ez?

- Gu egon giñan eskolan hemen maixu bateaz ixa larogei, ixa larogei txikiñak eta haundixak danak. Igual egongo giñan ba bost urtetik hamalau urte artekuak ixa larogei, danak batera.

- Hori hemen Madalenan?

- Madalenan, bai. Maristak etorri ziranian, hona Maristak etorri ziranian orduentxe zabaldu zan puska bat. Orduentxe zabaldu zan, maristetara fan ziren batzuk, gure etxetik be fan ziren maristetara. Ni hor geratu nitzan ta bueno, hola ibilli zan.

- Eta nun zegoan eskolia, Madalenako eskola hori?

- Hortxe, zerien dau, Bikoitz tabernia dau ipifitta.

## 2.47. Hiru auzoentzako eskola bat

- **Hizlaria(k):** Urzelai Aiausti, Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-075/019
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:46:40. **Bukatu:** 00:49:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**
  - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
  - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- **Laburpena:** Biderkatzeko taula kantuan ikasten zuten, ikasle zaharragoei entzunda. Idazten ere zer edo zer ikasi zuen. Jesus 11 urtera arte ibili zen eskolan. Soldadutzatik etorri eta gero gau-eskolara joan zen lau urtean. Zubillaga, Garibai eta Antsolopetegi auzoen artean egin zuten Madalenako eskola. Laurogei bat umek elkarrekin ikasten zuten maisu bakarrekin.

### Transkripzioa

- Ze ikasten zenduen, zeatik hainbeste umekin zela konpontzen zan?
- Kantuan.
- Kantuan?
- Tabla dana, ez dakitzu? Multiplikarreko tabala dana kantuan, zaharraguak itten eben eta gero mutikuak be, beste gaztiaguak be ikasi eta haretzekin. Aurrerazka eta atzerazka. Hasi “uno por uno” hasita, “dos por dos” ta holaxe hasi, beratziraiño, atzera gero buelta atzerazka, hori ikasi geben guk kantuan ikasi geben guk hori. Gero eskribitten ta ba etxien, ez dakit, etxien igual ingo geben, bertan be itten geben eskribitten-ta. Ta gero hemen gu eskolan hamaika urte arte ibilli giñan bakarrik, ni behintzet, eta gero gau-eskolatan ibilli giñan asko. Soldadutzatik etorri eta gero gau-eskolatan ibilli nitzan ni ba lau bat urtian-edo, zeozer ikasten, bestien ez geben ikasi te.
- Eske larogei umekin ez dakit ze...
- Bai, hirurogeta hemezortzi behintzet egonda gaoz.
- Eta irakaslia bakarra?
- Bakarra, bakarra.
- Kanpotarra zan bera?
- Kastillakua. Bera zan, hona noiz etorriko zan ez dakit. Hemen esaten daue aurretik egon zala Maistra Zaharra esaten dotsaiña, oso gogorra. Ha zala irakusten ta oso gogorra baiña irakusten oso ona. Aurretik, nik ez neben ezagutu ha, e? Eta Madalenako eskoliori hori in daue hiru auzoren artian inddakua da hori. Zubillagakuak, honek auzo hanek eta Garibai auzuak. Eta zertako in euen? Edo zela in euen ez dakit, behintzet hiru auzuena zan. Gero in zan jabe aiuntamientua, baiña gero e? Aiuntamientuak in eben arreglau eta in zittuan, arreglau eta in eben, eta horren gaiñan dago bizitzaia, hor bizi zan maisua.
- Eta maixua bertan bizi zan orduan?
- Bai, bai. Oin horko maixuen alaba bat bizi da Oñatin, urte pilla bat derrigor euki bihar (di)ttu, alaba bizi da.
- Eskolia pagau itten zan?
- Ez, guk ez geben pagaitten. Neuk dakiela ez behintzet, oin hango partikular ipintten baldin baotsun bai, orduan bai. Partikularra ez dakit zenbat kobraitzen euein baiña gu partikular asko fan giñan.

- Gau-eskolak...

- Gau-eskolak eta eguardiko eskolak be bai, eguardixan be hamabittan urteten geben eta hamabi ta erdittan atzera ekitten zan eta ordu bixak arte. Oin pagau-ta ez dakit zenbat pagaitten zan.

- Eskolan goiz ta atsalde.

- Bai, goiz ta atsalde. Hemen Zubillaga auzo dezentia zan, Zubillaga haundixa, nehiko haundixa ta oin baiño gehixao, jente gehixao biziko zan eta seguramente, eta han euzen ba hemengo aldian jente asko, eta Garibai da beste, errekien beste aldekoa, Garibai hori be San Pedroraiño hartzen eben. Eta horreik be eskola hortara etorten ziren.

-Ume pillia e!

- Bai, hirurogeta hemezortzi ume, hirurogeta hemezortzi behintzet, larogei igual egongo giñan.

## 2.48. Gau-eskolan ikasten

- **Hizlaria(k):** Urzelai Aiausti, Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-075/025
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:58:57. **Bukatu:** 01:01:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Bost-sei urterekin hasi zen eskolan. Itaurrean (idien aurrean) egin behar zenean, ezin izaten zuen eskolara joan. Jesus Zañartun artuko eskolan gustura ibili zen, baina auzoko eskolaren inguruko oroitzapen txarrak ditu. Gau-eskola izan zuen gogoko. Marrazketa ikasteko, Garai lantegiak ordaindutako gau-eskolak jaso zituen. Matematikak aparte ikasi zituen.

### Transkripzioa

- Umetan eskolara zenbat urtekin hasi ziñan?

- Bostekin-edo, bostekin edo seikin, sei igual, ez dakit, hori ez otsut esango zenbatekin, sei igual.

- Eta zuri pasatzen jatzun lanak in biharra baserrixan eta ezeittela joan eskolara.

- Ittaurren in bihar dala ta, ittaurren ibillitta egongo haiz ba.

- Ni ez.

- Ez? Ittaurreko denporan eskolara ezin fan. Gu gaiñera faten giñan txandaka, gaur zuk geratu bihar dozu, bixar... holaxe. Ittaurren...

- Gustau itten xatzuen eskolara fatia?

- Ba, ni Zañartun gustora ibilli nitzan. Hemen ez, hemen hutsa bihar zebe bixkarrekua emuteko, eta hemen ez, baiña han bai, Zañartun bai. Maristetan-ta gure anaia-ta ibilli ziran ta, gustora ibilli ziren. Ni gero ibilli nitzan gustora, gero, soldautzatik etorri eta gero.

- Gau-eskolan.

- Gau-eskolan, gau-eskolan ingo nittun nik lau bat urte, ingo nittuan. Pittin bat zeozer, zeozer-zeozer ikasteko. Gero irakurteko afiziñua pittin bat euki neben ta ba.

- Eta nun, herrira faten ziñan?

- Bai, baiña zerien herrira, fabrikatik faten giñan e? Garaittik orduen bialdu

itten geuzen, eta gero nere kontura be bai. Fabrikatik bialdu itten geuzen. Itten gittun hiru hillabete-edo, hiru hillabete-edo itten gittun fabrikatik. Fabrika pagaitten eben eta gu faten gitzan eskolara.

- Eskola jenerala ikastera edo fabrikako gauzak?
- Fabrikako dibujua emuten oskuen asko. Guk partikular eskatuta urte beten in geben matematikak, emun oskuen geuk eskatuta. Maixu Marista zan direktore itten ebenak, emun oskun matematikak. Eta ondo, ni han gustora, eta hantxe ikasi nebela puxka bat. Uste dot hantxe ikasi nebela.
- Eta zuk zenbat urte ibilli ziñan Zañartun hona etorri aurretik?
- Ba gerria akabo arte. Ni gerria akabo arte.
- Zañartun.
- Zañartun. Ni sei urtekin fango nitzan Zañartura bai, seguramente, sei urtekin, gerria hasittakuan sei urte ta akabo zan "treintay nueve"ian edo "cuarenta"n-edo, eta ni hemen geratu nitzan, Madalenen geratu nitzan.

## 2.49. 'Pernando amezketarra'ren bertsoa I

- **Hizlaria(k)**: Madinabeitia Oñate, Sinforoso
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-103/024
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 00:41:40. **Bukatu**: 00:42:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Leturia, Ane
- **Gaia(k)**:  
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak  
Aisia » Kultura » Irakurtzea
- **Laburpena**: Pernando amezketarraren bertsoak, txartel bila joan zenean. Araotzen morroi egon zenean irakurri zuen.

### Transkripzioa

- "Esango al didazu"...

- "Esango al didazu instante batian, nik liburutik txartela atara bitartian, nola sinisten dezun zuk zere artian, hiru persona daudela jangoiko batian." Eta Fernando bersolaixa izan, eta Fernandok erantzun otsala, nik irakurritta xakuat Araotzen kriaueon nitzuan. Hamalau-hamabost bat urte ixa eukiko nittuan. Nere prima bat zuan e... Mantzena.

## 2.50. 'Pernando amezketarra'ren bertsoa II

- **Hizlaria(k)**: Madinabeitia Oñate, Sinforoso
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-103/026
- **Iraupena**: 0:00:51. **Hasi**: 00:42:49. **Bukatu**: 00:43:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Leturia, Ane
- **Gaia(k)**:  
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak  
Aisia » Kultura » Irakurtzea
- **Laburpena**: Pernando amezketarraren erantzuna, erretoreari. Bertsoa.

### Transkripzioa

- Ta ze erantzun eben Fernandok?
- Fernandok erantzun txan, erantzun in txan, liburua irakurritta [ñakuan], han xakuain liburu zahar bat Fernando Amezketarraren txistiak eta zeak, eta... "Esango diot nola siñisten dedan arrazoiarekin, erretore jaunak nahi badu jakin. Usaia, koloria, saborearekin, horra hor hiru gauzatxo sagartxo batekin". Sagarrakin konparau xuan trinidad ze. Bersuoi konpondu xuan.

## 2.51. Sorgin-erreka

- **Hizlaria(k):** Madinabeitia Oñate, Sinforoso
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-103/035
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:59:40. **Bukatu:** 01:01:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena:** Sorgin-errekaren istorioa. Arantzazuko batek ez zuen sorginetan sinesten, eta sorgina agertu ei zitzaion. Txapela galdu zuen. Arenduikoa ei zen mutila.

### Transkripzioa

- Batek Arantzazun ez ei xuan sorgiñetan sinisketan eta Sorgin-erreka hortik datorrela. Behin Sorgin-errekan agertu xakuan hiru milla ta... "ez gaizela, baiña bagaittuk, hiru milla eta bostehun hamen gaittuk!" Eta sorgiñak urten, eta raaa! Ta hurrengo goizian txapela etxian galdu eta, Arenduikua ei zuan mutil hori.
- Hori entzun barik nekuan!
- Eta kustiñua, "bagaizela, baiña ez gaizela, baiña bagaittuk, hiru milla eta bostehun hamen gaittuk!" Eta hori entzun ebenian e, mekaguen! Larrittu dok txapela eskuetan eta txapela galduta allegau ei zuan. Eta hurrengo goizian:
- Sorgiñak ikusi ta gero!
- "Nora hoia hain goiz?" ta "Txapela galdu ñuan, Sorgin-errekan urten nostain sorgin pilla batek..."
- Arenduikua izena eztakozu goguan, zein zan, zein...?
- Ez, ez, ez, ez, lehenagoko kontua dok hori, oin milla urte edo berrehun urteko kontua dok hori. Gehixago.
- Ni Arantzazun hazittakua naiz eta hori kontuori entzun barik nekuan.
- Kooño! "Ez gaizela, baiña bagaittuk, hiru milla eta bostehun hamen gaittuk!" Sorgiñak e, zera. Hurrengo goizian fan ei zuan sorgiñok egon ziran lekura ta, han ez ei xakuan, latatxo bat, ta olixo apurren bat zekin, trapu zahartxo bat ta, kitto, sorgiñak falta!
- Eta txapel hori topau eben, edo?
- Txapela topau ei xuan.

## 2.52. Eskolako kontuak

- **Hizlaria(k):** Aia Aia, Bixenta
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa

- **Erref:** ONA-105/004
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:01:29. **Bukatu:** 00:04:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Leturia, Ane
- **Gaia(k):**
  - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
  - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
  - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  - Politika » Euskara eta politika
- **Laburpena:** Lau urterekin hasi zen eskolan, Sarramendin. Gregorio Larrañaga zen maisua. Torretxebarritik ere hara joaten ziren eskolara, urrutitik. Zigorak, erdaraz egiteagatik.

### Transkripzioa

-Ta... Zu 33an jaixua, zenbat urtekin hasi ziñan eskolan?  
 -Lau urtekin lehenengo aldiz fan nintzan.  
 -Ta nora fan ziñan?  
 -Sarramendi baiño harutzao, han Korosora bittartian dau, orduan eskola barrixa eindda euen, eta gu fan giñan eskola - eskolaa.  
 -Joxe Mari "Sarramendi" k esan ostan bere akorduan ein zala eskola ha.  
 -Bai, akorduan ingo zan.  
 -Euren etxian edo.  
 -Bai, euren etxian esaten daue eon zala lehenengo eskolia. Oinddiok eskolia esaten xauen lekua badakoi haik. Bai, bai.  
 -Sarramendiko eskolan. Ta han zenbat...  
 -Ta geo auzuan ein eben, Sarramendiko eskolia, han eskolia aparte.  
 -Bai, eta goguan dakotzu hango maixuen izenik edo?  
 -Bai, Gregorio Larrañaga zan gure maixua.  
 -A, hori uste dot asko estimaitten ebela Joxe Marik. [...]  
 -Ezautu? Hoixe ezautu.  
 -Fraille izandakua edo ez zan hori?  
 -Ez dakit, hoixe ez dakit /eztakit/, titulobagia zana badakit, e? Baiña...  
 -Bera Oñatikua zan?  
 -Baitta. Oñatikua zala esaten euen.  
 -Eta zenbat... zenbat neskatilla - mutiko kabitten ziñein?  
 -Gu lehenengotan asko. Enee, hogetaka lagunak egoten giñan gu han.  
 -Eta danak gela baten, ezta?  
 -Edade batekuak?  
 -Danak gela baten.  
 -A, gela baten, bai, bai, danok gela baten.  
 -Eta hor gutxi gorabehera lautik hamalau urte artekuak.  
 -Nere denboran han Torretxebarriko bi birki bazian, bi neska, ba haraxe etortzen zian eskolara.  
 -Torretxebarritik?  
 -Torretxebarritik.  
 -Kalian ez eukein eskolaik?  
 -Baiña itxuria kalia ez euen e... Eta zea, Zeziñeneko Felix. Hori be bai, gurekin batea eskolan ibilitta dau hortxe.  
 -Eta Larrain...  
 -Larrañatik.  
 -Baiña Larrañekuak, haik baeuken ba eskolia zeian...  
 -Eskolia eukiko euen, kalia eukiko euen /eukouen/.  
 -Torretxebarritik Sarramendira ibilalditxua dau, e?  
 -Bai, bai. Sarramenditik, Olabarritik eta etorten zian e... Arrandeittik be bai, beste bi anae etorten zian. Eta urrindik etorten zan horra eskolaa e!



Itxuria maisua izango zan ona edo. Bai.  
 -Eta hor orduan eoten ziñain edade danetako neska-mutilak gela baten.  
 -Gela baten ta danok batea, e? Bai. Maisu batekin.  
 -Zuek eskolak zela eitten zittuein, euskaraz edo erderaz?  
 -Erdeaz.  
 -Eta euskeraz itteatik kastigau?  
 -Gu kastigau eitten gindduen, bai. Eskolia ez oskun irakusten euskeraz ittiarren, baiña ura ekartia zala o su-egurra batzeia zala eo hori izaten zan kastiguoi, bai.  
 -Ta zuek ibiltten zeuen eraztunik edo zotzik edo zerbait bata bestiai pasaitteko, euskeraz itten ebenai?  
 -Ez, ez, hori ez. Guk ahal gendun guztia itten geben euskeraz, eta maisuak zainddu itten gindduan, gordeta-ta egoten zan gu euskeraz... gero danok kastigaitteko. Bai.  
 -Eta ze moduzko maisua zan Gregoriui?  
 -Ba ona izango zan edo! Hainbeste...

## 2.53. Eskolara joatea, berak eskatu

- **Hizlaria(k)**: Aiastui Aiastui, Bixenta
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-105/006
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:04:28. **Bukatu**: 00:06:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:  
 Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak  
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Anai-arreba denak joaten zirelako hasi zen eskolara joaten, berak eskatuta. Doktrina buruz ikasten zuten. Maiatzeko loreak, elizako kontuak. Tinteroak, pluma eta tiza.

### Transkripzioa

- Alaba: Ama eskolara fan zan lau urtekin beste danak faten zialako.  
 - Bai, ba bi anae ta, beste ahizpak eta danak faten zian eskolara eta neuk be eskolara fatia gura neben, bai.  
 - Danak haratxe? A! Zu anae-arreba danekin faten ziñan...  
 - Bai ba, eta neuk be eskolara fatia gura neben eta bialdu nidduen, eta gero bigarren egunian enebela gura eskolara faterik, "a ez, ez, behin hasi ezker jarraitu in biha da" ta hurrengo egunian be eskolara gero. Horreaz akordaitten naiz ni ondo.  
 - Ze ikasten zeuein, atentziño gehixau emuten otsain doktriñiari edo...?  
 - Doktriñia, doktriñia, lehenengo-lehenengo doktriñia ekiñaldi bat, eta buruz ikasi bihar zan gaiñea doktriñia e! eta gero ba hor "mariatzeko lorak" eta mariatzian kantuan, bai, "con flores a maria" ta kantaitten gittuan, bai.  
 - Eliza kantuak?  
 - Eliza kantuak, mariatzian, bai.  
 - Ya, ya, eta kontuak itten eta, zuek abakua ta ebaltten zebein edo... abakua da hola zehetxo bat ...  
 - Pizarri... a ez ez, guk bestela lapitzakin eo tiziakin eo ibiltten giñan bai, ta kuadernuan tinttiakin, tinttia, tintteruak egoten zian aurrekaldian ta tinttiakin eskribitten geben.  
 - Aa, plumiakin orduan?

- Bai, hori da, plumiakin.
- Ya, guk boligrafua ezautu geben.
- Guk ez, guk ez geben boligraforik ezautu gure denporan.
- Plumia busti ta..
- Busti ta harekin eskribitten geben, eo enzeraua esaten gotsan zer haretan tiziakin.
- Arbelian.
- Bai, arbela oin esaten xako, ezta?
- Bai.
- Bai, guk boligraforik ez geben ezautu.
- Plumia, plumia eta lapitza euko zebein zuek.
- Lapitza gutxi, plumia, pluma zaharren bat izaten zan ta plumia, bai.

## 2.54. Umetako jolasak eta eskola

- **Hizlaria(k):** Aia Aia, Bixenta
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-105/008
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:06:15. **Bukatu:** 00:08:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena:** Tenteka, harrapo-harrapoka, txirikilletan, sokasaltoan. Garizuman egiten zuten jolas. Pote-poteka. Marrora. 13 urte arte ibili zen eskolan, maisua erretiratu zen arte. Ahizpa zaharrenak Madalenan ibili ziren eskolan.

### Transkripzioa

- Ze jolas klase itten zeuein garai haretan?
- Tenteka edo, harrapo-harrapoka edo... Garizuman txirikilletan.
- Garizuman?
- Nik ez dakit /eztakitt/ orduan min gehixau zela ez geben hartzen txirikilletan.
- Baiña zeak, Anduagako Jexuxek, lehenengo... txirikilletan, guk ez baiña gure atzekuok danok ein dozue txirikilletan, baiña lehenengo aldiz garizumako jolasa zala esan ostan Jexuxek, Anduagakuak. Zuk badakizu zeatik txirikilletan zeatik zan garizuma garaiko jolasa?
- Ez dakit /eztakit/ zeatik.
- Zeatik garizuman bakarrik itten zeuein, ezta?
- Garizuman ta... Bai, garizuman. Sokasaltoka eta txirikilletan garizuman itten geben.
- A, sokasaltoka be bai?
- Sokasaltoka be bai.
- Garizumatik aparte ez zeuen /etzeuen/ itten sokasaltoka?
- Ez dot /eztot/ uste sokasaltoka itten gebenik. Garizuman. Bai.
- Oseake, tenteka, harrapo-harrapoka...
- Pote-poteka, potia ifiñi ta pote-poteka be bai. Beste bat bazan "un, dos, tres, carabá". Bat jarten zan hola eskua ifiñitta, paretara begira, eta atzetik joten ebena zeifiek joten eben igarri bihar otsan. Ta igarten botsan, ha orduan, marroa. Holakotxe jolasak geukan guk! Bai.
- Bueno, bueno. Eta zenbat urte arte ibili ziñan zeian?
- Hamahiru urte edo, ya azkenak! Maixua ya zerera fan zan.

-Ta betik Gregoriokin?  
 -Gregoriokin, betik Gregoriokin. Bai, urte asko in eben harek orduan hor.  
 -Oseake, harek zuek hartzen zindduein ume ta ya neskaillatxo...  
 -Bai, bai. Orduantxen zerrau zan. Bea fan zan ospittalea -Torreko Juan Tomas etorri zan eruatea gaiñea-, ta Azpiko ahizpa bixek eta gu ez dakit / eztakit/ ba, bi ahizpa edo zenbat geontzen, eta beste hiru-laun bat handikaldeko mendikuak eozen, eta akordaitten naiz bazkai pasaria in geben ta ha kalea ta gu baikotza bere etxea. Arratsaldian ez geben eskolaik euki. Bai.  
 -Baiña... gaixotu zalako? Edo...  
 -Ez, ez.  
 -Bestela, erretirau?  
 -Bai, ba, kantsau zan ta hemengo umeik haundixenok be pasau zien ta erretirau in zan, bai.  
 -Eta zure ondorian eskola harek jarraitu eben?  
 -Ez, ez.  
 -A, zuek akabo zeuen?  
 -Orduantxen akabo zan, guk despedidia emun gotsan hari.  
 -Oseake hamahiru urtekin, osea...  
 -Hamabi-hamahiru urte euko nittuan nik, ez dakit /eztakitt/.  
 -Berrogeta beratzixan, hamahiru urte zeukala zuk, berrogeta beratzixan akaboko zan orduan Sarramendiko eskolia.  
 -Bai.  
 -Ta harrezkero ya umiak kalea?  
 -Bai.  
 -Eskolara.  
 -Guk... ni... bi ahizpa gaztiauak ni baiño, ta haik Madalenen ibili zian. Madalenen. Matromaira lo ittea erretiraitten zian ta Madalenen ibili zian.

## 2.55. Babarruna, egunero

- **Hizlaria(k):** Aia Aia, Bixenta
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-105/025
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:27:56. **Bukatu:** 00:28:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
 Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena:** Babarruna jaten zuten egunero, urdai pixka batekin. Neskame zegoela, babarruna eta gero arrautza edo haragia edo arraina izaten zuten.

### Transkripzioa

- Zein zan, orduko jatordurik korrientiak? Bazkaixa ta afaixa?  
 - Ba, bazkaixa babia.  
 - Babia egunero?  
 - Bai, egunero babia.  
 - Eta beti egoten zan urdai apurtxo bat edo?  
 - Bai, urdai pittintxo bat bai. Askok ez zan izango, bi txarrikin pasau bihar izaten zan urtior ta askok ez zan izango, baiña urdai pittintxo bat danendako. Txoixo bat sartu ta hamaika puska in bihako zan ha, nik uste dot, eta orduan ba holaxe. Eta gero guk e, kriada fan giñanian, ba, jaten, potajia geuk gura geben beste eukitten geben eta gero gaiñian arrautza

bat, o arraiña, o okela zati bat o, danetik, etxian baiño gehixau, hobeto jaten geben guk han, askokin be.

### 3. Herria, azpiegitura

#### 3.1. Bere lehenengo bizikleta

- **Hizlaria(k)**: Olalde Beloki, Bittor
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Oñati
- **Erref**: ONA-004/008
- **Iraupena**: 0:00:45. **Hasi**: 00:10:25. **Bukatu**: 00:11:10
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak  
Aisia » Kirola » Txirrindularitza
- **Laburpena**: Betidanik izan du bizikletan ibiltzeko zaletasuna. Bere aita pisu handikoa zen eta bigarren eskuko bizikleta ona eta sendoa erosi zuen. Hura izan zen bere lehen bizikleta.

#### Transkripzioa

- Zure lehen txirrindua, lehen bizikleta noiz izan zenuen?  
- Ba nik lehenengo... ba eztaikit, oso gaztetatik, ikasi beste baten bizikletiaz in neben, baiña gure aitta be pixu haundiko gizona zan eta bizikletia zahartutakuan iñ eben beste bat erosi, fuertiaua, bizikleta on bat erosi eben, ezta? Usaua erosi eben baiña aberats baten bizikleta on bat erosi eben, eta nire bizikletia ha izan zan. Aitta zaharrakin ibiltten zan, konpondu arte emun otsan, bizikleta zaharraz eta kanbixua eta jarri notsan gero eta hareaz haik eta ezkondu arte.

#### 3.2. Torreauso auzoko baserriak

- **Hizlaria(k)**: Guridi Egaña, Enrike
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-041/012
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:22:30. **Bukatu**: 00:24:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Torreauso ziurrenik Oñatiko auzo txikiena izango omen da lurrez eta jendez. Auzoko baserriak izendatzen ditu. Zazpi baserri dira guztira eta 14 familia bizi dira denera.

#### Transkripzioa

-Auzua asko aldatu da?  
-Bai. Bueno, hau auzo oso txikiña da, e? Oñatiko, seguramente, territorixuan, metro kuadrauetan eta habitantetan txikiñena.  
-Ze etxe sartzan dia hemen? Lasa...  
-Hemen? Torria bat, Errota bi, Azkonitza hiru, Munazatei lau, Azpikua bost, Elazarra sei, Etxe Haundi zazpi. Horreik baserrixak zienak. Ta gero oin bizi dienak hortik gaiña, ba, gero Alfontxo, zortzi, Mendi beatzi, bueno, Mendi,

bai, [...] beatzi, nere semia hamar, gu hamaika, eta hemen bi, hamahiru. Hamalau bezino. Torreaurok ez dako /eztako/ besteik.

-Basarrietan danetan bizi da jentia ondio?

-Bai, hemetik ez dau... Bueno, ezkondu dienak kanpora ba, bai, baiña bestela...

-Baiña basarri hutsik ez dao...

-Hemen basarriik bapez ya.

-Ez, baiña hutsik, jente barik.

-Ez, ez, ez, ez, darian. Munazatein be ba lehen bizi bat zana oin bi, basarrietan bertan in zittuein bi bizi, anai-arrebak.

-Ta Elazarren?

-Elazarren be "lo mismo".

### 3.3. Argia eta ura etxean

- **Hizlaria(k):** Kortabarria Urrutia, Rosario
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-045/012
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:35:08. **Bukatu:** 00:36:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- **Laburpena:** Rosariok 6 urte inguru zituela jarri zuten argindarra etxean, Uniñ Cerrajerakoa. Ura ipini zela, berriz, 40 urte inguru dira.

#### Transkripzioa

- Eta lehen esan dogu erropa garbitziana eta; argirik be ezenduen eukiko etxian, ezta?

- Argirik ez, illunetan, bueno argixak bai, nik sei bai urte neukala edo holaxe ifiñi zittuein argixak.

- Baiña ya linea, edo errekatik zeuek edo zela zeukein?

- Argixa? Linea Mondrauetik uste dot euela, Unión Cerrajeratik uste dot.

- Eta ura noiz ipiñi zenduen etxian?

- Ura? Ura ifiñi zala ondiok urte asko be ezta. Ura ifiñi zala eztakit zenbat urte izango diran baiña urte asko ez ondiok. Zu akordauko zara, ura noiz ifiñi euen.

- Alaba: berrogei bat urte edo izango dira hemen sukaldera ifiñi zala, kanpua, ba, betittik egon da.

- Klaro, askan, ezta?

- Alaba: bai askan, eta iturriraxan etorten zana erateko, eta askatik etxerako ura kaldaratan ekarrirra.

### 3.4. Istripuak; senarraren moto-istripua

- **Hizlaria(k):** Madina Anduaga, Baxili
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-046/010
- **Iraupena:** 0:05:25. **Hasi:** 00:13:00. **Bukatu:** 00:18:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
 Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak  
 Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak  
 Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- **Laburpena:** Oñatín gertatu zen istripu handi batean hil zirenen inguruko azalpenak. Beste istripu batzuk, bere senarraren moto-istripua barne.

### Transkripzioa

- Eta hori, Martin Zulueta esan dozuna, hori esan dozu akzidentian hil zan ezta, bera?

- Bere alabía hil zan hor, horko andria hil zan, gaztia.

- Martin horrena, alabía hil zan akzidente horretan?

- Akzidente horretan hil zan. Horreik fan ziran Gabonetako regaluok ekartera umiai Bilbora, asko ekarri be in biharko zittuen eta euren kotxiakin fan zien, txoferrakin, baiña danak galdu zien han, pasonibelian, txoferra ta, eurak bi ahizpa eta aitta gaiñera.

- Danak hil zian orduan.

- Eta Martin hori bertan euen?

- Martin ez. Martin,... etxe hortakuak bazian horreik, hori aurrerago, hori ez dakit, hori nik persona hori ez neben hainbeste ezaguturik izango, baiña horrek eztarrikuak kentzen zittuen semiak, glandulak kentzen zittuan, eta oso lan haundixa eukitten eben hortan be, baiña gaur hori itteko be, hara, beste edozeinek asmauta dakoi, hor holako batzuk ein eta kentzen dittuela, bai.

- Eta akzidente hori noiz izan zan, gutxi gorabehera?

- Berrogeta hamar bat urte badia hori zala. Ta nik fotografia dakot horrein entiaruan lau kaja egozen, parrokixien atien lau kaja, dagoz, txoferrena ta beste hirurena. Gogorra izan zan e? Eta handik eta estaziñora, kanposanto aldera, ha, estaziño alderakua eta, ha dana, dana, dana, jentia dago. Arkitektua Kalezaharrian bizi zan, eta gero Kalezaharrian gora etorri zien hor abare pillia eta handik ekarri zittuein illaria, baiña gogorra izan zan, benetan gogorra. Gero egon dia akzidentiak, gaztiak be euki gero hor, San Prudentzion be bai ta, beste baten Domu Santu bezperia, eta etozen Mondrauetik eta gura euen eguna zabaldu orduko etxeraketia, eta belozidade haunditxuaguaz hartu euen eta jo bazterra eta han geratu zien haik be. Haik ez dakit zenbat zien, hantxe geratu zien haik be. Bai, holaxe gutxien uste dan lekuan, ba, tokaitten dia horreik. Eta horreiña barik nere gizonak euki eben akzidentia. Esto, beetorren, Legazpiko alkatiakin egotera fan zan eta beetorren bueltan ta gorra, bere farol zahar batekin xoian goittik-behera, gorra, eta gorrak ez otsan aldeteko zerik eta berak emun otsan ezkiñari. Motorrian ez gitzan aguro ibiltten, behetik-gora hankia lurrian ipintteko moduan faten giñan. Ni zazpi urtian ibilli nitzan motorrian, baiña hankia lurrian ifintteko moduan betik, hemendik Arantzazura eta, umiak be danak hartuta faten giñan, kamiñuan be ez euan gaur lako beste kotxe ta traste, ez euen, libertade gehixau euen, eta hola. Baiña ni gero, gizon hori jota, kamiño ezkiñan geratu zan nere gizona, hantxe belarritatik odola daixola, kamiño ezkiñan, eta hementxe Urtiagaingo mutil bat neskiari lagunetara goiko palazioko kriadiari lagunetara etorrela neskia [...], klaro, koiñatuaren anaia, esto, ha neskia itxi eta fan zan tasisa hartzera, itxi eben Txopekuan, eta gero neri abixau nostan, eta hurringo egunian fan nintzan Txopekora, hemezortzi egun Txopekuan pasau gittuan, "entre la vida y la muerte", hola, eta urte hartan ama hilda neukan eta

hiru seme-alaba geukan, eta urtia justo-justo ama hildda, anae bat hil xatan berrogei urtekua derrepente, berrogei urteko anaia derrepente hil xatan.

- Zure gizon horrek ze edade eukan orduan?

- Orduan ba, han egon zan Txopekuan, buruan eukan golpia eta, Santa Agedako medikua...

- Ze edade eukan, zenbat urte?

- Nere gizonak? Ba neu baiño bi urte gaztiaua zan, eta eukan orduan, hogeta hamalau urte edo eukan.

- Gazte ondiok.

- Bai, hogeta hamalau urte.

- Baiña aurrera urten eben.

- Bai, aurrera urten, ta ni begirik batu barik egon nintzan egun horreik danetan, ez dakit zela soportau neben. Begirik batu barik, anaiak etorri ziren ta, Juan eta Jose anaiak be etorten ziren famelixakuak, baiña ikusi barik atzera faten ziren, oso gaixki, eta Santa Agedako medikua bertara ekarri eta hemenguakin gero, bixkarretik atara otsain likidua ta hor ibilli zian, baiña gero bastante aguro gero atzera jarri zan ondo. Bueltan hasi zanian, harek rekuperaziñua beti holaxe itten eben, aguro.

### 3.5. Garbitoki eta ur-saltoak

- **Hizlaria(k):** Ugarte Umerez, Nikolas
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-049/002
- **Iraupena:** 0:04:12. **Hasi:** 00:05:03. **Bukatu:** 00:09:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekek eta uretako jolasak
- **Laburpena:** Roke Azkunekeo presan ikasten zuten igeri egiten. Arrue lantegian Etxatxon hartutako urarekin sortzen zuten argindarra. Portalekuko garbitokian garbitzen zituzten arropak.

#### Transkripzioa

- Eta erreketan baiñurik eta...?

- Baiñuak? Bai, bai, bai, hortxe bertan be, errekek bi horreik juntaitten ziran lekuan, Ubao errekiak, Roke Azkune badau ba oin hor? Hor euen presia bastante haundixa, 5-6 metroko saltua ta presa azpixa zan pozu bat ederra, hor inguru hortako mutiko danak han igarixen ikasi ebein, nik neuk ez neben ikasi baiña ha izaten zan igari lekua, bai.

- Eta esan dozu Urien lantegixa edo, Urien edo zelan esan dozu?

- Ez, Urien ez, Arrue, Arrue Hermanos zan, aixkorak itten zittuein hor, bai, aixkorak, ez zan hola langille askoko zera baiña igual hamar bat lagunek lana ingo ebein, bai, horreik eukein euren ura; Etxatxoko presia, Etxatxoko presia zuk errekien sentiduan begiraketan badozu, ezkerreko aldiari han San Martin azpixon dator kanala, horrek kanal horrek ekarten eben ura lehenengo Portalekura, Bar Aranzazu, haren aurrekaldian euen labaderua, erropak garbiketako.

- Nik labaderua ez dakot goguan.

- Erropak garbiketara lehen ez euen etxetan labadorarik, nere amak eta

nere arrebak hara joaten ziren erropakin; ur hori pasaitten zan handik labaderotik, eta labaderuen albotik beste kanaltxo bat joaten zan ba Triana, Triana Txaton etxia ta badakitzu zeintzuk diren? Mardona ta bai. Bueno ba, haren atzekalderaño joaten zan eta gero handik sartzen zan Arruen fabrika atzekaldera, eta harek eukan izugarrizko pozua, izugarrizkua edo, nehiko pozu haundixa, argindarra sortzeko, berak sortzen eben argindarra falta itten otsanian, ez euenian argindarrik, berak eukan saltua han eta handik sortzen eben argindarra, bai, eta gero horrek jarraiketan eben, ur horrek jarraiketan eben ba, ze esango dotsut nik, Santurrutxura, zan baserrixa nehiko fanmosua hemen, ortuak eta eukan ba barazki zerak, ta han euen beste labadero bat.

- Horrekin akordaitten naiz.

- Han euen beste labadero bat, horrek kanalorek beorrek jarraiketan eben hemen Bidebarritta hemen danian Santa Anaraiño, Santa Anan monjan terrenotan sartzen zan eta urteten eben oin polideportibuan aparkamientua egin daue ba?

- Ha lurpekua?

- Ez, ez, gaiñian, gaiñian, hor kanala danian gaiñian joaten zan ura lurpeian ez, hemen Bidebarrittako ortu danak ha ura aprobetxaitten euein erregaitteko, hemen hau dana lehen ortua zan, e? Hau dana, bai alde batera eta bai bestera, errekiatz honuntza dana ortuak ziran, ta ha kanala aillagaitten zan zerañio, San Juan Kaleraiño, eta oin aparkamentu subterraneotarako sarrerria in dauen lekuan euen beste labadero bat. Baikotzak, auzounak baikotzak bere labaderua eukein, hemen euzen mordua euzen labaderuak, kontaitten hasi ezker. Ta han euen bat. Ta gero handik, hango labaderuan erabilli ur hori eta justo oin Turismo Bulegua badau ba? Han in daue ba ze bat, ze in daue, lehengo errota baten, zera in daue holako, lehen errotak zela funtzionaitten ebein, bueno ba han harek ur harek urteten eben erre kara ja. Hori kanalori hantxe akabaitten zan. Hori urori be erabiltten eben han San Juan Kalia oin Turismo Bulegua dauen lekuan lehen euen zerrria, eta harek zerra harek be hori urori erabiltten eben argindarra egitteko.

### 3.6. Kanaleko harraskak eta zerrategiak

- **Hizlaria(k):** Ugarte Umerez, Nikolas
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-049/003
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:09:15. **Bukatu:** 00:12:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- **Laburpena:** Ubarkaldetik San Migel errotaraino ur-kanala zegoen eta bere bidean garbitoki batzuk eta bi zerra zeuden. Etxeetan ura bazegoen arren, garbitokietako ur hotzetan garbitu behar izaten zuten arropa.

#### Transkripzioa

- Oseake, herri guztian zihar zoian kanala, ezta?

- Herri guztian zihar, bai, bai, bai. Hori kanalori, pentsa eizu, hasten zan gaur Ubarkalden etxiak, hantxe hasten zan errekatik, ta lehengo erabiltten eben hor gaur Olakua, Poligono Olakua dan zerian, hor euen



zerra bat, harek erabiltten eben leheningo ur horreik, harek botaten zittuan erre kara, gero berau atzera berriro hartzen zan, ta herri dana kanalak trabeskatzen eben hori.

- Baiña hori erre kia ez zan, hori kanala zan, ta...

- Hori kanala zan baiña erre kazo urak erabiltten ziren.

- Herrixak indako kanala zan? Zeiñek egin ze ben kanala? Herrixak indakua? Zuk holan ezagutu ze ben?

- Guk hola ezagutu geben. Ba bai, seguru asko hori herrixak inddako lana izango zan, bai, bai, porke lehen esan dotsuten moduan labaderuak ur horrekin balixaitten ziran.

- Lehen herriko bizi lagun guztiak kalera fango ziren erropak garbitzera.

- Erropak garbiketara? Bai, bai, dudarik be ez, hori duda barik.

- Eta orduan, baiña, etxietan ura egongo zan

- Ura, bai, bai nik nire etxian betek ezagutu dot ura.

- Erropak garbitzeko...

- Bien, baiña ez zan egoten hainbeste aukera, fregaderatxo bat, eta zu, zazpi anai-arreba, gurasuak, erropa asko juntaitten zan. Oin besteko igual sarri ez zan garbittuko erroparik baiña barriñokada ederrak hartu bai, eta danak haraxe joaten ziren.

- Eta ze ambiente egoten zan labaderotan?

- Ona, egongo ez zan ba? Andrak juntaitten ziranian? Klaro ke bai, ona. Bai, bai, horixe, "lo que pasa que" betek ura hotza, eta neguan be erropak garbittu in bihar eta ur hotza. Oingo moduan ezta? Ur epela ta zerian, ur hotza.

- Ez baiña esan nahi dot kalia be giroa egongo zala, kantuan andrak eta.

- Kantuan ez dakit baiña kontu-kontari? Bai horixe, bueno! Klaro ke bai.

Hori oingo gaztiak ez daue ikusi, baiña guk hori holaxe ikusi dogu eta ...

Hor kanala egon danik be askok jakin be ez daue ingo oingo gaztiak, baiña ondiok arrastuak badauz. Zuk San Martin ezaguketan dozu? Zein dan San Martin, Roke Azkune? Roke Azkune be ezta? Ez. Bueno ba hemen badau ba rotonda bat hona etorteko? Harek kalia jarraiketan dau ba Legazpi aldera edo Zumarraga aldera? Han oin Gaztetxia in daue, hor San Martiñen? Bueno ba, horren azpitan dator, ondiok be hor dator kanala, hondatuta dau, e? Lurrikarakin hondatu indda baiña zati bat ondiok han dau bistan, bai.

- Azkenian hori da herrixaren antolaketa edo, ez?

- Klaro ke bai. Horrek falta itten eben eta ba zu, momentu hartan haxe holaxe aprobetxaitten zan, bai.

### 3.7. Presa eta malatuak

- **Hizlaria(k):** Jauregialtzo Arriaran, Migel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-051/006
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:11:13. **Bukatu:** 00:13:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- **Laburpena:** Errekaldeko malatu zaharra erabiltzen zuten ur putzuetarako. Erreka estali aurretik Mendiko presan ikasten zuten igari egiten herriko gazteek.

### Transkripzioa

- Zuek horreik ettozue ezagutu, e?
- Ez ba, ez ba.
- Errekia aurretik ezagutu dozue? Hau errekia arkiu aurretik.
- Ni etorri nintzan Errekaldera bizittera 11 urtekin.
- 11 urtekin?
- Etxia in ta segidan etorri giñan.
- Baiña etxia in ta gero.
- Bai, bai.
- Gu bizi giñan Atzeko Kalian eta etorri giñan Errekaldera.
- Joño!
- Eta ni Errekaldera etorri aurtxuan akordaitten naiz errekia ondiok zela euen. Hor zerria ta euenian. Ta dana kañaberia alde danetan ta, hori akordaitten naiz.
- Hemen ba etxia gure tion etxia zuan atzenengo etxia, ta hortik xauan garai baten Ontzigiñena, entzueria badakok Ontzigiñena? Ontzigiñenak xakuan hola taillertxo bat, hau zeramika zerak itteko, lapikuak eta lehenauko katxarruak eta itten txuein hor. Ta eukitten xuan telleriatan eukitten dauen moduan sekaderuak, egurren zerak, lokatzaia sikaketako. Pozua etorten zuan Pikondotik Akeleneko terrenotatik etorten zuan, hemendik 500 bat metrora, horra ura, malatua egoten zuan hor. Onddiok be malatua kontserbaitten dok. Hori onddiok zer horren azpixon malatua kontserbaitten dok onddiok, oin lehengo kanalak eta horreik, horreik danak desapareziuta xaozak.
- Bai, zeatik hor errekiari zera in otsain, ezta?
- Errekiari leheningo in xuein honaiño, arkiu xuein, hemen leheningo gure tion etxeperaiño, eta gero bigarren tandan Mediko Presaraiño, honeik Akelen terrenuak eta erosi ziranian, horreik fabrikaitten hasi ziranian etxiak itten, edifikaitten hasi ziranian, Mediko Presaraiño. Ta Mediko Presa zuan garai baten, guk oin Donostiara fateko eukitten xuau ba zera, ilusiñua plaiara fateko, Oñatiko mutiko danak hortxe igari itten ikasi xuein. Ta ha pozua onddiok hor xauk, hantxe boka-bokan xauk ha.
- Ni mutikotan hemen bizi nintzan, gu hor eskalluak harrapaitten eta asko ibiltten giñan.
- Mediko Presan. Ba oin be, hori eskalu lekua izan zuan.

### 3.8. Kale baserriak

- **Hizlaria(k)**: Kortabarria Agirre, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-053/014
- **Iraupena**: 0:01:54. **Hasi**: 00:38:06. **Bukatu**: 00:40:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- **Laburpena**: Lehen herriko kale asko baserri etxez beteta zeuden. Aurreko Mendiko 10 baserriak gaur hutsik daude.

### Transkripzioa

- Ta asko aldatu da kalia?
- Jo, aldatu kalia! Kalia asko aldatu da bai, asko, hemen hasi bai barrenian, eta hemen baserriak egozen hasi Kurtzeko eta Olanan eta Kurtzeko eta hemen Sarriko eta hemen hasi bai gora ta hau, hau Kanpantxon dana

baserrixa izan zan, hori Erlenak eta honeik eta atezkalde [...] San Anton kalia ixa dana, dana baserrixa zan, Mendiko kalia dana baserrixa zan eta horreik hementxe Torrealden asko ta San Juan Kale aldia horreik be danak, San Juan Kale dana baserrixa ziren. Ba borixe, batzuk banastagiñan egitten euen baiña euren behixak eta soruak eta dana. Torrealden be han egoten zan, baiña metro bat hola labrau barik, dana, garixa, artua, babia eta danak, eta oin ba aldatu, horreik danak desapareziu ziren horreik, Torrealde ta hola, zelai dau, ta horreik hemen be beste baserri batzutan be igual, Zañartu be, ze esango dotsut ba nik, Zañartu halako auzo oso bikaiña izan da, ezta? Baiña oin bi behi, lau behi egongo dira, hogeta eta eztakit zenbat etxe eta lau behi bakarrik.

- Dana piñua!

- Lehen hor San Julian aldian faldan ta zelaixak ezta? Hareik danak piñu.

- Eta zeuen auzua asko aldatu da?

- Gure auzua? Ha goikua? Bai. Dana hutsik dao, dana. Hamar etxe ta danak hutsik.

### 3.9. Araotzen ijitoak

- **Hizlaria(k)**: Uriarte Eizagirre, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-057/017
- **Iraupena**: 0:02:14. **Hasi**: 00:50:08. **Bukatu**: 00:52:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Badira ijito-auzoak, ijito-herriak eta auzotar "bereziak" ere Araotzen.

#### Transkripzioa

- Gero jaten (di)ttue buetrak txarrixok eta jittanuari kulpia bota.

- Jittanuari, ba, ba, guri jitto-herrixa esaten xaue honi ta, jitto-auzua edo jitto-herrixa ta, jittanuak gazela ta bai, bai, jittanuak gazek bai, Maria ta Jose.

- Jitto herrixa ze, honi auzouniari?

- Honi auzouniari esaten xauela jittanuen edo jittano edo jitto-herrixa.

- Jitto-herrixa?

- Bai, jitto-auzua honi, ta Ugaran edo, ha jitto-herrixa, hara jittano danak joten euen bai, ta jitto-herrikua ha.

- Ugaran jitto-herrixa... hau jitto-auzua.

- Ugaran jitto-herrixa eta Aratz Urruti jitto-auzua.

- Baiña hori ijittuak egoten ziralako?

- Holako zeozer izango zan, etorten zielako edo bertan egozelako ijittuak, jittano samarrak bertan egozelako, hor beste...

- Ijitto samarrak.

- Ijitto samarrak.

- Aratz Urrutikua beste kasta bat.

- Beste kasta bat, bai. Ba zu, horixe baiño ezta, Mañakuak... a ze barriak in nittuan nik baten, kilua gizendu nintzan, e! Mañako Azpiko Txikiñeko zela dako? Paula edo, Donostian bizi da, harek larogei urtetik gora bastante dako, hor Andarto azpizen han badau ba zera, Imanolen etxabolía edo, eztakit egon zarien sekula, hantxe. Ta komestaziñua etara dogu ta, ba,

bera Araozgua bai baiña Mañakua, e! Mañakua. Ta "Maña ezta Araotz" edo, esaten otsala illobiak eta "Maña Araotz don baiña Mañakuak beste klase, beste raza bat gaittun baiña gu! Enda errekatik erre kara Arantzazukuak be ez gaittun, e!" Hareik Arantzazuarrak, berriz; hor bixan bittartekuak, hemen jitto-auzokua esaten dogun moduan han mañarrak berezixak ziela esan gura eben, ta haren esaerakin zenbat barre in neben nik. Holakotxe esaerak, haxe bai dala andria!

-Eta gu Lurgorritarrok nun sartzen gara ba, orduan?

- Zuek "como un cero a la izquierda", alde batetik eta bestekaldetik leheninguak.

### 3.10. Baserriko gauza zaharrak

- **Hizlaria(k):** Uriarte Eizagirre, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-057/018
- **Iraupena:** 0:05:10. **Hasi:** 00:52:22. **Bukatu:** 00:57:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak  
Euskara » Lexikoa
- **Laburpena:** Auzune asko, pitinka-pitinka husten doaz Araotzen. Baserri zahar batzuetan oraindik "lezipoto", "sugan-harri", "txisalo" eta urik gabeko harraskak ikus daitezke.

#### Transkripzioa

- Ze auzune dakaz Araotzek?

- Auzuak? Aixkorbe ixixa hutsutu xaku. Ixixa Aixkorbe hutsutu da. Uxarten...

- Han Goittikuan egoten dira, ezta?

- Ez, fan da Maximo be.

- A, bai?

- Ardixak badako oinddion baiña harek entzun neben nik negar eta dana eragin otsan baten batzueiri. Felix hil da oin, Mielena, ta ha orduen geizki euen, ta "Felix lehen Felix neukan lagun hori ta oin hori berriz ez dala ba saniauteko bidetan ta derrigorrian ointxe bai fan biharrian izango naizela ni Aretxabaletara", esan nosten batzueiri. Oin Felix hil da. Lehengunien baten batek esan nontan fan dala, baiña ardixak badako oinddion hor zelaixen. Ta lehen urte askuen Aretxabaletatik etorri be in barik egon diran horreik, egon zien, ta oin berriz ya poza ta dana emuten eben behintzet beziño bat gehixago. Ta, gaiñera, aldiko bat eta aldiko bat eta aldiko bat hutsutu da Aixkorbe "del todo". Oin ikusten dotenian Azpikuan keia esaten dot Azpikuan baten bat bizi dok, keia baxak behintzet eta. Ba apur bat poztu itten zau.

- Bai, egunero etorten da baten bat, txakurra eta.

- Bai txakurra ta. Uxarte Garaikuan be hareik be, hemen bertan enpadronatukuak Txomeenak bakarrik, beste lon edo hori be ez dot uste dauenik.

- Lon nun biziko da, ba? lonek ez dako beste etxerik.

- Baiña ha amana faten da.

- Bai, baiña beti be bazkalttera. Bazkaldu itten dau amenian harek.

- Baiña enpadronauta hemen dau?

- Enpadronauta ez dakit.

- Ez dot uste.

- Egongo da, kredituak eta jasoteko egongo da.

- A bai?

- Egongo da.

- Ba entzun neben nik Txomeenak egozela bakarrik zerien. Elizondo be halako auzounia zan bai lehenao, "entre que" abaria, maestra, maestria, sakristaua, eskolia eta hau ta hori ta.

- Elizondo, han elizien...

- Bai, elizia inguruen, beziñorik hurrena Txomeena, gero Borjena ha hutsutu zan, baiña oin lonek okupauten dau; gero Antzuen, Errastikua, Uxarte Garaikua, Mantzena jausi in zan, Zeziñena ez neben nik ezagutu; oin Zeziñena in zan jausi eta jaso in daue Azpikuak eta Txomeenak erdibana eukein. Ta oin jaso in daue, teillatua in xaue.

- Ni han beharretan ibillitta nago.

- Bai, bai, ibillitta, ta zu han fijau ziñan sekula, neu egon barik neuen ta ha sukaldia? Lehengo sukaldia, fregaderia harrixa hau kolorekua, zera, harena harrixa, baiña baju-bajua, ondo indda bai e? Hargin kurioson batek indda euen, urik bako fregaderia, oin kantua kantaitten daue ba hor? Radiotik, ondiok pentsauten dogu lehenauko kontua dala ta, baiña ez oso urriña haiñian, neuk be ezagutu dot eta, fregadera urik bako fregaderia, ta hantxe euen, han egongo da oinddion be zeatik teillatua uste dot bakarrik in xaue eta. Eta gero lezipotua, eta sugan-harrixa, sukaldian daz. Ni behin egon naiz eta egon naiz oinddiok urte asko ez dala, holaxe Txomeenian. Txomeenak euki Elizondon bankete bat euken baten, Txomeenakin fan nintzan ta horixe Bergarako koñatiori ta han zerak, lonek han zelako barreria edo berjia in xaon, dotoria da, e? Haxe ikustera fan giñan ta eurak nola eukein han garajia Txomeenak, kotxia euen han ta hala ta ba hauxe dok lekua sekula egon ez naizena, Zeziñena-Zeziñena bai baiña sekula ez naiz egon, ta hantxe ikusi neben sugan-harrixa eta lezipotua ta fregaderako harrixa eta suen aurrekaldian zelako harri-losak. Losia bat "sobre todo"...

- Baiña hori egongo da Txomeenen aldetik ezta?

- Ez, Antzuenen aldera begira. Borjena dau Txomeen aldera, eta bestia dau...

- Zeziñena badakit zein dan, barruan egonda nau, baiña zuk esaten dozuna nik ez neben ikusi, orduan ni sartu nintzan Azpikuak ebalten dauen aldetik.

- Ba Azpikuena sukaldia be.

- Bai?

- Bai, oinddion txixalua be han euen, txixalua esaten xakona bankua erderaz, txixalua ni han egon nintzanian han euen txixalua.

- Zeri esan dotsazu "txixalua"?

- Hori...

- Ez zara akordaitten zerien, Baxilik zela esaten otsan, txixala? Guk txixaka esaten gotsan.

- Txixala. Ta lehenao oillalokiak txittak etarateko hantxe mahaieian ze azpitan bera barruan eta txittak kanpora urtetan dauela, mahaittik behera jausten ziran ogi apurrak eta danak jaten, "todos socios", kaponeria edo esaten otsain.

### 3.11. Antzinako telefonoa

- **Hizlaria(k):** Goitia Orueta, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa

- **Erref:** ONA-058/002
- **Iraupena:** 0:03:09. **Hasi:** 00:00:21. **Bukatu:** 00:03:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa  
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua  
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- **Laburpena:** Gerneta baserrian jaio zen eta bere biziko 86 urteetan soldadutza garaian baino ez da izan etxetik kanpo. Gernetakoek Lurgorrieta baserría zuten auzoko. Abixuak eupadaka pasatzen zituzten batetik bestera; eupadek eta izara zuriak egiten zituzten oraingo telefonoaren lanak.

### Transkripzioa

- 86 urte dakot, zazpira noia, sei urte nittuanetik ya zertzuk pasau dien zerbait badakit, ze atrasau bizi giñan lehenao, zenbat adelantau garien, hori danori. Zuek ez dakitzue lehenaoko konturik, lehenaoko kontuakin...
- Ez ba, hori jakitzera etorri gara.
- Oin larogei urtekuak ez dakigu, hori fijo.
- Ba larogei urtekuak ba nik lau ta, bost-sei urteko garrengo mutikua ba ibilli itten da hemen ba ardittara eta bestian.
- Zu hemen jaixo ziñan, ezta?
- Bai, soldaduska in neben denporia hemendik aparte, beste danian hemen egon naiz ni. Soldaduskan 34 hillabete esan notsun in gittun ta hareitxek, permisuaikin eta etorten giñan ba iñoiz, bestela hemen. Hemetik Lurgorritara ba horixe eukitten geben, beziño moduen betik bistan, eta lanian ebitzenien be ba ganauakin ta dana ikusten zan, beharretan ta danera hortxe, hareik gu eta guk hareik. Gero urten ezker auzua dana bistan hartzen geben hortik.
- Ta zeari, Mireneri be galdetu xaot, zuek, klaro, Maña, zuek Gerneta, Lurgorritta nun sartzen da Araotzen, ze auzounatan?
- Bakarra, bakarra, ha auzuan ez zan sartzen, Lurgorrieta, hori bakarra, baserri bakarra.
- Emaztea: Ugaranen sartuko zan.
- Ugaraneaz baleike Ugaraneaz. Ez dot sekula entzun, e? Elortokuakin asko tratauten euen, etxeko zien Elortokuakin Lurgorritakuak.
- Emaztea: Eskolara etorten ziranian Maria eta Modesta...
- Bazkaitten Elorton.
- Emaztea: Maria nere edadekua zan eta Elorton bazkalketan euein. Ugaran edo Mañan, Mañan igual izango da Lurgorritta.
- Ez dakit ba. Nik Lurgorritta esango neuke ez dala auzuan sartuko.
- Auzotasunian bai.
- Auzotasunian bai, baiña auzua, auzo moduan bakarra, "individual". Ba hareaz gu izaten giñan bezinua eta eurak guaz, eta hemendik ganauak hola okerrian ikusten bazeben, hemetik llamadia itten gosten, behixak pasau dira holako lekutara, edo artotara bakarren bat edo hola iñoiz. Eta eurak be hemen okerrera sartzen bazan ganauren bat, handik llamadia. Guk bistan ez dakogun terrenua ikusten euein, hareik ez dira akordauko eta hemendik ta telefonua hori zan. Oin mobilla "tta-tta-tta".
- Eta zela itten zeuein llamadia?
- Llamadia eupada gogorra. Eupada gogorra.
- Alaba: gero izara zurixak eta hola.
- Emaztea: gero egunen baterako [...] egon bihar bazeben...

- Baitta, erropia izara zuri bat kontraseiña, zeatik oin etaraten dira gauzak eta orduan be etaraten ziren, ta! Enterauten ziñan horreaz hori izaten zan telefonua. Ta ikusten bazeben izara zurixa jarriko baiezkoa bada, ta, jakiñen gaiñian jarri dau ta martxa, alkarreaz alkartu eta norabaitterako biajia bazan ba "ya está".

### 3.12. Auzoko ermita San Lorentzona

- **Hizlaria(k):** Guridi Zumalde, Inazio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-064/010
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:28:33. **Bukatu:** 00:31:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena:** San Lorentzokoa da Larraña auzoko ermita. Beraz, jaiak San Lorentzo egunean ospatzen dituzte. Aurreko Mendiko baserri batzuk Larraña auzoan sartzen dira. Igandeetan kalera jaisteko ohitura izaten zuten.

#### Transkripzioa

- Eta Larraña auzuak ermittia-edo nun daka? Ermittia eukiko dau, ez, auzoak, elizia-edo?

- Elizia San Lorentzon, San Lorentzo ...

- Baiña ermittia, San Lorentzoko ermittia Larrañakua da?

- Bai, bai, Larrañan dago ha. Oin Larraña beheko auzua eta goia itteu ta Larraña da.

- Eta honeik Antzuelas etxe honeik-eta, horreik zer dira, Larraña dira? Aurreko Mendixa dira? Horreik zer dira?

- Mendikuak? Mendixan egozen behian Beitti, Antzuelas Beitti, gero Etxeberri ha nire gogua baiño lehentxuau inddakua izan bihar eben. Eta Antzuelasen bi bezino, Eltzikorta, Sarramendi, Koroso, Lizargarate eta Olabarrin bi bezino, beste bi bezino; horreik danok hor Mendikuak danak ziren auzo hontakuak, Larrañakuak.

- Sarramendi be hemen sartzen zan?

- Sarramendi be bai, Sarramendi eta Lizargarate be bai, Larrañan sartzen zan. Koroso eta horreik danok.

- Eta Koixkar ia Garibain?

- Koixkar, Koixkarrera gu ez giñan sartzen, Koixkar eta horreik beste batzuk ziren.

- Horreik Garibai izango ziren.

- Garibai edo alde hortara behintzet, ez dakit ze auzotara jotzen dauen baiña. Horreik Koixkar ta Duruan-ta, zera be bai, goiko ...

- Ez, Etxezuri ha Zubillagara. Azkazuri!

- Azkazuri ta Zubillagara joko daue horreik.

- Eta orduan San Lorentzuak zelebrauko zenduezen, ez?

- San Lorentzo betik jai, hori bai, San Lorentzo bai.

- Eta ze jai itten zan auzuan, lehen?

- Agustuan hamarra San Lorentzo.

- Baiña ze egoten zan jaixetan?

- Zainketan ba ermittia zainketan iñobez. Bertako aldameneko bezinua, San Lorentzokua. San Lorentzoko Danbolin (baserrixa) bezinuak, oin beheko auzuori dana desapareziu zan etxiak indda.

- Baiña ze egoten zan San Lorentzo egunian mezia goizian eta...?  
 - San Lorentzo egunian mezia eta ...  
 - Musikarik-eta egoten zan?  
 - Bai, soñujolia egoten zan. Gero itten geben gure gazte denporan, Mugartzan zerran be bai itten geben geuk bezperan garbittu eta zera in ta San Lorentzon edo Mugartzan zerra azpian eta hemetik aldiari egoten zan estalpeia ta hantxe.  
 - Erromerixia?  
 - Erromerixia in ta ba horixe.  
 - Baiña bakarrik San Lorentzo egunian?  
 - Hori San Lorentzo egunian eta bixaramonian be bai jeneralian itten ziran harreik.  
 - Eta domeketan eta dantzarik?  
 - Ez, ez, domeketan eta jaitan ez zan egoten.  
 - Baiña orduan kalia egongo zan musikia.  
 - Kalia bai.  
 - Faten ziñain kalera? Domekatan faten ziñain kalera?  
 - Domeketan kalera, hori izaten zan zeori, gure ibilbidiori.

### 3.13. Auzoan jende gutxiago

- **Hizlaria(k):** Guridi Zumalde, Inazio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-064/012
- **Iraupena:** 0:03:31. **Hasi:** 00:34:26. **Bukatu:** 00:37:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena:** Lehen auzolanean egiten zituzten behar asko. Gaur egun, Larrañan bizi diren auzotarren kopurua jaitsi egin da, baita ganaduarena ere. Nahiz eta Urikoan behi batzuk izan oraindik, egun etxerako esnea kaletik ekartzen dute. Arrasateko San Tomas jaietako zen inguruko feria nagusia.

#### Transkripzioa

- Eta lehen esan dozu bidia eta ez zegoela oingo moduko bidia-eta, eta horrek bidiok auzolanian itten ziran?  
 - Bai, hemen jeneralian auzolanian eta gero pistia itteko eta zerketako eskabadoriakin ibilli ziren ta gero zerak, basora eta pistak in ta beste batzuk besoz be bai, Azargaratera eta Kortaeerrekara eta horreik besoz inddakuak.  
 - Lehen asko itten zan hola auzolanian?  
 - Askorixe, bueno!  
 - Eta zuk ze uste dozu, oin jente gehixao bizi dala lehen baiño Larrañan, edo gutxiao-edo?  
 - Ze jente gehio?  
 - Jente gehixao bizi dan Larrañan oin edo lehen bizi zan jente gehixao edo oin bizi da jente gehixao? Edo antzera?  
 - Ba, etxe baikotzian famelixa haundixak jeneralian izaten ziren ta betik jentia. Hemen gutxittu ba goixan be iñobez ta oin Urubillen be ba danok kalia nola bizi diran ba, batzun batzuk etorri itten dira baiña etxe danetan mobimentua egon baiña bestela jente gutxiau.



- Baiña ganaua ta hola lehengo modura ez.

- Ganaua gero eta gutxiau, ganauak be hementxe Idiazabal edo Pullanguan bi, Erbiñian beste bi, Leibarren bapez, ardixak bakarrik, enda Kortan be ez, Ogixaan be ez, Garaikuo Aldekuan be ez, ba hementxe gerian ta Elorduittan ta hortik aldekuak Errekalde ta Idiazabaletan be badaoz, baiña gehittuaz ez, gutxittuaz.

- Zeuek badakotzue ondiok orduen ganauak?

- Bai, hiru behi hor daude.

- Eta ondiok be marmittatan eruaten dozue esnia kalera?

- Oin? Bai, ezta jaitzi be! Ezta jaitzi be! Txahalak eurak eman dezala eta kitto! Etxerakua be kaletik ekarri esnia.

- Etxian eukitta?

- Etxian ez dou sekula etxerako zerik itten. Betik kaletik ekarri eta arrea!

- Eta ferixetara eta joateko ohitturarik eta bazakazuen?

- Oin urte bi edo hiru badira ez naizela jun be in, jun ta ezer itten al da ba ferietan be?

- Baiña lehenau juaten ziñazien ferixetara?

- Bai, ferixara horixe, ferixa egunori haxe izaten zan, ta gero meriendau edo in ta.

- Eta zein izaten zan hemen ingurutan ferixarik inportantia?

- Hemen inportantiena Mondrauen, gaur be Santomas gaur Mondrauekua, Mondrauen Santomas egunian normala izaten zan fatia.

- Santa Lutziara fango ziñain.

- Santa Lutzia joku gutxi euki neben nik, oso gutxi. Jun bai baiña urte gutxittan eta gaiñera honeik aglomeraziño haundi honeik ez xat sekula gustatu izan neri.

### 3.14. Garagaltza auzoa

- **Hizlaria(k)**: Bikuña Urzelai, Jabier
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-066/003
- **Iraupena**: 0:04:46. **Hasi**: 00:05:09. **Bukatu**: 00:09:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Nahiz eta hasiera batean Albarrizta baserria Zañartu auzunean izan, gaur egun Garagaltzako auzoaren parte da. Garagaltzaren nondik norainokoak azaltzen ditu Jabierrek.

#### Transkripzioa

- Garagaltza auzua, fijo? Hor badagoz Zañartu ta Urrusula ta...

- Lehenengo lehenengo, ba hori eztakit, oin izango dira ba igual 200 urte igual, baiña lehen hau Albarrizta, hau zan Zañarturi tokaitten xakon, Zañartuko auzounan euen, eta gero garai baten aldatu zan itxuria danez Garagaltza auzora. Zeatik oin Zañartun in daue hor liburu bat? Oin dala bi urte. Bi urte edo hiru, bai. Liburu bat iñ euen eta orduan hango papeletan ta agertu da Albarriztak nola pagaitten eben bere kuotia, urtien kuotia Zañartuko auzuari, bai, han dau; baiña garai baten aldatu zan Garagaltza auzora eta oin Garagaltza auzokuakin jarraiketan dogu. Hau auzua hasten da bariantian, zerian...

- Kanposantua be Garagaltzan sartzen da, ezta?

- Bai. Kanposantua ta...

- Eta zure taillerra, dakotzuna han Goribar Goittin? Ha Goribar?

- Ha Goribar, oin arte Goribar izan da eta da, eta haren onduen in (di)ttuein honeik Ulmak in (di)ttuen fabrikak Garagaltza auzoko partian dao, bai. Eta hau Urrutxu eta Santipillau eta hau zerau, hau Belatxarako hori arbolagune hori danori, hori ja Garagaltza auzokuan sartzen da hori.

- Eta Iruatz aldia ta?

- Iruatz be bai, Soraluzeaiño.

- Soraluzeaiño.

- Soraluze ez.

- Ha Lezesarri da?

- Soraluz da Uribarri.

- Uribarri. Eta kamiñua pasauta Lezesarri, ezta? Honeik Goixenetxe ta nun dagoz?

- Goixenetxe da dira Berezau, Berezaukuak.

- Lezesarri nun dao ba hor?

- Lezesarri eta horreik danok dira Berezauko zerak, edo Lezesarri auzua izango da bihar bada.

- Bai, nik uste dot Goixenetxe Lezesarrin dauela, uste dot e?

- Azkontegi ta horreik Lezesarri izango dira, bai. Garagaltza auzua da Iruatz, Kamamoño, eta hortik Kurpide Okunbardinin eta Altamira be bai. Altamira be Garagaltza auzokua da; eta oin, lehen Etxebarrialde bixak be bai, baiña oin bariantia in zan eta oin bariantetik gorakuak dira. Bai, baiña eurak auzotasunian oin be Garagaltzakuan dagoz, e?

- Etxe barrixak be bai?

- Ez, ez, Etxebarrialde bi hareik lehen Garagaltza auzokuak ziren baiña gero bariantia...

- Hareik etziren San Juanekuak?

- Ez, San Juan eta Garagaltza bat da, berdin da. San Juan auzua eta Garagaltza auzua berdin da. Bixak dira...

- Izen bat da bixena?

- Bai, izen bat. San Juan auzua San Juanetan fiestak izaten diralako, baiña bestela izan Garagaltza auzua da.

- Hori pasatzen da auzo askotan, ezta? San Prudentzio... Elorregi.

- Bai, bai, baiña Garagaltza auzora. Eta oin zerak, bariantia in zanian Etxebarrialdeko bi etxe horreik geldittu dira San Juan kale moduan, eta bariantetik gorakuak danak horreik, etxe batzuk badagoz Otxuena ta, horreik goixan geldiketan dira, Garagaltza auzuan, mojak eta horreik. Eta ondo! Han hasten da auzua eta hauxe azkenengo etxia, hauxe, oin alabiena ta.

- Ha tellerixa zaharra be bai, Garagaltza?

- Baita, Garagaltza. Ta Kamamoño eta hor, eta gero hemen erreka aldian gu eta Altzin be bai, Iraban, eta zerak, Benturena, Zuazola.

- Iraban be Garagaltzan sartzen da?

- Bai.

- Nun akabaitten da ba Zañartu?

- Zañartu errekiak erabagitten dau. Ditxosuena eta Etxezuri ta horreik dira Zañartukuak, eta errekiak bestekaldetik, Zuazola eta Benturena ta Garagaltzakuak, bai. Holaxe itxuria garai baten in zittuen ta hola jarraiketen daue.

- Iraban ta zuek errekiak bi aldetara zagozai.

- Bai, hori lehen esan dot, lehen Garagaltza auzuan, edo Zañartu auzokuak giñan, bueno hau etxiau zan, eta oin bestekaldera, garai baten pasau euen bestekaldera eta oin ba hola jarraiketan dogu. Altzin be bai, Altzin be

errekiaz hemetikaldetik dau baiña ha be Garagaltza auzoko partia da, bueno hola behintzet ibiltten gara eta hola gure zerok.

### 3.15. Oñatiko indar etxeak

- **Hizlaria(k):** Bikuña Urzelai, Jabier
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-066/009
- **Iraupena:** 0:04:23. **Hasi:** 00:26:04. **Bukatu:** 00:30:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- **Laburpena:** 1920. urtetik 1928. urtera egin ziren Olate eta beste indar etxetako lanak. Albarritzako etxe azpitik zihoan kanala konpondu zuten eta langileentzako argindarra jarri zuten. Ordutik aurrera izan dute argia etxean. Hiru linea pasatzen ziren Albarritza baserritik, Bergara, Arrasate eta Oñatira zihoazenak.

#### Transkripzioa

- Aittajuna berriz, arotzeixan lehen esan dotena hemen Jaturabeko presan leheningo ibili ziren, Jaturabeko presia altzauteko, lehen bajuaua zan eta gero altzau euein puska bat. Eta Jaturabeko presia, Zapatako depositua, Olateko zentrala eta honeik itten eta itxuria hemen pasadizuan, ba gaztiak, eta hemendik pasadizuan eta itxuria hemen ezagutu ziran eta hemengo alaba batekin ezkondu zan, nere aittajuna. Eta orduan ba hau etxiau, hemen Olateko hori in ziran hemen 1920ttik 8ra bittarteko obrak izan ziran hemen, depositto eta tuberixa eta zentrala. Bai ta gero hemen be bai etxian, etxia baiño beheratxuau pasaitten da kanala, urak beheko zentralera. Hor bertan pasaitten dira, etxe onduan ezkutuan doiaz azpittik.

- Orduan zuek argi inddarra aspaldittik euko dozue.

- Ba hemen kanala altzaitten ibili ziren, lehen kanal txikixa ta gero haunditxuaua itten ibili ziren. Hemen etxe azpitan bertan pasaitten da, dana tapauta dago. Hor zerak, badakitzu soruak eta, soruak eta orduen inportantiak ziren zeatik hortik jaten zan, eta itten euen kanala pasau, baiña tapau ta berriz lurra ifiñi, labraitteko ta, laboria ta hartzeko. Eta tunelian lana in bihar, eta orduan ekarri euen Olateko zentraletik hona argixa.

- Tunelian lana itteko?

- Lana itteko. Eta orduan ifiñi ziren etxetara argixak, eta gu urte batzutan, urte batzutan euki geben, bastante urtietan, argixa debalde. Baiña pasau zan kanala eta beste hiru linea pasaitten ziran hemendik, Mondrauera eta Bergarakua eta gero Urdaolako zentralera. Hemen pasaitten ziren eta ...

- Baiña horreik danak Olatetik faten ziren?

- Olatetik. Eta Olateko zentraletik linea bat euen "30.000"eko linea bat euen Mondrauera, Mondrauen Zerrajerara, eta beste linea bat Bergarako Altos Hornosera. Bi linea pasaitten ziren lehen linea haundixak; eta gero beste bat "5.000" a hemen etxe ondo-ondotik, eta gero beste linea batzuk be bai hemen ta bueno, horrein aldera zera ...

- Zela esan dozu leheningo bi linea haundi horrein izena?

- "30.000"ak, "30.000"ak bat Mondrauera eta Bergarako, Bergarako Altos Hornosera.

- Eta "5.000" a bestia ...

- "5.000" a hemen zentral batetik bestera, hemendik makiña etxeko, bueno makiña etxia esaten xau guk baiña hortik Urdaolako indar etxetik horra, eta gero hortik faten zan kaletik zera, Tokillora ta, Ubaora ta, dana euen enlazauta. Inddarra faten zana ba batetik bestera fan eta gero linea haunditik botaten euen, itxuria.

- Eta horreik zueri hona inddarra ifiñi otsueiñien obrakatik edo, hori ze urte inguru zan?

- Hori? Hemen ze urte seguru eztakit baiña 1920ttik 28ra bittartian in zan hemengo lanak. Hemengo inddar etxeko lanak, Zapata, Jaturabe, Olate, bai gero hor beste bat badao Ursulara bidian beste depositto haundi bat be, horreik kanalok danok hortxe, hortxe in ziran.

- Aitzgaiñekua be ordukua da?

- Aitzgaiñekua be bai, Aitzgaiñekua be orduentxe in zan. Horreik danok batera...

- 1920...

- 20ttik aurrera, 20ttik 28ra bittartian hortxe. "1924, 26" be batzuetan ifintten dau gauza batzuk hemen eta hola, eta hau kanalau ta ba orduentxe in zan. Horreik inddakuan hau be bai, kanala beuen baiña haundixaua in zan gero. Ur gehixago euen ba hemen, hareik turbiñak botaten euena beheko makiña etxian aprobetxaitteko haundixaua, ta orduan, ta holako...

### 3.16. Pilotalekua auzolanean egina

- **Hizlaria(k):** Urkia Elorza, Juane
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-071/021
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:47:22. **Bukatu:** 00:49:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak  
Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- **Laburpena:** Ugaztegi kokapen bitxia du. Erostera Aretxabaletara joaten ziren, saltzera Oñatira, mezetara Araotzera eta bataiatzera Goroeta auzora. Juanek Araotzen bi taberna ezagutu zituen, Mantxuena eta Zumalde. Lehenago Erreka Txikian ere ba omen zen bat. Pazko bigarrenean Arabatik etorri eta Araotzeko pilotalekua eraikitzen ibili zen Juane. Auzolanean jaso zuten pilotalekua. Saloia geroago eraiki zen.

#### Transkripzioa

- Eta orduen zuek eroastera Atxabaletara, saltzera Oñatira eta mezetara Araotzera.

- Mezetara Araotzera.

- Ondo.

- Bautizaittera eta horreik Koruetara.

- Bautizaittera, berriz, Koruetara. Orduen zer, registrauta Atxabaletan.

- Klaro, azkenian terrenoz Aretxabaleta bazan, ba hara tokauko jatzuen, ezta?

- Klaro, klaro, hara.

- Eskolara ta moduan.

- Klaro, igual.

- Bai, zeatik Araotzen parroikia bazeukatzuen garai hartan.

- Araotzen be bai.  
 - Baiña tokau, ezta?  
 - Baiña tokau bertara, auzora.  
 - Eta garai hartan Araotzen tabernarik eta beuen?  
 - Araotzen nik betek ezagutu dot tabernak, eta nire aurrekuak be bai.  
 - Eta baiña...  
 - Nik ezagutu (di)ttuenak...  
 - Mantxuena-ta?  
 - Mantxuena bai, Mantxuena eta Zumalde, bixak.  
 - Bata bestian onduan.  
 - Eta lehenago, ha ez nixuan nik ezagutu, Errekakua eta oin esaten xuei zala garai baten.  
 - Errekakua?  
 - Erreka Txikiña.  
 - A, beheratxuago.  
 - Mantxuenen pegante dauena, Erreka Txikiña, ha be tabernia zala. Errekakua zuan han albotik, bestekaldian Teodorok eukena, ha zuan Errekakuori.  
 - Oseake han danak leku baten orduen, hiru tabernook?  
 - Bai, Zumalden etxetik, handik.  
 - Eta pelotan ittera ez ziñain etorten Araotzera?  
 - Elizpera pelotan? Pelotalekurik ez xauan e?  
 - A, hori barrixa da orduan?  
 - Hori itten neu be ibilli nitzuan, Arabatik etorri nitzuan ni, Ugastegiarrak be parte hartu bihar euela ta, entradako postien zimientua Paskua bigarrenian Arabatik etorri eta neuk etaratako zimientuak (di)ttuk hareik, e? Abadia gogor, Ugastegiarrak be bai in bihar euela.  
 - Ha auzolanian in zan ala?  
 - Bai, auzolanian.  
 - Eta pelotalekua bakarrik, edo ha Saloia dauen etxia be bai?  
 - Saloia aurretik in zuan, uste xuat, ala geruago? Saloia geruago ingo zuan, laheningo frontoia ingo zuan eta Saloia geruago, uste xuat e? Uste xuat hola zala, bai. Hori in zana ba(di)ttuk... nik euko nittuan hogeta lau-bost bat urte-edo harei in zirala.

### 3.17. Aitak asmatutakoa

- **Hizlaria(k)**: Zubia Umerez, Inaxio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-072/003
- **Iraupena**: 0:03:18. **Hasi**: 00:02:47. **Bukatu**: 00:06:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
 Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak  
 Lanbideak » Negozioak, dendak
- **Laburpena**: Zepa, labe garaietako lanaren hondakina, erabili zuten lokatza estaltzeko. Gaur galarazita dago zepa, poluzio arazoengatik. Karreteroek herrestan ekartzen zituzten enborrak errepidea zeharkatzeko; I&ntilde;axioren aita arotzak egindako asmakizun bat erabiltzen zuten.

### Transkripzioa

- Eta eskoria horrekin hau kamiona hemen Olabarrietan, Alejo Ugartek ekarri eben kamiona transporterako eta bere interesa zan ba hor bide ona egotia, eta harenakin eskoriakin bota eta hau in zan leheningotik ba sorua ba lokatzaia ezkutau zan han zerien.

- Zer da eskoria?

- Eskoria da, bueno, zuk alto hornuetan funditten dozunian, han etaraten da miñerala eta miñeral horrek eukitten dau ba residuouak, eta han gaiñian geraketan dan nata bezela, zikiña, eta hori zikiñori erabiltten da ba zerien, lehen ipintten ziren, basuetan eta botaten zan. Baiña klaro, gaur prohibiuta dau. Zeatik? Porke horrek dako kontaminantiak, metalak; ez burdiña, burdiña baiño metal okerraguak, metal pesados. Ba izan leike edo plomua edo zinka edo nikela edo, horreik metal pesaduak dira betik zerak, kontaminantiak lurrerako. Enda orduan momentu hontan dago prohibiuta. Eta baiña garai haretan libre zan eta hurringo haretxekin hasi zan, leheningo leheningo hemengo lokatzak kentzen.

- Bai, pistetan eta.

- Pistetan geruau hasi ziren. Hau zan leheningua, baiña oin ze esango dotsut nik, oin ixa 50 urte izango dira hori in zala. Porke hemen gure etxe onduan, kamiñua pasaitteko jarten zan hemen holako tronko haundi bat, enda burdixa pasau ta gero, ze egurrakin pasaitten zanian, atzekaldian jarten otsain karrotxo bat, gure aitta arotza zan, eta gure aittak itten zittun hemengo burdixak eta hemengo lerak eta hemengo... Hori inbentuori zela zan? Bueno ba, tronkuak etorten ziren ba gutxi gorabehera, nik uste dot zortzi bat metro luze edo hamar, eta han pasaitten zanian altura baten tartian huekua eukitten euein, sartzen zan karrua azpixon, eta karrua azpixon sartzen zanian tronkua gaiñetik pasaitten euen bestiak, eta karrua ha tronkua pasaitten zanian karruan gaiñian geraketan zan egurra eta kamiñua markau barik pasau bihar zan bidia, bestekaldera. Eta hori bardin-bardin gertaketan zan, beste ze bat euen Kurtzialden, Kurtzialde da han Aiastui onduen dauen kruzia, mendiko zerak, tronkuak pasau bihar ziran alde batetik bestekaldera, kamiñuan, baiña kamiñuari zerak ez otsan ekutu bihar, tronkuak, zikinddu itten ebelako. Eta inbento horixe erabiltten zan bide honeittan lokatzaia kendu aurretik. Lokatzaia kendu zanian ba ya, handik aurrera hasi ziran prohibitten hona kamionak, kamionian ekartea bakarrik, porke bestela zikiña etorten zan, basotik eta, porke hemen garai baten karretero asko egozen, karreteruak ibiltten ziran, ba hemen hiru zerra egozen, bat hona tronkuak ekarteko, beste bat Kurtzialdera eta beste bat Artxubira. Eta tronkuakin batera etorten ziren ba lokatzaia, arrastran etorten ziren ta, atzeko partia tartarraz eta aurreko partia gaiñian jarritta ta, orduan horixe izaten zan.

### 3.18. Auzoko usadio zaharrak

- **Hizlaria(k):** Zubia Umerez, Inaxio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-072/008
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:14:36. **Bukatu:** 00:16:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak  
Natura » Flora

- **Laburpena:** Auzoko plazako zuhaitzak eta beraiek ematen zuten fruitua, zuhaitz horiek landatu zituenarenak ziren. Hala dio Olabarrietako usadio zaharrak auzoko terrenoetan dauden zuhaitzez.

### Transkripzioa

- Eta gero bestekaldian egozen intxaurrak, auzoko zerak ifiñittakuak, eta klaro, zerk dako balixo gehixago?
- Hareik gaiñera intxaurrak bentajan eta auzoko...
- Pasaitten dana, norena zanik [...] jabetza, porke intxaurrak, intxaur baikotzak, hor plazan dauzen intxaur baikotzak bere jabia eukan, porke hori asko itten zan lehenau, terreno komunetan sartzen zan arbolia eta han urteten eben fruitua zeuretako zan; hori beste iñun ez dozue ikusi, e?
- Entzun be ez.
- Ez, e?
- Oseake auzoko terrenotan...
- Bueno, hemen plazan, hor plazia Olabarrietan, ba plazia hor leku horretan euzen, Errementeriko zerak, Bakaiko hurrak, edo intxaurrak, Errementerikuak, Ozperokuak; honeik Taberna zaharrekuak hor eukein keizak; Muñokuak, gaur Muñokuak ondiok badauz; Urraukua (Urraburukua), Urraukua egongo zan, Urraukua bertan onduan dau, eta han keizen bat seguru; hori haritz haundixori Ximonena zala esaten zan, hor dauen baserrixa. Eta danak eukein arbola horreik jabia, baiña terrenua, garbi egozen, terreno komuna.
- Auzuena.
- Bai. Auzuena. Gero pasaitten da denporiak horreik ba hemen zati bat kendu, beste zati bat kendu, faten da pittin bat txikiketan. Gero bidiak be naseiketan jarten dira eta dana azkenian txikittu itten da.
- Eta orduan, norberak sartutako arboliak emuten euen fruitua, norberantzako zan?
- Klaro, bai. Eta betik izanda.

### 3.19. Ameriketatik dirua

- **Hizlaria(k):** Zubia Umerez, Inaxio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-072/009
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:16:26. **Bukatu:** 00:19:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Leturia, Ane
- **Gaia(k):**  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak  
Natura » Flora
- **Laburpena:** Ameriketatik ekarritako diruarekin egindako bi etxe eder daude auzoan; Arkauztarrek eta Arrazolatarrek eraikitakoak. Arrazolatarrek aspaldi erreka kontran landatutako bi makal erori berri direla dio Inaxiok. Makalok Arrazolatarrenak omen ziren, usadioari jarraituz.

### Transkripzioa

- Hainbeste esango dostat /esangostat/. Zeian, hor Arrazola azpitan, honek Arrazolakuak Ameriketatik ekarri xuen diru asko ta hor in xuen txaleta, Arrazolakuak. Hor bi etxe... Olabartan dauen etxe polittena, neretako beti pentsau xat izen lekiela Ameriketatik ekarritako diruakin einddako etxia.

Oso... kategorixakua dok. Bat dok Arrazola apellidua dakona ta bestia dok Arkauz. Arrazolako horreik, Arkauz hori hemengo apellidua ez dok. Porke Arkauz hori e... zeretik etorri zuan...

- Araba aldetik?

- Ez. Zela dittuk honeik, Arkauz... Gero hor... zera baxaukiek ba, honeik e... baserrixak... zea indda, hotelak indda, ruralak, hotel ruralak, Arkauztarrak. Zela [...] baserrixak izena? Kauen la puñeta, ez xat /etxat/ etorten. Handik, handik etorritako apellidua dok.

- Ojalaterua ez zuan Arkauz? E... San Anton kalekua, zela esaten xako... Bere alabia, okulistia.

- Hor Arkauz okulistia xauk, bai.

- Horrek Arkauz dittuk.

- Baiña honeik dittuk... Joe, nunguak dittuk baserrixa, famosuoi... Zera, bi etxe ruralak dakoiña zerian, San Juanen, San Juan auzuan.

- A!

- Kauen la letxe, ez nok /enok/ akordaitten ta. Bueno, hortik etorritakua dok hori, Arkauz horrek. Enda, bueno, gero hau berau ezkondu zuan, Arkauz apellidua honek eukan ta ya apelliduak horkuak kanbixau in dittuk Arrazolak. Baiña horreik dittuk etxiak e... Ta horreik behian, erreka kontran, ipiñi xuain, etaraik kontuak, zer eta... —kauen, ez xatak etorriko, hau goorra dok!— e... Palilluak itteko ze ibiltten dok? txopuak. Ta txopuak ointxe jausi dittuk bi. Ba horreik txopo horreik Arrazolakuak diala esaten xuein . Porke, karo, guk hemen txopuak, ba, hemen txopoik ez xauk / etxauk/! Begiratu itten badok /ittenbok/ hemen ez xauk /etxauk/ txopoik, alde batetik gaitzak hondaketan dauelako, ta izugarriko bi txopo, bat ointxe bi urte o jausi zuan, ta bestia ointxe jausi dok, haiziak apurtu ditzuk. Haik be betik fulanonak dittuk.

- Baiña auzuen terrenuan eozenak?

- Bai. Bai. Eta betik guk... hala esaten xuein: "Hi, ba, honeik hareiñak dia". Oseake esan gura xuat gauzak zela dauzen, ta errespetau itten zuan. Zeatik izango zuan hori...

### 3.20. Auzotasuna berreskuratu nahian

- **Hizlaria(k)**: Zubia Umerez, Inaxio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-072/011
- **Iraupena**: 0:02:08. **Hasi**: 00:22:00. **Bukatu**: 00:24:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak  
Aisia » Taberna giroa » Elkarte gastronomikoak
- **Laburpena**: Auzotasuna bultzatu nahian, eskola nazional zaharraren eraikina egokitu zuten auzoko emakumeek arrosarioa errezatu ostean elkartzeko leku bat eduki zezaten. Geroago auzoetxe edo elkarte edo antzeko zerbait egiteko terreno bila hasi ziren.

#### Transkripzioa

- Erabagi in xuei soziedadia ittia, auzuen.

- Bai, egonda nago.

- Eta auzoko soziedadia zela zuan? Ba hor zazaken andra batzuk, zera faten zittuan, errosarixora, eta errosarixua zera indda gero etxera faten



zittuan. Enda harendako lehen eskolak kristalak eta dana apurtuta, abandonauta. Zer egin? Aiuntamentura fan eta aiuntamientuak ez xuan dirurik emuten, eta auzoko diru apurrakin erabagi gixun kristalak ifiñi. Orduan kristalak ipiñitta, gero kalefaziñua falta. Fabrikan zerak erosi xuan, Cegasak Planchas edifizia, onduan xauan plantxak itten euen, eta han hazaken kalefaziño batzuk txatarretara botateko modura. Hareik recuperau eta hor ifiñi xuau emakumiendako lokala; eta neguen epel-epeletan.

- Errosarixua errezaitteko.

- Errosarixua errezau ta gero, jokuan itteko, jokuan itteko. Enda klaro, hori jokuan itteko zeatik urteten xuan? Faten gitzuan gu Eara beraniaittera, eta hango emakumiak egunero jokuan taberna onduan, eta hemen berriz guk ez xakuagu ohitturarik. Castillan ikusten dok emakumiak atetan jokuan eta ez dakit zela... hemen ez gintzuan juntaitten, baikotza bere munduan, danak aparte bizi gitzuan, ezkiñakuan hori, batu ze... batera bizittia ezkiñakuan.

- Auzoko anbientia, ezta?

- Galduta euen guztiz. Bueno, horretxekin hasi gitzuan eta andrak gustora. Epela, jokuan itteko lekua eta bueno, orduan sortu hazaken auzotik beste idea bat. Ze in bihar xuau? Hemen soziedadia, soziedadia in bihar dogula. Soziedadia itteko hasi gitzuan ba terrenua topaitten, baiña terrenua iñork soltaittia gura ez, porke terrenua itteko zerien edifikaziñua bolumen haundixa bihar.

### 3.21. Auzo-elkartea eskola zaharrean

- **Hizlaria(k)**: Zubia Umerez, Inaxio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-072/012
- **Iraupena**: 0:03:55. **Hasi**: 00:24:08. **Bukatu**: 00:28:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak  
Aisia » Taberna giroa » Elkarte gastronomikoak
- **Laburpena**: Nahiz eta eraikinaren jabetasuna Ministerioaena izan, auzo-elkartea eskola zaharrean egitea erabaki zuten azkenean. Ekintza honek auzotar asko elkartu eta auzotasuna berpiztu zuen.

#### Transkripzioa

- Halako baten behin entzun nixuan egozela soziedadiak indda eskolatan, "ya está", eskolatan baldin badagoz soziedadiak geuk be baitta, geuk be hor xakuagu lokala, geuk be baitta.

- Hori soziedadia dauena, lehengo eskolia da?

- Eskola bi, eskolak zittuan horreik, mutikuena...

- Eta hor gero androk jokuan itten euela eta...

- Hortxe, hortxe. Enda hor giñakuan hori lokalori eta hauxe in bihar xuagu, soziedadia in bihar xuagu. Zela? Eta ba neri esan dostai zerian, Lazkaomendin, beste bat Lasturren eta beste bat, ha zela zuan? Amezketa hor bixen gaiñian, mendi baten beste bat dauela. Nungua zuan ha? Ez nauk akordaitten ze herri zan. Han euela soziedadiak indda. Bueno, domeka baten hartu xuat nere andria, nere anaia, nere primua, fan gaittuk horreik ikustera. Lazkaomendin sarri egonda, Lazkao Txiki ekarten giñuan Olabarrietara betik bertsolari bezala eta bere etxera askotan fanda. Nik

ordurako kotxia baiñuan ta, bere etxera askotan fanda, eta Lazkaomendira fan gaittuk domeka arratsalde baten enda juntaitten gaittuk han eta ikusten xuaugu soziedadori. Faten gaittuk preguntaitten bai baiña ha soziedadia eskolia izandakua baiña diputaziñuana. Hori berriz zeana...

- Udaletxiana.

- Ez, Madrilgua. Eskola honeik Madrilgo zerak in (zi)txuan ta.

- Nazionalak.

- Nazionalak. Enda hurringu bestera fan gaittuk eta hareik be igual. Han be informaziñua hartu giñuan eta handik Lasturrera. Lasturrera aillegaitten gaittuk eta edifizio bardiña, Olabarrietako modukua. Garbixa. "Ya está", hau soziedadia badok, hau harrapota xauk. Faten gaittuk harutz ta, ez, hemen ez dau soziedadia, hau lokal hau erabiltten da auzoko fiestetan bakarrik, bestela ez.

- Taberna moduan.

- Taberna moduan. Frakasua! Nik aiuntamientuan nakuan, fabrikan lana itten neben piletan eta, han euen Santi Kortabarria konzejal urte askuan egon zuan eta harekin batera hau, Ubaokua uste xuat dala Kortabarria. Harekin amistade haundixakin eta ha konzejal, nik hori ittia gura. Nik esaten nitxan "obria in..." ta, "Hau guria ez da, hau ezin leike in, hau Madrilkua da, Madrilen permisua eskatu bihar da". Nik esaten nitxan: "Ba hau ez daue eruengo Madridera, hau hemen geratuko da. Etorri daixela eruatera!" Eta zela? Beste posibilitade danak gastau zittuan, Olabarrieta guztia apurtuta geure artien, ta berba itten hasi gitzuan eta gauziak urten xuan aurrera. Barru dana hustu, soziedadia in zuan, lokal soziala alde baten, ta aiuntamientuak ba zela itten zan soziedadia auzo guztiendako, ez bakarrik batzueendako ezbai auzo guztiendako.

- Auzo etxia modura.

- Eta orduan ba hola in giñuan, baiña jakiñien gaiñian, jakiñien gaiñian, baiña jakiñien gaiñian guria ez zala iñoiz izango. Baiña nik esaten nuan: "Iñok ez xok hau eruango hemendik! Etorri daixela eruatera madriltarrak!" Ba holaxe in giñuan soziedadia. Eta horrek in oskun bateratu, horrek in oskun izugarriko zera. Auzotarrak juntau in giñan. Bueno, orduen ba baozen batzuk eta ez ziren sartu, gero sartu dira, kontra egozenak ez zittuan sartu. Baiña nehikua kopuru zera juntau gitzuan ta... hori diskusiñuori betik sortzen dok, eztabaidak alde guztietan.

### 3.22. Auzotartasuna indartuta

- **Hizlaria(k)**: Zubia Umerez, Inaxio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-072/013
- **Iraupena**: 0:04:33. **Hasi**: 00:28:03. **Bukatu**: 00:32:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Leturia, Ane
- **Gaia(k)**:  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Elkarteak antolatu eta gero beste ekimen batzuk sortu ziren. Auzo batzorde bat eratu eta ekimenok gauzatzen joan ziren. Auzoko bideak auzolanean konpondu ziren, eliza eraberritu, posta banaketa bideratu, maioralen lana ezarri, etab. Orain auzotarrak elkartuago bizi dira.

## Transkripzioa

- Enda horrek emun oskun inddarra, ba, beste inizatiba asko jarteko. Ta, ba, horrekin batera etorri zuan, ba, elizai erretillia ittia, ta orduan elizai erretillia in zan. Ta, karo, elizak be diruik ez! Betikua! Elizia hotza, ta zela berotu, ta joe... Aiuntamientuak txakur txikirik be ez xuan /etxuan/ iñoiz emuten. Ta zela? zela? Ba nunbait hor [desetxue] euzen butanozko zeak, botillak erosi ta harexek zela edo hala berotu ta jo, jentia gustora. Hi! Etorri orduko epel, epel, epela elizia be. Zerakin, butanuakin berotuta. Beti zittuan, ba, detalliak beti martxan. Ta orduan jarri [...] komisiño bat. Komisiñuak zittuan lehendik zian alkate zaharrak, neu... handik asko gehixau ez gitzuan. Baiña hemen beheko alkatia, goiko alkatia eta, ba, ni be komisiñuan, ta... Bueno, ni gaztia nitzan. Bueno gaztia... Bai, nahikua gaztia. Ta holaxe hasi giñan bueltaka. Ta horrekin batera, ba, elizia gero erabagi zan barriztaittia. Jo, elizan igual hamabi milloi pezeta gastau zian barriztaitten, e! Hori bat bakarrik! Ta inguruko bidiak? Hemengo pareta guztiak [in giñuzen], hemen dauzen pareta guztiak auzolanian, danak! Dana auzolanian itten zan. Dana dispuesto. Aiuntamientuak materiala ipiñi, eta jentia lan. Horrek emun otsan izugarriko bueltia auzuari. Jo! Ta harrezkero hemengo gerrak pasau zian.

- Dotore dakazue auzua.

- Hemengo gerrak pasau zittuan. Enda oin...

- Ze itten dauen batasunak, e?

- Bai.

- Eta alkartasunak.

- Eta alkartasun horrek. Karo, [...] sortzen hasi zuan. Kotxian, oin trikitx ez giñuan eitten iñoiz bata bestiak. Kotxian `pi!´, "se acabó". Aldekuakin ikusi be ez, ixa iñoiz be ez, kapitaletan modura. Eta, bilddurrezkua da, e? Ez pentsau, e? Asuntua.

- Tristia.

- Tristia, tristia. Garai haretan, ba, por ejemplo, erabagi giñuan, auzua zuan goiko auzua ta beheko auzua. Bi alkate. Bi maiorak. Ta karo, bi maiorak azkenian maiorak bat. Orduan, e, gero pentsau giñun, bueno... ba joe, abixuak emuteko, entierruak euenian abixuak emuteko, jentia fabrikari lanian, nok emun? Etxian ez dau /eztau/ iñor, ta zela? Bueno, orduan izentaitten giñuan, ba, diru bat ipiñi urtero pagaitteko ta abixua in daixela batek. Beste burruka bat haundixa izan zan hemen korreuakin. Korreua, ba, repartiu in bihar zala /bizala/. Korreua kalia... Hemen euen bat... Tabernakua zuan lana itten ebena korreosetan. Ta honek beonek ekarri ta hemen repartituen oskun, hemen euen bittartian. Baiño hil zanian, ba, ya geratu giñan reparto barik. Ta zeekuak Madrildik autorizaziñorik ez hemen partitteko. Kartak zela? Ba kalia, ipiñitta referentziak, ba, familixakuetan, etxetan izteko. Orduan esan [...] "Bueno, hola ez. Zela ingo dou /ingu/?" Ba, korreosetakuak zera in daixela, repartua in daixela enda posta kutxa kostaitten dan beste, hainbeste, ba, etxera entregaittitarren. Baiña, karo, hori prohibiu eitten [etxan]. Ezin xuein in hori. Enda hor ibili gitzuan beste epoka bat, bueno... burruka osua konsegitteko hori. Bueno, azkenian behintzet motorizaitten hasi zianian kamiño kontra zera ingo dogula, repartua ingo dogula /ingoula/. Orduan, ba, kamiño-bidetan, bide-kurtzetan ipiñi kajak -ta oin be holaxe xaozak, ezta leku batzutan- ta bidien motorizautako lekuetan zera ittie. Klaro, guria ya hasi zien... repartua etxetara itten, hurrekuetan repartua itten. Ta, bueno, karo, guretako kamiño onduan, guretako oso ondo. Ta bastante neurri hartu eben ta, bat hor goixan goiko plazan, beste bat hor enparantza onduan, beste bat hor kasetatan, jarri zittuen katxarruak eta... ba nahiko konforme. Harrazkero ya

urte askuan ibili gara konforme. Ta egun praktikamente ixa etxetara alleaitten da. Ya oin hori be, ba, "otra batalla superada".

### 3.23. Auzolana bizirik

- **Hizlaria(k):** Zubia Umerez, Inaxio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-072/014
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:32:36. **Bukatu:** 00:34:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Leturia, Ane
- **Gaia(k):**  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena:** Auzoko bideak ere auzolanean hormigoitu zituzten. Auzolanak bizirik dirau oraindik.

#### Transkripzioa

- Por ejemplo... Beste gauza bat zeekua, hormigoia botatia. Joe, hori zuan, baiña bilddurgarriko tema bat, e? Karo, Bizkain, ni udan Bizkain egoten nitzuan, ta Bizkaiko baserri danak enbreauta. Ta Gipuzkuakuak ezebez.  
- Lehengo bide zaharrak.  
- Lehengo bide zaharrak. Joe... Nik honei, Xanti ta honei politikuai esaten [notsen], "Joe, hi! Ya está bien. Horrek danak xarek enbreauta eta guk, zer? Guk ezebez? Gure zea...? Gu betik "ciudadanos de tercera" izan bihar xuau /bixu/? E? Pagaitteko orduan terrenua guk xakuu, guk pagau. Eta guk bidia, akzesua eukitteko guretako ez xauk /etxauk/ dirurik, ta kalian baxauk dirua, ta guretako bapez! Gu beti [mouan]?. Ta beti burruka baten ibiltten gitzuan, beti. Joe... Izaten zuan bilddurgarriko burrukia. Baiña azkenian aiuntamientuek soluziñua betikua, "al cincuenta por cien", guk materiala ta zuek lana. Enda uste xuat Oñatiko auzo danetan formula hoixe erabilli dala. Bai, formula hoixe erabilli dok. Bueno, niretako formula tranpa bat zuan, baiña beste bideik ez xauan /etxauan/. Porke oin esaten dan modura, egixa badok hiru mila ta hamar kilometro hormigoizko bidia indda baldin bazazek, horrek diru asko balixo eben, e? Materiala bakarrik pagauta. E? Enda aiuntamentuei, hola, auzolanien basarritarrak asko in xok. Asko, e! Zeatik izan dok? Nik uste xuat baserritarra [beti ohittuta xauk lana eittera] ta...  
- Auzolana betik izan da ohitturia.  
- Bai, bai, bai.  
- Oindiok be bide baztarrak garbiketetan ta holakueta itten da.  
- Guk itten xuu, guk itten xuu, bai.

### 3.24. Argindarra eta ura etxean

- **Hizlaria(k):** Irizar Guridi, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-073/025
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:56:52. **Bukatu:** 01:00:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa

- **Gaia(k):**

Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

- **Laburpena:** Pedrok argindarra beti ezagutu du etxean, Cerrajera-k Olatetik ekarritakoa. Ura etxean gerra aurretik jarri zuten, Garaiko etxekoekin batera ur-andela (depositua) jarrita. "Urrutxu" igeltseroak egin zuen ur-andela. Askazubi azpitik dator ur hori eta gaur ureztatzeko besterik ez dute erabiltzen.

### Transkripzioa

- Eta zu umia ziñanian, hemen argixa ta ura bazakazuen etxian?
- Argixa ta ura, ni akordaitten naiz, gu leheninguetakuak ixa, e? Baiña bai, bonbilla ahal dan moduko bonbilla kaskartxo batzuk eta. Zerrajeriak ipiñi xuan, Zerrajeriak ipiñi euen.
- Zure garaixan igual ya Olatetik etorriko zan, zuendako inddarra?
- E?
- Olatetik etorten zan zuentzako inddarra?
- Bai, Olatetik ez, igual etorriko zuan, bueno, Olatetik pasau itten zuan hemendik, entenditten dok? Linea bat fijo, zeatik hortik etorten zuan honutz, hortik etorri lekien, hortik. Baiña zerrajeriena zuan, Oñatiko urakin inddako zera zuan hori.
- Baiña zerrajeriak zentrala eukan Olaten, ezta?
- Bai, bai, Olaten. Olaten, oin aiuntamientuana dana.
- Baiña hareik inddako inddarra etorriko zan hona.
- Hareik han in xuein Mondraueko fabrikatarako eta, parte, deposittuak-eta zela indda dagozen, pantanua, goiko pantanuak-eta.
- Bai, kanalak-eta.
- Zerrajerarako.
- Orduan hemen zuek suertia euki zenduen, ez? Zerrajería dala ta behintzat argixa etxien.
- Klaro.
- Eta fregaderan ura?
- Guk, guk bastante aguro. Guk zenbat, ze urtetan izango zan, baiña...
- Zu ezkondu aurretik-edo?
- Ez, ez. Ezkondu aurrretik? Bai, bai, asko lehenao. Probablemente gerra aurretik. Guk, Garaikua Mendizabal eta guk, xakuagu depositto bat konsegiuta Oviedotik eta zerien, eta ointxe renobau dok, ointxe urtebete edo bi, beste hiruta hamar urterako. Eta lehen be, urte ez xat zenbat, urte asko hori konsegiu zala eta guk hortik euki xuagu ura sufiziente.
- Eta hori deposittua egindda ekarri zeuein?
- Ez, ez, ez, zementua bertan inddda, hori in xuan Urrutxuk, Urrutxu entzunda dakok sekula, Urrutxu?
- Igeltserua?
- Urrutxu, bai.
- Bai, Itturritxo parian bizi ziran.
- Urrutxun aittak. Azkenian bere burua galdu ez dakit ez eben in, semiak emun otsan disgustuakin. Bai, gizona fiña zuan ta. Kuestiñua dok harek zuan obria in ebena. Ondo hartuta xagok ura, eta hori erreka aberatsa dok, oso aberatsa. Hor egon (di)ttuk amorraiña, angilia eta danak hemen, bastante goraiño arte. Eta ura sufiziente. Oin ez dok lehenaoko normala, ura etorri nehikua, oin ez xuagu ya kasik...
- Baiña Oñati errekatik edo mendiko errekaen batetik?
- Mendittik, Askazubi azpitan formaitten dok, hortik behera. Errekatxua hori konsegiuta zeretik, e? "Con todas las de la ley", oin renobaziña be halaxe in xuagu.
- Eta ondiok be hortik dakotzue edo ya herrikua...?

- Baxakuau hori galdu barik, oin hartzen xuagu udan erregadixorako eta hola, bestela ez xok merezi gaur egun, dagozen higiene eta gauzakin, hor Urkulukua gastaitten xuagu. Hori purifikauta, purifikautako ura dok. Horixe, oin horkua, baiña bestia galdu barik, e?

### 3.25. Izen anitzeko auzoan jaioa

- **Hizlaria(k):** Urzelai Aiaitui, Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-075/002
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:07:37. **Bukatu:** 00:10:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena:** Jesus Urzelai Aiaitui, 1929ko urtarrilaren 1ean jaio zen Anduagakoa baserrian. Bere auzoa "Madalena" izenarekin ezagutu du Jesusek bere 80 urteetan, baina "Santxolopetegi" lehenengo eta "Antsolopetegi" orain dira auzoaren izen ofizialak. "Antxilipiztegi" eta "Txantxilipiztegi", berriz, inguruko baserritarrek erabili ohi dituzten izenak.

### Transkripzioa

- Jesus, abizenak zela dakazu?  
- Urzelai, Aiaitui.  
- Ze urtetan, ze egunetan jaio zifan?  
- Eneruan batian, hogeta bederatzixan.  
- Oseake urtiak oso-osuak beteten (di)ttozu zuk.  
- Oso-osuak, larogei ointxe indda, larogei urte, e?  
- Gaztiaua emuten dozu.  
- Bai, gaztiaua bai.  
- (...)  
- Eta hemen jaio zifan?  
- Bai, bai.  
- Zela da, Anduaga?  
- Anduagakua.  
- Zuek zelan esaten dozue?  
- Guk Anduaga.  
- Anduaga.  
- Guk Anduagakua gero aiuntamientutik etorri zan, letrerua, horreik ifintten xuein Anduagakua.  
- Martezkuari badakitzu zela ifiñi xauen?  
- Ez dakit zela ipini xauen.  
- Martezlopezkua-edo, Martelopezkua edo holako zerbait.  
- A, bai e? Hau Anduaga, betik Anduaga.  
- Anduaga, zuek hala esaten dozue.  
- Eta hau, Anduagakua, aiuntamientuak ipini eben.  
- Eta aiuntamientuak u-kin edo o-kin jarri eben? Anduagakoa edo Anduagakua?  
- -kua uste dot. Hortxe dau letrerua ipinitta, uste dot -kua dauela ipinitta, Anduagakoa edo Anduagakua, ez dakit, hortxe dao letrerua.  
- Martez..., Martelopezkoa da Martezkua, pentsa eizu.  
- Hemen ipini zittuein etxe danetan, honeik letreruak zenbat urte ipiñi

zitteilla ba? Horko letrerua neuk ipiñitta dau gaiñera eta... honeik ingo zittuein hamar bat urte, edo gehixau, hamabost bat urte igual, honeik leteruok ipiñi zittueila.

- Eta auzuari zelan esaten dotzazue?

- Guk lehenau Madalena. Oin Antxolopeztegi. Antxolopeztegi itxuria bizi guztikua izanda, baiña betik auzo hontan esan da betik Madalena esan da.

- Zuk umetatik ezagutu dozu hau Madalena?

- Bai. Ta hemen beste izen bat esaten daue beste batzuk Antxilipiztegi.

- Enrike Torreauzokuak, Txantxilipiztegi.

- Txantxilipiztegi, eta hau oin, letrerua ikusi dozue, Antxolopeztegi. Lehen zan Santxolopeztegi.

- A, oin esia be kendu in xaue?

- Kendu in xaue. Oin Antxolopeztegi.

- Bai, Antxo, ni be konturatu naiz Antxo ipintzen zula.

- Nik begiratu eta ez neben holakorik pentsaitten, Santxolopeztegi izango zala.

- Txantxilipiztegi dok hori, baiña betiko Madalena, Madalena auzua. Oin be gurera kartan bat etorten baldin bada, Madalena auzoa izango da, oin, etorten badira karta ofizialak ez, baiña etxekoren batek eskribitten baldin badau, Madalena auzua.

### 3.26. Argindarra jarri zutenean

- **Hizlaria(k):** Madinabeitia Oñate, Sinforoso
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-103/028
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:44:54. **Bukatu:** 00:47:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak  
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- **Laburpena:** Kinkearekin ibiltzen ziren etxean, argindarrak ez zegoelako. Mutikoa zela egin zen Urrexolako transformadorea. Jendea ikustera joan zen Uribarritik, kablean zehar argia ikusi egingo zelakoan.

#### Transkripzioa

<p>- Eta etxian, zu mutikua zi&ntilde;anian, etxian argindarrak baeguen, ordurako ia-edo!</p>

<p>- Ba, esango dostat, kinkiakin, argixarixakin eta kinkia&hellip;</p>

<p>- Orainddiok zentrala ifi&ntilde;i barik eguen, e?</p>

<p>- Ifi&ntilde;i barik eguen, bai&ntilde;a nire mutiko denporan egingo zuan Urrusulako transformadorea. Nik zortzi bat urte-edo igual euko nitxuan, eta Ubaotik bota bihar euela. Ubaotik xaguan linea bat Olatera, eta illunkaran seietan-edo ordua ifi&ntilde;itta, eta jentia ikustera fan ei zuan Migel tabernari, Migel Igartua ha aittajuna, semia be ni bai&ntilde;o zaharragua zuan, eta Gorordoko zera, argixa gorrixa etorriko zalakuan ikustera fanda egon zirala, Uribarritik pillia.</p>

<p>- Ubaotik, Ubaotik argixa etorriko zala?</p>

<p>- Ubaotik.</p>

<p>- Bai&ntilde;a kablian ikusiko zala pentsaitten ebein?</p>

<p>- Kablian ikusi egingo ete zan argixori etorten, eta harek argi egingo ete eben-edo, zerbait esaten xuan harek bai!</p>

<p>- Ta horixe, geratuko ziran kabliari begira, ezta?</p>





berokua, odol berua, eta ni, andria eta ni, diferentiak. Nire andria zana, orain hiru hillabete hil zuan, eta harek e, arbixa etaraten bai, eta nik ur berua kaldakara bat hartu edo pozalkara bat eta faten nintzuan arbi etaratera ta, arbi bi etara orduko eskuak hotzittuta eta andriak banastakaraxo bat arbi igual etaraten xuan edo banastakada bat eskuak uretan sartu barik. Eta hori Antonio be zuan esku berokua, Larrea kapataza, eta esan dotena edo esatera noiana, e, harek eskuetatik etxuan sufritten.</p></div>
<div data-bbox="291 243 490 258" data-label="Section-Header>
<h3>3.28. Saratxoko tunela</h3>
</div>
<div data-bbox="329 273 889 465" data-label="List-Group>
<ul>
<li>• **Hizlaria(k)**: Madinabeitia Oñate, Sinforoso</li>
<li>• **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa</li>
<li>• **Erref**: ONA-103/031</li>
<li>• **Iraupena**: 0:04:36. **Hasi**: 00:50:44. **Bukatu**: 00:55:20</li>
<li>• **Multimedia**: bideoa online ikusgai</li>
<li>• **Gaia(k)**:
 <p>Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak<br>Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura</p>
</li>
<li>• **Laburpena**: Olatera ura Aitzgainetik eta Saratxotik zetorren. Ur azpitik zetorren ura; tunela ez zegoen erabat ondo eginda. Bederatzi erreal irabazten zituen egunean, pistoletekin zebilen mutilak. Lope de Agirre, Agerrekoa. Deguriako ura. Labaderoa.</li>
</ul>
</div>
<div data-bbox="302 486 423 501" data-label="Section-Header>
<h4>Transkripzioa</h4>
</div>
<div data-bbox="302 502 881 951" data-label="Text>
<p><em>- Eta Olatera zenbat lekutatik etorren ura turbinak-eta mobittekot?</em><br />- Olatera&hellip;itxoin! Bat Aitzgain, deposittotik, beste bat Saratxo. Eta Saratxoko tunelak xakok, esaten dauenez, zortzi kilometro haitz bizixan azpittik, eta Lafitte ei zuan ingles, e, frantses bat, injinerua, ideau ebena alde bittatik atakaittia<br /><em>- Zuluori? </em><br />- Zuluori, kobiori, uren pasuori, eta zuzen bai, bai&ntilde;a hau hamar zentimetro altuago.<br /><em>- Alde bata?</em><br />- Alde bata. Entzuten ei txuin deskargaak, beste zerak, entzuten dittuk, entzuten dittuk! Bai, zerbait entzuten txuat! Jo&ntilde;o, eta ei xaguan mutil bat..., pistolletia joten zuan porra batekin eta albo bittara joten ei xuan. Konparazi&ntilde;o baterako, tunela igual uno veinte edo, eta bi pistoleta, buru bat&nbsp; hemen eta beste bat hemen, eta harunzkotan hau eta honunzkotan hau, harunzkotan hau eta honunzkotan hau. Bederatzi erriel, 2,25 irabazten ei xuan harek egunian, espezialistia, artistia zalako, eta bestiak pezeta bi.<br /><em>- Bai&ntilde;a ze, pistoleta jote hori zertarako ibilli zan? </em><br />- Hori tirua egittekot, tirua. Sartzen zuan. Pistoletia egitten zuan, kusti&ntilde;ua hola ifi&ntilde;i, behetik gora antzian eta&hellip;e..<br /><em>- Orduan tunelok etziran parera etorri orduan&hellip; </em><br />- Pare-parian, pare-parian.<br /><em>- Hamar zentimetro</em><br />- Hamar zentimetro harunzkua bakarrik, eta bueno milagrua! Ta milagrua, bai harek beste jakin ezkerot!<br /><em>- Eta tunelori nundik nora dator?</em><br />- Hori Araozko Lope de Agirre, Araozko bat izan zuan&hellip;<br /><em>- Agerrekua, bai. Araoztarra bazan, Agerrekua!</em><br />- Agerre, bai, eta Lope de Agirre hori, Agerrekua, eta Saratxotik, Saratxon urteten xok Degurixako urak haitzetik, holako boka bat, ur asko datorrenian gehixago, inddar gehixagokin faten dok, eta gutxi daguenian be, erreka fijua dok, eta hori, ur hori pasaittekot sifoian, lehenengo sifoian, ee. Sifoia dok, porenjenplo,</p>
</div>

hamendik altura urak topaitten eta, e... handik, han labadero bat xak, kanalian xatok ura lehenengo igual ehun metro gutxi gorabehera, eta gero sartzen dok hor haitz azpira, eta tunel hortan, eta preguntau dok zenbat ur Olatera: Aitzgai&ntilde;ekua, Saratxokua,&hellip;<br /><em>- Eta horrek tunelorrak&nbsp;nbsp; Olaten nun urteten dau? Nik enekixen tunelen istorixia &hellip;</em><br />- Erostarben! Nire baserrixa zan lurrak atrabesau (zi)txuan horrek!<br /><em>- Jo&ntilde;o, zuek mobiuako zebein igual lurrak tunela egitten!</em><br />- Bueno, leikiena hori be. Ez! Honutzago zuan, e, beste zeori, lurrikariori!</p></div>

### 3.29. Olatera doazen urak

- **Hizlaria(k):** Madinabeitia Oñate, Sinforoso
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-103/033
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:56:14. **Bukatu:** 00:58:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak  
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura  
Lanbideak » Negozioak, dendak
- **Laburpena:** Jaturabeko ura ere joaten zen Olatera. Zapatakoa ere bai. Makinak. Urak non elkartzen diren. Arantzazura sarri joaten ziren, makinak garbitzera.

#### Transkripzioa

<p><em>- Bueno eta lehengo urokin jarraituaz, Aitzgai&ntilde;eko zera, Saratxokua eta Jaturabekua be bai</em></p>  
<p>- Bai, ni galdu egitten nauk. Jaturabekua&hellip;</p>  
<p><em>- Eta gero Zapatatik be ez dator?</em></p>  
<p>- Zapatatik, bai! Zapatakuak xakok maki&ntilde;a bat haundixa, potentia, eta bestiak, Aitzgai&ntilde;ekuak xakok bi, Saratxokuak xakok bi, eta Olate, Urrusula Beitti depositotik, hor Jaturabekuak xakok beste bi, txiki&ntilde;aguak, gutxiau produzitzen dauenak.</p>  
<p><em>- Eta, eta, Zapatatik datorren ura gero juntaitten da Jaturabekuakin edo aparte doiaz? </em></p>  
<p>-Bai tta ez! Jaturabetik, e, datorren ura pasaitten dok, Jaturabetik, presatik datorrena, Jaturabeko maki&ntilde;etxetik azpittik eta han maki&ntilde;ia dabillenan, ur gehixago bixendako bi maki&ntilde;a. Bat, e, tuberixa bat xak Zapatatik, txikitxua dok, Jaturabera, eta batendako bai&ntilde;o gehixago ura badator&hellip;</p>  
<p><em>- A, bestetik?&nbsp;&nbsp;</em></p>  
<p>- Maki&ntilde;a bixak ibiltten dittuk, Olatekua be bai, haundixa, potentiori, eta Jaturabekuak&nbsp;  gutxiau emuten xok. Jaturabeko maki&ntilde;ia txiki&ntilde;agua dok.</p>  
<p><em>- Horreik dira hirurok Aitzgain, Saratxo, Jaturabe eta&hellip;</em></p>  
<p>- Zapata.</p>  
<p><em>- Zapata.</em></p>  
<p>- Bai, jauna! Horreitek dittuk. Eta Arantzazun sarri faten gintzuan gu, Arantzazura udazkenian, hostro, orbela daguen denporan eta &hellip; parrilla garbittu egin bihar zuan eta maki&ntilde;ia ura emun bihar eta parrillia egitten zuan zikinddu. Gaur automatiko-edo ifi&ntilde;itta xazak

eta hola, e&hellip;; parrillak garbiketari sarri ibiltzen gintzuan Arantzazun esan dotena, eta Olatetik faten gintzuan oi&ntilde;ez hara; gaba pasau&hellip;</p><p><em>- Arantzazuko ura Zapatarara, ezta?</em></p><p>- Zapata, Zapatarara, hori, hori! Bai, jauna!</p>

### 3.30. Juanitosena zein tokitan egon zen

- **Hizlaria(k):** Arregi Zufiria, Maribi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-111/003
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:05:13. **Bukatu:** 00:06:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Zein tokitan egon zen Juanitosena denda: Arrueren etxea, Urrutxu eta oraingoa. 1911. urtetik dago oraingo tokian; aitonak erosi zuen lokala.

#### Transkripzioa

- Urrutxun, lehenengo zuk gaur esan dostazun etxian, "Arruen etxia" esaten geben guk. Lehenengo dendia han ipiñi zan baiña gero Urrutxun, eta Urrutxun euki eben dendia, aurrera etarateko famelixia.

- Eta Arruena zein da?...

- Zure etxetik, ez. Zure etxia, bai. Zatik hori be Arrena zan. Eta hor euki eben lehenengo dendia baiña oso denpora gutxixan, denpora gehixau euki eben Urrutxunian.

- Orduan, Aixkirri dendia izan zan, horren...

- Horren bai, bueno, bai bai, baiña bueno handik denborada batera bai, asko. Bueno, nik eneben ezagutu, esaten dotsut, zatik oiñ daudena, Juanitosiena, oiñ dauena milla bederatzirehun ta hamaikan erai zan. Orduan bestia desagertu zan lehenau, baiña Aixkirriko dendia egon aurretik besten bat be egon zan, nik uste dot, besten batzuk be egon zian. Nik uste dot, bai nik uste dot besten batzuk be egon ziala. Baiña horren buruz nik eztakitt asko, nik Aixkirri ezagutu neben. Eta gero, guria, hoixe milla bederatzirehun ta hamaikan gure aittaittak, osea, aittaitta Bitorrek, Bittor Arregik erosi eben hiru etxe, eta horrekin iñ eben bat, ta horren azpitan dau dendia. Dendia gaur da atzekaldera eta aurrekaldera emuten dauena. Eta aittaitta Bitorrek erai ebenian, araoztarrak esaten ebein: "hori ezta Juanitosiena, hori Bitorrena da!". Zatik, klaro, Bittor araoztarra zan eta eurok esaten ebein: "Bitorrena da!".

- Baiña aurretik zan Juanitosiena.

- Klaro, Juanitosiena, baiña esaten dotsut zeatik. Josefa Antonia Garikanok ipiñi ebelako, gizonak iges iñ ebenian.

### 3.31. Baserria eta errementaritza

- **Hizlaria(k):** Aizpeurrutia Etxeberria, Jenaro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arana, Iñaki - Oregi, Lide

- **Erref:** ONA-178/015
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:26:28. **Bukatu:** 00:27:19
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Arana, Iñaki
- **Gaia(k):**  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak  
Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea  
Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak
- **Laburpena:** Baserriko tresnak: burdinarea, aizkorak; e.a egiten zituzten. Tresna asko egiten zituzten auzoko baserriarrentzako. Sasoi batean auzoan 60-70 baserri inguru zeuden.

### Transkripzioa

- Hemengo sutaixan lan gehixen zertan eitten ziñuen?  
- Burdixak, emen burdixa, erruberak. Ta aixkorak epoka baten pillia, burdixa ta aixkoria asko; atxurrak neuk ez dot asko ezautu; hola gauza barrixak eta geo itten... Galtzairuak eta ifintten bai hoixe, baiña aixkorak eitten be bai e; atxurrakin ez naz akordaitten. Geo itten zuan hau, honeik, basarriko erremintak, hau dok arahortza ta hau dok burdiñaria, honeik hamen einddakuak dittuk barrixak, hau dok burdiñaria. Txikixauak holakuak itten zittuen amen baiña pillak. Kao, bakizu zenbat basarri auen orduan, Murgizkuak, hor beste barrixokuak, hamen bertan hirurogei basarri edo hiruroeta hamar, Olabartan. Hona etortzen zan jendia neguan... dana jentiakin beteta.

## 4. Familia eta harremanak

### 4.1. Erretiratu ostean hasi zen bizikletan gogor

- **Hizlaria(k):** Olalde Beloki, Bittor
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Oñati
- **Erref:** ONA-004/009
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:11:10. **Bukatu:** 00:14:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa  
Aisia » Kirola » Txirrindularitza
- **Laburpena:** Lanik gabe geratu zenean medikuak esaten zion geldik egon behar zela, bizkarrean zuen gaitzagatik eta desgasteagatik. Etxean geldik egoten gogortu egiten zen eta semeak bultzatuta bizikletan ibiltzen hasi zen. Piskanaka-piskanaka joan zen martxa hartzen eta 100 km. egiteraino iritsi dela aipatzen du. Egun batean ibili eta hurrengoan deskantsatu egiten du. Hasieran lotsa ematen zion bizikletako arropa jazteak.

### Transkripzioa

- Dena dela, bizikletaz, ba, gehiago gozatzen orain dala gutxi hasi zara. Orain dala urte gutxi.  
- Bai, bai, bai.  
- Nolatan?  
- Bueno ba, hori izan da, taillerretik lan barik geratu nintzarian, ezta? Ba etxian, ba nere gaitz bat baneukan zerbikaletatik, eta gero desgastia be

bai, behin zahartu ezkerro gauzak aillegaitten diranak, ezta? Eta etxian medikuak esaten nostan ba geldik egoteko, geldik edo... irakurri eta in bihar baneuen, ba apoiauta itteko, eta klaro, jazarritta egoten, egoten, egoten, ba gogortu itten nintzan, zutiketari hasi eta zutittu ezindda. Hortara, ba, semiak ikusi ebenian nere egoera, semia hasi xaten demandan hasi xaten, eta semiak ba zeozer itteko esaten nostan, bizikletan ibiltteko, bizikletan ibiltteko, eta klaro, neri gustaitten xaten bizikletia baiña, berrogeita hamasei-hamazazpi urtekin bizikletan hasiko banintza ba... Eta ia zeatik ezetz semia demandan, ezta? Eta egunero etxera etorten zanian "¿qué, ya has andau en bicicleta?" "No" "¿Ya has andau?" egunero. Eta azkenian, noizbaitten dezidiu neben eta hasi nintzan holaxe. Eta politto-politto-politto, lehenengo bizikletia hartu nebenian San Prudentzioraiño fan nintzan. San Prudentzioraiño fan eta etxera aillegau eta lehenengo pisora igoteko ba barandauari obatuta, ezin!

- Ezin!

- Ezin, baiña harreatik, ba, ez notzan itxi artian, artian jarraitu in neben eta holaxe, politto-politto hasi nintzan.

- Hori da, utzi partez, jarraitu egin zendun.

- Bai, bai, bai, biaje mordoxka bat in nittuen San Prudentzioraiño, gero handik sartu nintzan Olatera, San Prudentziotik Olatera, eta gehittuaz, gehittuaz fan nintzan, ezta? Eta ba oin ba, trankilo etxera.

- Ehun kilometro?

- Bai, ehun kilometro. Baiña, aurten be baten in dot ehun ta zazpikua. Aurten behin in dot eta, fan dan urtian be hiru aldiz in neben hori, "vuelta a la costa" eta, ba, ezta? Beste baten Debaraiño joan eta gero Debatik Eskoriatzara eta horreik ehun ta sei-zazpi kilometro urteten daue horreik.

- Dena dela badakigu nolabaitteko arauak edo jarri dizkiozula zure buruari, e, egun batean ibilli eta hurrenguan deskanso itten dezu beti.

- Bai, bai, deskanso itten dot bai, ez asperketako, bestela aspertu be in leke, ezta? Eta egun baten ibili eta bestian deskanso itten dotenian, ba hurringo egunerako ya ilusiñuaz egoten zara atzera bizikletan ibiltteko. Klaro, denporiakin jokatu bihar da, denporia ona dauen edo ez dauen edo, ezta? Klaro, etxat gustaitten euri antzakin baldin badau ez dot urteten, karreteria bustitta baldin badau be ez, haizia fuerte samarra baldin badau, ezta. Eta ba gero ba horixe, hotzak be horixe, temperaturiari begiratuta betik; behin hamabi bat gradu, neuk norma batzuk hartuta dakot eta behin hamabi grado ezkerro ez dot urteten, hamabittik behera baldin badau, hamabittik gora baldin badau jersei bat edo gehixau jantzi eta urten.

- Badakigu, dena den, hasieran nolabaitteko lotsa ematen zizula, ba, bizikletan oso erropa jakin batekin ibiltzia. Zer gertatu zan hor, Bittor?

- Zera, lotsatu itten nintzan. Klaro, lehenengo hasi nintzan fraka normalakin, baiña semiak esaten nostan gertatu biher zala pizsinara — semiak hori esaten nostan— pizsinara faten dan moduan traje de baiñuakin, bizikletarako preparau bihar dala erropa egogixakin eta zapata egogixakin. Ba nik alde batetik dirua gastau bihar nabean, eta bestetik lotsatu ni erropa horrekin. Bueno, ba, holaxe, lehenengo, akordaitten naiz lehenengo fraka motzak jantzi nittuanian, bueno, pentsaitten neben mundu dana neuri begira eguela, lotsatu itten nintzan, egixa.

#### 4.2. Gaztetako ibilerak 20 kiloko bizikletarekin

- **Hizlaria(k)**: Olalde Beloki, Bittor
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irratia, Oñati
- **Erref**: ONA-004/013

- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:21:25. **Bukatu:** 00:22:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak  
Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak  
Aisia » Kirola » Txirrindularitza
- **Laburpena:** Bere gaztetako bizikletak 20 kilo zituen; nolako zen azaltzen du. Sarritan egiten zuten "vuelta a la costa" bazkaria hartuta. Honen inguruko kontuak.

### Transkripzioa

- Gaztetan indda nau ni buelta bat, lagunak beria, akordaitten da laguna. Orduan be, baneukan nere zeretxua baneukan, "vuelta a la costa" bizikleta horrekin, bazkarixak hartu eta goizian hamarretakua in zerian, ezta, Azkoittin, handik Zarautzera, Zarautzen anaiak eta, anaiakin nintzan orduan, eta anaiak eta igari in, eta Debara, Debatik zerera, ehun eta hogetaka kilometruak indda sasoi hartan be, behin baiño gehixautan, e? Loiolara eta sarri bizikletan, orduan be, gustau, hori gaztetan e? Gaztetako zerak, e?
- Eta hori zuk esaten zenuna, bizikleta sekulako pixuakin gaiñera.
- Bai, hogeit zulo automatikua neukan nik, baiña pixua astuna, bizikleta fuertia, aproposa hartakotxe, gure aittandako eta aproposa, han ibili zan, eta azkenian primo bateri saldu notsan.
- Orduan harekin be negoziua egin zendun.
- Bai negoziua, bai, neri ez xaten kostau ezer eta.

### 4.3. Gregorio kaletarra eta Alejo baserritarra

- **Hizlaria(k):** Lizarralde Galdos, Gregorio; Ugarte Moiuia, Alejo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Jerardo
- **Erref:** ONA-020/002
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:00:39. **Bukatu:** 00:02:55
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Gregorio Atzeko Klean jaioa da, 1907an. Aita Garibaiko Errotakoa eta ama Gastiasorokoa zituen. Alejo ere 1907koa da, Olabarrietako Urraburu baserrian jaioa eta bertan bizitakoa. Aita etxekoa zuen, ama berriz, Berezaue auzoko Mendikoa baserriko alaba. Alejo kartzelan zegoela hil zitzaion aita.

### Transkripzioa

- Gregorio, zu, Oñatin jaixua zara, ezta?
- Gregorio: Bai, bai, Oñatin.
- Zein lekutan jaixo ziñan zu?
- G: Jaixo?
- Bai, hemen inguruan, ala...?
- G: Bai...
- Nun jaixo ziñan, ze kaletan edo?
- G: Nik burua be fanda dakot... zerien, oin Zumalakarregi zan lehen, oin eztakit zein...

- A! Garai Kalia izango zan orduan, ez? Zure denporan.  
 G: Bai, gure denporan Garai.  
 - Garai Kalia bai. Han, oseake Atzeko Kalian.  
 G: Atzeko Kalian, bai, hori da, hortxe, hantxe bizi nintzan ni.  
 - Eta, gurasuak nunguak ziran?  
 G: Ba, Garibaiko Errotakua aitta, eta ama Gastiasorokua.  
 - Gastiasorokua, eta orduan, zuk, bigarren apellidua zela dakozu?  
 G: Galdos.  
 - A, oseake, Lizarralde Errotatik eta Galdos Gastiasorotik. Hori da. Eta Alejo, zu, Olabarretan jaixua ezta?  
 Alejo: Ni Olabarretan jaixua, Urraburukuan.  
 - Urraburukuan, bai. Zuek betik esan dozue Urraburu?  
 A: Urraburu betik, bai.  
 - Betik, eta gero jentia Urrau esaten daue askotan, ezta?, baiña papeletan eta, betik Urraburu, ezta? Nik be topau izan dot lehengo dokumentutan eta betik Urraburu. Eta, han bertan jaixua, Urraburun?  
 A: Bertan jaixua eta bertan bizi izan naizena, betik. Oin, ba, gerrako konturik ezin esango dogu, e?  
 - Bota, bota zuk gura dozuna.  
 A: Bueno, ba, gerrako zerak in nittuan, gerran urtebete eta beste lau kartzelan in nittuan eta harrezkero berriz, ba etxian, etxeko lanak eruaten. Etxealdeko zerien, ama eta nola neukan aitta hor, ba. Aitta kartzelan nauela hil xatan.  
 - Eta gurasuak be Olabarretakuak ziran bixak?  
 A: Olabarretakua aitta zan. Nikolas Ugarte Gerriko, eta ama berriz, zan Dominika Moiuia Kortabarria, Mendiko alabia, Berezaukua.

#### 4.4. Kartzelan ikasten

- **Hizlaria(k)**: Lizarralde Galdos, Gregorio; Ugarte Moiuia, Alejo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Jerardo
- **Erref**: ONA-020/028
- **Iraupena**: 0:03:38. **Hasi**: 01:18:06. **Bukatu**: 01:21:44
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa  
 Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- **Laburpena**: Alejo Elorriotik Bilbora joan zen begiko kataratak operatzera. Kartzelan egin zuen denbora matematika, kontabilitatea eta abar ikasteko aprobetxatu zuen.

#### Transkripzioa

A: Elorrixon gegontzela esan nostain: "Hik operau eike ointxe hillabeteko, ez dakik?" Hor kolejixo zerian eta. Eta Bilbora bialdu nindduein. Bilbora fan ta fan nintzan eta zela zien, aitta-semiak, zirujanuak. Oin ez xat akordaitten nola diran, aitta-semiak eta. Abiona etorri zan eta abiona etorri zanian urten euen euren zeretik, lekutik kanpora eta ni ikusi nindduein milizianuen zerakin eta esan nostain: "Zu, zu milizianua zara, e?" erderaz, "No, no, usted no tiene que estar en la cola, usted tiene que venir aquí". Eta halaxe barrura hartu nindduein eta "a ver qué me pasaba". Elorrixon deskantsuan geontzela, bistatik nola faillua neukan, kataratasak eta gura nekiela kentzeia, Teodorokin egon nintzala bai eta lagunak eta danak esan

nostaila aprobetxaitteko. Rekonozitu nindduein, eta orduan ez zan oingo moduan operaitten, e, aittu? Artian. Eta esan nostain, Lopez Abadia aitta-semiak zien, bixak zirujanuak, Lopez Abadia -akordau in xat horratio-, eta esan nostain: "Zere lanian badakozu zerik, inkobenienterik?" Ni fabrika konduktoria nola nintzan makinatan eta hiru makiña neukan, eta zainketan eta "Ez, hango zerik ez dakot, baiña nik oin gurako neke ba... tiraketan nola... ¿Entiendes?", "Bueno, hau bistia tokau leke operaitten hasitta okerrago geraketia, eta zer ingo dotsuun badakitzu? Ba, egingo dotsut zertifikau bat retaguardian geraketako". "A, et-et-et, hortara ez naiz etorri", esan nosten. Harrittuta geratu ziran. "Hortara ez naiz etorri, nik primera linean in bihar dot in bihar duana!" Eta halaxe ateraiño bixak lagundu nostain; ez zala holako zerik, hara danak ebitzela bestelako zerien, libraitteko eta. Eta ni ez nintzan fan. Norbera tontua izango nintzan, baiña espiritua geukan behintzat. Egixakin geontzela eta egixa defenditteko. (...) Eta beste gauza bat, gero ni kartzelan egon nintzanian, sufriu kartzelan, aittu? Ez dakik? Harako botan, eta nik ardaurik eraten ez eta nola Aranguren eta danok eta bota ardauek ekarri eta ni sozio geraketan nintzuan, hireatik! Aittu? Eta pagaittiarren dirua eta zer da? Eta neri emuten nostain eta akaso trago bat in eta alde itten nosten. Baiña nik kartzelan, grado superiorreko liburu danak eruan nitxuan bai, gramatika, aritmetika razonada eta algebra, trigonometria eta kontabilidada danak, nik estudixau itten neben dana. Han beozen, ba, zerak, kadretatikuak eta, - bost milla egon giñan-. Eta ezer bihar bazan, dana eskatu eta zerian eta norbera. Nola Bilbotik ekarten nostain gero kafesnia eta beste tortillaren bat edo zerak beretatik. Dirua, berriz, betek astian hamar-hamabost bat pezeta edo, eta ardaotarako lain behintzat bai, aittu? Nik ez nuan eraten ta. Nik denporia igarri bariago pasau neben honeik baiño, aittu? Nik denporia nik nere lanian pasau neben, konozimentuak hartzen. Kontabilidada eruateko, partida doblan eta danian, eta zerian ba geratu nitzuan, ba, eta gero, ba, horretxegatik urten neben fabrikatik eta zeretik, aittu?

#### 4.5. 100 urteko Rosarioren haurtzaroa

- **Hizlaria(k):** Kortabarria Urrutia, Rosario
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-045/001
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa  
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena:** 2008ko urriaren 7an 100 urte bete berri ditu. Gorordo baserrian jaio zen. Goizean jaiki eta itegiko lanak egin eta sorora edo basora, gazte-gaztetatik. Eskolara euria egiten zuenean eta horrelakotan joaten ziren bakarrik. Erdaraz ikasten zuten, baina ez zituzten zigortzen eskolan euskaraz berba egiteagatik.

#### Transkripzioa

- Ehun urte dakazuz, ezta?
- Bai.



- Ya beteta, aurten beteta. Noiz bete zenduzen, urtiak?

- Urtiak, ba, oin nun gaiz? Oktubrian zazpitan.

- Hemen bertan jaio zifan? Hemen jaiotakua zara?

- Ez, ez, ni beste baserri bateko jaiotako nao, Gorordo baserrian, gero hona ezkondu nintzan.

- Eta umetan bizimodua zelakua zan baserrian?

- Bizimodua? Ba bizimodua, goizian jaiki eta ittuara, ittuako lanak ittera, ganauak gobernau eta ittuakuak ittera. Gero etorri eta geuk zerbait armozau eta sorora edo basora edo nunbaittera lanera. Oso umetan ez, e? Pittin bat haunditxuaua inddakuan. Eskolara ez gifan faten, eurixa zanetan eta holakuetan bakarrik, eta holakotxe bizimodua pasaitten geben.

- Eskolia auzuan bertan zekazuen?

- Bai, bai, auzuan bertan eskolia. Auzuan bertan euen.

- Eta nun zeguan, nun? Nun euen eskoliori?

- A, eskolia? Hortxe kamiño onduan, Txopekua badakitzu? Ba Txopekua hantxe, Txopekuan gafiñeko aldetxuan. Oin be hantxe dago, elizia, elizia badakitzu? Ba hantxe, elizen kontran eskolia.

- Eta maixua edo maistria zan?

- Maixua.

- Fraidia?

- Ez, ez, maixua ba, gizon bat, eskolia erakusten eoten ebena. Pedro Migel Galarraga.

- Euskeraz itten eben?

- Euskeraz, bai, horixe euskeraz, euskeraz itten eben harek.

- Eta zueri klasiak euskeraz emuten otsuen?

- Guri erderaz, liburuok eta, baiña guk ez geben jakitten ze esaten eben, ez gekixen tautik be erderaz ta.

- Eta euskeraz egittiarren baiña zigorrik eta, kastigau ez otsuen itten.

- Ez, ez, euskeraz, guk euskeraz itten geben berba danak, euskeraz.

- Eta ze ikasten zenduen? Danetik?

- Ze ikasten geben? Ba dotriña ta leitten ta eskribitten ta holakotxiak, danetik pittin bana, danetik.

- Eta kontuak itten be bai.

- Kontuak itten, ni ez nintzan allegau kontuak ittera, lehenengotik ikasi bihar izaten zin oraziñuak, oin oraziñuak apenas bape ikasten daue, baiña orduan oraziñuak ikasi bihar izaten geben lehenengo, ta gero eskribitten ta, leheningo palotiak itten.

- Zenbat urte eon zifan eskolan?

- Eskolan? Ba zortzi bat urtekin o hola hasi eta geo beatzikin kriada fan nintzan ta. Eskolan denboa gutxi in neben nik, oso.

#### 4.6. Ume jolasak

- **Hizlaria(k)**: Kortabarria Urrutia, Rosario
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-045/008
- **Iraupena**: 0:03:06. **Hasi**: 00:20:40. **Bukatu**: 00:23:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Umetan jolasik egiteko astirik ez zuten izaten. Hala ere, "sapakonetan" (tortolosean), "afielka" edota sokasaltoka egiten zuten batzuetan. "Afielka" eta "sapakonetan" jolasak azaltzen ditu.

## Transkripzioa

- Eta umetan eskolatik urtendakuan ta eukitzen zenduen jolasteko...
- Ez, ez zan egoten jolaserako astirik, aguro etxera.
- Lanera.
- Bai.
- Eta orduan jolasik bapebe ez zenduen itten?
- Ba bapebe, bittartia geukanian apurren bat bai, baiña gutxittan jolasen, gu jolasen ikasi be ez geben in.
- Domeketan eta zerekin entretenitzen ziñazien?
- Zekin entretenitten giñan? Ba sapakonetan ta afielka ta sokasaltoka ta holaxe.
- Sapakonetan ta sokasaltoka badakit zer dan, baiña afielka ez dot sekula entzun.
- Afielka ez? Ba afiela hemendik horko aldera bota bai...
- Afiela, afiel-afiela?
- Bai, afiela bota eta han in hola kuadrotxo bat, arrastotxo bat, eta hara kuadro barrura sartzen dabenak irabazi.
- Afiela, erropairi ifintteko afiela?
- Bai.
- Oseake balonzestuen antzerakua orduan.
- Bai.
- Alaba: kaniketan antzera.
- Eta asmakizunak esaten ta, holaxe.
- Eta etxian kontatzen zetsuen ipuiñik edo? Kontu zaharrak edo? Amak edo kontatzen zetsuen ipuiñik edo istorixarik edo pasadizorik edo?
- Amak eta? Bai, beti be kontaitten zittuan, baiña haik be gabetan ohera fateko deziditten egoten ziren, kantsauta ta, ez euen eukitten gurekin barriketan egoteko gogorik be.
- Eta bestia, sakaponetan edo, sapakonetan, zela jolasten zenduen?
- Sapakonetan? Ba sapakonetan, sapakonak bota bai, hola mahai baten gaiñian edo alturatxo baten gaiñian, eta gero jarri eta pelotia gora bota eta pelotia goixan dauen bittartian buelta eragin hairi ta...
- Alaba: gaurko umiak sapakonetan ez daue ikusi.
- Zer danik be ez.
- Alaba: gaurko umiak ez dauela ezagutu sapakona.
- Ezagutu be ez euen ingo sapakonik.
- Guk bai.
- Honeik bai baiña.
- Alaba: sapakonak dira "tabas".
- Guk tortolasak esaten dogu.
- Tortolasak?
- Honeik tortolasak, bueno, izen asko dakuei, leku baikotzian izen bat.
- Zela?
- Honeik esaten daue "tortolasak" sapakonairi.
- Guk sapakonak. Beste batzuek erderaz "tabas" izango dira.
- Eta kanturik eta itten zenduen?
- Kantuak? Guk kantu gutxi itten geben.
- Hola, jai egunetan ta Gabonetan eta ingo zeuein?
- Bai, itten geben.
- Oingo antzera.
- Bai.

#### 4.7. Donostiara lehen aldiz

- **Hizlaria(k):** Kortabarria Urrutia, Rosario
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-045/010
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:28:17. **Bukatu:** 00:30:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Donostiara lehenbiziko aldiz 17 urterekin joan zen, trenez. Itsasoa orduan ezagutu zuen.

#### Transkripzioa

- Eta hemendik Donostiara eta faten ziñain sekula?
- Ez, Donostira ni leheningo fan nintzan 17 bat urte dakotela.
- 17 urte?
- Bai, anaia eta bixok fan giñan, gerran hil zan anaia eta bixok. Eta Donostin geukan tiuak, ta hantxe egon giñan, hain etxietan, haixen etxian.
- Eta trenian fanda?
- Horixe, trenian fan bihar, oiñez ezingo giñan behintzet fan.
- Ta nundik faten ziñain, Maltzagati?
- Bai, Maltzagatik.
- San Prudentziotik Maltzagara eta Maltzagatik Donostiara.
- Bai, bai, Maltzagatik hara.
- Eta ze, denpora asko egon ziñazien Donostian?
- Ez, egun baten fan eta bestian etorri edo, holaxe, bisittaittera fanda. Eguntxo bai edo bi pasaittera.
- Ta lehen esan dozu 9 urtekin neskame fan ziñala. Ta ze lan, ze bihar egitten zenduan?
- Ze lan?
- Bai, ze izaten zan zure biharra?
- Bueno! Ba han be etxian itten geben lana, soruan ta...
- Ze inpresiño ekarri zebeñ Donostiatik?
- Ze inpresiño? Ba itsasua ta ikusi ta.
- Leheningo aldiz?
- Bai.
- Ta ze pentsau jatzun itsasua? Itsasua ze pentsau, ikusi zendunian?
- Ze pentsau? Ba pozu haundixa zala, zelaixa lakotxe zera ikusi gebela ta, holakotxiak.

#### 4.8. 1914an jaioa; gurasoen jatorria

- **Hizlaria(k):** Madina Anduaga, Baxili
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-046/002
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:00:40. **Bukatu:** 00:04:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** 1914ko uztailaren 11n jaio zen, Arantzazuko Ama Birjina agertu zen egunean. Beti bizi izan da Latostegi baserrian, baina gerra

denboran urtebete egin zuen Madrilen neskame Pidal familiaren etxean. Aita bertakoa zuen, baina berak bi urte zituela hil zen. Ama 19 urterekin ezkondu zen Lastotegira.

### **Transkripzioa**

- Ze urtetan jaio ziñan?
- Milla... milla bederatzirehun ta hamalauan.
- Eta ze egunetan?
- Garagarrillan hamaikan, Arantzazuko Ama Birjiña agertu zan fetxa berian.
- A bai, e?
- "Once de julio", Corpus Eguna zan, Corpus Eguna, eta gero, ba, horregatik hurrengo egunian bataiatu nindduen.
- Eta hemen bertan jaio ziñan?
- Bertan. Hemendik kanpo urte bete in dot bakarrik. Gerrako denporan hau etxeau bete zan jentiakin eta neuk be aprobe txau neben ba urtebete, kanpuan zer pasaitten zan ikustera. Madrillen egoten zienak eta udan hemen egoten zienak, "Señoritas de Pidal", oso famosua zan ministro baten alabak.
- Señoritas de... ?
- Pidal.
- Pidalez?
- Pidal, Pidal. Euren alabia izan banitza, haik solterak zian, baiño gehixao gura nostein. Zeatik? Ortuan lana itten bakarria izan nitzan, ortua eukein haundixa eta handik berdura ta bihar dan dana ekarten nosten etxera. Sukaldaritzan be in neben, eta sekula kejarik ez neben euki, eta nik uste dot euki, euki in banittuan failuak be, tapau in nostaila gaiñera, iñor ez da perfektua ta.
- Eta gurasuak, bertakuak zian?
- Gurasuak, nik bi urte ez dakotela nere aitta hil zan, nik ha ez neben ezagutu, eta txarrena antzerki bat be ez zala geldittu bereik, horrek emun nostan min, horrek. Horretxek emun nostan min. Beti amari pegauta letxe, ama onduan, saiatu nintzan.
- Eta bertakua zan? Oñatiarra?
- Hemen jaixua bera. Fan zan, hemen Madinabeitia izeneko mediko bat euen, baiña itten eben lana Bilbon, ta fan zan, estomaguatik fan zan hara, baiña honutz datorrela emun otsan, perforau in xakon estomagua, aizu, eta lagun batzuen etxian sartu zan eta hurrengo egunian bertan hil zan. Nik bi urte ez neukala hil zan aitta. Eta gero nere anaiak eta asko lagundu nostain. Hola ifiñi bihar dittozu /bittozu/ eskuak eta hala ifiñi bihar dittozu / bittozu/ ta bestia in bihar dozu /biozu/ eta holaxe zu. Baiña oso argixa izan nintzan gauzak ikasten, zazpi aldiz esan biharrik neri sekula ez dau euki iñork, behin esanda ondo hartzen dittut gauzak.
- Eta ama bertakua zan be bai?
- Ama kanpotik etorri zan, Zulatzatik. Hemeretzi urtekin etorri zan hona nere ama.
- Ze etorri zan, neskame edo?
- Ez, ezkondu in zan hemeretzi urtekin.
- A, hemeretzi urtekin ezkondu zan.
- Bai, garai hartan nik uste dot gazte samar ezkonketan zala jentia.

#### **4.9. Apaizari zuka hurbiltasunagatik**

- **Hizlaria(k)**: Madina Anduaga, Baxili

- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-046/004
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:04:45. **Bukatu:** 00:06:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa  
Euskara » Tratamenduak  
Euskara » Tratamenduak » Berorika
- **Laburpena:** Ikasketak dituen jendeari "de usted" hitz egin behar zaiola dio. Hala ere, berak apaiza oso hurbilekoa izan omen du beti (bera eliza garbitzen ibiltzen zelako) eta ez du izan apaizari berorika hitz egiteko ohiturarik.

#### Transkripzioa

- Nik "usted" errezago trataitten dot neuk be, holaxe eskolatik edo nik eztakit zer ta, baiña, enkanbio nik konfiantza dakoten abaria trataitten dot "de tu", neure hurrekoa izan ezker, ha be "de tu". Neuk famelixa moduan danak "de tu", baiña hortik gaiñera, halabe karrera bat dakon gizona betik "usted" trataitteko legia da, karrera bat dakona "usted", legez "usted" tratau bihar da. Bai, gaur eztakit hori asko errespetaitten dan, baiña ez euen geixki errespetaittia.

- Zeuek apaizari ta "berori" itten zetsazuen?

- Bueno, nik apaiza oso hurrian euki dot hau Uribarrira etorten dan don Sabino be, oso hurrian eta hainbeste hurrian elizako lanetan, garbiketan, betik garbiketan, uste dot San Andres azkeningo neuk garbittu nebela, hala, eskillaria ifiñi ta dana garbittu, goittik-behera. Baiña oso... ni betik apaizen onduan. Leheningo etorri zien hona...

#### 4.10. Erizain eta etxekoandre

- **Hizlaria(k):** Madina Anduaga, Baxili
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-046/011
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:18:25. **Bukatu:** 00:21:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena:** Senarra osatu bitartean egin behar izan zituen lanak. Labesuak eta "karapaixuak".

#### Transkripzioa

- Eta ondiok ume gehixao euki zittuein.

- Bai, beste hiru, sei, sei dakuu guk.

- Klaro, esan dozu hiru zeukatzula...

- Bai, akzidentia euki ebenian hiru geukan. Eta bueno, tristia izan zan ha, benetan tristia izan zan neretako, etxian be atendi bihar, etxian ba neska bat oso ona geukan, baiña, kanpokua baiña oso konfiantza haundikua, ta bai, artian be, ba, ganau pillia be, dozena bat ganau eukitten gittuan ba, ta haik eta gero esnia jaitzi ta lanak egoten zien. Ni esnia jaitzen ibiltten nintzan.

- Eta zu bertan jaixua bazara, gizona nundik etorri zan hona?

- Goixenetxekua.  
 - A, Goixenetxekua.  
 - Bai, hemendik behera goiazela, hor Gastiasoron hor...  
 - Bai, badakit nun dauen etxia. Rafael itsuaren parientia?  
 - Bai, haren tio, bai, bai, eta oso majua gaiñera be, bueno. Gizon bat zan! Nik esaten nebena beti ondo euen harendako, nik ez dakit zer pasaitten zan, nik esan hau hola in leike, bestia hola, ta dana ondo! Eta itten nittuan tremendako tartak domeketan ta itten nittuan ta, ogixak betik esaten nostan: "Bizkotxua baiño gozuauak ein dittozu". Ogixa itten neben danian esaten nostan. Ogi onak in be itten gittuan, baiña "Bizkotxuak lako gozuak in dittozu".  
 - Bape labesurik badakozue oin, ala ez?  
 - Eta gero, ba, berak eraten baeben baso bat arduu kalte itten otsan! Oin ez dou itten labesurik, baiña orduan ba aste daneko ogixa itten zan, eta lau egunian edo, pittin bat sikatuko zan, baiña igual-igual egoten zan. Ondo tapauta oso manta garbi-garbixakin ondo tapauta ta labesua itten oso garbi ibilli bihar da, oso txukun.  
 - Baiña labesua ondiok badakotzue edo ya hori kendu in zeuen?  
 - Ez, kenduta dakogu, eta dakogu tremendako despensia bertan.  
 - Haren lekuan.  
 - Bai. Eta ba hola, baiña nik labesua? Gaur be ingo neke nik labesua, gaur be, pozik gaiñera. Hor be ingo nittuke bi ogi holakotxiak luziak, labian, ta bixakin e, aste honetan gogua dakot, karapaixua edo zerbait itteko gogua baxakuat ba nik, karapaixua hola, txorixakin in, eta hori oso ederra izaten da, txorixuakin, hemen mikuakin, txorixak dittuala, bueno! Oso polittak.

#### 4.11. Etxean gizonik ez

- **Hizlaria(k)**: Madina Anduaga, Baxili
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-046/012
- **Iraupena**: 0:01:51. **Hasi**: 00:21:00. **Bukatu**: 00:22:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**: Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Umetan, aita hil ostean, aitajaunaren oso lagun egin zen, baina hau ere laster hil zen eta handik gutxira bere anaia soldadutzara joan zen.

#### Transkripzioa

- Umetan, esan dozu, aitta hil zala zuk bi urte zekazuzenian. Ezan bizimodua erreza izango gero, ezta?  
 - Ez ba, aittajuna bizi zan.  
 - Aittajuna bizi zan?  
 - Bai, aittajunak esaten ebela, hainbeste ezagutu zittuela hemen, baiña danetatik onena neu nintzala. Ni trankilla betik izan naiz, baiña hola pentsau ingo eben momentu hartan aittajunak, [...]  
 - Eta zu zer ziñan, alabarik zaharrena?  
 - Gaztiena.  
 - Gaztiena gaiñera? Eta gaztiena geratu etxian?  
 - Gaztiena neu nitzan danetan, zortzittik gaztiena. Eta aitta barik geratu nintzan bi urtekin. Bai, ama 19 urtekin etorri zan hona, nire ama, oso-oso

fiña, langillia, bueno, zan langille aparta zan, aparta, aparta. Hemen kanpo asko euen ta nehiko lan ebali eben berak.

- Dozena bat ganau bazeukein, horrek lan asko emuten dau.

- Lan asko, hemen etxe-buruan dakuu terreno sail haundixa, zelai dago dana, baiña bi urteko ogixa hartzeko baiño gehixao.

- Eta, aitta ez zekazunez, [...].

- Gero aittajunakin ni beti aittajunaren onduan ibiltten nintzan gero aitta hil xatenian ta aittajunari baba-baltza gustaitten xakon asko, baba-baltza jaten eben berak, aparte jaten eben mahaitxo baten aittajunak, baiña ni haren mahaixan betik, aittajunen mahaixan baba-baltza neri be gustau, gustau itten xaten baba-baltza neri, aittajunakin hori jaten neben ta gero ha aittajuna pulmonixa batek harrapo dost eta ez aitta eta ez aittajuna geratu nitzan.

#### 4.12. Jaiotetxea eta erreken bide zaharra

- **Hizlaria(k):** Ugarte Umerez, Nikolas
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-049/001
- **Iraupena:** 0:05:03. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:05:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- **Laburpena:** 1942an jaio zen Nikolas, Arantzazuko Ama kalean. Kalea bera zuten jolasleku mutikotan. Erreka estali aurreko erreken ibilbidea azaltzen digu. Harrobirik ez zegoenean, igeltseroek euren lanerako harea errekan jasotzen zuten, uholdeen ondorenean.

#### Transkripzioa

- Hasteko berrogeta bikua zarala komentau dogu lehen, eta nun jaio ziñan?

- Oñatin.

- Oñatin baiña, kalia?

- Bai, "Calle Nuestra Señora de Aránzazu" zan lehen. Oin be uste dot hola jarraiketean dauela ondiok horrek.

- Ez.

- Zela ke ez?

- Atzeko Kalia.

- Ez, Atzeko Kalia da Itturritxoraiño iturriraño, eta gure kalia da handik gora "Nuestra Señora de Aránzazu" handik Benedinetaraiño.

- A bai, Arantzazuko Ama Kalia izango da hori.

- Zazpigarren, zela esaten da, zenbakia edo numerua edo.

- Kalia jaio ziñan, eta gurasuak bertakuak ziran be bai? Oñatiarrak?

- Bertakuak, oñatiarrak.

- Bertan, kalekuak edo...?

- Kalekuak bixak, bai.

- Eta zelakua zan, hori, Arantzazu Kalia?

- Arantzazu Kalia? Bueno, ba badau diferentzia oinguagandik porke oin hor dauen plazuelia umiak eta jolasteko ta horreik bi plazuela horreik, ba horreik ziran lehen, gora goiantzela, Arruen fabrikia, aixkora fabrikia zan, eta bestekaldian euen, ba "Economato de Garai", eta gero euen holako ortu batzuek euzen, baiña baikotza bere paretiakin, ba kale estu bat, gure

jolaslekua ha izaten zan, guk han itten geben fubolian, pelotan pareta ezkiñan baten, ez euen kotxerik, bakar-bakarrik behi karron bat edo hola etorten zanian nunbaittetik, ezta? Baiña kotxian ta billurrik ez euen ta jolaslekua kalia izaten zan lehen, bai.

- Zuk han errekoa tapau aurretik be ezagutuko zeuben, ezta?

- Bai, ezagutuko ez neben ba, horixe, errekoa etorren ba, por ejemplo oin, "Argi Elektrizidadia", handik pasau daue ezta? Baiña lehen etorren gure etxe atzekaldetik eta joten eben Potteuen etxe atzekalderaiño, eta Potteuen etxe atzekaldetik ba, urteten eben justo, hemen badau zubixa, hor dentistia badako Arabaolazak, hor urteten eben errekiorek, bai.

- Eta hor euen tarte hortan euen Arrue fabrikia, hori gehixen hori Arruen fabrika erabilten eben, eta oin hori da, ba honeitxek, Bidebarritta ez, baiña ze esango dotsut nik, ez dakit zela esan, Itturritxoko hori atzekalde hori, hori prazueliori ta, hori dana lehen fabrikiana zan, Arrue fabrikiana zan, hemen badau oin...

- Esaten dozu orduan Ekonomatutik dentistiaren etxe ostera zuzenian xoiata?

- Ez, ez, ez, oin bai, Ekonomia... a, etxoin, itten eben, e, Xegunduen etxia badakitzu zein zan? Zuk bai, badakitzu zein zan Xegunduen etxia, Xegunduen ez dakitzu zein dan? Oin be han dau ba ondiok etxiea, Galfarsoro, Felipe Gorosmendi eta bizi dirana?

- Ez dittu /ettut/ ezaguketan.

- Ez zea, ezagutuko dittozu, Portalekuan! Portalekuan, bueno ba, itxe horren Xegunduen atzekaldian, juntaitten ziran Ubao errekoa eta Olabarrieta errekoa, horrek jarraiketan eben gure etxe atzekaldetik, Txorin etxe atzekaldia eta horrek jotzen eben Txarraskon etxe atzekaldetik Potteuen ta Bar Torre, Bar Torre, han atzekaldetik eta gero handik zuzen-zuzen urteten eben honaxe zubi ingurura urteten eben errekiak, eta gero ointxe dakon kursua errekiak. In ebein Xegunduen atzekaldian hartu eta han kalia, kamiñuan azpittik doia errekoa oin zuzen urteten dau Itturritxora urteten dau, lehen itten eben hau rekorrido hau itten eben. Eta errekek, ba bueno, guk ezagutu izan dogu hor Xegunduen atzekaldian itten zan holako remanso bat, erreka bixak juntaitten zien lekuan, eta uraundi batzun ondorian herriko igeltseruak hara sartzen zien eta urak ekarritako hareia eta zera etara eta aprobetxau itten ebein, euren lanetarako. Iñaxio Urdintxuenak eta hor inguruan egozen igeltseruak han sarri ekusten nittuan nik hareia etaraten.

- Batzuk amorraiñak harrapaitten eta bestiak hareia etaraten.

- Kanterak hasitta euzen ordurako, baiña ondiok ez ziren kanterak zaharrak, e? Herrixan euzen holako puntuak bastante euzen, igeltseruak aprobetxaitten ebeña eurandako hareia etarateko.

#### 4.13. Jaiotze dataren inguruko nahastea

- **Hizlaria(k):** Jauregialtzo Arriaran, Migel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-051/002
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:01:08. **Bukatu:** 00:02:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Jaiotegun nahasia du Migelek, ezkondu zen eguna arte 10 egun beranduago betetzen zituen urteak.



### Transkripzioa

- Hori zuan, hemen juzgauko aguazilla...
- Txartes, bai.
- Gu gintzuan parientiak, gere aitta eta Txartes txiuzan (zittuan) primo karnalak txiuzan, ta fan nintzarian, "hi heure egunian ezkondu bihar dokela /biokela/", "hi heure egunian ez haiz ezkonketan, hire eguna dok "seis de septiembre", ez "dieciséis"".
- (Emaztia): Klaro, hori egongo ziran fan zanian erderaz ez ekixena bat eta bestia euskeraz ez ekixena. - Geizki apuntauta orduan?
- (Emaztia): Bai ba. Eta guk denpora danian dieziseisian zelebrou geben; eta oin zelebraiten dogu dieziseisian, zelebraiten dogu seisian eta zelebraiten dogu San Mieletan, danetan,
- Karneta itteko zera zela etorri ziran, ta karneta gero juzgauan nik ipiñi neben seisan, eta neuk karnetan ba fetxa bat eta ezin zekien ipiñi, eta juzgauan bertan in xuein "seis de septiemre"ra kanbixau, seisera, baiña ezkondu arte, oin 50 urte arte, ni "dieciséis de septiembre".
- Baiña azkenian jaixo ziñan seisian edo hamaseixan?
- Seisian, seisian.
- (Emaztia): harrapoizu hola izan zan!
- Ni ezkondu ez banintzuan ni betik dieziseisekua segiuko nuan.

#### 4.14. Oñati inguruan ibiltzen ziren ijitoak

- **Hizlaria(k):** Kortabarria Agirre, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-053/022
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:58:40. **Bukatu:** 01:02:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- **Laburpena:** Ijitoak ibiltzen ziren auzoan zehar, eskean edota lapurretan. Ijitoak neguan mendi-txabolak erabiltzen zituzten bizilekutzat, baita erditzeko ere noizbait.

### Transkripzioa

- Lehenau asko ibiltzen ziran, ezta, baserrietan? Jitanuak baserrikerik baserri asko ibiltzen ziran, ez?
- Baiña ze akordaitten xaten hori, ohosketia, astua zerien kabezadia sartuta bai, eta astua handik akordau eta bazkaitten, bazkaldu egin ta fan eta astuak kabezadia falta. Jittanua, haxe be harrapo, e?
- Bai, e?
- Haxe be harrapo. Ta ni akordaitten naiz araxak, artalderako arai zerak eta araxak eta, egoten ziren hola udaran zerien, hola gobernaitten egoten ziren etxe onduan soka... eta katiñen be etxe batzuk eukitten euen, katie luze bat, eta ha lotu ta iñora be ez zan faten, eta araxori hantxe. Eta ba behin falta ta araxori libre, joiño, zela pasau dok ba hau hemen? Kateia falta. Ta bueno ba kitto, kateiori falta. Ta handik ba hamabost egunera edo zera ta; hi! Antzuolako baserri batekuak: zueri pasau xatzue? Katerik falta dozue araxenik? Eta bai. Eta ze ba? Geurera etorri zittuan, ogi baten truke kateiori! Ostu, eta ...
- Beste baserrira fan.
- Bai, eta ogi baten truke kateia. Hortantxe, bestela be hola zeozer baeuen osketako modukua, eta iñor inguruan ez baeuan, hori seguru.

- Eta eskiara etortzen ziran etxetara?  
 - Etxera be bai, horixe etxera. Gure etxe ondoko hala be egoten ziren hareik batzutan. Horreik jittanuak lanik ez, bapez, jittanuak sekula ez dau lanik in. Eurak ez direla hortarakuak, baiña ostu bai, e? Bueno... ostu bai.  
 - Eta eskian ala... edo zeozer saltzera etortzen ziran? Edo bestela eskian? Eske etorten ziran etxera?  
 - Bai, bai, hareik gura izaten euen dana, ogi zati bat edo tremesa edo, artouruna edo patatia edo, eske, eske baiña horixe. Eta horreik izan zan hori raza hori ba, oin ezkutau da hemen, ezkutau da.  
 - Kanbixau igual, lehen baserrixetan ibiltzen ziran eta...  
 - Bai, bai, eta hemen horreik itxabola jekitteñuak eukitten euein horreik, geure, horreik hola neguan, aizegordian dauen itxabolak negua pasaitteko ta.  
 - Han bizi ziran?  
 - Bai, hemen errekatik goratxuago, ezkutauta dago txabola bat, bota euen ha, bat, andra batek hortxe umia in eben, etxabolan, e? Hortxe, hori klinikia, e? Hortxe, basuan, etxabolan.

#### 4.15. Etxeaundin jaioa

- **Hizlaria(k)**: Etxezarreta Galdos, Bitoriano
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-054/002
- **Iraupena**: 0:03:21. **Hasi**: 00:00:08. **Bukatu**: 00:03:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: 1925eko martxoan jaio zen Etxeaundi baserrian. 29 urterekin joan zen kalera bibzitzaera, apopilo, Urubilenera. Mugarza Ugarte y Cia-ren galdategian egiten zuen lan. Emaztearen etxera ezkondu zen eta geroago beren etxea erosi zuten.

#### Transkripzioa

- Bitoriano Etxezarreta zara, ezta?  
 - Galdos.  
 - Eta, Galdos bigarrena. Eta ze egunetan jaio ziñan?  
 - "El 6 de marzo del año 25". Larogetakak aurrera.  
 - Eta nun jaio ziñan?  
 - Etxeaundi.  
 - Etxeaundi baserrixan?  
 - Baserrixan. Eta han bizi izan nintzan 29 urte artian. Eta gero kalera etorri giñan, arrebía ezkondu zanian zera, Ormaiztegin dakot nik arreba bat. Ha ezkondu zanian ba emakumerik ez zan geraketan Etxeaundin. Arrebía bestia kalera ezkondu ta euen ta zera, lau mutil, eta aitta han euen artian.  
 - Eta ama?  
 - Ama aspaldi hildda euen eta bueno, holaxe kalera etorri giñan, zerien egon giñan apopillo, hori zela da?  
 - Pakonian-edo? Pakonian-edo?  
 - Ez, ez, han goixan, zera, zer onduan... ahaztu itten xaku gauzak-eta.  
 - Hemen kalia?  
 - Kalia, kalia. Urubillen! Urubillen.  
 - A, Urubillen.

- Urubillen, bai.

- Emaztea: Ez dakitzu zela euen Urubilgo tabernia lehen han?

- Bai.

- Emaztea: Hara fan ziren honeik apopillo, bai.

- Eta han apopillo gauzela gure anaia, bixok geozen han, eta gu egon giñen oseake gehixau kobraitiatik, oseake ordutan gehixau kobraitiatik, osea seguruari itxi in gotsan gehixau kobraitiatik. Ez dau ba pleuresiak harrapaitten zeori, mutillori, eta guk xemikorik be ez, ezebez, (...) taka, taka, hillian, bi hillabete pasauan, hiru hillabetien taka, taka, taka, biren zera, patronia pagaitten han. Taka, taka, taka, (...).

- Ze lanetan zebitzein?

- Fundiziñuan, "Mugarza Ugarte y Compañía" lanian. Oin nik neuken fabrikan gura neben beste ordu, oseake aparte de neuk itten neben lanetik, soldaduran itten neben ba lana, ta neuk gura doten beste lana. Eskarrak harexeri, dale ta dale ta dale ta dale. Bueno, ha akabo zan. Gero hurringo bueltia zera, nora edo zer edo, mobiu in bihar dou nunbaittera; topau neben nobixia, ezkondu in bihar zan. Ezkondu baiña noiz? Bost urte edo tardau geben, azkenian ba, neskian etxera ezkondu nintzan bost urte horreik pasau ziranian. Ezkondu eta hiru bat urtian edo lau batian edo han egon giñan. Gero etxia hartu bihar zan, etxia hartu zerian, hauxe etxe hau hartu, 350.000 uste dot zala. Eta erdixa inguru baneukan, erdixa inguru ifiñi eta beste erdixa pagatzeke, etorri hona eta bizimodua taka, taka, taka.

#### 4.16. Umetan sukaldari

- **Hizlaria(k)**: Uriarte Eizagirre, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-057/006
- **Iraupena**: 0:04:15. **Hasi**: 00:12:08. **Bukatu**: 00:16:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**: Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Mirenek 6 urte zituela, ama gaixorik zegoen ohean eta berak egin behar izaten zituen erosketak eta etxeko lan batzuk. Oilarrarentzako zaperoa ere jan izan zuen bere anaiarekin batera.

#### Transkripzioa

- Zenbat gaztiaua esan dozu dala?

- Hogei hillabete da ni baiño gaztiaua zan bai, urte bira ez zan allauten.

- Harek lau ta erdi edo hola eukiko zittuan, lau urte eta erdi edo?

- Bai, bost in baiño lehenao behintzet, bost in biharko zittun nere anaiak maiuan eta ama hil zan marzuen, ta nik sei urte indda neuken setienbrin eta ama hil zan hurringo marzuan, ta hurringo setienbrin ingo nittuan nik zazpi.

- Eta aurrekuan kontau zendun hori, ama gaixotu zanian zeuk in bihar izaten zenduzela...

- A, bai, ene, ene! Akordauten hasitta be, "desde luego", sekula ahaztuko etxatena da Zumarragan, lehen esan dotsuet ezta? Zela egon giñen baserri baten? Ta amak uhetik aginddu: "etorri zatez hona ta fan" ta amak aginddu lanak zela in. Kalera fan, eta ez euen urrin, hortxe Aizpurutxuko, Aizpurutxura bidia hartzen dan lekuen baserri bat, ta handitxek kalea bidien, ibillera luzia ez zan baiña bai, fan bihar izaten zan kalera ezer bihar

bazan. Ogixa, ardaua eta okelia eruan bihar nittun, hiru erreka horreik, eta eruan nittun eta eruan nittunian itxi nittun sukaldeko mahaixen gaiñian. Ta ama euen goixan, habitaziñuan. Onddiok ekusten dot eskillara zahar-zahar batzuk zien, "ti-ta-ta" igo neben ta ama, ta zer, ta "In bihar dozu /bihozu/ beheko sua, lapikua ifiñi" eta aginndu nontan zela in zeori, lapiku ifinttiori. Eta behera fan orduko ahaztu amak ze esan nontan, lehenengo ze in eta gero ze in, bueltaka eta bueltaka ebaliko neben buruan bai ta atzenerako ahaztu sei urteaz, eta banoia atzera amari preguntau eta ze esan nontan, hor ikusten dot katua, nere okeli horreaz ittuako atepetik aurrera. Nik in nittun negarrak, nik in nittun negarrak, onddiok sentiuten dot orduentxe letxe! Eta esan nontan amak esan nontan: "Ume, etorri hona! Aiba dirua, fan eta ekarri berriz be okelia". Ez nontan ez berriz harrapo katu horrek okelia neri, handik aurrera banekixen nik zer egin. Eta hori dakot goguan. Onddion Zumarragako primiarri esaten xaot eta, hareik egozen ba han eta hareikin batera... Ha ni baiño urtebete zaharragua zan ta ha eskolara faten zan; eta beste primia, berriz, geruao jaixotakua. Ta harek esaten dau, han mutilzahar batena zan ba hori etxiori, eta euki eben ollalokia txittakin ta ittuako atia zarrauta eukitten eben, kordel bateaz ha lotu-lotu indda goixan. Baiña ni gu hara ez giñan allauten, baiña ollalokiori izten notsan zaperua, zuk badakitzu zer dan zaperua, artorunakin zaperua indda izten notsan holako soldau platu zahar baten, soldauak lehenao ebalten zittuen platu hola gerrixen lotuta txapazko edo aluminio holako itsusi bat, eta holako plato zahar baten zaperua indda. Horrek primiorrek esaten dost: "Ene, eskerrak haretxei zaperuei!" Ha mutilzaharra faten zanian "nos poníamos las botas tú y yo con el zapero". Ha be jatekua. Zuk morokilla eta ez zittun ezagutuko?

- Ez, ez, entzunda. Egositta, ezta?

- Bai, egositta ta, hori eukena ondo, e? Esnie eta morokilla ta eukena ta ondo. Bueno!

#### 4.17. Ganaduzale txokolate zalea

- **Hizlaria(k):** Goitia Orueta, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-058/003
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:03:30. **Bukatu:** 00:07:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak  
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena:** Umetan ez zen neba-arrebak beste joaten eskolara, ganadua zaintzen geratu behar izaten zuelako. Txokolatezale amorratua zen umetan. Baserritarrek lana egiteko ikasitako erak ez zituzten behingoan aldatzen eta honek aurrerapena mugatu egiten zuen.

#### Transkripzioa

- Bai, lehenao be egoten zan gauza bat ezkiñan, baserritarra ez zan adelantau berez, iñor. Badakitzu zeatik? Kostunbre bat hartua lanak euren garaittan, bost-sei lagun bai etxe baikotzian, eta lanak gogorak izaten zien, baiña jentia hala egoten zan, eta hau hola in dogu eta hurringu urtian

be hola eta hurringuan be hola, haretxeri segi, erreztasunik pentsau be ez zan itten gerora. Esango dotsut geu hasi giñan pentsauten, halako ni ezkondu eta jarri nintzarian nere andriakin, gurasuak, ba, edade altuan egozen ixa, aurrera, eta hori edade altuori bizi bada bateri etxako bajaitten, e? Aurrera ta aurrera gura dogu danok enda gero umiak etorri zien eta gurian gurasuak be gu hemen eskola ebali gindduein. Hemen egozen eskolak mutikuena eta neskatilliena, eta ba ganauak zainketako geratu bihar ziranian nire senidietan ni izaten nintzan hor kastigauori, ba ni nenguen, bestiok ez zien hainbeste ibiltten ganauokin eta ni nintzan maixuori. Mutiko txikittatik nago ni ganauakin hasitta, ta "gaur geratu dailla Manuel" aittak. Goizian ganauak zainketako geratu, gero asaldian eskolara, eta hola. Gero ardi garaixa etorten zan neguan ardixak etorten zirenien, hareikin be Manuel geratu bihar izaten eben. Eta amandria, nere amandria neuken asko gura nostana amandria, harek. Eta neuk be, egixa esanda, kasi amari baiño gehixao berari gura notsan. Harek "hau gizajuau betek kastigauta baiña", ta ez dakit ta, ni txokolatezalia, txokolate gordin zalia amandriak emunda, amandriak bestiairi ontza erdi emuten baosten be erdi ez neri, e? Neri beti osua. Eta iñoiz "Amandria badao puska bat?", "Bai, ume, euk(ik)o etxuat ba", ta txokolatia ta ogixa. Neretako janaririk onena txokolatia gordiñik eta ogixaz nik uste dot biziko nintzala besteik barik be. Eta hola be ezin geben etara, ezin giñan aurreratu. Eta gizona extremo baten jarten darian bera fango da lotara, ez dau ingo lo examiñan bat in barik, examiña onduen ohien itten da, hori konprobauta dakot nik. Zuk distraiuta zabitzarian ezin dozu gauza bat estudixau, geratu bihar dozu /bihozu/ geldik, besten entretenimendu barik eta zeure examin hortan sartu bihar dozu, adelantaitteko, e? Ta han pentsauten dan gauziaz gero intentauten dozu aber ondo urteten dan. Baiña orduan lehenao ez zan hori hola, eta esaten dotsu gero miheztu giñanian baserrittan jente gutxi, gu jarri giñanian, bueno, honi frente emun bihar hemen. Umerik ez neukan nik gogorik baserrixan ifintteko. Ezkondu nintzanetik neukan hori, e? Zeatik bizimodu gogorra ezagututa nenguen neria eta honeaz egin bihar xuat / bixuat/ eta jaungoikuari eskerrak osasun fuertekua izan naiz. Eta gero afeziño gogorrekua, eta billurto ez lan asko dauela-ta be sasoia neukenien. Oin gutxikin billurketan naiz e?

#### 4.18. Seme-alaben ordaina

- **Hizlaria(k):** Goitia Orueta, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-058/009
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:24:50. **Bukatu:** 00:26:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Manuelek ahalegin guztiak egin izan ditu seme-alabak ondo hezi eta ikasketak emateko, eta orain seme-alabak arduratzen dira Manuel eta emazteaz.

#### Transkripzioa

- Zeatik lehenauko zaharrok, nik ez dakit zuek zeatik etorri zarien, baiña badauku gere merittuak, e? Mutikotako bizitza nolakua izan zan, gerotxuao nolakua izan dan, geruao nolakua izan dan, eta oin azkena lastimarik

zahartuta, hemen dakogu alabia, errege letxe hartzen gau eta honek luzeketan dabilkelako urtiak, bestela fanda geontzen, fanda geontzen! Eta inddarra emuten, e? Hori gauza haundixa da, bueno, honek etorri eta itten dabena, hori ez da itten... hori e... Eta beste emekume batek be tratau eta itten badozu ingo dotsu, baiña alabia alabia izaten da.

- Aurretik zeuok ondo zainduko zenduen ta.

- Ahaleginddu in nintzan, egixa esango dotsut, e? Ni izan naiz gizon bat umiendako biguna.

- Emaztea: sei urtekin fan zan hau kalera eskolara.

- Alaba: sei urte, hamabira arte edo noiz arte egon nintzan kalia?

- Tianian, horren ahizpianian egon zan. Gu, egixa esango dotsut, ni ahaleginddu ez banaiz umiakatik beste asko ez da egongo ahaleginddu danik, zeatik ni gehixao eziñeraiño ahaleginddu naiz. Ta, esango dotsut, nik ikusten neben aiuda falta haundixa izango nebena, baiña ez nebela gura umerik ifintterik hemen. Hau esango noskio lehendakari, zeari, horreik haundixoiri danoiri esango nosteke, gu hola saiatu gara gere garaixan.

- Emaztea: semiairi esan zosten estudixaitteko gogua baldin badakuei eta ikusten badaue balixo dauela, 30 urte arte lagunduko ostela.

- Lehenao in euen ta.

- Emaztea: lehenao aspertu zien.

- Ba aspertu, eurak defenditteko ikusi euenian, kantsau itten dau estudixuak berak be, nik ez dot aprobau.

#### 4.19. Latinez kantuan

- **Hizlaria(k)**: Arregi Zendoia, Felix
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-062/017
- **Iraupena**: 0:03:18. **Hasi**: 00:56:05. **Bukatu**: 00:59:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**: Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- **Laburpena**: Solfeoa ez ezik kantuan ere ikasi zuen. Kantu gregoriarrak latinez ikasten zituzten. Solfeoko maisua gogorra zen klaseak ematerako orduan. Pertsonaia ezaguna zen Ascensión Zabala maisua, bere janzkera dotore eta pilotarekiko zaletasunagatik, besteak beste.

#### Transkripzioa

- Eta zuan abade bat dotoria e? Mutiltzarra, atletia eta, baiña plastatekuak emuten osken, berihela ez baiian ikasten, eta "aluori" esaten, "alu hori", bizkaitar, bizkaieraz, "alu hori"eta plastatekua, benga, ta hareik danak aguantau ta ixilik. Etxian esaten baiian ba "zeuk be ganorarik ez dozuen (etzeben) euko edo", errazoirik mutikuairi sekula emun orduan e? Oingo moduan e? Oin plastateko bat emuten baldin badau maixo batek baten bateri eta etxera faten bada, maixuak plastatekua emun dost, baxoiak aitta protestan.

- Berihala.

- Honbre.

- Eta zueri orduan ...

- Eta orduan "método de solfeo" aspaldikua, oin ez xakixat zekin ingo dauen solfeua. "Método de solfeo" orduan zuan ba leku guztietan praktikamente bat, zeatik han Donostian neri harek etara nostana bera

zuan, iguala.

- Eta orduan apaizak ematen zotsuen solfeua.

- Apaizak, bai. Organistia eta koruan kantuan.

- Orduan hasi ziñan zu parroixan?

- Bai, bai. Hori don Ascension Zabala gaiñera ha be desagertu in zuan, ha be “rojo-separatista”-edo zan-edo, nazionalistia-edo, desagertu in zuan hemendik. Eta hemen ingo txuan ba bost edo sei urte lehenau, “treinta y seis”, eta badakot Goi Argi, Goi Argi da bai parroixako hojia. Holako baten, bai gordeta xakuat, Goi Argi. Holako bat gordeta dakot, reportaje bat ekarri eben horrena, Don Ascension Zabala, eta zala, perfumauta eta ibiltan zan eta hori bai akordaitten naiz, eta hor ipintten dau hori be, eta sotanatik kanpora jemeluak, zerak, alkondara zurixa, jemeluakin, jemeluak...Eibar, Eibarren ze material itten zan, horixe xakuat beste bat ahaztuta. Jemeluak materiala baltza eta...baltza eta doraua-edo.

- Damaskinaua?

- Damaskinau, baiña ez, beste izen bat euken, Eibarren itten eueilla-edo, hori goguan dakot. A eta behin entzun neben etxian aittari esaten, aitta amari esaten: “hau organista barrixa etorri danau, pelotan itten idau pelota lekuan sotania gerrira jaso eta frakak bistan”. Eta handik bi edo hiru egunera, zailla, han nun ikusten xuat gure organistiori gerrixan, sotania gerrixan lotu, klaro, bestela ezin ba atxintxika egin pelota lekuan, ta pelotan. Orduko kontuak.

- Eta zela ikasten zenduen, solfeo bakarrik eta organua jotzen-edo...?

- Ez, ez, kantuan, kantuan bakarrik, kantau bakarrik. Eta gero ba kantuak zerak, ba gregoriano zera, latiñezkoa dana, elizan dana latin itten zan orduan.

#### 4.20. Meza latinez

- **Hizlaria(k)**: Arregi Zendoia, Felix
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-062/018
- **Iraupena**: 0:02:51. **Hasi**: 00:59:23. **Bukatu**: 01:02:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak  
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak  
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena**: Reyes Korkostegi alkate egon zenean zera erabaki zuen: urtero egun baten latinez abestutako meza ospatzea Arantzazun. Meza ondoren beti jatetxe berean eta beti menu berdinarekin bazkaldu dute azkenengo 26 urteotan.

#### Transkripzioa

- Oin be itten dogu, e? Zuek badakitue azkenengo, aurten in dogu hogeta sei urte, lehen “primer sábado de noviembre” Arantzazun mezia Reyes Korkostegik asmauta, latiña kendu zanetik ba, eta neuri be klaro, mutikotatik hasi ta Konzilio Batikanuan edo kendu zuan latiñezko zera, lehenau funeral danak latiñezko zerak, “líberame”-ta, dana latiñez itten zuan.

- Bapebe entenditten zeuein zeuek?

- Bueno, bai, interesa ipiñi ezkerro badakik ze gura dauen esatia-ta, latiñez-

ta, erderia ta latiña ba bere zera baxakuei, edo? Eta itten xuau “al estilo de antes” Reyes Korkostegi alkate zala asmauta, koruko, parrokiako korukuok gehixenok, bat edo beste ez dok etorriko baiña gehixenok itten xuau urtero mezia Arantzazun eta gero bazkarixa Sindikan, ta mezia latiñez dana, lehenauko zerak, kantuak. Funeralian eta kantaitten geben kantuak kantaitten txuau meza hortan eta gero bazkarixa Sindikan, eta bazkarixa be jakiñekua, e? Orduan itten zan moduko bazkarixa. Hasteko “sopa de caldo bueno”, urtero gaiñera programia itten xuau, e? Hogeta sei urte intxuau aurten, Hogeta seigarren urteurrena, “sopa de caldo bueno con fideo y pistola”, gero “garbanzos con berza”, baiña garbanzuak eta azia nahastuta aparte, garbantzuak txorixuakin eta okela zatixakin egositta, eta azia morzilla odolostiakin, gero “rollo”, okelia izaten dok, “rollo”, eta gero postria “arroz con leche”, konpota eta ze gehixau izaten dok, ta bueno, hori, “menú fijo”, hori jakiñekua, beti iguala. Eta ona e? Oso ona.

- Gosetu in naiz entzuten bakarrik. Orduan hori zemendiko leheningo zapatuan?

- Bai, azaroko leheningo zapatuan, aurten bigarrena tokau dok zeatik leheningua jai zuan, bai, bigarren zapatuan.

#### 4.21. "Berrehun Dios" gaitzizena

- **Hizlaria(k):** Guridi Zumalde, Inazio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-065/006
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:17:50. **Bukatu:** 00:18:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak
- **Laburpena:** Aloña" tabernan, (Inesena), bazkaldu zuten idi-proba egunean. Inesen senarra "Berrehun Dios" gaitzizenez ezagutzen zuten Oñatin.

#### Transkripzioa

- (Semia): han bestekaldian, makiñak konponketan ibilli zana, Idaho, gero tabernia eta sala de fiestasa euki ebena, pare-parian dauena bidien bestekaldetik, haxe zan Aloña, zuek jaten zebein lokala ...

-Aloña izena eukana.

- Zuk 'Inesena' esaten dozuna.

- Bai, Inesena.

- Ines zan ezta, hango zeori?

- Bai, hango zeori. Eta Ines horren gizona zan enkargau ibiltten zana hemen, Donostiako ez dakit zer holako industria, obratako zeren bat, berrehun dios esaten otsain bere esaeria jentiarri lana eragitten ibiltten zan ha bai, eta harek zeukan gaitzizena jarritta.

- Berrehun dios?

- Berrehun dios. Famelirik ez dot uste izan zuenik, zahartuta ezkondu zen Ines ta.



#### 4.22. "Cuba" ondoan bizitzen

- **Hizlaria(k):** Barrena Kortabarria, Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-068/002
- **Iraupena:** 0:04:19. **Hasi:** 00:00:58. **Bukatu:** 00:05:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** 1922an jaio zen San Anton Kalean. Etxe ondoan zegoen "Cuba" tabernara joaten ziren karreteroei buruzko istorio batzuk azaltzen ditu.

#### Transkripzioa

- Ze urtetan jaio zifan?
- Hogeta bixan.
- Hogeta bixan. Zein egunetan?
- Oktubrien hogeta zazpitan.
- Ta nun jaio zifan?
- San Antue Kalian, orduan bizi gifan. San Antue Kalia badakitzu zein dan? Xagu zahar ...
- Honek ez.
- A! Hori Xagu ... zela da hori taberniori? Xagu, Xagu zaharra-edo?
- Bai, Xagu.
- Haxe kalia da, San Antue Kalia.
- Ze etxetan jaixo zifan han?
- Ba ez dakit oin ze numero, numerua kanbixauta dako.
- Lehen ze izen eukan etxiak?
- "Veinti cuatro" zan lehen. Hori Lukas jiboxua ta bizi ziran etxe, etxe haundi bat, han Xagu ... Jesus! Zela da, Xagu?
- Xagutik urtenda hola bueltan bazoiaz kalia bai ta bigarren etxia da. Leheningo dau Lamiategiña, leheningo etxia, huringua.
- Lamiategiña da, Murgiondotarrena?
- Bai, Murgiondo, Murgiondo. Haren aldamera eta gero huringua guria. Bueno, guria ...
- Etxe horrek izenik ez dako?
- Han bizi ziran bata Lukas eta bestia Esteban-ta; Estebanena edo Lukasena, neuk ez dakit izenik eukan-edo.
- Ba igual ez eben euko.
- Gero hona etorri gifan eta harrezkiokuan hemen. Ni etorriko nintzan handik, ba ez dakit, sei urte-edo, sei urtekua edo zazpi urtekua-edo, holakotxe neskailla bat. Arrezkiokuan gu hemen gaoz.
- Handik gero hona etorri zifain.
- Bai.
- Orduan zuk ezagutuko zebeñ 'Cuba' tabernia eta.
- Ene! Ezagutu ez ba? Popularra zan Cuba tabernia. Karretero guztiak horraxa illunkaratan. Bueno, hareik popularrak ziran, Urubil-ta.
- Bai, fan zan astian egon gifan Iñaxio Urikuakin.
- A, baiña ondo jausitta dao gixajua. Oso jausitta dao, ha be hor kuadrilla hortakua zan, karreteruak ziran horreik Urubil, Irazabal, Leibar eta gero Elorduikuak-eta be bai, baiña Elorduikuak ez ziran hainbeste destakaitten, baiña Urubil eta Manuel eta Leibar, bueno, horreik ziran, beno, bueno. Horreik San Inazio egunian be itten euen, San Inazio bezperan, nunbaitten karreterotzan ibilli bai eta bueno, akaberia hemen izaten zan, Cuban, eta

gabe erdixan hamabixak joten euenian Inazio kantau, danok.

- Baiña bezperan.
- Hamabixak joten euenian ya San Inazio eguna zan. Eta hor egoten zan juerga bat, ene ze juerga iñ euein horreik, karreteruorreik.
- Ez dau hortarikua emuten Iñaxiok.
- Iñaxio ez zan hainbeste destakaitten,e? Iñaxio Leibargua, edo Iñaxio Urikua. Baiña honeik beste hirurok ziran ... bueno, horreik ziran e ...
- Bueno, baiña orduan musikarik eta hola ez zan egongo.
- Ez zera, bai zera, baiña horreik eurak ziran musikuak eta eurak ziran horreik dana, musikarik eta holakorik ez.
- Ba esaten oskun Iñaxiok eurak han Mugarzan zerratik-eta, ba ya etxera bueltan ta Santa Mariñan idixak etxera bialdu eta eurak Cubara.
- Zenbat bider iñ ete euen hori.
- Idixak ...
- Eta Mieleneko Damaxo beste bat, Mieleneko Damaxo kalera etorten zan behixakin bai, eta gixajua bete-bete-bete itten zan eta Cuba ondotik pasau barik ezin fan etxera, hor ez dakit zu akordaitten zarien hor labaderua, labadero bat euen hor.
- Bai.
- Eta haren gaiñian errejak bueltan akordaitten zara? Zela eukan terraza bat gaiñian eta bueltan errajak.
- Bai, bai.
- Errajan lotuta itxi zittuan bai idixak, eta bera barruan, ahaztuta nun dauen be, eta mutikuak, mutikuak betik mutikokixak in bihar, makilla batekin zurmitzetan makillia sartu eta idixak jo euen zalapartiakin errejia apurtuta geratu zan. Bueno, eta zenbat bider burdixan fan ete zan ha. Hor nunbaitten itxi burdixori eta idixori eta bera burdixen ipintten euen bai, tremendako tronpiakin, eta behixak etxera zuzen. Askotan baiña, hori askotan pasaitten zan. Horreik popularrak izan ziran horreik, karretero horreik. Ene! Horreik.

#### 4.23. "Sapakonetan" jolasean

- **Hizlaria(k):** Barrena Kortabarria, Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-068/006
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 00:13:03. **Bukatu:** 00:16:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena:** Plazako bankuetan jolasten zuten "sapakonetan"; "toras", "aldar", "pon" eta "sake" ziren "sapakonen" lau aldeak.

#### Transkripzioa

- Eta rekreuan ze jolas itten zenduen? Zertan jalasten zenduen?

- Ba sokasaltoka eta sapakonetan eta. Zuek badakitze horreik? Oingo neskaillak jakin be ez dakixei horreik. Keba! Gu hortan listauak izan gara.

- Ni neu ibillitta nao, bai sokasaltoka eta bai sapakonetan.

- Bai, gu holaxe ibiltten giñen.

- Sokasaltoka itten geben, baiña sapakonetan ...

- Sapakonetan? Bueno, plazako bankuak harrapaittera aguro. Lagun bat, Eugenio aguazilla ezagutu zeuben zuk?

- Tuertua?

- Ez, ez, ez, lehenauko aguazilla, ez, zuk ez zebezen ezagutuko, ba haren alabia Karlota Legazpin bizi da, ezkondu zan Legazpin. Eta ha be kuadrillakua geben, eta haren aitta aguazilla nola zan, harek aginketan eben plazako bankuakin, pentsaitten eben banku guztiak beriak zirala, aitta aguzilla zan ta! Eta leheningo bankurik onena geuk eukitten geben sapakonetan itteko. Gure kuadrillakua zan, hamaika umekerixa! Bueno, jolasian apurtuta!

- Eta zelan zan sapakonetan? Zelan itten zenduen?

- Ez dozu sekula in sapakonetan? Ez dakitzu. Ene! Guk ze disfrutau dogun sapakonakin! Pelota bat eta sei sapakon, bildotsak eukitten daue, hanka muturrian edo hanka orkatillan edo, sapakona, "tabas". Eta horreik dozena erdi bota hola eta pelotia goixan dauen bittartian horreik ... leheningo toras, aldar, pon ta sake, lau, lau alde, lau aldiak izenak eukein. Leheningua 'toras', bigarrena 'aldar', toras, aldar, pon ta sake be bai. Eta leheningoko torasa ba danak galdu barik, pelotiak be ihes egin barik, eta danak formalian iñ ezkerro ba ja osorik, ba ja joku bat indda. Gero aldar, aldarra be konpletua, bale, eta gero pon, eta pon ta gero...zela esan dogu bestia?

- Sake.

- Saka, saka edo sake-edo...bai. Horixe zan jokuori. Eta faltaitten bazeben, hala, fuera! Gero bera, aldamenekua, hurringo tokaitten zana.

- Pelotia aidian zegoen bittartian buelta emun bihar.

- Bai, buelta emun bihar ta aldar edo pon zer zan, ta haren zerian ipiñi bihar.

- Baiña sapakon batekin edo gehixaokin?

- Sei sapakon.

- Sei baikotzak?

- Sei, jokua zan sei sapakon eta pelotia izaten zan.

- Eta irabazten ebenak ze itten zan, sapakonen jabe edo?

- Ez, irabazten ebenak hurringo jokua hasten zanian leheningo eta harek, ha betik leheningo. Pelotia botateko eta sapakonetan ezer erabagittetako ha leheningo. Harek irabazi eben ta. Guk ez geukan, dirurik eta ez euen hola jokaketako eta, beste karamelon bat, karamelo bat be ez. Karameluak Errosarixoko domekan, pagan bat izaten bageben.

#### 4.24. "Lapiko apurketan" jolasean

- **Hizlaria(k)**: Barrena Kortabarria, Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-068/012
- **Iraupena**: 0:02:43. **Hasi**: 00:24:47. **Bukatu**: 00:27:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Txirikiletan eta sokasaltoka jolasten zuten umetan. Handitxoagoak egin zirenean, lapikoak apurtzen jolasten zuten

#### Transkripzioa

- Eta hemen domeketan-eta, ze jolasten zenuen, hemen kalia?

- Gu txirikiletan ibiltten giñan.

- A, bai?

- Txirikillak badakitzu zer diren, ezta? Txirikilletan-ta, sokasaltoka-ta.

- Zelan izaten zan txirikilletan?

- Ba makilla bat holakua eta bestia txikixa, eta ha be hola jo ta urriñen zeñek bataten eben.

- Zeñek urriñago bota?

- Bai ba, txirikilletan hori garizuman hasten giñan horrekin, jeneralian garizuman izaten zan.

- Hori zeatik?

- Ez dakit ba zeatik. Kostunbriak, txirikilletan. Gero lapiko apurketan be bai, baiña lapiko apurketan ya haundixauak, haunditxuauak.

- Hori ez dakit, ez dot sekula entzun.

- Lapiko apurketan, honeik, oin dana zerak, inosidabliak eta zerak dao baiña orduan lurrezko lapikuak tziren, lurrezko kazuelak, lurrezko lapikuak, eta ba erretiraitten ziranak edo bazterketan ziranak kamara batzutan egoten ziren, eta lapiko billa ibiltten giñan, haundixauak bialketan gauzen (gindduen) lapiko billa, ta gero korruan jarri bai, hola korruan, auzoko neska-mutillak, eta batak bestiari botaten.

- Lapikuak?

- Lapikuok edo kazuelak edo dana dalakuak.

- Lurrezkuak.

- Lurrezkuak izaten ziran orduan.

- Eta jausten xakonari?

- Jausten xakonari ez dakit ze euken baiña jausten zanian, bueno, sekulako esakandalua izaten zan.

- Jausten zanian apurtu ingo zan.

- Klaro, zazpi pusketa baiño gehixau, jausten zanién.

- Eta ze ibiltzen ziñazien, auzoko neska eta mutikoak danak alkarrekin?

- Ba gure lagunak, mutiko, guk mutikuak be lagunak geukan.

- Eta nun ibiltzen ziñazien jolasian, plazan-edo?

- Hementxe be bai, hementxe auzuan be baitta, komerixak itten-ta, ez dakizu? Komerixak in, entradia zerakin, papel, papel kolorezko papelak zertu, bazeukan, eta entradia harekin pagau eta atian bat kobraitten. Bueno, orduan egitten gittun ...

- Baiña benetan kobratzen zenduen ala ...?

- Bai! Papelakin!

- Eurak jolasian.

- Zuek jolasian.

- Jolasian, jolasian, komerixak, barruan han kuadrillako batzun batzuk fan zeozer ikasi bai, zerbait esaten erderaz ta ikasitta, erderaz be beekixein eta, erderazkuak be, erderazkuak be esaten euen, bueno, guk itten gittuan ... holakotxe gauzak.

- Denpora pasa.

- Bai, denpora pasa, denpora pasa. Holaxe.

#### 4.25. Erreal biko soldata umezaintzan

- **Hizlaria(k)**: Barrena Kortabarria, Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-068/017
- **Iraupena**: 0:02:13. **Hasi**: 00:38:38. **Bukatu**: 00:40:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak  
Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

- **Laburpena:** Altzari dendarentzako mandatuak eginaz ezagutu zituen soraluzetar asko. Pilarren lehenengo soldatak: umezain zegoenean erreal bi eta merienda; Soraluzen hamar duro hilean; eta Garai lantegian 3,20 pezeta egunean.

### Transkripzioa

- Nik lehenao jente asko ezaguketan neben, hango jentiok, zeatik gero zela egon nintzan esan dotsuten mueblerixa horretan askotan ba sobren batzuk edo fakturak-edo eureten, [...] fan zatez zerana, zerari, izenakin esaten nostain, ta nun dao hori? Eta halako lekutan. Han ikasi in neben ibiltten. Ibiltten ta jentia ezaguketan, jente asko ezagutu neben.

- Rekadista ibiltzen zinan orduen.

- Bai, bai. Gila, labadero [...], Gila-ta, bai.

- Eta gero hona etorri ziñanian Garain, bueno, lehen esan dozu umezain egon ziñanian erriel bi ta ...

- Erriel bi ta merienda.

- Erriel bi ta merienda pagatzen zetzuen, ta gero neskame joan ziñanian ...?

- Hamar duro hillian.

- Hamar duro hillian?

- Bai. "Y eso era mi jornal". Hillian hamar duro eta gero pittin bat jaso in nostain, gero ixa hamabi duro, eta bueno.

- Pozik.

- Horixe pozik.

- Eta Garaiñian zenbat pagaitten otsuen.

- Garaiñerako basia zan leheningo hasi giñanian "tres veinte"-edo, gero "seis", "seis" ta gero ez dakit zenbat zan.

- Baiña horrek hillian zenbat itten eben horrek? Hillian?

- Hillian! Guk hamabostian hartzen geben sobria, guk hillekorik ez geben eueki. Hamabostian sobria.

- "Tres veinte" zan hamabost eguneko lana?

- Ez, ez, egun baikotzekua, egun baikotzekua, "tres veinte" edo "tres cuarenta" edo ez dakit zer zan be, gero "seis treinta"-edo zan, gero ba destajuak-eta.

-Zenbat ordu itten zeuein Garaiñian egunian?

- E?

- Zenbat lanordu egunian?

- Zortzi ordu ziran legezkuak baiña gero ordu sartzen itten zani en ba igual ordu pare bat geheixau sartzen geben eta zortzi-hamar ordu. Horreik ordu horreik izaten ziren estrak eta harekin puska bat arreglaitten zan.

### 4.26. Ugaztegi, herrigunetatik urrun

- **Hizlaria(k):** Urkia Elorza, Juane
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-071/003
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:01:49. **Bukatu:** 00:04:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- **Laburpena:** Ugaztegiko Beheko Etxean jaio zen Juane, Aretxabaleta eta Araotz arteko mugan. Gaur egun bost baserri besterik ez dira, baina

garai batean bederatzi baserri izan ziren Ugaztegin. Erosketak egitera Aretxabaletara jotzen zuten, baina ezer saltzeko bazuten, ordea, Oñatira. Astoarekin edo zaldiarekin joaten ziren herrira.

### Transkripzioa

- Eta jaio, jaio ziñan Araotzen?
- Ez, Ugastegi, “parte de Aretxabaleta” da hori. Perteneziu Aretxabaletak itten dau, Urkulu, lehenau [...] oin dana Urkulu esanda entenditten dok.
- Aretxabaleta partia da orduan.
- Bai, bai, Oñatiko eta Aretxabaleta, Araotz ta Oñati. Muga-mugan, ermittia be han dago, muga-mugan.
- Eta Ugastegi zer da, baserrixaren izena, ala auzua da?
- Lau baserri, oin lau baserri, lehenau beratzi.
- Auzouna formala orduan.
- Besterik ezian, bueno, auzounia Koruetakua, Koruetan behian auzuori. Parrokixia-eta. Oin Urkulu pantanua dauen lekuan.
- Eta zuek Koruetakuak zarai izatez?
- Bai, bai. Guk Araotz hurrago euki baiña...
- Eta zuek errekautara Koruetara faten ziñain edo Araotzera? Araotzen ez euen dendarik.
- Koruetara ez, ezer saltzeko beuen, Oñatira. Ezer erosi bihar bazan Atxabaletara. Atxabaletan jenerua merkiau egoten zan orduan be Oñatin baiño.
- A bai, e?
- Eta Oñatin saltzeko zeozer, gauza haundirik ez, gaztaren batzuk edo holakon batzuk, hareik saltzera Oñatira.
- Eta hurrago zer zekazuen, Atxabaleta zekazuen hurrago? Etxetik?
- Oñati baiño Atxabaleta hurrago, bai. Oin auzounia Araotz hurrago Urkulu-Korueta baiño.
- Baiña zuek saltzera kalera etorriko ziñain, ezta?
- Bai, bai, dozena bat arrautza hartu eta plazara.
- Etorri aldixua dago Ugastegittik plazara.
- Bi ordu. Ez dakit baiña Atxabaletara ordu erdi bat gutxiago, ordu eta erdi edo hola.
- Eta ze etorten ziñain, astuakin?
- Klaro, orduko beikulua astua zuan. Astua edo zaldixa. Gu betik astuakin, [...]

#### 4.27. 17 urterekin apendizitisa

- **Hizlaria(k)**: Irizar Guridi, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-073/012
- **Iraupena**: 0:04:02. **Hasi**: 00:23:22. **Bukatu**: 00:27:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**: Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak
- **Laburpena**: Diru beharra zela eta, lanean hasi zen 14 urterekin Fanderiako zerrategian laguntzaile. Gerra hasi zen arte jardun zuen bertan. 17 urterekin apendizitis ebakuntza izan zuen Donostian. 14 egun egon zen ospitaleratuta, eta 1.025 pezeta ordaindu zituen.

## Transkripzioa

- Etxian beste urtebete bat pasau nuan. Aitta be baserrixan lan larregi, famelixa haundixa, baserrixan lan larregi, eta ez dok mendikua moduan gaiñera, ganauari be dana etxera ekarri bihar askara-ta. Bueno, urte bete bat pasau nuan ta gero, duro bat ez jakuan iñok, duro bat iñok be ez jakuan, eta ha irabaztera, ni hasi nitzuan fabrikan Fanderixan. Orduan xauan Fanderixan pinttura fabrikia eta zerria, zerratxo bat. Ni ba zerran, zerrara aiudante, zerrarixen aiudante hasi eta han pasau ñuan gerra denpora arte, sei urte, “de catorce a veinte años”, sei urte Fanderixan, fabrikan. Dirua etorten zuan handik, nik irabazten nuan orduan lau pezeta egunian. Baiña hillian bi aldiz zera...

- Sobria.

- Pagia, ta gure ama difuntiak makiña bat aldiz, “hau dok dirua hau, hau dok dirua hau, atzera fan biharko haiz atzera fabrikara”, holaxe esaten xuan harek, “hau dok dirua!” Klaro, norberak pezeta pare bat hartu poltsikora eta bueno, ez zebe falta itten dirua. Bera aurreraketako baiña, orduan guk aurrerako interes zerakin, ez dakik? Ha aurreratu. Gero hamazazpi urtekin operau in nitzuan, operau in nitzuan hamazazpi urtekin, apendizekin. Fabrikan nabillela tripako miñakin, hartu mendixan bajau ta gero neri medikuak, “apendiza dakok”, baiña gero atzera reponiu in nitzuan ta “lanian hasiko zara”, eta lanian, operaittia hoba izango zala eta, orduan operaittia zuan grabia e? Eta gaiñera nun? Dirua ez jauan ta.

- Noraiño eruan zindduein operaittera?

- Donostira. Gero hasi nitzuan fabrikan, eta ezer sentitten baneben aguro etorteko etxera-ta, estomagu miña sentitten nuan ta etxera etorri nitzuan ta apendizia operau in bihar neuela, [...] baiña ondo jarten nitzanian. Hemendik sartu autobusian, Brinkolara, Brinkolan trena, Norteko estaziñora, eta han zerian, tranbian Ategorrietara ta bertaraño, ixa klinikaraiño. Ni operau nindduan medikua, mekauen diez, hementxe aldian xakuat gaiñera, araiñun etorri zuan, curiosidadez gorde in xuatzen ofizinan irakusteko asmua [...] onkolojikuan, hauxe plano hauxe eskribiuta, Don Jose Aiestaran, gizona [...] zuan hau.

- Hori zan...?

- Honetxek operau nindduan ni.

-A, bai, e?

- Onkolojikua, onkolojikua honek...

- Berak hasittakua?

- Honek hasi ebela.

- Eta zenbat egun in zittun, han?

- Hamalau egun ospittalian.

- Eta gero lanian arte zenbat egun?

- Ba orduan badakik, etxian artian udazkena eta garixak be ereittek xauan ta... egunak ba, ez nauk akordaten baiña orduan hillabete eta holakuak baiño gehixau, e? Orduan gabonak arte behintze gutxienez pasauko nuan, ez jakiat ze fetxatan zan be, nobienbria-edo izan bihar eben. Ondiok fakturak xakuat, konserbau itten xuat.

- Goguan dakotsu zenbat pagau zebe?

- Konserbaitten xuat. Horretxeatixek.

- Eta goguan... akordaitten zara zenbat pagau zebe?

- Zenbat pagau bai, uste xuat hamar egunekua izan bihar zala “mil veinticinco pesetas”.

#### 4.28. Bizikleta gehiago autoak baino

- **Hizlaria(k):** Urzelai Aiaitui, Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-075/021
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:52:44. **Bukatu:** 00:55:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak  
Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak  
Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- **Laburpena:** Jesusek lehenengoz ikusi zuen kotxea Zubillagako Altunatarrena izan zen. Hori eta bergarar errekadista baten kamioia ziren eskola ondoko errepidean pasatzen ziren ibilgailu berri bakarrak. Orduan bizikleta erabiltzen zen asko. Bizikletak alokatzen zituzten tailerrak ere bazeuden. "Gorde-gordeka", "tenteka", "txorro-morrora" eta intxaurrekin "potoloka" (kanikarik ez zegoenean) jolasten zuten.

#### Transkripzioa

- Ni hemen lehenengo-lehenengo automobilla akordaitten naiz zer bat, ez dakit nungua izango zan. Garaiñak euko eben seguramente baiña gu Garaiñera, kalera zela ez giñan faten, guk ez geben ikusten hori. Hemen etorten zan lehenengo-lehenengo nik ezagutu nebena behintzet, Altuna. Altunatarrek ekarri euen hemen kotxe bat, Altuna, Altuna anaiak, Zubillagako horreik, horreitek kotxe bat. Nik lehenengo kotxia horixe ibiltten zan hemen, horreik eguardixan ta gabian ta goizian betik ibiltten zan. Eurok anaiak automobillan ibiltten ziren ta. Eta gero? Gero badakitzu, "la peste, la peste del siglo". Eta kotxia ba, guk karreteran, kamiñuan ez geben trabarik itten. Kamionak? Noizian behin beste kamiontxo bat ibiltten zan, hemen Bergarako haxe ibiltten zan beste bat, errekadista moduen haxe, besterik kitto, iñobez. Domeketan ta iñobez, iñobez, bizikletan bai, bizikletia asko ibiltten zan orduen, orduen bizikleta alkilerak egozen, Torrena por ejemplo alkilerra euken, atzenengua Roman Igartua, Roman Igartua ez dakit ezagutu zebeñ zuk.

- Ez, nik Torrena bizikleta alkilerra ez, nik Luxiona ezagutu neben.

- Horren aurrekuak, Luxio gerokua, atzenengua da hori. Eta horreitan egoten zan bizikletak alkilerrien. Horreik pagaitten ez naiz akordaitten, pezeta bat edo orduko edo, pezetia baldin bazeuken hartu eta bizikletan ibilli, ordurako atzera entregau ta... gerra ondorien geruau e? Horreik izaten ziren gure dibersiñuak, txirikilletan, gorde-gordeka. Gorde-gordeka zu be ibillitta egongo zara seguramente, gorde-gordeka...

- Zuek tenteka-ta...

- Tenteka.

- Txorro-morro-piku-tallo-ke...

- Txorro-morro ta tenteka-ta, gero intxaurrakin be bai, potoloka. Zuek ibiltten ziñain intxaurrakin potoloka?

- Ez, guk intxaurrakin ez, kanikak moduen intxaurrak?

- Bai, kanikak moduen.

- Entzun barik neuken, intxaurrakin.

- Kanikarik ez euenien intxaurrakin.

- Kanikak ez, intxaurrakin. Udazkenien agerketan ziren, potolotxo bat iñ eta han.

- Guk potxua esaten gotsan horri. Potoluari potxua.

- Guk potolua esaten gotsan. Gero kaniketan asko, kaniketan gure gazte



denporan asko itten zan kaniketan. Kanikiak be dirua balixo eben eta, erriel bateatik ez dakit zenbat emuten zittuein, lau edo bost kanika emuten zittuein ta baten bat galdu itten bazeben, danak harrapo, galdu igual-ta. Eta horreik ziren zerok, gero tenteka, harrapo-harrapoka, gorde-gordeka, txirikilletan bere epokan.

#### 4.29. 10 urterekin neskame

- **Hizlaria(k):** Arregi Idigoras, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-089/003
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 00:02:55. **Bukatu:** 00:05:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak  
Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena:** Senideek eta auzokoek lagunduta jarraitu zuten baserriarekin. Maria 10 urterekin umezain joan zen Matingua (gaur galdua) kale-baserrira. Gero Legazpiko Lekuona baserrira joan zen, umezain hara ere.

#### Transkripzioa

- Ganau asko zeukatzuein orduan?
- Ba ardi batzuk eta beste bost behi edo hola. Ta gero beste zeri ez. Ba, oiluak o. Txarrixa edo. Ba, etxeko zerak. Ta baserrixa ba bastante haundixa. Baserritik bizi giñan ta. Beste gauzaik ez euen orduan.
- Ta lan in bihar ezta?
- Lan in bihar.
- Umetatik ya...
- Ta gero ni orduan fan nitzan ba umia zainketara. Hor batenbatek, Matinguan edo, esan otsain aber umia zainketako, beste bat izateko dauzela ta, bueno ba.
- Zortzi urtekin?
- Hamar urtekin. Bai. Komunio haundixa itten zan hamaika urtekin orduan, ta artian komunio haundixa in barik. Hamar urtekin mutikua, hiru urteko mutikua zainketara. Lepuan, lepuan.
- Zuk hamar urte ta hiru urteko mutikua lepuan. Hori Matingua?
- Matinguan, bai. Oin eztau han basarrik, hareik danak bota zittuein ta. Soruak euzen oin abenida dan aldea. Ta umia zainketara bakarrik ez, gero han soroko lanak eta, ittaurren ta, danera. Bai. Gero amandria gaixotu edo in zan, hamasei hilabete edo in nittuan, eta gero fan nitzan etxea. Ta geo amandria atzea ondo geatu zan ta beste gizon bat etorten zan Legazpittik udazkenian ardixak eruatera. Ta harek gure amari dale ta dale ta dale, umetxo bat eukaila, beste bat orduan izateko azela ta haxe umia zainketara pittintxo bat; eta engaiñau eben. Atzea Legazpira kriada. Atzea hamahiru urtekin edo.
- Nun egon ziñan Legazpin?
- Lekuna. Basarrixa zan.
- Lekuna?
- Bai, Lekuona, Lekuna.
- Ta Legazpiko ze auzounatan?
- Ba Legazpi ta Zumarraga bittartian. Legazpira sartzen zan baiña ixa Zumarraga aldea.

- Lekuona ondiok be badau baserri hori?  
 - Bai, bai, bai. Baserririk ez dakitt segitten dauen baiña. Gizonak eleixan itten eben lana, ta aittajuna ta amandria, amandria be eukain e, inbalida edo. Silla zer baten eukitten euen. Eta ni han neuela bigarren umia jaixo zan, eta umezain ta ardixak be baeukain ta ardittara ta danea. Orduan zan gerra denporia.  
 - A, karo, ya orduan zu hara hamabi-hamahirukin fan baziñan... Han zeuntzela hasi zan gerria?  
 - Ez, hasi ta gero fango nitzan.  
 - Hamalaukin orduan?  
 - Gerria hasi zanian ni artian Imittolan neuen, zeatik akordaitten naiz e, zela eon zian han Udanatik fanda kuadrilla haundi bat.

#### 4.30. Hogei urterekin ezkondu

- **Hizlaria(k):** Aia Aia, Bixenta
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-105/039
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:42:10. **Bukatu:** 00:43:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa  
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak  
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** 20 urterekin ezkondu zen. Aspaldi ezagutzen zuen Joxe. Gau eskolan ibilitakoa zen senarra Sarramendin, baina bestela Madalenara joaten zen.

#### Transkripzioa

- Hemezortzi urtekin etxera eta hor zenbat denpora egon ziñen ezkondu arte?  
 - Ba hogei urtekin ezkondu nintzen.  
 - A! osea, berihela.  
 - Bai, bai, bai, urte ta erdin bat eo, bai, hamar egun falta hogeitete.  
 - Nola ezagutu zebeñ gizonari?  
 - Ene! Aurretik ezaguketan giñen ta.  
 - A betiko laguna? eskolan be alkarrekin?  
 - Ez, ez, eskolan ez. Gurian gau-eskolan ibilita euen hor Joxe, Sarramendin. Sarramendin, bueno, oin eskolia dauen leku haretan.  
 - Han gau-eskolak be emuten zittuen?  
 - Gau-eskolak emuten euen horrek maixuorrek, eta hemen haunditxuauak gau-eskolara fan zian.  
 - A, egunez lana in ta..  
 - Ordu pare bat edo bai, iluntabarrerako bertara fan ta gero... ordu pare bat o ezta kitta ze itten euen, bai. Bestela, guria, Joxe, Madalenan, Madalenan ibili zan. Bai. Joxe ta arrebak eta..  
 - Osea, zu Koixkar... ta edadian antzerakua izango ziñan..  
 - Hamar urte zaharraua, gizona, bastante zaharraua.  
 - Ta ha Madalenan, e?  
 - Ha Madalenan ibili zan, bai, erosuau eukain Madalena eurak hemendik.

#### 4.31. Etxe betera ezkondu

- **Hizlaria(k):** Aia Aia, Bixenta
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-105/041
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:44:08. **Bukatu:** 00:45:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa  
Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak  
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Ezkondu zenean, idiak eta lau bat behi zituzten. Osaba mutilzaharrak 60 bat ardi gobernatzen zituen. Etxean zeintzuk bizi ziren. Morroia ere bazuten.

##### Transkripzioa

- Hamen be antzera? Hamen be ganauak eta irixak eta?

- Bai, irixak, ta lau bat behi. Hemen gehitxuau eozen. Gero, ardixak. Tio soltero bat euen ta ha zan pastorioi. Ta ardixak gehitxuau, hirurogei bat edo, horogei bat ardi baeukan tiok... Gehitxuau eukain. Baiña ni hona etorri nitzanian tio, aitta, ama, anae ordeko bat be baeukan. Ha Bergaran ebillen lanian. Gero arrebak. Bere arreba bat be guaz batera ezkondu zan. Eta kriaia be bai!

- Morroia?

- Eta arreba bat fijo gaiñera etxian, arreba bat fijo etxian, bai. Eta gero, urte batetik bestera, geratu giñen: aitta hil zan, tio hil zan, urte baten, ni hona etorri ta bigarren urtian edo...

#### 4.32. Errementari lanean zelan hasi zen

- **Hizlaria(k):** Aizpeurrutia Etxeberria, Jenaro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arana, Iñaki - Oregi, Lide
- **Erref:** ONA-178/002
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:01:00. **Bukatu:** 00:02:05
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Arana, Iñaki
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa  
Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea  
Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak
- **Laburpena:** Jenaroren aitak Legazpin egiten zuen lan, Patricio Echeverrian. Aitona eta Jenaro jardun zuten errementari moduan. Aitonak kateak, aizkorak, aitzurrak, gurdiak, baserriko zorrotzurak... egiten zituen.

##### Transkripzioa

- Eta gero zuen aittak ez zeban jarraitu?

- Geuk ointxera arte, puntura arte. Aittak Legazpin itten eben lana, Patricio. Hamen normalian ba neu aittajunakiñ, haik eta neu hasi nitzan hogeta zortzi urtekin edo kalia, fabrika, aittajuna hil arte, ta geo aittajuna hildda be ba burdixak eta ez gen itten, baiña zorrotzuria ta bai, burdiñak zorrotzu, ariak zorrotzu ta basarri lanak, kataiak konpondu...

- Eta aittajunak ze lan klase eitten zittuan?

- Aittajunak kataiak, aixkorak, atxurrak, burdixak... Oin ba gauza hola barririk beste ezer... Geo basarriko zorrotzia. Goldaik eta ez zebe eitten? Ez, ez, horrek goldaik eta zeak fundiduak die horrek, hariak puntak gastautakun puntak ifini ta horreik bai.

#### 4.33. Baserrietako karobiak

- **Hizlaria(k):** Urzelai Biain, Andres
- **Elkarrizketatzailea(k):** Olañeta, Amaia - Urkiola, Argiñe
- **Erref:** ONA-179/002
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:00:10. **Bukatu:** 00:02:05
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak  
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Lehen etxe guztietan egiten ziren karobiak. Urtean bi-hiru bider erretzen ziren karobiak. Karobi bat baino gehiago baserri bakoitzean. Lur desberdinak.

#### Transkripzioa

- Karia eitten ibili ziñanian, zenbat karobi ezagutu ziñuzen? Zenbat euazen zu ibiltzen ziñan tokixan?

- Karobixak zenbat eozen? Asko. Ene! Zeatik etxe danetan eitten zan karobixa ta. Oin, karobi bat erreten zan bi bider edo hiru bider igual urtian, zeatik batak eitten ebenian, bestiak igual eitten eben.

- Behin baiño gehixaotan bai urtian, e?

- Karobi hartan bertan, baten? Bai. Ta karobi bat baiño gehixao baserri baikotxian be bai, e! Karobi batekin geldiketia eskasa izeten zan. Badakitzu zeatik daon hori ta zeatik dan? Leku batzuetatik bestera lurak die diferentia. Hamen bertan dao, hemendik hasi eta Bixenia artian dao bustindurrak. Ta bustindurra da oso gogorra. Bustindurrak, gaur balitza makiñiakin, jo-ta apurtu ta [isten dittue...] ta ez da ezebe pasaitten, baiña lehenaoko erreminta [harekin] ta lehenaoko behixuekin han ez euen indarrrik horreik hola txikiketako. Ezta? Ta bota bihar izaten xaten karia hori samurketako. Baiña karia ez zan hortako, samurketako, bakarrik; da, karia botaten xakon lekuan, zerak, karamarruak-edo guk esaten xau, insektuak hiltteko hobia. Karia gastaitten hasi zanetik hasi zien babak [huts eitten], eta baserri askotan ereitten euen babia, baba-gorrixa, eta [halako... hartzera zoianian], ostruak gorriketan xaten ta ez euen babarik hartzen! "Baiña zer da hau?" Karo, ezaun da, ze lurretan karia ez [dabe eitten]. Oseake, ba, zenbat karobi eozen? Behintzat bi etxetatik bat bai.

## 5. Ekonomia eta industria

### 5.1. Abarketagintzan eta galdategian lan egin ostean gerrara

- **Hizlaria(k):** Lizarralde Galdos, Gregorio; Ugarte Moiuia, Alejo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Jerardo
- **Erref:** ONA-020/004
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:05:59. **Bukatu:** 00:07:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai

- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Ekonomia eta industria » Lantegiak  
Lanbideak » Negozioak, dendak
- **Laburpena:** Gregorio abarketagintzan hasi zen lanean Kale Barrian, gero Mugarzaren galdategian, handik Madina eta Enparantzaren Mendiko Kaleko abarkategira eta buelta Galdategira. Azkenean, gerrara.

### Transkripzioa

- Eta gero, lanian nun hasi ziñan zu leheningo, Gregorio?  
G: Ni, leheningo, alpargaterixan, orduan Azpeittiar bat zan, eta han zerien itten neben nik orduan lana.  
- Nun eukan alpargaterixia?  
G: Lehen Korkostegi bizi zan lekuan.  
- Atzeko Kalian? Edo Kale Barrixan?  
G: Kale barrixan, bai, oin Txoriñak edo dakoiña. Hantxe  
- Han eukan, e?  
G: Bai.  
- Eta zenbat denpora in zebeñ han?  
G: Han, ba, urtebete edo. Handik fundiziñora fan nintzan.  
- Nungo fundiziñora?  
G: "Mugarza, Ugarte y Cía".  
- Ordurako indda euen fundiziñua?  
G: Bai, bai.  
- Zein urtetan hasi zan fundiziñua gutxi gorabehera?  
G: Ba fundiziñua hasi zan nik 18 urte neukela edo.  
- Baiña hasi barri izango zan.  
G: Bai, leheningotan hasi giñan gu.  
- Oseake lehenengotarikuak, eta zuk 18 bat urte, zenbat denpora in zebeñ han, fundiziñuan?  
G: Fundiziñuan in neben, leheningo in neben 2 urte eta gero urten in neben, eta gero fan nintzan beste alpargaterixa batera.  
- Oñatin?  
G: Oñatin, bai. Ha alpargaterixia zan "Madina, Enparanza y Cía".  
- Nun zan?  
G: Mendiko Kalian, ez Mendiko Kalian ez, honutzauko kaliañ, Patrué Kaliañ. Oin zera dau han, soziedadia edo, hantxe in neben bi urte edo.  
- Gure Txoko? Edo zela da ha?  
G: Bi urte edo eta atzera fan nintzan fundiziñora, han, fundiziñuan, gero in neben sei urte edo zazpi edo, gero gerria.  
- Oseake gerria sortu arte fundiziñuan.  
G: Bai, gero gerria sortu zanian, ba kitto, gerrara.  
- Gero, beste fundiziño batera gero!!

## 5.2. Abarketagintzatik plantxagintzara

- **Hizlaria(k):** Lizarralde Galdos, Gregorio; Ugarte Moiuá, Alejo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Jerardo
- **Erref:** ONA-020/009
- **Iraupena:** 0:04:38. **Hasi:** 00:16:50. **Bukatu:** 00:21:28
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa

- **Gaia(k):**

Ekonomia eta industria » Lantegiak

Lanbideak » Negozioak, dendak

- **Laburpena:** Gregoriok gerra aurrean alpargetagintzan lan egin zuen bi lantegitan eta, ondoren, baita Mugarzaren galdategian ere. Gerra ostean, lehenengo, peoi gisa ibili zen Julian Arkauzekin eta gero Plantxa lantegian, hasieran Dina zena eta geroago "Solaún y Rubio" izango zena. 31 urte plantxetan egin ostean erretiroa hartu zuen.

### Transkripzioa

-Gregorio, alpargaterixan zelako lana itten zeuein, ze lan klase?

G: Baten itten geben, ba, esparzuakin bakarrik, esparzuaz eta teliaz, eta bestian, "Madina, Enparanza y Cían", han "goma y filtro", eta "corcho, goma y corcho" be bai. Baiña kortxuak ez eben resultau, apurtu itten zan.

-Eta fundiziñuan, hasieratik oin gero, gerra ostian itten euen, honeik atxur kontuak eta itten euen, edo beste zerbait?

G: Bai, orduan be itten euein, bai, gerraurre arte, aurretik, hori hasi zan, atxurra eta hori, gerraurretik hasi zan.

-Eta zuk ze lan klase euki zeuben han, ze ofizio?

G: Moldeadore, fundiziñuan.

-Eta bertan ikasi zeuben? Edo lehendik zerbait...

G: Bertan, bertan.

-Nik fundiziñuan nunbaiten irakurritta dakot hor klaro, zu... zein urtetan jaixo zaraiz zuek?

G: 1907xan.

-Zazpikuak, bai, horixe, hemezortzi urterekin fan baziñan... 24-25ian hasi zala fundiziñua, ezta? Oñatin trena jarri eta handik puntuko, inguru horretan, ezta? Zuek hasiera-hasierakuak izango ziñain han, hango...

G: Gerratik etorri nintzanian eskatu neben lana eta ez nostain emun.

-Eta gero?

G: Gero piontzara.

-Piontzara, zenbat urte denporan egon ziñan?

G: Piontzan, ba, bastante denpora.

-Hemen Oñatin bertan?

G: Bai. Oñatin bertan, bai.

-Ta zeren batekin, kontratisten batekin ala igeltseron batekin edo?

G: Bai, kontratistiakin, lehenengo zela zan, lehenengo lana hasi nintzanian, obrero, Arkauz, Julian Arkauz.

-Arkauz zerekua... Garagaltzakua?

G: Han txaleta badauen, ba, txaleta?

-Bai, Goizeko Izarra!

G: Bai, hangotxe semia, Julian Arkauz.

-Bai, Arkauzena esaten zana.

G: Harekin ibilli nintzan.

-Eta gero, Plantxetan noiz sartu ziñan?

G: Plantxetan geruau, ez dakit nik ze urtetan hasi nintzan.

-Baiña Dina zala, ala gero "Solaun y Rubio" zala, sartu ziñan zu?

-Ez, ez, Dina.

-Dina zala oinndiok? Aguro orduan.

G: Bai, bai, leheningotan, orduan "Inglesa" eta ebitzen hor.

-Zein zan, Rochelt edo? Nik aittari entzundakuak, ni ez naiz akordaitten baiña.

G: Bai.

-Zu zaharrenetarikua han, plantxetan be leheningo-leheningotarikua izango ziñan.

G: Bai, horreik gero, "Solaun y Rubio" gero hasi ziren.  
 -Gero etorri ziran, bestiok, Areatio eta joan ziranian hortik zihar, ezta? Bai, Bitorixara edo fan ziranian, bai.  
 G: Gero hor egon nintzan harik eta bialdu arte.  
 -Azkenera arte egon ziñan zu.  
 G: Azkenera arte, bai.  
 -Itxi zanian, zuk orduan jubilaziñua hartu zebeñ, ala...?  
 G: Bai, segidan hartu neben jubilaziñua, ya baneukan ba 64 urte edo neukan.  
 - Osea ixaan, ezta? Orduan urte mordo bat in zebeñ zuk han, ezta?  
 G: Bai, 31 urte. Tio Patxi ta, enkargau.  
 -Pulimentuan ala nun egon ziñan?  
 G: Pintturan gehixen bat. Pulimentuan be in geben apur bat baiña gutxi. Pintturan.  
 -Orduan han be zuek, hogetaka urtiak han, ezta? Askok.  
 G: Bai, 31 urte.  
 -31 urte, urte asko, bai.

### 5.3. Abilezia handiko gizona

- **Hizlaria(k):** Etxezarreta Galdos, Bitoriano
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-054/003
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:03:29. **Bukatu:** 00:05:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
 Ekonomia eta industria » Lantegiak  
 Lanbideak » Arotzak
- **Laburpena:** Bere anaia arotzari laguntzen, Unibertsitateko "kasetoi" guztiak zaharberitu zituzten. Bien bitartean, galdategian mantenimendu lanetan jarduten zuen.

#### Transkripzioa

- Fabrikan lana in eta Unibersidadian, Unibersidadeko artesano danak guk inddakua da. Artesanoa zera, katxarro danok...  
 - Sapaixak?  
 - E?  
 - Goiko sapaixak?  
 - Goiko... gura dan dana, anaiak eta bixok. Soltau dana eta ifiñi, buelta dana ta ha zera be bai, ha, Aula Magna goixan, Aula Magna ez, ha zera goiko zera badau ba, gora igoten alde batetik tremendako artesanua goixen, dana hanka azpixon euki dogu. Eta pusketaka, pusketaka dana soltau, eta... geuk in geben ha.  
 - A, in zeuen konpondu, restaurau?  
 - Dana, dana restaurau, dana geuk. Eta gaiñera zeari be, guri irakusten oskuenei be leziñua emun gotsen guk. Bai, bai, oseake "termitina" emuten xakon, emun bihar xakon egurrari, gero gehixau ez atakaitteko horrek. Termitina emun ta ez atakaitteko. Karan emuten hasi giñan ta, gero zera letxe, zela esango dotsut, lizuna letxe itten xakon, ra! segiduan; ifiñi, raa segiduan, hau ezin lekek ba, honi beste zeozer asmau bihar xuau. Asmau gotsan aurrekaldetik ez emun, beste alde danetatik emun. Oseake "al frontal" hari ez emun. Elegante holaxe. Bestela, bestela ha ez euen

zeraketarik. Ha dana in geben guk holaxe, taka, taka, taka...

- Oseake orduen emun zotsain botika hori atzekaldetik, ekusten ez zan aldetik?
- Atzekaldetik. Frontalari ez gotsan emun, frontalari emun bagotsan ez geben zertuko ta, ez geben luziuko ta.
- Baiña zu soldaduran bazebitzen lanian, zu arotza be bazara ala?
- Ez, arotza anaia neukan nik, eta anaiari lagunketan ibiltten nitzan ni. Nik soldaduran eta mantenimientuan itten neben lana zerien, tuberixak, edozer, edozer reparaziño in bihar bazan fundiziñuan horrekin ibiltten nintzuan.
- Zein fundiziñotan esan dozu?
- Mugarza, Ugarte y Compañía.
- Nun euen hori?
- Mugarza, Ugarte y Compañía? Hementxe zerian, Olalde onduan. Mugarza, Ugarte y Compañía oin be hor dau, oin Mugarza, Ugarte y Compañía ez da, oin da zera kooperatiba bat da hori. Garaiñetik zera bittartian, Garaiñetik hurringo Oñati aldera.
- Txintxurreta fabrikia...
- Ez da, Txintxurreta eta Garaiña bittartian.
- Bittartian?
- Hantxe ibilli nintzan ni.

#### 5.4. Mugarzarenaren ekoizpena

- **Hizlaria(k):** Etxezarreta Galdos, Bitoriano
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-054/022
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 01:00:01. **Bukatu:** 01:01:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Ekonomia eta industria » Industria motak » Altzairugintza
- **Laburpena:** Sardeak eta beste tresna batzuk egiten zituzten Mugarzarenean. Eta baita teilerietarako makineria. Asko saltzen zuten kanpora.

#### Transkripzioa

- Eta lan asuntotara bueltauta, hor Mugarzarian ze lan klase itten zeuein?  
- Orkak. "Horcas de acero". Ittuatxurrak, sisardak, horreik, eta gero hor itten zittuan zerak be bai, teillerixarako makiñak be bai (...).  
- Eta gero nora bialketan zeuein? Kanpora?  
- Kanpora, horixe kanpora, asko gaiñera. Baiña oin ez jakiat zela, oin xabitzak bertako soziuak bakarrik xabitzak, zela dabitzen edo ze modutan zerketan dauen. Oin orkia be nola dauen lehenauko aldian, kanpo lana eta itteko makinarixia nola dauen, ba gutxiau bihar dok. Akaso igual zertuta egongo dok, ba gastauta parte. Derrigor bihar, derrigor dok hori, batzuk ezta? Baiña...

#### 5.5. Bost txokolategi Oñatin

- **Hizlaria(k):** Arregi Zendoia, Felix



- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-062/007
- **Iraupena**: 0:03:58. **Hasi**: 00:18:50. **Bukatu**: 00:22:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
Ekonomia eta industria » Industria motak » Gozogintza
- **Laburpena**: Aitak ekin zion txokolategintzari etxean. Beste lau txokolategi zeuden orduan Oñatin. Uztargilea ere bazegoen Kale Zaharrean.

### Transkripzioa

- Eta zenbat urte euki zeuen txokolaterixia martxan?
- Ba aitta gazterik hil zuan, berrogeta hemezortzi urtekin, ni soldau nenguela. Soldautzatik permisuaikin etorri nitzuan, oso geitz zatarra gaiñera, oin izango balitza alzeimer edo holako antzerakua ni akordaitten nauk, orduan artian gaztia nitzuan baiña. Baiña orduan ez xauan alzeimer edo hori izenik eta, orduan ez zuan hau ... medikuak esan xuein "arterioesclerosis" zala. Poliki-poliki, pittinka-pittinka fan zuan geruau eta gutxiau, hiru bat urte-edo geixorik tristiak pasau giñuan, bai.
- Eta txokolaterixia zeinek ipiñi zaben martxan? Zure aittak?
- Aittak, aittak bai. Kazarixa zuan gaiñera, kasan eta peskan itten xuan gaiñera.
- Eta txokolatia.
- Eta txokolatia, eta turroia.
- Eta zuek konpetentzia asko eukitten zeuein Gerekatarrakin?
- Honbre, klaro. Gereka eta Loiola, "Chocolates Loyola", eta Orbea, eta Maiztegi, txokolategiñak...
- Zahor be egongo zan.
- Ez, Zahor gerokuau, gerokuaukua dok; orduan "Chocolates Maiztegui" hor Olakuan, eta Orbea hemen ...
- Bai, Erdiko kalian.
- Erdiko kalian "Chocolates Orbea", eta "Chocolates Guereca" guria baiño pittin bat beheratxuauan eta "Chocolates Loyola" be bai. Horreik danak ordukuak dittuk. Igual zaharrena geuria izan, nik pentsau e?
- Leheninguak izango ziñain igual?
- Bai.
- Zela euken Gerekan etxiak izena? Zela zan?
- Bazterrikena.
- Bazterrikena.
- Bazterrika.
- Eta zuena, Aguria?
- Arrillagana guria.
- Baiña lehen esan dozu aittajun horri aguria esaten otsailla.
- Aguria, etxian, aguria, amari eta aittari entzunda, aguria.
- Orduan Arrillagana, Lasena gero eta gero Bazterrika?
- Hori dok. Artian zera, Uztargillena.
- Uztargillena.
- Bai, bixen bittartien, gu eta Bazterriken bittartien Lasena eta Uztargillena. Hori dok, bai.
- Uztargillena izena-edo ...?
- Uztargillena, Lizarralde.
- Baiña uztarrixak itten zittuein?
- Uztarrixak, horixe. Atzeko kalera, ospittal aldera, bueno, oin Institutua xauk, lehen ospittala. Gu han ibiltten gitzuan bere inguruan, begira.

Uztarririk, Uztargilliena. Horregatik xakuat neuk penia, etxe ha barriztau eta barriztau zuan eta han atian ez ipinttia Uztargilliena. Hemen San Juan kalia baxaok Metalgua, Metalgua zana, eta ipiñitta izena Metalgua. Oin barriztau ta gero e? Kristalian e? Han behebaruko ate gaiñian Metalgua. Eta hari zeatik ez otsain ipiñi Uztargilliena, lehen Uztargilliena zuan hori. Egon zittuan txoferra Rufino eta, Rufino Lizarralde hau Uztargilliena igual esaten gitxan, Rufino eta beste bat be bai, bi anai taxista.

- Nik Rufino goguan dakot.
- Taxista. Rufino eta beste anai bat be bai, horreik zittuan Uztargillenekuak, bai.
- Kale Zaharra orduan jantzitta euen.
- Bai, hoixe.

## 5.6. Pospoloak eta aterkiak Garia lantegian

- **Hizlaria(k):** Barrena Kortabarria, Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-068/018
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 00:40:51. **Bukatu:** 00:43:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »  
Debarrenen lantegiak  
Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- **Laburpena:** Garai lantegian emakume askok ziharduten lanean aterkiak egiten. Bere garaiko amandreei entzunda daki Pilarrek Garai lantegian pospoloak egiten zituztela antzina. Irabazten zuten diru apurrarekin eta etxeko ortuan lortutakoarekin bizi ziren.

### Transkripzioa

- Eta emakume asko egoten ziñazien?
- Bai, bastante gebillen gu, bastante emakume giñan. Guardasoletan gehixen okupaitten ziren, montajian ta, gu makiñetakuak giñan. Makiñan piezak doblau edo luzetu edo in bihar zana. Emakumiak...
- Baiña parasolentzako hori.
- Bai, bai, gordasolentzako, gordasolenak, bai. Holaxe ibilli giñan.
- Eta jente asko zegozen lanian Garain?
- Zenbat eukiko eben Garaik orduan? Ez dakit ba, ehun ta...ehun ta...zeozer, ez dakot idearik be, ze, zenbat giñen.
- Zu Garaiñera pospologintzan ...
- Ez, ez hori lehenaukua da. Pospolo fabrikarik ez, nik ez dot ezagutu pospolo fabrikarik. Hori lehenaukua, lehenauko amandriak eta kontaitten daue hori. Zela ibilli ziren-ta, pospolo fabrikan-ta. Han orduan goizeko seiretarako igual fan ta eguardixan hamabittan prisaka bazkaldu eta gero atzera gabeko ez dakit noiz arte. Han zortzi ordu artian modara etorri barik. Gero etorri zan zortzi ordukuori ta.
- Ahal zan beste.
- Ahal zan beste.
- Eta amandriak esaten dozu? Amandriak ...
- Amandriak, amandriak diranak kontaitten (di)ttue horreik, lehenaukuak.
- Lehenaukuak.
- Bueno, amandria neu be banaiz, e? Ez noia presumittera, baiña ...

- Zeure amandriak.
- Bai, neure amandre edo nere aman, nere amen sasoikuak. Eta pospolo harrekin uste dot jente asko ibilli zala, baiña lehen esan dotena, ordu barik e? Gero zortzi ordukuori etorri zan ta, bueno!
- Bai baiña zortzi ordu bakarrik indda iñor ezin bizi bihar dan moduan.
- Horixe dok ba!
- Eta hola ezin aurreratu.
- Aurreratu? Bai zera aurreratu! Jaten geben ogixa eta esnia pagau ezkeru. Aurreratu? Orduan ez euen aurreraketarik. Keba! Hori hala be gauza asko, bueno, gauza asko ez, "por ejemplo" patatia, gure ortuen, asko ez zan hartzen baiña, kipula-berakatzak eta horreik gauza horreik, hori etxian geuken, horreikin be diru asko faten da. Horreik etxian geuken. Baiña, kale gorri-gorrixan euzenak!
- Hareik okerrao, eta txarririk-edo eukitten zeuein?
- Ez, guk ez. Guk txarririk ez dou euki sekula.
- Oillorik edo.
- Oilluak bai, konejuak be bai.
- Etxerako ...
- Etxerako bai, arrautza batzuk-eta.

## 5.7. Isokarroa gora begira

- **Hizlaria(k)**: Urkia Elorza, Juane
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-071/015
- **Iraupena**: 0:02:58. **Hasi**: 00:31:53. **Bukatu**: 00:34:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »  
Debarreneneko lantegiak  
Lanbideak » Negozioak, dendak
- **Laburpena**: Garai lantegian lanean hasi zenean, aterkiak egitea zen lan nagusia. Ehun emakume inguru egon ziren muntaketa lanetan. Gauzak asko aldatu ziren tutugintzan hasi zirenean. Txofer lanean ibili zen urte askoan. Hiru gurpileko isokarroa izan zen lehenengo erabili zuen ibilgailua. Azken hamar urtetan atezaintzan jardun zuen.

### Transkripzioa

- Eta Garaiñian zu hasi ziñanetik aldaketa haundixak egongo ziren, ezta? Lan asuntuan eta makiñak-eta.
- Bai, jentia be bai, ni hasi nintzanian gehixen egon gitzanian be, leister orduan jentia juntau zan, hirurehun bat lagun-edo bai.
- Hirurogei?
- Hirurehun, hirurehun, orduen gordasul asuntuakin emakumiak asko. Montajien ehun emakume. Enkargaua halakotxia, buztana moztutako sugia lakotxia. Danak aurrian zittuala. Baiña gero gordasula geratu zanian beste asuntu batzuk, tubua eta latoia-ta.
- Eta zuk han txofergintzan iñ izan dozu gehixen bat, ezta?
- Bai. Nik in nittuan hogeta hamalau urte-edo. Azkenengo hamar urtiak serenero, atian, porterixan-edo.
- Aurretik txofer.
- Aurretik bai.

- Noiz ebali zebe leheningo kamiona Garaiñekua?  
 - Nik kamionik sekula be ez.  
 - Bai, kamion txikiñak.  
 - Leheningo hola hiru erruedako isokarro zakar bat, paketiak gordasula bertan, kale barruan partitten. Gero furgoneta bateaz beste ez dakit zenbat urte ingo nittuen. Gero azkenengo hamarrak porterixan. Han ba ondo, lo itten gebela gabaz esan oskuen ta ba...  
 - Baiña zuk ez zebe ebalten kamioi txiki bat, atzekaldia eregixa? Edo furgonetia, baiña atzekaldia eregixa eukena?  
 - Eregixa atia zabalik eruaten bazan bai, "cuatro L" hortariko bat, txiki bat.  
 - (...)  
 - Atzia libre ebalten ebena zuan isokarrua, hiru erruedakua.  
 - Nik hori ez dakot goguan.  
 - Baiña hori zala ba(di)ttuk bueno. Hamabost, hogeta bost, ba hogeta hamar urteko kontuak (di)ttuk horreik eta.  
 - (...)  
 - Ba ni hara faten nitzana, hik ezian esaten "Perosterena e Irizar"?  
 - Bai.  
 - Leheningo ni harekin, gero furgonetiakin baiña. Ha zuan ba, atzera kargia haundixa ta, han erripan mobiu nitzanian altxau aurreko erruedia ta zutik! Kanpantxoko itturri onduan.  
 - Isokarruaz?  
 - Bai, gordasulak, parasolak luziak eta atzian pixua, behetik gora mobiu zanian da! Zutik!  
 - Errueda bakarra zerura begira?  
 - Gora.

## 5.8. Zotz biribilak Txinatik ekarriak

- **Hizlaria(k)**: Irizar Guridi, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-073/003
- **Iraupena**: 0:02:07. **Hasi**: 00:02:55. **Bukatu**: 00:05:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
 Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- **Laburpena**: Aloñazpi garajea egon zen lekuan hasi zen zotz lantegia. Han zeudela erosi zuten Azkoagainekeo terrenoa lantegi berria eraikitzeko. Betik-en langilerik gehien izan zutenean 62 lagun izan ziren. Gaur ia erdira jaitsita dauka kopuru hori. Zotz laua egiten dute oraindik, eta biribila Txinatik ekartzen dute.

### Transkripzioa

- ...soziotik gaztiena neu nitzuan ta, edadekua, artian gaztia. Han in giñuan beste hamar urte, hor, Aloñazpi garajia egon dok ba, han. Han hasi gituzan palillo fabrikia, hantxe. Eta bittarte hartan in gixuan terrenuak erosi Azkuagaiñen. Han montaitteko geure tinglauri, fabrikia. Horixe in giñuan, eta ondiok bizi gaittuk. Gere epokan lana ondo indda, dirua be irabazi epoka baten in giñuan, baiña gaur egun ez xok duro bat emuten. Ondiok berrogeta... bost-sei bat lagun; ez, geixki esan xuat, berrogei azpittik xaok oin, bajauaz xoiak eta, hogeta hamasei-hogeta hemezortzi bat lagun

egongo dittuk, langilliak.

- Zenbat jente eukittera aillau ziran? Zenbat langille gehixen euki (di)ttuzuenien?

- Guk gehixen euki dugunien? Hirurogeta bi-edo izan zittuan.

- Fabrikatxua. Baiña hori dana eskuz itten zan garaixan, ezta?

- Oin eukitten xuagu gauza batzuk, depresoriak, medikuendako, eta gero helauendako barillak eta palillo planua, ba gu European danian baiño hobeto preparauta gaozak; ez dok saltzen, gero eta gutxiago.

- Eta borobilla ez dozue itten?

- Redondua epoka baten in giñuan, baiña oin hemengo manobriakin ezin lekek. Planua itten xuagu ba itteko mekanizaua eta gero enpaketadora makiña bat baxakuagu eta harekin eta hortik eta hemendik eta. Baiña redonduak lan asko xakok, eskulan asko eta horreatik ekarten xuagu momentu hontan Txinatik.

- Palillua? Eta gero euskaldun izena ifiñi eta saldu?

- Txinatik ekarri ez bazan, ha fabrikia hamabost urte hontan zarrauta egongo zuan.

## 6. Lanbideak

### 6.1. Alejoren lanak: parrokiako harriak garbitzen, paper-fabrikari

- **Hizlaria(k):** Lizarralde Galdos, Gregorio; Ugarte Moia, Alejo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Jerardo
- **Erref:** ONA-020/006
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 00:09:04. **Bukatu:** 00:11:57
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Lanbideak » Negozioak, dendak
- **Laburpena:** Alejo Oñatiko parrokian hasi zen lanean, parrokiako sabaiaren harriak garbitzen, hain zuzen ere. Gero Zumarragako paper-fabrikara joan zen eta han egon zen gerra sortu zen arte. Gerra ostean Diputazioarekin bidegintzan egin zuen aldi bat, baina 1948 arte egon zen paper-fabrikari.

#### Transkripzioa

- Zu, Alejo, esan dozu gero e...

A: Leheningo lanian hasi nintzana zan Oñatiko Parrokixan.

- Zetan?

A: Goiko harri danairi koloria kentzen, alanbrazko zer batzukin. Han dagoz bigak, eta hareik danak.

- Nungo harrixak, barrukuak ala kanpokuak?

A: Barrukuak, danak, bai. Aldamiño altuak in bai goraiño bai, eta hareik garbiketan, oin dagozen kolorian ifintten ibilli giñan.

- Eta zeatik? Zikiñak egozen, edo?

A: Horregatik aginddu oskuen bai, eta gu kuadrillatxo bat ibilli giñan.

- Zenbat urtekin?

A: Zenbat urte, ba ez dakit zenbat euk(ik)o gittuan, hori leheningo lana hasi zana zerien, eta gero Legazpira fan giñan hurringu, eta Legazpin kanpuan hasi giñan baiña anaia Papeleran nola neukan, ba han apuntauta nenguen eta Papeleran hartu nindduein eta nere denpora dana Papeleran in dot nik, e... harik eta gerrara fan arte eta "hasta el año 48" arte.

- Oseake Papeleran urte mordua in dozu zuk.

A: Papeleran bai, beno, bost urte in gittuan, bat gerran eta beste lau aparte, baiña...

- Baiña gerra ostian be Papeleran jarraitu zebeu gero.

A: Bai, gerra ostien bai, atzera, "con brazos abiertos"! Diputaziñokuak be etorri xatan bi gizon, ba, baekixela zein nintzan eta dana eta segittuan eurak lanian hartzeko, esto... zera in bihar zala, karreteria in bihar zala plazatik estaziñora, eta "Ni ez naiz baiña gauza, dakuan besuakin"... "Ez, ez, ez, zuk ez, zuk aparejadoriari lagundu bihar xatzu, badakit eskolan ondo zagozela eta aparejadoriari lagundu bihar xatzu". Ta bueno, ba, orduan hala hasi nintzan, eta gero, ba, nere inguruko amistade danak, ba, lanian, erdixa edo zerien ebitzenian, Papeleran goizetik ebitzenak eta atsaldetik, ba bixetan aprobetxaitteko topau nittun jentia eta gero gura nindduan Diputaziñuak enkargau eruatia beste leku batera, baiña Papeleriak esan nontan hillabete garrengo eurak hots ingo nostailla, egoteko jefe lokalakin bai, eta jefe lokalak entzun bakarrik, ofizinan eukan semia han, ta entzun besterik ez nontan in ta Papelerakuak hots in nostailla eta dezidiu neben ama nola neukan eta arrebia Olabarretan, ba hareik ezin nekiela abandonau eta Diputaziñokueiri esan nosten, ba nik horretxeatik, bestela nik segiuko neuke, zeatik oso konforme neuen eta zer haundixak emun nostailla eta, hala Papeleran segiu neben harik eta 48 arte.

## 6.2. Ile-apaindegian txanda txapen bidez

- **Hizlaria(k):** Ugarte Umerez, Nikolas
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Oñati
- **Erref:** ONA-039/001
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:25
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Lanbideak » Negozioak, dendak
- **Laburpena:** Ile-apaindegian txanda lehen txapa batzuen bitartez hartzen omen zen. Taula bat zuten txapekin eta bezero bat etorri eta ile-apaindegia okupatuta bazegoen, ordua jarri eta txapa hori ematen zioten.

### Transkripzioa

- Hona sartzeko, edo behintzat ulia mozteko, betik txanda eskatu bihar da?
- Ba normalmente hemengo ohitturia hori izan da, nik hasi nintzanetik, oin telefono bidez eta lehen ba txapa batzuk eukitten gittuan, bakoitza bere numeruakin eta ha izaten zan zera, oingo telefonuan ordezkua.
- Ha zelan zan, zelan zan hori, txapana?
- Nik badakot ondiok txapa horreik gordeta, nere aittak eukan horrelako tablerotxo bat, eta eozen 30 numero, batetik hasi 30era. Bezero bat etorten zanian, ba, jentia baldin baeuen ba hurringo numerua emuten zotsan, eta txapiori poltsikara hartu eta, ba, kalera juaten ziran, ordua emuten gotsan eta gutxi gorabehera ordua alleaitten zanian, atzera berriro etorten ziran, sillan jarten zanian txapia txintxiliz jarten ebein txaperuan eta ba telefonuan lanak horrek itten zittuan.
- O sea ke gutxi gorabehera gaur egun Eroski edo halako supermerkatu batera faten bagera... numerua hartzen duna.
- Bai, bai, berdin, berdin, oingo katxarruak elektrikuak dira, ezta? Baiña orduan ez eguen holako zerik, hala izaten zan, tablero baten txapakin. Ondiok nik horreik gordeten dittut nere rekuerdorako.

### 6.3. Ilargiaren eragina ilea mozterakoan

- **Hizlaria(k):** Ugarte Umerez, Nikolas
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Oñati
- **Erref:** ONA-039/003
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:04:50. **Bukatu:** 00:06:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Lanbideak » Negozioak, dendak
- **Laburpena:** Zenbaitek uste du ilargiak eragina duela ilea mozterakoan. Berak ez du garbi kontu hau, denetariko kasuak ezagutu ditu eta.

### Transkripzioa

- Lehen, garai batean ez dakit hala zan ala ez, ya ohitturia baldin baeuken hillian behin etortekua, ze sasaitan etorten ziren, ze... hori jentiak esaten dau illargiari begiraketan xauela, ez dakit zer ulia moztera etorteko eta... Halakorik, zueri, komentarixo horreik eitten dotsue?
- Bueno, ba bai, hori be da gai bat jente batzuek erabilten dabena, lehen be baitta eta oin be baitta. Ni neuk esaten dostat, neuk ez dakittela ze esan, porke jente asko dau, ba, ez dakit, parian tokaitten xatenelako ilbeheran mozten ebeñak, eta hareik be kalbo jarri dira eta beste batzuk berriz horri begiratu ez xauenak ule eder askuakin onddiok be badabitz. Baiña oin be bai, oin be badakot nik bezeruak, motibo bateatik edo beste bateatik ilbeheria igual pasau in xatelako, hurringo ilbehera arte etxoitten dabena ulia mozteko. Eta nik esaten dostet ba hori, hori guretzako txarra dok, e? Porke hori propaganda haundirik ez ein horrenik porke bestela guk ilbeheran bakarrik lana egingo xuau, eta gero hemen begira egon biharko xuau, eta ba hola ibiltten gara bata bestiari... Oin, inportantziaik dakon? Neu ez naiz kapaz esateko, badakit gauza batzuekin baietz, baiña ulian araberan, horixe neuk ez dakit dakon. Nik baiña, beste ze batzueiri preguntau biharko lezkixo hori.
- Baiña zuk egunero, ilbehera ilgora izan, zuk egunero hemen bezeruak bueltaka badabitzu.

- Bai, bai, ez dao horren araberan, ezta pentsau be, bueno! Oin ohitturak aldatu dira, e?

#### 6.4. Ile-apaindegira joateko egun eta orduak

- **Hizlaria(k):** Ugarte Umerez, Nikolas
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Oñati
- **Erref:** ONA-039/004
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:06:20. **Bukatu:** 00:07:45
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Lanbideak » Negozioak, dendak  
Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- **Laburpena:** Lehenago aste hasieran bezero gutxi izaten zuten; gaur egun, lana banatuago omen dago. Gainera, lehen larunbat arratsaldeetan ere lan egiten zen eta gaur egun langileek halako gauzetarako tarte gehiago dutela uste du. Ile-apaindegira joateko egun eta orduetan aldea dago emakumezko eta gizonezkoen ile-apaindegien artean.

#### Transkripzioa

- Baiña zuk egunero, ilbehera ilgora izan, zuk egunero hemen bezeruak bueltaka badabitzu.

- Bai, bai, ez dago horren araberan, ezta pentsau be, bueno! Oin ohitturak aldatu dira, e? Lehen "por ejemplo" astelehena jai eukitten ebein. Nik be ezagutu neben eta nere aittak-eta be baitta ezta? Eta astian hasieran lan gutxi itten zan oso. Oin lana hobeto dao partiuta. Oin sarri pasaitten xaku edozein astelehenetan lan gehixago itten dou zapatutan baiño. Zapatuan ya gizonezkuen behintzet, ez dakit jai giruan jentia ospaketan hasi da itxuria eta lehen, berriz, ez euen holakorik. Eta gero beste gauza bat pasaitten da: lehen fabrikatan be zapatu arratsaldia lana itten zan eta aprobetxaitten ziran lan ordutik kanporako orduak. Oin "entre que" bateko relebua dala, besteko beste gauza batzuatik langilliak be, nik uste dot ordu gehixago dako hola libre, holako gauzak itteko.

- Beraz, zuenian ez da gertaketan emakumezkoen pelukerixetan moduan, han bai, han e, ez egizu azken orduan, ebaikutz edo zapatuako txandia eskatu, ze imposible, ez dago!

- Ez, ez, gizakumien... Nik esaten dotsuten moduan, astelehenian igual lan gehixao itten dozu ebaikutzian edo zapatuan baiño. Ez dao hola egun konkreto bat noiz lan gehixao ala gutxiao itten dozuna, hori ez.

#### 6.5. Lan-orduak ile-apaindegian

- **Hizlaria(k):** Ugarte Umerez, Nikolas
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Oñati
- **Erref:** ONA-039/009
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:16:00. **Bukatu:** 00:17:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Leturia, Ane



- **Gaia(k):**

Lanbideak » Negozioak, dendak

Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

- **Laburpena:** Lehenago jendea presa gutxiagorekin etortzen zen ile-apaindegira eta berriketan lasai egoten ziren. Larunbatetan arratsaldeko 7ak arte lan egiten zenez, beraiek gaueko 12ak aldera arte ere lan egin zuten inoiz. Domekan goizeko seietako meza entzun eta 7etarako berriz lanera. Baserritarrek domeka aprobetxatzen zuten ile-apaindegira joateko.

### Transkripzioa

- Hemen ordu bat, eta beste bat, eta beste bat eta bueno, ba batekin berba ein, bestiakin berba ein, eta...

- Horren gainean nik uste dot apur bat galdu in dala. Nik ikusten neben nere aittan sasoian hemen etorten zian igual bezeruak ta egonaldixak izugarrixak eitten zittuein, e! Batzuek prisa barik etorten zian, ulia moztu ta benga, kontuak kontau ta kontuak kontau. Ta ordutegi maillan-ta... bueno! ordutegi maillan egon da diferentzia bat izugarrixa. Ni hemen zapatuan, ni mutikua naizela, aittakin, gabeko hamaikak eta hamabixak jota dau hemen. Amak sarri ekarten oskun afaixa, bertara. Porke, lehen esan dotsutena, zapatu illunkaran zazpirak arte ero lana eitten zan, eta, ba, jentia aprobetxau bihar izaten eben. Eta nere aittak zapatuan igual hamaikak arte edo hamabixak arte hemen eon eta domeka goizian seiretako mezia entzun ta zazpiretako atzea hemen izaten zan. Eta bearek esaten eben, goizeko zazpiretan, urriñengo basarriko e... zea... gaztiak, etxian euen gizon gaztia, hemen eoten zan ulia mozteko zain. Aprobetxaitten ebein domeka goiza mezetara etorri, ulia moztu... Eta eurak gero etxerantz doiazela, hemen hamarretakua ero eindda tabernan baten, edadeko zeak, gurasuak, aittak, etorten zian meza nausittara. Eta, zea, aldaketia ordutegixan? Bueno, bueno, haundixa egon da, e! Hori neure denporan. Bai.

## 6.6. Neskame; erdara ikasten

- **Hizlaria(k):** Kortabarria Urrutia, Rosario
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-045/002
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 00:03:30. **Bukatu:** 00:06:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa

- **Gaia(k):**

Lanbideak » Neskameak

Euskara » Euskararen egoera

- **Laburpena:** Bederatzi urterekin neskame joan zen 16 urte arte, Antzuelas Olabarrira. Arabara joan zen erdara ikastera eta hiru hilabeteren ondoren etxera itzuli zen.

### Transkripzioa

- Zenbat urtera arte egon zian eskolan?

- Eskolan? Ba zortzi bat urtekin edo hola hasi, eta gero beratzikin kriada fan nintzan ta, eskolan denpora gutxi in neben nik oso.

- Beratzikin kriada?

- Bai, beratzikin kriada fan nintzan eta zazpi urte in nittuan, baserri baten.
- Hemen Oñatin?
- Oñatin, bai hortxe, Aurreko Mendixan.
- Alaba: nun esan, ze baserri.
- Olabarri.
- Olabarri, Antzuelas?
- Antzuelas bai, Antzuelas onduan, onduan be ez baiña...
- Antzuelas-Olabarri.
- Bai, bai, hantxe.
- Ezaguketan dot. Ni han basuan lanian ibillitta nago han.
- Baietz, e?
- Goratxuago.
- Joño, basuan? Basoko lanian in bihar, ha basua da eta.
- Entresakan.
- Altzikorta ta dagoz.
- Gorago, ni gorago ibilli nintzan.
- Bai, gorago, bai.
- Bazkaldu eta Koroson itten geben.
- Koroson, e? Koroso erre in zan gero.
- Bai.
- Oin etxe ederra indda egon bihar dau.
- Oso ondo.
- Alaba: Esan Arabara noiz juañ ziñan, zetara fan ziñan Arabara.
- Arabara?
- Alaba: Arabakua kontau.
- Ba Arabara fan nintzan hamahiru urtekin, baiña Araban denpora gutxi in neben. Hara eskolia ikasteko zerian fan nintzan, baiña hiru hillabetian ikasi neben bai nehikua eskola, ta etxera.
- Etxera lanera atzera be.
- Bai.
- Eskolia ikastera eta erderaz ikastera.
- Bai ba, eskolia eta erderaz ikastera fan nintzan.
- Ta hiru hillabetian ikasi zebeñ erderaz?
- Hiru hillabetian nehikua erderaz ikasi eta etxera!
- Eta nun egon ziñan Araban?
- Araban? Ba leheningo egon nintzan hillabete eta erdixan Heredian, eta gero [...] egon nintzan beste hillabete eta erdixan.
- Eta ze egon ziñan, etxeren baten?
- Bai, maixua kanbixau in zan bai, maixua bialdu euen Herediatik zera, [...] eta nik maixuakin fatia gura neben eta fan nintzan maixuakin, eta maixuen etxian egon nintzan. Orduan tontia portau nintzan, orduan han geratu banintza, makiña bat enpeiñu in nostan bertan geraketako, baiña nik ezetz, etxera etorri bihar nebela, ta etxera etorri nintzan.
- Eta zela fan ziñan Arabara, mendittik?
- Mendittik, aitta eta bixok fan giñan.
- Hor Mikeletxetik gora?
- Bai, Mikeletxe ondolik gora fan giñan. Behinguan ez giñan aillegau, e?
- Ibillialdixua.
- Bai horixe, fanaldixua.
- Fanaldixua dago bai.

## 6.7. Aitaren hasiera bizargin lanetan

- **Hizlaria(k):** Ugarte Umerez, Nikolas

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-049/008
- **Iraupena**: 0:04:20. **Hasi**: 00:25:12. **Bukatu**: 00:29:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
Lanbideak » Negozioak, dendak
- **Laburpena**: Bere aita mutikotan aprendiz gisa ibili zen; soldadutzan ere bizargin lanetan jardun zuen eta handik itzuli zenean hasi zen orain seme-ilobek bizargin-ile-apaintzaile jarraitzen duten lokalean.

### Transkripzioa

- Eta aitta pelukerua zan.
- Aitta, nere aitta, bai, barberua, "barbero-peluquero". Bai, kartelian jarten eben alde batetik "barbería" eta beste alde batetik "peluquería".
- Doroteo, izena.
- Aittak Doroteo euken izena. Nire aittak kontaitten eben soldau joan aurretik itten eben beste barberixa baten, oso popularra zan, Felipe Goixenetxe, Txintxurreta, hemen zerian hementxe plazuelan, Itturritxoko plazuelan, gero paragerixia izan zana eta gero eskopetak saldu zittuana ta...
- A, ni hantxe jaixua naiz, baiña nik han betik eskopeta dendia ezagutu dot.
- Ba lehenao barberixa zan, nere aitta aprendiz harekin ibilli zan. Garaiñian be itten eben lana eta gero illunkaratan horrekin. Ta kontaitten eben soldadu joan zan eta soldadutzatik bueltau zanian, ez euen itxuria oingo legerik, eta etxian fabrikara bialketia gura izan ebein eta joan zan fabrikara Gararaiñera, ta esan (e)i otsain itxoittekko apur bat, leister hots ingo otsailla. Goruzkuan sartu zan oin ni nauen barberixan, eta han euen barberuak esan (e)i otsan: "Joño hi, Doroteo, enterau nak soldautzan barbero egon haizela, bai? Ta, ba nik hartuko ñekek ba hemen mutil bat lagun itteko". Ta bearek ez eukan fabrikarako gogorik eta "Bai?" Eta, "Ba bai". Ta ba, "Noizdik?", eta "Beittu, gura badok geldittu, hor dakok batia". Eta kitto, holaxe.
- Kasualidadez.
- Ugartetarron pelukerogintzia hola hasi zan.
- Kasualidadez aurrekua be Ugarte zan, Irubietako baserrikua, Lorenzo Ugarte, bai.
- Zure senidia?
- Ez, ez. Bueno, Ugarte aldetik ez, ama aldetik token bai euki bihar neben, baiña ez, nere aitta eta horren aldetik ez dot uste euenik ezen zerik, baizik horixe parian tokau zala. Eta gero haregandik esaten eben gure aittak nobixia, andregaixa, ba, donostiara billatu eben eta emakumiorrek Donostiara eta Donostiara eta Donostira eta, bueno, ba, Donostiara joan zan eta lokalakin nere aitta geldittu zan, errentan, errentan geldittu zan. Eta horrek dako pelukerixia ondiok be esis..., Donostiara joan zan harek, ondiok be esistitten dau, "Bar Alcalde" hurringo atia, han jarri eben pelukerixia, eta oin ha pelukerixa ha dabil beari lagun in otsan baten alabiak, riojano baten alaba batek dabil ha lokala, "como peluquería mixta".
- Oñatittik fandakuak.
- Bai.
- Bueno, orduan aittak suertia euki zebein alde batetik lana topau zabelako holan, eta bestetik lokala laga otsalako, ez?
- Bai, bai.
- Hara hura joatitik lokalakin gelditu zan.

- Hori da, bai.
- Horrek esan gura dau zuek Ugartetarrok ya ehun urtetik gora zoiazeilla pelukero.
- Ehun urte ez, hainbeste ez dot uste, nere aitta jaixo zan "el año 1906", botako dogu 23 urte soldautzaia ittera orduko, ba, horixe, 29. Donostiara noiz joan zan horixe ez dakit, harekin zenbat denpora in eben hori ez dakit, baiña horixe ez dakit, bestela "1930 números redondos, al 2008, 78 años", 78 urte.
- Baiña zuk zeuk 50 in (di)ttozu ya.
- Nik 52 in (di)ttut, 52 urte in (di)ttut nik aittakin eta gero aitta hil zanian neuk...
- Klaro, aittak ingo zittuan igual beste hainbeste baiña berak aurretik Donostiara fan zan horrekin.
- Horrekin ez dakit zenbat urte in eben, horixe ez dakit, ez dakit.

## 6.8. Hiru ile-apaintzaile belaunaldi

- **Hizlaria(k)**: Ugarte Umerez, Nikolas
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-049/009
- **Iraupena**: 0:05:39. **Hasi**: 00:29:32. **Bukatu**: 00:35:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
Lanbideak » Negozioak, dendak
- **Laburpena**: Nikolas beraren historiaren gorabeherak. Ugartetarren hirugarren ile-apaintzaile belaunaldia jada abian dugu Oñatin.

### Transkripzioa

- Eta soldautzan, hori, pelukero lanetan ibilli zan aitta, ez?
- Ni bai; aitta be baitta.
- Baiña berak bazekixan, baiña, pelukero lana edo?
- Bai ba, aurrez hemen ibilli zan illunkaratan ibiltten zan beste pelukerixa baten ibiltten zan.
- Eta zeatik zan, gustaten jakolako edo?
- Itxuria, itxuria, bai, bestela ez dakit, ez geuken guk aurretik, nik euki doten moduan ez eben harek ez eben euki aurretik iñor famelixan ofizio horrekin, ezta?
- Aurretik zebillen fabrikan eta...
- Hori da, Garaiñian, eta gero illunkaratan hor ibiltten zan itxuria, bai. Eta gauzak zela dien! Nere aittak Burgosen in eben soldautzaia eta hara joan zanian presentau zan kuarteleko barberixan barbero moduan. Ba orduan inddako harremanak barbero beteranuakin, ondiok jarraiketan dot nik famelixa harekin harremanak. Datorren hillian... Gero ni Burgosera joan nintzan neu be soldau, harein etxian egon nintzan. Harek billatu nostan lana Burgosgo pelukerixa baten; goizetan egoten nintzan kuartelian eta arratsaldian pelukerixa baten lana itten neben, bai. Eta harrezkero, pentsau eizu, gure ezkontzatarra, nere ezkontzara bai, nere ezkontzara etorri zian, nere alabiana be baitta, ni be juaten naiz hara, daku harreman estua famelixa horrekin Burgosgo horrekin.
- Eurak be pelukerikuak, ezta?
- Ez, eurak ez, aitta zan pelukerua, hareik ez daue jarraitu.
- Osake orduan gremio barruan be harremanak eukitten (di)ttozue.

- Bai, gu behintzet, nere aitta zera zan gauza horreitarako zera itten zan, aguro sortzen eben hola amistadiak-eta. Batzuk, neu igual ez naiz hainbeste izango, baiña gure aitta bai, gure aitta...

- Orduan hasi ziñan hamalau urtekin aittari laguntzen. Ordurako ya berana zan lokala?

- Bai, ordurako ya bera bakarrik euen han; lokala beria ez, errentan. Hori lokalori zan abare batena, gure aittak kontaitten eben, Don Ramontxo, nik ez neben ezagutu. Eta, gaiñera, gauza kuriosua kontaitten eben. Gero gerria etorri zanian, abariairi eta holako gauzak gorrixak, gorrixak, badakitzu, nazionalistak eta kentzeia gura izaten (e) i osten, eta hori ez pasaitteko kriadien izenian ipiñi eben etxia, eta gero gerrak akabo zianian eta zerak, intentau eben bereganaketaia etxia, eta kriadiorrek "tararí que te vi". Eta nere aittak dakon erreziho danak nik oinndiok gordeten (di)ttut, pagaitten otsan tipo baten kriadia zan bateri "una tal Perez de Cuadrado" donostierra. Donostierra edo behintzet... porke oin iñoiz periodikuan ikusten dot nik idatzixak hola "Cartas al Director" ta zera eta firmaitten daue Perez de Cuadrado batzuk eta burura etorten xat: "Aiba! Hau hareittako tartekoren bat izango dok, ba!" Perez de Cuadrado, bai. Eta gero, ba, ez dakit zela izan zan, eskeinttia edo aittak erostia gura izan eben, baiña ez, ez eben lortu. Ez, geixki nabil, hori gero etxe hori erosi eben Enrike Zabaleta, loterixia tokau xakon "Txapa", eta erosi eben zera, nere aittak ez eben lortu hori beraganekatarik lokal hori, erosterik ta horrek gizon horrek erosi eben eta gero egunen baten pentsau eben lokala saltzeia ta neri saldu nostan, nik erosi neben lokala, aittak betik errentan euki izan dau lokal hori, euki izan eben, bai. Hemen loterixia jausi zan kasualidadia neu soldau nenguela "el año 63" jausi zan gordua.

- Bai, e? Oñatin.

- Bai, Oñatin. Eta orduan batzun batzuek kobrau ebein lau millue ta piku edo baikotzak. Ordurako diru asko izan zan. Orduan lau milluek emuten ebein interesak zian persona baten sueldua baiño gehixau, hillian, orduko persona baten sueldua baiño gehixau. "Lo que pasa que" gero gauzia joan dan moduan juanda, ba ezebezekin geldittu zan, baiña harek behintzet ha etxia erosi eben, beheko lokala neri saldu nostan...

[...]

Holaxen gauzak eta nik oin ba alabiari zera indda dakot, pasauta dakot, "en tercera generación".

## 6.9. Neskametzatik ezkontzara

- **Hizlaria(k):** Garitaonandia Lizarralde, Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-060/001
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Lanbideak » Neskameak  
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Zortzi urtez egon zen neskame, Seguran lehenengo eta gero Bergaran. Azkarretara ezkondu zen. 13 urterekin jada labesua egiten zuen.

## Transkripzioa

- Ni argaltxua izan banitz, orduan etxian egongo nitzan, ta nik aman onduan denpora gutxi pasau dot [...]. Gero zortzi urte in nittun kriada, eta gero ezkondu, berriz. Desgraziadia. "Una desgraciada de mucho cuidao he sido yo."

- Nun egon ziñan kriada?

- Kriada egon nitzan zerien, Bergaran, Bergarako Maduran, Ugarte-ta, badakitzu Zubikua?

- Bai.

- Zubikuan frentian bestekaldian.

- Bai, Zubikuan parientiak dakot.

- Zubikuan klaro, Basili Aizkirriko alabia da, zan, hilgo zan honozkio. Bai, hilgo zan honozkio. Zeatik haren famelixia, harek be seme-alaba pillia eukan, eta segidu ortuan ibiltten zan ha be bedarrak etaraten, orduan ez euen orduan ez zerik, dana eskuz in bihar izaten zan. Makiñatxo bat lan inddako andratxua zan, haundixa ez, baiña...

- Oin uste dot Zubikuan ortuak eta batzuk kendu in (di)ttuela.

-(...)

- Eta gero etorri nitzan esklaba Azkarretara. Esklaba e? "Y muy esclava".

- Baiña esklaba ezkonketara edo ezkondu ta gero?

- Ezkondu eta gero esklaba, klaro. Aurretik domeketan behintzet librauten neben, gero ez euen domekarik ez ezebez. (...)

- Orduan kriada ziñanian domeketan ez zebeu itten lan?

- Domeketan jai eukitten geben bedarra ez beuen ta hori. Domekak jai izaten ziran; bedarra baldin baeuen ez, bedarretan in bihar zan, edo garixa euenian eta hori bai, bai. Nik pasau dot bizimodua hamendi-hamendi-hamendi, tarraz-tarraz-tarraz, honaiñotxe ailleau naiz, azkenian oso tarrastu. Nere seme-alabak esaten daue, "gure amari ez xanai iñok pasauko, honek baiño miserixa haundixagorik ez xon iñok be pasau!" Bueno, neuriak nik pasau (di)ttut neuk, nere ahizpa batek-edo, esaten dost ahizpa batek, berak hamahiru urtekin indda dauela labesua; bueno, "ya zazpi aldiz entzun xonat bai eta ya ez xonat gehixau entzun bihar, e? Hamahiru urtekin ez hintzan hi kapaz zutik ibiltteko be", esan notsan, "gehixao ez xonat entzutia gura hori" esan notsan. Begiratu in nostan. Oso geixua izan zan ha txikiña, neskattillatan. Hamalau-hamabost urtekin regla etorri xakonian orduentxe hasi zan ha, eta gaur andria nire aldian bixkorra eta gogorra dao gaiñera e? Baiña orduan? Eta ni beti izan naiz neskattilla ederra, "qué pena".

- Orduan hamahiru urtekin ya labesua itten zebeu?

- Bai, panaderixan egon nitzan ta, labesua itten geben egunero! Egunero itten zan labesua.

- Panaderixan?

- Bai, eta tremendako labesua itten ziran, Seguran egon nitzanian.

Horreatik dakot nik hizkuntzia pixka bat kanbixauta. Han egon nitzanian Segurakua mau-mau itten neben nik. Urte t´erdixan egon nitzan, eta euren moduan ikasi neben nik berba itten.

- Orduan leheningo Bergaran eta gero Seguran?

- Leheningo Seguran.

- A? Leheningo Seguran.

- Bai ta gero Bergaran. Eta gero hona etorri nitzan. Buf! Ez dot akordaitterik gura, kontu horreik akordaitten sartzen xat tremendako hotzikaria.

- A bai, e?

- Ni neskattilla, nik zenbat negar in doten? Bueno! Ni izan banitza negarrakin ta galtzekua, aspaldi ahaztuta nenguen, eta bakia gaiñera. Hola bizittia tristia da gero umiak e? Umiak ama eta etxia bihar izaten daue. Ez

dot esaten ondo bizittia baiña aman inguruan beste gauza bat da, e? Nik askotan esaten dostet nere umieri, pobriak izango giñan baiña ama hamentxe dakotzue zuek. Nik euki ez nebena. Nik ez dot euki amarik sekula. Txikitxua nintzala bai.

## 6.10. Bizikletaz eta astoz

- **Hizlaria(k):** Garitaonandia Lizarralde, Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-060/003
- **Iraupena:** 0:04:15. **Hasi:** 00:04:25. **Bukatu:** 00:08:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena:** Seguran ikasi zuen bizikletan ibiltzen. Behin, Zegaman ermandadeak banatutako behi okela zatia bizikletaz eraman zuen etxera. Ogiz betetako zakuak astoan hartu eta bezeroei banatzen zizkien.

### Transkripzioa

- Eta esan dozu bizikletan ibiltten ikasteko ...

- Bizikletan ibiltteko [...] ze baten, baten bat egon bizikletia eukena, nik ez neukan baiña, eta bizikletan ikasten egoten ziñan etxian, kalia, kale nagusixan, “Mayor dieciseis”, euan Seguran eta hantxe euan ta etorri xatan: “bizikletan nahi al dian ikastea”, ta “bai”, horixe bai, besterik ez. Hasi nitzan bizikletiakin eta etorri zan señoia, urten eben eta fan zan zerera, [...] (...)

- Eta ikasi zeuben?

- Honbre ikasi nebela! Gero Zegaman handik denpora gutxira, Zegamara joan nitzan, behi bat hermendadian-edo Seguran behi bat partiu euen eta eruan nittuan zortzi kilo okela, bizikletan hartu eta aide. Ni edozein gauzetara atrebiu naiz beti eta zenbat aldiz, ez xat ezer pasau, eta bueltan netorrela Seguran zerien plazatik behera erripia dau goittik behera, ez dakit egonda zauzen, ez?

- Pasadizuan bakarrik.

- Ba dau plazan, ta plazan hasten da erripia dau, eta umiak orduentxe urteten bostetan arratsaldian etorri nitzanian, frenua apurtu! Eta ze ingo ete da hemen? Ta “ni corta ni perezosa” hankia ipiñi eta zera joan nitzan, aiuntamientu onduan han bolalekua, ta han launadia euen ta hantxe geldittu neben bizikletia, hantxe. Pasau (di)ttut holako, holako larrialdixak asko e? Baiña bueno, ez xatan sekula ezebe pasau.

- Eta hori esan dozuna, ermandadeko behixa partiu zeuilla. Zer zan hori?

- Ba ermendadiak egoten ziren lehenao baserrixan, oin ez dao hamen be ez da ermandaderik oin. Baiña ermendadia izaten da ba baserritarrak edo kalia, kalia be jente asko euen behixak eukeiñak e? Eta bi anae ziren solteruak bixak ta ba nola behia kendu behar zuten, ta albaiteria egon zala eta ez ziotela esan jan zekela ta, ta gero jun ziren ta esan zion ba berak bazeukela Zegaman, orduan gose urtiak ziren, gerra ondoria eta esan osten: “ba nik enpleauko dizut nahi badezu”, ta halaxe hil euen ta neskaillia bialdu Zegamara okelokin ta listo. Eta hantxe ez dakit zer, sekula egon barik nenguen Zegaman, ez kapitala dalako baiña, han plazara iristen zeranean, hantxe eskumara ez dakit zer jartzen du eta hantxe letreroa ta

irakurten dakixena behintzet gutxienez, eta eruan nittuen, itxi okelia eta emun nostain zera, nola esaten xakon, kanikatuakin ta zela izaten ziren?

- Rifa?

- Ez, erana izaten zan, Seguran itten ziren, kanikatuakin ta klak zapaldu eta ...

- A, gaseosak?

- Gaseosak. Gaseosa botillia uste dot emun nostain, eta haxe eran eta martxa atzera. [...] eta ni faten nitzan egunero Mutiloara ogixakin, astuan lau zaku ogi hartu eta Mutiloara. Eta amandratxo bat, zikiña, ondiokk be gorroto dakot e? Ba kontauta eukitten ziren ogixak eta orduan bota nostan bronkia gure ahizpak, eta nik bape kulparik euki ez, eta itten nosta bestiak zakua bere aldera begira ipiñi eta mostradore azpira bat botaten eben. Baten in nostan bakarrik e? Persona dontsia, dontsia jaixo in nitzan ni e?

- Orduan bezeruak itten otsun ogixa ostu?

- Ogixa bat, bat hartu eta ra sartu. Eta orduan ogixak badakitzu ze balixo eben? Zazpi txakur haundi.

- Zazpi txakur haundi.

- “Setenta céntimos”. Oingua ingo balitz horreik moduan. Latzak pasautakuak danak eukitten (di)ttugu goguan. Ni gauza polittak pasau banittu orduan ez xatan akordauko, baiña horreik zakudidia horreik emuten dotsuenian beti kentzen dotsue gogua. Halaxe, bat falta dezu hemen, ez dakit, ezin dotsut esan ta, gero hori izango balitza gaurkua esango notsan: “aber ikusi daigun aber zer dakotzun hor”, sartu mostradure barrura eta han topauko notsan e? Hartu ta ra sartzen eben ta kajan baten ifintten eben han eta honek ekarri in bihar nostala. Tontak espabilatzeko ez da ona jente txarra. Ez horixe.

- Baiña umia zu ondiok, ezta?

- Bai, hamahiru urte. Oin bialdu egin eizu hamahiru urte, gure neskatilliak dako hamabost urte, gure billobiak, bialdu egin eizu ha, nora bialdu bihar dozu ha? Igual ez eben gurako e?

### 6.11. Karmen okina

- **Hizlaria(k)**: Garitaonandia Lizarralde, Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-060/004
- **Iraupena**: 0:04:24. **Hasi**: 00:08:40. **Bukatu**: 00:13:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena**: 14 anai-arreba ziren. Eskolatik neskame lanetara berehala bidaltzen zituzten. Goizeko lauretan jaikitzen zen Seguran ogia egitera, eta gero ogia banatzen zuen, astoz. Umetan, eskolara joateko aukera gutxi izan zuen.

#### Transkripzioa

- Eta han egon ziñanian lanian Seguran, bertan egoten ziñan?

- Bai, bai, bertan, bertan, kriada bertara joan nitzan, bertan egon nitzan. Bai, bai. Ziren, aman lehengusiña zan andria ta...

- Eta ze itten zenduen, ogixak in eta saldu ta dana?

- Bai, ogixak egin, gaur gabian igual goizeko lauretan edo jaiki bihar izaten zan, ordu bittan, lauretan edo hala, ezin jaiki, uste dot plazatik be



entzungo zittuela diarrak, jaiki ta “ni corta ni perezosa” holaxe itten nittuan ogixak, ra-ra hasi nizan itten ta: “hartu biak batera! Igual igual ingo dezu eta!” Ene! Bueno, ya, nehikua dot, nehikua dot, zeatik hango kontuak ez akordatzia hobe da, ez akordatzia. Egin ogixak, gero zortzirak inguruan joan gora, apur bat garbittu, di-da, astua ipiñi, ipiñi astuan ogixak eta Mutiloara. Eta gero etorri ziran bi mutil, jittanuak emuten euein, [...] tremendako preguntiak itten nostain, eta ume makala nik ez nekixen ezebe orduan, artian ze jakingo neben, eskolatik, eskolatik urten, bete nittuan mariatzen hamabixan hamahiru urte, eta hogeta zortzixan mariatzen bertan, fuera! (...) Haraxe fan bihar dozu eta kitto. Nik esaten dot: “baiña zela leike hola?” Umiak hortarako, ez daue jaixo bihar umia hortarako, ez da jaixo in bihar, ni hamahiru urtekin, eta nere ahizpa zaharrena, maistrina fan zan, zazpi urtekin eskolan hasi eta zortzikin kriada. Baiña ikasten egon zan, zortzi urtekin e? Eta pentsau egizu, harek eskribitten eta politto ikasi eben. (...) Guk esaten geben, guk iñok ez xonau aprobau gu ze izango giñan, halako bapauk izan be, ze bapo? Zazpi urtekin eskolara edo seikin eskolara fan eta zortzi urtekin kriada bialketan dauenak, gurasuak ez dakit zer dan. Niri ez eizue esan hori normala danik e? Orduan holaxe izango zan baiña gure moduan iñor ez zan ibilli. Ni hamalau anai-arrebetakua naiz e? Neu seigarrena.

- Hamalau anai-arreba?

- Bai. Gogorra da e? Gogorra da. Umiak bihar dira, umiak bihar dira, baiña ze ...

- Danendako ez zan egongo etxian ezta?

- E?

- Danendako ez zala egongo.

- Bai baserrixan ogixa-ta egoten zan, baiña ogixa bakarrik ez daue bihar, e? Orduan ogixa ta gaztaiña ta patatia ta porru-patatia ta hori egoten ziran, eta esnia be bai, baserrixan esnia nehikua egoten zan, eta esniak be ez nostan itten onik, talua ta esnia, nik oin talua entzun bai ta nere billobak: “neri talua gustaitten xat amandria”. “Bai gustaitten xatzu? Ba jan ume, neri ez xat gustaitten eta”, “Ekarriko dotsut e?” “Ez, ez, neri ez ekarri talorik, ez ekarri neri”. Usaiñak be higuña emuten dost neri, garratzu itten xatan neri, etxian jan talua eta esnia eta etxetik [...] mobiu ordukoxe garratza egindda eskolara, [...] eskolara garratzakin. Iñoiz joan izan nitzan armozau barik, eta baten holaxe, orduan egun hartan armozau barik fan nitzan, ezer hartu barik, ez neben eukitten gogorik. Hamarrak edo gehixau izango ziran, hori-hori nitzan momentu batetik bestera, “qué te pasa Carmen?” esan nostan maestriak, maestria geukan, “no estás bien?”, “Me siento un poco cansada” esan notsan, “¿Te sientes cansada? No tienes buena cara. Tienes amarilla pero marrilla eh?” Begixak [...] besuak eta danak. Zelaikua euen han urrian, baserri bat oin zera, Tavesa dauen lekuan, baserri haundi bat, “acompañarle a ésta hasta Zelaikua” [...] han nunbaitten euen gure etxia, ta baten batek lagundu nostan haraiño ta joan nitzan etxera ta, aillau nitzan etxera ta, “ze pasau jan baiña ze pasau jan, oin be hola, ez dakit zer”, eta badakitze ze erremedixu euen gure amak? Ze ete da ziharo pobriak izatia e? Ura egosi kazuela baten ta haretzekin garbittu nostan mosua, ur egosixakin. (...)

- Ur egosixakin mosua garbittu?

- Bai. Esaten horretzek osatuko nindduala, eta ugera, egon nitzan lau-bost bat egunian ugian. Harek ez eben beste erremedixorik hartu, berakatz saldia jango neben, esnia ez xaten gustaitten, normalian ez xaten gustaitten esnia, ondo nenguanian be. Holakotxiak banan-banan esango nittuke mordua esango nittuke, eta honeik ez dira inbentautakuak, honeik

ez dira pelikulako kontua, e? Honeik dira “realidad”, nik pasautakuak.  
- Holaxe bizi izan naiz ni, eta artian beti andra ederra.

## 6.12. Segurako okinak

- **Hizlaria(k)**: Garitaonandia Lizarralde, Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-060/009
- **Iraupena**: 0:01:42. **Hasi**: 00:22:58. **Bukatu**: 00:24:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
Lanbideak » Negozioak, dendak
- **Laburpena**: Senide baten etxean egon zen Seguran. Okinak ziren etxeakoak, eta bai Karmenek eta baita bere anaia batek ere okindegian egin zuten lan beranduago.

### Transkripzioa

- Eta Segurara senideren baten etxera?
- Bai, aman primia zan andria, prima karnala amana, Alkorta.
- Eta ha zan panaderia?
- Bai, gizona zan panaderua, eta bera be bai, [...] gizona zan panaderua eta gero anaia eukan, ta gero anaia be ezkondu zan, nik alde in nebenian laister ezkondu zan, ta gero nere anaia be egon zan, beste nere anae ba be egon eta berak begixak zabaldu barik itten zittuan leheningo ogi illaria, tremendako zerak izaten ziren, barrak eta zakuzko ze bateaz ta rra, ipiñi hola ta gero rra ipiñi zeran biñan biñan danak, eta gero ezagutu itten euen, ba biñan-biñan ipiñittako zerak palak be oso diferentiak, baserriko palien moduan ez zien izaten, aldiko biñan ipintten ziren eta rra, bota labera ta labian gaiñera ez euen orduan jiratorixua han e? Geure moduko labia garbittu eta dana igual itten zan baiña [...] ta modukua ez, oin Aiastuin dakue jiratorixua.
- A, bai. Ez dot ikusi ondiok baiña ...
- Ez dozu ikusi? Bai, horreik itten dauen moduan, ta horreik jiratorixuan itten daue ta han erdi lan dau han, zeatik parera etorten xatzu erreten diranian tostau ahala zerien. Ta gero atzera ipinttia gura badozu, hortarako berotasuna euki bihar, baiña horreik atzekaldian bertan eukitten daue sua be, barruan ez baiña aldamenian. Han zan baserriko moduan “ya está” ogixa.
- Labia berotu egurra erreta.
- Bai, egurra erreta. Egurra batu itten eben bere anaiak, batzeko ta ni artian neskatiillia nitzan artian labia batzeko [...] baiña ez, sekula ez dot iñ izan, labia batzekua ez, sekula be ez, ta gero anaiak itten eben, ta gero bertan ezkondu zan.

## 6.13. Etxeko andreak jarritako zigorra

- **Hizlaria(k)**: Garitaonandia Lizarralde, Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-060/012
- **Iraupena**: 0:04:11. **Hasi**: 00:30:32. **Bukatu**: 00:34:43

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena:** Igande batean etxera berandu joan eta etxeko andreak zigortu egin zuen. Ugazabak nola babestu zuen azaltzen digu Karmenek. Etxeko "señorioria" nahiko xelebrea omen zen.

### Transkripzioa

- Behin, jakiñien zaozai hori, gauza polittak be badakitue behin, kastigauta neuen, aurreko domekan gabeko hamaiketan etxera fan nitzalako. Altos Hornosko jaittan eta handik bueltia biajia egoten zan etxera, oiñez joan ta etorri ta hamaikak jota, hamaikak laurdenak gutxiau eta zerien zubixan behera goiazan orduentxe eta neure lagun baten ahizpia, gaur dakozue ona! Danak billurra emuten, artien be billurra emuten! Eta artian hamaikak laurdenak gutxiau, hamaikak, etxera aillau nitzan hamaiketan. Señoria uge gaiñian jarritta, pazientziak hartu ezindda, "zer da baiña hau? Datorren domekan kastigauta, ez dakotzu iñora faterik" esan nostan. "Eskarrik asko" nere artian, ixilik uhera. Hurrengo goizian lehenau llamadia, aide, "arriba", hurrengo domekia allau zan eta berak fan bihar Elosura, artian amandria, ama bizi eben, bera fan zan Elosura, ta klaro, etxeko lanak in nittun danak, goizian zazpiretako mezetara fan [...] Santa Mariñara, gero mezetatik etxera fan eta gero lanak in ta hori. Eta gero arratsaldian, aldamenian bertan euen [...], "bueno, badakin ze ingo doun?" Esan nostan. Eta, "zer?" "San Juanera jungo gaittun, San Juanen erromerixi jan ta". (...)

- Zer euen San Juanen?

- Erromerixia.

- A, erromerixia.

- (...) Bai, ta señoria etorriko zala ta ... "konponduko don señorioria!" Esan ta in. Umiai siestia eragin, garbittu dana, curioso ifiñi, dotore orraztu, merienda emun, gizona ta zera, ugazaba eta beren anaia, soltero euen, [...] hareik bixairi ifiñi nosten afarixa, afaldu, gixaua in nosten gaiñera, pentsau, haragixa gixautakua ifiñi nosten, hori goguan dakot, [...] euenian ontzixak jaso, fregaua in ta dana in [...] ifiñi neben freskuran eta bagoiaz San Juanera, mutikua lepuen hartuta. Gaur kotxian be ez nitzake ba fango, eta hara fan giñanian gaiñera planik be ez neuken. Fan gitzan eta klaro dana baserriko jentia, dana jente ezaguna, in gittuan bi edo hiru pieza dantza in gittuan. Atzera buelta in eta etxera, aillau naiz etxera eta, Zubikuan kanpuan geozenien buelta in gebenian, señoria jarritta, pazientziak hartu ezindda, handik segidan igarri notsan nerbiosa euen, "buena me espera" esan notsan, oin juan hari horra, esan notsan [...] eta, "ze ba?" Ze, "hik erantzun!" "Bai, sekula ez xonat erantzun eta oin ezingo naun hasi erantzuten, gaur gaiñera faltauta naujan" esan notsan. "Faltauta?" "Bai, etxian kastigauta naujan, igez in jonat". Aillau nitzan etxera: bueno, "neskatxa miserablea, edozein gauza itten dau honek! Ez dakit ze itten dau!" Baiña esan ta esan ta esan tau-tau-tau-tau! Ixilik, umia aldatu ta esan nostan ez dakit zer itteko. "Ze esan bihar jatzu?" Esan otsan ugezabak, "afarixa emun dosku, fregaua ta danak indda umia gobernau, umiari bueltia eragin eta artian zarataka zabitz?" Ta, "hurrengo jaixan kastigauta!", esan eben. "Egon zaittez ixilik mesedez! Ixilik egon zaittez, onddiok eguzkixa goixan". Artian eguzkixa goixan euen, e? "Ekarri iturrira, edo fan iturrira eta ekarri ura"; itturriko ura eruan notsan. Eran eben basokada bat [...] Ha! Personia zan haura, "idiota", [...] eta gero esaten eben bere semiak, ei zan gizajo bat, gazterik hil zan kanzerrakin eta nere

anaiari esan otsan, gure ama txarra zuan e? Txarra zuan gure ama. Soldau neuela, [...] eta gaiñera zan eskrupulosia baiña a tope e? Alabiak esaten dost neri: “harek badakitzu zer, ze falta eben harek, zer, ama zer? Harek hola gonak jasotia eta epurdixa irakustia gizonairi”. Orduan Santa Agedara eruango euen baiña! Baiña pasauta euen, harek itten zittuen gauzak ez zittuen ingo iñok be, iñok be ez. Baten bat sillan jarritta egoten baldin bazan, ha sillia hotzittu arte ez zan jarriko. Banketa baten egoten bazan banketia garbittu ingo eben. Eskrupulosa baiña hola eskrupulosia baiña bilddurgarrixa zan e? Halaxe esan otsan: “afarixa emun dosku eta fregaua lan danak indda itxi (di)ttu eta umia goornau eta umiari bueltia emun eta zer esan bihar jatzu?” esan otsan eta, “fan iturrira eta ekarri ura” [...] baiña egin nostan ekiñaldixa esaten! Ha zan berba postura harena, “era una señora, pero muy señora”.

#### 6.14. Kale Zaharreko denda, tailer eta bestelako zerbitzuak

- **Hizlaria(k):** Arregi Zendoia, Felix
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-062/009
- **Iraupena:** 0:03:21. **Hasi:** 00:25:39. **Bukatu:** 00:29:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Lanbideak » Negozioak, dendak  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- **Laburpena:** Kale Zaharra tailerrez, dendaz, ile-apaindegiz eta bestelakoez josita zegoen Felixen gazte garaian.

#### Transkripzioa

- Eta han Kale Zaharrian beste espoloien be beozen holako taillerrak-eta? Edo beste fabrikarik-edo?  
- Ez, ez. Beste aldian ...  
- Zuen espoloian ba bi txokolaterixa eta Uztargilliarena, eta parien?  
- Parian beste aldian? Ez, han xauan Luzarrena, Agapitto, Agapitto zapaterua, gero relojerixia, ...  
- A, Illaramendi.  
- Illaramendi ez, Mugarza, oin barriztauta dauena.  
- Eta hau fotografua baeuen ordurako?  
- Ka, ez, ez; barberixia bai, barberixia betik, mutikotatik ezagutu xuat nik hor.  
- Nikolasen aitta.  
- Barberixia bai, eta handikaldera beste barberixia zera, Aurelio, eta besterik ez, hemen lehen ez xauan ... eta fruterua Elgero fruterixia.  
- Eta panaderixia igual egongo zan, Illaramendi.  
- A panaderixia bai, bai, por supuesto, klaro.  
- Oso kale industrialia zeukatzuein.  
- Eta perratzillieneko tabernia, Perratzailliena.  
- Eta hotela, Hotel Ona.  
- Hotela, bai.  
- Eta Hotel Ona parekua, plaza hartan ze egoten zan orduan?  
- Gasolineria egon zuan denpora baten, gasolineria Illaramendik ibiltten zuan triki-traka, triki-traka, gasoliña emuten.

- Orduan ez zan izango oingo modukoa, ez?

- Egoten zuan palankillari triki-traka, triki-traka. Eta Frai Bizente, Arantzazuko fraidia errekauek itten, errekadistia, Arantzazuko errekadistia, ha etorten zanian harek emuten txan igurtzixak zeari, mangeriari, azkenengo tantanera arte.

- Behixa jaizten pare, e?

- Gu mutikuak hantxe ibiltten gitzuan beti eta, gasoliñera inguruan.

- Eta hareik arku hareik eta zuk in ziranian ezagutu zittun?

- Ze arko?

- Han itturri ostian dagozenak.

- Ha bai, harrizko zera, ha betikua dok. Gure denporan ha harrixa holaxe xauan, igual-igual, bai, bai, bai.

- Eta ha zertarako in euein-edo?

- Ba ez xakixat ze...almazena-edo ez xakixat ez eukein han baten batek. Ez xakixat.

- Zeatik arkaitzian inddako zuluak dagoz han. Kanteria-edo ez zan ba izango?

- Han gero han eskillarak hareik Aitzekora igoteko hareik danak libre goraiño; han mutikotan han ibiltten gitzuan gora ta behera ta. Oin ha be itxitta xauk, klaro, Aitzekua dauen moduan abandonauta, han oin ibiltten dan mutikote honeik edozein han sartu-ta...hori ondo xaok oin.

## 6.15. Herrian hargintzan

- **Hizlaria(k):** Bikuña Urzelai, Jabier
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-066/011
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:34:41. **Bukatu:** 00:37:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Lanbideak » Etxeginak
- **Laburpena:** Arantzazukoa utzi eta aitajaunarekin hasi zen hargin lanetan. Soldaduskara joan eta bukatu zuenean hargintzan jarraitu zuen. Herri barruan udalarentzako makina bat lan egin zituen.

### Transkripzioa

- Eta gero aittajuna, hemengo aittajuna ebillen ba aiuntamiento, udaletxeko lanetan ebillen, hor zerien, ba horma batzuk eta egin ta; ba Reyes euen orduan ta Reyesek reforma asko in zittuan kaliak, bidiak eta zabaldu, horma barrixak eta in ta gu etxera, Arantzazun ba apopillo Sindikan, zapatuan etorten giñan, zapatuan orduan illunkara arte itten zan lana e? Eta etxera etorten nintzan eta aittajunak betibe esaten nontan, Arantzazura fan barik, haraiño fan barik hemen behien be baxakuau ba hiretzako lanak, eta hola eta. Bai e? Eta nun zabitza ba? Eta halako lekutan eta hori bestia itten eta bueno, guk e... gu geure martxan aurrera! Eta huringo halako baten etorritta etxera ta, hemen be baxakuau ba hiretako lanak, hori esaten nontan sarri, sarri ba hola 3-4 bat aldiz edo behintzet esango nontan ta, esan notsan etorri ingo ete naiz ba? Eta bai, etorriko baitza, badakitzu, baten bat gura edo eztakit ba. Eta ni han be gustora nebillen, Arantzazun, eta ondo pagaitten euen gaiñera, bai, Uriartek. Eta, etorri ingo ete naiz ba? Bai, etorriko baitza. Eta halako baten bueno, dezidiu nintzan etortera. Eta gero hortxe hasi giñan, ibili nintzan

beste .. bai, bastante denpora, eta gero hortik soldau.

- Eta hor hasi ziñan orduan hargin, hargin lanetan?

- Bai, hortxe. Eta gero soldau, eta gero soldautzatik etorri ta ba berriz hortxe, udaletxeko lan batzutan. In gittuan ba Txaketueneko itturrixa aldatu, Txaketueneko itturrixa...

- Ha gora jaso?

- Atzerao. Eta plazako itturrixa be han kiosko aldian euen eta ha be atzeratu in geben, eta gero han Gernikako arbolia badau ba arbola haundi bat? Haritza? Hari harririk eta ifiñi eta itturrixok eta itturri ondoko jarlekuak eta ifiñi ta gu hor ibili giñan; ta hor lehen han dukien etxeraifño euen itxuria jarlekuak eta, eta atzeratu zanian ba Gernikako arbolia pare-parien tokau zan, eta jarlekuak sobrau in ziran eta horreik jarlekuak han sobrautakuak dauz parroixia eta abade etxia bittartien, ifiñi gittuan. Bai, zera plazako itturrixa han jeneralori dauen itturriko jarlekuak.

- Elorza, araoztar bat.

- Bai, eta han abadixa ondotik parroixako zerak, handik ekarritakuak dira, bai. Eta gero hor zerian, unibersidadeko zubixa ha be zabaldu in geben.

## 6.16. Maisu portugaldarra

- **Hizlaria(k)**: Bikuña Urzelai, Jabier
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-066/013
- **Iraupena**: 0:03:08. **Hasi**: 00:41:08. **Bukatu**: 00:44:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
Lanbideak » Etxeginak
- **Laburpena**: Harria lantzen zuen portugaldar bat izan zuen maisu herriko parrokiako eraberritze lanetan. Maisuarekin oso ondo konpondu ez arren, gauza asko ikasi zituen berarengandik.

### Transkripzioa

- Eta gero hargintzan ba hortxe ikasi geben guk. Lehen ba manposterixan eta bai, ba itten geben, eta puska bat lan alde eta pittin bat ikasitta, ja hasitta neuen puska bat itten ta hola, baiña neure erara, baiña gero harrixa labraitzen ta hola, hargin-hargin ba lan fiñauan hor ikasi geben, klaustruan. Klaustruen bertan...

- Eta beuen iñor irakusten? Edo... edo orduak sartuta?

- Portuges bat ibili zan. Leheningo ibili nintzan portuges batekin. Eta orduan portugesa itten gittuan zerak, han klaustruan beheko kornisa batzuk eta eliza barruan be bai beste arku bat, han elizan ezkerreko aldetik be korua geuk ingotzan, ez euen korurik han.

- Halako barrixa da korua?

- Elizan altarera begira eta ezkerreko aldetik dauena, ha geuk in geben barrixa. Eta gero, hemen sakristixa aurrian badao ba beste arku haundi bat? Hori euen lehen albuan, alboko bi posten erdixan euen, eta han gaiñian euen organua.

- Eta ze in zeuein? Organua...

- Organua aldatu zan atzekaldera, erdixan atzekaldera, eta gero arkua ekarri geben sakristixa aurrekaldera. Eta arkua hori zera da, lan askokua eta gaiñera haundixa da oso, eta hor be bagebitzen. Hori portugesa oso zakarra zan, langillia eta bazan, eta langille fiña eta bai, baiña oso zakarra

zan, etzan iñokin be arreglaitten. Nik aguantau itten notsan, ba bueno, nik ba gura neben ba ikastia, eta puska bat eztakitzu? Eskua hartu eta zera, eta ba, izugarriko bronkak botaten nostan, bueno, bueno! Nolakuak? Eta nik entzun ta entzun ta entzun, ba-bai, hik esan, esan, nik neure artian, baiña nik ikusten neben bere sekretutxuok eta, bere nola itten eben lana ta hori, ta hori organuen zeori itten gabitzela, hasarratu zan, eztakit ze pasau xakon, gau baten ezkutau zan eta gehixao etzan agertu. Gehixao etzan agertu. Eta Portugalgua zan, zan Caminha-kua, zeretik pasau, hori Miño edo errekoa pasau ta bertakua han, eta hiru alaba eukan, eta alabakin eta bastante faten zan, dirua eta eruan edo bialdu edo hola, bai, baiña andriatik betik gehixki esaten eben. Eztakit andrarik eukan be, eztakit. Bueno, biziko zan baiña... eta ez ekixen 59 ala 60 urte eukan, bera dudan ibiltten zan, bai. Oso zakarra zan, e? Eta oso gogorra zan, hola gogorra inddartsua eta...

- Erderaz ingo zeban, ezta?

- Erdera, bai, portuges, erdera, baiña ondo entenditten giñan.

### 6.17. Oteizarentzako lanean

- **Hizlaria(k)**: Bikuña Urzelai, Jabier
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-066/016
- **Iraupena**: 0:04:14. **Hasi**: 00:47:55. **Bukatu**: 00:52:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
Lanbideak » Etxeginak
- **Laburpena**: Oteizaren apostoluen eskultura lantzen ere aritu zen. Oteiza gizon ona baina genio biziko gizona omen zen.

### Transkripzioa

- Moreno hau zurekin ibillittakua da?

- Bai.

- Eta Moreno ibilli zan ba, ezta? Edo zu, eztakit, Oteizaren zerak itten zu ibilli ziñan?

- Bai.

- Apostoluak itten ibilli ziñan ezta, orduan?

- Gu e, gu Arantzazun esan dot ba Arantzazun igeltsero gabitzela, han lautadan igeltsero gabitzela, zera ta ba gu mutil gaztiak, mutil gaztiak pentsau egizu soldau fan barik neuen ta; eta han lautadako atzekaldian, oin lautada atzekaldian dao galerixia, zera, hantxe, ta ze itten xok aittona horrek? Aittona edo aittajun horrek edo, zeorrek, bere bizar haundixakin.

- Oteiza?

- Oteiza, ta ixa hanketaraiñoko blusa zuri bat eta zerakin han ibiltten zan.

Eta gu, ba ha han eta gu igeltsero, hantxe onduan, zerien ta, hola; ta orduan ha gaztia izango zan artian baiña guretzako zaharra, serixo hola. Bizar haundixakin ibiltten zan, betibe hola begira ta zera. Gero berriz bearekin tokau. Harek modeluak itten ebillen orduan. Arantzazuko tamaiño hontakuak dira modeluak.

- Apostoluenak?

- Eskaiolan apostoluenak. Eta gero modelotik bat hirura in ziran, bat hirura. Modeluak hareik Arantzazun han egongo dira ondiok nunbaitten han egongo dira hareik modeluak bota ezpa(di)ttue in behintzet norabait.

- Berak in zittuan modeluak?

- Berak in zittuanak. Altura hontakuak, bai, bi metro ta larogei zentimetro inguru uste dot dakoilla bai, oingo apostoluak, harrizkuak indda daozenak, ifiñitta daozenak, eta han, eta guk hola. Eta gero gu han igeltsero gabitzela, apostoluak itten be beebitzen hantxe eskola onduan. Eskolia oin ba, oin Arantzazura sartzen gara eta han plazuela haundixa badao ba ha? Han barandilla txapazkua? Txapazkua barandillia hasten dan lekuan baiño lehentxuau euen eskolia, Arantzazuko eskolia. Eta etxe bat zan eta eskolia, eta hantxe eskola onduan ibili ziran apostoluak itten. Madridetik etorri zan tallista bat Serrano, Serrano apellidua eukan Serrano, eta haren laguntzaille Tomas 'Errekaxiki', Tomas Uriarte, Tomas Errekaxiki ba desbasiak eta itten, bestia zerien ba tallistia ba puntuak etara ta zerak eta. Hiru in zittuein hantxe gu han gabitzela, eta laugarrena hasi, eta gero eztakit ze pasau zan, beste 16 urtian, 16 urtian? Gehixauan egongo ziren geldik.

- Nik badakit ze pasau zan. Erromak prohibiu iñ eben.

- Prohibiu.

- Erromak, aitta santuak prohibiu eben obra hori.

-Bai. Eta gero ba gu, ni behian etorri eta gero ba beheko lanetan eta gabitzela eta goiko taillerrian ta gabitzela, orduan hasi ziran berriz zerak in bihar zirala, apostoluak in in bihar zirala. eta orduan...

- Permisua emun eueñian izango zan.

- Eta orduan nik eruaten nittuan bi hargin, hori Moreno hori, Moreno zeori tallistiori, hori Eskolatxon gaiñian bizi zan, panaderixa gaiñian, hori eta taillerretik beste bi hargin zerak, galleguak, eruaten nittuan nik egunero Arantzazura apostoluok itteko. Eta Oteiza han ibiltten zan, eta ni horreik jentia eruan, herraminttak eruan, amostu itten ziran, barrixak eruan, zorroztu ta hola. Eta Oteizari zenbait bidar eruan xaoten nik buztiña eta eskaiola ta. Eta eruaten enotzarian hasarre, EEE! Hasten zan.

- Jenixo txarra. Jenixua e?

- Oso jenixo bizikua zan e? Oso zera zan, bestela etzan gizon aldrebesa. Bai, baiña hola , eta gero ba guk han, nik zerian desbastaitten ta asko enitzan ibilli, gero kolokaitten ta bai.

## 6.18. Arantzazuko harria Lasturtik eta Markinatik

- **Hizlaria(k):** Bikuña Urzelai, Jabier
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-066/017
- **Iraupena:** 0:03:54. **Hasi:** 00:52:09. **Bukatu:** 00:56:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Lanbideak » Etxeginak
- **Laburpena:** Arantzazuko dorre baten lan batzuk egin zituen, Lasturko harrobitik materiala ekarrita. Apostoluak egiteko harria Markinatik ekarri zuten. Pietatearentzako harria Jabierrek berak ekarri zuen Markinatik.

### Transkripzioa

- Baiña gu orduan denpora baten ibili giñan, Arantzazuko torriak hona aurrekaldera eukein bi bentana, bi bentana bastante haundixak, zerak, kanpaiak ifintteko itxi zittuen, baiña ura sartzen zan, badakitzu hemen ipar



aldetik bendebala joten darian barrura elizara sartzan da ura. Eta gero atzera horreik tapau in gittuan. Fan Lasturrera, Lasturgo kanterara, neurrixak eta eruen, lehen be handik ekarrittako harrixa dakoi, Lasturdik ekarrittako harrixa da hori, zerak, horreik harri muturrok...

- Lasturdik, nik Sevillatik ekarrittakuak...

- "Punta de diamante" edo hori. Hori Lasturgo kanteran be iiten ziren, zerak desbastau, pittin bat barrenuak eta sartu pittin bat, eta gero hareik etorten ziren ba pittin bat zerien, ba barreno zuluak eta bistan ta holako zerak, ta gero ibili ziran Araozdik hori Tomas "Errekatxiki", Tomas Uriarte, ta haren semia eta beste bi hargin ibili ziran horreik arreglaitten; eta handik ekarten ziran desbastauta eta hemen pittintxo bat muturrok eta arreglau eta gero beste gallego batzuk kolokau in zittuen. Baiña horreik Lasturgo kanteratik. Lasturren bi kantera dao, hola sartzan bazara bat, eskumako aldekoa, eta gero handik ekarri gittuan harrixok, arreglau geuk eta bentanok itxi gittuan. Han dao holako harri baten kuadrúa itxi argixa edo sartzeko eta bestiak ... Eta gero kanpaiak ifiñi ziran torre haundixan.

- Hori igarri ingo da, ezta?

- Ez, bai zera. Igual-igualak jarri gittuan ta, koloria be iguala, bueno, nik banekixen nundik ekarrittakuak ziren horreik, badakitzu han nola ibilli giñan ta guk nunguak ziren bagekixen eta lehen, handik ekarri geben. Apostoluak berriz dira Markinakuak, Markinan hor oin, oin urte batzuk dirala helikoptero bat jausi zan ba?

- Bai, kanteran.

- Kanteran. Kantera hartakuak dira. Dako illuna, harri illuna eta beta, beta zuri barikuak.

- Aulezti aldeko kanterakuak, bueno, Markiña sarreran dagona.

- Bai. Zu hemendik goitik baldin bazoiaz, hemen Mallabittik baldin bazoiaz, Markinan sartu aurretik ezkertera hartu, han. Eta handik, a bai? Zuk hobeto ezagutuko dozu, han dao kantera asko dao han, kamiño azpikuak dira horreik, eta kamiñuaz gaiñetik daozenak, beste bi badaoz, ta hareik dakoi harri baltza baiña beta zuri asko, eztakitzu hori polittori bada ba Markinako zeori, beteau hori? Hori baiña honeik apostoluak dira kamiño azpikuak.

- Oteizak beta barik gura zittun?

- E?

- Oteizak beta barik gura zittuan apostoluok?

- Itxuria. Eta guk gero, geruao apostoluakin eta ifiñi ziranian, Ama Birjiña falta zan goikua, [...] eta Piedade hori zeori, eta nik banekixen kanteria ta nun euen eta horreik ez ekixen, zerak, eta zerak orduan frailiok eta in in bihar zala, hareik be in in bihar zirala eta aber kanteria eta fango giñala, eta fan kanterara Markinara, elejiu neurrixak eta danak, eta nik banekixen zein kanterakuak ziren ta hola ekarri gittuan eta labrau ziren.

## 6.19. Karameleria

- **Hizlaria(k):** Barrena Kortabarria, Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-068/007
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:16:00. **Bukatu:** 00:19:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- **Laburpena:** Arrosario igande batean txakur handi bateko pagarekin patata erreak erosi zituen barraketan. "Karameleroa" ere etortzen zen

bere brusa handiarekin. Petra "Treinta" ere igandero etortzen zen gozokiak eta hurrak saltzen. Geroago barkilleroa jarri zen plazan.

### Transkripzioa

- Urte baten badakitzu ze in neben? Pagiori 'txakur haundixa', Errosarixoko domekan. Txakur haundixa orduan zeozer bazan e? Ezer asko baiña zeozer, gaur ez da ezebe. Gaur txakur haundixa lurrian ikusi ta harrixa ikusi bardin da. Baiña orduan! Eta txakur haundixa, tio batek emun nostan txakur haundixa Errosarixoko domekan, jua nintzan barrakatara eta "patatas fritas" ez dakit zer eta badakit zer eta "patatas fritas". Zelakuak ete (di)ttuk horreik, etxian be "patatas fritas" janda fanda, Errosarixoko domekan patata erriak ipintten ziren, urte guztian jango ez bazeben be, eta jua naiz eta "patatas fritas" gaiñera badakitzu horreik hola ebaittako hola mehe-mehe horreik. Zelakuak ete (di)ttuk horreik, ni txakur haundixori gastau dot patata erretan, eta total etxian lakotxe patata erriak, nere penia, oin txakur haundirik ez eta patata erriak igual. Hamaika holako in geben guk.

- Etortzen zan holan, herrira karamelerorik-edo?

- Bai, Mondraueko gizon haundi bat, Mondraueko gizon haundi bat, brusata, akordaitten zara ze gizonak? Langilliak, jeneralian hareik alondigetan barrikakin ibiltten ziran, [...] zerak eruaten zittuein, brusa haundi horreik, hemen botoiak, eta brusakin faten ziren.

- Bai, nik hori ikusitta dakot.

- Bai, horreik ziran langilliak jeneralian, bueno, fabriketan ibilli [...] hola honeik lehen esan dozuna, alondigakuak eta honeik gizon honeik, eta, este... ze esatera nixioian?

- Bai, karamelera etortzen ...

- Mondrauetik etorten zan gizon haundi bat holakotxe brusiakin. Brusa haundi batekin, eta poltsikotzarrakin eta zerakin ta, 'karameluak, ederrak eta merke'! "A peseta la tonelada"! Eta haretxeri erosten, dirurik baeuean hari erosten gotsan karameluak eta bestela plazan txutxerixak asko egoten ziran; Petra 'Treinta' domeka danetan. Treintaneko Petra, Treintanekuak, ezaguketan (di)ttotzu "los Treinta", horrein ama? Ez, amandria. Treinta hor Gomendionian bizi da bat, haren amandria, ha domeka danetan, mahaitxua hartu eta mahaitxuan abellanak eta karameluak, tazakadia xemikuan, abellanak, "cacahuetes", gu han egoten giñan begira.

- Baiña bera barkillera zan-edo?

- Ez zan bera ezebe, ha zan Treintaneko Petra, Treintena, itxuria negoziotxua euko euen, pezetantxo bat etaraten.

- Bai, bai, domeketan faten zan plazara?

- Domeketan Petra Treinta bat, bat eta bestia zein zan beste karamelera? Bestan bat be beuen. Bueno gero barkillerua etorri zan eta gero kitto! Baiña Petra Treintak makiña bat abeillana saldu eben, abeillanak esaten gotsan guk, "cacahuetes", tazakatxoa bat xemikua. Eta haren tazia, zein zan bestia? Ez xat akordaitten beste karamelera; "Petran tazia haundixua da, Petrana jua bihar dogu".

### 6.20. Oñatiko "barkillerua"

- **Hizlaria(k)**: Barrena Kortabarria, Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-068/008
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:19:20. **Bukatu**: 00:21:35

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- **Laburpena:** Barkillo potea bizkarrean zuela etorri zen, besterik gabe, geroago urteetan Oñatiko plazan barkillero lanetan ibili izan den familiako lehen kidea.

### Transkripzioa

- Eta Mondraueko karamelerua domeketan egoten zan?
- Ez, jaixetan, Errosarixoko domekan eta San Miel egunian eta etorten zan.
- Egun espezialetan.
- Bai, egun berezittan etorten zan mondrauetarrori. Haundi bat. Sekula ez xat ahazketan ha gizon haundixa, "karameluak, ederrak eta merke!", "A peseta la tonelada!".
- Eta barkillerua arkupeian noiz egon zan laheningo aldiz? Nik han betik ezagutu izan dot.
- Barkillerua hori etorri zan bixkarrian potia hartuta, hori barkillero potiori, eta jantzixa, eukan jantzixakin besterik ezebez, eta horreik txanponak in daue. Txanponak in zittuein.
- Lan asko indda.
- Lan asko indda. Fiña izan da hori. Oso fiña.
- Leheningo bera eta gero bere semia. Semia edo subiña?
- Subiña subiña, andriak be asko, andria be betik egunero plazan egoten zan barkilluak saltzen. Trianan egon ziren leheningo bizittin.
- Baiña barkillero lanetan plazan egoten zan, ezta?
- Plazan, andria egoten zan plazan, potiakin, pote zeorrekin, 'tiradia' xemikuan. Andria egoten zan plazan, jeneralian andria eta bestia barkilleronian etxian-edo, han etxian itten zittuein horreik barkilluak, zerian, hori egon zan, zela da hori? 'Pexeta'n etxian-edo. Pexeta esaten otsain bateri, ez zara akordauko. Zuk zenbat urte dakotzu?
- Berrogeita hamar.
- Berrogeita hamar. Ni baiño bastante gaztiaua, holako gauzak akordaitteko, bai ba. Horreik etorri ziren zeori barkillero potiori bixkarrian dauela, ezebez besterik, eta holako banastagiñak zirala lehenao edo ez dakit zer, holako lekutxo baten Trianan egon ziren, holako leku ... eta gero etorri ziren hona Zentro Republikanua egondako [...]
- Zirkulora?
- Ez, bestera.
- Parera, parera, bai.
- Bestera, Zentro Republikano. Gero horra, euron bizilekua ipiñi euenien horra etorri ziren bizittera, eta gero hortik txaleta indda dako. Xemikoka ta xemikoka in in bihar da, e? Fiñak izan bihar, langilliak fiñak eta persona onak.

### 6.21. Barkillo "tiradia"

- **Hizlaria(k):** Barrena Kortabarria, Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-068/010
- **Iraupena:** 0:00:27. **Hasi:** 00:22:58. **Bukatu:** 00:23:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa

- **Gaia(k):**  
Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- **Laburpena:** Barkillo "tiradia" xemeikoan saltzen zuten garai hartan.

### Transkripzioa

'Tiradia' xemikua-edo?

- Tiradia zan barkillo tiradia. Sekula ez dozu erosi barkillorik potian bueltia emunda?

- Ez dot uste ni horra aillegau naizenik.

- "Treinta, número treinta" euken haundixena. "Treinta" etaraten ete geben eta sietian edo ochuan geraketan zan eta xemikuan lau-bost barkillo. Eta betik "treinta", "treinta" han bistan bai baiña gutxittan urtetan eben "treinta". Holaxe izan zan gure denporia.

## 6.22. Soraluzen neskame

- **Hizlaria(k):** Barrena Kortabarria, Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-068/014
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:30:29. **Bukatu:** 00:32:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena:** Soraluzen altzari denda baten ugazabaren etxeko lanak egin eta umeak zaintzen zituen. "Agerretxo" esaten zioten dendako familiari. Hiru urte Soraluzen egin ondoren, Oñatira itzuli eta Garai lantegian hasi zen lanean.

### Transkripzioa

- Kriada fan nintzan.

- Gerria akabo eta gero?

- Bai, gerria akabo eta gero, Plazentzian egon nintzan.

- Plazentzian?

- Plazentzian, "Placencia de las Armas", ezaguketan dozu?

- Bai, oin Soraluze esaten xaue.

- Ezaguketan dozu e? Plaentxi.

- Badakot nik lagunak han.

- A, bai, e? Ba hantxe egon nintzan mueblerixan zerakin, Idigoras Agerretxona.

- Idigoras hemenguakin?

- Ez, hemenguen tiokin, aittaren anaia, Agerretxo.

- Agerretxo.

- Agerretxokuak ziren horreik, Agerretxokuak, soiñujolia ez zebe ezagutu, Antonio? Soiñujolia Agerretxo zan, hari be Agerretxo esaten otsain. Eibarren mueblerixia eukan harek.

- Eibarren eta Plaentxin be bai?

- Plazentzian beste anae bat, Plazentziakua ni egon nintzan Plazentziako anaiakin, eta gero Eibarren euen beste anaia Antonio.

- Eta ze lan klase itten zittun mueblerixan?

- Ez mueblerixan, mueblerixako etxeko famelixaikin, etxeko lanak.

- Etxeko lanak.

- Eta umiak, txikiña lau urtekua euen ta horixe. Gero dendia euekein "de

muebles”, eta andria mueblerixan egoten zan, eta gizona be zera, kontratistia gaiñera zan, “Idigoras y Epelde” sekula entzun dozu? Bera zan Idigoras eta Epelde beste Azkoittiar bat. Zu Azkoittikua esan dozu zariela?

- Ez, Azkoittin bizi naiz.
- A! Azkoittin bizi zara. Epelde hori Azkoittikua zan.
- Epelde asko dao han.
- “Idigoras y Epelde”.
- Osea etxeakoandra, kriada-etxeakoandra.
- Bai, bai, askotan bai, askotan bakarrik, andria dendan egoten zan ta, dendia bertan e? “Al ras del piso” e? Planta baja baten geontzen geu ta.
- Eta zer, han luze egon ziñan?
- Hiru urte edo uste dot, hiru urte ziren in nebela nik han bai, hiru urte. Eta gero handik Garai fabrikara etorri nintzan. Gero Garai fabrikan ibili nintzan.
- Ze itten zeuein Garaiñian orduan?
- [...] barillak-eta, gordasolendako piezak eta holakotxe gauzak. Han hemeretzi urte in neben Garaiñien.
- Lanian, hemeretzi urte?
- Hemeretzi urte, bai, Plazentzittik etorri ta ...

### 6.23. Saltzaile Araban zehar

- **Hizlaria(k)**: Urkia Elorza, Juane
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-071/022
- **Iraupena**: 0:03:11. **Hasi**: 00:49:49. **Bukatu**: 00:53:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- **Laburpena**: Araban astoarekin herririk herri salmentan bi urtez ibili zen. Bi-hiru astorekin ibiltzen zen eta bi-hiru etxetan pasatzen zituen gauak. Baserrietan saltzen zuen merkantzia Juanek. Orduan Araban abarkak zer ziren ere ez zekitela dio. Bideetan ez zen lapurrik izaten, baina badaezpada ere eskopeta batzuetan astoan zeraman.

#### Transkripzioa

- Eta ze, garai hartan ze langintzatan zebitzen?
- Ni orduen Araban.
- Astozain. Astozain edo...saltzaille.
- Denpora asko in zenduan Araban?
- Araban bi urte.
- Bi urte. Eta nundik zihar, nundik nora ibiltzen ziñan? Herririk herri?
- Herririk herri.
- Oseake Araba ondo ezagutuko dozu orduan.
- Nik egon nitzan atzian, sartu hemen Landan, Landa, Barrundia, Zalduendora, hemendik Salvatierrara sartu eta gero karretera jenerala hartu eta Langarika Bitorixa aldera, beste aldera, hori. Hamabost egun in ta bueltia.
- Eta lan hori itten zebeñien, bizi nun bizi ziñan?
- Parte Aizpurun egoten nintzuan ni, Maiñako bat xauan han, Zezilio, han fijo, parada fijua han. Bestela Heredian be bai; eta Zuazo, Zuazo Ganboan be bai, beste etxe baten. Bestela dana astuakin, leku batera fateko hola ibiltten nitzan.

- Zenbat asto ebalten zittun?
- Bi-hiru, horixe.
- Eta ze erosten zentzuen, jente partikularrak?
- Baserrixetan.
- Baserrixetan?
- Baserrixetan.
- Baserririk baserri ibiltten ziñan.
- Orduen Araban artian abarkak zer ziren be ez ekixein, e? Arabar danak alpargatakin ibiltten ziren artian.
- Soruan be afraketakin?
- Horixe.
- Han hemen baño atzeratuago, ezta?
- Bueno, horixe, atzera? Horixe. Gero puxka bat espabilaitten hasi ziran. Hemen estraperlua hasi zanian-ta, orduan. "Ya vienen los vascos".
- Oseake puntu batzuk zekazuzen nora joan lotara eta, ya jakiñeko etxe batzuk edo, lo itten gelditzeko-ta...
- Bai, artian, printzipalena Aizpurun [...] astua eta jenerua eta Heredian, "Casa Salvador" neukan beste bat. Ezkirikotxan be bai beste bat, hola taberna txikitxo baten.
- Zela esan dozu izena?
- Ezkirikotxa, karretera jeneralian xauan. Salvatierratik Bitorixara karretera jeneralian. Zuazo de Ganboa, ha urak eta pantanuak hartuta.
- Pasadizon bat edo izango dozu ba hola kontaitteko modukua? Zure astozaintza garaiko edo komerziante garaiko pasadizon bat izango dozu kontaitteko modukua.
- Ze pasadizo gura dozu ba?
- Edozer.
- Iñork lapurretan-edo ez dotzuen in?
- Ez, ez. Kontzientziakin lapurretan. Intentziñua bai, erriela manejaiteko bai e? - Hori ba, hori esaten dot ba, iñork zeuri lapurretan.
- Bai, bai, hola fraka paren bat-eta, iñoiz bai. Nezesidadia euken bat izango zan ta...
- Bueno, fraka paria bakarrik bazan, bueno.
- Ez, hola gauza haundirik ez.
- Bide-lapurrik eta ezan ibiltzen?
- Bidetan?
- Bai.
- Ez.
- Ez?
- Eskopetia ebalten neben astuen, e?
- Bai?
- Ibillitta nago ni, e?
- Badaezpada.
- Urte danien eskopetiaz?
- Ez, betibe hola

#### 6.24. Zelabarren inguruak lokaztuta

- **Hizlaria(k)**: Zubia Umerez, Inaxio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-072/002
- **Iraupena**: 0:02:06. **Hasi**: 00:00:41. **Bukatu**: 00:02:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa

- **Gaia(k):**

Lanbideak » Negozioak, dendak

Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

- **Laburpena:** 1943ko martxoan jaio zen Iñaxio, Olabarrietako Zelabarren baserrian. Etxe ondoko zerrategia martxan zegoenean, karreteroek etxe inguruak lokatzez betetzen zituzten. Legazpiko Patrizionetik ekarritako zeparekin (eskoria), itxuratu zituzten inguruok.

### Transkripzioa

- Hasteko esango dozu zure izena eta abizenak?
- Nere izena Iñaxio Zubia Umerez.
- Eta ze urtetan jaio zifian?
- 1943. urtian.
- Ze egunetan?
- Beratzi, eta hilla martzua.
- Martxuak bederatzi?
- Beratzi.
- Eta hemen bertan jaio zifian?
- Bai, bertan.
- Etxe hontan?
- Bai.
- Orduan Olabarrietakua, eta zela daka izena...?
- Zelaibarren baserría.
- Zelaibarren?
- Esan Zelabarren itten daue baiña.
- Lehenau hau, kamiñua eta hemen, zuk beti ezagutu dozu?
- Bueno, bai, hau lehen ez euen hola, e? Lehenau desberdin zan, hau lehenau oin holako kaltzada bat, lokatzaia, belaunetaraiñoko lokatzaikin. Porke hemen asko ibiltten ziran, hemen euen zerría, Nemesio Zubia, hor euen nere osaba Eustakio Zubiak eta beste hirun artian eukein hor zerría, zerra bat egon zan. Gaur edifiziuori Nemesio Zubiak dako. Enda hamen etorten ziren karreteruak tronkuakin honaiñotxe, eta hareik zela ekarten euen lokatzaia, hau dana izaten zan lokatzauna bat garai haretan. Alde batetik sendia eukan, elizbidia, porke elizbidia alde guztietan betik harrizkua izaten zan, sendia harrizkua indda, eta albuen burdixak eta ibiltten zirana. Eta hori lokatzaiori kentzeko ekarri zan zeretik, Legazpittik, zera, hau nola da, eskoria. Eskoria da...
- Patrizionetik?
- Patrizionetik.

### 6.25. Pezeta bategatik greba

- **Hizlaria(k):** Zubia Umerez, Inaxio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-072/005
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:08:33. **Bukatu:** 00:10:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**

Lanbideak » Negozioak, dendak
- **Laburpena:** Iñaxioren aita baserrietako arotza zen. Gurdi, lera, eta antzeko tresnak egiten edo teilatugintzan jarduten zuen. Iñaxio aitaren

laguntzaile ibiltzen zen. Aita Mugarzaren Galdategian lanean zebilela, greba egin zuten lantegian orduko pezeta bat gehiago eskatzeko.

### Transkripzioa

- Eta ordutik kanpora arotz itten eben. Arotz ba baserriko burdixak, eta gero arotza bestela be bai, armarixuak eta gauza honeik be itten zittuan. Baiña...
- Arotzegixia nun euken, hemen etxien?
- Hementxe etxian, bertan, bai. Baiña gizon bat izan zan, goizian jaikitten zan, bostak inguruan edo laurak inguran edo bostak inguruan, eta hemen auzo guztia sentitten bere, porra haundi bat, hamar kiloko porriakin, inddarra haundixa eukan, inddarra eukan bueno, bilddurgarriko inddartsua, oso inddartsua, eta hemen egurra goizian goiz, egunsentixan. Denpora gutxi eta lan asko.
- Oseake lehenengo hori egurretan eta gero fabrikara jutun zan?
- Bai, gero, hori etapa, bueno, aurretik ibilli zan fundiziñuan lanian nere aitta. Oñatin oin eztakit, fundiziñua orduan inportantia zan, fundiziñua...
- Nun, Zubillagan?
- Ez, hemen, hori "Mugarza, Ugarte y Compañía" zuan hor zera, fundiziñua esaten gotsana; Garai, fundiziñua eta Ulma.
- Bai, ahaztuta neukan, bai.
- Ba orduan han itten xuein lana. Garai haretako gure aittak esaten xok zela zazpi pezeta egunetik zortzi pezetara huelgia iñ euela. Egunien, osea ordua pezetia zela iñ euein huelgia Garaiñian, edo zerian.
- Eguna pezetia.
- Ez, ez, ez, ordua, orduko pezetia.
- Egunien pezeta bat gehixago.
- Pezeta bat gehixago. Horixe iñ euela. Oso inportantia izan zala huelgiori, aittak, gure aittak esaten ebenetan, bai. Eta bera hemengo baserri guztietako arotza izan zuan bera. Eta ni bere lagun mutikotan. Bere piue.
- Uztarrixak be bai itten zittuan?
- Ez, ez, uztarrixa, uztarrixak itteko beste espezialidadia da, aixkoriakin itten dan lana da. Berak itten zittuan, neu be bai ibilli naiz berakin, hango baserrixak, igual teillatua jaso, edo egur nagusi bat usteldu dalako ordezkua jarri.

## 6.26. Lehengo teilatugintza

- **Hizlaria(k):** Zubia Umerez, Inaxio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-072/006
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:10:58. **Bukatu:** 00:12:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Lanbideak » Negozioak, dendak
- **Laburpena:** Teillatuak lurtean prestatu behar zirela zioen Inaxioren aitak. Lehenengo zuhaitza mendian aukeratu, etxera ekarri eta landu. Zenbat eta ur gehiago izan teillatuak, zailagoa da eraikitzea.

### Transkripzioa

-Eta orduan berak basuen apartaitten eben egurra, zera, haritza, ze haritz, hau edo hau? Eta bueno, orduan ez euen besterik, "a ojo", hauxe. Hartu,



bota, eruen etxera, etxe onduen eta etxe onduan aixkora haundi batzuk, gaur be badakogu, izugarritzko aixkorak, pixua. Landu eta...

- Neuk be ikusitta dakot.

- Bai, e?

- Indda ez, baiña ikusitta bai.

- (...)

- (...)

- Lekuan bertan itten zan zera, etxe onduan itten eben, gure aittak esaten ebenetan teillatua montaitteko lurrian, onduen. Egurrak ez ziren hola neurrixa hartu, ez, ez, konstruziño guztia lurrian ifintten eben, goiko tamaiñua eukan lekuan, jarten euen planua edo zera eta han bertan itten euen teillatua, eta gero egurrak hatu eta jasoten euen gora montaitteko. Leheningo planteau dana behian itten daue. Gure aittak esaten ebena, pasaitten dana da konplikaziñua, teillatuak konplikaziñua ez dako bi urekuak ez dako konplikaziñuak, lau uretakuak dako konplikaziñua, konplikaziñua zeatik? Porke dako media-linea bat, eta media-linea haretan deskantsaitten dau ur danak. Eta berriz baldin badakozu bi poste, ha erdiko poste gaiñian teillatua eustiak, harek konplikaziño asko gehixau dako.

## 6.27. "Betik" zotz lantegiaren hasiera

- **Hizlaria(k):** Irizar Guridi, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-073/001
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Lanbideak » Negozioak, dendak
- **Laburpena:** Nikolas Errastik, Pedro Diortxuenak eta berak erosi zuten zerrategi bat Zubillagan. Hori izan zen Betik "palillo" (zotz) lantegiaren lehen urratsa. Zubillagan hamar urte igaro eta gero Liñazibar aldera joan ziren.

### Transkripzioa

- Hik Oñatin palillo fabrikia ezagutuko dok ba?

- Oingua bai.

- Ba haren hasieria dok hemen, Arretxeko etxe ostien, tejabanan hasitta, zerratxo bat...

- Eta gero han Liñazibarren egon zan ba?

- Hori erosi giñuan guk hiru soziok, zerratxua, bertako zera aspertu in zuan zerran, eta zerria saldu eta kamiona erosteko, kamiona erosi xuan. Hor hasi bai, eta hiru gitzuan gu, Nikolas Errasti, koñatua Pedro Diortxuena eta neu, hiru sozio. Oin pareja bat hil zuan, Errasti eta andria bixok, eta [...]. Pedro Diortxuenan andria bizi dok. Eta gu ondiok bixok bizi gaittuk. Asike hemen hasittako akziñuak partiak ondiok guk.

- Baiña zuek Azkuagaiñera fan aurretik han Liñazibar inguruan egon ziñain ba, ezta?

- Leheningo hemen hamar urtien, hortxe tejabana baten, hementxe etxe ostien. Eta gero segiduan han, zuen etxetik beheratxuauan, Errastin behian.

## 6.28. Anaia Donostiara bisitan

- **Hizlaria(k):** Txintxurreta Goenaga, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-085/003
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:04:03. **Bukatu:** 00:06:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Leturia, Ane
- **Gaia(k):**  
Lanbideak » Neskameak  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- **Laburpena:** Gerraren bukaeran, neskame egon ziren Donostian. Gerra bukatu zenean, kataluniarrek etxera itzultzean, neskameak eurekin eraman nahi zituzten, baina haiek nahiago izan zuten Oñatira itzuli. Soldataren 10 ogerleko amari bidali eta geratzen zitzaizkien beste biek ondo igarotzen zuten hil osoa Donostian. Gerran Maritxuren anaia zauritu eta Legazpiko ospitalean egon zen sendatzen. Handik bisitan joaten zitzaion Maritxuri Donostiara.

### Transkripzioa

- Haik eta Barzelona librau artian zeak, nazionalak, osea, Francok hartu ebenian zea, ba, haik fan zian ta gura gindduen eruatia, e! Oso pozik euzen gurekin! Eta fateko eurekin ta ez, ez, gu etxea. Ta laurok etxea. Gehixau kriada ez giñan fan.

- Hori ze urte zan? Osea, gerra-gerran zan hori?

- Gerra-gerran bai, ya akaberan ixa. Akaberan zan, bai. Eta, ba, pentsaizu, orduan zan hemengo andra bat ebillen errekadista, Eugeni "Txarriduna" esaten otsaiña, eta ebillen errekadista. Eta gu laurok faten giñan amai bialketaa hamar duro. Eta bi duro geaketan xakun. Eta nahikua... Bai, zinera edo faten giñan, baña ziniak be orduan merke zian ta nahikua diru izaten geben hamar duro amai bialduta.

- Osea zuentzako, bi durokin hillabetia pasaitten zeбен?

- Bi durokin ondo hilla pasaitten geben. Eta ama oso pozik hamar durokin. Oso ondo, e, ama. Eta orduan, anaia geatu zan eriuta eta ospittala euen zeian, e...

- Donostian?

- Legazpin euen ospittala.

- Militarra?

- E?

- Militarra?

- Militarra, bai. Eta handik etorten xaten anaia bixittaittea Donostiara. Eta gure uezaba zela zan katalana, "Maria, ¿Quién ha venido?" y "Mi hermano, que está herido en Legazpia y ha venido". Ta halaxe, ba ugazabak pasaitten eben aurrea, ezta? Ta zela ta nola eriu zan ta... Artillero ebillen ta kañoiak errebentau in osten eta ez zien iñobe hil, danak eriuta geatu zien. Eta, klaro, harek be emoten otsan propiñatxua anaiai, eta nik be emoten notsan nere hamar pezetatik propiñatxua ta sarri etorten xaten Legazpittik! Biajia libre eukaiñ. Trena-ta libre eukain zereako, Donostiarako, ta klaro, ez xakon /etxakon/ bape kostaten ta etorten zan bixittaittea! Bai, bixittaittea ez, pittin bat, zeozer, bost pezeta emoten banotsan, ba, beste bostekin kitto! Se acabó nere zea.

## 6.29. Neskame 13 urterekin

- **Hizlaria(k):** Aia Aia, Bixenta
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-105/023
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:23:20. **Bukatu:** 00:25:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena:** 13 urterekin neskame joan zen Bergarara, Ozetako jauregian. Bi urte egin zituen han, eta gero Oñate, Zaldiarako Etxenagusin.

### Transkripzioa

- Orduan zu eskolatik urten ta laister kriada fan ziñen?
- Bai, bai, bai, hamahiru urtekin kriada fan nitzan ni.
- Nora?
- Bergarako, oin Hotel Lasa badau ba? Hantxe in nittuan bi urte, bai .
- Ta hara fan ziñan zu hamalau urtekin?
- Hamahirukin.
- Hamahirukin?
- Bai, hamahirutik hamabostera egon nitzan ni han, eta gero hurrengo Etxenagusira, Zañartun.
- Zañartun?
- Bai.
- Neskame orduan Bergaran Hotel Lasan?
- Bai. Ez, hotel ez e, orduan palaziua zan, orduan palaziua zan. Oin dau han hotela. Baiña orduan palaziua zan ha.
- Zela, ze izen eukan palaziuak? Lasana eo?
- Peña.
- Peña?
- Bai (...) hobeto esateko, señoriana zan palaziua eta.
- Baña etxiari zela esaten xakon?
- Ozetako palaziua.
- Oxetakua?
- Ozetako palaziua, bai.
- Oxeta edo Ozeta?
- Ozeta.
- Ozeta.
- Harek inguruak Ozeta eukan izena.
- Han bi urte eta gero Etxenagusin?
- Etxenagusin.
- Etxenagusin.
- Bai, Eliasekin egon nintzan ni.
- Eta Etxenagusi zein da, oin Etxe-Haundi esaten xakona?
- Ez, Zañartun Etxenagusi beste bat dau. Eli Galdos ez dakitzu lehen alkate egon zan ba? Haretxen etxia.
- Harek barrixa iñ eben, ezta, beretzako.
- Bai, barrixa in eben, bai. Ni zaharran egon nintzan, bai.
- Etxenagusi... ta han zenbat denpora in zebeñ?
- Hiru urte.

### 6.30. Bezeroekin gertuko harremana I: gerra ostea

- **Hizlaria(k):** Arregi Zufiria, Maribi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-111/015
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:35:06. **Bukatu:** 00:36:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Lanbideak » Negozioak, dendak  
Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak  
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserría vs. Kalea  
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena:** Gerra ostean errazionamendu kartilak zeuden. Bezeroekin zuten harremana. Astero joaten ziren baserritarrak. Araoztarren jantzetxea zen denda; Eskolatxonean uzten zituzten astoak.

#### Transkripzioa

- Gerra ostian, lehen komentau dotsutena, kartilla rasionamentuak euzen. Ta harremana, bezeruakin, zan famelixan moduan. Etzan, oingo moduan, oiñ hotza da, lehen ez, lehen oso, bezeruak zian famelixakuak. Astero, etorten zian baserritarrak astuakin, nahiz edurra iñ, polainakin eta gure etxia zan araoztarren jantzetxia. Gure etxera asko etorten zian, gure etxera etorten zian asko.

-Mendiko kaleen ta...

-Askok izten ebein Eskolatxuenian astuak eta gure etxera etorten zian. Itten zan, ni gogoratzen naiz beti, lapiko bat egoten zan beti saldiakin, zapatu guztietan garbantzuak saldiakin. Zatik ba hoixe, baserritarrak neguan hotzak etorten zianak ba saldatxua hartu ta gero erreauak iñ. Polainak itxi sukaldian exeritta sikaketan, eta ia errekaak akaboten ebeinian polainak jantzi ta berriz gora. Eta geukan bezero batzuk ia fijuak, bueno, Rosari Enparantzakua ha famelixakua zan, baiña Marijuana, Zumalde ez, zeekua... Araotzekua be bai, Maiñakua, eta zure amama, eta horreik danak be etorten zian.

-Amama Fermina?

-Bai.

### 6.31. Altzairuaren sekretuak, teknika

- **Hizlaria(k):** Aizpeurrutia Etxeberria, Jenaro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arana, Iñaki - Oregi, Lide
- **Erref:** ONA-178/007
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:10:45. **Bukatu:** 00:12:38
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Arana, Iñaki
- **Gaia(k):**  
Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak
- **Laburpena:** Pieza bat "urdintzia" zer den azaltzen du. Pieza larregi urdintzen bada, biguna geratzen da. Altzairuaren sekretuak.

#### Transkripzioa

- Hau tenplaitteko dana ez dok sartu bihar, geo oin itten dau rebenidu. Oin ez dakit ikusiko zun hamen, beitu hortxe fijau e, atzetik berua zela doian, hoi azuldu hoi, hori urdindu in biha dau, bai, geo oin azuldu da, ikusi dozu

e; karo segun ze lan ein biha dan be bai. Guk atxurra eitten, lurrian ein bihar badau, gogortxuau emoten xako, oin urdin hoi gutxitxuau, ta "en cambio" arbelien edo harrixen lana ein bihar bozu, ba apurtu itten die bestela. Hoi urdinddu larrei itten bozu, ba biguna geraketen da, seiñalia berua pasau in dala aurrera, hori urdiña atzian daola sartzen bozu, peligrua xauk apurketeko atxurrak-eta lanian.

### 6.32. Errementarien lan-tresnak

- **Hizlaria(k):** Aizpeurrutia Etxeberria, Jenaro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arana, Iñaki - Oregi, Lide
- **Erref:** ONA-178/009
- **Iraupena:** 0:05:19. **Hasi:** 00:13:34. **Bukatu:** 00:18:53
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Arana, Iñaki
- **Gaia(k):**  
Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak
- **Laburpena:** Errementari lanerako beharrezkoak diren tresnak. Beraientzat beharrezkoak zituzten erremintak neurrira egiten zituzten. Lexikoa.

#### Transkripzioa

- Eta emen zertzuk daukazue?  
- Sutaixa! Baiña guk sutaixa esate xau en conjunto! Auspua, uran askia, amen eote zan eskoba bat ura botateko, sua llamia eitten danian eskoba zar batekiñ orra apur bat botateko. Tenazak, batzuk aixkorai eltzekuak, onek aixkorianak die, euren neurrikuak biar aixkoria be; bakoitza bere neurrixen, amen arandela bat aukitten dau onek katian maillian mouan, eskuakiñ eusten eon barik, arandelia sartu ta eusteko. Onek etxian einddakuak die. Junguria, desteria, taladrua, oi tornillu oi, Kataberan eondakua da, bai, Minas de Katabera, Udanatik gora, bai, au andik ekarritakua da.

### 6.33. Kateak nola egin

- **Hizlaria(k):** Aizpeurrutia Etxeberria, Jenaro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arana, Iñaki - Oregi, Lide
- **Erref:** ONA-178/021
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:40:14. **Bukatu:** 00:42:16
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Arana, Iñaki
- **Gaia(k):**  
Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak
- **Laburpena:** Kateak ere egiten zituzten. Burdin begetala.

#### Transkripzioa

- Eta kataiak zelan eitten ziñuzten?  
- Mailla por mailla, lenau batekiñ asi biozu, burdiña barillia segun ze katai eiñ biozun. Mailliai da! emun, ebai, bestiai emun dasst!, ta geo artu tenazakiñ ta lenengua, bat eiten dozunian bigarrena.

Materiala leku askotatik, Patrixionetik pe bai, Bittorixatik pe bai, baiña katemaillak eitteko materiala konfiantzazkua bia da, gure aittajunak esatetsan bejetala, hierro vegetal, biguna! Pegaitteko, kaldiaitteko ona.

### 6.34. Kateak nola egiten ziren; zertarako erabiltzen ziren

- **Hizlaria(k):** Aizpeurrutia Etxeberria, Jenaro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arana, Iñaki - Oregi, Lide
- **Erref:** ONA-178/023
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:44:10. **Bukatu:** 00:46:01
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Arana, Iñaki
- **Gaia(k):**  
Lanbideak » Negozioak, dendak  
Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak
- **Laburpena:** Kateak zelan egiten zituzten azaltzen du. Zeinendako, zertarako izaten ziren. Karreteroek egurrak... lotzeko erabiltzen zituzten.

#### Transkripzioa

Katian mailla auxe ok, oiñ eiñ biou au ebai, beste bat barrixa aiketa katia iñ arte, ta geo eldu amendik tenazakiñ, onek bixok juntau ta pegau. Katia bi metrokua itteko bat pegau biozu lenengo, geo bestia sartu biozu or eta aura eiñ, ta geo bestia ta geo bestia, ta azkenian pasaitten da amen pixu galanta, katai dana amen ibili biar.

[...]

- Katemaillak norako eitten ziñuzten?
- Orreik karreteruandako, karreteruak, burdixak, egurra lotzeko, egurra ta ba orrek tronkuak sakakuak eta.

### 6.35. Errementariaren lan-tresna

- **Hizlaria(k):** Aizpeurrutia Etxeberria, Jenaro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arana, Iñaki - Oregi, Lide
- **Erref:** ONA-178/024
- **Iraupena:** 0:00:34. **Hasi:** 00:46:01. **Bukatu:** 00:46:35
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Arana, Iñaki
- **Gaia(k):**  
Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak
- **Laburpena:** Txantiloia, gaur eguneko kalibrearen antzerakoa.

#### Transkripzioa

- Hau beste hau hemen daukazuena neurtzeko?
- Txantilloia oni esate xako; au da, ze esangotsut pa, kalibrian bezela, onek eukiko dabe lau milimetron aldia batetik bestera e, au izango da, bueno, aprosimau!

## 6.36. Gerra ostean burdina erosteko zailtasunak

- **Hizlaria(k):** Aizpeurrutia Etxeberria, Jenaro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arana, Iñaki - Oregi, Lide
- **Erref:** ONA-178/031
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:53:45. **Bukatu:** 00:55:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Arana, Iñaki
- **Gaia(k):**  
Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak  
Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- **Laburpena:** Ateendako trangak enkarguz egiten zituzten. Altzairua aizkorak egiteko bakarrik erabiltzen zuten. Gerra ostean burdina erostea oso zaila izaten zen; estraperloan erosi behar.

### Transkripzioa

- Zuek galtzairua batez be zetarako erabiltzen ziñuen?
- Ortarakoxe, aixkorandako, beste ezetaako ez, oixe, aixkorak eitteko, ta aixkorak zeak galtzairaketako, bestela dana burdiñia zenbat ta biunaua oba lana eitteko.
  
- Zure aittajunan garai hartan burdiñia ta lortzia ez zan erreza izango.
- Emen eon zuan epoka bat topau eziñ gaiñea, guk lau kilo biar da eziñ topau, ta topaitten gebena diabrua baiño okerraua. Problemak? Neu akordaitten nok ni mutikua ta be eziñ topau, topau bai, karo, estraperlua dana; ni akordaitte naiz e, onezkeo izango die berrogetabost urte, amabi pezeta kilua e, barillia au doce pelas e!

## 7. Baserría

### 7.1. Mutikotako lanak karretero

- **Hizlaria(k):** Lizarralde Galdos, Gregorio; Ugarte Moiuá, Alejo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Jerardo
- **Erref:** ONA-020/007
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 00:11:57. **Bukatu:** 00:15:22
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Baserría » Baserriko lanak » Baserríari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** 1941ean ibili zen Diputazioarekin lanean Alejo. Mutikotan Romualdo lagunarekin Errotabarrin ibili zen karretero, gurdi edota astoarekin alea ekarri eta irina eramanaz. Olabarrieta, Uribarri eta Garibai artean egiten zuen lan.

### Transkripzioa

- Horreik Diputaziñoko kontuok noizkuak, zein urtetakuak dira?
- A: Horreik, ba, 41kuak.
- 41kuak, gerratik etorri eta berihela.
- A: Etorritakuan segittuan etorri xatan neri, zera, arrebieñ etxian neuen. Oñatira ez nintzan etorten atrebiu amana, ama bera etorri zan hara zeatik halakotxe zera euen orduan eta; eta segittuan bi gizon etorri xatan eta Diputaziñokuak zirala eta neu zerien martxan ifinttera, eta ba pittin bat

ibilli nintzan, hillabete baten edo, baiña Papeleran hots in nostaiñian ba esan nosten: "E!, hemen pentsaitten dot geraketia"; bestela ifiñiko nostain enkargau.

- Eta gerra aurretik esan dozu Legazpin ibilli ziñala gerra aurretik be.

A: Bai, urte askuan.

- Eta aurretik beste ofiziorik edo, Errotabarriko kontun bat aittatu dozu lehen, ezta?

A: Bai, egon nintzan Errotabarrin be.

- Mutikotan.

A: Bai, mutiko edo, bastante hazi...

- Eta han zer?

A: Han ba zorruak eruan eta, urtebete bat edo pasau neben zerian, nola amistadia geukan ba...

- Eta zorruak, baserriara partiu edo...

A: Bai, burdixakin, Romualdo eta bixok ibiltten giñan eta gero astua be bageukan eta bakarrik fan bihar izaten zanian, bakarrik igual eta...

- Romualdo zer zan, zu baiño zaharragua, ala?

A: Ni baiño zerbait zaharragua, urte pare bat edo hiru bat zaharragua.

- Asko ez, ezta?

G: Lau bat urte bai.

A: Bai, izango (di)ttuk, bai holakoren bat izango dok, bai.

- Eta noraiño faten ziñain zorruak eruatera?

A: Olabarreta dana eta gero Urubarri aldia be bai, eta zerian, inguruan bastante.

- Burdixakin? Eta aldiko zenbat zorro gutxi gorabehera?

A: Ba hamar bat edo, dozenan bat edo. Klientenak ibiltten gittuan.

- Eta zer, behixakin edo idixakin edo?

A: Behixakin.

- Burdikadia bete eta...

A: Bai eta eruan uruna eta ekarri atzera alia.

- Orduan, karriuan.

A: Bai, lana, lana itten.

- Eta hala, mutiko gaztiak, behixakin, ala persona zaharren bat be joaten zan zuekin?

A: Ez, ez, ez, Romualdo eta bixok.

- Baiña nehiko gazte onddiok, ez?

A: Artian be behintzet bai, gaztiak.

- Eta Urubarriraiño faten ziñain, e?

A: Bai, Urubarri bai, zeraiño behintzat bai, nola da? Oin hotela indda dao ba hor.

- Soraluze?

A: Bai, Soraluzeraiño.

- Eta beherutz?

A: Beherutz hainbesteraíño ez.

- Zubillaga aldera eta ez?

A: Zubillaga aldera eta hainbesteraíño ez.

- Baiña San Pedro-Garibai bai.

A: Bai, hemen inguruan danian zertzen geben.

- Eta Koixkar ta Duruan ta?

A: Ezta, horreittara ez, alturatara ez.

- Eta Errotan ibilli ondoren, gero berihela fan ziñan Legazpira edo bixen bittartian beste nunbaitten ibilli ziñan?

A: Ba Legazpira fan nintzan hortxe zerien, Parrokixako lanak akabo eta gero, hiru-lau lagun fan giñan, han bihar eueilla eta zerian, eta gero anaia nola neukan han Papeleran ta nola neukan lana eskatuta; gaiñera gure anaien koiñatua zan enkargaua eta harek segittuan sartu oskun. Fazilla



izango zan. Ekarki eben ajente edo zera, bertako nagusixa eta joño! Jakin ebenian lehen lana eskatuta neuela eta... ba segittuan fateko esan nostain, eurak abixau nostain.

## 7.2. Parrokiako harriak bistaratzen

- **Hizlaria(k)**: Lizarralde Galdos, Gregorio; Ugarte Moiuia, Alejo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Jerardo
- **Erref**: ONA-020/008
- **Iraupena**: 0:01:28. **Hasi**: 00:15:22. **Bukatu**: 00:16:50
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak  
Aisia » Kirola » Boxeoa
- **Laburpena**: Nahikoa denbora pasatu zuten parrokian lanean. Sabaiko harriei pintura kentzen ibili ziren, harriok bistaratzeko.

### Transkripzioa

- Parrokixan zenbat denpora ibilli ziñain gutxi gorabehera?

A: Ez neke esango zenbat, baiña bastante zerian, garbiketan. Ibilli geben jefe Olaako gizona, "Gorri" esaten otsaiña edo ibilli geben. zerien.

- Eta zer zan, hargiña edo igeltserua, edo...?

A: Ez, ez, ofiziala ez zan ha be, ha be zan gure moduko zera.

- Eta hori, zenbat urte eukiko zeuen zuek orduan, Parrokixan ibilli ziñaiñian?

A: Ez dakit ba zenbat eukiko gittuan, zenbat urtekin giñan.

- Baiña gaztiak, oso gazte oinddiok?

A: Gaztiak artian.

- Eta zer izan zan, hori goiko sapaixori garbiketia?

A: Bai, bai, sapaixa, han dagozen kruziak, bigak, bigak moduen danak, adornuak, hareik danak.

- Harrizko hareik, borobillak eta...?

A: Bai, bai, alanbrazko zerakin, sortatxuaz lotuta eta alanbra zerakin, danak, pinttura dana kentzen.

- Osea gaiñian eukan pinttura edo karia edo, pinttauta egozen ezta, hareik?

A: Bai, pinttauta egongo ziran, bai, pinttauta eta zerien.

- Eta ha kendu eta harrixa bistaratu edo?

A: Bistaratu, bai; gaur, harrixa bistan egongo dala uste dot nik.

- Bai.

A: Harrixa linpio jartia.

- Bai baiña, nerbixuak, ezta? Hareik nerbixo...

A: Bai, bai, biga haundixak ez gittuan guk zertu. Hareik be ingo ziran, baiña gu gebitzela ez. Goiko punta-puntan, ya altura haundixan.

## 7.3. Inguruetako karobiak

- **Hizlaria(k)**: Igartua Ugarte, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Irizar Kortabarría, Maider
- **Erref**: ONA-029/001

- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Karea non egiten zuten; inguruetako karobiak. Basoetan ere egiten ziren karobiak. Honen inguruko azalpenak.

### Transkripzioa

- Lehenengo, karia nun itten zan, zein lekutan?
- Ba, etxe gehixenetan karia, toki askotan, [aldekuak] be bai, hemen gurian be bai, zerien, Erostejin be baeuen karobixa, Urzelain be bai, Konkenian be bai, eta gero basuetan be eitten ziran orduan karobixak.
- Basuetan be bai?
- Bai, basuetan be, otiakin nola eitten zan, otia nola erreten zan, ba otia ebagi eta otia etxera ekarri biharrian, basuan karobi zuluak ein eta gero basuan erre, hurrao eukittiarren.
- Baserri baikotzak eukitten eben bere karobixa?
- Ez.
- Edo auzoko hainbeste egoten zian?
- Ez, bat .. bat, egoten zian, ba, Gorordok be hantxe eukan karobixa.
- Oin ya ez, oin txabolía eindda dakou.
- Geuk be ez! Ez dakou oin. Geuk be hortxe geukan, etxe onduan.
- Nik neuk ez dakot goguan guría be.
- Aldekuak be aldamenian hortxe eukain, ointxe kendu euein honeik be. Horko kamiñua ein zanian kendu euein aldekuak be. Geuk be ointxe kendu dou. Oin hemen egongo dia: Erosteji Txikiñian dao bat; Urzelain be tapauta dao; Konkenian dao beste bat.
- Oinndiok lehengo moduan, e?
- Konkenian beste bat.
- Urzelain be bai.
- Baiña tapauta!
- Bueno, zikiña botata edo.
- Bai, horixe. Horrek ez dako txisterik, ikusi ein bihar da karboixa zelakua dan, barruan.
- Konkenian dago orduan, ikusteko modukua?
- Bai, beste bat, akaso zikiñez beteta ez badakoi, baiña Konkenian dgo etxetik goratxua, etxetik pittin bat goratxua dakoi, Urtigaiñera dauen euren bidian, hantxe dao.
- Ikusi barik...
- Kamiñotik bistan dao.
- A, bai? Sekula fijau barik nenguen.
- Ba horixe, fijau ez, klaro.

### 7.4. Karea egiteari noiz eta zergatik utzi zitzaion

- **Hizlaria(k):** Igartua Ugarte, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irizar Kortabarria, Maider
- **Erref:** ONA-029/002
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:01:50. **Bukatu:** 00:03:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa

- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Inguruetan Urzelai izan zen karobia egiten azkena. Gerra ondorenean karobiak egiteari utzi egin zitzaion pixkanaka. Karea egiteak lan asko zuelako eta karearen salmenta jaitsi zelako utzi zitzaion karea egiteari.

### Transkripzioa

- Noiz itxi xakon karia eittiai?
- Azkenengo, azkenengua, hemen azkeneko karia ein ebena Urtzelai izan zan. Urtzelaikuak, hemen nik azkenengo ezautu dotena Urtzelai izan zan. Ta kariai itxi xakola, ba, berrogei bat urte bai.
- Berrogei urte bai?
- Bai, berrogei urte bai.
- Nik leidu dot ez dakit nun gerra ostetik aurrera ya izten fan zala jentia.
- Bai, bai, bai, ya... gero ondorian ya... geuk be ez dakit gerra ondorian gehixao ein izango geben. Aurretik bai, neu soldau fan nintzanian be karobixa kargauta itzi neben neu soldau fan nintzanian be. Ta ni soldau egon nintzala 22, 77ri 22 kendu, aber zenbat dian... 55 urte. E? Ta ba! 40 urtetik gora, gora, 40 urtetik gora.
- Zeatik itxi xakon?
- Lan asko eukalako, lan asko.
- Eta ya ez ebelako kariak...
- Klaro, ez eukan saltzeko, ez eukan eukitten bentarik. Ya gero karobi... beste karobi, ez dakit noiz formauko zan, baiña gero hor zerian, Garagartzan, euen beste [karia eitten]... gaur be eingo daue Garagartzan karia.
- Bai oindiok? Lehengo erara?
- Baiña kanteran, e? Lehengo erara ez, kanteran, nik ez dakit zela eitten daben. Gero jentiak itxi ein otsan. Gero etorri zan etxiak zuriketako be, kariakin zuriketazian lehen etxiak, habitaziño danak. Gero enpapelaua eta pintturia eta etorri dia eta horreik danak... ba galdu ein da. Sukaldiak be gaur kariakin ez dau iñok pinttaitten.
- Oin ittoia edo ezpada...
- Bai, ittoia baiña, hortarako oin almazentian dakozu zakuetan eta ez dau zera eitten...

## 7.5. Karea saldu partikularrei edo Antzuolako kurtideriara

- **Hizlaria(k):** Igartua Ugarte, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irizar Kortabarria, Mainer
- **Erref:** ONA-029/003
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:03:50. **Bukatu:** 00:06:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak  
Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- **Laburpena:** Zenbaitek lau urtetik behin egiten zuen karea, baina beraiek urtean behin ere egin izan zuten, karobi txikia zuten eta. Inguruetan kare gehien egiten zutenak beraiek eta Urzelairenekoak

izaten ziren. Karea nora saltzen zuten; etxea zuritzeko, Antzuolara kurtideriara.

### **Transkripzioa**

- Zenbatian behin eitten zan?

- Guk urte askotan urtero be bai.

- Urtero?

- Guk karobixa txikitxuaua geukan, gurian karobixa zan, beste, Urtzelaikua eta honeik baiño txikitxuaua. Nola eukitten geben abarra asko, abarra egoten zan, piñu abarra. Aurretik otiakin erreten zan. Bueno, hori gero ipiñiko dou, ezta? Zela erreten zan eta...?

- Bai, gero hor apuntauta dakot hori be bai.

- Zeuk esan, galdetu zeuk.

- Orduan, urtian behin eta hola eitten zan?

- Bai, batzuk, beste batzuk lau urtetik behin edo bostetik behin edo, beste batzuk behin erretakuak igual, bape erre barikuak be baten batzuk igual egongo dia. Batzuk izaten zian. Hemen gehixen erreten gebenak geu eta Urtzelaikua izaten zan. Geu eta Urtzelaikua.

- Auzo danetan izaten zan hola, bardin? Auzo danetan, hola Oñati maillan eta, zuk dakitzula?

- Bai, erreko zian, hemen Murgixan eta Berezaun eta honeittan be erreko zian, danian, danian, zeatik orduan sorua abonaitteko ez euen besterik ezer, karia botaten xakon soruai asko, guk larrei botaten gosten soruai. Klaro, horrek be, oin hor egurra dauen lekuan eukitten geben karetegixa, hor bertantxe erreten geben eta hartu eta horra botaten zan eta betik karia sobra. Gero hemen ba, zapatuetan eta, Araozko andrak etorten zian, etorri astuakin eta... ene! Bihar dot ba nik arrobatxo bat kare, bihar dot ba! Eta Trinidadetarako etxia zurittu bihar, zuriketako bihar izaten euen eta hemen holaxe saltzen zian. Azkeneko urtietan, hola, kamionkadatxo bat-edo, zerea eruaten geben, kurtedixarako Antzuolara, honeik, Galarza, horreik eukein han kurtedirixia eta kamionkaratxo bat erreten gebenian haretzek eruaten eben. Bestela ba, hemen ba, etxietara.

- Saldu eitten zan?

- Saldu, saldu, bihar gebena etara eta saldu. Hautsa eitten xako gaiñian, harrotu eta barruan harrixa egoten da, harrixa barruan, harrixa bihar da karia eitteko.

- Harrixa bihar izaten da?

- Urtutakuakin ez dau eitten, bestia eitten da uretara bota eta irakin. Gero ha eitten da, balde edo depositto zer batera bota eta ha egoten da urte batian edo bixan igual.

- Ha geldi eduki bihar da.

- Ur puxka bat bota gaiñian eta ha han egoten da, eta gero gaiña kendu eta ha hartu eta letxaria betik gertu egoten da.

### **7.6. Etxekoak karegintzan; inguruetako karobiak**

- **Hizlaria(k):** Igartua Ugarte, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irizar Kortabarria, Maider
- **Erref:** ONA-029/004
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:06:10. **Bukatu:** 00:08:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa

- **Gaia(k):**

Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

- **Laburpena:** Etxekoak ibiltzen ziren karea egiten. Gau eta egun egon behar izaten da karobia zaintzen erretzen dagoen bitartean eta batzuetan auzokoak etortzen zitzaizkien laguntzera. Etxe ondoetan egoten ziren karobiak, baina baita basoan ere. Inguruetako karobiak. Karobia egiteko lekuan arbela egotea komeni da azpian, lurra erre egiten da eta.

### **Transkripzioa**

- Zenbat lagun en artian eitten zan?
- Han guk, etxeak ibiltten giñan.
- Etxeak bakarrik?
- Guk etxeak ibiltten giñan, nola aurrez preparaitten geben, etxeak ibiltten giñan, eta oin ba, gero gabian lagun eittera aldekoen batzuk betik etorten zian, nola gau eta egun egon bihar izaten dan erreten, gabian reibaittera igual etorten zian, aldekoen bat edo bestela parienten bat edo, ezagunen bat edo, gabian, ezta, ba? Atendi ein bihar izaten xako, harek gau eta egun egon bihar izaten dau sutan.
- Segiru baten bat egon bihar.
- Bai, bat bakarrik... bi hoba!
- Karobixak ze lekutan egoten zian esan dozu, etxe ingurutan egoten zan, etxe onduan?
- [Parte] bai, [parte] etxe inguruan egoten zian, baiña lehen esan dotena, basuan, basuan be, konparaziño bateko, Zapatan, egongo dia, egongo zian karobi zuluak. Eta beste karobi zulo bat egon da... oin ez dakit, honezkero kenduta egongo da, zu ez ziñan hara helduko, Tantelukuak dakoi hor, Mandrikan, hor dakoi...
- Bai, txabolía han dako.
- Beherauan dako beste zail bat, ointxe piñua bota daue, han bidekontran, han be egon zan karobi zulu.
- Eta zer zan, Tantelukua?
- Ez dakit, ezin dotsut esan, ez dotsut esango, guk alde hortara gutxi faten giñan, baiña han euena banekixen. Ba holaxe egoten zian ba... ota asko, nola otalekuak dian, ota asko egoten zan ta [...] eta otia ebagi, neguan otia ebagi, eta gero hartu eta gero karobira.
- Nik dakot, ifintteko lekuak eta... lekurik erosuenian eitten zala eta gero arbel-lurra izan bihar ebela.
- Arbel-lurra bai, zererako bai, eitteko, baiña guk hemen etxe onduan geukan honek, guk harrixakin eindda eukitten geben, harenarrixakin einddako, bueltan harenarrixakin eitten gotsan.
- Eta arbela egon bihar dau karobixa ingo dan lekuan, lurrian?
- Bai, klaro, bestia erre eitten da-eta, lurra erre eitten da, han egoten dan beruak erre eitten dau lurra.

## **7.7. Karobien konponketa;karobiaren neurriak**

- **Hizlaria(k):** Igartua Ugarte, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irizar Kortabarria, Maider
- **Erref:** ONA-029/005
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:08:40. **Bukatu:** 00:10:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai

- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Karobia apurtzen zenean konpondu egin behar izaten zen hari berriak sartuz; honen inguruko azalpenak. Karobi desberdinak egoten ziren, tamaina desberdinetakoak. Karobiaren gutxi gorabeherako neurriak.

### Transkripzioa

- Eta karobixa hola zainttu biharrik? Arreglau biharrik edo?
- Klaro, betik izaten zan aberixan bat, ba, hurrengo barrixa eitten zanerako; karobixa izaten da, hola, erredondokua, hemen erredonduan eukitten dau holako zenefatxo bat, eukitten eben, hau zulua beheraño hemen, sua eitteko, hemen honaño hola, ezta? Hemen eukitten eben hola, zenefatxo bat, eta hemen hasten zan harrixa ifintten, karia eitteko harrixa bueltan ifintten zan, eta hor askotan, hor apurtu eitten zan hori, arreglau [ezian] ba erre, beruak ba erre, edo egurren batek jo dauela edo harrixak jo dauela edo betik izaten zan, ez zan izaten ze haundirik, betik izaten zan.
- Arreglau biharrekua orduan.
- Arreglau biharra. Guk nola harenarrixak [ebalitten] gittuan, zulon bat baldin baeuen be, atzera harri barrixa sartu eta zerakin, buztin puska batekin zera ifiñi eta "ya está"! Martxan atzera.
- Ze neurri eukitten auen, danak diferentiak?
- Bai, diferentiak izaten zian, guria zan txikitxuaua, "en cambio", Urzelaikuak eta honeik zian haundixauak, baiña hareik nola hartaraxe dedikaitten zian... Gu, berriz, ba, etxerako betik, ba, basuetan nola zarramarra asko egoten zan, eitten zan ba zarramarria aprobetxau, nunbaittetik... ez dakitzu? Orduan ez euen besteik, e! Orduan ez euen fabrikarik eta, oingo moduan, bizimodua ba hemendik, bizimodua ba hatxe aprobetxau eitten zan.
- Eta gutxi gorabehera ze altura eta ze zabal eukitten eben?
- Ze altura? Hareik, hiru-lau bat metro bai guriak be! Eta horreik aber gehixao eukein, Urzelaikuak gehixago euken.
- Ez dakit nik, zikiñakin ezautu dotenez, ez dakit behera zenbat ...
- Hiru-lau bat metro, hiru-lau bat metro euko zittuein horreik.
- Haundixauak be egoten zian?
- Hiru metro bai, guriak be hiru metro eukiko zittun behintzet. Gero erredondua, batzuk haundixaua beste batzuk txikitxuaua.
- Neurri jakiñik ez euen.
- Neurri jakiñik ez, ez, neurri fijorik ez.
- Lekua zelakua, halakua.
- Bai, bai, ez eukein.

### 7.8. Karobiaren aurrean zaintzailearentzat txabola

- **Hizlaria(k):** Igartua Ugarte, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irizar Kortabarria, Maider
- **Erref:** ONA-029/006
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:10:50. **Bukatu:** 00:12:05
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

- **Laburpena:** Karobiaren aurrean txabola egiten zen karobia zaindu behar zuenarentzat. Karobia gau eta egun zaindu behar izaten zen eta eguraldi txarra eginez gero txabola babesa izaten zen zaintzailearentzat.

### Transkripzioa

- Zelakuak izaten zian? Batzuk hola eukitten euen, guria hola, txabolia moduan euken gaiñian, edo teillatua. Batzuk teillatudunak izaten zian eta beste batzuk ez.

- Ez, ez, librian, oin ba, klaro, Erostege Txikiñian be hantxe dao, oinndiok bere txabola ta guzti dako. Txabolia etzan izaten karobixan gaiñian, e?

- Ez?

- Aurrekaldian. Eurixa edo egualdi txarra eindda be, ba sikutan, norbera...

- A! Norbera sikutan egoteko izaten zan?

- Norbera sikutan egoteko. Eguzkixa baldin baeuen, ba keizpetan.

Karobixaren gaiñian ez, e?

- Klaro, nik uste neben karobixaren parian, keiandako eta...

- Ez, ez, ez. Bai, keiandako eta; sua be, karia erreten danian, sua be altu botaten dau. Erre eitten danian, ha faten da behetik gora faten da, berotuaz, berotuaz, berotuaz; karia eñaz sua gora faten da. Eta han gaiñian ifintten badozu txabolia, ba ha [erreta dao]. Ez, ez, aurrekaldian. Eurixa eitten badau, egualdi txarra eitten baldin badau... Ni akordaitten naiz urte baten guri edurra ein oskun.

- Edurra, e?

- Bai, karobixa erreten gabitzela, edurra, eguraldi txarrak emun et ...

- Etzan giro izango kanpuan egoteko!

- Ez baiña, ba, ohol batzugin ahal dan moduan ein aurrekaldeko txabolioi ta...

## 7.9. Baserriko bizimodua; umetako lanak

- **Hizlaria(k):** Guridi Egaña, Enrike
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-041/005
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:10:30. **Bukatu:** 00:12:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
 Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua  
 Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak  
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak  
 Baserria » Baserriko lanak » Garia
- **Laburpena:** Baserrian hiru behi inguru, txerria eta untxiak izaten zituzten. Umetatik lan egin beharra izaten zen, batez ere "ittaurrean". Baratzea eta soroa ere bazituzten eta denetarik hartzen zen orduan. Inguruetan gari asko hartzen zen lehenago. Torreauzoko baserri "fuerteenak" zeintzuk ziren.

### Transkripzioa

-Zuek etxian ganaurik-eta bazeukein?

-Hemen? Bai. Guk hiru behi. Hiru behi ta beste bi txahal edo hola izaten zittua; beste txarrin bat edo beste...

-Eta ardirik edo?

-Ez, ardirik ez. Beste koneju batzuk, beste oillotxo batzuk...

-Etixerako, ezta?  
 -Etixerako, bai.  
 -Umetan lan ein beharko zenduen basarrixan, ez?  
 -Bai, bihako in! Ittaurren ta. Hotz galantakin hemetik aurrea. Tremendako izotza ta sudurretik dindilixuak.  
 -Ta hori izaten zan umien lana, ittaurrian...?  
 -Bai, bai, ittaurrian ittia izaten zan orduan umien lana. Gure bizimodua hola hasi zan.  
 -Eta orturik eta? Bazekazuen, ortua?  
 -Orduan? Bai, orduan ortua ta sorua, danak.  
 -Ta ze itten zan?  
 -Ortuan? Ba ointxe itten dana, porruak eta azaak eta, tomatiak eta...  
 -Oin gariik ez da eraitten.  
 -Oin gariik ez da /ezta/ eraitten. Garixa iñok... Oñatin, apostia eingo ñukek, ez dauela /eztauela/ gazte askok garixa zelakua dan be. Jakin be ez, segurutik. Noiz eraitten zan ta...  
 -Araban ikusitta.  
 -Araban ikusitta, "lo único", fan dana. Hemen lehen garixa bastante hartzen zan. Hau, Etxehaundi, [...] dauena? Hori ta Lazarraga, horreik zien hemengo Torreazoko zerik fuertienak, baserririk fuertienak. Hor gari asko hartzen zan.  
 -Errota nun dakotzue hemen?  
 -E?  
 -Errotia?  
 -Errotia, Garibaiko errotia.  
 -A, Garibai, karo.  
 -Eta... Garixa ta artua ta arbixa ta... orduan, ba, orduan ez euan besteik.

## 7.10. Kalera errekadutara

- **Hizlaria(k)**: Kortabarria Urrutia, Rosario
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-045/003
- **Iraupena**: 0:02:09. **Hasi**: 00:06:26. **Bukatu**: 00:08:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
 Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak  
 Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena**: Ganadu eta ardi zainketan. Domeketan lanean hasi aurretik entzuten zuten meza. Zapatuetan kalera joaten zen errekadutara astoarekin, etxeko gauzak saldu eta etxerako beharrezkoak zirenak erostera.

### Transkripzioa

- Ta baserrixan, Gorordon esan dozu, Gorordo ezta? Jaixotetxian ganadu asko zekazuen?  
 - Asko ez, orduan ba lau bat behi eta euren txahalak, ta ardi batzuk, ardixak, eta ardizain ta in bihar izaten geben, domeketan be ez euen libertaderik, ardizain, edo zertanbait.  
 - Mezetara fango ziñain.  
 - Bai, mezetara bai.  
 - Hortarako baeuen libertadia.



- Bai, mezetara bai, mezetara goizian goiz jaikitta gaiñera.  
 - A, bai?  
 - Bai.  
 - A, gero lanak in ahal izateko?  
 - Bai, goizian mezia entzun eta gero lanak. Txikittan ikasi geben guk lanian.  
 - Txarririk eta eukiten zenduen?  
 - Bai, txarrixa, txarri bat eukitten geben urtian, urtian bat, hiltteko.  
 - Astua be etzan faltako.  
 - Astua? Astua be bageukan.  
 - Eta faten ziñan errekauntan kalera?  
 - Bai, faten nintzan.  
 - Zapatuero?  
 - Ba, gehixenetan, zapaturik gehixenetan. Zer saldu gutxi eukitten geben ta, zerbait saltzeko bageukan saldu eta, diru gutxi hartzen geben eta eurak aguro gastaitten gittuen ta etxera.  
 - Ze eruaten zenduen, esnia? Esnia eruaten zenduen kalera?  
 - Bai zera, esnia etxian jateko lain euki ezkeru pozik!  
 - Baiña arrautzak edo zerbait...  
 - Bai, arrautzak eta gazta banaka batzuk, udan ardixakin, ardi esniakin indda eta, holaxe.  
 - Eta frutarik edo kastañarik edo intxaurrik edo saltzen zeuein?  
 - Gaztaña bai, intxaurrik ez, intxaurrik e, arbola gutxi geukan ta, intxaurrik ez.

### 7.11. Lehengo baserrietako jatorduak

- **Hizlaria(k)**: Kortabarria Urrutia, Rosario
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-045/004
- **Iraupena**: 0:01:27. **Hasi**: 00:08:35. **Bukatu**: 00:10:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
 Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa  
 Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Ortuan ereiten zirenak eta orduko jatorduak.

#### Transkripzioa

- Eta ze eukitzen zenduen ortuan?  
 - Ortuan?  
 - Bai, ze ereitten zan?  
 - Ortuan ba azak eta porruak eta holakotxe zer batzuk. Beste... ortuan ze gutxi eukitten geben, tomate banaka batzuk eta... baiña gutxi eukitten gittuen.  
 - Ze jaten zan?  
 - Ze jaten? Ba eguardixan babia, goizian saldia eta esnia, gabian be saldia eta esnia; neguan gaztaiña denporan gaztaiñak, eto gero gaiñian saldia eta sagar erriak eta holakotxiak.  
 - Neguen gaztaiñak jan eta gero berakatz-saldia edo kipula-saldia?  
 - Ba, bittatik bat, baten berakatz eta bestian... euena.  
 - Eske entzun dot, Aixkirrin eta, gaztaiñak jan ta gero, kipula-saldia.  
 - Kipula-saldia?

- Bai. Eta bestela eguardittan eta hola, saldia hartzen eueñien, berakatz-saldia.  
- Guk ez geben hola inportantziarik eukitten, saldia beuen, berakatz beuen berakatz eta kipulia beuen kipulia ta beste gaiñerakuan porru pusketa bat igual, ta holaxe.  
- Gaztaiñari lagunketako ezta, saldia?  
- Bai.

## 7.12. Arropak eta izarak

- **Hizlaria(k)**: Kortabarría Urrutia, Rosario
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-045/005
- **Iraupena**: 0:04:01. **Hasi**: 00:10:02. **Bukatu**: 00:14:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
Baserría » Baserriko lanak » Baserríari lotutako lanbideak  
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Ama Goroetatik ("Korueta") Gorordora ezkondu zen. Arropa garbiketara errekatxo batera joaten ziren eta sasia eseki lehertzeko. Masusta garaian arazoak. Arropak mahoizkoak eta izarak liho-ehunezkoak izaten ziren. Lihorik ereiten ez zuten arren, goruetalanak ezagutu zituen.

### Transkripzioa

- Eta zenbat jente bizi ziñazien etxian?  
- Zenbat jente? Ba geu sei anai-arreba giñan, eta aitta-amak eta...  
- Eta amama edo aittitta edo ez?  
- Ez, ez neben ezagutu amamarik, aittaitarik be ez.  
- Eta gurasuak, bertakuak ziran? Aitta eta ama bertakuak ziran? Oñatiarrak bixak?  
- Aitta oñatiarra eta ama Koruetakua.  
- Orduan ama ezkondu zan hona.  
- Bai.  
- Eta erropak garbitzeko eta, zelan itten zenduen?  
- Ene! Erropak garbiketako ahal dan moduan, hola leku gutxittan egoten zan ura ta. Erateko be urriñetik, urrin oso urrin ez baiña, ekarri in bihar izaten geben. Eta han errekatxo bat pasaitten zan eta hantxe errekatxuan euen holako baiñeria moduko zer bat indda, potolo bat, eta hantxe erropak garbiketetan ginttuan.  
- Errekan.  
- Bai. Erreka txikiña zan, ura "tsiiiiiiiiii" faten zan ta haxe beteta egoten zan. Hantxe.  
- Eta jaboirik edo erabiltzen zan? Jaboia edo?  
- Bai, jaboia bai.  
- Eta erropak garbittu bertan eta bertan astindu gero?  
- Bertan astinndu ta, sasixan esegi ta...  
- Sasixan? Kordelik be ez euen, erropia esegitteko?  
- Kordelik be ez euen, olabazittan ta sasixan ta holaxe. Masusta denporan, masustak zikin-zikin itten zittun atzera ta... atzera garbiketara.  
- Eta ze izaten ziran, erropak liñozkuak eta egoten ziran? Zuek bazekazuen liñozko erroparik?

- Erropak? Erropak orduan izaten ziran ba, erropa azulak, mahunak eta, gizonendako mahunak eta.

- Alaba: izarak eta, liñozkuak bai.

- Izarak bai. Izarak etxian inddakuak ehunakin ta, ehuna, ehuna jakingo dozue ba zer dan. Ehunezko izarak.

- Eta etxian egitten zan?

- Etxian lehenaukuak egitten euen baiña guk ez geben ikasi. Gure denporan ez geben in.

- Baiña auzuan egongo zan norbait holako lanak itten zittuna.

- Auzuan? Ez dakit ba asko egongo zan be.

- Alaba: sekula ez dostet entzun honeiri...

- Ez, gutxi orduan, goruetan itten euenak be gutxi.

- Bai? goruetan neuk be ezagutu dot.

- Goruetan ezagutu neben neuk be bai baiña, geuk ez geben itten behintzet, liñurik ez geben ereitten.

- Ikusita daukazu baiña liñua ereinda?

- Liñua ba, ereitten ez neben ikusi sekula baiña, ereinddakuak jasoten eta zelaixen zabaldua eta, eukitten zittuein.

- Eta zelakua zan liñua?

- Liñua? Ba garixen antzekua, haundixa be garixen tamañu igualekua, ta zelaixen euki puska baten ta gero itten zittuen trangaatu, ta ez dakit ba zer esan be, egur batzuk egoten ziren hola bittartia dakueiñak eta han bittartian "tranga-tranga-tranga" hantxe. Eta gero harekin harixa egin, ta harekin erropia.

- Ehuna egin, ehuna gero ezta, harekin?

- Bai.

### 7.13. Garia eta errotak

- **Hizlaria(k)**: Kortabarria Urrutia, Rosario
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-045/006
- **Iraupena**: 0:02:37. **Hasi**: 00:14:03. **Bukatu**: 00:16:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
 Baserría » Baserriko lanak » Garia  
 Baserría » Baserriko lanak » Errota
- **Laburpena**: Garia azaroan ereiten zen. Udarán batu eta Araotz edo Tokilloko errotara eramaten zuten ehotzera.

#### Transkripzioa

- Eta hori, garixa esan dozu, garixa be eukiko zenduen.

- Bai.

- Eta artua.

- Artua be bai.

- Eta garixak ze lan eukitzen zeban? Noiz ereitten zan? Eta gero ze, ze bihar eukiten zeban?

- Garixa ointxe da garixa ereitteko denporia, nobienbrian. Eta heldu itten zan juliuan, holaxe juliuan, inguruan. Eta orduan ebagi ta, igitixakin ebaten geben guk behintzet eta, gero makiñak jarri ziren baiña gure denporan ez euen makiñarik, igitixakin ebagi eta gero metak itten zien; metak badakitdue zer dan? Bai, metak in ta gero jo garixok eta gero garbittu ta,

lana ugari eukitten euein hareik be.  
 - Eta zelan joten zan garixa?  
 - Garixa? Ba itten ziren hola sortak, bai? Eta haitxek ifiñi hola puxeta harrixen moduan, bai? Eta hantxen, danba, danba, hantxe.  
 - Kolpeka.  
 - Golpeka.  
 - Hor errekatxoko baiñera horretan puxetia bazeukein? Puxetia jotetik bazeukein?  
 - Puxetia joteko harrixa? Bai.  
 - A, ya baiñera horretan, pozu horretan bazeukatzuein hori.  
 - Bai.  
 - Garixa be bertan joten zeuein?  
 - Ez, garixa, uretan joko geben ba garixa? Ez.  
 - Garixa etxian, oholen gaiñian garixa.  
 - Puxetan moduan esan dau lehen ta.  
 - Alaba: puxeta harrixa modukua izaten zan, tabla bat, puxeta harrixan moduko posturan jarten zan, eta errofia moduan jotzen zan.  
 - Eta errotia nun dakotzue Uribarrin? Errotia nun dago Uribarrin?  
 - Alaba: Uribarrin ez dago errotarik.  
 - Errotia? Uribarrin ez dago errotarik.  
 - Nora eruaten zebein?  
 - Alaba: Araotzera edo Tokillora. Ni Araotzera biaje asko indda nago errotara. Klaudion garaixen.  
 - Ni denpora asko ez neben in Araotzera biajeka. Nik, e, gehixago faten nintzan Tokillora.  
 - Alaba: bai, amandria faten zan Araotzera eta gero ni, ni Araotzen, zazpi urtekin eskolara Araotzera fan nintzanian, Araotzen nik parte haundixa dakot han. Elorton egon nintzan ni hiru urte.  
 - Orduan eskolia kendu in euen ta, honen eskolara fateko denporan hemengo eskolia kendu in euen, gerria eta etorri zan bai eta, gerra denporan eskoliori kendu in euen.

#### 7.14. Baserriak gutxituz; karea

- **Hizlaria(k)**: Kortabarría Urrutia, Rosario
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-045/011
- **Iraupena**: 0:04:43. **Hasi**: 00:30:25. **Bukatu**: 00:35:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
 Baserría » Baserriko lanak » Baserríari lotutako lanbideak  
 Baserría » Baserriko bizimodua » Baserríaren historia eta kokalekua
- **Laburpena**: Orain lehengo aldean jende gutxiago dago baserri etxeetan. Erori ere egin dira etxe batzuk. Bere gurasoek baserrian bakarrik egiten zuten lan, eta ama gehienetan aitarekin batera joaten zen lanera. Basoko lanak eta karegintza. Karea zertarako erabiltzen zuten.

#### Transkripzioa

- Eta auzua zelakua zan auzua? Askó aldatu da? Uribarri auzua askó aldatu da?  
 - Uribarri auzua? Ba etxiak hustu in dira bastante, harrezkero, ointxe

lakotxia auzua. Etxiak eta, etxietan jente gehixago baiña etxe hutsak oin gehixago orduan baiño; ordutik jausittako etxiak be badagoz, Erosteji Haundixa bat, [...] Etxebarri beste bat, Soraluze beste bat.

- Alaba: etxian egon itten zan jentia, eta oin, ba, danak kanpora faten dirata, aitton-amonak bakarrik etxian.

- Aittak baserrixan biharra itten zeban?

- Bai, bai, baserrixan, gure aitta sekula ez zan ibilli beste lekutan lanian. Baserrixan.

- Eta ze itten zeban aittak kanpuan biharra eta amak etxekua?

- Amak kanpuan askotan, amak aitten ondorian basuan ta soruan ta, danian. Geu be bai, harein ondorien.

- Esan dozu sei anai-arreba ziñaziela, ezta? Zeu gaztena?

- Ez, ni erdikua, ni hirugarrena. Bi zaharrauak eta hiru gaztiauak.

- Zela ziñain, zenbat mutil eta zenbat neska?

- Lau neska eta bi mutil.

- Orduan umetatik gurasuei lagundu bihar biharrian, ezta?

- Bai.

- Ta basuan ta ze lan, ze bihar itten zenduen?

- Basuan, ba, egurrak ebagi eta ekarri ta pillatu ta holakotxiak.

- Alaba: idak ebagi ta.

- Bai, idak ebagi ta.

- Alaba: otak be bai, karobixa erreteko ta.

- Baitta, karobixa erreteko otak ebagi ta.

- Bai? Bazeukatzuein karobixa? Karobixa etxe onduan zeukatzuein?

- Bai, etxe onduan geukan.

- Alaba: neu be ibillitta nao karobixa erreten.

- Eta zelan itten zan karia?

- Karobixa erreten? Lan asko. Itten zan harrixa ekarri eta harrixakin kargau, karobixa kargaitten be ez eben edozeiñek kargaitten karobixa, e? Gure aittak bai, gure aittak karobi asko kargau eben, etxian be bai eta etxetik kanpo be bai. Hari arkua hartu bihar izaten xakuan, gero bete harrixakin, eta gero sua emun eta ha harrixa karia in arte segiru emuten jardun bihar, gau ta egun. Zortzi bat egun bihar izaten zien karobixa erreten eta ha erreteko otak ebagi ta, pillatu ta, karriu ta, in bihar izaten zien.

- Eta gero zertarako erabiltzen zan karia?

- Karia? Karia gauza askotarako, etxia zuriketako be bai, morterua eitteko be bai, oin porlana moduan orduan kariaz itten zien eta holaxe gauza askotarako.

- Sororako be bai, ezta?

- Sororako be bai, soruan zabaldu be.

- Eta arrautzak gordeteko itten zeuein karia-letxadia, arrautzak gordeteko?

- Arrautzak? Baitta, arrautzak gordeteko be bai. Arrautzak be gorde izan gittuan.

- Letxadia indda, ezta?

- Letxadia in ta letxadata sartuta.

- Hantxe.

- Zenbat aldiz itten zeuein karobixa urtian?

- Karobixa? Ba urtian hiru bat aldiz edo holaxe.

- Hiru?

- Bai. Beti igual ez, e? Batzuetan gehixuao, beste batzutan gutxitxuau, ahal gebenian ahal geben beste.

- Eta ikatzik eitten zan inguruetan?

- Ikatzak? Geuk ez geben sekula be in ikatzik. Hor Olabarrin egon nintzan lekuan bai, han itten zittuein ikatzak.

## 7.15. Lehengo etxe zaharretako tresneriak

- **Hizlaria(k):** Kortabarria Urrutia, Rosario
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-045/013
- **Iraupena:** 0:04:20. **Hasi:** 00:36:20. **Bukatu:** 00:40:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Bera umea zen garaiko etxe zaharretako sukaldia, sua, logelak eta abarrak nolakoak ziren. Ehunezko izara gogorak. Arropa, abarka eta alpargatak. Zapatak hiletetarako eta Corpus Egunetarako erabiltzen zituzten.

### Transkripzioa

- Eta zelakua zan zu umia ziñanian zeure baserrixa, baserrixa zelakua zan?
- Gure baserrixa? Neu jaixo nintzana? Ba, baserri zahar-zahar bat da hori. Zahar bat, oin arreglauta dakuei, etxia ederra indda dakuei baiña, orduan etxe zahar bat.
- Eta zelan zeuan, sukaldia eta zelakuak ziran?
- Sukaldia? Ba, sukaldia bastante ona euen, harlosia sukaldian, soruan harri-losia, harri-losa onak gaiñera egozen, Mikelete Etxe ondolik eta ekarrittako harrixak ziela esaten euen, bai.
- Eta sua?
- Sua, beheko sua.
- Ekonomikarik ez?
- Ez, ez ekonomikia ez, ekonomikia gero ifiñi zan. Honeik onddiok barrixak dira ekonomikok eta.
- Ni neuk betik ezagutu izan dot.
- Bai, zuk ezagutuko zebeñ baiña guk ez.
- Eta beheko sua ze zegoen, txoko baten, ezkiñan?
- Bai, batzuk erdixan be bai, batzuk erdixan eukitten euein, sukaldian erdixan sua.
- Bai, hori be entzunda nekan. Sukalde erdixan sua batzutan.
- Nik ikusitta dakot hori, baiña Euskal Herrittik kanpo. Burgosen eta hola.
- Ba lehenago, ni akordaitten naiz Antzuelasen be euki euen sua erdixan dala.
- Joño, han Aurreko Mendixen, e?
- Bai, Antzuelas jakingo dozu, ba, nun dauen?
- Bai, bai.
- Antzuelas etxietan edo Antzuelan?
- Antzuelasen, Antzuelasen.
- Idiazabaldik gora fanda.
- Bai.
- Eta gero kuartuak eta?
- Ba kuartuak eta be ahal dan modukuak.
- Eta ohiak?
- Ohiak be bai, ohiak oingo antzerakuak, oin beste lujokin ez baiña ohiak be, ba, ohiak.
- Koltxoia eta zelakua izaten zan? Ardi laniakin, edo?
- Bai, ardi uliakin inddakuak koltxoiak.
- Eta jergoiak? Jergoiak muelliakin, ezta? Holakotxe muelliakin.
- Alaba: azpizan arto-maskalakin [...] indda.

- Baiña artian be gustora faten giñan ohera, gustora faten giñan artian be.
- Kantsauta.
- Bai horixe.
- Eta izarak liñozkuak esan dogu lehen, izaten ziran.
- Izarak ehunezkuak.
- Ehunezkuak. Eta ze izaten ziran, gogorak ezta?
- Haik bakarrik be horrenbaten egoten zien zutik.
- Nik probauta dakot liñozko izarak eta dira, humedadia edo, oso gogorak, ez dira nere gustokuak.
- Bai, gogorak. Gustokuakin [...] egoteko, haik gogorak ziran ta. Haik hola indda hazka itten euein.
- Eurak hazka in, ezta? Eta orduan ez zan gaur egunian beste erropa eta halakuak.
- Ez, ez, orduan ez euen horrenbeste erroparik, orduan dauena jantzi eta biaje, ez zan egoten pentsaitten ze jantziko ete doten.
- Dauena. Eta oiñetakuak?
- Oiñetakuak, abarkak, eta astegunetan alpargatak, eta domeketan be bai alpargatak, eta zapatak entierretarako ta, holakoxetan bakarrik. Corpus Egunerako ta.
- Kalera fateko.
- Bai.

#### 7.16. Gaztak egin eta saldu

- **Hizlaria(k):** Kortabarria Urrutia, Rosario
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-045/015
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:46:25. **Bukatu:** 00:49:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**
  - Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza
  - Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- **Laburpena:** Ardi-zainketara basora mutilak joaten ziren. Gazta aitak eta amak egiten zuten eskuz, prentsarik gabe. Kalera eramaten zuten saltzera gazta, plazara.

#### Transkripzioa

- Eta lehen esan dozu ardizain eta egon bihar izan ziñaziela, mendixan?
- Ez, etxe inguruan, gu etxe inguruan. Mendira be fan bihar zanian mutikuak faten ziren, mutikuok edo, aitta edo faten zan. Gu etxe inguruan.
- Zenbateko artaldia?
- Artaldia? Haundixa, artaldia esaten dozu, ezta? Ba berrogei bat edo, berrogeta hamar edo; ez behintzet hola ehundaka ta ardirak eta, ez. Baiña oso gutxi be ez gittun eukitten, oin gutxiago eukitten dou.
- Biharrik be ez hainbeste oin.
- Ez, biharrik be ez. Orduan baiño zainketako lekuak eta hobeto ifiñitta dakou oin, zerradurak eta formal ifiñitta, baiña orduan baiño ardi gutxiao dakou oin.
- Ta esan dozu lehen gaztaia be itten zenduela, ezta?.
- Baitta gaztaia be.
- Zeiñek itten zeban, amak?
- Gaztaia? Bai, jeneralian amak itten eben, aittak be bai batzuetan.

- Eta zelan, zelan eitten zeban?
- Gaztaia? Ba ointxe itten dan letxe: gatzeixa emun esniari, gogorketan zanian batiu dana, eta gero hola eskuakin batu mamiñori eta gero bota gaztanontzira, eta estutu fuerte, eta etara eragin dakon gazurok eta gaztaia.
- Gero prentsan ifintten zeuen?
- Ez, prentsarik ez geukan guk, guk eskuaz zertuta bakarrik itten geben. Baiña eskuakin be ondo estuketan da, haxe denpora gehixao ta danak bihar baiña. Gero keia emun ta.
- Nik mutikotan eukitten neben, mutikotan nere lana izaten zan pago abar berdiak keia itteko ekarri.
- Keia itteko, keia itteko ekarri bihar.
- Holakotxe aixkoratxua izten nostain, "Aiba mutikua, ekarri egurra keia itteko".
- Pago zezpalak eta izaten zien onenak, gaztaiñazkuak kee baltzaua botaten euela ta, haik kolore txarra emuten otsailla ta, pagua ekarten ibiltten giñan gu be.
- Alaba: arto kaskarak eta.
- Bai.

### 7.17. Azoka kontuak

- **Hizlaria(k)**: Kortabarria Urrutia, Rosario
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-045/016
- **Iraupena**: 0:02:28. **Hasi**: 00:49:35. **Bukatu**: 00:52:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena**: Bera ere joaten zen gazta saltzera, postua ordainduta. Beste herri batzuetatik ere etortzen ziren saltzaileak, "Kiputz aldetik" ere. Erosleak ere ugari izaten ziren.

#### Transkripzioa

- Eta gero saldu kalera gaztaiak?
- Bai.
- Plazan egoten ziñazien edo bezeruak eukitzen zenduezen?
- Bezeruak be eukitten gittuan baiña plazan be saltzen gittuan.
- Ta zein faten zan, kalera saltzera?
- Neu be bai.
- Zu be bai. Eta plazan puestua pagau itten zan?
- Bai, gizon bat ibiltten zan batzen, plazan egotiena baiña huskerixia pagaitten zan.
- Ta plazan jente asko egoten zan saltzen?
- Bai, bastante jente egoten zan, bai.
- Ze egoten zien, herriko baserritarrak bakarrik ala beste herri batzuetak be bai?
- Beste herri batzuetak be etorten zien batzuk, Mondrauetik eta hor zeetik be bai, kiputz aldetik sagarra saltzera eta asko etorten zien.
- Legazpittik eta?
- Bai, sagarra saltzera eta asko etorten zien, Aztiri eta horreittatik, alde horreittatik.



- Ta erosten jente asko?  
- Erosten be ba bastante jente, erosten be. Orduen be jentia, jente asko bizi zan, e? Eta batzun batzuk fan bihar plazara edo nunbaittera.

### 7.18. Joskin ikasten etxean

- **Hizlaria(k)**: Madina Anduaga, Baxili
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-046/020
- **Iraupena**: 0:04:13. **Hasi**: 00:45:47. **Bukatu**: 00:50:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena**: Joskin ikasten hasi zeneko kontuak. Lihogintzako (liñugintzako) kontuak.

#### Transkripzioa

- Orduan, eskolan gauza asko ikasi zendun zuk? Argixa ziñan.  
- Nik gauza asko eta gehixago ikasteko goguakin egoten nintzan betik, eskolan oso... Eta gero josten, amak neri —berak goruetan itten eben, baiña— amak neri bastidoria erosi nontan, bordaitten itteko. Ez nontan erosi goroik, nik goruetan ez neben ikasi, baiña amak karretako harixa, [...] harixa itten eben. Etxian liñua batzen geben lehenao, ta haren pasadizua be luzia zan, ene! Hango harikaria eta hango eztakit nor ta badakit... zenbat traste!  
- Etxian ereitten zenduen liñua?  
- Bai, bai, hemen ereitten geben linua.  
- Zelakua izaten zan liñua?  
- Ene! Liñua? Ba gero hola gauza bateaz tranga, hor, bakaillaua ebateko ibiltten daue ba dendatan? Antzerako gauza bat zan, haundixaua, ba hola horrekin itten zebe bigundu. Ta gero bestia [arrastillua], harekin azala kendu. Nik goguan dakot horrek eukan prozesu bat, billurgarrixa, baiña gure amak, bueno, hanka bat itten xako, piezia, piezak dako amak hola einddakuak piezak; eta bat dako latzaua, hori [karraskia] esaten xako hori [gaiñekua]. Bueno, baiña hori be akaso mahai gaiñetan ipintteko ta... Bihar bada aprezio ona euko leke, eta gero bestiak, ba leunaguak, eta gero ba ezkondu bihar dian danairi dozenaerdiña halako izara, amak berak jositta ezkiña guztiok eta bueno, bueno.  
- Ehuna-eta bertan itten zeuein?  
- Eta gero, klaro, orduan be baeozen telak erosteko, baiña arriak eta be gero gaiñera orduan burdixan ta eruanda, danen aurrekaldian atara bihar ta, eztakitzu? Honenbeste izara ta hainbeste ez dakit zer ta hainbeste badakit nor ta horrek eruaten eben, ba, gauzak ondo indda eruatia, momentu hartan. Nahiz ta gero izan ez hain inportantia, horrekin lo ittia, nik eztot behintzet holakuakin lo itten, ez, ez, ez...  
- Nik behin probau dot, eta...  
- Zenbat eta kaskalauan gurao dot, zeatik mantatxo bat be badakot bihar dotenian ifintteko, ezta? Orduan, ba, ohia puxkatxo bat berotu eta gero mantia kentzen xatzu eta sartzen naiz ogera eta ederki asko egoten naiz. Ederki asko.  
- Horreik ze zian, lakarrak ezta? Gogorrak.  
- Gogorrak horreik, bai, baiña bestiak amak indda dakonak, horreik bigunak

dia, horreik dia bigunak, eta asko repartiu eben amak berak, hola inddako izara horreik, asko, zera, baikotzari emuten eben dozenaerdi halako, gero dozenaerdixen lekuan ba bost haundixauak, baiña allau ezindda zerik ez, ondo manejaiteko, haundixauak itten ittuan, eta halaxe ba. Ze ingo dozu, ba?

- Ta liñuan loria ze izaten zan, urdiña edo?

- Bueno, liñua da hola, haritxo baten modukua, berdia izatia, hola behetik dator, haritxo baten modukua da, eta gero hori, ba, [arrastilluak] hori azala kentzen xao horri. Eta gero beraketan euki eztakit nun, pozuren baten beraketan, nere anaiak eruaten euen. Horrek dakon lana iñork ez leke hartuko gaur ezta, ezta... ezeatik be ez!

- Gaur dana makiñiakin ta...

- Eta gero, gaiñera, orduan dana atxurrakin asko lan gehixao itten zan, eta gu pioneruak giñan zerbait urteten ebenian barrixa, segidan erosten euen, segidan erosten geben sororako onena, ezta? Baiña artian be, ba, artian be lana in bihar.

## 7.19. Soroko lanak

- **Hizlaria(k)**: Madina Anduaga, Baxili
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-046/022
- **Iraupena**: 0:02:19. **Hasi**: 00:50:13. **Bukatu**: 00:52:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- **Laburpena**: Erremolatxa hazia, arbia eta artoa nola hazten zuten. Amerikarrek egiten dituzten engainuak artale "luze-luze" horiekin.

### Transkripzioa

- Gero baten erein geben erromalatxa hazixa, hemen Txopeko parian, hor Zabandon edo horreik erromalatxakin, horreik holako gauzakin lana, horreik karrerakuak zien, Basilio eta horreik, eta erromalatxa hazixa izugarrixa in xakun, garbantzua lakotxe alia, ederra; hurringo urtien erein euein lau aldiz gehixao, baiña tokau zan zakua [...] pixaittia, eskerrak horri, bestela, bueno, bueltaka hari hazixa kentzeia izaten zan zailla, oso zailla, erremolatxa hazixa da gogaikarri parebaia.

- Zer gehixao eukitzen zenduen, zer gehixao ereitten zenduen?

- Arbixak, arbixak be bai, hori be nehikua gogaikarrixa zan, ereitten zeben, leheningo potoluen bastante, gero batzuk atara, gero lau itxi, lau, gero bi itxi, azkenian bi itxitta.

- Baiña hazittarako.

- Arbixa gero jateko, arbi-ondo, bai, baiña arbi-ondo batzuk itten zien, hau baiño arbi-ondo haundixauak, bueno, ikaragarriak itten zien, ikaragarriak. Eta, ba, horreik danok baikotza bere epokatan: udabarrizan artua ereitten zan, San Isidro inguruan, eta gero artuak be, hemen artua itten zan izugarrixa, onak itten zien artuak, arto klase ona geukan, biribilla, halako artorik sekula ez jakon amari gustaitten artorik kanbixaitterik, oso klase ona. Oin arto luze batzuk ikusten dittut, luze-luziak arta-aliak, eta neri eskaxak pentsaitten xat horreik.

- Nik ez dakit onak edo txarrak dien, baiña hemenguak ez dira. Hemengua borobilla da.

- Bai, hobia da, horreik Ameriketara be holakua... Klaro, beste gauza bat be pasaiten da: Ameriketara botaten xau zurrutu arte zeuri, hautsori, hona bialketara daue eta gero "label" hemen. Horrenbeste engaiñau bihar gaue horreatio, "vamos, vamos".

## 7.20. Laborantza; ongarriak

- **Hizlaria(k):** Madina Anduaga, Baxili
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-046/023
- **Iraupena:** 0:03:48. **Hasi:** 00:52:32. **Bukatu:** 00:56:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- **Laburpena:** Lurra landu eta zaintzeko lanak, gari-soroetan ere bai. Satsa eta karea.

### Transkripzioa

- Lehen zer erabiltzen zan lurra ontzeko?  
- Hori bolda haundi bat, galanta, eta harekin lur danak zertu, gero atxurtu, bueno, zenbat lan emuten daben lurrak.  
- Eta abonua?  
- Eta gero zihar-beharrik eta, nere amak zihar-beharrei eta zer gorrotua, baiña haundixa, eta jakiña, horreik zihar-beharrik eta danak hola garbi eukittia, ba, ez zan izaten erreza. Garittan, berriz, urteten euen kardotxuak eta bestetxuak eta hasten ziñan eta harik eta garixak ebagi arte han zeukan tareia, ha betik garbi ebalteko, garixa garbi, eta behin goguan dakot, itten eben eurixa edo lanbro antza edo, eta hurringo eguzkixa berua, eta garixak batzuk lotu barik, erne soruan dana, gari pillak soruan erne.  
- Haik ez daue urun asko emungo ya.  
- Gari-urte haundixa zan ta artian nehiko gari euki geben, baiña soruan jausi zan mordua, ta gero ha etaraten ta jentia atxurrakin, in ebenak hak irabazi eben, atxurrakin hobeto kentzen zan, bai, baiña ataraten, ba, ezin zan burutu.  
- Eta ze abonua klase ebaltzen zeuein? Soruetan ze abonua klase, sits edo karia edo ze botaten zotsain?  
- Ez dakit ba, bueno, abonua ba sitsa, eta guk Aloñatik be ekarten geben, etxabolak geuken hor ta ardi sitsa, hori ona izaten zan, garbixa eta ona, gari artian ta hola pittin bat botateko, baiña leku batzutan bapebe ezin bota izaten geben bestela haundixegixa hasten zan ta, haundixegixa, [...] haundixegixa.  
- Karerik edo?  
- Karia be, azkenengua karobi bat akordaitten naiz erreten, argixa bertan ifiñitta ibilli giñan karobixa erreten. Hor goikuak Urzelaikuak be lagundu oskuein, gero geuk eurari be bai, haik be baeukein karobixa, hor dago goiko zerien, oin dago ganaun eta zerbait jausi ez daixen beteta edo zerbaitzuk botata dago barrura, ezta? Ez daixen han supittuan sartu. Baiña ha karobixa erreten tremendak in leheningo harako zerok [...], batu ezindda, otok ta abarrok eta danak erreten euen, eta gero berriz hiru-lau egunian han hari sartu ta sartu gau ta egun, sorua gertateko usaitten geben guk hori, sorua gertateko, eta gero etxia zuriketako...

- Hau ez da letxadia.  
 - Hau pintturia da, hau pintturia da, bai, in oskun hemen igeltseruak, hil zan gaiñera bera, ha ze penia itxi nostan Bixente Bizkaino, hori kaleko igeltserua zan. Bueno, harek ze lan in oskun guri! Ta pinttauta be orduantxe ifiñi zan hau pinttauta, eta ittoa be pinttauta handikaldia.  
 - Ittoa be?  
 - Lehenako ganauen ittoa be dana pinttau eben, ta zorua dana barrixa bota. Ona euen, baiña artian be barrixa bota.  
 - Ittoientzako karia ez da hoba? Karia ez da hobia ittoian?  
 - Bai, baiña pinttoriakin in euen, pinttoriakin in euen. Eta betik, hobeto geratu zan hala, lehenago ganauak eukittako lekua.

## 7.21. Ardi gutxi eta ganadurik ez jada

- **Hizlaria(k)**: Madina Anduaga, Baxili
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-046/024
- **Iraupena**: 0:02:44. **Hasi**: 00:56:20. **Bukatu**: 00:59:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
 Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena**: Orain ganadu gutxiagorekin, ardi-txabola ere elkarte bihurtuta dute. Etxola inguruan fraidea zulora joan zenekoa.

### Transkripzioa

- Oin bapebe ganaurik badakotzue?  
 - Bakarra.  
 - Etxerako esnia?  
 - Behi bat dakogu. Ez, ez dogu sekula jaizten. Ez dogu bapebe jaizten, "por libre" hor ibiltten da. Esnia bere txahalak eraten xao, txahala euki ebenian, baiña oin ez dako txahalik eta behixa galanta hor dago, ha ze txuletak euko dittun! Ha ze txuletak!  
 - Lehenau ganau asko zekazuen?  
 - Dozena bat inguru.  
 - A, esan dozu, bai, eta ardixak?  
 - Ardixak be lehenago larogei edo larogeittik gora, baiña oin berrogei bat billots edo ardi edo hola badagoz. Gehittu itten dia, bi billots itten dittue ta kendu itten dittue baiña atzera be gehittu, baiña ardixak oso gutxi balixo dau saltzeko, oso gutxi.  
 - Esan dozu lehen Aloñan etxabolia zekazuela.  
 - Bai, bai, hori lehenago pastoria faten zan hemendik hara eta han jaitzitta ekarten eben.  
 - Baiña pastoria ze, etxekua edo?  
 - Bai, etxekua.  
 - Zure anaia?  
 - Bai, baiña oin dakogu ba ifiñitta bestela etxabolia, berogarrixakin eta danakin, beheko sua.  
 - Alaba: Gomistegi onduan.  
 - Aloña entradan bertan.  
 - Zer dakotzue, refujixo modura edo, txale edo?  
 - Alaba: Bai, etxabola, egoteko moduan, soziedade modura edo hola, bai.  
 - Haundixa da, etxabola luzia da, ta ondo ifiñitta dakoi, bai, ni ez naiz fan

aspaldixan, gero gaiñera Oñatiko Gorgomendin mezia emun bihar ebela ta abaria be, zera, beheko zulora jausi zan han, ta nere artian, ba, ez dago hor, horreik leku seguruak.

- Ze abare jausi zan?

- Abaria? Zein zan, obispua edo zein zan?

- Alaba: Ez dakit, ni ez naiz akordaitten, ama, historixa hori.

- Baiña noizko kontua da?

- Alaba: Hutsik euenian, igual? Oin dala 50 urteko kontua.

- Ez, ez, urte gutxi da hori pasau zala.

- Alaba: Eta nora jausi zan, ba?

- Ba jausi zan Gomistegi baiño gorago dauen zulo batera, ta han modu askotakuak dagoz zuluak, holako gainbehera batera, baiña beste bat dago han, Gomistegikuak baten oillua eta bestian txarrixa.

- Leze-zulua?

- Ez, potolo haundi bat. Ta hara sartu kotxia, itxuria pasau xakon. Eta hori dana oinndiok ez da urte asko, ez da urte asko, ez.

## 7.22. Banastaginen ur putzuak

- **Hizlaria(k)**: Jauregialtzo Arriaran, Migel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-051/005
- **Iraupena**: 0:02:24. **Hasi**: 00:08:49. **Bukatu**: 00:11:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena**: Bere aita banastagina zen eta egurra ur putzuetan kontserbatzen zuen udara arte. Ur putzuak alanbrez inguratuta egoten ziren.

### Transkripzioa

- Errekaldeko errekiakin akordaitten zara?

- Baita, ba horixe, ba holaxe, holaxe, holaxe estilo hortaraxe.

- Errekaldeko errekiak? Gure aitta zana, banastagiña zan ha, ta banastak kontserbaitteko materiala euki bihar izaten xuein egur potzuak, egur potzuak, eta egurra ekarten xuein urte danerako, ta urte danerako izaten zuan ba hamar bat tonelada edo hola; ta horreik egur horreik kontserbaitteko, egurrak pozuan urakin egoten txiuzan, hemen Mendiko Kalian zauzaken danak banastagiñak, hau erreka ezkiñiau, hemen Txapelen etxia zuan atzenengua, Txapelen etxetik Ultzegiñenen etxe arte bixan bittartian, egur pozuak onak indda, e? Pizinak izango bazien moduko urak, pozuak, enda ba zortzi lagun pozutatik egoten zuan ur pillia. Han Mediko Presa aldetik ekarritta ura. Ta hortxe kontserbaitten txuzan egurrak. Neguan ekarri hointxe garai hontan ekarri bai egurrak, enda sartzen txiuzan udabarrizan, febrero-marzo inguruan sartzen txuzan pozuan egurrak eta gero udan bihar zanian, hareik ez xuzan egoten zera, ta hareik egoten txiuzan bigun-bigunak egurrak, lana itteko.

- Ur pozuok eukitten zittuein errekatik kanpo?

- Errekatik kanpora baiña pozua indda benetakua, e? Gure pozuak euko xuan ba, edozein modutan be, hoge bat metro kuadruak bai ura.

- Formala.

- Formala, pozu formala, pizinatxo bat.

- Eta behera?  
- Ta behera ba bi metro pasa.  
- Akzidenterik ez zan egoten?  
- Alanbriakin zarrauta egoten txiuzan, alanbriakin zarrauta. Eta ezkiñatik menditarren sendia egoten zuan hala be, pasua, pasua egoten zuan, mutikuak be bai, mutikuak hor sarri, gure aittak eta hor kanpuan lana itten xuaiñian, banasta fan zera eta pozura jausitta pozutik urten ezindda sarri etaraten txuain. Hola ittotakorik eta holakorik ez.

### 7.23. Eskolatik soldadutzaraino

- **Hizlaria(k)**: Jauregialtzo Arriaran, Migel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-051/008
- **Iraupena**: 0:03:10. **Hasi**: 00:15:05. **Bukatu**: 00:18:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola  
Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak
- **Laburpena**: Eskolan Ospitalean hasi zen eta gero agustinoekin San Anton kalean jarraitu. Gero morroi joan zen Garagaltza Haundira 1936a arte. Orduan lanean hasi zen Zubillagako Altunaren forjan harik eta soldadutzara joan zen arte.

### Transkripzioa

- Baiña eskolara be fango ziñain egunen baten, ezta?  
- Eskolara gu fan gitzuan, nere anaia, gure anaia ezagutu zeuein Martin?  
- Bai horixe. Badaku haren grabaziñuak.  
- Gure Martin ni baiño hiru urte zaharraua zuan, enda lehenengo Hospittalian batera ibilli gintzuan, ta Hospittalian ni hasi nintzuan ha Santa Mariñarako, Morenoana pasau zuan.  
- Santa Mariñara?  
- Santa Mariñara, bai. Nazionalak xauzaken hor eskolak, Pipoxo eta Moreno, eta erdixan xauan musikako txarangia, Santa Mariñan, oin eskolai dirazen leku horretan. Enda han gure Martin han ze in zanian, agustiñuak, hemen honeik Benediktenetako mojak xauzaken hemen San Anton kalian xazaken, eta San Anton kaletik fan ziranian ha barrixa indda hara, horra etorri txiuzan agustiñuak, eta agustiñuak ifiñi xuein eskolak. Eta gu orduentxe hasi gintzuan agustiñuakin eskolan.  
- Milagrosenetik, edo Hospittaletik pasau ziñain agustiñotara?  
- Hospittaletik zera, bai, ta anaia Santa Mariñatik, baiña ni ez nintzuan ibilli anaiaz zerian, nazionalian ni ez nintzuan ibilli. Ta hortxe in nuan nik hiru bat urte eskolan eta gero handik fan nintzuan kria Garagaltzara. Gure anaia hamaika urte orduko, agustiñotan hiru urte in bai, eta hiru urtetan leheninguan ta bigarrenian ta hirugarrenian hiru diploma etara txuan, enda eskolarako halako gogua, ta halako zera bai eta gure aittak eta dirurik ez xakuein, eta lanerako, lana in bihar ta guk mutikuok aittari eta amari lagunketan ibiltten gintzuan, banastagiñan, eta eskolia alde batera, eta ni fan nintzuan kria hamabi urtekin Garagaltza Haundira, eta Garagaltza Haundixan egon nintzuan harik eta treintaiseisera arte egon nintzuan. Trentaiseisian gerra hasi ebenian fan nintzuan Altunenera, mutikuak

bizittuein, ta Altunanak hemen bizi txiuzan, Mendiko kalia, ta nere ondorian etorri txiuzan eta fan nintzuan Altunenera lanera.

- Zubillagara?

- Zubillagara, bizikletan, e? Faten nintzuan, egunian 16 kilometro, enda zela tijeria estanpaittera horra, zela hasi zian forjan, ni forjan hasi nintzuan. Eta nik soldau fatera orduko, 21 urtekin fatera orduko, 16 urtekin hasi bai eta forjarixa nintzuan. Forjan han Altunanian forja ze itten eben lana itten eben danak manejaitten nitxuan nik 21 urtekin. Ta soldau hiru urtian soldautzan, ta guk han ondo irabazten giñuan Altunenian, destajuan itten giñuan ta, lana ondo manejaitten giñuan.

## 7.24. Sarramendiko eskola

- **Hizlaria(k):** Kortabarria Agirre, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-053/006
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:11:54. **Bukatu:** 00:14:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Sarramendiko familia. Auzoan eskolarik ez zegoenean, euren baserrian antolatu zuten eskola. Berak izan zituen maisuak gogoratzen ditu.

## Transkripzioa

- Zenbat anai-arreba zarie?

- Gu lau, bat hil zan, gaztiena, eta beste hiru anae, bat Errekalden bizi da, bestia zerian, hor Sta. Mariña ondoko zer baten, zela esaten xako horri? Gregorio bizi dana zela da? Hantxe, zerien, Abenidako atzekaldian. Eta neu hiru anae, oin hiru anae bizi gara, bata neu zaharrena 90 urte, bestiak Bittorianok eukiko (di)ttu 87 eukiko (di)ttu marzuan eta Gregorio ha Bittorixan klinikan dau, harek dako ba 82tik hirura, eta...

- Eta umetan baserrixan lan in biharko zenduen, ezta?

- Bai, ba guk eskolan, hor gure auzua izan zan bastante oso gizon, famelixia ondo arreglau ziran alkarreaz ta han ez euen eskolarik eta ez euen eta geure etxian egoten zan leheningo eskola holako, holako apartamentutxo baten eta hantxe egon zan eskolia. Ta gero auzuak iñeben eskolia iñeben, hola edifiziotxo bat, ba politta, etxe politta, ta gero aintamientuak lagundu osten zeozer eta in ziran ba 12-14 etxien artian eskolia iñeuen ta gero ekarri euen maistrua hara, eta maistruak egoten zan astian edo hillian behin etxe baten, ha eskolatik faten zan etxietara, lo ta in eta jan ta ittera, eta han ikasi geben eta bastante ondo ikasi geben gaiñera, ta maixuak bastante ondo lagundu oskun eta etorten ziren bastante gaiñera, hemen Torre Etxebarrikuak eta Errekaldekuak faten ziren hortik hara, e?

- Lizargaratera?

- Eskola haretara, bai.

- Eskolia Lizargaraten egon zan?

- Ez, Lizargarate baño beherao, Sarramendittik aurrera fanda, hola etxe txikitxo bat, oso, barri-barrixa in zan, eta gero ba kitto, hantxe itten geben gure bizimoduori.

- Zein zan maistrua?

- Zela esango dotsut ba nik izena, lehenao fraide egondako bat zan, "Lomi" izango zan, haren izena ez esan, Lomi, Lomi, bai Lomi, ha Gregorio edo eztakit zela zan, Lomi. Eta gero ha fan zanian egon zan beste bat Bergarakua egon zan, hola ha bebeste puxkatxo baten ta gero egon zan Olabarretako bat, ha be fraidietatik urten dakua eta hola, gero hor akabo zan zeori eskoliori. Eta han baiña gu eskola hartan ibilli giñan 30 lagun edo gehixau ibiltten giñan.

## 7.25. Saltzera Bergarara eta Zumarragara

- **Hizlaria(k):** Kortabarría Agirre, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-053/011
- **Iraupena:** 0:04:23. **Hasi:** 00:24:04. **Bukatu:** 00:28:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
  - Baserría » Baserriko lanak » Errota
  - Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
  - Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
  - Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- **Laburpena:** Ganadu asko eta 80 bat ardi zituzten. Gazta Bergaran saltzen zuten eta bildotsak Zumarragan. Errekadutara astoarekin kalera joaten ziren. Artoa eta garia ehotzera errota ezberdinetara eramaten zituzten.

### Transkripzioa

- Zu umia ziñanian, ganaduak eta bazekazuezen, esan dozu ittulan lan egitten...

- Bai, gurian egoten ziren ba bost bat behi, ta bi idi ta txahalak lau edo bost bat txahal eta larogei bat ardi eta hiru-lau bat bihor, astua, ba bastante.

- Txarrixa be bai ekiko zenduen, ez?

- Txarrixa bi behintzet bai eta hola izaten zan lehen bizimodu hori, hola izaten zan.

- Ta zein ibiltzen zan artzain?

- Artzain ni ez naiz sekula ibilli, bueno han etxe inguruan zala mutikotan bai baiña bestela etorten ziran neguan hona behera, zera Berotegi, Berotegiko zera, hor etxe huts zahar bat euan han, eta hortxe egoten ziren bi hillabetian eta gero atzera gora, gero handik faten zan Arrolamendi aldera eta han esnia eta [...], hara illunkaran fan eta erosi edo hango zerok, esniok kendu ta hurringu egunian mendixan ibiltten ziran, libre ibiltten ziran.

- Orduan gaztaia be ingo zeuein.

- Bai, bai, gaztaia bai, gaztaia gero ba haik pillatxua itten zanian astokada bat hartu eta Bergarara.

- Bergarara? Zeatik ez Oñatira?

- Oñatin baiño zer gehixau euelako han, hemen Oñatin pastore asko euen eta Bergaran gutxiao eta Bergaran saldu itten ziren samurrao, samurrao ba, gurian esaten euen moduan jakinddako klientiak egoten ziren, euk(ik)o zittuein 20, 30 edo 40 gaztae ta gehixenak hango dendarixak eta erueten euen, batak hartuko otsan hamar eta bestiak zortzi eta bestiak..., holaxe.

- Eta hori, Aurreko Mendittarrak danak Bergara aldera joeria?



- Bai, askok behintzet bai eta beste batzuk baita lehenao baita, Zumarragara faten ziren. Zumarragara hortik billotsakin ta hola.

- Bai, han Legazpiko kurtzia be bertantxe dago.

- Bai, bai, Zumarragara bai, nere andrien etxekotako mutilla Zumarragara fan zan zerakin, hor Azkazubikua, fan zan Zumarragara billotsakin udabarrixan eta bueltan etorrela edurrak hil eben, itto, hil in eben, hil zan.

- Hotzak?

- Hotzak. Edur bisutsakin itto, itto in eben ha. Bai eta ...

- Ze edadekin hori?

- 18 urtekin. Eta abillian.

- Udabarrixan, e!

- Bai, bai, udabarrixan. Hara billotsak eruatera abillian hil zan ha.

- Eta zuek errekauek ittera ta, kalera etorten ziñain?

- Bai, bai, kalera, kalera, Bergara urriñago geraketan da; astuan, hartu astua ta ba kalera, eta bestela ba hamabostian behin edo, bai, hamabostian behin, hartu astua eta garixa ixotera zera, Errotabarrira, eta artua ixotera Liñazibarera, hor be ixoten euen baiña gari edo Liñazibaren arto uruna itten euen asko hobia, hori harrixen asuntuatik izan bihar dau, Liñazibaren itten euen hobia artua; eta garixa hemen hobia eta holaxe, betik holaxe in dogu, hartu astua ta aide, eta gu mutikuak, astuak jakitten eben bidiak, harek ez dako esan biharrik, mutikuak astuan etxian lotu zeori, zorruri eta astua zuzen fango zan, e? Kalera etorten zan Torretik behera astua taka-taka, Ankaluzetik hor, Naparreneko kantaletik zuzenian, zerera, hori Linazibarera zuzenian kalia pasauta. Ha ez zan ekibokaitten.

## 7.26. Odolosteak auzoan banatzen

- **Hizlaria(k)**: Etxezarreta Galdos, Bitoriano
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-054/007
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:14:40. **Bukatu**: 00:17:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Bi txerri hiltzen zituzten urtean. Ohitura zen auzoan odolosteak banatzea. Ama zen Etxe Haundikoa eta aita Murgiko Juaniko Agirrena baseritik etorri zen.

### Transkripzioa

- Txarrixak bi hiltten gittuan urtian, hori bai, baiña han be pasaitten zan beria, karreteruak zerian bokadilluan eruan hango txorixuok eta hango zerok, (...), gauzak holaxe dira.

- Eta txarrixak baiña gero zuek be babekin edo zeozer, urdai zatiren bat edo allegauko jatzuen, ezta?

- Urdaixa bai, urdaixa sobra egoten zan baiña bestiok, txorixuok eta horreik, gu baiño guapuaua zanak jateko.

- Eta txarrixa hiltzen zanian apaizari edo abadiari emuten jakon, odolostiak eta emun bihar izaten jakon?

- Odolostiak partiu be itten ziran, oseake han auzuan be bai bateri eta bestiari, partiu itten ziren.

- A, bai?

- Eta gero hori auzokuak eurak itten euein gero, hola bueltan etorten ziren. (...)

- Eta apaizari ez jakon emuten?

- E?

- Abadiari ez jakon emuten?

- Abadia? Abadiari makillia deskuidatten bazan. Abadia?

- Horreik monjok jango euein ba betibe odolostiak?

- Monjak?

- Eskolakuok.

- Monjak [...].

- Eta gurasuak bertakuak ziran? Zein zan bertakua?

- Ama.

- Ama zan bertakua?

- Ama zan bertakua, bai. Galdos apellidua.

- Eta aitta?

- Aitta zerekua, Murgiko zera, baserrixa, Juanikoarrena (Juaniko Agirrena).

- Murgikua ze etxetakua esan dozu?

- Juanikoarrena.

- Juanikoarrena.

- Aittajuna, bizi zana etxian, aittajuna amaren aitta zan? Bertakua?

- Aman aitta bai, Galdos. Bueno Galdos, bueno ba ha hil zan. Galdos hil zan "el 6 de enero" Errege egunian ze urtetan hil zan? (...)

### 7.27. Petrolio eskasia datorrenerako tresna zaharrak gordeta

- **Hizlaria(k)**: Uriarte Eizagirre, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-057/010
- **Iraupena**: 0:01:59. **Hasi**: 00:25:50. **Bukatu**: 00:27:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Gaurko ganbarak makinaz beteta daude. Petrolio eskasia garairako gordetzen ditu Mirenek uztarri eta golde zaharrak. Txoriak oso kaltegarri bihurtu dira nekazaritzarako.

#### Transkripzioa

- Horixe pasauten da ba. Ta guk, neu esaten Araotzeko etxian, kaleko etxian dauen kamaria bageuko sikiera! Eske guk hemen honen parian hasi goixenetik eta barrenera, hau kamaria dana kamaria, etxe danian kamaria dakogu kamarak, baiña hango partia dana dakogu behikuloz beteta ta. Rotrabaktoria, tratore haundixa, txikixa, segadoria, eskuzkua, tratoriaz ibilttekua, boldia, burdixa... bueno.

- Lehen horreik danak honeikin itten zirala.

- Danak honeikin itten ziran. Hori esaten dau gure Estebanek esaten dau, hori ikusi zebeñ ba atzo, horrek, ta: "Ama, uztarrixa topauten hasi biharko zara". "Bai, bai, debittuko arkan xak bat, hantxe xaok sartuta bat". "Ta hasi biharko gara behixak hezitten, zeatik hurringo petroleorik ez dauela, gasoliñarik ez dauela, hasi biharko du boldan", "Ba bolda txikixak be hantxe xazek kamaran" esan notsan, bi, barreria be bai, aria be bai. Bestiak, berriz, Zumarragako primuari, Rosarion semiari, emun nitxan haize-errotia ta bolda haundixa ta horreik trabatik kentzeiatik.

- Gari ereitten ya ez gara hasiko, baiña...  
- Bueno, garixa ereitten baldin badogu txorixendako lein dira, e? Hemen txorixak ez daue izten ezebe, ezebez. Guk hemen hor eskukada bi edo bota bai, adornurako edo hola zerien ifintteko oluak eta garixak eta hola apurtxo bat hasi ziranian mamiñan formia eta hartzen eta bizarrak eta ataraten, egun bixan danak trillau ta kitto. Baneukan neuk ereindda adornorako ifintteko ta danak trillau. Txorixak ez daue izten oin hemen, bueno!

## 7.28. Idiekin erdaraz

- **Hizlaria(k)**: Goitia Orueta, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-058/004
- **Iraupena**: 0:04:11. **Hasi**: 00:07:00. **Bukatu**: 00:11:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea  
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena**: Soldadutzan Andoaingo baserritar batengandik ikasi zuen simaurra soroan zabaltzeko era errezagoa. Idiek erdara hobeto ulertzen zutela dio Manuelek.

### Transkripzioa

- ... hor Anduaiñen soldau geontzela maniobretara etorri giñan, hamabost egunian illaran Andoaiñera. Ta gizon jator bat, han emun oskuein bazkaldu, bazkaittan han emuten oskuen Andoaiñen eta gizon jator bat, idi pare ederra, zoragarrixa, kargauta sitsakin ta ekin zan deskargaitten, ta hemen "burdikaria" esaten xako, hareik "jornadia" esaten otsain eta budikara hori hemen pilla baten botaten zan eta han bota eben sei pillatan, bai. Euskaldun mutillak arrimau giñan beana, idi ederrak, ta ño! Idi pare jatorra izango zan, ta bai biharra ere, nire moduko aitona batek. Ta gizon majua eta ikusi neben zela deskargau eben bost tokittan edo seittan. Eta hemen, esan duana, pilla baten bota, gero zabalketako neke gehixao... Mekauen diez! Ez notsan iñori ezebe esan eta hurrungo permisuaikin etorri nintzanien, orduan behixak egozen gurian, lanian ondo ekixein behixak, gorrixak, ixa idixan parian izaten zien hareik behixak. Aittak esan nontan "bixar..." Klaro, hoguei egunerako etorri nintzan ta aittak be sitsa etarateko girua euen ta sitsa etaraten ingo ete neben ta "bai". Gertu nenguen neriarri heltzeko, ta sartu nintzan eta bera fan zan sorora, ezkiñan bat han garbiketara. Fan naiz burdikariaz eta ekin naiz, deskargau dot eta ganauak tiratu (di)ttut aurrera, deskargau ta aurrera, tiratu ta aurrera, deskargau ta aurrera. Aitta begira behetik. Deskargau neben bueltia in ta hona. Sitsa gertu euen ta aguro kargau neben. Ha sasoz orduan, bueno, esnia ta opilla. Atzera aitta begira, "nun botako ete xok horrek?", [...] ta, goragotik, illaran elegante biejen sei, burdikara haundixa ahal dala kargauta ni goittik behera gertu nenguen fateko be ta, beste seirak be pare-parian. Aitta begira behetik. Eguardira arte in neben etaraten eta ez zebe ezebe esan eta gero atsaldian atzera eta etara nittun gertu egozen sitsak danak. Hurrungo egunin fan nintzan zabalketara, ta aitta ixilik euen, ez zebe ezer esan, fan naiz zabalketara sardiaz, hemen faten giñan banastiakin ta eskutxuakin, entendiuten dozu? Eta lau lagun fan ezkerre lauk launena itten

daue baiña bakarrik bazoiaz bakarrik erakutsi bihar dozu lana eta fan nintzan sardiakin. Aitta begira. Aurreko egunian etara nittun danak eguardirako bazkatterako danak akabota neukan sardaz, danak. "Mekauen, nuk ikusi dok hau hola sitsa botaten?", "Nun? Etxian egonda ez dira ikusten, Anduaiñera hola ta hola etorri giñen hamabost egunian eta baserritar jator bat, idixak be bai jatorrak eta han in gotsan pregunta batzuk eta aguro biajiaz atzera be ta "joe, azkar kargatzen dezu" ta "bai, bi seme sasoi ederrekuak hantxe dagoz kargatzeko ta", hain aguro geu ikaratuta eta gero ha nola ikusi neben eta hamen zerbait aurreraketan ez badogu, oin kuadrillia haundixa gaoz, baiña gutxiago jarten garienian eta zer? Pixka bat geuk etaraten ez badogu aurrera bidia?" Handik, e? Hasieria. Eta gero beste lan batzuk be gero formau zien: behixak kendu eta idixak, lanerako idixak dira ez behixak, onak izanda be behixak behixak dira, baiña idixak lanerako dozu bakarrik, handik ez dakozu txahalik ezta esnerik, ha kontua in bihar dozu lanerako, baiña lanerako idixa ona da idi ona bada, espeziela, idi onakin, idi pare onaz ugezaba pazientziakua bada, pazientziako ugezaba baldin bada, idixari irakutsiko xao berba itten ez, beste danak entendiuko (di)ttu idixak. Eta enjeneral idixari euskeraz bai, baiña erderaz idixak hobeto berak hartzen dau. Bai, bai, bai, erderaz, "vuelta atras", "vuelta", bittara ingo xatzu, baiña erderaz. Txakur konkurso baten ikusitta nago euskaldun pastoria txakurrari dana erderaz aginddu otsana, eta zerbaitteatik aginddu otsan. Ta hola, ba, idixa langille ona.

### 7.29. Afizio handiko gizona

- **Hizlaria(k):** Goitia Orueta, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-058/005
- **Iraupena:** 0:03:34. **Hasi:** 00:11:11. **Bukatu:** 00:14:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena:** Traktorea izan zen aurrerapen ikaragarria. Ganadu zaintzen ere asmatu behar izan zituen lana errezteko bideak. 300 ardi eta 20 ganadu ukuiluan izatera iritsi zen. Osasuna eta zaletasuna dira oinarritzkoak edozein lanetarako.

### Transkripzioa

- Eta hola, ba, idixa langille ona, eta gero sortu zien tratoriak, fuera, dana adelantu gisa, tratoria idixak fuera ta tratoria. Esaten da idixak onak dia, baiña ez dago tratoria lako idirik. Horrek bota ezker gasoilla, bere alimentua, eta idixari jaten emutera goizian goiz jaiki bihar, ta bestiari jaikitten zarien momentuan bota ta "ya estoy listo, arranque! Brau, alante"! Ez da hori lako adelanto, gabitz adelantuen, adelantuen e? Eta, ba, bueno, gero umiak eskolia, zaharrak geruago zaharrago, andria ta bixok bata bestiarri lagun indda, ez oingo modara, e? Ta partiu ta hola porai nada, han baikotzak bera apoiautera fuerte, ta eukitta nago gehixen euki duanian ixa hirurehun bat ardi eta beste hogei bat ganau ittuan. Ta bixok, e!

- Hirurehun ardi?

- Bai, 281 egon ziren gehixen euki nebena ha izan zan, eta beste hogei bat ganau ittuan. Eta umiak eskolan, ta zaharrak goizian amak kafesnia uhera

edo, bueno, jaikitten zien gerotxuago ta hola behin edade batera aillegau zianian. Eta lehenago ganauak aurrerako ganaua barrixa etara bihar dozu umiak famelixan letxe barrixak sortu bihar daue, ta orduan eukitten zien behittarako zuk izten zeбен behi txahal bat ixa urtia in arte ittuan, ta harek zuk jareten baxatzu amagaz bere esnia eran eta harek lanik ez du behintzet emuten. Hor be hor neu sartu nintzan hemen leheningo hemen hori itten, lana ebitaitiatik, e? Eta jare, hori txahal txikiña Manuelek behixakin txahal txikiña dabil, bi urruza zien eta ba, joiño, hau ta hau, bai, bi gauza ikusten txuat, neri lana gutxittu ta eurok bizitten ikasi, txikitik ikasi bihar dou, larran txikitik bizimodua itten, eurok ikasi eta gero hemen jentia danak saillian ekin zien jareten txikittik. Hori zan apur bat topaitten ruta bat nundik fan bihar dogun onduen. Hortik hasi giñan puxka bat, baiña lehen esan duana, jentia nehikua danian, ba, ez zara apuraitten, inddarra dago itxien, lana gogorra, baiña dominau itten da. Baiña geraketan bazara bi lagun, ni ardixakin, ardi kuadrilla bateaz honen etxien, neguen, e? Edur denporan Aratz Urrutin, eta hemen beste kuadrilla bat egoten zan, baiña horreik ya hainbeste kaso in barik, eta gero behi kuadrillia, bi ta bixok partiuta. Ta handik ni asko etorten nintzan gaberako, hona, ba, gaberako, ba, hau "en general" orduentxe ixa akabuan ganauari botaten, eta goizian ba arbixa edo leheningo bota neuk eta hara faten nintzan, han arduria dago ta hara. Tren hortan gogorra bizimodua eta ez neben gura semerik nere lekuan, leheningo bihar dozu fuertia izan osasunez, ez hotzak billurtu ta ez justuixak billurtu, hori bihar dozu. Eta gero, bestetik, bihar dozu printzipalena da afeziñua, estudixorako ona izango da hori, afeziñua eukittia, nik esango neuke lan danetarako afeziñua bihar dala, ta afeziñua ta gogua. Eta, bueno, ba, horreik ez xakun falta ta jaungoikuari eskerrak lutzau geben, ba, gerra baten moduen, gogorra bizimodua, gogorra, ta frente.

### 7.30. Gernetan jaioa

- **Hizlaria(k):** Goitia Orueta, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-058/016
- **Iraupena:** 0:03:51. **Hasi:** 00:47:28. **Bukatu:** 00:51:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** 1922ko abuztuan jaio zen, baina ez daki ziur zein egunetan. Beharbada arreba eta bien urtebetetzea egun baten ospatzeagatik erregistratu zuten arrebaren egun berean. Bere aita ere Gernetakoa zen; ama, berriz, Errastikoatik etorri zen. Uxarte auzunea hustuz doa.

#### Transkripzioa

- Ze... beste ruta bat jarri, nundik tiratu bihar duan!
- Ondo, ondo diharduzu.
- Ondo dihardut?
- Bai, larogei urte esan dozu, ezta? Hogeita bikua orduan? "Veintidós"?
- "El cuarenta y tres".
- Baiña...
- Emaztea: Jaixo ziñan urtia izango da larogeita sei urte gutxiago... ba

"veintidós" izango da.

- Ba "veintidósekua".

- Eta ze egunekua?

- "Once de agosto". Gero batzuk esaten daue "nueve de agostokua" naizela be, ez dakit. Orduan juzgaura jun bihar izaten zan, [...] bi egun gutxiago itten dot orduan, gaztiaua, bi egun gaztiaua.

- Alaba: Badakitzu zer? Beste arreba bat zaharrena eukan "once de agostuan" jaixua, arreba zaharrena, eta gero oin ez dakigu bederatzian jaixo zan; eta gurasuak bixok egun baten ittiatik 11 ifiñi euen juzgauan edo zeatik ifiñi euen hori.

- Bai, bixok egun baten zelebrauten geben, harek felizitauten ninddun behetik, ha kalia bizi zan eta bixok egun baten. Eta hau lehen be esan dot, examiña in bihar da hemen ondo juteko, igual aitta-amak ingo euen examiña, zelebraziñua be kosta itten da eta bixena batera indda gastu gutxiago. Horreik danok mixeritik estudiantzen dira, mixeritik, e? Bestela zu bazabitz dana errez, dana errez, handik ez dozu bururik kantsaitten, ez zara sartzen, baiña ikusten dozunian hemen aillegauten zariela, hemen "ojo al cristo", eta pentsau nundik fan edo zela fan. Eta holaxe.

- Zenbat anai-arreba ziñazien?

- Zazpi, zazpi giñan.

- Eta gurasuak bertakuak ziran?

- Bai, aitta hemengua semez, eta ama hor gertukua, elizatik goratxuago, baserri Errastikua, horkua ama. Amandria be, nere amana be, amandria be, elizatik goratxuago Borjena. Borjenekua, bai.

- Uxartetik etorritakuak zarai?

- Bai, ama Uxartekua, Errastikua, eta amandria be bai, amandria be Uxartekua, Borjena.

- Txomeena be Uxarte da oinndiok, ezta?

- Bai. Ba gastauaz doiaz, Aixkorbe ixa gastau da...

- Horixe esan dosku Mirenek, gauza iguala.

- Txomeena eta Garaikua, Uxabio, ba Euxebio kalia bizi zan eta hona etorri zan eta hor jarraiketana dau, anaia ta egon zanian, hil zan anaia, ha residentziara fan zan eta beori baserrixan jarri zan hor, ta...

- Errastikuan ez dau iñor?

- Errastikuan be ez, ama egon da denporaletxon baten uste dot, baiña oin uste dot kalera fanda egongo dala, Rikardo zanen andria.

- Karnetian urtebete gaztiagua zara!

- Bueno! Hori be zeozer da. Urtebete ume?

- Bai.

- Hori askotxo da.

- Alaba: 22 ifiñi biharrian 23 ifintten dau.

- Akaso holaxe izango da-ta.

- Alaba: Oin bi urte eginndakua da. Oin bi urte edo inddakua da, itxuria konfusiñoren bat da.

- Registruan zela dauen hala ifiñiko daue.

- Numerua kanbixau daue.

- Aber urte bat gaztiagua zaran.

- Alaba: Ez, zeatik kartillan amak esaten dau 22 dakola.

### 7.31. Txabolak su hartu zuenekoa

- **Hizlaria(k)**: Goitia Orueta, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-058/017

- **Iraupena:** 0:04:59. **Hasi:** 00:51:19. **Bukatu:** 00:56:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
 Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza  
 Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana  
 Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera  
 izugarriak eta ezbeharrak
- **Laburpena:** Etxean afaldu eta Deguriara joaten zen ardiak jeztera. Behin bera eta beste artzain lagun bat lotan zeudela, txabolak su hartu zuen. Lan askorekin baina lortu zuten sua itzaltzea. Deguriako beste artzainekin elkarlanean berreraiki zuten erre zena.

### Transkripzioa

- Gero hemengo artzantzak guk hola etxabolatxo horreitan itten geben, baiña hemen Degurixa mendixan egonda zagozei? Han etxabola formalak egoten zien, ta horreik pastoriok ba Arretxabaletakuak, Mondrauekuak, eta Eskoriatzakuak eta danetik egon giñan. Gehixen egon giñanian hamaika artzain; hamar fijuak han eta nik ardixak jaitzi eta etxera etorten nintzan, esniakin. Ta hemen lana, e? Eta bestiak han jirauten zien, eta nik ez neuken etxabolarik, baiña nere lagun haundixen etxabolan, hau zerekuak, Zubillagako Erguiñakuak eta Urzabalguak egoten zian bi anae. Ta oin esango dotsuet ze tokau xakun. Hau entzun, ze tokau zan etxabola hartan, ba ni hemen lanaldi gogorra indda faten nintzan eta gero edadia be lo itteko ona, eta gabian faten nintzanian bera afalduta egoten zan eta nik etxian afaitten neben, nik ez neben han afari lanik hartzen ezertarako be. Goizian berak kafia beroketan eben, kafia hartzen geben bixok ta ardixak jaiztera ni eta gero ni etxera. Ba, gabian fan nintzan eta, ba, betiko moduen, oso gizon alertia zan, aittajun alertia, eta kontuak, ba, badakitzu, hemengo kontuak, behekuak eta gustau itten xakon, ze barri ete dan beharretako ze giro eta hola ta, etzin, ni etzintten nintzanian kontuak esaten gazela, ra, luak hartzen ninddun. Segidan, e? "Lo zagoz Manuel?" esaten eben berak. Hori entzun itten neben, ni lo nenguela hori entzuten notsan. Goizeko ordu bittan jaikitteko ordua eukan txixa ittera berak, ez euen despertadore biharrik, hori zan bere ordua. Jaiki ei da eta etxabolia erreten, sutan. Hango Manuel diarra, hango larrixa! Ikusi nebenian zerten, keia ya, keia etorren, hartu frakak eskun eta urten neben kanpora. Goixan euen sua, su lekutik hartuta etxabolan gora, ez neben frakarik, ontzixak eskatu notsan, deposittua bertan euen ta, frakarik ez neben nik jantzi, ez neben astirik euki frakarik jazteko, nik ura etara eta eruen eta berak bota, ura etara ta eruan ta bota, ura etara ta bota ta bota ta bota. Haizia, hegu-haizia, eta sua horrekin inddarrian fuerte ta errebentau geben, baiña itxungi geben. Gero, ba, goizala aillegau zan, baiña etzin in bihar apur bat ardixak jaizteko gauza izateko. Etzin giñan apur bat, ja(g)i giñan, gero pastoriak ardixak jaiztera urten ta "Aiba! Ze pasau da?" Etxabolia baltz goixa, goixa erreta eta ikusi naue ni be ardixak juntaittera, "Ba, Manuel ondo doia". Bestia be ikusi daue eta "Ze pasau da? Ze pasau dan?", "Gogorra! Eskerrak ordu bittan ordua eukenari jaikitteko bestela ni enterau barik erreta eta bera be bai. Horri kaso euki eta ya ez da pasau ezer, oin arreglauko dogu, jasoko dogu itxaboliori". Baiña danian erreta ni eta bera be bai, berak jaikitteko ordua aillegau ez balitz; sua zela etorren! Eta arnasarik hartu ezindda kanpora, frakak eskuan, ikusi be ez, laiñua itsu, keia, atian urten nebenian, bueno! Ontzixak, eta ontzixok segidan han zuzendu gittun eta nik ura eta bestiak bota, nik ura eta bestiak bota. Gero etxabola hori jaso in bihar zan, han jarraitu bihar eben ta ardixak jaitzi eta

gaztaia itten. "Bueno -neuk esan notsan- gure koiñatuak uste dot teillia badaukola, sobrauta, eta neu enterauko naiz eta jasoko dogu teillia. Matromai lagun bialduko dostazu, mutil gaztia Matromaikua". Zuzendu nittun lau asto eta neuk astua ta zaldixa bi neukan, hiru zuzendu kanpokuak, bostekin. Bosteaz kargau ta arriba tellia, gero pastoriak danok bata bestiarri lagun in eta bigarren egunerako etxabolia lehen baiño dotoriago itxi geben ipiñitta.

- Auzolanian, e?

- Bai, bertan pastoriak eta geuk, eta ez zan pasau ezebe, baiña ez xat sekula ahaztuko ha. Makiña bat aldiz eskerrak emun notsan, "zugatik nago ni munduen". Eta bai, gogorra izan zan Manuel. Gogorra? Gogorra baiño gogorragua zan ha. "Zugatik nago ni, zuk horixe ordu hori zeukan, bai, ordu bittan betik, e?" Txixa ittera ha berez, klaro, joten eben lomokoza ta, klaro, ni baiño zaharragua zan eta ni, ba, lan fuertietan ibillitta faten nintzan eta edadia ona neuken lana itteko, lo itteko, danerako, eta ni lotan jarten nintzanian goizian nere ordurarte ni ez nitzan iratzarten, ni nere orduan. Eta haren ordua zan ordu bittan, txixa ittera, ta haxe suertau zan eta hari eskerrak.

### 7.32. Garia udaletxera

- **Hizlaria(k):** Garitaonandia Lizarralde, Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-060/014
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:37:25. **Bukatu:** 00:41:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**
  - Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  - Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena:** Gerra denboran, gurdikada gari eraman behar izaten zuten baserritarrek udaletxera derrigortuta. Ez zitzaion bidezkoa iruditzen Karmeni gobernuaren jokabidea. Artile kilo bat gutxiago eramateagatik ere isuna ordaindu behar izaten zen. Gaur berriz, dohainik ere ez diete hartzen artilea.

### Transkripzioa

- Baiña honeik dira edozein modutan gerra ostetxoko kontuak, ezta?

- Gerra ostekuak, klaro. Ez dakit ze fetxatan etorriko nitzan hona, ez dakot idearik be.

- Zenbat, hamalau urte?

- Hamazazpitik hamazortzira urte.

- Horixe, berrogeta bostian. Gordin-gordiñik onddiok gerra ostia.

- Bai, txarketan ondiok, zeatik garixa eta entregau eragitten euein; garixa, babia, patatia, dana entregau eragitten ebein, eta gero hemen aiuntamientuan azpixa ez dakit nun eukitten euen, garixa ez, patatia dana ustelketan jentia ekusten eben, baserritarrari kendu eta gero han euki alperrik galtzen. Ez, geizki, geizki, gobernu geizki portau zan orduan askokin, baserritarrakin "sobre todo". Itten euenari kentzen xakon pagau barik kentzen xakon, kalia dakonekotik ez dakonari emuten baotsain, tira, prezio bardiñian be tira, baiña ez, oso geizki egon zan orduan baserrixa be bai eta kalia be bai. Eta holaxe akordaiten naiz ni gurian zela negar itten geben. Garixa burdikada garixa eruaten zan kalera e? Ezin zebe kilo erdi



gutxiao eruen. Azkarretan be entzunda dakot nik hori gizonak askotan esaten nontan, Donostiara zela fan ziren, kilo bat gutxiao bialdu ardi uliak, ulia be entregau in bihar izaten zan, hainbeste prezian ifiñi eta kitto. Eta entregau in eta kilo bat falta, Donostiara fan ziren zera pagaittera, multia pagaittera.

- Kilo bat ardi-ulia.

- Kilo bat gutxiao eguelako. Baserritarrak beti egon dira zapalduta eta orduan be bai, e? Gero hasi zan ulia, gero bapebe jaso barik be egon da urte batzuk e? Eta oin ez dakit, gurian emuten dau baiña erregalau itten daue batzuetan, ez dakit ze itten dauen, nik ez dot kasorik itten. Baiña ni hor ibiltten nitzanian aillau zan ule kilua ehun pezeta ittera be, eta orduan ba politto, baiña berihelaxe atzera jausi zan eta oin ez dakit.

- Oin kendu alde faten da.

- Kendu alde, gure semia ibillitta dau erreten, kristonak in eta ezin berak, usain baten etorri eta ez dot akabo, bueno, trapero bateri emun edo zeozer, iñok be ez dau gura, ama, traperuak be ez daue gura, eruate alde be ez daue gura, (...) holakotxiak, baserrixan holakotxe gauzak datoz. Eta ni, bost seme-alaba neukan, ume txikiñak neukan artian, danak txikiñak, zaharrenak zortzi urte ez dakit euko zittuan, eta ba medikuan, gure gizona geixorik egon zan pleurakin, eta nehiko geizki gaiñera. Eta esan nontan, medikuak esan nontan, "Acción Católicakuak" horreik zela izaten dira horreik? Ibiltten diranak, zeozer partitten ibiltten diranak? "Acción Católicakuak" edo nunguak izaten dira horreik?

- Karitasekuak?

- Karitasekuak, eta Karitasen medikuak berba in eben e? "Como había en un caserío una mujer joven, con hijos pequeños y el marido enfermo". Atsoren batek jakin eben, errebañua geukala, "que éramos ricos" (...) Makilla bat eskuan ta kaltza-abarkak jantzi eta [...] aber ze emuten xauen ardixak. "La leche"! Zenbait holako desesperaziño pasau doten nik hemen? Eta eskua izana, sanua neuken orduan eta ez nontan inporta neri lana ittia. Esan nontsan medikuari "saniauko da, nere gizona saniauko da?", ta berriz be baitta, ta berriz be baitta esan nontan: "beste batzuk saniatu izan dira eta hau be saniauko al da". Ez ekixen baiña saniauko zan, oso geizki egon zan da. Halaxe, saniau zan. Baiña ez e, seguruak, soziedadiak, istorixak, ez e iñok be lagundu barik, e?

### 7.33. Etxeko maiorazkoa

- **Hizlaria(k)**: Guridi Zumalde, Inazio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-064/002
- **Iraupena**: 0:03:28. **Hasi**: 00:03:30. **Bukatu**: 00:06:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  - Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea
  - Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Zazpi anai-arreba. Basoan lanean hil zitzaion anaietako bat. Iñaxio zen etxeko maiorazkoa. Mutikotatik lanean, laia batekin egiten zuen laian biekin gauza ez zelako. Goldean geroago hasi ziren.

### Transkripzioa

- Eta umetan zelakua zan hemen bizimodua? Zenbat anai-arreba ziñazien?

- Lau anai eta hiru arreba. Hurringua, bigarrena dau fraide eta Zarautzen dau, Zarautzen ha be izatez hermanua dau baiña Zarautzen eta hirugarrena oin ezkondata, oin Donostian, bueno, kalian bizi zan hemen baiña oin Donostian dau, ta laugarrena berriz, lau anae illaran, eta laugarrena ha gazterik hil zan soldauzkatik etorri ta gero ofiziuari ebillela hortxe, enda aritzak botaten eta basuen ebillen ta arotzerixarako ikasten ta egurra bota ta gero soilketan ebillela egurrak buelta in eta salto in bihar eta bixkar hazurretik zertuta urte betian edo egon zan baiña hil zan.

- Lanian, e?

- Lanetik behintzet. Santa Mariñako arotzerixia euen hor ta hareitxekin ebillen ta ...

- Piokin-ta? Santa Mariñan Pio ez ebillen arotz?

- Pio bai baiña, Pion zera, Koixkargua ta horreik apartauta egozen euren artian enda han ebillen ta gero hil zan eta gero arrebak berriz bat ezkondata hor dau, hona zerien, behera Aitzeko zerien, Koixkarguakin ezkondata eta beste bat, hurringua, harek Irungua dako andria, gizona, ta bestiak berriz ha Zubillagakuakain oin Donostian bizi dira, bai, holaxe, danok.

- Eta zeu zara zaharrena orduan?

- Zaharrena, bai, zaharrena.

- Maiorazgua.

- 'Maior asto', maiorazgua, garai bateko mairazguak gozenok hala izaten ziren.

- Orduan umetan tokauko jatzun lana ittia, ezta? Biharra ittia baserrixan.

- Lana, horixe ikasi geben guk, gure zeori hori izan zan, lana! Aguro, laixan be bi ibiltteko kapaz ez eta laixa batekin ibillitta nau e? Bi ibiltteko kapaz ez mutikua eta illaran jasarri ta laixa batekin, iñ in bihar.

- Zelan itten zenduen laixan? Zela izaten da? Nik ez dot sekula ikusi.

- Zuek entzun bakarrik; oin telebisituari botatakua bai, Arrasateko zerekit ez dakit ze herrittakua zan baiña herri, lehenauko fiesta zerak eta, bi laiak itten zan. Dra in ta drau honutz in ta gero sartu ta dau, buelta emun, lurrari, lehenauko garai horreittan horixe zan.

- Orduan boldarik ez euen ala?

- Gero, orduan ez, baiña gero boldan be bai, nik urten nebenian orduan boldia be baeuen, boldan gero.

### 7.34. "Karreteroak" (gurdi-zainak)

- **Hizlaria(k)**: Guridi Zumalde, Inazio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-064/004
- **Iraupena**: 0:04:00. **Hasi**: 00:09:32. **Bukatu**: 00:13:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena**: Larrañako baserritar asko jardun ziren gurdizain lanetan; herriko zerratokietara egur garraioan batez ere. Bere aita ere gurdizain izan zen eta hari jarraitu zion ofizioa. Neguan "banastaginentzako" (otzaragileentzako) materiala ekartzen zuten. Ingurua nola aldatu den; garia kaleraino egiten zen.

### Transkripzioa

- Hemen auzo honetan garai baten karretero asko euen ba.
- Karreteruak? Bai. Gu ibiltten giñan karreteruak Urubil, Irazabalgua, Elorduikua ta Errekalde be bai, danak, toki guztittan, leku guztittan euen idixak eta zerak.
- Eta ze jenero karriaitten zeuein?
- Jeneralian piñuetan ibiltten giñan, onena piñua bota eta Mugartzari zerrara edo Santa Mariñara edo hola karriuan.
- Egur karriuan orduan?
- Egurra, tronko burdixakin, tronkua aurrekaldian ipiñi eta atzekaldian sei-zortzi bat metro inguruko zerak ekarten ginduzan zera, beheara, ta gure bizi guztien idikin betik karretero. Aitta zenetik gero neu. Jeneralian esatea aitta pelotarixa bada, semia be pelotarixa; ba gu be aitta karreterua, neu be karretero gero, kitto! Gure akademixiori hori izan da. Lana.
- Eta beste materialik, beste jenerorik karriaitten zeuen, egurra kenduta?
- Gutxi, janeralian piñua, jeneralian gu piñutan ibiltten giñan.
- Eta ikatz edo etxiak itteko harrixak edo materiala-edo, ez?
- Ez, hola etxiak bigaren bat zeren baterako bai, baiña bestela ez. Gutxittan hartzen geben gaiñetikoz zerik. Eta neguan ba zestuak itteko banastagiñak itteko zera, ondagaixak, gaztañia. Zortzi urtetik behin jotzen zan gaztañia. Zortzi urtien utzi eta gero ebaki-ta, edo zimitzak atara ta banastak itteko, edo eskarpak bertan ifintteko ta ... banastagiñak Oñatittik asko egoten zan orduan, kalia be Mendiko Kalia be egongo ziren dozena erdi bat, sei bat.
- Eta horreintzako materiala zeuek ekarten zeuein?
- Etxe danetan itten zan. Neguen ez zan oporrik egoten, eguraldi ona egon ezkerok, basora aide! Basuan izan da gure zeori, ibillaldi edo gure gizaldixori.
- Eta ze karriatzen zenduen, zeuen terrenuetatik egurra ekartzen zenduen?
- Bai, norberak, danak daku euki hemen bizittako danak zatixak partittuta ta ondagaixak jo ta, oin berriz gero botikia botata zeraketan, ihartzen, piñua ataratzeko ta holaxe.
- Eta gero karriatzen zenduzen kalera, eta nora? Taillerretara-edo?
- Mugartzan zerrara, han Olakuan zeuen aldapia presa be baitta, harutz be bai, ta Santa Mariñara-ta ...
- Hementxe be beuen ba, Akelena ostien beuen ba zerria garai baten?
- Akelen ostien iñeuen, hona, ziran han, hona Antzuelastik, Antzuelasen goixan beratzi beziño egozen hor goixan, beratzi edo hamar beziño goixan. Eta hareittako bat ba kalera etorritakuan ba haraxe, harek eta zerria ipiñi euen han, Akelen etxe ostian, bai. Oin ez dako lehengo antz haundirik baiña.
- Ni mutikua nintzanien ezagutu neben dana kañaberaz jositta euen ha, zerra ostia kañaberaz jositta eta oin dana etxia.
- Oin dana etxia.

### 7.35. "Karretero" lanak

- **Hizlaria(k)**: Guridi Zumalde, Inazio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-064/015
- **Iraupena**: 0:03:42. **Hasi**: 00:41:04. **Bukatu**: 00:44:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa

- **Gaia(k):**  
Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Gurdizain edo "karretero" lanak nolakoak ziren aipatzen du. Lauzpabost idi pareko kuadrillan egiten zuten pinu-egur garraioan, Larrañako basoetatik kaleko zerrategietara. Egurraren punta bat gurdian eta bestea herrestan garraiatzen zuten.

### Transkripzioa

- Eta ikazkintzan edo ibili zara iñoiz? Basuan ibiltzen ziñazien egurra karriatzen eta, zeu ikatza itten ibilita zare?
- Ikatzetan ez, ez naiz ibili, ez.
- Ez? Karerik eta itten zenduen etxian?
- Karerik be ez. Karerik be ezta.
- Osake karriuan, eta ze ibiltzen ziñazien, aitta eta bixok-edo? Egurra karriatzen aitta ta bixok ibiltzen ziñazien?
- Kuadrillia ibiltten giñan piñutan, ta honeitxek Elorduikuak eta Urubil, Idiazabal, ta gu laurok ibiltten giñan jeneralian, Errekalde be bai beste ekiñaldi baten ta ...
- Eta baikotza idi pare batekin?
- Baikotza idi pariakin. Danok, hemen idi bariko etxiak egongo ziren hauxe aldekoa, Ogixaa, Kortan be ez, eta beste etxe danetan idixak. Hemen egon ziren garai baten.
- Eta piñuok osorik jaisten zittuein kalera edo zatittuta-edo?
- Jeneralian erdittik bi indda, maritimuan hola izaten zan, gero insignisa be bai, "siete cincuenta" edo zortzi edo zazpi edo hortxe, segun kurba edo zerik, zeuen tokian ebaki eta halaxe.
- Eta aldiko zenbat?
- Aldiko jeneralian karga ederra izaten zan, burdi motxa izaten zan ta entradako zera ekarteko eta aurrekaldian trangero batekin eta trangeruan gaiñian jarri ta puntia tarraz, gero Mugartzan zerrara eruan bihar izaten zan zeretik, hona, kamiñora han ermittatxo bat egoten zan garaitxo baten, San Lorentzoko parian karretera ondoko behian, eta oin ha bota ta ez dot uste ezer egin zanik, ta han karrotxua ekarri zerratik eta karrotxuan hona, egur baten gaiñian igoten zebeñ, karrotxua sartu azpira eta handik zerrarakua eruaten gendun puntia karreteran ez tarraz erutiarren.
- Puntiarri txirrikak ifiñi.
- Bai.
- Eta aldiko zenbat piño?
- Hiru. Hiru egurrekin izaten zan, egur normalak, hiru egurrekin beteten zan egurra eta gero gaiñian puntak edo zerian bota ta ha izaten zan kargarik onenori. Kargarik onena jeneralian, ta holaxe.
- Eta hemen inguruetan kargatzen, osea piñudixak hemen inguruetan zekazuezen?
- Hemetik gora, danian.
- Bidea eukiko zenduela ezta, zerraraiño?
- Hemetik ez, hortik izaten zan zerrara pasua edo handik. Hemetik guretik ez zan, gero hori kamiñua in zan baiña gero handik, gero hortik ...
- Eta Oñatiko terrenotatik betik edo Legazpi aldetik be bai?
- Legazpiko mugan dakogu guk, badakogu oin terrenuak, hona, Legazpi partian be bai pagoduitxo bat, pago-txara su egurretako jotzen dana haxe, eta beste bat garai baten, hona, ardi pastuakatik edo erosittakua, han hamalau sozio uste dot gariela ta Legazpin. Eta beste terreno bat Antzuelan be bai, Antzuela partian Arrolamendi zerian.
- Eta horreittatik be ekarten zeuein egurra?
- Ez, horreittatik ez.

- Horreittatik ez, piñua beherao horreik baiño?
- Gu Oñati aldetik ibiltten giñan.

### 7.36. Albarritzako baserriko Jabier

- **Hizlaria(k)**: Bikuña Urzelai, Jabier
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-066/002
- **Iraupena**: 0:02:26. **Hasi**: 00:02:43. **Bukatu**: 00:05:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: 1935. urteko abenduaren 28an jaio zen Jabier, Albarritza baserrian. Inuzente egunean jaio ere. Egun horretan elkarri bizkarrean paper pusketak jartzeko ohitura zegoen bere eskola garaian. Beste bi anaia eta arreba bat ditu.

#### Transkripzioa

- Esango dozu zure izena eta bi apellido ta ze urtetan jaio ziñan?
- Nik izena Jabier Bikuña Urzelai.
- Bai, eta ze urtetan, ze egunetan jaio ziñan?
- Ni jaio nintzan abenduan 28xan, atzo izan zan nere urtebetia. Abenduen 28xen 1935ien.
- Iñozente egunian?
- Bai, Iñuzente egunian.
- Lehen be bai izaten zan Iñuzente eguna?
- Bai, betik, betik, ez, ez, guk betik hola ezagutu dogu.
- Eta zenbat anae-arreba ziñain?
- Lau. Hiru anae eta arreba bat. Txikiñena, gaztiena, arrebia, Belaskuan bizi dana.
- Nun bizi dana?
- Belaskuan bizi da, bai.
- Eta lehen Iñuzente egunian, holan iñuzentadak eta egitten ziran edo?
- Bai, betik, bueno, horixe, alkarrerri zerien, bixkarrian papelak ifiñi ta guk eskolan ta, pentsau guk eskolan noiz ibilli giñan eta orduan be itten ziran holakuak.
- Baiña zuretako Iñuzente egunian zeuk urtiak betetia, beuken bere zeretxua, ezta?
- Bai, ta orduan etzan Iñuzente egunian ba gu ibiltten giñan papelak eta ifiñi alkarrerri bixkarrian eta zerian bai eta, eskolan etzan egoten hainbeste, oin beste opor apenas egoten zan e? Gabonetan ta egun batzuk eta bai jai baiña normalian oin baño opor gutxiao egoten zan. Jai gutxiao eta eskolia jarraitu itten zan. Eta holako gauzak itten ziran.
- Jaixo nun in ziñan? Hemen berta?
- Jaixo? Bertan, baserrixan, bai. Hemen, eta hemen bizi gara.
- Zela dako izena baserrixak?
- Albarritza. Bere izena, jatorrizko izena dako Albardizaga. Hori eskritturatan ta ifintten dau Albardizaga, baiña guk betik eta herrixan betik Alabarritza, samurrau esaten da ta, bai. Hola da.
- Eta hau ze auzotan dago?
- Garagaltza auzuan, bai.

### 7.37. Ermita zaintzailea

- **Hizlaria(k):** Larrañaga Azkarreta, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-070/001
- **Iraupena:** 0:03:26. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** 1944ko apirilean jaio zen. Farretxera eliza zaintzera etorri omen ziren Azkarreta baserriatik senar-emazteak. Hortik datorkio bere amaren abizena. Aita bergararra zuen. Ermitaren zaintzailea. Santa Lutziaren argazkiarekin etxerik etxe joaten zen bere lana kobratzera. San Martingo zaintzailea ere ibiltzen zen San Martinentzako arto eta gari eske.

#### Transkripzioa

- Jose Mari Larrañaga Azkarreta.
- Eta ze egunetan jaiotakua zara?
- Ba apirillian hamarrian milla beratzirehun ta berrogeta lauan.
- Azkarreta hire ama nungua zuan?
- Azkarreta, hemengo bertako baserrikua. Apelidua Azkarreta.
- Ama zan hemengua, Santa Lutzia baserrikua?
- Bai, Azkarreta uste dot datorrela, hau sasoi baten zan, faerretxia esaten otsain honi, ermittia zainttuaz, eta orduan etorri ziran Azkarretatik matrimonion bat baserri hontara elizia zainketako. Eta Azkarreta apelidua ekarri zaben.
- Azkarreta, baiña Azkarreta baserriitik edo beste lekutik...?
- Azkarreta baserriitik baiña oin bostehun urte-edo. Hola esaten daue, entzunda.
- Klaro, lehen etxien izena izaten zan askotan apelidua, ez?
- Aitta berriz Bergarakua, San Prudentziokua. Larrañaga.
- Eta zela esan dozu, faderretxia?
- Faerretxia, hori esaten otsain, ermittiari, ermittien kargua hartzeko, eta gero itten xuan auzuan, konjuru bat moduan, holako zer bat xuan, Santa Lutzia argazkixakin, eta harekin etxerik etxe batzen zuan garixa edo babia edo zeozer, ermittien...ba dirurik nola ez zan, ba ordezkua zeozer...
- Ermittia zainketiarren...
- Auzuak zeozer ordaintzen xuan baiña...
- Bera faten zuan argazkitxu horreaz...
- Bai.
- Etxerik etxe.
- Etxerik etxe, urtian... Baba garaixen babia eta garixen garaixen garixa eta urtian bi edo hiru aldiz. Eta aparte baserrixa eukian eta euren terrenuetan, terrenotxo bat zuan, asko ez.
- Eta farretxe esaten xakon?
- Farretxe bai, Zubillagan be hantxe xaok farretxe. Gure tio zanari betik 'farra' esaten otsain. Farretxe, elizien kargua eukittek.
- Hortik geldittu zan aurrekuandik ya gaitzizena geldittu zan, ez?
- Ez, Azkarreta apelidua zan, itxuria, zaukein orduan ekarri zabena.
- Oseake abade etxe eta farretxe orduan diferentia dira.
- Diferentia, bai.
- Abade etxia...

- Pixka bat dok horrek sostenttaiten dauen horren moduan, baiña diferente. Bata dok abade etxia, kaliau dauena, baiña honi faerretxia. Gauzak, lehenaoko ohitturak. Hi San Martingua ez jakiat akordaitten haizen. San Martingo ha hil zuan. Residentzian hil zuan gaiñera. Han etxetxua oin gaztetxia in dauena, San Martingo ermita onduan dauena. Hangua be ibiltten zuan hemen etxerik etxe San Martiñentzako garixa eta artua batzen. Ba zeozer, laguntza.

- San Martin horrek ogixa ta jaten xuan behintzet, e?

### 7.38. Astoekin saltzaile ibiltari eta beste hainbat lanbidetan

- **Hizlaria(k)**: Urkia Elorza, Juane
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-071/009
- **Iraupena**: 0:03:29. **Hasi**: 00:16:02. **Bukatu**: 00:19:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak  
Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- **Laburpena**: Ikazkintzan nekatu eta Araban jardun zuen saltzaile ibiltari lanean, astoekin. Umeentzako arropak, baserriako lanabesak eta abar saltzen zituen. Milikuaren koinatu Anastasiorekin hasi zen salmentan, baina gero bakarrik jarraitu zuen. Lan mota askotan jardundakoa da Juane. Ezkondu eta gero Eibarren tabernari lanean ere ibilitakoa da, lehengo "Gau Txori" tabernan.

#### Transkripzioa

- Baiña ha karriuan itten zan.

- Ha karriuan, "contrabando" estraperlua ta.

- Ez, ez, ez. Ikatza ta obratako materiala eta holakuakin ibiltten zan. Zuek inddako ikatza igual haretzek eruengo eben, Brinkolara eta hola. Harek neri kontaitten nostanez behintzet Brinkolara eruaten euen ikatz pillia. Baiña harek asto pilla formala euen.

- Ikatza Brinkolara, hemendik, Araozdik?

- Ba Arabako Mendittatik, Araotz eta hor, ikatza itten zan lekutik.

- Mendittik Arantzazura bajau ta handik Orbegozona, Zumarragara parte. Geuk be bai Zumarragara. Orduan Orbegozonera faten zittuan hemen ikatzak gehixenak ta.

- Oseake danetik probau dozu orduan, ezta?

- Danak ez xat akordauko, onddiok danak ez xat akordau.

- Lehen aittatu dozu Eibarren tabernari be egon ziñala.

- Bai, mostradorian egon nintzuan ni.

- Denpora luzian?

- Ez, denpora asko ez nixuan in, hau kejuau zuan ta, hona etorteko bestela... han egoteko.

- Ordurako ezkondata?

- Ez, ez, artian soltero baiña...han orduan gabitzan txapelenakin hiru ahizpa, han taberna hartan.

- Zela euen izena taberniorrek?

- Gau Txori.

- Gau Txori. Ereitta dago onddiok?

- Ez, ez.

- Plaza-plazan zaok hori.
- Entzunda dakat nik, baiña hori taberniori ya ez.
- Oin be tabernia dago han uste dot. Gero kaja hau bankua edo ez dakit zer egon zan, eta oin be, ez da denpora asko ni han pasau nitzala eta oin be Gau Txori ifintten dau, Gau Txori uste dot. Beste asunton bat egongo da baiña...
- Eta ze itten zendun, egunero joaten ziñan Eibarrera? Egunero?
- Ez, jaixetan, jaixetan faten nitzan.
- A, jaittako tabernarixa. Lan asko euen garaiko...
- Bai, [...] egoten zittuan han, txapelenan hiru ahizpa, horrek egunaro.

### 7.39. Baserria galdu zutenekoa

- **Hizlaria(k):** Urkia Elorza, Juane
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-071/010
- **Iraupena:** 0:03:17. **Hasi:** 00:19:31. **Bukatu:** 00:22:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**
  - Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
  - Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena:** 1959an hasi zen Oñatiko Garai lantegian lanean. Ugaztegitik kalera etorrita zeuden, baina Juane Urrexolara ezkondu zen Aginalde baserrira. Baserria kokatuta zegoen terrenoa uragatik mugitu ondoren, Udalak etxetik alde egiteko agindu zien. Beste baserri bat erosi eta han bizi izan ziren hamar bat urtean.

### Transkripzioa

- Eta ze moduzko anbientia egoten zan Eibarren?
- Eibarren demasak itten ziren.
- Jente asko ibiltzen zan?
- Bai, jente asko.
- Eta zelan izaten zan, oingo moduan gabeen berandu arte eta ibiltzen zan jentia-edo?
- Bai, orduan be bai, hola jaixetan behintzet bai, astegunian ez dakit ze itten euein baiña jaixetan ta bai orduen be. Eibarren beozen orduen kirten majiak be bazittuan han orduan.
- Sozialistak be asko egongo ziren. Eta hori izan zan Oñatitik kanpoko zure azkeningo lana? Edo ondiok jarraitu zebeñ?
- Dan-danak be esan be ezin leike in ta. Kazara ta faten gitzuan gu, hor, Salamankara eta zerbaittera kaza denporan-ta.
- Baiña hori ya lana ez. Bestela.
- Bestela.
- Eta orduan noiz hasi ziñan ba zu Garaiñian?
- Nik Garaiñian sartuko nitzuan “el año cincuenta y nueve”, bai. “cincuenta y nueve” hamarra, horixe, “cincuenta y nueve” partian.
- Ordurako ezkondata ya?
- Ez, ezkondu “sesenta”n in nitzuan.
- Eta zu ezkondu ziñan Ursulara, ezta?
- Bai, hona bajauta geontzen gu orduko. Ugastegittik hona. Baiña hemen in nittuan bi urte-edo eta gero hara ezkondu nitzuan. Eta anaia hemen, ama eta anaia-ta hemen.



- A, Ugastegittik hona etorri zifain?

- Bai, hareik alde euenien etorri zuan Otalora Txikiñekua hona. Eta gero Otalorakuak alde euenien ni Ursulatik hona, ya orduko umiak, orduko hiru, laurak han jaixota. Baiña eskolara bialdu bihar, eta gero hemendik eskolara bialketako.

- Eta ze etxetara ezkondu zifain Ursulan?

- Agifalde.

- Agifalde?

- Bai, hareik etxiak urak mobiu in xuan terrenuak eta hiru etxe mobiu in zittuan. Eta orduan ni aldeteko handik Reyesek. Eta "nora fan bihar dogu ba?" Eta "hori ez dok nere lana, zuek alde in bihar dozue hemetik", kotestaziñua alkate batendako, gizona jatorra. Harrezkio behin fan zuan Ursulara, baiña gehixau ez zuan fan e? Ni han nenguela.

- Eta orduan etorri zifain hona?

- Ez, orduan hor ha goikua erosi. Oin dakun etxia. Han beste... zenbat in gittuan, zortzi-hamar bat urte-edo. Atzera behera eta gero atzera hemen ganauak kendu gittuanian atzera gora ta behera, bueltaka.

#### 7.40. Erreka batean lau errota

- **Hizlaria(k)**: Urkia Elorza, Juane
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-071/012
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:25:56. **Bukatu**: 00:27:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
 Baserria » Baserriko lanak » Errota  
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena**: Aurretik hiru errota mugitutako ura etortzen zen Li&ntilde;atzibarrera, hain zuzen ere, Tokillokoa, Murgikoa eta Santa Kurtzenak eragin ondoren. Uribarrin egon zenean, umea zenez, ezin zuen asko lagundu etxean. Noizbehinka "itaurrean" eta beste lan batzuetan laguntzen zuen.

#### Transkripzioa

-Zu, eta hau errekiu nik betik ezagutu dot oso erreka txikiña, hor errota mobittekko beste ur...

- Murgiko errota, Murgiko Berezauko zera, Tokillo, hiru errota pasau, hau laugarrena, ur dana pasauta hemendik behera etorten zittuan.

- Errota danak erreka batek...?

- Danak batetik. Lehenengo Tokillo, gero Murgikua izango dok, gero Santa Kurtz, ez dakit zela dagozen be, bai Tokillo, Murgikua eta Santa Kurtz, hiru hor.

- Eta azkeningua zuena?

- Hau azkeningua, laugarrena hau, baiña honek itten dau Berezau. Oin hementxe, azkeningo ostikadak jo arte.

- Orduen gazte denporan zu hemen Oñati, Araotz inguruan ez zifain asko ibilli.

- Ni oso gutxi, hementxe ba hamar urte arte, zazpi urte, hortik hamarrera hementxe orduan, Uribarrin nenguela.

- Ze lan itten zenduzen Uribarrin?

- Ze lan ingo neben ba sei-zazpi urtekin? Eskolara fan ta etorri, horixe.

- Lagunduko beharko zendun baserrixen-edo ez? Baserrixan zeozetan lagunduko zenduan, ez? Lanetan.
- Asko ezin in. Beratzi urte, zortzi beratzi urtekin. Baiña orduan hantxe beheintzet zerbait, ittaurren-eta.
- Errekauak in edo.
- Esan dau, hamarrekin ikazkin fan baziñan.
- Klaro, klaro. Eta artian eskolara etxian lanik ez euenien e? Bestela e...

#### 7.41. Umetan ikazkin lanean

- **Hizlaria(k):** Urkia Elorza, Juane
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-071/019
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:42:14. **Bukatu:** 00:44:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Hamar urterekin aitari ikazkintzan laguntzen zion. Txondorra egosi egin behar izaten zen, ez erre. Ikatza lantegietara saltzen zuten, tartean Orbegozori. Ikatza egiteko pago-egurra erabiltzen zuten. Gaztainarekin ere egin zuten ikatza behin, errementari batentzat espresuki.

#### Transkripzioa

- Eta esan dozu aittari laguntzen ikazgiñan ibilli ziñala.
- Artian hamar urtekin, sasoa.
- Zelan egitten zan ikatza?
- Ikatza? Leheningo egurra bota, gero zatittu hola, hola altura ingurukuak-edo, ta gero txondorra pillatu. Gero zohixakin edo arbelakin, gero atzera lurrakin, gero sua emun eta ondo zainttu bihar.
- Egosi arte.
- Egosi. Gure aittari preguntau otsan batek, sua emuten ta, "Fermin, honek txondor honek ondo erre ezkeru zenbat ikatz emungo dau?" Eta: "ondo-ondo erre ezkiu bapez!" Txondorra egosi in bihar izaten da, curioso erreten bada egurra, azala erreten da, baiña egurra osorik.
- Eta zuek ikatza itten zeuein saltzeko-edo?
- Saltzeko, klaro.
- Baserri askotan etxerako itten euein apur bat, eta hola, ezta?
- Etxien egurra egoten zan ta. Fabriketara ta. Orbegozori parte. Orbegozo martxan jarri zanian hori gasakin ta kamion zaharrak hasi ziranian.
- Eta zenbat egun bihar izaten zittun egosten? Txondorrak?
- Segun zelakua zan, ze tamaiño.
- Segun zenbat egur eukitzen zeban?
- Klaro. Txondorrak itten ziren ehun zakukuak, berrehunekuak be bai, eta hirurehun zakokuak be baitta. Egurra mehia izan sendua izan be baitta.
- Ze egur erabiltzen zan txondorra itteko?
- Parte pagua, onena pagua. Artia esaten euen, baiña hemen arterik ez euen. Bat in geben guk gaztaiñiaz be bai, Aingeru Zaharren ibilli nitzanian, errementerixa zan, eta tenplerako gaztaiña ona. Haretxeri, bota gaztaiña berde-berdiak eta gaztaiña ikatza. Beretako espresamente gaztaiña ikatza. Bestela guk gaztaiñarik sekula be ez.

## 7.42. Elurte handiak

- **Hizlaria(k):** Urkia Elorza, Juane
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-071/020
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:44:40. **Bukatu:** 00:47:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak  
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena:** Ikatza udazken partean egiten zuten. Neguan elurte handiak izaten ziren. Araotzera mezetara jaisteko palarekin bidea zabaldu behar izaten zuten. Fede gehiago omen zen orduan. Lehen elurte handiagoak izaten zirela uste du Juanek. Gipuzkoako hamar etxe altuenen artean hiru Ugaztegin omen daude.

### Transkripzioa

- Gaztaiña jan be ingo zeuein zuek garai baten, ezta?
- Gaztaiña jan? Alia bai, egurra ez.
- Pentsaitten dot, bai zeatik bueno, hemen batek baiño gehixaok esan dosku negu partian gaztaiña, gaztaiña egosixa leheningo eta erria gero...
- Gero gaztaiña egosixa neri sekula ez xat gustau. Jan bakarren bat bai, erriak bai baiña egosixa, ura.
- Makala. Eta txondorrak, bueno, zure aittak txondorra, ikazkintzan ibiltzen zan lanian betik, ala?
- Betik? Gero baserrixan be bai ta, danera.
- Eta zela izaten zan baiña, urte osuan zihar itten dira txondorrak, ala sasoi bat beria egoten da-edo?
- Parte sasoi udazken aldera, udazkenian hasi eta gero neguan ba etxian. Edurtiak oin baiño haundixauak itten eben orduan, e? Han goixen metroko edurrak indda be bai, e?
- Eta txondorra martxan?
- Orduan ez, txondorrik ez. Neguan ez gixuan ifintten. Edurragatik.
- Bai e?
- Orduan Araotzera mezia entzuteko palakin bidia indda. Mezetara etorteko ta edurra kentzen. Esan gaurkuairi, edurra kendu bihar dozu mezetara fateko!
- (...)
- Behin baiño sarrixao Ugastegittik Araotzera etorteko, leheninguak illaran aurretik paliaz edurra kentzen. Orduan bai fedia. Gaur ez dakit dauen baiña.
- Lehen edur gehixao itten zaban oin baiño? Ala antzera?
- Edurra? Nik uste dot orduan gehixau itten ebela. Bai. Ugastegin metroko edurra eta normal izaten zittuan.
- Ugastegi altu dago. Ze alturatan dago Ugastegi?
- Harek zazpirehun metro.
- Arantzazu baiño altuago.
- Ermittia Arantzazu baño zerbait altuago, zazpirehun ta ez jakiat hamabost metro-edo zer dauen ermittia. Eta gorengo etxia ermitta nibelien, gorengua. Bestiak pittin bat beheratxuago. Gipuzkuako hamarren barruen, Gipuzkuako hiru etxerik altuenak.
- Ugastegin? Ha paraje altua da, bai, bai.
- Altuena hori Patxikona goikuori, Gipuzkuan altuena. Lehenau beste bat

euela baiña ez dala iñor bizi-edo. Oin bizitten danik altuena horixe, Ugastegikuori.

### 7.43. Morroi izanda ere eskolara

- **Hizlaria(k):** Irizar Guridi, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-073/011
- **Iraupena:** 0:03:11. **Hasi:** 00:20:11. **Bukatu:** 00:23:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Madalenako eskolan hasi zen umetan. Zortzi urterekin Antzuelas Beitia baserrira joan zen morroi. Antzuelas Beittik Sarramendiko eskolara joaten zen. Hamabi urterekin beste urtebete egin zuen Madalenako eskolan.

### Transkripzioa

- Eta zuk zeuk ez zebeñ ikasi injeneritzarik eskolan?
- Nik esango dostat ze ikasi neben. Leheningo akuerdia badakik, lau urtekin edo seikin hasten dok zeozer ta orduan eskolan hemen bagabitzaken, Madalenako eskolan.
- Madalenara faten ziñain?
- Maistria hor xauan, maistra bat egurra emuten ebena. Harekin nabillaken baiña zortzi urte neukala Beittin falta itten xuan han be, Beittin betik egon dok kriaia eta neguan negu-mutilla, eta kriaia baten lekuan bi, ha baserri haundixa zuan orduan ta. Baiña ni fan nitzuan zortzi urtekin Beittira.
- Antzuelas Beittira?
- Antzuelas Beittira. Eta pasau nittuan hiru urte eta hiru hillabete.
- Morroi?
- Morroi. Kriaia, tion etxian baiña kriaia. Baiña nere aitta ta ama hareitxek zittuan, e? Ta epoka hartan, gabonetan, ni fan nitzan San Mieleetan bai, gabonetan etxera eta gero bixan bittartien ba zeozer, nobedaden bat euenian ba, trena inaugurau zanian-ta... han xauan Sarramendi eskolia, ez dakik nun dauen?
- Sarramendi eskolia bai, Sarramendi baserrixan.
- Baserritik honutzago, eskolia.
- Baiña leheningo eurak etxian irakutsi euen hareik, han Aurrreko Mendixan. Sarramendi etxian.
- Ez, ez.
- Eta gero in euen onduan...
- A, bueno! Nik ez jakiat etxeko konturik ez jakixat. Hantxe barri-barrixa inddakua dok ha, eskolatarako eta inddakua. Eta nik han ikasi nitxuan eskolak, zortzi urtetik eta hamaika artian.
- A? Antzuelas Beittin egon ziñanian hara faten ziñan?
- Klaro, han xauan orduan maistria Gregorio Larrañaga, ondo akordaitten nauk, Oñatin hil zuan. Fraidetan ya burua endreau xakola-edo, Kuban edo zeratan, handik urtenda, baiña eskolia irakusten xuan...
- Ondo, ezta?
- Erderaz hala be, eta orduan erderaz ikastia zuan problemia hemen. Ondo erakusten xuan eta hantxe ikasi giñuan eskolia bastante, eta gero ba ni

handik etorri nitzan badakik, hamaika hamabi urtera, eta hamabi urte. Beste urtebete in nuan Madalenako eskolan, azkeningua zan aurreko maistrua, ez xat izena zela akordaitten naizen, hola Eliseo... ez xat izena akordaitten. Maistro bat oso ona, hemendik Gabirira fan zuan. Enda harek esaten nostan, etxian falta itten nebela eta hurrengo urtian be ezin nekiela, fan nitzuan despedittera eta "qué pena me das, qué pena, ahora que...", ointxe ezaguketan hasi nitzala zerak, matematikak eta honeik, problemak-eta, ez dok entenditten? (...)

#### 7.44. Ganadua eta ardiak

- **Hizlaria(k)**: Irizar Guridi, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-073/017
- **Iraupena**: 0:03:05. **Hasi**: 00:36:50. **Bukatu**: 00:39:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  - Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza
  - Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
  - Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena**: Etxeko ganaduak apurka-apurka kenduaz joan zen. Erretiratzeko adina iritsi eta gero kendu zuen azkenengo behia. Pedrok dio bere lehen lanbidea artzain izan zela. Morroi zegoela ikasi eta gero etxean jarraitu zuen ardiekin. Askazubiko etxolan urtean bi hilabetez egiten zuen lo, ardiak jertzeko garaian.

#### Transkripzioa

- Eta zuk lan horreik danok itten zittuan bittartien etxien ganaurik-eta bazeukan?

- Ganauak euki [...] ahaldun danian, ahal izan danian, zeatik aittak be afeziño haundixa xakuan, eta gure aitta be "noventa añosera" ez zuan aillau baiña sei hillabeten faltan hil zuan, enda ganauak gustau itten xakuan, azkeningo urtietan karretero be ibilli zuan ta, apurka-apurka horreik be, leheningo idixak danak fuera, eta gero zeori, ekonomiori pittin bat mejorauaz xoiála, hiru zela geukan, ba bi behi, ta gero bat, ta gero bi, ta gero azkenian bat, eta batekin berihela aspertu ta fuera, fuera. Ba izango dittuk hogeí... hogeí ta pare bat urte, edo hiru bat? Etxian nauela.

- Jubilau eta gero kendu zebeñ azkenengo behixa?

- Bueno, jubilauta bai baiña, baiña ni erretirau ez nauk in, jubilau eta gero urte askuan lana in xuat, ez jakiat noiz arte, ez jakixat. Jornal barik e?

- Hori be afeziñua, ezta?

- Jornal barik. Han terrenotxo bat baxakuau pabelloiena eta zerana-ta...

- Eta ganauak aparte, ardirik edo eukitten zeuein?

- Oin esango dostat, nere leheningo ofiziua artzai dok, e?

- Zure leheningo ofiziua?

- Ni Aurreko Mendin Beittin nenguela ikasi nuan. Eta gure etxien falta itten xuan gero, handik etorri nintzanian. Eta hortik eta hemendik ardi batzuk ipiñi gitxuan ta ba, aguantau nitxuan ardixak, ba ni hasi nitzuan ardixakin hamabi urtea ezkeru, aurretik banaka batzuk baxazan baiña gehittuaz, eta hamahiru urtekin nik han Askazubi onduan goixan lo itten hasi nitzuan, gabien, "del uno de"... zeatik San Prudentzio zer da? "veintiocho de abril; del uno de mayo hasta treinta de junio", bi hillabete. Ardixak jaitzi,

marmittia aldian dala, eta urte baten kontsegiu nuan bi marmitta zera ittia, bat aurrian eta bestia atzien, bixkarrian txandauaz. Ta gustora. Fabrikan lana in, eta gertu eukitten xuan afarixa, etxian zerian eta ni aide. Nire moduan beste bat, hemendik be bai. Leheningo urtian bi gaztek in giñuan etxabola baten lo, eta bigarrenian hamalau urte ezkeru, ni bakarrik. Bi hillabete.

- [...]

- Orduan bi ordu diferentzia xakuan orduak bai, oinddik, eta asko dok e? Goizeko bostetarako txorixak kantuan hasten txan gero orduen e? Han.

- Eguzkixakin batera.

- Ha zuan bizimodua orduan goizian, txori danak kantuan, txori klase danak, oin desapareziu (di)ttuk asko.

#### 7.45. Gazta eta artilezko koltxoiak

- **Hizlaria(k):** Irizar Guridi, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-073/018
- **Iraupena:** 0:03:11. **Hasi:** 00:39:55. **Bukatu:** 00:43:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- **Laburpena:** Esnearekin gazta eta artilearekin koltxoiak egiten zituzten. Gaztagintza kenduta, beste ardi-lan guztiak ikasi zituen Pedrok. Ardiak nola mozten zituen azaltzen du. Orain artileak ez du batere baliorik.

#### Transkripzioa

- Hori dok, ni artzai eta etxeko zerbiziñorako e? Orduan etxian koltxuetxo bat edo bi itteko ulia be, nik ardixak mozten nitxuan hamalau urte ezkeru korriente, e? Han Beittin ikasitta. Hamaika urtekin han ikasitta.

- Zenbateko artaldia?

- Berrogei bat ardi edo hola. Nehikua zuan guretako.

- Orduen gaztaia be ingo zeuein.

- Gaztaiak itten (zi)txuan amak, aukesea, orduan etxauan frigorifikorik baiña, [...] aukesea bi egunetako bat indda-edo. Orduan freskuran kontserbau itten zitttuan gauzak, e? Esnia delikaua dok, e?

- Oso. Baiña baserrixen betek dakuei leku bat...

- Bai ba, [...] nik askori esaten xostiet, pastore hor Arantzazun ikasten dabitzena-eta. Pastore ikasi guk in giñun, ez hor Arantzazuko fraidiakin eta Gomiztegin edo zerien.

- Zuk kontu ederrak ebaliko (di)ttozu orduen Manuelekin, Gernetako Manuelekin.

- Nik askoiri esaten xostiet, ni askok esaten xok, ni artzaia izan naizela pastoria, artzaia, nundik nora? Nundik nora? Nik ikasi xuat, unikamente gaztaia itten ez, hor ez nauk sekula sartu. Baiña nik ardixari ulia moztu, eta buztana kendu bihar xatenien buztana moztu-ta, nik ardixari itten xauan zer guztiak partua ta hori, ardixen partuak? Ez jauan orduan [...]

beterinarixuari eta iñori abixau biharrik. Horreik danak ikasi nitxuan nik, askok ez juei sinisketan, hori halaxe dok. Ni hortik pasauta nagok.

- Eta ulia zela mozten zetzazuen?

- Orduen artazixakin, ardixendako [...], oin zerakin, makiñakin, oin diferente da.

- Eta ze itten zeuen, hartu ardixa?

- Leheningo ardixa hartu hola ta, dra! Atzekaldeko epurdixen gaiñian ta, zera bihar da, sasoia be bihar da, e? Kordela ona preparau leheningo eta gero lau hankak alkarrengana juntau, hankak lotu. Leheningo tripapeia zutik dala tripapeia moztu. Tokau izan xat narruan pikatan bat edo beste ittia be. Gero lotu, leheningo alde bata, taka-taka-ta... alde bata, buelta emun eta gero beste aldia eta soltau hankak eta "allá va el pelín". Uliak orduen asko balixo xuan, gaur mozteko be ez jakok.

- Gaur kendu alde.

- Kendu alde askok, batzuk ez esaten xuei, ez jakiat.

- Igual basurara.

- Ez jok balixo. Halako aukerak, halako zerak, koltxoiak eta lo itteko-eta, e? Orduen ez, orduen etxerako falta itten xuan.

- Baiña orduen kalefaziñorik be ez euen, ta... artulezko koltxoiak berak berotu!

- Klaro.

#### 7.46. Artaldeak gutxituz joan dira

- **Hizlaria(k)**: Irizar Guridi, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-073/020
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:45:35. **Bukatu**: 00:47:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
 Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak  
 Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Ardiak neguan etxean egoten ziren, belar ondu eta arbiarekin gobernatuta. Behin martxoa pasatakoan, mendian libre egoten ziren. Pinurik ez zegoenean larre gehiago zuten abereek. Garai batean ia baserri guztiek zuten artaldea. Gaur egun bi baserrik besterik ez dute jarraitzen ardiekin Zubillagan.

#### Transkripzioa

- Eta nun erabiltzen zenduezen?

- Ardixak?

- Bai.

- Oin neguan hementxe, etxe inguruan, ahal dan moduan. Udan erretirautako behar igarra beuen ondo. Arbi denporan arbixa puxka bat febrero-marzo aldera eta. Ez, behin marzoa ezkerro ez, behin febrero-marzoa ezkerro libre, orduen piñurik eta ez euela ta larra gehixau xauan, basuan be.

- Ardixa be bai gehixau.

- Bai ardixa be, oin esaten xuau oin be asko dauela, baiña keba! Oin hemen hiru etxe honeittatik, bi artalde barik behintzet, hirugarrenak banaka batzuk bai. Eta gero ba hor gora...

- Hori lehen.

- Hori lehen.

- Gaur horreik be ez.

- Gaur bape ez xok, hemen bapebe ez xauk, gure aldekuak xakok oin hogeta zortzi bat-edo, solterua, ointxe jubilau in dok bera bere kapritxuz Altunenetik. Ointxe urtebete. Eta horrek hemen zertzen (di)txuk, geure

zelaixak horrek ebalten (di)txuk eta.

- Garbittu alde, ezta?
- Klaro.
- Eta Matromaik be eukiko (di)ttu...
- Matromaik artaldia hor dako Matromaik. Hori be fan dok. Matromain hor neska-mutillak xazak, eta Miel ez dok ezertarako gauza.
- Orduan ya ez dakuei ardirik?
- Bai.
- Eta nok ebalten (di)ttu?
- Udan zera faten (di)ttuk, Degurixara.
- Degurixara, bai.
- Fan ez, bialdu itten (di)txuei, Araozgo zeren batek lagunketan ostek ardirik eruatzen ta, baiña Miel han egoteko ez dok gauza ya.
- Eulali eta Miel bixak dagoz Matromain?
- Bai, bixak. Besterik ez, bixak xazak. Beste arreba bat hemen xakok, Garaikuan, Mendizabal.
- Eta hemen orduen Zubillagan be, garai baten etxe danak euko euen euren artaldia ta euren ganauak.
- Hemen baserriak gehixenak, bai. Eta ganaua be gehixenak.

#### 7.47. Ohitura zaharrak; tertuliak

- **Hizlaria(k)**: Urzelai Aiausti, Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-075/010
- **Iraupena**: 0:02:29. **Hasi**: 00:27:48. **Bukatu**: 00:30:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
 Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua  
 Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
- **Laburpena**: Jesusek gazte denboran sarritan entzuten zuen bere aurrekoak, elurra egiten zuenean, auzotar baten etxean elkartu, pipa erre eta tertulian egoten zirela egun pasa. Jesusen aitajauna behin Aramaiora joan omen zen "gerra ikustera".

#### Transkripzioa

- Zure aittajunak ez zittun holako abenturarik euko, ezta?

- Nik aittajuna ez neben ezagutu. Nere anae zaharrenak esaten eben, hik derrigor ezagutu bihar hian. Ez nik ez neben ezagutu, nik ezagutu neben horko aittajuna eta Balantzategiko aittajuna be bai, nik beste aittajunik ez neben nik ezagutu. Orduan egozen Pedro Martin, ha justo-justo harekin akordaitzen naiz, hola butaka baten egoten zala pipa erreten. Eta hor goiko Santuekua ha ezagutu neben ba hementxe, zerien, domeketan meza nagusittatik bueltan edo hor etorten zan, hortxe geraketan zan barriketan, altu, flako bat. Lehenau esaten da, nik ez neben ezagutu baiña, lehenau negu partian edurra itten ebenian, etxe baten juntau ta pipia erre ta egoten zirala.

- Barriketan?

- Barriketan, Garibaiko errotara esaten daue faten zirala asko.

- Tertulixara.

- Tertulixara, goiza pasaittera edo atsaldia pasaittera, edurra itten ebenien. Hori zenbat aldiz entzun doten nik hori. Neuk ez dot ezagutu, e? Guk



hemen, gure gazte denporan edur asko itten eben, oingo aldian asko itten eben, baiña neuk ez dot ezagutu hola tertulixarik itten zanik-eta.

- Edurra euenien etxian.

- Etxien. Baiña lehenau juntau itten zirala, nik hori entzunda dakot hemen, Etxetxoko haren Pedro Martiñen semien andria, zera, harek esaten eben gure aittajaun, gure aitta eta faten ziren errotara, Garibaiko errotara pipia erre eta eguna pasaittera. Kontuak kontaitten hantxe, lehenauko kontuak, lehenauko gerra karlisten gerrak-eta, horreik danak ibiliko zittuen bueltaka "seguramente". Zeatik eze, gure amandriari entzunda dakot hemengo aittajuna fan zala behin gerria ikustera Aramaixora-edo, horra.

- Gerria ikustera? Gerria ikustera fanda. [...]

- Ikustera fanda. Eta izan bihar zan, bueno, oso billurtuta etorri zala.

Egurraikin, estakakin-ta, han in euela burruka aldi bat eta baikotza bere aldetik etxera, etxera edo eurak etorri zirela ikusitta egon eta etxera. Gure amandriak esaten eben hori.

- Estakakin itten zebala burrukan?

- Klaro. Han egongo ziren.

- Ezpatarik be ez. Egurraikin.

- Egurraikin, harek esaten eben, gure amandriak esaten eben egurraikin.

Eta gure amandria ezkondu baiña lehenau ikusiko eben, egongo zan igual. Harek esan nostan zure aittajunak esan itten xuan hori. Gerria ikustera fan zirela Aramaixora edo horra fan zirala.

#### 7.48. Lau baserritar neska Donostian

- **Hizlaria(k):** Txintxurreta Goenaga, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-085/002
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:01:22. **Bukatu:** 00:04:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Leturia, Ane
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua  
Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena:** Goienetxe baserrian jaio eta han egon zen Mendikoa baserrira ezkondu zen arte. Gerra denboran Donostian neskame lanean jardun zuen kataluniar batzuen etxean. Arantzazuko Hospederian egondako lau kataluniar bikotek, Oñatiko lau neska eraman zituzten neskame Donostian zituzten etxeetara, tartean Maritxu. Lau neskok, baserritarrak laurak, ezin ziren Donostiako bizimodura egokitu, baina soldataren 12 ogerlekoak ikusi zituztenean bertan jarraitzea erabaki zuten. Hala egon ziren 7 hilabeteetan.

#### Transkripzioa

- Ta nun jaixo ziñan zu?

- E?

- Nun jaixo ziñan?

- Ni Goixenetxen, Baxilikin, zuek egon zaie Baxilikin.

- Bai, bai.

- Bai. Ni naiz Baxilin ahizpia. Ni han jaixo ta hona ezkondu nitzan ta... Baserritik baserrira.

- Ta ezkondu arte Goixenetxen egon ziñan?

- Bai.

- Kriada edo... nunbaiten ibili ziñan?  
 - Kriada eon nitzan gerra denporan eon nintzan kriada Katalan batzukin.  
 - Baiña nun?  
 - Donostian. Donostian. Justi, zeena, "Txurrukena" eon zan Hospedeixan serbitten, eta Katalanak eon zian, lau katalan eon zian, lau famelixa, eta gura euen neskaak hemenguak Donostian serbitteko. Eta topau gindduen lau neska, nere lagunak bestiak be zian, eta fan giñan laurok Donostiara.  
 - Baiña etxe batera?  
 - Ez, ez, etxe banakataa e? Euren... Katalanen etxera fan gitzan .  
 - Katalan horreittako etxe baikotzera zuetako bat fan zan?  
 - Bai. Eta eon gitzan, eta hillebete in geben eta, klaro, gu baserrixan ohittutakuak gitzan danok, lau lagunok. Eta lehenengo juntau nintzarian lagunakin esan nontan: "Maritxu, nik hil hau kobrautakuan..." Hamabi duro geukan hillekua kobraitteko, ta hamabi duro asko zan orduan e! Zeatik hemen herrixan sei duro, zortzi... hola eukein kriadak. Ta han hamabi duro. Ta danok geukan igual, gaiñea. Ta juntau nitzan ta "Ba ni hil hau kobrautakuan ni etxea noia", ta "Ba neu be baita". "Nik ezin dot hor... Ez, ezin naiz ni hor bizi" ta zerian. Eta gero beste bixakin be juntau giñan, ta bat zan Zulatzakua, oso baserrikua, ardi-zain ta basorik baso ibiltten zana zan,"Ene...! [...] nere arditxuak zainttu eta zeian, ez, ez, neu be etxea". Laurok etxea etorteko geontzen. Baiña hamabi duro ikusi gittuanian esan geben: "Beste hillebete in ingo dou /ingou/, guk beste hillebete in ingo dou /ingou/", eta geatu giñan laurok bertantxe.  
 - Zenbat denpora?  
 - Eta gero ein gittuan zazpiña hillebete.

#### 7.49. Esnea diru-iturri

- **Hizlaria(k):** Txintxurreta Goenaga, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-085/019
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:44:13. **Bukatu:** 00:46:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
 Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua  
 Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera  
 Ekonomia eta industria » Industria motak » Gozogintza
- **Laburpena:** Esne salmenta zen diru-iturririk garrantzitsuena kale inguruan zeuden baserrientzat. Kaletik urrun zeudenek, berriz, ezin zuten egunero kalera etorri esnearekin. Igandetan, hamabostean behin, kobratzen zuten esnea. Senarra basoan jardun zen lanean harik eta Julian Marques "Juliantxo"k, txokolategira lanera joateko eskatu zion arte.

#### Transkripzioa

- Eta esne asko erute zeuen kalera?  
 - Bai, ba esne... Haxe izan zan baserriko zeak onena, "ayudaik" onena. Guretako ta hemen, hemen be bai, hemengo inguruetan be bai. Esnia. Ta esniakin ba domekan zeukan dirutxua. Eta hor Araoztik tta, Goimendittik tta, hurriñetik tta, ezin zian etorri...  
 - Urrintxo!  
 - Urrin! Ta haik inbidixia eukitten eben. Sarri esate nontan e: Zuek bai ondo. Zuek bai ondo. Hemen zapatuen eitten da zea...e...

- Kobratzia?  
 - Bai, e... Plazia, esate xakona merkaia.  
 - Bai, bai.  
 - Eta haik e etxian zeuen arrautzok, oilaskuok, eta ahal deuen dana ekarri, baina guk, esniakin...  
 -Egunero, egunero!  
 - Bai, egunero. Eta kintzenia, domekan, esniena, ha izaten zan onena. Defentsaik haundixena baserri, honeittako baserrixa? Haetxe, haik eta gizonak... Ba ne gizona ibili zan e... Lehenengo kuadrillatxua juntatte zian, Zabatzabalgo, Duruerriko ta zeakin, eta basuan. Eta gero basotik gelditu zanian hemen sortu zan Juliantxo, hau palaziu hau, orduan harena zan. Julian Marques, zea zan. Eta harek hemen baebillen eta, zea, Karlos Moiuakin, primuakin han, Karlosenak, eta zeatzen zan harekin e baebillen, eta eun baten esan otzan e: "Migel? Zer? Ta... Oain ezin haut ba euki nik hi. Julian etorri xatak eta derrior bihar hau heu. Etzeixat ze, baina begi onetik hartu hau bai!Ta fan ai. Zeatik guk obra asko xabillau horrekin bai? Eta ezin geike kontraik in! Eta pena hartze xuat baina haretxena fan biok. Bueno ba fango naiz." Ta halaxe geo txokolateixa fan zan. Ba berrota sei urtekin eo fan zan!Txokolateixa ne gizona. Eta kitto.

## 7.50. Ardiak eta ikatza

- **Hizlaria(k)**: Aiaitui Aiaitui, Bixenta
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-105/021
- **Iraupena**: 0:02:19. **Hasi**: 00:19:54. **Bukatu**: 00:22:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:  
 Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak  
 Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak  
 Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: 40 bat ardi izaten zituzten Koixkarren. Bi txerri. Bederatzi anai-arreba ziren, zaharrena hil eta gero. Eskolara joan gabe erraz geratzen ziren, ardizain ibiltzeko edo etxeko lanak egiteko. Ikazkinak. Pagoarekin egiten iren txondorrak. Ikatza saldu egiten zen. Senarrak egiten zuen.

### Transkripzioa

- Eta orduan, hiru behi ta idi paria eta gero ardixak eta?  
 - Berrogeiko bat ardi egoten zian Koixkarren, bai, hortxe, jira hortantxe, hemen gehitxuau, bai.  
 - Eta gero aparte, etxeko beste azienda txarri, behi ta oilo ta danetik.  
 - Bai, bi txarri. Ha izaten zan urteako alimentua, bi txarri. Famelixa haundixa geontzen .  
 - Zenbat, zenbat anae-arreba ziñain?  
 - Beatzi.  
 - Beatzi?  
 - Bai, hamar jaixo esaten daue, zaharrena hil zala, eta beratzi, bai beatzi ezautu geben, bueno, anaia hil zan lehenengo eta hogeta hamahiru urtekin hil zan, eta bai, aurrera jarraitu geben beatzik.  
 - Zela eukan izena amak?  
 - Justa.  
 - Justa?

- Bai.

- E, zuri tokau izan zatzun ba ittaurren in biharra edo haatik edo bestiatik eskolara ezin fan izatia?

- Bai, sarritan. Bueno, ta samur geraketan giñan gañea. Nik oin sarri esaten dot, gure gurasuak samur isten gindduela, ardixak zainttu bihar ziala ta, gaur ezin zekei eskolara fan ta hain gutxi faten giñan ba gero konforme etxian egoteko. Honeiri esan bihar eskolan, honi sobre todo eskolara fan barik geraketako, bueno.

- Baina txandaka ingo zebein ba hainbeste anae-arreban artian, betik ez zan bat geratuko, edo danok ez ziñain geratuko etxeko lanetan.

- Etxeko lanetan geraketan giñan, hori da haundixena.

- Baña anae-arreba danok?

- Bai, anai-arreba danok, etxeko lanetan. O zaharrenok fango zian iketzak ittera, iketza itten geuen, o baso-lanetara eo, ibiliko zian, baiña, neskaillak, gaztienak ardizain ta ganaua zainttu ta, ganaua etxera ekarri , nik uste dot samurrau geraketan giñala.

- Orduan, zure aitta ikazkiña be bazan?

- Bai, bai, iketza itten euen, bai.

- Eta nun itten euen? Zein basotan, zein medittan, gora? Araba aldera faten zian eo?

- Ez ez, bertan e, etxeko iketza, egurrak e, hemen pagua euen, pagua euen bastante. Kanpora ez euen urteten e, urabarrixan ta uraazkenian ba hiru bat txendor o lau bat txendor e aldiko itten zittuen.

- A, etxerako.

- Etxerako, ez, saltzeko.

- Saltzeko?

- Saltzeko, bai. Hemen, etxe hontakuak gehixau itten ebein. Baten basua zala, bestian basua zala, nere gizonak eta asko itten euen iketza, bai.

## 7.51. Karobiak

- **Hizlaria(k):** Aia Aia, Bixenta
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-105/022
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:22:13. **Bukatu:** 00:23:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Karobirik ez du martxan ezagutu. Senarrak bai, mutikoa zela. Sarramendin erre zen azkena.

### Transkripzioa

- Eta, karobixetan?

- Karobirik ez dot nik ezautu, ez. Karobixak badauz...

- Ez Koixkarren ta ez Askazubin?

- Karobixak badauz, baiña erreten ez dot nik ezautu. Ez, gurian gizonak esaten eben baietz beak ikusi ebela, hor dau karobixa, ta ikusi ebela, baiña nik ez.

- A, baiña bea umia zanian igual, ezta?

- Bai, bea mutikua zala eo, bai. Karobi ondora bea armosua aittai eruanda euela esaten eben, baiña nik neuk eztot ezautu hemen karobirik. Azkenengo-azkenengo Sarramendin erre zala, ni umia nitzala e, esan itten euein karobixa erreten ebitzela Sarramendin... baiña guk geuk ez. Eta

lehen baserri danetan itten euein e, bai bai, lehen baserri danetan.  
- Klaro, ba, soruan botateko ta letxabia eitteko ta arrautzak gordeteko ta..  
- Bai! arrautzak gorde orduan?! gero ikesi zan hori, arrautzak gordetia.  
- Nik neuk ez dot ezautu, baiña ni jaixo baiño lehentxuau ondiok itten zan.  
- Nik bai, nik ezautu dot bai. Baiña nik lehenengo kriada urten neben hori ikustera orduko, ta gero etxian ikusi neben.

### 7.52. Garia ehotzera Antzuolara

- **Hizlaria(k):** Aiastui Aiastui, Bixenta
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-105/027
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:30:23. **Bukatu:** 00:31:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko lanak » Garia  
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean  
Baserria » Baserriko lanak » Errota
- **Laburpena:** Estraperloarekin ez da akordatzen. Erlena zaldiarekin joaten ei zen Arabara. Beraiek gariarekin joaten ziren garia ehotzera, Antzuolara. Zerrategia zeukan. Kruz Azkarate.

#### Transkripzioa

- Eta zuek hamen estraperloik eta ez zebein itten Arabatik, garixa ekarteko ta?  
- Ez naiz ni akordaitten. Ta hemenguak be esaten euein zaldixak bai, Erlenak-eta eruaten euela zaldixak zera, Arabara fateko baiña ni neu ez naiz akordaitten. Gu estraperluan faten giñen garixa ixotera Antzuolara gabian. Hori bai akordaitten naiz.  
- Zein errotatara?  
- Hona etorri ezkerro be, Kruz. Zela eukan hak apelidua? Etxeberria? Kruz Etxeberria? Ahaztu xat..  
- Egon nitzan hango errota baten, beste izen bat dako. Herrixan ber-bertan dauena, han goittik sartu ta bertan, bertantxe dao [...] eskiñan. Zela esaten xaue?  
- Oin e... panadeixa ta pasteleixa ta danak uste dot eukala.  
- Hortxe.  
- Hor egon ziñen? Zerria eukan orduan, gure denporan, ta... Azkarate, Kruz Azkarate zan ha! Bai!

### 7.53. Neskametzatik baserriko lanetara

- **Hizlaria(k):** Aiastui Aiastui, Bixenta
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-105/033
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:34:59. **Bukatu:** 00:36:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua  
Lanbideak » Neskameak

- **Laburpena:** Etxenagusiatik etxera bueltatu zen, anaiak soldadu joan behar zuelako. Lan asko zegoen baserrian. Senarra fabrikara joan zen.

### Transkripzioa

- Osea, hamahirukin kriada fan ta hemezortzi arte, ta gero atzea etxera bueltau ziñan?
- Bai.
- Etxenagusittik etxera?
- Bai, Etxenagusittik etxera etorri nintzan, bai. Bai, ya aurretik be egon nintzan Bergaratik etorritta Etxenagusira fan artian, hil pare bat hiru baten egon nintzan etxian be, bai. Eta, gero, anaiak soldau fan bihar ebela ta etxera etorri nintzan, Etxenagusittik, bai. Orduan baserrixa, baserrixan lana, orduan bai lana itten zala baserrixan, bueno...!
- Zure aittak betik in dau lana baserrixan edo fabrikian be ibiltten zan?
- Betik. Ez, ez, betik. Hemen gizonak aurretik gure gurasuak danak, hementxe, bai. Ikatz puxketa bat in, urabarrixan ta uraazkenian ta bestela baserrixan, bai. Nere gizona ez, nere gizona fan zan fabrikara, bai.
- Oseake hemezortzi urte arte kriada ta gero ya atzera etxera.
- Bai.

## 7.54. Ikatz-sarea

- **Hizlaria(k):** Aia Aia, Bixenta
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-105/048
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:52:14. **Bukatu:** 00:53:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak  
Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- **Laburpena:** Ikatzaren hautsa kentzeko galbahea erabiltzen zen, ikatz-sarea. Burdinazkoa baino lehen, zumitzezkoa.

### Transkripzioa

- Iketza pasau itten zan, ezta? hautsa kentzeko, pasau itten zan zea, iketz-xehia, eta bea hala ikesitta euen. Galbahia burdiñezkua azken aldea, ezta, saria eukana, baiña zurez... zimintzezkoa eukanakin be ibilitta euen bea. Ta beak zimintzezkoa gura eben ittia baiña eskarria bueltan erredondua ezin geben etara geuk, eta banastagiñai edo horrek gauzok itten zittuenoi fan zan ba...
- Kuadraua?
- Kuadraua etara otsain! hor dau!
- Baiña galbahia kuadraua nun ikusi da ba?
- Kuadraua etara otsain! jeje
- Bueno, hori be da benetan museoko piezia.
- Etxera etorri ta barre itten eben. Eta bildots bat ainddu osten gaiñera, ta "bildotsa eruan in biharko dostet orduan", eta eruan osten bildots hori.
- Eta nok iñ eben? Zein banastagiñek?
- Ez dakit...

### 7.55. Aizkorak egiteko prozesua

- **Hizlaria(k):** Aizpeurrutia Etxeberria, Jenaro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arana, Iñaki - Oregi, Lide
- **Erref:** ONA-178/003
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:02:05. **Bukatu:** 00:03:38
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Arana, Iñaki
- **Gaia(k):**  
Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea  
Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak
- **Laburpena:** Aizkorak zelan egiten zituzten: prozesua, piezak.

#### Transkripzioa

- Eta aizkorak?

- Hamen inddako aixkoria da hauxe, honek besteik ez dauko pletina bat, buruan zabaleria, doblau ta erdixan sartu burdiñia masizua, hoi pegau ta geo erazten xako puntan galtzairua ta tiratu. Hau da buruan dakon pletinia, erdixan dakon burdiñia ta geo galtzairua, hiru pedazo. Materiala txarra zanian ta eukitten neben pasta bat, holako txokolate tabletian estilokua, baiña txiki-txikixak, hola materiala pegau ezindda ta ibildden zana harei ipintten notsan, baiña bestela normalian material ona izan ezkeru honek ez dau eukiko ezebe, ez, ez.

### 7.56. Aizkorak egiteko prozesua

- **Hizlaria(k):** Aizpeurrutia Etxeberria, Jenaro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arana, Iñaki - Oregi, Lide
- **Erref:** ONA-178/004
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:03:38. **Bukatu:** 00:06:22
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Arana, Iñaki
- **Gaia(k):**  
Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea  
Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak
- **Laburpena:** Aizkorak zelan egiten diren: prozesua, piezak.

### Transkripzioa

- Aixkoriai, pieza horrek bixak pegau ondoren, galtzairua jartzen jakon gaiñian?

- Galtzairua, galtzairuai itten xako, galtzairua pletinia da bigun-biguna, pletinia zabala, hari itteko albo bixak pittin bat tiratu, hauxe forma hauxe emun, hoi pegaitten zan hola aixkorian, baiña pletinia sartzen xakon burdiñiak, ta ha geaketen da txato, tiratu ez dau ein bihar harek, geatuko da hola sendo, ta hoi sendo geaketen danian hau sartzen da hor, gaiñian hola doblauta, bixak aparte berotu, eta berotuta ona ataratakuan hamen lenengo... taka-taka-taka jo heldu arte bakarrik, geo moztu, eta geo lenengo golpiak emon biha xako hamen. Tira, normalian, tira in biha xakon norberan aldera, ez deixen soltau atzea hau, haik eta ondo pegau arte. Lenengo aldrebes emon biha xako golpiak, honeik ezpanak pegau deixen, eta behin pegaitten danian ba geo haik eta aixkorian formia emun arte, haik eta luzetu arte. Ta geo ba, karo, haek ez dau urteten zean mouan, ta arreglau ba pedazua kenduta, ta gero azkenian ba desteran, ta geo zorroztu ta itten dozunian, geo tenplia.

### 7.57. Karobi batek izaten zuen lana

- **Hizlaria(k)**: Urzelai Biain, Andres
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Olañeta, Amaia - Urkiola, Argiñe
- **Erref**: ONA-179/005
- **Iraupena**: 0:00:42. **Hasi**: 00:04:10. **Bukatu**: 00:04:52
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:  
Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena**: Karobiak izaten zuen lana.

### Transkripzioa

- Basuetan eitten zien, ba, egurra nola egoten zan han, ta harrixa, ta harrixa be bihar da izan erako harrixa. Oseake, karobixai erre onduan ez da komeni ifinttia karia eitteko harrixa. Karia eitteko harrixa ifintten baldin badozu, bera funditten da! Oseake, bera erreten da. Ta behin karobixa eitten hasi ezkeron lan haundixa da karobi bat eittia; atxur hutsez ta esku hutsez ein bihar da. Arenarrixa da hobia.

- Beti da arenarrixa?

- Arenarrixa ez da erreten [...]

- Ez, baiña karobi guztietan dao arenarrixa edo egon leike beste materialen bat?

- Ba, egon leike puntetara edo zerera, berotasun gutxiao harrapaitten dabenera, baiña beheko erdixen, han behintzat bai.

### 7.58. Karobi bat egiteko eman behar ziren lehenengo urratsak

- **Hizlaria(k)**: Urzelai Biain, Andres
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Olañeta, Amaia - Urkiola, Argiñe
- **Erref**: ONA-179/006
- **Iraupena**: 0:01:02. **Hasi**: 00:04:52. **Bukatu**: 00:05:54
- **Multimedia**: audioa online entzungai



- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Non egiten ziren karobiak. Zuloa egin behar izaten zen lehenengo.

### Transkripzioa

- Karobixia bera eitteko lekua ze izaten zan, espeziala? Hau da, leku aproposa bihar zan...
- Ez, izaten zan terrenua normala. Terreno hortan eitten zan zulo bat goitik behera, erre ondoko zulo bat eitten zan. Eta hori... Ez [dao] urrin fan biharrik e! [...]
- Bai, baiña beti be, holan, lautada baten, ba, ezin, ez? Beti aprobetxatzen zan...
- Ez, hobe erripia. Zeatik badakizu? Azpittik egurra sua eittekoa sartu biher xako beheraotik, eta hortik hasitta badaukozu karobixa eitten, ba, hemen daukozu [ederkixao], gero "a punto" daukozu hortik zera sartzeko, sua eitteko egurra sartzeko.
- Eta gaiñeko partera be, bueno...
- Igual-igual heltzen da. Suabe-suabe... Bai, bai, bai.
- Ondo heltzeko moduan, ez?
- Bai, bai, bai, bai.
- Nik leku askotan ikusi dot bide gaintxuetan be bai. Bidetik hobeto kargaitteko izango zan ala harrixa hobeto kargaitteko ala...?
- Bai, bai. Harrixa kargaitteko baiño [...] hortarako, su-egurra eruan eta su-egurra tolestau, oseake, ifiñi inguruan, eitteko leku hobia bide-eskiñan edo bidian edo... Handik, ba, norberak emoteko.

## 7.59. Karobien inguruko kontuak

- **Hizlaria(k):** Urzelai Biain, Andres
- **Elkarrizketatzailea(k):** Olañeta, Amaia - Urkiola, Argiñe
- **Erref:** ONA-179/011
- **Iraupena:** 0:00:34. **Hasi:** 00:09:57. **Bukatu:** 00:10:31
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Behin karobia hustu eta gero, berriz kargatu zitekeen.

### Transkripzioa

- Eta esan dozu lehen, hiru tanda edo hiru bider edo eitten zala karobi bardiñian.
- A! Bai. Ba hor...
- Horrek hirurak eingo zien udaberri inguruen?
- Bai, bai. Karobixak behin... Behin karobixak behin deskargau ezkeru atzera kargaitteko gertu dao. Hurrengo ein bihar... Bai. [...] ezkeru ya bai. Zenbat eta aguruao hobe geiñera. Hurrengo ein bihar ebenak, ba, harrixa ekarritta euken, ezta? Ta harrixa ekarten eben ta ya behin deskargau ezkeru ez zan izaten egun asko. Zortzi egun pasatxo, hamar egun? [Nahiko zera] eukitten eben bakarrik, [karobixen okupauta egotiak].

## 7.60. Karobi klaseak; harri klaseak

- **Hizlaria(k)**: Urzelai Biain, Andres
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Olañeta, Amaia - Urkiola, Argiñe
- **Erref**: ONA-179/012
- **Iraupena**: 0:01:53. **Hasi**: 00:10:31. **Bukatu**: 00:12:24
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:  
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena**: Karobi mota desberdinak. Harri klasea kontutan izan behar da karobia egiterakoan.

### Transkripzioa

- Karia eitteko modu bat baiño gehixao ezautu dozu?
- Ez.
- Zuek zelan eitten ziñuen? Harrixa botata...?
- Bai.
- Harrixakin bakarrik, ezta?
- Bai.
- Egurrakin sekula ez dozu ezautu? Botata egurra, harrixa, egurra, harrixa...
- Ez.
- Holako karobirik hemen ez dao?
- Badia horreik, e!
- Kapetan, hola?
- Bai, bai. Horrek, badia hola, e! Bai. Eta [batek] orduan egoten ei dia, neuk ez dot ikusi, baiña, egoten ei dia behetik etaraten ta goitik sartzen harrixa. Hala egoten ei dia. Ikusi, ez dot nik ikusi,e!
- Hemen inguruan ez dao holakorik?
- Ez. Hemen ez da ein holako karobirik. Ez dou guk ezautu hemen.
- Ez?
- Ez, ez.
- Orduan, bakarrik harrixaz.
- Bai, bai. Harrixakin bakarrik. Harrixakin kargau... Harrixakin be kontuan euki bihar da, harri klasiak dao. Kareharrixak dia, baiña esaten xate hauts-harrixak, ta txarra hauts-harrixa tokeittia edo sartzeia. Ba, ezauketan dienak izaten dia arku hartzen-ta dabitzenak, harri klasia, eta haren kontu haundixa euki bihar da arku eitteko denporan, hori, halako harririk han ez sartzeia, zeatik karobixa erre baiño lehen, orduan hareik goriketan dienian, erre eitten die ta hautsa eitten die. Tokaitten dia hauts-harrixak, e! Haik hautsa eitten die! Haik ez dia [ezebe].
- Zelakuak die?
- Ba, kareharrixan antzekuak die, e? Antzeko harrixa da, hori be.
- Eta haustu eitten dia?
- Bai. Haustu eitten dia, ta arkuan baldin badao, hausten dia ta "brau!", e? Adios! Ha fan zan!
- Bai, ta orduen hori [kapelioi] behera, ez?
- Ha behera doia. Ta han [ezin leike behian] sua eitteko lekua tapatzen xako dana ta kitto!
- Ta zuek igarri eitten ziñuen koloriaaittik edo?
- Bai, harrixari bai. Ni ez nao neu arkurik hartzen ibilitta sekula; nere anaia bai.
- Anaia zein?
- Basarrixan daona.

## 7.61. Kareak ateratako hautsa zelan ateratzen zen

- **Hizlaria(k):** Urzelai Biain, Andres
- **Elkarrizketatzailea(k):** Olañeta, Amaia - Urkiola, Argiñe
- **Erref:** ONA-179/016
- **Iraupena:** 0:03:27. **Hasi:** 00:14:54. **Bukatu:** 00:18:21
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Hautsa zelan ateratzen zen.

### Transkripzioa

- Ez, hautsa...
- A! Hautsa etarateko?
- Egurra erre ahala, ha garbittu ein bihar zan, ezta?
- Baiña... konsumidu eitten dau, e? Ondo tiraketan daben karobixa baldin bada, e, oseake, tirua ona [hartzen] baldin badau, konsumidu eitten dau. [Nola] berotasun haundixa dan oso, eitten dau konsumidu, ta nahikua izaten da haga batekin, burdiñazko haga batekin, hola puskat astindu eta... Euki bihar dana da kontuan erreten dabillenan larrei golpera emun, hori aprendizak askok eitten daue, emun puska bat eta gero bokau bat eitteko edo bokadillua eitteko edo... Hori da oso txarra, zeatik juntaitten dozu han pillia, e? eta zela, hori... han kalderia hotziketan dozu eta ez dau inddar hori eukitten. Ha hotziketan danian, kosta eitten da gero. Aldiko pittin-pittin, aldiko pittina emunda bakarrik inddartu bihar dau gero, e? Hori aprendizak eitten dauen lana [da].
- Bai. Dana dala, bazeukan karobixak...
- Baiña hautsa etarateko lekua baeukan, e?
- Bai,. Zelakua zan?
- Zelakua zan? Ba, kañu bat izaten da. Oin tubuak sartu gotsan guk honi, [... honi].
- Barriztuta dao [...]?
- Bai. Baiña orduan ez euen tuboik! Orduan tubua karobixen zeraatik? Tuborik ez eben iñok pentsaitten erosterik eta dirurik, xentimorik be gastaitten. Ezta pentsau be ez! Eitten xakon kañua lurrian. Joten zan holako zanga bat, ezta? E? Ba! Tamaiño hontako zanga... Geiñetik egur batzuk [ebalten] zien, zohixak botaten zien han eta gero handik haga bateaz astinndu.
- Zohixa geiñetik tapaitteko?
- Bai. [...]
- Eta ze...? Hor pertsonia sartzen zan, hor barrutik?
- Ez, ez. Hondoraiño ez, e? hondoraiño ez.
- Baiña norbera sartzeko modukua zan orduan kañu hori?
- Ba, puskat bai sartuko zan, e? Baiña tirua hartzeko... Oin, berriz, [...]
- nahikua izaten da. Tubuak, hor daozen tubuak, tamaiño [modutako] zera dakoi hor sartuta daozenak. [...] Baiña nahikua izaten da, berak emuten xaon tiruakin astinketan badozu, "ffffuu", [bero dauela] berak eruaten dau.
- Bai, baiña dana dala, lehen hor kañu horretatik ze eitten zenduen? Tirua zan bakarrik ala hortik...
- Ez, ez, ez. Baita hagiakin be bai e!
- Baiña hautsa atara [bihar...] geiñetik?
- Etaraten ahalegiña eitten zan zerian, baiña ondo [bazoién] karobixa ez dau eukitzen nezesidade haundiik, e?

-Ta biharra egon ezkerro?  
 - Biharra egon ezkerro, ba, ahal zana etara ein biher. Handik.  
 - Erabiltzen ziñuen eskoban bat edo?  
 - Ez, ez, ez, ez. Eskobia... han bero dao oso. Eskobia sutu eitten da. Ba, palarra, ezta? Palar zaharren bat, puntan ifintten xakon haga horri. E? Etara, harik eta erre artien, e?  
 - Segi! Palarriaz?  
 - Bai.  
 - Zerakin, ikazkintzan eitten dan [antzerakuakin eitten zan]?  
 - Bai, esaktamente. Harekin puskan bat [...], baiña ondo dabillenan ez da bihar izaten, e!  
 - Karobixak berak lurra han laban, labia edo, egurra erretzen dan leku horretan, ipintzen zotsazuen halako burdiñaik edo zeozer gero hautsa azpittik atara ahal izateko ala ez?  
 - Ez, ez.  
 - Ez? Osea, hautsa eta egurra ez zeuan separauta, ez?  
 - Ez, ez, ez, ez. Hautsik bapez. Edo... esan deidan...  
 - Burdiñaik.  
 - Burdiñaik.  
 - Burdiñaik edo holako parrillaik edo ez, ez jakon ezer ipintzen.  
 - Ez, ez, ez, ez.

## 7.62. Karobiak behar zuen egurraren inguruko azalpenak

- **Hizlaria(k)**: Urzelai Biain, Andres
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Olañeta, Amaia - Urkiola, Argiñe
- **Erref**: ONA-179/019
- **Iraupena**: 0:02:47. **Hasi**: 00:24:59. **Bukatu**: 00:27:46
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:  
 Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak  
 Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea  
 Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- **Laburpena**: Narrak erabiltzen ziren egurra eramateko. Egur asko behar izaten zen. Zelako egurrak sartzen zituzten.

### Transkripzioa

- Eta, hori, lehen esan doune, zenbat egur, zenbat burdikada, pentsatzen ziñuen aurretik?  
 - Bai, jakiñian egoten dia, e? Bai, jakiñian egoten da.  
 - Eta zelan kalkulaten zan, burdikadaka? Edo zelan?  
 - Ba, narrak kontaitten zien. Narrak [...], ba, burdixak ebalteko, hor etxe-onduen daoz paraje... bide estuak. Eta izaten zien narrak.  
 - Narrak zer da, lera moduko batzuk?  
 - Bai. Ez, lera modukuak ez, eurekin eitten zan narrak. Oseake, pago, ba, besuen tamaiñokua, ezta? Holakua. Harek lakatzen bat eukiko eben, zerien, egokixenak ifiñi azpittik eta haren gaiñera pillaketan zan holako pillo bat. Lotu kataiaz, korredizuan hartu ta...  
 - Eurekin ein halako karro moduko bat... Eurekin...  
 - Bai, eurekin. Ta hareik eruaten zien karobi-ondo hortara.  
 - Baiña zerekin? Idixekin ala...?  
 - Behixekin.

- Behixekin...

- Idirik oso gutxi [zeukan hemen] orduan, karretero ibiltten zien batzuk besteik ez. Oso idi gutxi euen. Gero bai. Gero [... zien behixakin]. Behixekin eitten euen [horreik] lana. Behixek eitten eben lan hori. Uooooo! [Behi...]

- Eta holako zenbat? Ez dakit, ehun edo... zenbat? Ala ezin da kalkulau hori?

- Ez, ez, ez, bada. Ez dakit. Uste dot hirurogei nar ziela. Fijo-fijo esateko ez nao.

- Bai, hirurogei bat bai, ezta? Zenbat egur, e?

- Bai, bai. Ba, denpora asko bihar izaten zan. Ta luzeeria, ba, lau-bost metrokuak, e? Txaria izaten zan. [...] esaten zan, baiña ya tamaiño modu hontako sendaerakuak. Tamaiño modu hontako sendaeria be bakarrik ez da ona batzutan.

- Zer zian herri-basuak?

- Ez, partikularrak. Partikularrak. Herri-basuetan ez zan eitten. Ta holako sendua bakarrik danian, bai, berotasuna be botaten daue ta eitten da horrekin noixian behin, baiña pittin bat mehetxuauak hobeto zertzen xau. Aguruao hartu eitten [dau eze]. Sua hartu eitten dau, ba, e? Eta lehen esan dou ba, otia? Otiak... giro onian bihar, e? Giro onien dauen otiak gora su harek etara eraitten xao, zeatik eitten dau "bffuu!", sua bizixa eitten dau ta. Ta [harek] suak be karobixan alleau ein bihar dau gora danak erreko badia. Han su pittintxo bat eindra behian bakarrik [...] ez dia eitten.

### 7.63. Karobiaren egitura

- **Hizlaria(k)**: Urzelai Biain, Andres
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Olañeta, Amaia - Urkiola, Argiñe
- **Erref**: ONA-179/021
- **Iraupena**: 0:01:02. **Hasi**: 00:29:20. **Bukatu**: 00:30:22
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:  
Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena**: Karobiaren egitura. Harriak zelan ezartzen ziren karobia egiteko.

#### Transkripzioa

- Zelan eitten zan bobedia?

- Bobedia zela eitten zan? Ba, ez da erreza, e? Baiña eitten dabe. Hasten da harrixekin buelta danian, hor erredondo hortan; harri haundixak, lehelengotik ifiñi bihar dabe, dudarik barik. Bueltan-bueltan-bueltan-bueltan... harik eta atakian pareraiñoko hontan, hona artian ifintten dia harri haundixak. Gero harri haundi horrek kargaitten dia erdiz atzera beste harri batzugin, harri, oseake, borobillauak, ertzian ifintteko egokixak ez dien harrixak hairi kargau eitten xate ostian. Eta harri horren ostian pisu haundixaua nola [...] aurrian daukana baiño, berriz be aurrian ifintte xako aurrera datorren horri harriorri. Hurrengo harrixa ifintte xako...

### 7.64. Karobiaren egitura azaltzen du

- **Hizlaria(k)**: Urzelai Biain, Andres

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Olañeta, Amaia - Urkiola, Argiñe
- **Erref**: ONA-179/022
- **Iraupena**: 0:00:48. **Hasi**: 00:30:22. **Bukatu**: 00:31:10
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:  
Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena**: Karobiaren egitura.

### Transkripzioa

- Eta, arenarrixa kanpoko partia bakarrik, osea, karobixa bera zan arenarrixa, baiña bobedia ya... kareaitza.
- Bai, bai, bai, bai. Kareaitza. Dana, dana, dana kareaitza.
- Eta zelan amaitzen zan? Hori arkuori zelan amaitzen zan? Zerekin?
- Atzenian kiltzia sartzen xako.
- Zer sartzen jakon?
- Kiltzia...
- Kiltzia? Ba, arku bat zela da, ba, akabauta... Zuk ikusi dittuzu Oñatiko Unibersidadian makiña bat [...], ezta? Faten da eiñaz, eiñaz, eiñaz hemendik gora, ezta? Eiñaz, eiñaz, eiñaz, eiñaz, atzenian allegetan da bat bakarrik kabittera. Hor ifintten da bera kabitten, ez dana, ta preso geldiketan da.
- Kiltzarrixa.
- Kiltzarrixa esaten xako.
- Zeuk zela esaten dozu, kiltzia ala...?
- Kiltzarrixa.
- Kiltzarrixa esaten dozu?
- Bai.
- Ba, bixetara be igual, ezta?
- Bai, kiltzia. Haxe da [... gordeitten] dabena ta...

### 7.65. Karobiari sua eman

- **Hizlaria(k)**: Urzelai Biain, Andres
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Olañeta, Amaia - Urkiola, Argiñe
- **Erref**: ONA-179/033
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:43:27. **Bukatu**: 00:44:22
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:  
Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena**: Karobiari sua emateko zer erabiltzen zuten.

### Transkripzioa

- Sua emoteko zer erabiltzen ziñuen? Brasia edo eitten ziñuen kanpuan, edo zelan... lehelengo sua?
- Sua? Bai, ba, sua emuteko oso erreza izaten da pagua, hori, ainportutakua, erdi ustel... Ustela ez, eta ainporratutakua esaten xako. Ta gero illua eukitten dau paguak behin usteldutakuan illua eukitten dau ta ha illua sikua baldin bada, ez da ez ainporra eta ez egurra. E? Hor bixen bittartian dauen zer bat da. Hak sua segiduan hartzen dau. Ta berez gero inddartuaz, inddartuaz, inddartuaz, harek tirua eukitten dau behetik gora. Tximinixiak nola eukitten dau tirua? Igual-igual. Kabida harek. Ta han

bertan tirua nola dauen, berak [ein...].

- Ta lastua edo bedar sikua edo...?

- Ez, ez.

- Ez? Holakorik ez...?

- Ez. Ez da egoten horren zerik.

## 7.66. Karegintza

- **Hizlaria(k)**: Urzelai Biain, Andres
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Olañeta, Amaia - Urkiola, Argiñe
- **Erref**: ONA-179/035
- **Iraupena**: 0:02:32. **Hasi**: 00:46:02. **Bukatu**: 00:48:34
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:  
Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena**: Karea eginda zegoela zelan igartzen zuten.

### Transkripzioa

- Karia einda zeuala zelan igartzen zan?

- Karia einda euala igarten xako, ba, keia be ez dau botaten baltza.

Botaten dau ya bestelako... keia basuan urtetan daben lekukua eta gaiñian, harririk berak emuten dau sua eitten dabela. Sua egoten da, gaiñian sua, e? Garra egoten da, e! "Fi-fi-fi..."

- Hemen gaiñian, ezta, esaten dozu?

- Bai, hemen gaiñian.

- Eta zer da, beste kolore batekua?

- Bai.

- Hola urdinskia edo...?

- Bai, hola. Hola izaten da sua. "Fi-fi-fi-fi..." Hola [...]. Hau danau ez da eitten, e? Dan-dan-dana ez da [ingo hor], e, karia. Hemen gordiñak geldiketan dia. Haik e... Hor egoten dianak karobi eskiñetan hor daoz horrek ondio be. Karobi eskiña danetan daoz holakuak. Eurak ezaun dabe sutan egondakuak diena.

- Ondo erre baekuak?

- Ondo erre baekuak, bai.

- Horreri zeozelan, izenen bat edo badauke? Hori erre bako...

- Txondorrian illinttak dia, baiña... Honek gordiñak...

- Hemen ez... gordiñak?

- Gordiñak. Bai. Ta beste... lehen esan doun hauts-harririk, berriz, harek [deseindu] eitten die. Harek ez dia ezauketan. Honeik bai, honeik gordiñak die. Gordin geratutakuak.

- Eta iños pentsau dozu horrek harri pilluorrek, kanpora ikusten dan harri pilluorrek, muskar koloria hartzen dabela edo?

- Esaktamente. Bai.

- Bai?

- Bai.

- Holan esaten dozu?

- Bai. Hori, hori, hori bai.

- Ta ze kolore da hori?

- Muskarren koloria? Ba, berdía, berde-horiska... hola eitten da. Ba, muskerra.

- Ta holan ikusten da? Holako koloria ikusten jako berai harri pilluai?

- Bai! Erreten danian? Bai! Bai, bai, bai. Ta ya, ba, behin hori [erretutakuan], ba, su-egurra zela dauen ta baldin badao, ba, ordubete bat edo bi edo gehixaoatik, ba, igual eitten xako emun. Ta gero lehelenguan, ba, karobixak oso [zeharka], azpittik hola beittu arkuari ta dao harri-muturra han, han huekua, bestia... takarraua. Ta atzenian ya ikusten xako arkuia be, dana ikusten da liso-liso-liso, [...-tuta], lisotuta han daona gaztaia letz [ya ikusten da], liso-liso-liso. Ya eindda. Liso, "más bien" zuri ikusten da. Burdiñia be "a mil doscientos grados"-era beroketan danian zurittu eitten da, e, ez gorritu, ez hau gorrixau. Burdiñia be zurittu eitten da ta harrixa be bai.

- Harrixa be zurittu...

### 7.67. Karearen inguruko azalpenak

- **Hizlaria(k)**: Urzelai Biain, Andres
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Olañeta, Amaia - Urkiola, Argiñe
- **Erref**: ONA-179/037
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:49:12. **Bukatu**: 00:50:07
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:  
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena**: Karea nondik ateratzen da.

#### Transkripzioa

- Karia nundik ataratzen da?  
- E?  
- Nundik ataratzen da karia?  
- Karia goittik, hemen goittik. Hemen dauen karia be, hemen goittik etaraten da dana. Banastatxuak [...] eta pisua, saltzekua dana, han egoten da banasta bat, [...] pisua, leku fijuan ifinita. Sei arrua banastako izaten da.  
- Sei arrua?  
- Bai.  
- Ta gero berua egongo zan, ba, zera, banastara sartzeko...  
- Bai, bai, bai, bai. Eskuetan aguantaiteko baiño, askotan, beruauak egoten die. Baiña kanpora [etara orduko] hotzitzen da, e? Eskuekin [oraketan holan]... Oin, urak ikutu ta "fraa!" eitten baldin badau, ha berua izaten da orduan, e! Holako kare trosko bat etaraten dozu karobittik, ezta, ta eskuetan aguantau eitten dozu. Baiña hor itxi ta hor urak ikuketan baldin baxao ta "fraa!", orduan eitten dau, urak [ikuketan] xaonian, zertu eitten da, nasaittu edo apurtu. Ha orduan berua izaten da, e?

### 7.68. Baserrietako ohitura zaharrak

- **Hizlaria(k)**: Urzelai Biain, Andres
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Olañeta, Amaia - Urkiola, Argiñe
- **Erref**: ONA-179/042
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:55:31. **Bukatu**: 00:56:31
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane



- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua  
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak  
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- **Laburpena:** Ohitura zaharrak. Gabonetan baserrietan ardotan ogi koskorra sartzen zen.

### Transkripzioa

- Bai, hori izango zan... ez dakit, e? Baiña guk hori gabonetan eitten douna zan, lehenao gabonetan eitten zan. Ardauari sartzen xakon, ba, basarriko ogi mutur bat, koskorra izan zeilla, ezta? Ogi koskor bat. [Motxorra] ez, koskorra izango da hori! Zeuk esaten dozuna... E?
- Ta koskorra zer da? Hori sartzia...?
- Ba, holako ogi mutur bat.
- Ta nun sartzen zan?
- Eitten zan, brasatan beroketan zan, burduntzixan sartu eta puska bat baltzittu arte eitten [egon hori] ta sartzen xakon ardauari ta [...].
- Ardautan?
- Bai, pitxarkada bat ardautan.
- A! Pitxarrian...
- Pitxarrian ardautan sartzen zan ta gero puskaten tapauta euki ta gero eran eitten zan. Ta gero ha jan eitten zan.
- Ta horrek ze izen dauka?
- Horrek e... zela esaten xakon? Horrek izen bat eukan... Hori gabonetan [...] geuk be etxien.
- Bueno, bai, akordauko zara...

## 7.69. Karearen erabilera soroetan

- **Hizlaria(k):** Urzelai Biain, Andres
- **Elkarrizketatzailea(k):** Olañeta, Amaia - Urkiola, Argiñe
- **Erref:** ONA-179/045
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:57:54. **Bukatu:** 01:01:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak  
Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea  
Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- **Laburpena:** Zenbatero botatzen zitzaion karea lurrari. Urtero-urtero. Zelan botatzen zen. Lurra lantzeko tresnak.

### Transkripzioa

- Ta urtero edo bi urtetik behin ala noiz botatzen zan karia?
- Bota? Urtero. Bai, bai. Artuari edo [botatzen danian] urtero. Urte danetan.
- Eta zelan botatzen zan soluan?
- Hori, ba, guk sitsa nahasketan gontsan. Lehen esan douna, horrek, burdixa... sitsa [kargaitteko be] burdixa izaten zan, behixekin eruten zana, burdixan hondarrera botaten zan hola sits puska bat eta gero sartzen zan burdixa zerera, karia euan lekura eta handik edo paliakin edo [nahastiakin] handik hartu ta "ra!", "ra!" zeren gaiñera, burdixen gaiñera, sitsen gaiñera botatzen zan [haura]. Gero deskargaitteko denporan, gero hari be gaiñera botatzen xakon atzera sitsa, ezta? Gero deskargaitteko denporan bera

nahasketan da. Zuk hemendik puska bat [kaskua hola husten dozu pillara] ta ha entreke deskargaitten da, entrekete berriz [nahasten hasten da] bera nahikua nahasketan da. Sitsakin batera, sitsak zurittu eitten dau, ba! Sitsari berari nola pegau eitten xakon ba...

- Berton...

- Ez dako halako nahasketa partikularrik, masia eitteko areia ta porlanan moduan nahastu biharrik-eta ez dau eukitten.

- Bota bertan ta...

- Sitsa lehelengo bota ta gero erdixan kare puska bat bota, [... baten edo], eta gaiñetik sitsa berriz eta hori deskargaitteko denporan nahikua nahasketan da. Atxurra edo [...] eta deskargaitten da soluan ta harekin deskargaitten da. Ondo [...] da.

- Zerekin deskargatzen da sitsa?

- Atxurrakin edo ittuatxurrakin. [...] ta harekin deskargau orduko...

- Atxurra baiño gehixao erabiltzen ziñuen...

- Bai, ittuatxurra.

- Zelan?

- Ittuatxurra. Hori ein orduko, ba, nahikua nahastuta jarten zan, karia ta sitsa. Beste partikularreko zerik, nahasketarik, ez xakon eitten.

- Eta lurra? Lurrian bertan zelan nahasten zan? Zerekin? Ze erabiltzen ziñuen?

- Sardiakin zabaldu eitten zien. Burdittik soluan eitten zien holako pilluak.

E? Hola, ipiñi hor, ipiñi hor, hau be bai, hemen be bai... gero sisardia esaten da beste bat, harekin fan ta zabaldu.

## 7.70. Marragero eta zurda-sokak

- **Hizlaria(k)**: Alustiza Jauregi, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Isazelaia Igartua, Jaione
- **Erref**: ONA-181/002
- **Iraupena**: 0:02:08. **Hasi**: 00:00:22. **Bukatu**: 00:02:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:  
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena**: Marrageroak, mantak egiten zituzten kalamuarekin. Sokak kalamu eta ganaduaren zurdarekin egiten zituzten.

### Transkripzioa

-Marrageroen berri badezu?

-Marrageroak, marrageroak eta hauek ez daukate zer ikusirik.

-Mantagileak edo ziran, ez?

-Bai, baiña hoiek ziran beste... kalamuakin egingo zuten hoiek, seguraski. Marrageroak hemen ez dira azaltzen ezertarako. Liho gauzakin ez det uste ze ikusirik daukatenik marrageroak.

-Gerardok esan dost esateko, agertu zaiola berari XVIII. mendian edo XIX. mendian, marrageroak, ehuliak, hilanderak... ofiziotan holakoak.

-Baiño, ez ziran lanbide berdiñak izango. Lanbidea berdin xamarra zan, zeatik mantak egiteko're haria behar zuten. Baiño liho-haria ez det uste erabiltzen zutenik marrageroak. Marrageroak seguraski erabiliko zuten kalamua.

-Zuk ez duzu ezagutu edo entzun horren berri?

-Ez, marrageroik, nik dakitala, ez det ezagutu. Ez diot sekula... Nik erabili ditudan lekukoak, testiguak'e, sekula ez didate marragero konturik aipatu.

Ta mantak egiten zutenik ere ez. Egiten zituzten, gauza bastoak eta, lehen esan deten horrekin, mukarrarekin ta hola, ohian gainean jartzeko bai, maindireen gainean, izaran gainean jartzeko. Baiña mantarik ta hola ez, lihoarekin ez zuten egiten. Hori ia, asko behar zan hortarako. Nik uste det kalamua erabiliko zutela. Liño basto horrekin ere sokak egin zitezkeen; mukarrakin.

-Jaione Isazelaia: Ez dot uste. Sokak kalamuakin eta ganauan zurdiakin.

-Oaindio, gero hori, ehune eginda gero're, josi egin behar zan. Hori zan beste bat.

### 7.71. Ehuna kanatan neurtzen zuten

- **Hizlaria(k):** Alustiza Jauregi, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k):** Isazelaia Igartua, Jaione
- **Erref:** ONA-181/003
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:02:30. **Bukatu:** 00:05:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak  
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** 84 zentimetro zabalerako kanatan egiten zuten ehuna. Liho eta ehunarekiko esaerak. Ehun 'orriak' egiten zituzten eta gero elkarrekin josi puntada berezi batekin.

### Transkripzioa

-Jaione Isazelaia: Ehuna egiten zan kanako neurrixan, zabaleria?

-Julian Alustiza: Bai, kana.

-Jaione: Eta kanak, larogeita lau zentimetro dauzka?

-Julian: Toki guztietan ez det uste berdiña danik. Baiño bai, bai.

-Jaione: Eta kana erdiak? Ze kanaerdia ez dot aurkitu iñon.

-Julian: Kanaerdia, ba erdia izango da.

-Jaione: Bai? Dudan nago.

-Julian: Nik uste det baietz. Ez det oroitzen gauza garbiik. Baiño kanakoa izaten zen gehienetan hemen egiten zena, hemengo ehuleak egiten zutena. Eta kanako hainbeste; hainbeste diru edo hainbeste gari edo, eamaten zuten.

-Kana zer da, zabaleran?

-Julian: Zabaleria.

-Eta luzeran?

-Jaione: Luzeeria, ba, segun zenbat hari eruaten jakon ehuliei. Dana dala, aurrez jakite zebezen zenbat kana ertengo zotsen. Bueno, zabaleria zan, eta luzeeria be bai. Luzeeria be kanetan neurtzen zebezen.

-Julian: Eta horrekin ia bazekiten zenbait ordaindu behar zuten. Izarak ez dakit zenbat kana izango zuten; kana erdi, edo kana t'erdi? Izarak.

-Jaione: Zabaleria? Segun. Izaten zian orrixak, eta gero josi eitten zebezen. Bi orrikin, edo hiru, segun zenbat nahi izaten zan, ba, josi, tartian.

-Julian: Nik ezagutu nittuen izarak, behintzat, zabalak ziran, oso zabalak. Ohia ondo harrapatzen zuten. Haiek zenbait orri izango zituzten? hiru baiño gehiago behintzat. Ez dakit zenbat orrikoak izango ziren, baiño hirutik gora.

-Jaione: Puntada berezi batekin josten zebezen.

-Eta gero ez zan igartzen?

-Jaione: Ez, ez zan igartzen. Ez zan igartzen, ze aurretik ehuna ehuliak

eitten zaban ertzak ondo errematauta. Ehunan ertza ondo errematauta eoten zan, apropos gero hori eitteko. Hori egin ta erdixa ez zan igartzen.

### 7.72. Maiatzero etxeko ehuna garbitzen

- **Hizlaria(k):** Alustiza Jauregi, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k):** Isazelaia Igartua, Jaione
- **Erref:** ONA-181/004
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 00:05:10. **Bukatu:** 00:07:57
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Gero 'urratu' egiten zen ehuna, errekan jota. Urtero, maiatzean, etxeko ehun guztia garbitzen zen. Ehuleak tertulia ere maite zuten, kontulari ezagunak ekartzen zituztelarik batzuetan.

#### Transkripzioa

Gero, urratu, kostatzen zan urratzea, e. Errekan jo. Ta lehen esan deguna, izara hoiak askotan irauten zuten gizaldi batetik bestera. Baiño, hala ta guztiz'e, maiatzean urtero-urtero dena garbittu behar zan, erabiltzen ziren soiñekoak, ba, gehiagotan garbittu beharko zituzten. Baiño, izarak, erabiltzen ez zirenak ere, maiatzean urtero-urtero garbitzen ziren. Eta zenbait eta gehiago garbittu, eta orduan eta zuriagoa, eta orduan eta leunagoa. Oso estimatua zan oiha hori, ehuna. Horreatik esaten zuten, "ehunak, ehun lan", "ehun bihaleku". Edo beste toki batean esaten dute, "liñoaren nekeak, akaberarik gabeak". Baiño bazuen bere atsegiña, lehen esan deguna. Orduan ez zegoan ez irratirik, ez telebistarik ta ez ezer. Han biltzen ziren eta kontu-kontari. Batzuetan kontulari berexiak ere eramaten zituzten, orain eramaten dituzten bezela, orduan ere baziren auzoetan-eta kontulari berexiak, gizonezkon bat, edo emakumezkon bat, bereziak. Beste batzuek ere, edozeiñek ere orduan, kontuak kontatzen aparteko eskola zuten. Zeati hure eskola zan, eskola, lehendik zetorren eskola. Esaten dute "haiek ez zuten kulturarik". Ez zaukatela kulturaik? Guk baiño gehiago. Nik jakin nahi nuke haiek zeukaten kultura. Nere arrebai, esate baterako; nere arrebak euskara besteik ez du egin sekula bere bizitzan. Eduki dittudan, aurretik eduki dittudan maistrak oso onak izan dira, amonak oso ondo zekian euskara. Amak ere bai, Aretxabaleta batekoa zan, baiño oso ondo. Gero, gero ere, oain ezkontuta dagon etxe hortan, hango amonak ere oso ondo zekien, eta lanean ibillitakoa, gauza hauetan ibillitakoa eta kontatzen zizkian orduan erabiltzen zittuzten ipui batzuek, hemen azaltzen da bat, `Hamarrenak´ deritzana. Beno, ba, ipui hori bera, hori kontatu zidan neri, orain hogeta hamar urte edo gehio, berrogei urte edo.

### 7.73. Irule edo ehule

- **Hizlaria(k):** Alustiza Jauregi, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k):** Isazelaia Igartua, Jaione
- **Erref:** ONA-181/006
- **Iraupena:** 0:00:39. **Hasi:** 00:16:43. **Bukatu:** 00:17:22
- **Multimedia:** audioa online entzungai

- **Gaia(k):**  
Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Irulea eta ehulearen arteko bereizkuntzak.

### Transkripzioa

Gero, nola bereixi irulea ta ehulea, hortaz hitz egin deu. Iruleak haria egin egiten zuen. Haria egin. Ehuleak, berriz, hari hortaz baliaturik, oihala eiho edo eho, eho esaten dute toki batzuetan; hau da, ehun oihala moldatu ehuntegian. Hor dago aldea. Seguraski ehuleak haririk ez zuten berak sekula egingo, zetorren hariarekin gero oihala egin.

## 8. Politika

### 8.1. UGT Txurrukarenean

- **Hizlaria(k):** Lizarralde Galdos, Gregorio; Ugarte Moiuia, Alejo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Jerardo
- **Erref:** ONA-020/015
- **Iraupena:** 0:03:28. **Hasi:** 00:36:12. **Bukatu:** 00:39:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- **Laburpena:** Gerran hildako oñtiar batzuk. UGT zen sindikaturik indartsuena Oñatin. Centro Republicanoan lehenengo, eta Txurrukarenean gero, izan zuen UGTK bere lokala.

### Transkripzioa

- Zeatik Benitto gerran hil zan, ezta? Edo hil euen, vamos.

G: Bai, gerran garbittu euen, bai.

A: Gerra kanpuan, hor...

- Eta hori zer, afusillau in euein edo zela izan zan Benittona?

G: Bai, afusillau edo, Santander harrapo zanian, orduentxe.

A: Florentino, nere koiñatua.

G: Haren billa ibilli ziran eta gehixao etzan ezagutu.

A: Hor garbittu euen eta mediku batek hona Don Bixenteri edo abixau otsan. Nola garbittu zan hango garbittasuna zeari. Nere arrebia euen ume batekin hemen, eta gero, ba, umia neri itxi ta Bartzelonara fan bihar izan da. Oin Bartzelonan dago, "el día 26"ian operau zan begittik, arrebiari, ni baiño urte 2 eta erdi zaharraua.

- Hori zeñen arrebia?

A: Nere arrebia, Florentino Galdos "Pottero"-na.

- Potteroneko, zela zan hau, Kirriñenekuakin ezkondu zana..., haren anaia?

G: Zeiñekin?

- Kirriñekin.

A: Bai, Domingon anaia, batak urten eben alde batera eta bestiak bestera, eta bestia arrapo euenian, ba, garbittu.

- Satander inguruan?

G: Asturiasen.

- Asturiasen Oñatiar bat baiño gehixago garbittu euein, ezta?

A: Gu geratu giñan Puente Viesgotik erretiradia in geben guk urgentemente Santanderrera, barkuak han egozela eta barkuan sartzeko,

eta Santanderrera allau giñanian barkurik ez eta danok plaian han zertu giñan, errendiu giñan. Eta ahal ebenak fan Asturias aldera, bidia topau ebenak, ba, ezkutau ziran eta hareiri be beste hainbeste tokau xaten.

- Gero hau, Naparrenekua, ha be Asturiasen, ezta?

G: Asturiasen, bai.

- Eta aurretik, gero Oñatin, betik esanda Mondrauen eta egozela bastante Sozialistak eta UGTkuak eta inddar haundixa eukeilla, Oñatin hainbeste ez; Oñatin zenbateraiñoko, sindikatuak eta zenbateraiñoko inddarra eukan? Errepublika denporan eta?

G: Orduan inddar gutxi.

A: Gu zertu giñan UGTra ha zala orduan potentiena edo zera.

G: Bai ba!

A: Eta bestiak, berriz...

G: Orduan komunistarik eta ez euen. UGTkuak, hareik ziran komunistok edo, sozialistak.

- Sozialistak, bai. Eta Oñatin lokalik eta baeukan UGTk?

G: UGTk bai.

- Nun eukan lokala?

G: Lokala? Zentro Republikanuan, leheningo behintzat, eta gero, gero euki eben zerien be bai, hemen e, Txurrukenian, Txurrukenak be tabernia eukain. Madina.

- Baiña Atzeko Kalian ala plazan?

G: Atzeko Kalian.

- Oin Galizia dan lekuan?

G: Bai, hantxe bertan.

- Baiña han eukain Republikanuak, UGTk ala bixak?

G: UGTk.

- Eta nun, tabernan bertan ala pisan?

G: Beste piso bat.

- Pisan.

G: Piso baten.

- Eta han UGTk eukan zera.

G: Bai.

## 8.2. Oñatiko sindikatuak

- **Hizlaria(k):** Lizarralde Galdos, Gregorio; Ugarte Moiuia, Alejo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Jerardo
- **Erref:** ONA-020/016
- **Iraupena:** 0:03:47. **Hasi:** 00:39:40. **Bukatu:** 00:43:27
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**
  - Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak
  - Politika » Jarrera politikoak
- **Laburpena:** CNTrik ez zegoen Oñatin. UGT eta Solidarioak ziren bertako sindikatuak. UGTkoek urtean behin bandarekin egiten zuten martxa Oñatin zehar, larrosa gorriak zeramatzatela. Karlistek "Zirkuloan" zuten lokala; eta, kale berberean, parean zeuden Errepublikanoak.

### Transkripzioa

- CNTk baeukan hemen iñor, Anarkistak?

G: CNTrik ez.

- UGT eta Solidarixuak; beste sindikaturik baeuen, elizianak edo?

G: Ez dot uste. Horreitek bixak.

- Horreik bixak, ezta? Solidarixuak alde batetik eta UGT bestetik. Eta alkarren artian zer moduz konponkentan ziñain? Burruka asko egoten zan ala ez?

G: Beti be, beti be burruka batzuk egoten ziran baiña ez, zerik ez.

A: Bakoitzak berera eta libre. Ez dago zerik.

G: "Uno de Mayo" egunian UGTkuak manifestaziñua itten euein.

A: Ha urtero.

F: Oñatin be bai?

A: Eta, gaiñera, larrosa gorrixakin betik, Olabarretatik ni bakarrik izango nintzan bakarrik etorten nintzana, larrosa gorrixakin, eta musika bandak eukan gaiñera.

G: A, bai, bandia eukan.

A: Bandia formala.

- Bandia zeñek, Republikanuak?

A: Republikanuak eta bandiak, banderakin eta etorten giñan hor, Tetuan kaletik...

- Alejo, ze rekorrido itten zan gutxi gorabehera?

A: Ba Kale Zaharrera fan, ta Kale Zaharrian ba handik Estaziñorako bidetik edo, ez dakit orduan hala euen edo, bestekaldetik etorri, gero sartu behetik gora eta hemen Tetuan Kalera sartu eta Trianatik bueltan Bidaurreta aldera bueltia. Buelta dana itten geben, formal e? Formalidade danakin.

- Eta bandiak zer joten eben?

A: Bandiak, ba bere martxak eta, Aranguren eta...

G: Internazionala.

A: Geukan musikorik onenak, Gallarta anaiak, Arangunenak anaiak eta baitta Fruktuoso eta Aberasturi, bandia oso...

- Aranguren zeintzuk ziran? Txartestarren ingurukuak ala beste Aranguren batzuk ziran horreik? Ze Aranguren ziran?

A: Aranguren Txartes ez dakit, ez, sastia! Eugenio sastia.

- Eugenio bera edo haren anaia edo zein zan?

A: Bera be bai, bixak.

- Eugenio eta anaia.

A: Baziran 18-20ko bat, bai.

- Aberasturi zein, Treintan tartekua?

A: Treintan tartekua, Fruktuoso anaia.

G: Anaia afusillau in euein.

A: Eta turuta bat beste bat, bi anai hareik be.

G: Bai, bi anae. Oinddiok bestia bizi da.

A: Ointxe hil xako andria.

- Zenbat banda ziran orduan Oñatin? Karlistak be baeukain gero bandia?

G: Bai, Karlistak be bai.

A: Baitta, ha euen zerian, lehen Guardia Zibil etxia euen aurrekaldian, hor zera, Plazatik "Banco de Santanderretik" faten da Santa Mariñara?

- Bai.

A: Hantxe leheningo etxia eskumatara.

- Zirkulua?

A: Bai, eta gu bestekaldian Republikanuak berriz.

- Han kalian bertan?

A: Bertan.

- Nun, hor Perosterena etxia dan inguru horretan edo?

G: Bai, hantxe onduan, honutzaoko etxian uste dot.

F: Gasiosak egon zan lekua?

G: Zentro Republikanua.

- Txapak gaseosa...

A: Bai. Haren frentian dauena.

G: Harutzao, harutzaokua.

A: Karlistena eta berriz haren illaran, kaletik bestekaldera dauena, goiko zerian, han Republikanuak.

- Han parian dago, Joxe Mari Kirru eta Txapa eta honeik bizi ziran etxia eta gero hurringua, Perosterena eta honeina. Eta zein zan, Perosterena ala Kirruna, Republikanua?

G: Ez, Perosterena.

### 8.3. 'Centro Republicano'a

- **Hizlaria(k)**: Lizarralde Galdos, Gregorio; Ugarte Moia, Alejo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Jerardo
- **Erref**: ONA-020/017
- **Iraupena**: 0:02:31. **Hasi**: 00:43:27. **Bukatu**: 00:45:58
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  - Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak
  - Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublikak
  - Politika » Gerra aurea » 1923-1931: Primo de Rivera
- **Laburpena**: Centro Republicanoa zegoen etxe berean eduki zuen Pio Elazarrek taberna. Centro Republicanora dantzara-eta asko joaten ziren.

#### Transkripzioa

A: Txintxurreta bizi zan han. Txintxurreta esaten otsain.

- Txintxurreta ostian dau. Han Zerrajeraneko zerian, Txintxurreta andriaren aldetik.

G: Perosterenaren andria da Txintxurreta.

- Hori da, bai, bai, andria Txintxurreta. Gero han Pio Elazarrek euki eben han tabernia ez?

G: Tabernia euki eben harek.

- Baiña nun, Republikanuen Zentruan ala beria?

A: Beria.

G: Republikanuen Zentruan uste dot, behian.

- Behian, eta bera goixan? Baiña berak jaten eta emuten eben, ez?

G: Bai.

- (...)

A: Guk e, orduan segiru faten giñan, bailetara ta zerien, hasta tanguak be ikasi gittuan ta. Hori Patxin arreba bixak, oin bisittaitten (di)ttut nik; Maria, elegante itten ebena tanguan, Gloria eta horreik ziren lagun haundixak.

- Haitzekuak?

A: Haitzekuak bai, Haitzekuak. Eta bestia Gloria berriz, oin semia Madrillen edo ez dakit nun dakon.

G: Zeiñek?

A: Gloria, Gloria, ez dakik Gloria, kantuan ederki itten ebena? Apellidua ez dakit zela dan. Billarren andria. Oiarzabal. Hori gerrako denporan hemen geratu zan eta gero Billarrekin ezkondu zan.

G: Gloria ez zuan hemen geratu.

A: Ezetz? Zela ez? Hemen ez zuan geratu? Sevillan bizi izan zuan ba.

G: Etorri ta gero edo.



A: Bueno, gu gerratik etorri eta gero behintzat zerien ba, harekin ezkondu zuan ta.

- Eta zera, hemen asko igarri zan hor Republika hasten da, horreik kontu guztiok dana dala izango dira Primo de Riveran denporan eta ez halakorik, ezta? Hori ya Republika hasi eta gero, ezta? Izango ziren ya sindikatuok eta...

G: A, bai, bai.

- Primo de Riveran denporan hori dana, hori debekauta egongo zan, ezta?

A: Bai, lotuta.

G: Ba ixilixan, jentia baebillen baiña ixilixan.

#### 8.4. Gerra susmorik ez

- **Hizlaria(k)**: Lizarralde Galdos, Gregorio; Ugarte Moia, Alejo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Jerardo
- **Erref**: ONA-020/018
- **Iraupena**: 0:03:07. **Hasi**: 00:45:58. **Bukatu**: 00:49:05
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  - Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
  - Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- **Laburpena**: 1931ko hauteskundeetan gorriekiko beldurra piztu zen. 1936ko otsailekoetan, berriz, Fronte Popularra nagusitu zen. Hala ere, gerra susmorik ez zegoen Oñatin.

#### Transkripzioa

A: Hemen Republika etorri zan garaixan, 31an, leheningo botaziñua zertu zan eta gu giñan Bixaingo lau anaiak eta beste... gaztiok, eta ordu bixak inguruan bota geben guk eta gero zer, gaiñian nola geratu ziran, leheningo esan nontan lagunak, mahaixan euen batek, koño, sustau in zirala, gorritakuak urten euela baiña gero ez zala hainbeste agertu horregatiok.

- Oseake gaiñekuak gorrixak eta gero azpixon zurixok.

Fernando Lizarralde: Mahaiko egongo ziñain eta, mahaiko?

A: Ez, mahaiko ez, artian holako kargurik ez giñaukan. Baiña gero ideak manifestaitten gittuan, bakoitzak berak.

- Zuek akordaitten zarai hor Aiuntamentuan egon zan halako tirabira bat; batetik nik irakurritta dakot Karlistak erretirau in ziran momentu batian, gero alkatia eta konzejal batzuk bota in zittuein ez dakit zer gorabehera egon zalako eta ya 36xan Frente Popularra datorrenian... Zer akordaitten zarai orduko gorabeherakin?

A: Ni egon nintzan Aiuntamentuan baiña orduko konturik ez dakot zerik.

- Hor egon ziran, ba, batetik alkatia Martxel zan, ezta? Edo Jabier esan gura neben alkatia, Upain, Zelaia, ezta? Baiña momentu batian bota itten daue, kendu itten daue kargutik, ba, Estatutuakin hor gorabeheran bat egon zalako. Ez zarai akordaitten zerakin?

A: Ez. Ha bera gero operaziñuakin Donostira eruan euen eta zertu in zan, hori hil zan "el año cuarenta" edo.

- Bai, baiña gerria akabo eta gero eta Ameriketatik bueltia in ta gero, ezta? Ameriketara fan zan ta... Edozein modutan Frente Popularrak 36xan irabazten dau, ez? Zera, febreruan elekziñuak, orduan hemen ez zan igarri gauza haundirik ala bai?

G: Ez.

- 36xan, febreruan e? Zergatik gero orduan nik uste dot lehengo Aiuntamentua bueltau itten dala eta gutxi gorabehera lehengo moduan jarraiketan dau, baiña gero, gerria hasten danian, aurreko urtetan zerbait igarri zan ala ez? Oseake "dieciocho de julio" baiño hiru-lau-bost egun lehenao zuek gauza rarorik igarri zeuen ala... Calvo Sotelo hil ondoren eta...

G: Guk aurreko egunian, arteraiño ez.

A: Gu UGTkuok danok zertu giñan, orduan armatan jarri giñan, aittu? Eta puestua zainketan.

- Aurrerako egunian esaten dot, aurreko egunetan, ala... zurrumurrurik beuen edo...

G+A: Ez, ez, ez.

- Eta zuk esan dozuna, noiz jarri ziñain pittin bat alerta; hemeretzixan, hogeixan, edo...

A: Segittuan.

### 8.5. Patruilak herrian

- **Hizlaria(k)**: Lizarralde Galdos, Gregorio; Ugarte Moiuia, Alejo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Jerardo
- **Erref**: ONA-020/019
- **Iraupena**: 0:02:29. **Hasi**: 00:49:05. **Bukatu**: 00:51:34
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- **Laburpena**: Uztailaren 17ra arte ez zuten gerra girorik nabaritu. Armatutako patruilak jarri zituzten herrian zehar zelatatzen. Karlistek ez zuten batere lagundu.

### Transkripzioa

G: Ya 17xan zeozer zertu geben.

A: Leheningo eskopetakin.

- Afrikako kontuak entzun zebeñian eta...

G: Bai, hori da.

A: Leheningo eskopetakin, harik eta metralletak allau arte.

- Hemen bertan, herrixan?

A: Bai, herrixan.

- Zer erabaki hartu ziran orduan? Patrullak edo zer itten zeuen?

A: bai. Bi edo 3 lagun edo zerien, puesto bakoitzian.

- Zein lekutan?

A: Ni Bidaurretako Kurtze Baltzian be egonda nago eta Aiuntamentuan be bai eskillaratan goixan. Harako Urbixan edo Mikeletiak harrapo zittuaiñian be eta etorri ziranian Bixaingua eta Mikeletiak gu han geontzen. Bi lagun uste dot, leheningo mallak igo eta han frentian, ba, iñori ez heltzeko edo?

Eta nola ezagutu giñan ba Mikeletiori ekarri geben eta gero Mikeletiori etxera bialdu zan; jente ona, badakitzu? Eta gero, hanka! Gabian hanka!

G: Karlistak ez euen mobimientorik in, ezebez hareik. Guk lehenengo egunetik urten geben.

A: Onegixak, onegixak! "Demasiau buenos"! Fede txarrik euki ez!

- Eta hori zenbat egunian egon zan hala, duda hori edo? Aiuntamentuak hartu eben erabakin bat ala hor batzorden bat egin zan, juntan bat egin zan?; ya 18ttik aurrera esan gura dot.

A: Orduan zan ba, Gomendio eta hau Naparreneko, nola zuan izena?

G: Anjel.

A: Eta honeik ziran, eta beste bat, militar bat Kafekuan euen, militarra, eta horreik ziran erabagitten euenok eta Aiuntamentuan, eta gu berriz, gaiñetikuok, UGTko karguak geukenok, nik be 50 bat euki nittuan UGTian Legazpin, Zentruan eta zerian.

- Legazpin be egon ziñan.

A: Legazpin bai, lana itten nebenian. Papelerakuak eta 50 bat zerien, neuk itten nosten zer dana hareiri.

- Zuek lanian eta bardin jarraitu zeuen? Legazpira zu lanera faten ziñan leheningo egunetan?

A: Leheningo egunetan bai. Baiña eztakit ba, Legazpikuak be Urbixan egonda, Kurtze Baltzen geratu giñan eta "Koño, Alejo, zu hemen?" esan nostain neri eta oin Elorza hil da, baiña hareik Urbixara edo fan ziran.

- Eta zuk Gregorio, Fundiziñuan lanian jarraitu zeuein?

G: Ez.

## 8.6. Guardiak eta presoak

- **Hizlaria(k)**: Lizarralde Galdos, Gregorio; Ugarte Moiuia, Alejo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Jerardo
- **Erref**: ONA-020/020
- **Iraupena**: 0:03:47. **Hasi**: 00:51:34. **Bukatu**: 00:55:21
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena**: Herri barruko leku askotan egoten ziren guardiak egiten. Baita Urbian ere. Urbiatik Araiara joan, bertako idazkaria atxilotu eta Oñatira ekarri zuten. Oñatiko Unibertsitatetik preso batzuek ihes egin zuten.

### Transkripzioa

- Eta zer egon zan? Huelgia egon zan? Zer erabagi zan orduan?

G: Bai, huelgia edo. Ez dakit nik zer, behintzat ez gintzan fan lanera.

- Orduan hor bi hillabete izango ziran nehiko dudakuak, ez? Badatozela... ez datozela...

G: Batzuk Bidaurretan, beste batzuk Sta Mariñan, beste batzuk plazan, guardiak.

- Gorutz? Arantzazu aldera edo Urbixara edo fan ziñain?

A: Ni ez nintzan fan Arantzazu aldera.

G: Urbixan egonda gagoz gu.

- Zera, zainketan?

G: Bai.

- Eta zer itten zeuen, guardiak?

G: Guardiak.

- Zenbat ordu edo zenbat egun edo ze itten zeuen?

G: Guk bastante denpora in geben han. Handik Araixako sekretarixua be geuk ekarri geben.

-A! Araixako zera?

G: Bai, harutz fan giñan gau baten, fan giñan...

- Urbixatik Araixara?

G: Gabian, telefonuak eta danak apurtu eta fan giñan, justuan arrapo

geben zeori. Eta beste bat...

- Baiña zuzenian bere billa ala?

G: Bai, bai, bere billa.

- Eta ze zan, ezaguna edo destakaua zan sekretarixuori?

G: Bai ba, bertako herrikuak geurekin egozen, hareik handik Urbixara etorritta. Hareik esanda, ha eta beste bat, medikua-edo. Ha ez geben harrapau.

- Eta orduan etxetik atara zeuen?

G: Bai, bere etxetik, baiña guk ondo tratau geben. Gero gerria akabo zanian kristonak ipintten euen, baiña...

- Bizirik urten eben gero berak, sekretarixuak?

G: Bai, kartoi gaiñian ekarri geben kabaillo gañian, zapatillakin ta euen ta, eta hamarretakua eta dana emun gotsan, guk ondo zertu geben, baiña gero, jolin.

A: Ordiazkuak.

G: Bai.

- Eta gero hareik nora ekarri zeuein, Oñatira, kalera?

G: Oñatira, Aiuntamentura.

- Horreik nun egon ziran preso?

G: Horreik? Unibersidadian.

- Gero hor egon zan ba Unibersidadetik halako ihesaldiren bat be?

G: Fugia, fugia! Ihes in euein, horixe!

- Baiña honek, Araixakuak ez.

G: Araixakua artian etorri barik euen.

- Bai? Baiña hori... Bai? Araixakua noiz izan zan, ba, ze egunetan izan zan?

G: Ba ez dakit ze egunetan zan. Hori ez dakit.

- Hori bastante berandu izan zan, fugiarena. Hori ez zan izan setienbrian leheningo astian-edo? Arantzazuko Ama Birjiñaren eguna edo ez zan izan halako fetxa seiñalaun bat uste dot izan zala.

G: Ez dakit.

- Baiña danak ez ziran fan orduan, ezta? Unibersidadian egozen presuak danak ez zeuen alde in.

G: Ez, danak ez zebein alde.

- Zer, gaztienak edo, atrebiduenak ziranak edo...?

A: Nikolas Arregi eta horreik.

- Hortik, Arantzazutik edo nundik fan ziran horreik?

G: Horreik zeratik uste dot fan zirala, hor errekatik, Barrenzelain, han zubixa? Zubittik uste dot fan zirala.

- Errekan behera fan.

G: Kanpo Santu aldera, handik.

## 8.7. Alejok presoak libratu zituenekoa

- **Hizlaria(k)**: Lizarralde Galdos, Gregorio; Ugarte Moiuia, Alejo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Jerardo
- **Erref**: ONA-020/021
- **Iraupena**: 0:04:02. **Hasi**: 00:55:21. **Bukatu**: 00:59:23
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- **Laburpena**: Beraiek presoak ondo tratatzen zituztela diote. Alejok berak, -UGTn agintea zuen orduan-, bi Olabarrietar atera eragin zituen herriko espetxetik.

## Transkripzioa

A: Pentsa eizu, horreik zenbateraiñokuak izan diran; guk ez dogu balixo izan palabra txar bat iñori zertzeko, ez belarrondoko bat emuteko eta Erle eta nola "un poco" biolentuak ziran esaten notsan Erleri "kuidao gero, e?", hemen ejenplua emun bi(har) xuagu bai, eta hemen ez ezer in, eta... Neri zer pasau xatan esan leke? Neri?

-Bai.

A: Ba horreik bi behintzat neuk salbau nittuan, aittu? Kulparik ez eukeiñak. Bat, armakin ibilli zirala, ez dakit nun ibilli zirala eta Olabarretako Fernanduenian, eta Fernandon etxera fan ziran eta ez zittuein topau, armak han egon bihar euein ba ez zittuein topau, baiña nik banekixen nola hango gizona basuan zan eta ezeren zerik ez eukana eta anaiari esan notsan, Legazpira fan kotxiakin eta hi etorri hari, anaia larri xabillei eta halaxe Don Bixente medikuakin eta osasun gutxikua zala eta gaiñera nola gekixen geuk ezertan interbeniu ez ebena, ba libre itxi geben, aittu? Beste bat, berriz, Olabarretako orduan Aiuntamentuan euen edo zera zan, Zelabarrengo Esteban, edadekua.

-Konzejala?

A: Konzejala izan bihar zan, bai. Ha, Txoriñenera etorri nintzan sarri eta Txoriñeko Triñikin orduan nik zer haundixa neukan eta Triñik negarrez esan nontan: "zu, Zelabarrengo Esteban be zertu daue, baiña zeatik?" "Zeatik ez dakit ba", neuk zerien, baiña neu Olabarretakua eta neri kasorik in barik, oseake neu UGTian ia jefe moduan egon eta kasorik in barik, e, gizona zertu? Eta Txoriñeko gizonari esan notsan: "Kendu bizarra". Illunkarako bederatzixak aldera illunduta euen eta bizarra kendu eta aittak, Triñin aittak, oso zera zan, ha be deretxakua eta nerbiosua baiña, harek esaten nontan: "Hi haizen mutilla izanik, koño, alde horretako jentiakin zela trataitten dok?" esaten nontan.

-Horreik nunguak ziran, Meltxiorrenak edo nunguak ziran horreik, Olajanguak, edo?

A: Zeintzuk?

-Trini eta honeik?

A: Triñi, Meltxiorrena gizona, nere laguna, ezkondu zan gero harekin.

-Eurak nunguak ziran izatez horreik, Trini ta?

A: Meltxiurrenak, gizona. Triñi ta, bera Txoriñekua bertakua, barberixia eukana, zuek ez zeuen ezagutu, oin bizikletak badagoz ba? Haxe.

-Baiña Olabarretakin zerikusiren bat ez eukein horreik?

A: Olabarretakin ezkondu in zan, ezkondu nere lagunakin. Eta orduan esan notsan: "Bueno, kendu bizarra eta bizarra kendu eta segittuan fango naiz Aiuntamentura". Aiuntamentura fan nintzan eta egozen bi, Gomendio eta Anjel Iturmendi, eta "Anjel, hi, ze pasaitten dok, hori deteniu in dozuela, eta zer pasaitten dok horrekin? Zer, juntan batzuk ingo (di)ittuela, eta... Tira, tira, tira, neu desakreditau besterik ez naizue in, garixa be ebateko xakok, andria eta bixak xagozak bakarrik, aittu? Eta hori ez dok zera, horregatik bakarrik bada, hori gizona kanpora urten bihar xok".

"Oin behintzet, illunduta ta"... "Ez, ez, bixar hamarretarako egon daila etxian", aginddu nosten -orduan geuk be aginttaria geukan, e?-,

"Hamarretarako etxian egon daila". Eta, halaxe, huringo egunian, aitta eta bixok burdixa ifiñi eta ganauakin Maizteisorora, Zelabarretetik pasau bihar geben eta ikusi neben Maria iturririk etorrela, andriori, eta itxain, mailla bi egozen eta mailla bi hareittan; bixan bittartian aitta bialdu eta etorriko naiz segittuan, itxain eta Maria negarrez hasi xatan eta, "Maria, ez in negarrik, e -esan notsan-. Hamarretarako etxera etorten ez bada, abixau

neri, neu fan eta ekarriko dot". Pentsa eizu gu zelakuak giñan, e?, gizonak. Eta halaxe gizona etxera zertu zan, etorri zan, bai.

### 8.8. Kartzelan gutuna jaso zueneko

- **Hizlaria(k)**: Lizarralde Galdos, Gregorio; Ugarte Moiuia, Alejo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Jerardo
- **Erref**: ONA-020/022
- **Iraupena**: 0:01:09. **Hasi**: 00:59:23. **Bukatu**: 01:00:32
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- **Laburpena**: Alejok kartzelan zegoela eskutitza jaso zuen. Hiru urte eta erdi espetxeratuta egon ondoren, salatzaileak dena barkatzen ziola esaten zion. Alejok eta Gregoriok diote beste bandokoek ez zutela eurek bezain zintzo eta duin jokatu.

#### Transkripzioa

A: Gero Fernandueneko Nikaxio, Fernandueneko anaia nola zan, eta nire lagun haundixa, ba nik zeran sekretarixuari zerian, kartzelan, zertu eragin notsan, etara eragin notsan, zeñekin zera zeuen, eta ikusi ninttuan, horreik bixak bixak neuk librau nittuanen izenak. A bai? Eta abixau nontan Legazpira, ze pasau xatan sekretarixuak zela agertu nontan eta danak. Eta horrek, Nikolas Arregik in eben gero karta bat esanaz ba gorrixakin instigauta neuela bai, baiña dana barkaketan nostala eta zer, eta hiru urte ta erdi indda kartzelan indda orduko, e? Eta karta bat in nontan, eta nere anaia berriz fan zan bestiana, eta "Zuk badakitzu, ba, gure anaiak zuri ze in otsun, e? Zure kartzelara fan, eta ha etxera ekarri eta zu jakiñian zagoz horreik danak". "Bai, horreik hola dittuk, baiña gu beste modu batera gabitzak!", eta artian be harek ez nontan zertu eta artian be etorri nintzan, kartzelatik urten neben artian be, baiña honeik ez dirala gure modukuak izan!

G: Keba!

### 8.9. Herria babesteko plangintza

- **Hizlaria(k)**: Lizarralde Galdos, Gregorio; Ugarte Moiuia, Alejo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Jerardo
- **Erref**: ONA-020/023
- **Iraupena**: 0:02:11. **Hasi**: 01:00:32. **Bukatu**: 01:02:43
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerrako administrazioa
- **Laburpena**: Frente Popularrekoek komitea eratu zuten. Udaletxean Xegundo Milikua, Markel eta Anjel Iturbe (Roxendoren anaia) ibili ziren herria babesteko lanak antolatzen. Jose Miel Gomendio Frente Popularrekoa zen eta epaile izan zen gerra denborako Eusko Jaurlaritzan.

### Transkripzioa

-Hor, bi hillabete horreittan, esan dozu Anjel Iturmendi eta Gomendio Joxe Miel izango zan, ezta?

A: Joxe Miel, bestia ez euen zera, beste militarra ez euen orduan, Kafekua.

-Eta hortik aparte hor, komite moduko bat edo etzan in? Frente Popularrekokuak ez euen in?

A: Bai, Martinez ta, Garzia ta.

-Eta Aiuntamentuan zeintzuk pittin bat bideratu euein pittin bat orduan asuntua? Ba, herrixen defensia edo izango zan edo, organizaziñua eta...

G: Milikua, Xegundo.

-Xegundo ibilli zan?

G: Horreik ziran zerok, orduan aginketan eueiñok Aiuntamentuan.

-Markel ibilli zan?

G: Baita Markel be.

-Nik Markel entzunda dakot komitian partidu guztietako jentia sartu zala eta zeretik, PNVtik Markel juan ete zan; Markel gaztia izango zan oinddiok, klaro. Markel zuek baiño gaztiagua.

G: Bai, bai, ni baiño gaztiagua.

-Oin nik Markeleri berari entzunda eta zera, han, organizatoria Anjel zala, Iturmendi.

A: Iturmendi, Iturmendi, gizona jatorra gaiñera, jatorra.

Fernando Lizarralde: Zein dok Iturmendi?

-Roxendon anaia, gero gerran akabo ebeiña. Ha zala organizadorerik... maixua zan, ezta?

G: Bai, Mondrauen euen maixu.

-Eta ha zala gehitxuen e... Ha zer zan, sozialistia ezta, ha be?

A: Bai, sozialistia, Frente Popularrekua.

-Eta Joxe Miel zer zan?

G: Republikanua.

-Republikanua? Baiña zer zan Azañan partidukua, ala bestela, radikala edo...?

A: Ez, ez, gorrixa, gorrixa, ha gorritakua. Frente Popularrekua.

G: Harek mittiñak eta dana itten eben.

A: Fuertia gaiñera, Gomendio.

-Eta presentau zan diputatarako edo elekziñotan edo presentau zan?

A: Juez egon zan ha Gobierno Vascon, juez egon zan.

- Bilbon?

G: Bai, Bilbon.

### 8.10. Udanatik Elorriona

- **Hizlaria(k)**: Lizarralde Galdos, Gregorio; Ugarte Moia, Alejo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Jerardo
- **Erref**: ONA-020/024
- **Iraupena**: 0:04:23. **Hasi**: 01:02:43. **Bukatu**: 01:07:06
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Alejo Udanako frontetik Aurreko Mendira joan zen, eta handik Torrerraino jaitsi. Herriko plazara heldu zirenean, gauez, plazan inor ez, eta handik Zubillagara abiatu ziren. Liñon tabernan zer edo zer hartu eta Arrasatera. Gero Arrasate eta Elorrio inguruetan ibili ziren.

## Transkripzioa

-Hor bi hillabete horreik pasau ondoren, zerok militarrok sartu ziranian zuek Oñatin ziñain edo ordurako aldeta, edo?

A: Guk frentian.

G: Guk alde in geben, guk alde geben, hor Udanan zertzen, gu Udanara fan giñan frente egittera.

-Zenbat fan ziñain gutxi gorabehera Udanara?

A: Berrogeikon bat bai. Guk espaldara hartu geben, espaldara gu goixa altura hartzera. Eta han tiroteua hasi zanian guk ezkerreko aldeko puntia hartu geben porsiakaso, altura.

-Nun, Udana gaiñian?

A: Gaiñian, kamiñotik ezkerre, alturiarik haundixenian.

-Nun, hor, Illuntzia aldera edo?

A: Bai, eta gero in geben hango zerak zertu ziranian, korriu geben dana, Satui Kurtzera, Imittolan edo bazkaldu, hurringo goiko hor beste mendira fan giñan, eta goittik, mendittik ezer ez gekixen eta bajau giñan ixa Torreraíño.

-Goiko mendira nora?

A: Aurreko Mendira, Koroso aldera.

-Azalgatetik edo?

A: Bai, alde hortatik, nik gutxi dakit horko barri, baiña hortik goittik fan giñan gu tontorrik tontor eta bajau giñan Torrera, ezereen notiziarik ez, zer euen, eta kuadrillia, Torrera. Torrian, bueno, bajau, aldiko pare bat edo bialketan ginttuan eta ez ziran etorten. Holaxe. Eta azkenian geratu giñan hiru-lau bat, eta bueno, fan in biharko xuagu.

-Zuek Torrian oinndiok, ezta? Eta Torrian ya banaka batzuk geldittu ziñain?

A: Banaka batzuk goittik behera. Bialketan gittuan giak, behian zer euen, eta etorten ez, eta azkeningo hiru-laurok etorri giñan batera eta plazia dana argittan, dana argi danak ixututa eta iñobez! Santa Ana aldera etorri giñan.

-Ya illunkaran, gabaz?

A: Bai, gabian, danak aldeta! Santa Ana aldera etorri giñan eta, "bueno, hemen ez jagok beste zerik, biaje in biharko xuagu", eta metralletakin jarri, bik handikaldian Txaketuaren aldian eta bestiak bestekaldian, porsiakaso bentanetan edo iñork urteten baeben, eta metralletakin goittik behera fan giñan.

-Hori zer ordutan?

A: Ba gabeko 11ak, 11 eta erdixak inguru hartan. Eta fan giñan Zubillagaraiño holaxe eta Zubillagan, tabernarixa, nola eukan be berak izena, tabernia, Zubillagako tabernia zera...

-Liño?

A: Liño! Eta Liñok emun oskun han, eta kobrau gura ez! Zer kobrau? Dirua badago eta pagau gotsan eta handik behera fan giñan gu.

-Hori 20xa ala 21a zan?

A: Horixe fetxia ez neuke esango.

-Sartu zan eguna, ala...?

A: Bai, sartu zan eguna.

-Zer ordutan sartu ziran, gabaz sartu ziran?

G: Bai, gabian horreik.

A: Gabian sartuko ziran, guk urten in geben gabian, gabeko 11 eta erdixak inguruan urten geben eta gero hortik Mondraue aldera fan eta gu Elorrixora eruan gindduan konorte barik ixa, aittu? Nun geontzen ez gekixela, eta han egun pare baten edo hiru bat zertu giñan, ospittala edo zer zan eta han euki gindduein eta puska bat espabilau giñanian, ene! Atzera antxintxika Mondrauera etorri giñan.



-Mondraueraiño?

A: Bai, Mondrauera etorri giñan.

-Baiña Mondraue ordurako... Baiña Mondrauera ala Kanpazar aldera? Herriraiño?

A: Ez, Mondraueraiño, eta Mondrauen oinndiok zera zan, nerekin bat, Ertzilgua edo, hemen hil zuan, ba, gero etorritta? Orduan geukan ya fusillak, aittu? Metralletak itxitta fusillak geukan; eta Aiuntamentu azpitan, "Hi, zera, pasauko gaittuk, Alejo? Pasauko gaittuk hor?" "Nola pasau? Ze esaten dok? Tira, tira, tira." Eta hala desagertu zan eta hona pasau zan eta segittuan afusilau euen, eta guk han segiu geben, eta handik gero Elorrixora bittartian, nik ez jakiat zela, gu desegittuta, gu totalmente geratu giñan..., lorik in barik, ezertarako gauza ez giñala eta Elorrixon akordaitten naiz nola, kargua hartu oskun, zerian, ze ospittala zan edo zer zan eta atzera etorri giñan Mondrauera.

### 8.11. Urbiatik Udanara

- **Hizlaria(k)**: Lizarralde Galdos, Gregorio; Ugarte Moiuia, Alejo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Jerardo
- **Erref**: ONA-020/025
- **Iraupena**: 0:04:12. **Hasi**: 01:07:06. **Bukatu**: 01:11:18
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
  - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
  - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Gregoriok Alejoren antzeko ibilbidea izan zuen. Urbian egon zen. Urbian berekin egondako Korta baserriko bat, gerora, kanpandorrean harrapatu zuten. "Korta" gero Udanan hil zuten.

### Transkripzioa

-Eta zu, Gregorio, zuri nun tokau xatzun, Oñatin sartu ziranian zu nun ziñan? Zu be Udanan, ala...?

G: Gu, ba, gu be honein moduan, gu be zera fan giñan Udanara eta Udanan hasi zuan tiroteuori.

-Zein lekutan izan zan gutxi gorabehera tiroteua?

A: Udana gain-gaiñan.

-Gaiñan?

A: Pasiano hil euen.

-Tio zan ha, Mariarekin ezkondata, aittaren arrebiakin.

A: Zure parientia orduan?

-Tio zan.

G: Gu zera fan giñan, horruz, Koroso aldera.

-Zuek be hortik Koroso aldera?

A: Orduan nerekin hitzan hi, Imittolan ez dakik nola bazkaitten arrautza pare bana nola jan geben?

G: Ez jakixat neu akordaitten nauken.

-Ba bai, zuek inguruan. Hareik ya kamiñuan behera eta zuek mendiz etorri ziñain orduan. Baiña ez ziran orduan sartu berihela, oseake orduan hareik pittin bat geldik egon ziran Udanan?

G: Bai, bai.

-Geldik.

G: Gero honeik Treinta eta honeik, honeik be zera fan ziuzan, plazara

ziuzan. Treinta zerakin fan zuan, hau e, Nerkiakin fan zuan.

-Dendakua?

G: Dendakua, dendakuak aittak han tela azpitan dirua itxi, 30.000 pezeta edo, dirua, eta joiño, haxe aber hartzen dogun eta, fan ittuizan eta orduentxe goittik behera (e)j xatozaken zerak, Reketiok, eta atzera behera hareik.

-Hori dana illunkaran edo gabaz?

G: Gabaz, gabaz, hamaikak edo hamabixak edo.

-Kanpantorreko historixaren bat be badago, baten bat han kanpantorrian bijilaitten egoten zan edo arioplanuairi begira edo, hori zela izaten zan, ba? Zuek ez dakozue...?

A+G: Ez dakit ezebez.

-Eta gero han egondakon baten batek... preso hartu eueilla edo, hori ez dakozue entzunda, ez?

G: Preso sartu ebeña, kanpantorrian harrapo ebeña zera zuan, hau, e...

A: Oñatikua?

G: Oñatikua bai, bai, baserrikua, filarmonikia jotzen xuan.

A: Txopeko zera?

G: Ez.

A: Zubillagakua?

G: Ez, mekauden hau burua, hau. Korta!!

A: Korta, Korta!!

-Korta baserrikua, Larrañakua?

G: Bai, Larrañakua.

A: Udanan hil euen gero.

G: Korta itxi ta, Mendiko Kalia bizi ziran. Ha xuan kanpantorrian, nik ez jakixat nola etorritta, Oñatira etorritta, kanpantorrian harrapau xuain ha. Eta gero han hil xuein, gero Udanan edo.

A: Udanan gero.

-Eta kanpantorrian zer euen, zainketan edo handik tiroka, edo...?

G: Bai ba, ha... tiroka, ez dakit tirorik bota eben edo.

-Baiña begira behintzet, zainketan.

G: Ha zainketan. Gu ordurako Zubillagara fanda. Ha, bakarrik. Ha egon zan gurekin batera zerien, Urbixan, guk Urbixan hillabete edo in geben, eta ondo e, oso ondo.

-Nun, txaboletan? Edo nun egoten ziñain?

G: Itxaboletan ez, Fondan! Jolin! Jan ta eran!

-Gero baiño hobeto, ez?

G: Hori bai!

## 8.12. Tirtzaile ona

- **Hizlaria(k)**: Lizarralde Galdos, Gregorio; Ugarte Moiuia, Alejo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Jerardo
- **Erref**: ONA-020/027
- **Iraupena**: 0:04:03. **Hasi**: 01:14:03. **Bukatu**: 01:18:06
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Bai tiroan eta bai fortifikazioak egiten ona omen zen Alejo. Bilboko Burdinazko Gerrikoa ikustera ere joan zen. Elgetako frontean, hegazkinen kontrako borroka gogorra izan zuten. Villarrealen ere egon ziren frontean.

## Transkripzioa

-Baiña hori hasieran oinndiok, ez? Hori hasieran, urrixan, oktubre kontua izango da, ezta? 36xan oinndiok, Oñatittik fan eta handik hamabost egunera edo hiru bat astera?

A: Gerotxuago.

-Baiña gabon aurretik.

A: Abanzia hasi euen zerien bai, eta...

-Baiña Abanzia izan zan hurringo urtian, izan zan 37ko apirilliaren leheninguan, batian, handik hor geldik egon zan, ba, bost hillabete edo egon zan geldik.

A: Ba, orduan, gero etorri ziranian abanzian gu geontzen fortifikauta. Estado Mayorrak felizitau in nindduan ni, hiru lekutan behintzat, ideak neukan ta, ba, fortifikaziñuak itteko zerian.

-Elgetan?

A: Elgetan, hau zer hau, Plazaola, eibartarra Joxe eta Txaketua ez jakiat ez zan bestia, eta gu konpaiña, konpaiña ez, sekziño bat geontzen frentian aurreratuta, abanzadilla, eta abanzadilla nola geontzen, atzera botaten zittuein kaiñonazuak, patata zuluak letxe danak indda, eta harek salbau gindduan, eta guk oinndiok behetik gora Bergara aldetik bai...

-Uberatik?

A: Nik instruziñuak emunda neukan: "Bueno, parian dauenari ez zertu, aldamenetakuairi zertu, pagostetik pagoste bai, aldamenetakuairi tiratu". Ni oso tiradore ona nintzan, Sarasketa eta danairi kenduta neukan tiroplatuak. Fortifikaziñuak itten ta, ba, artia neukan eta hiru lekutan zertu nindduain, felizitau nindduain. Eta bialdu nindduain, gaiñera, gero, zera, Bilboko zera ikustera, aittu? Garaikoetxeak inddakua, bialdu nindduein bai, eta "que estaba fatal". "Todo lo contrario" esan nosten nik hareiri.

-Goikoetxea.

A: Goikoetxea edo Garaikoetxea, bai.

-Burdiñazko gerrikuori, zintturoiori.

A: Eta "todo lo contrario" euela, "todo lo contrario", zerian, han euela, fortifikaziñuak indda. Eta hala gero ni, ba filtrau ziela zeretik, hor Aramaixo aldetik edo filtrau ziela aurrera bai, eta erretiradia, eta mekauden, negar eta danak in gittuan, e? "Erretirau? Fazistia xatok, baiña! Erretirau zela, baiña?" Eta guk gura geben "frente a frente" hilttia, ez hola. Azkenian Elgeta aldera, Elgetara pasau giñan eta handik Eibar aldera eta gero erretiradia horkua zertu zan, eta hor, hiru egunetan etorri ziran abionak, baiña laister akordau ziren, e? Dale! Muturrera, muturrera! Eta akordau ziran hanka itten hasi ziran zerien, abionak etorri eta bonbardeaitten han, Bergaran hori, e? Bergarako abanzian, hiru egunetan, eta bittan edo laiñuak edo zertu zan eta gero erretiraitteko zertu oskuein guri. Eta gu berriz, ba hortxe hiltteko konforme, koiño! "A luchar"! Arrazoia xakuagu bai eta hiltteko zer hori, hiltteko.

A: Azkenian, zer pasau xatan badakitze Elorrixon nenguela? Bueno, hori esatia be, kasi-kasi. Baiña esan nostain lagunak, horixe bistia! Hik, Nafarreten akordaitten haiz? Desbandadia euenian, hik, nola esan nontan: "Alejo, hemen, hemen eta hemen". Honek nola ekixen nik ondo tiraketan nebena, eta han desbandadan, baiña nik ezin, eguzkixakin ta ezin zertu! Aittu? Nafarreten eurak goittik behera, baiña gero bai, gero ametrailadoria betik ixilketan neben nik, aittu? Ametrailadoria betik ixilldu!

-Orduan Villarrealen be egon ziñain.

A: Villarrealen be bai. Villarrealen e...

-Nafarrete aittatu dozunien...

A: Villarrealen gu goittik behera jaitsi giñen, aittu? Eta bertara eurak egozen lekura. Eta gero atzera erretirau in bihar izan geben zerien.

-Hori ze izan zan, abenduan ezta? Ointxe...  
A: Ez dakit noiz. Bai, alkarrekin gintzuan zerian...  
-Egun honeittantxe hirurogeta bat urte.  
G: Bai, bai, egun honeitxek.  
-Hirurogeta bat urte ointxe, bai.

### 8.13. Urtegia gudu-zelaian

- **Hizlaria(k):** Lizarralde Galdos, Gregorio; Ugarte Moiuia, Alejo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Jerardo
- **Erref:** ONA-021/002
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:00:23. **Bukatu:** 00:03:12
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- **Laburpena:** Arabako frontean, 15 egun inguruan borrokatu ziren, Legutien eta Nafarreten. UHT batailoiko hirugarren konpainiarekin egon ziren; Alejo "tiradore" egon zen. Urte asko pasa ondoren, bere familiarekin itzuli zen Arabako lurralde horretara. Urteen poderioz, oso aldatuta aurkitu zituen parajeok. Urtegi berria eraiki dute beraiek borrokatu ziren lurretan.

#### Transkripzioa

Orduan, giñan uste dot ya Bixkaira pasauta eta Bixkaiko frenteko eta Araban be egon ziñain, ezta? Villarrealgo eta Nafarreten. Nafarreten be gogorra egongo zan, ezta?

A-Hareik goiko mendittik jaitsi ziran elizara, Nafarreteko beheko elizara eta gu frentian, Elosun gu, guk handik ametralladoria ixilketan geben betik.

-Zenbat egun egon ziñain Araban?

A-Ez dakit han zenbat egun ingo gittun guk.

G-Astebete baiño gehixago ingo giñuan bai.

A-Hamabost bat egun bai.

-Eguraldi txarra, ezta?

A-Ni barruan egon nintzan, nik barruan zulo txiki bat indda neukan paretan, zulo txiki txiki bat eta behian, gero hau Biko, Treinta eta Merkel, hirurak.

-Zenbat ziñain zuek? Zuen batailloia zein zan?

G-UHP

A-Tercera Compañia; eta ekarri nostain muniziño kajia, eurak fusillak betik kargauta, nik tiraketan. Eta neri esaten nostain orduan, etorten ziranak, nun da? 'Han elizako bentania ezkerreko edo eskumako markuan hogei zentrimetuan jo', eta da! Tiraketan neben eta han urtetan eben keiak, aittu?

-Nafarreten.

A-Bai, gero hurringo, erdixan! Guk ametralladoria betik ixilketan geben.

-Egun zara harrezkero Nafarreten?

A-Bertara neu ez naiz fan baiña Barrenkuraiño bai, nundik fan, etxeuakin.

-Oin abandonauta dago.

A-Abandonauta dago bai, hala esan nostain.

-Hor pantanua in zan, eta Urrunaga bai...

A-Hantxe ixa larogei urteko gizon batekin egon nintzan konbertzaziñuan, Bizkaitarra-edo bera zan; eta sartu giñan eta ez gekixen ba biderik be eta

aurrera fan giñan, Karlos-ta, etxeuok, famelixia, nik gura geu egondako lekura, ta neu egondako lekura [...] eske ... ez gara allau!  
 -Hor sasue haretan eta geruago be Elosun, Urrunaga eta Nafarreten euskeraz itten zan onddiok inguru horretan, Araba izan arren hori inguruori, hor euskaldunak baziran.  
 A-Neri euskalduna suertau xatan ba gizona, bertan euenan, preguntaittera fan nitzan kotxetik jaitsitta eta...  
 -Han, Elusun?  
 A-Ez, honutzaugoko herritxo baten zan. Gura neben nik, betik gura izan dot, lagunakin fatia, bertan egon giñanakin.  
 -Oin oso aldatuta dago, pantanua dago han.  
 A-Bai, esan nostan harek abandonauta eguela herrixori.

#### 8.14. Okela erre usaina Gernikan

- **Hizlaria(k)**: Lizarralde Galdos, Gregorio; Ugarte Moiuia, Alejo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Jerardo
- **Erref**: ONA-021/003
- **Iraupena**: 0:02:53. **Hasi**: 00:03:12. **Bukatu**: 00:06:05
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
 Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Intxorta eta Elgetako fronteak jausi zirenean, Elorrion geratu ziren. Gernika bonbardatu zutenean, Alejo ez zen handik urrun. Iluntzean, Gernikara sartu ziren eta oraindik gogoan du bertako okela errearen usaina. Amorebieta inguruan, "Pinar de la Muerten" borrokan ari zirela, atzera egiteko agindua jaso zuten.

#### Transkripzioa

-Eta gero ya hor Intxortako eta Elgetako frentiori jausten danian zuek norutz jotzen dozue? Gernika aldera, edo Durangora edo nora jo zeuein?  
 A- Gu gero giñan zeran...  
 G- Elorrixon egon gintzan gu.  
 A-Elorrixon, baiña gero nundik erretirau gintzuan gu zera? Indautxuko kolejixora, eskolatara? Formaitteko, danak, batailloia formaitteko. Eta neri Aldabek esan nostan: "zu beste batailloi batera fan bihar dozu", (...) eta nik gura ez iñora faterik; Garzia Hernandez kapitaiñak zertu nindduan ni "por edificaciones que había hecho" (...). Baiña nik tiraketan gura eta gero zer pasau zan? Hantxe geontzela frentia zerekua, eta organizaitteko danak egozela, atzera frentera fan giñan Gernika atakau euenian eta gu kamionakin geontzela (...) Amorebieta baiño lehen egon giñan gu arbola pehetan, aittu? Kamionak eta ifiñitta eta dan, dan!, bonbardeaitten Gernika eta gero sartu giñan illuntzaria baiño aurtxuan, geratu ziranian, sartu giñan danok Gernikara eta Gernikan usain bat bai! Okelaerre usain bat!  
 -Sutan ikusi zeuen zuek?  
 A-Bai, sutan, eta handik gero ...  
 -Zuk be bai.  
 G-Bai.  
 A-Han Erreterria esaten xauen, zer bat dago barrenian, pasua, kostakua, eta handik pasau eta gero "Pinar de la Muerte"ra fan giñan, frentera, eta Pinar de la Muerten ...  
 -Zer zan hori, Pinar de la Muerte?

A-Aldameneko piñudi bat.

-Gernika inguruan?

A-Gernikatik honutz, hemendikaldera.

-Lekeitixo aldera ala Amorebieta aldera?

G-Amorebieta aldera.

-Eta zeatik eukan izen hori, lehendik eukan izena, ala ...?

A-Gerran ipiñitta eukan. Hareik, gu sartu bai, eta danok banakauta

etzindda, aurrera piñudixan bai eta hareik bota piñua bai, eta piñu haren

puntiarean azpixon egonda nago ni, aittu? (...) Azkenian erretiradia etorri

zan behintzet, erretiraitteko aginttia eta hankatatik tiradia eta, zein da?,

hanketatik tira in eta, hi! Erretiraitteko; eta zela baiña? Ez geukan! Bonbak

eta danak eskuan, bota besterik ez geukan e? Akabaitteko bertan, eta ixa

piñu baten diferentzia besterik ez euen, piñua botatakuan, zera, puntara

allegau eta... erretirau in bihar izan geben handik.

### 8.15. "Evacuar" hitzaren esanahia ezin ulertu

- **Hizlaria(k)**: Lizarralde Galdos, Gregorio; Ugarte Moiuia, Alejo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Jerardo
- **Erref**: ONA-021/004
- **Iraupena**: 0:03:44. **Hasi**: 00:06:05. **Bukatu**: 00:09:49
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Bizkargin ere borrokatu ziren. Bertan, jende asko hil zen. Atzera egitea oso gogorra izan zen; Gregoriok bere bizia arriskuan ikusi zuen. Erdara ez jakiteagatik, askotan gertatutako pasadizo bat kontatzen du.

### Transkripzioa

-Nora fan ziñain? Bizkargin ibilli ziñain?

A-Ez Gernikara fan...horixe! Bizkargin neu ibilli nintzan aurrenengo, ez da esatiarren baiña azkenengo erretiradia esango dotsut nola zan, pasau geben errekoa, Gernikara pasau barik, Amorebieta aldera dauen errekoa pasau eta bestekaldera, eta honako ametrailadorakin, honako senzillu zer batzuk eukein, italianuak edo ez dakit zer ziran, tiraketan ametrailadoriakin, eta guk hartu geben bide zer bat, eta bide zeretik eta ba alto ingo osten, eta hala igo geben gero Bizkargira eta Bizkargira fan giñan handiko puntara, Bilbo aldeko puntara eta Bilbo aldeko puntatik, eurak iegozen han, eta gero honutz etorri bihar izan giñan, hemendikaldeko puntara, frentera, eta Calles, hau Oñatiko hau, Callesek: "hi Alejo! Bertan geratu biharko xuagu!", "Bertan geratu?", "Rekoño, horixe dok ederra!". Eta bertaraiño aillegau ziranian, erretiradia emun euen eta fuera, eta Calles han geratu zan.

-Bertan?

A- Bai. Gero, Goittik behera eurak tiroka eta nik pasau dudan raturik txarrena zuan eurak tiroka eta behian iñora fan ezin, estamangutik jodiuta konpletamente eta ezindda beheko zerakin. Eta handik gero behera zertu giñan, erretirau giñan.

-Zu be han inguruan ziñan?

G-Han Bizkargin guk in geben erretiradia...

A-Fatala!

G-Kaiñonazua eta... !!

A-Albo bittatik.

G-Jo ta ke kaiñonazuak, hementxe garbittu bihar xuagu!

-Jente asko hil zan Bizkargin be, ezta? Alde bixetatik.

G-Bai.

A-Calles han geratu zuan orduan, eta itxuria ez otsain, ez euen garbittu, ha be erretirauko zuan.

-Zein zan zuen jefia orduan? Batailloiko buru eta zeifiek itten eben?

G-Ba orduan, ez zuan Xegundo Martinez?

-Xegundo Martinez izango zan? Baiña zer gradu eukitten eben?

A-Tenientia.

G-Eta kapitana egittia gura geben guk. Danak, e?

A-Balientia zan mutilla, mutilla sanua eta... Martinez, bihar dan modukua.

G-Guri Akostan badakik zer pasau xakun?

A-Nun?

-Akostan, Araban, Nafarrete onduan.

G-Bai, Akostan gazaken gu, eta etorri xakok partia zeari, kapitanari, Aldabe edo nola zuan ha, bergarakuori?

A-Etxain, etxain. Ez... (...)

G-Bueno, etorri xakuan partia kapitanari eta koiño, ifintten xuan ba “que hay que evacuar”, eta ez jakixan zer zan “evacuar”, “evacuar” “que hay que evacuar”, erretiradia.

-Erderaz jakin ez.

G- Eta bagiñaukan guk bat erdelduna, ez jakixat, ez nauk akordaitten oin haren izena, zaharra gaiñera, e? Zaharretakua. Eta, “oye, si ese dize que hay que evacuar y ¿que quiere dezir eso?”, “Pues que tenemos que marchar de aquí”, “bueno pues, ¡hala, vamos!”. Eta halaxe fan gintzuan. Bestela hantxe gu!

## 8.16. Bilbotik Puente Viesgora

- **Hizlaria(k)**: Lizarralde Galdos, Gregorio; Ugarte Moiuia, Alejo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Jerardo
- **Erref**: ONA-021/005
- **Iraupena**: 0:02:31. **Hasi**: 00:09:49. **Bukatu**: 00:12:20
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Bizkargin egon ondoren, Bilbo jausi zenean, Santander aldeko Puente Viesgoko frontean egon ziren. Hiru Aberasturi anaia zeuden batailoian. Horietatik bat, Jexux, bertan zauritu zuten.

### Transkripzioa

-Hori Akostan?

G-Akostan.

A-Elosun zala uste nuan nik, Akostan, Nafarrete aurrekaldian euen zera zuan hori, e?

-Bai.

A-Akosta barranku bat, Nafarrete bittartien.

-Bai, hor dauz Akosta, Zestafe, bi-hiru herritxo dauz eta gero Nafarrete.

G-Eta orduan azanillerua ezin zuan pasau, zeatik deskuidista haundixa xauan eta. Gu hasi giñan esaten: ez da inporta, allakuidaus, txarrixa ugari

giñaukan ba, txarrixak, etxe danetan txarri pillia, gu fuego txarrixak jaten.

A-Akordaitzen naiz bi gailleguak nola pasatu xakun guri han zerian, bi gallego esanaz gorrixak zelako tiradore onak egozen, ametralladoran jarten zan dana botaten euela, bai. Ez dakik? Hantxe zuan ba, Akosta, Loixu edo zerian, Nafarrete frentian, Barrankoia bixen bittartien.

-Eta gero, Bizkargi ondoren, Bilbo jausi zanian, zueri nun tokatu xatzuen?

A-Gu Bilbon jausi giñanian, gu atzera zertu giñan, atzera handik korri giñan Santander aldera.

-Kostatik ala barrutik? Enkartaziñuetatik?

A-Barruragotik.

- Enkartaziñuetatik?

A-Barruragotik, karreteratik eta mendi bittartetatik eta. Gero Puente Viesgon egon giñan frentian. Hurrengo frentia Puente Viesgon tokatu xakun. Aberasturi hantxe heriu zuan.

-"Puente Viesgo" hori da Santander?

A-Santanderrera bidian, handik gero erretiratu giñan. Onddiok neure onduan Bergarako... izena eta dana nekixen nik eta gibelak eta bistan dirala, morterazua etorri xakon aldamenian bai, eta han etxe baten onduan, han geratu zuan. Eta Aberasturi berriz ba, bera geratuko zala eta bera geratu zan, eta gu berriz handik Santander aldera.

-Hori zein zan, Juaniton anaia?

G-Juanito bera!

A-Ez, Aberasturi zan zera, Jexus.

-Jexus, Xespal!

A-Ha han geratu zuan.

G-Juanito be nunbaiten geratu zuan ba.

A-Ez jakiat.

-Eta Jexus zer zan, zuen batailloikua?

A-Bai.

-Eta Juanito Treinta?

A-Baita.

G-Horreik hiru anaiak.

### 8.17. Oñatiar asko batailoian

- **Hizlaria(k)**: Lizarralde Galdos, Gregorio; Ugarte Moiuia, Alejo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Jerardo
- **Erref**: ONA-021/006
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:12:20. **Bukatu**: 00:14:15
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Oñatiar asko, ehundik gora, zeuden Alejo eta Gregorioren batailoi berean. Indautxutik joan ziren batailoiak Gernika defendatzera.

#### Transkripzioa

- Oñatiarrak zenbat zifain?

- G: Askok! Eta Bergarrak, eta ...

- A: Bai, Bergarakuakin be juntauta, eta gero kanpotik etorritako banaka batzuk be bai.

- Baiña oñatiarrak hala bai, hogeittik gora bai, ala ...?



- A: Hogeittik? Ehunetik be gora!  
 - Baiña zuen batailloian bai? Hainbeste bai?  
 - A: Ehunetik gora batailloian be.  
 - Bai, e? Oseake asko oñatiarrak be.  
 - A: Pentsau neuk e? Pentsau, esakto-esakto ez dakit baiña.  
 - Herrittarrak batera egoten ziñain batailloitan? Ala nahastuta?  
 - G: Nahastuta, eskuadra bat hor, beste batzuren eskuadra bat...  
 - Bai, baiña gutxi gorabehera inguruan, ez?  
 - G: Bai, bai.  
 - A: Harrapo gindduan organizaitten, Indautxuko eskolatan organizaittera eruan gindduein harutz bai, eta organizaitten geontzela, frentia zeaukoa, Gernikako frentia hasi zan, eta segittuan lehengo formaziñuakin urten geben batailloitan Gernika defendittera.  
 Eta gero berriz (...) Errotari Zahar be hantxe, Bilbora baiño lehenago zer baten, holaxe nere onduan eguela balia pasau xakon. Errotari Zahar, badakizu zein dan.  
 - Casablancan bizi dana.  
 - A: Bai.  
 - Han eriuta geldittu zan?  
 - G: Harek be hiru anai xakuan batailloian.  
 - A: Bat kojua ez zuan? Eta beste bat berriz, kanpuan geratu zana, hor nunbait?  
 - G: Bastida esaten gitxan, eta bestiari esaten gitxan... toreruaren izena xakok. Behintzat hiru anae txiuzan.

### 8.18. Sardineroako hondartzan atxilotu zituzten

- **Hizlaria(k)**: Lizarralde Galdos, Gregorio; Ugarte Moiuia, Alejo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Jerardo
- **Erref**: ONA-021/007
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:14:15. **Bukatu**: 00:16:55
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
 Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Nazionalak Puente Viesgora iritsi zirenean, atzera egin zuten berriro Santanderrera, itsasontziak beraien zain izango zirelakoan. Itsasontzirik ez zen egon, ordea, eta Sardineroako hondartzan atxilotu zituzten. Zezen-plazara eta futbol-zelaira eraman zituzten. Egun haietako gosea eta beldurra gogoratzen dituzte.

#### Transkripzioa

-Lemonako burrukarik zuek ez euen ezagutu, ezta?

G,A-Baitta.

A-Erletxe aldiari han egon giñan. Handitxek fan nintzan ni zintturoia ikustera bialdu ninduaiñian, zela euen ikustera, jefiak.

-Gero Laredoko gorabeherak egon ziranian, plaiakuak eta, zuek...

A-Gu fan giñan gero "hasta Puente Viesgo", hor gero atakerik ez geben izan Puente Viesgoko frentian behintzat eta hara aillegau ziranian, handik erretiradia emun oskuein Santanderrera, barkuak han egozela eta Santanderrera; Santanderrera fan giñan eta barkuak falta, jentia larri, pistola ametralladoriak eta hareik artian gorde, hiru kargadorekin, eta plaian egon bihar.

-Nungo plaian?

A-Sardineron.

-Kapitalian bertan?

A-Bai, aurrekaldian, handikaldeko muturreraiño fanda ixa eta fusillak bota in zittuein jentiak uretara. Eta agertu ziran bizardun batzuk bertan lehen egozenak eta alto! Eta besuak jasota geldik egon bihar, beste erremedixorik ez.

-Nora eruan zindduein?

A-Plaza de torosera.

-Han bertan? Santanderreko plaza de torosera.

G-Gu kanpofubolian egon gintzuan.

A-Lehelengo kanpofubolian.

G- Beste batzuk Plaza de torosien eta halaxe.

-Han zenbat egun?

G,A-Egun pare bat, hiru bat-edo.

(F)-Jan ta edan ondo egindda.

A-Goziak, automobilla etorri zuan eta, ene! Danak harrapaittera eta gero berriz futbol kanpua esan oskuein han espixak egozela gero han eta kontuakin berba itteko, e?

G-Gabian zaldixak edo bota (zi)txuein han eta illun! Zaldixak trikiti-trakata, "aiba dios, hementxe garbittuko gaittuk!"

A-Gero Plaza de torosera fan giñan eta han emun oskuein sardiña latia eta ogixa eta nik zera neukan, behian lotuta panazko frakak, eta nik ra! sartu, honekin bakarrik ez xakuat nik ezer eta... harrapo baninduzuein!... Eta atzera kolara. Eta beste bat.

### 8.19. Espetxe asko ezagutu zituzten

- **Hizlaria(k)**: Lizarralde Galdos, Gregorio; Ugarte Moiuia, Alejo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Jerardo
- **Erref**: ONA-021/008
- **Iraupena**: 0:03:48. **Hasi**: 00:16:55. **Bukatu**: 00:20:43
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena**: Santandertik Corbanera preso eraman zuten; eta, handik, Bilboko Eskolapioetara. Bertan, 5.000 lagun egon ziren preso. Hamabi urteko espetxe-zigorra ezarri zioten; horregatik, Larrinaga, Bilbo, Ondarreta eta Gasteizko kartzelak ezagutu zituen. Gasteizkotik bidali zuten aske etxera.

### Transkripzioa

A-Gero handik eruan gindduein zera...

G- Corbanera

A- Corbanera eta han egunero entzuten gittuan...

-Corban nun dago?

G-Konbentu bat,

-Baiña kapitalian

A/G- Ez

- Zenbat kilometro?

G- Hiru bat kilometro-edo...

-Kapitalaren inguruan. Konbentua kartzela bihurtuta?

A-Bai. Han lo itteko lekuri be ez geukan, bata bestiaren gaiñian kasik lo itten geben.

G-Lo itteko lekua nun giñaukan ba? Zerien be ez, Eskolapixotan be ez. (...)

A-Eskolapiotara leheningo fan giñanian be, hanka bittartetan, albo batetik euzenak, hankak, eta bestien bixen bittartian, lekua justu justo.

-Eskolapiuak nunguak ziran, Bilbokuak, baiña hori gero izango zan.

A-Azkenengo zera!

-Orduan zezen plazatik Corbanera eta Corbanetik Eskolapiotara.

A-Handik partiu gindduein.

-Corbanen zenbat denpora in zeuein?

A-Zazpi hillabete.

G-Nik zortzi in neben.

-Corbanen?

G-Bai, nik zortzi hillabete.

A-Zazpi edo zortzi edo holakoren bat.

-Eta Eskolapio da hor Bilbon daguen konbentura, ezta? Alameda de Recalde edo zela da hori?

G-Bos milla lagun, han piso-goma.

A-Largo Caballeroren semia hantxe egon zan, eta katedratikuak, eskerrak gaiñera, hareikin konsultaitten edozein kontu.

-Han ikasi zebe zuk? Ze katedratiko zan, Sierra?

A-Katedratikuak eta danak egozela han barruan, jente haundixa, edozein gauza bihar izan ezkeru, pregunta bat itteko, edo...

-Hor Eskolapixotan zenbat denpora?

A-Nik hogeta zazpi hillabete in nittuan.

-Eta Gregoriok?

A-Gregoriok be...

G-Nik ez, nik bastante gutxiago. Ni handik Larrinagara fan nintzuan.

-Zeatik aldatu zindduein hara, Larrinagara? Lekurik ez euelako Eskolapixotan?

G-Bai zera! Juzgau in nindduein ni, eta hamabi urte eta egun bat. Atzera bialdu nindduein Eskolapixotara. Eskolapixotatik Larrinagara. Larrinagatik Ondarretara, Donostiara. Han be ez dakit hiru-lau hillabete edo zenbat in neben. Atzera Eskolapixotara.

-Bilbora berriz? Turismo asko in zeuein?

G-Bai. Beste hiru-lau bat hillabete-edo eta handik Bitorixara.

-Bitorixan beste konbenturen bat edo euen, ezta, Bitorixan kartzela?

G-Bai, baiña ni nenguen... proiektuan...zerrerako, La Paz kartzelarako. Fan giñan kartzelara eta ez dauela lekuri eta bialdu nindduein orduan konbentura.

-Zer ziran, Karmelitak edo zer ziran hareik?

G-Karmelitak, hara fan gintzuan eta hantxe, handitxek etxera.

A-Etxera bialdu indduein hi-edo?

G-Ba handik sei hillabete edo urte betera-edo.

## 8.20. Alejo 1941. urtean askatu zuten

- **Hizlaria(k)**: Lizarralde Galdos, Gregorio; Ugarte Moiuia, Alejo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Jerardo
- **Erref**: ONA-021/009
- **Iraupena**: 0:04:18. **Hasi**: 00:20:43. **Bukatu**: 00:25:01
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa

- **Gaia(k):**

Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

- **Laburpena:** Alejo, epaiketarik gabe, Larrinagatik Donostiara bidali zuten. Legazpiko Paper-lantegiko gerentearen emazteak eta Alejoren koinatak emandako laguntzari esker, 1941eko ekainean askatu zuten Alejo Donostian. Urte bereko otsailean askatu zuten Gregorio Gasteizen.

### Transkripzioa

-Baiña batailloittan eta gero ez ziñain ibilli zuek?

G-Ez, batailloirik bapez.

-Zu be, ezta?

A-Ni ez. Ni handik Larrinagara pasau ninduen eta Larrinagatik gero papelak kanbixau gura zittuen eta Donostian lanian ebitzen nere zeratik, ez neukan ba zerik, eta denunziak eta forrau in nostain, itxuria danez, aittu? Bixan bittartian! Eta gero akordau! Aittu? Eta ni juiziorik in barik nago!

-Ez zebeñ juiziorik euki?

A-Ez, zeatik gero han gertu nenguela... bost lagun, hire anaia Joxe! Haretxeri itxi nintxan txokolate eta neukan danak. Bost lagun geontzen eta beste bi sekretarixu, erreterixarrak-edo ziran, anaiak, "Aristarco Hermanos"; eta hareik in euen papel bat, eskrito bat in nostain, kontestaziñua behintzet, juiziuua neukala, geratu nintzan... Gero zer pasau da? Ba Legazpin papeleran gu betik ondo, eta papelerako jerentiaren andriak: "baiña Alejo onddiok zerien dago, kartzelan dago onddiok? Zela leitteke hori?". Nere koiñatiari esan otsain fateko berana. "Zu fan zatez Don Luis Acuestana, neuk abixauko dotsut noiz etorten dan" ; Plaxentziako semia (...) jueza. Abixau xao, "zoaz ointxe Plaxentzira". Eta fan zan nere koiñatia Plaxentziara. Informiak hartu otsan inguruko denunziakatik. "Ezebez, ezebe ez dako. Bixar bertan atarako dot nik orduan". Eta ha zan jueza "el número diezekua". Eta "oncekua", ni nenguela, laguna harena, aittu? Halaxe, nik ez nekixen ezebe, ni esperantziakin juiziuua itteko eta zerien nenguela..."Alejo Ugarte Moia, que baje al juzgado"!

-Hori nun zan, Bilbon?

A-Ez, Donostian, Ondarretan. Fan naiz eta sonbrerodun gizona, sonbrerua kendu eta eskua emun nostan. "¿Usted trabajaba en Legazpia, no sé cuántos...?" Etorri, ointxe kartzelatik urtengo dozu; ez nostan ba esan berak? Eta berak sekretarixuaren papela in eben, sekretarixua bera zan moduan, sekretarixuaren papela emun bai eta bueno, atzera eskua emun bai eta nik ezin ba, graziak emuten be, bueno, "leister hots ingo dotsut eta zuk kartzelatik urtengo dozu segittuan".

-Hori ze urtetan izango zan?

A-"El año cuarenta y unoan", "veintiuno de junio", juniuan uste dot.

-Oseake gerria akabo eta handik urte pare batera-edo. Hogeta hemeretxian edo akabo zan gerria. Berrogeta bat.

### 8.21. Errekadistak eta kartzelako Madrinak

- **Hizlaria(k):** Lizarralde Galdos, Gregorio; Ugarte Moia, Alejo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Jerardo
- **Erref:** ONA-021/012
- **Iraupena:** 0:03:09. **Hasi:** 00:30:03. **Bukatu:** 00:33:12
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa

- **Gaia(k):**

Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa  
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

- **Laburpena:** Oñatiko Eugeni "Txarriduna" ibiltzen zen errekadista moduan; kartzelatik arropak atera, eta Oñatira eramaten zituen garbitzera. Gutunak ere ateratzen zituen. Presoei kanpoko emakume boluntario bat jartzen zieten, "Madrina" izenez deitzen zutena. Presoei alaitasun pitin bat eramaten zieten; eta arropaz, jatekoaz, gutunetaz eta bestelakoetaz arduratzen ziren "Madrinak". Gregorio bere "Madrina" izan zenarekin ezkondu zen.

### **Transkripzioa**

-Papelak bialketan zeueilla...

A-Bai, Madriñiari, neuk be bastante eskribiuten neben.

G-Bai, gu begira noiz hartuko ete xok papelori, pasiuari, zerakin eukan amistade haundixa, Segundo Martinez, tenientia zan Segundo. "Segundo, pronto estamos en casa, ¿si?" "Si hombre, si".

-Hori zeifiek esaten otsan, argiñak? Hargiña zer ibiltten zan, errekadista?

G-Hargiña preso euen, bera preso.

-Errekadista zein ibiltten zan?

G-Eugeni "Txarriduna".

-Bai, Karlosen andria.

G-Ba, tenientiari esan otsan: "Segundo, ven, no le digas a nadie, e? Porque estamos en casa". Leihuen papelori. Esaten otsan nola oiazzen hemengo aberatsok, ya hasi dirala faten, ihesik! (...) Hari botatzen otsain buluak, hari!

-Hori zer, nun zegozeilla?

G-Eskolapixotan.

-Eskolapixotan zegozeilla horreik zerok. Aittatu dozue Madriñien kontua, ze izaten zan Madriñia, paketiak eruateko, zertarako izaten zan hori?

A-Orduan presuak danak, animoso egotiarren-ta, ba kanpotik emakume bat ifintten ostein kanpotik, Madriñia, kanpokuak-edo, zerien ifintten euen bai. Eta neuk be bastante eskribu itten neben zerian...

G-Bilbotik zerera Eskolapixotara kantidadia erropak garbiketako presentaitten ziran.

-Eta ze etorten ziran, eurak boluntarixo?

G-Bai, boluntarixo.

A-Heuk be ez aukan ba, Madrina moduan, andria?

G-Bai, andria.

-Zure andria, ezta?

A-Hau hil da ba, Ramon Santa Kruz? Emeterio difuntua eta horreiri neuk eskribitten nosten, Madriñiari-eta, hareik danak gustora egoten ziran.

-Ramon zurekin batera euen Bilbon?

A-Donostiako Aiuntamentuko bat euen, "ya le voy a escribir, no sé cuántos...", eta koño, "escribele"; eskribu otsan, baiña Madriñiorrek gero: "que vuelva a escribir las simpáticas cartas", "un poco altanero", badakitzu? Eta nik berriz, baju, umil edo zerian, senzillo, eta "le daba el placer o lo que sea" komestaziñuak eta horixe bialdu otsan eta Donostiarrori geratu zan gero...

## **8.22. Bermeoko arraina Elorrion**

- **Hizlaria(k):** Lizarralde Galdos, Gregorio; Ugarte Moia, Alejo

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Jerardo
- **Erref**: ONA-021/014
- **Iraupena**: 0:04:38. **Hasi**: 00:49:26. **Bukatu**: 00:54:04
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Frontea geldi samar egon zenean, Elorrioren bi hilabeteko egonaldia egin zuten. Bertako baserritar eta tabernariekin ondo konpontzen ziren. Egunean 10 pezetako soldata jasotzen zuten soldaduek. Oñatiko Moesto Elgero etortzen zen Bermeon hartutako arrainarekin Elorrioko kuartelera.

### Transkripzioa

G-Elorrixon (...) bi hillabete in giñuan guk han (...) han jaten ondo, eta gero geuk gura izan ezker baserririk baserri faten gintzuan eta arrautzak edo zeozer, arrautzak-eta billaketan giñuan eta han taberna bat bagiñaukan, Naparra, Naparra, harutz eruaten giñuan eta bapo afaldu.

-Plazako tabernia, ez?

G-Bai, Bernardiño zan, oin ha honezkero hilleda dago (...) han bapo bazkaldu edo afaldu eta puska bat harutzago, orduan baserrixak kalia hementxe letxe kalia egoten zuzan baserrixak; faten gintzuan eta: "bueno, bagatoz gu!" talua eta esnia, egunero.

A-Baiña sekula pagau barik itxi ez. Han txupaitteko asmuakin fan ez, sekula.

-Eta pagauta, e?

A-Bai, bai.

-Eta pagaitteko zer zeukein, soldatia-edo?

G-Hamar pezeta egunian.

-Hamar egunian, hori bastante izango zan, ez?

G-Gastaitten geben bai.

A-Emuten oskuein?

G-Bai, ez guein ba emungo! Hil danetan.

-Kobrau ze itten zeuen, hillero?

G-Hillian behin. (...)

-Eta bestela, intendentzia zer modukua zan? Jaten ta jazten ta?

G-Ondo, ondo, ondo, ondo emuten euen.

A-Kartzelan ez.

G-Kartzelan ez.

-Hori, Elorrixon izango zan pittin bat frentia geldi egon zanian, ez? Geldi samar egon zanian.

A-Orduantxe fan nintzan ni Bilbora be.

G-Ah, eta Elorrixon bi hillabete edo in geben... Moesto Elgero be etorten zan! Peskauakin.

-Nundik etorten zan ha?

G-Bermeotik-edo, peskiakin.

A-Ha be gure aldekoa zuan ba, Moesto be.

G-Bai ba, bai ba, baiña ha etorri zanian... (...) ha baixatorran bai kalia gora eta illarramendixiak ikusi xok eta: "Moesto!, berandu hator berandu!"

-Berandu?

G-Bai ba, kartzelara sartuko euela. Etxuan denpora asko in kartzelan.

A-Hau tokau xaku ba guri! Hau kontratienpo hau!!

-Baiña hori noiz? Bueltan zanian? Kale Zaharrian?

G-Kale Zaharrian, hantxe, Illarramendi parian edo, koño, hau Moeston

katxarrua dok! "Eta Moesto! Berandu hator!"

-Eta zer? Gero deteniu iñ euein?

G-Bai, baiña aguro librau euein. Ha ibilli zan peska saltzen.

-Gero gerra ostian be, ha frutiakin ibiltten zan, ezta? Eibarrera egunero faten zan ha. Eta gero honeik be bai, Lukas Igartua eta honeik, bai fruta, esniakin, peskiakin, Axun eta honeik be ibilli ziran, ez?

G-Lukas berriz, hemen geratu zan. Ziudaden bat hartzen euenian, bera manifestaziñora.

-Bera aurrengo, ezta?

G-Ha, eta Margarita eta ulia ebaittako danak.

A-Margarita oin be...

### 8.23. Ogi gosez

- **Hizlaria(k)**: Uriarte Eizagirre, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-057/007
- **Iraupena**: 0:03:10. **Hasi**: 00:16:23. **Bukatu**: 00:19:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Gose denboran ogia lortzea ez zen batere erraza. Txitentzako zaperoa janda ere pozik egoten ziren.

### Transkripzioa

- Nik gure aitta difuntuari entzunda dakot, hor egon giñan bittartian, eurak lanetik etxera fan da klaro, ogixa falta, ta klaro ogixa, ta nere anaia mutiko txikixa ta harek ez ebela konpreniuten. Enda ogixa ta ogixa ta ogixa, ixilldu be in barik ogixen eske, mutikuori. Ta esaten xao nere aittak nere amen anaiari, anae-arrebak ziren, esan xao, Jesus zan, eta esan xao: "Hi, Jexux, bixar eguaikutza dok, argi egon, hemen labe-sua ingo dok bai baserriren baten, eta labe-su keia nun urteten dan, argi egon, e? Ogixa zuzenduko xuagu eta". Egon dira, "hantxe be bai eta holakoxe lekutan be bai, urten xok gaur labe-su keiak, horreik etxe bi horreittan labe-sua indda xaok gaur. Goazen bixok, aide". Fan dira ta illunduta, jo daue atia ta errosarixua errezaute barruan. Urteten doste andriak, aber ze bihar dauen ta ba labe-sua in dauela, ta "Labe-sua, bai, in deu". "Ba guk ogixa hartuko geke bai", "Baiña guk ez dogu ogirik saltzen" andriorrek. Eta "Ez dozuela ogirik saltzen? Ba guk derrior bihar dou /biñu/ bai, gaurkuan salduko doskuzue ba", baiña "Ez, ez, ez, nik ezin det ogirik saldu, gu geok jente asko gare ta", andriorrek. Eta itxuria bastante tardau itten euen, "ez-ez-ez" ta "bai-bai-bai". Gizona barrutik: "Ze pasauten da hemen?", ta "Gizon hauek etorri die ogie falta duela ta, ogie umentzako, umek gosek dauzkela eta aber eramaten duen ogi pixka bat, baiña nik esaten diet geontzako nehikua ez daukagula geok eta". Gure aittak atara karteria eta da! dirua. Han be dirua falta itten itxuria, dirua ikusi ebenian gizon horrek: "Bueno, emakumia, gaurkuatik emun xesu". Nere aittak dirua emun otsanian gizon horrek hartu diruori eta andriorrek ekarri ta hareik etorri zien perikuak, beheko baserrira biña ogiaz. Hareik gero umiak jan xuein nehikua ogi, ta klaro, gurasuak sufriuko euen umiak ogixa ta ogixa ta ogixa eske ta berak esaten ebena, Rosariok esaten ebena: "Neoni ere akordatzen naun horreaz! Neoni ere akordatzen naun zela aita zanak-eta ekarri zuen

ogie! Baiña gu, "tú y yo y Alejandro" -beste hospiziano edo b(a)euken bat eta- "y Alejandro cuando se iba" -haik erderaz samurrao itten daue ba, euskeraz aldien ba- "cuando aquel se iba nos poníamos las botas con el zapero". Zaperua jan ta aurrera, txittak jan biharrian zaperuori. Hareik urtiak gogorrek izan ziren hareik.

#### 8.24. Ogi beltza egiten zuten

- **Hizlaria(k):** Garitaonandia Lizarralde, Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-060/019
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 00:49:42. **Bukatu:** 00:52:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena:** Segurako okindegian ogi beltza egiten zuten, irin nahasiarekin. Villafrancatik bidaltzen zuten irina. Hirurogeita hamar zentimo kobratzen zuten ogiko eta hura izaten zen lau pertsonentzako egunerako anoa.

#### Transkripzioa

- Eta Seguran egon ziñazienien zer, edo esan dozu baserriko estiloko ogixa egiten zenduela, eta ogi klase diferenteak egiten zenduzen?

- Ez, ez, berdiña izaten zan.

- Dana berdiña.

- Dana berdiña, amak horixe esan nontan etxera joan nitzanian ogi giñan, ogixa in naben eta esan nontan: "Jesus, hau don ikasi duana?", "Ze ikasi bihar neben ba?". Jente dana goziak amorratzen ta, ogixak polittak itten? Ez polittik eta ez zatarrik, ogixak urtetzen zebe modukuak, eta jaikitta eta ondo erreta, ondo tostaetak izaten ziren e? Hareitxeri be despreziua, ze, zertan ikasi bihar neben, [...] itten, neuk? Zerekin? Gero ogi zurixa itten hasi ziranian, orduan hori zan "el no va más". Gero nere anaia egon zanian esaten eben, ya ke estraperlua gastau in zan, eta estraperluan ogi zurixa itten ei euen, goizian dirua alde danetatik etorten ziren hona eta oin ezelako dirurik, [...] hiru piso edo baeukein erositta ta, bueno, bueno, ze bihar eben ba harek? Harek be bihar eben dana, (...) ez dakit lau seme-alaba edo bost edo zera, eta andria.

- Eta ogixok, esan dozu ogi zurixa, eta ogi zurixaren aurretik zelakua izaten zan ba?

- Ha zera, baltza, oin integrala edo jaten daue ba?

- Bai.

- Horren modukua eta depende, batzutan zeraua, uruna nahastutakua bialketan baotzuen ezin zeken in, ta bialketan baotzuen zeori, gorrixa, uruna gorrixa izaten zan, halakua zaku bat eta bestia bi bialketan baotzun ba orduan gozua izaten zan ogia, oso gozua.

- Eta ze itten zeuen, zurixa eta bestia nahastu?

- Nahastu. Eta batzutan bialketan euen nahastuta, orduan (...) Preguntau itten nosta neri, [...], nere tio batek Bergarakuak esaten nontan: "ogi zurixa jango dozue zuek, eta nahastuta bialketan doskue", ezin ziñuan esan orduan ogi zurixa guk jaten doula eta bestelakua emuten xaula bestieri diferentia. "Nahastua bialtzen doskue, tio, eta han ez dao ezer itterik, hau ezin dozu" (...) esaten otsan hala. Nahastuta bialtzen doskue



asko, bialtzen daue nahastuta.

- Eta zuek nundik hartzen zeuen ba uruna?
- Villafrancatik ekarten euen.
- Baiña azokatik-edo?
- Ez, ez, ez. Nik ez dakit nundik erueten euen, ez doz interesau be itten gaiñera nundik eruatzen euen, baiña Villafrancatik eruatzen euen. Diar itten otsain: "que nos quedamos sin harina", bueno, bihar holako ordurako euko dozue, horreik kontu horreik ...
- Gobirnuak kentzen baotsan garixa zeari, baserritarrari, gero eurak partiuko euein, ezta?
- Klaro! Ez dakit ba nik ze itten euein, ez dakit nik nungo garixakin, ez dakit ze itten euen, hori ez dozu jakin be ingo gaiñera. Ba halaxe bialketan euen uruna ta itten ziren ogixok eta "setenta céntimos" balixo euen, holako ogi ze batzuk izaten ziren, [...] eta tercerako zera eukeindako harekin lau, lau personandako egunerako [...]
- Razonamentua?
- Bai, razonamientua, lau. Eta primerakua eukeiñak ba holakotxe ogitxuak.

## 8.25. Mutikotan epaitua

- **Hizlaria(k)**: Arregi Zendoia, Felix
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-062/004
- **Iraupena**: 0:04:43. **Hasi**: 00:09:05. **Bukatu**: 00:13:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera  
Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
- **Laburpena**: Bere etxeko aldeko denda, Lasena, konfiskatu egin zuten "liberadoreek". Baita bizikletak alokatzeko beste denda bat ere, Kale Zaharrean. Lapurreta inozo batengatik norbaitek salatu zituen Felix eta bere lagun batzuk, eta Donostiako adin txikikoen epaitegira eraman zituzten. Tribunalak absolbitu egin zituen.

### Transkripzioa

- Eta gure aldamenian oin Izarraitz tabernia eta hor xauan denda haundi bat eta horkuak be alde in ebein, eta geratu xakuein "requisau", rekisauta gura xuan esatia, hemengo hona etorri ziren nagusixak, eurondako ha denda dana, eta eurak itxi eta ni aldamenian bizi nintzuan, ta oin gaiñera han barruko aldetik han patixora, oin ez xauk baiña patixo bat eta, nere aitta eta ama ta obserbaitten. Ointxe ba, billur, baten bat! Hartu ta paketia eta etxera. Dendia, dendia haundixa ha, "de todo" xauan han, e?

- Ze izen eukan denda horrek?
- Lasena.
- Lasena? Nik ez dakot hori goguen.
- Urrutia, Leonardo, Leonardo zuan hango nagusixa, Lasena, dendia Lasena. Eta gero geuk be ikasi giñuan eta Atzeko Kaleko ate bat forzau eta geu be barrura sartzen gintzuan, eta akordaitten nauk beste gauza batzuren artian pilak, linternia, piladun linternia, ez dakik zer zan mutikotan orduan? Gaur edozeiñek xakok linternia baiña orduan linternia-ta, kalian jolasian ibiltteko linternak-eta. Beste bat oin Upaiñek xakok,

Perratzailleneko taberna aurrekaldian.

- Bai.

- Ha bageria, han bajuan xauan "Alquiler de bicicletas" Zubillagakua zela zuan, bizikleta alkilerra, ezin akordau, klaro, hortarako gertatu in bihar dok. Eta ha be aldetu xauan, ha be rekisauta eta hara be sartzen gitzuan eta pentsau mutikuak detalle bat, bizikleta erruedan tubular kamaria barrukua, goma fin-fiñakin inddakua, holakuak hartu eta honekin zer ingo xuagu eta putz in eta asko ez, eta itturrixan, han baxauk ba Perratzailliaren aurrekaldian itturrixa? Puntia moztu, sartu han eta lotu eta inflau ta inflau ta inflau ta in zuan holakotxe puxikatzarra in eta plaust apurtu ta hola. Eta baten batek denunziau in gozaken (gindduan) ta akabo giñuan "en el Tribunal de Menores de San Sebastián", fan gitzuan.

- Horreik kamara horreik harrapaitiatik?

- Bueno, hori eta beste leku batzutan be bai. Baten batek denunziau gazaken (gindduan) eta lehenengo kuartelera abixua, eta kuartelian ze ingo ian ba, dana esan, gu abandonautako lekuak zirala eta hola ta ba guardia zibillok, baiña denunzia aurrera fan zuan, "al Tribunal de Menores". Nik nere aittari emun xaoten disgustorik haundixena askoatik, nerekin "Tribunal de Menoresera" fatia izan zuan.

- Donostira eta zer, juzgau in zindduein?

- Bai, akordaitten nauk lehenengo mutikuak aldiko bat, lau egon gitzuan, lau mutiko izango gitzuan, Ion Etxaniz, Iturrozpe be uste xuat baietz, bueno, mutikuak aldiko bat, bizardun gizon bat baiña hola patxadakua, haren izena be oin ahaztuta nau baiña, orduko diputaziñoako presidentia izan bihar zuan /bizuan/, ta famosua dok, zan bizardun bat, eta ba galderak itten, eskolako galderak, zenbaitteraiñoako eskolia geukan; ta akordaitten nauk beste gauza batzuren artian solfeorik aber nekixen eta baietz, "Método de Solfeo" blasta ekarri hara eta kantau hau. Ordurako nik nekixen ha kantuan, solfeua, ixa buruz, kantau nitxan: "do-mi-do-mi-sol-do..." kantau nitxan ta bien; bueltan etorri gitzuan pozik danok zeatik gero danok batera sartu gitzuan, ta esan oskuan horrek gurasuairi, beste nere lagunak be gurasuakin fan zittuan, gurasuairi esateko egoteko lasai: "tranquilos que estos chavales no tienen absolutamente ningún asunto de malicia como para venir al Tribunal de Menores, vayanse ustedes tranquilos que aquí no pasa nada".

## 8.26. Zubillagako industria gerra ostean

- **Hizlaria(k):** Irizar Guridi, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-073/014
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:30:30. **Bukatu:** 00:33:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- **Laburpena:** Gerran artillerian egon zen. Gerratik itzuli zenean Altuna lantegia eta ola zeuden Zubillagan. Olak ez zuen arrakastarik izan. Gero Enara izango zena jaio zen. Fanderian ere jarraitzen zuten lanean.

### Transkripzioa

- Orduan gaiñera etxiak gutxiago baiña umiak gehixau etxietan.

- Klaro. Gu be, geuk be arrimau euki (di)txuagu baiña, gu izan gitzuan

zortzi, zortzi anai-arreba, enda ba ni Beittin nitzan denporan be, behintze bat gutxiago, ez dakik? Ya tripia beteta. [...] Eta gero gerria etorri zuan ta, gerran suertia euki giñuan, ez giñuan euki geuk, artillerixia tokau xakuan eta oñatiar mordua egon gitzuan alkarrekin, araoztarrak be bai.

- Joxe Mari ez zan zurekin egon, Sarramendi?

- Ez.

- Ha be artillerixan egon zan.

- Bai baiña ha ni baiño bi urte gaztiaua dok, Joxe Marik. Uste xuat dala “del treinta y nueve”, gu “treinta y sietea” gaittuk kinttaz.

- Ha zan hemezortzixan jaixua.

- Bai ba.

- Eta zu hamaseixan.

- Hamaseixan, bi urte. Eta gero gerriatik etorri nitzanian ba hau etxe onduan, Altunena. Zeatik hemen beste fabrikarik ez jauan. Gero olia Zubillagan, oin Gaitu eta zerok daozena, hor ondiok hango zerak segiu itten xok. Hor zuan Espaiñiako fabrikarik inportantiena zuan hori orduan, baiña Elorza anaiak zela flautak urten euen eurak, azkenian ezebezia geldittu zuan. Gero hareik fan ziuzan Azkoittira, beste batzuk hartu xuein, ha Azkoittira fan zuan parte haundixa eta gero hasi zuan berriro hemen Enara-edo.

- Hori Enrikek-eta.

- Bai, hori dok. Enrike, anai bixak, hil zana Pedro. Eta nere anaia horko fundadorietakua, Ramon, oin Zubillagan bizi dok.

- (...)

- Horreik hasi xuein hau, ez dakit zenbat ziren, Anduagakua be bai, Juanito ha be hil zuan. Eta lehen esatera nixoiara, Altunena, Fanderixiak beti segiu xuan, eta hemen hurrago ta ba, hortik ez giñaukan lanera fateko, zenbat eta hurrago gura. Hemen hasi nitzuan ni.

## 8.27. Garia ehotzeko esku-errota

- **Hizlaria(k):** Urzelai Aiausti, Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-075/026
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 01:01:10. **Bukatu:** 01:02:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean Baserria » Baserriko lanak » Garia  
Baserria » Baserriko lanak » Errota
- **Laburpena:** Gose urte latzak etorri ziren gerraostean. Artoa eta garia ematera behartuta zeuden, eta errotak itxita zeuden. Arrasaten asmatu zuten garia ehotzeko esku-errota bat gogoratzen du Jesusek. Esku-ehotze lana oso nekagarria zela dio.

### Transkripzioa

- Gose urtia, hemen gose urtia izan zan ba, gose urterik gogorrena izango zan “cuarenta-cuarenta y uno” izango zan hemen. Trenta y nuebian ta gerria akabo ta artian baeuen zeozer, gero gutxittu zan hemen gauzia asko, gero, gerra mundiala egon zanian, orduen gutxittu zan gogor asko hemen, orduen babia jarteko ta be... orduen...

- Orduen ze in bihar izaten zeuein, zeuen produkziñotik zati bat emun,

ezta? In bihar izaten zan.

- Garixa entregau in bihar izaten geben, artua be entregau in bihar izaten zan.

- Dana?

- Ez, ez, bai, horixe bihar dogu bakarrik! Gero errotarik ez euen zabalik, eta gero hemen ha uste dot baten batek euko dauela gordeta. Hemen Mondrauen in zittuen ez dakit zela eukan izena, harri zera batzuk, ixoteko, garixa ixoteko holako eskuakin itten ziran batzuk, pote batzukin-ta, ez dakit zela eukein izena, ixotekuak.

- Esku errotia-edo izango da.

- Ez, ha zan zerakin, botaten zan eta errotatxo bat eukan eta eskuakin.

Gogorra, nekia, eta egunian hiru potekada in bihar izaten gittuan, hiru potekada. Eta ibiltten giñan atsaldian hasitta txandaka, gabian ta.

Leheningo pasadia izaten zan gogorra, bigarren pasadia samur emuten xakon, leheningo pasadia. Eta estutu in bihar, bestela ez zan urunik urteten, zahixa, zahixa bakarrik. Bueno, in gittun, itten gittuan! Hareitxek uste dot baten batek eukiko (di)ttuela gordeta.

## 8.28. Gerratik ihesaldi luzea

- **Hizlaria(k)**: Txintxurreta Goenaga, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-085/005
- **Iraupena**: 0:02:50. **Hasi**: 00:08:44. **Bukatu**: 00:11:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Leturia, Ane
- **Gaia(k)**:  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- **Laburpena**: Koinatua frontera joan zenean, Maritxu Arrasatera joan zen, ahizparen etxera, laguntzera. Handik Elorriora alde egin behar izan zuten. Elorriotik Bilbora ihes egin zuten, eta gero Laredora. Han Oñatiko miliziano batzuekin elkartu ziren. Laredotik Santanderrera joan ziren. Hona anaia etorri zen bisitan.

### Transkripzioa

-Ni iges eindda fan nitzan... Koiñatua republikanua zan, republikanua o sozialistia o hola zan. Eta ahizpa nausixena [...] ba esan eben: "Enkarna, zuk bihar dozu /bihozu/ ni frentera faten naizenian bakarrik geatu bihar zara /biza/ bai ta Maritxu etorri deilla zeurekin, geaketako, zeekin. Eta guazen Mondragueraiño." Eta aittak eta amak be esan eben "Bai, fan Mondragueraiño. Hau hamabost bat egunian ya akabota dau gerria ta." Hamabost bat egunian? Bai...! Geo fan giñan Mondragueraiño, ta gero Mondraguen batian Oñatira sartu ziala zeak, reketiak, eta handik fan gitzan Elorrixoa. Elorrixon eukan parientia, zea, nere koiñatuak. Eta fan gitzan hara, eta hartu gindduen eta ondo eon giñan han be baserrixan, ezta? Eta geo haraiño ta han be baetozen ta gero handik fan giñan Bilboora. Bilbootik fan giñan Laredora. Ta Laredon, ba, han be ezezaunakin, ba, nunbaitten sartzan giñan baiña oñatiarrakin be juntau giñan ta. Ez jat / etxat/ sekula ahazketan, milizianuak oso triste euzen, eta "Ze eitten dozue ba zuek hemen?", ta "Ba guk hola ta hola urten duu etxetik eta oin, ba, hementxe gabitz badatozela ta aurea ta aurea", ta "Bai. Hauxe da bizittekko pozik ez ta hiltteko gogoik ez", milizianuak esan oskun, e. Ta ez jat /etxat/ sekula ahazketan hoixe. Eta, ba geo handik fan giñan

Santanderrea.

-Kapitalea?

-E?

-Kapitalea?

-Kapitalea, bai. Eta han be, ba, refugiauak batea ta bestea partitzen zian ta, ba, gu fan giñan ugazaba ta kriadiakin bizi zan . Eta bueno, ondo hartu gindduan ta zeian . Ta gero nere anaia Juan ta horreik zela...

-Nora fan ziñan?

-E?

-Nora fan ziñan? Frantziara.

-Bai, gero, gero.

-Oinddio Santanderren gauz.

-Santanderren oinddio! Eta geo han geontzen, eta anaia-ta etorten zien, eta koiñatua-ta, haik baebitzen ta beti eukitten euen ta txahala erosi baserritar batzuei ta partiu euela ta okelia ekarri oskuen arrebairei nere anaiak. Eta esan otsan ugazabai: "[Aber] zuretako be hartu hemendik zuk be okelia" ta "Bai, ez dou /eztou/ aspaldixan jan okelaik!" Eta oso ondo hartu euen nere anaia be, han, ta bueno, ondo eon giñan.

## 8.29. Anaia Santanderren harrapatu zuten

- **Hizlaria(k):** Txintxurreta Goenaga, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-085/006
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 00:11:34. **Bukatu:** 00:14:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Leturia, Ane
- **Gaia(k):**
  - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
  - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
  - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena:** Gerra garaian, ihesean, Santandertik Asturiasera joan ziren; han hondartzan lo egin eta Avilesera joan ziren. Handik Burdeosera joatekoak zirela, anaia Juane eta Oñatiko Arralde taxista etorri ziren. Gizonok borrokan jarraitzea erabaki, eta Santanderrera itzuli ziren. Anaia Santanderren harrapatu zuten eta Zaragozara bidali zuten mekaniko gisa.

## Transkripzioa

- Handi, ba, zeera fan bihar Santanderdi Asturiasea, hurrengo, ya esta! Atzena! Eta, fan giñan Asturiasea ta erropak eta anaianak eta koiñatuanak eta itxi gittuan etxe bertan. Eta esan gotsan Juaneri "Ba hor ttxi dittuu zuen erropak eta guria badoiau eta zeian". Ta gero Asturiasen plaian in geben lo. Han ez geukan lo lekuik ez euen guretako ta plaian in geben lo. Eta plaiatik fan giñan Ávilesea. Han barkua. Eta hara be eruan gindduan anaiak, eta beste txofer bat oñatiarra, e... zea, Arralde, eta...

- Gero taxista ibili zana?

- Bai, taxistia zan Arralde. Eta, Juanek esan otsan e "Goazen arrebairei batea, zeera, Frantziara". Zeatik ha barkua zan ya Burdeosea goiazan handik. Eta Arraldek: "Ez. Lutzau in bihar xuau /bixuau/ oinddio, eta oinddiok ez gaittuk fan bihar. Gero fango gaittuk, atzenian". Atzenian? Han geatu zian Asturiasen. Asturiasen ez, Santanderren geatu zian haik. Gero anaia ta geatu zian Santanderren eta han, ba, zeak, legionaixuak harrapau

zittuen ta legionaixuak esan osten: "¿Ya hay algún mecánico aquí?" y "Sí, yo soy mecánico, y estos también". Eta han sei bat, gure anaiak ezauketan zittun, "Estos también son mecánicos" y "Bueno, pues tenéis que ir a Zaragoza de aquí", "¿A Zaragoza?", "Sí, sí, allí hay un montón de coches averiaus, teneis que arreglar todo aquello". Ta bueno, "Bueno, pues yo voy a coger la ropa que me han dejau aquí las hermanas y voy a coger ropa", "Sí, vete, y ven enseguida, ¿eh? Que está el coche esperando". Fan zan ta anaiai ez otsein emon erropaik, ez gittuela itxi. Baekixen ondo nere anaiak han itxi zittuena baiña, bueno, bueltau zan atzea ta "¿Dónde traes la ropa?" y "No, no me han dado. Mis hermanas que no han dejado, pero sí, yo ya sé que han dejado pero no me han dado", "Vamos". Bi legionaixo horrekikuakin atzea. Haik eskopeta zeakin "Tau!" atia, ta "Aiba!", nere anaia sustauta. "A ver las ropas de este muchacho" y "No, es que las hermanas llevaron", "No, las hermanas no llevaron, están aquí. Dígame usted donde están y las cogeremos. Y si no nos enseña ya buscaremos". Ba bilddurtu, legionaixuakin, bilddurtu! Euretaikuak zian ta! Eta halaxe, emon otsain erropok eta Zaragozaa nere anaia.

### 8.30. Anaia Zaragozatic etxera bidali zuten

- **Hizlaria(k):** Txintxurreta Goenaga, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-085/007
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:14:37. **Bukatu:** 00:17:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Leturia, Ane
- **Gaia(k):**
  - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena:** Mekanikoa zelako salbatu zen anaia. Zaragozan ondo tratatu zutela zioen anaia horrek. Zaragozako gertakizun bat azaltzen du Maritxuk. Bi anaia kartzelatik pasatu gabe bidali zituzten etxera.

#### Transkripzioa

-Zaragoza eruatzen ez badaue preso eongo zan.

-A, bestela preso bakarrik ez, herrikuak e... Herrikuakin juntau zianak hil in zittuen. Hil, e! Gizonak, mutillak majuak, e!

-Ofiziuia eukitziarren suertia, ezta?

-E? Suertia! Legionaixuakin, legionaixuakin juntau ta suertia. Ta gero fan zian sei eruan zittuan mekanikuak Zaragozaa. Ta han esaten eben anaiak, han lanian zihardueta, "Fulano de tal, que se presente! Que aquí está su madre esperando", eta "Bai, ointxe hilko naixue [...], nere ama ezin dok baiña, ez xakok /etxakok/ eskolaik, leitten be ez xakik /etxakik/".

Azkoittiarra, bai? "Ez xakik /etxakik/ ezetan ta, zela ba, nere ama ez dok /eztok/ honaiño aillau, ez dok /eztok/ aillau".

-Nor hori, zeuen ama?

-Ez, ez, lagunen, nere anaian lagunena ama. Azkoittikua ha.

-A, Azkoittikua.

-Eta, "Guazen bixok, neuk lagunduko dostat", "Bai, guazen", "Le voy a acompañar a mi amigo, ¿eh? Que ya le conozco a su madre y voy a saludar" y "Si, si, vete". Oso ondo tratau zittuen Zaragozan.

-Baiña zer, fan zan ama?

-Ta ama hantxe! Zortzi bat urteko neskatillatuakin, hantxe. "Zela etorri zaie ba, ama?" ta "Paketiak be ez dittuk /eztxuk/ ba ailleaitten? Ba gu be

aillau gaittuk paketiakin letxe”, atzea. Ta “Honek baekixen gaiña estaziñuetan bai ta Zaragozaa aillau gaienian urten duu”. Neskatillatxuak ekixen leitten. Amak ez ekixen. Ta haintxe, ama ikusi ta zertu ta ondo. Eta handik librau ta etxea bialdu euen. Ez zan /etzan/ eon nere anaia...

-Kartzelan e?

-Bapezta kartzelan. Ta beste anae bat Eibarren eon zan zeak, ba, muniziñuak-eta eitteko lekuan eon zan ta ha be zeian. Ta eriuta hoixe bakarrik, gaztiena eon zan eriuta. Biaña ondo urten eben. Ondo jarri zan, eriuta eonda ondo jarri zan. Eta holaxe. Eta gerra denpora dana pasau geben danok “por ahi”.

-Biajian.

-Biajian.

### 8.31. Bordelen 7 hilabete errefuxiatuta

- **Hizlaria(k):** Txintxurreta Goenaga, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-085/008
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 00:17:02. **Bukatu:** 00:20:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Leturia, Ane
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- **Laburpena:** Avilesen itsasontzia hartu, eta ahizpa eta biak Bordelera joan ziren. Bertan Alacanteko familia batean egon ziren. Maritxu 7 hilabetez geratu zen, baina ahizpa lehenago itzuli zen etxera. Handik itzuli eta gero joan zen neskame Donostiara.

#### Transkripzioa

- Ni Avilesen sartu barkuan, ahizpia ta bixok, eta Burdeosea.

- Frantzian zenbat denbora in zebeñ?

- Zazpi bat hillebete, edo gutxiau.

- Ta frantsesez ikasi zebeñ edo?

- Bai zea, eurak ekixen erderaz ta! Alicantekuak zian ni euki nindduen familixia. Familixia oso majuak e! Bea zan Alicantekua, andria frantsesa, baiña erderaz ederki ekixen! Eta nik haikin erderaz itten neben eta... Berba batzuk bai ikasi nittuan baiña, saludaitten ta holakuak, baiña besteik ez. Eta ni hain etxea fan zianian, ointxe zuek etorri zaien letxe, fan nitzan, silla bat euan libre eta neuk okupau neben, ha sillia. Eta mina bateko zea zan, enkargaua zan.

- Gizonoi?

- Gizona. Eta etorten zan holakotxe billete morduakin, obreruai pagaitteko ekarten notsan. Eta ha holako bankotxo bat euen onduan ta hantxe jarritta egoten zan; ez, ez, ez molestaitteko, ta bankutxuan jarri ta hantxe egoten zan. Frantzian. Eta oso, familixa bat, ona! Neskatillatxo bat eukain, beatzi urtekua, ta "la hija pequeña y la hija mayor".

- Ta zu hara ez ziñan fan koñatiakin?

- E?

- Koñatiakin...

- Ahizpia segidan etorri zan etxera. Ha alabia hemen itxitta eukan alabia be, baserrixan, Goixenetxen, Baxilin etxian, e?

- Bai, bai, bai.

- Han bakarrik nenguan ni. Eta bestiak, gura ebenak, etorri zian honutz. Ta

gu ez giñan etorri, pillia geatu giñan han. Hamen Aitzekuak eta —oinddio bizi dia— geatu in zan han eta holaxe. Baiña... Neu oso ondo tratauta euki nindduen eta oso pozik egon gintzezan. Eta geo ba hemendik be, ba, artian gaztiak giñan ta ama ta etxaitten noiz etorriko, etorteko ta etorteko, ta, ba, etorri nitzan. Eta Irunea. Ta Irunen lehenengo hartu nindduan... Ni neskatilla ya, ba, hamazazpi-hemezortzi urte neukan, eta ederra nenguan, neskatilla... Gosia pasautako moukua ez behintzat, eta “¿Cuántas ratas has comido en Bilbao?” esan nostain, ta “No, no he comido ratas”, y “No, esa no ha comido ratas. ¿A que has estau bien en Bilbao?” y “Sí, estuve bien en Bilbao” ta gero [...] be istorixie kontau nostain [...] ta ondo ibili giñala ta oso ondo. Ta zeati, ta, ba, esan nosten zeati, ahizpiai lagunketiarren, gizona frentera fanda bakarrik geatu ez zein /etzein/ halaxe urten nebela ta , bueno, siñistu baeuen ez baeuen behintzat libre itxi nindduen ta etorri nitzan etxea ta kitto. Holaxe.

-Oseake gero handik etorri ta gero juañ ziañ Donostiara?

-Bai, handi etorri ta gero fan nitzan Donostiara, kriada, zeakin, katalanakin.

### 8.32. Milizianoak etxean

- **Hizlaria(k)**: Arregi Idigoras, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-089/004
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:05:48. **Bukatu**: 00:07:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
  - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- **Laburpena**: Gerra hasi zenean, Maria Imitolan zegoen, bere jaiotetxean. Gogoan du miliziano kuadrilla bat Udanatik etorri zela, eta ahal izan zutena eman zietela. Arrautzak plazan saldu, eta diruarekin olio edo azukrea erosten zuten.

#### Transkripzioa

- Kafia hartzen ta.

- Badakit gaiñera bat. Neuk dakot grabaziñua. E... Alejo Ugarte.

- Alejo.

- Eta igual Kapo be bai.

- Nik eztakitt. Orduan nik... umiak gu artian e. Ezautu ez geben itten. Alejo bai, nola zan auzokua. Ta eskolan gaiñea euran etxian egoten giñan bazkaitten. Geuk bazkaixa eruaten geben baiña han etxian egoten giñan. Alejo ezauketan geben. Eta hara etorri zian kuadrilla haundi bat, Udanatik pasauta ta, geukanak emun gosten, kafia, arrautzak, geukanak, eta gero Aurreko Mendira fan zian handik.

- Bai, hoixe. Gauza iguala esaten dau berak. Ointxe gaiñea papelera pasau dot zea.

- Bai.

- Alejo Kapoi esaten “ez haiz akordaitten Imittolan arrautza pare bat ta zela jan giñuan?” Ta geo Aurreko Mendira.

- Aurreko egunian ama fan zan kalea, mobiu zan, baina ez otsain ametiu ta arrautzak bestela ez zian egongo. Arrautzak saltzera eruaten gittuan. Eta arrautzakin atzea buelta in euen kalea sartu barik, etxea. Ta arrautzok danok han euzen. Otzarakadia. Batzuk uretan pasauta.

- Kalea faterik be ez euen orduan?



- Egun hartan ez behintzat.
- Baina herrixa trankil euen, ezta?
- Artian bai.
- Problemia hor Udanan euen.
- Artian bai, zapatuan bai. Hori domekia zan, e. Beste egun hori domekia izango zan. Aurreko egunian e... zapatuan behintzat ez otsain amari kalera faten itxi, nik badakit hori. Atzea bueltau ta, Iruretatik edo, atzea bueltau zian gora. Eta azukarrik be eztakitt egongo zan, zeatik e, astian astekotxua eruaten zan orduan. Dirurik ez euen ta. Arrautzakin hartzen zan diruakin asterako olixua ta.
- Eta arrautza horreik itxerik itxe saltzen zittuein edo plazan edo zela?
- Plazan, bai. Bueno, enkarguak egoten zian batenbat, dendan baten. Baiña aparte plazan.
- Plazakua zapatutan izango zan.
- Zapatuan, zapatuan itten zan orduan be plazia, bai.
- Ta zu gerría hasi ta gero fan baziñan Legazpira, ya Udanakua pasauta euen? Udanako frentia ta?
- Nik uste...

### 8.33. Gerrako kontuak

- **Hizlaria(k):** Arregi Idigoras, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-089/005
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:07:48. **Bukatu:** 00:09:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Gerrako hegazkinak pasatzen zirenean, karobi zaharrean gordetzen ziren. Legazpi aldetik soldaduak ihesi etortzen ziren. Euren baseritik, lmitolatik, pasatu zirenak gogoratzen du.

#### Transkripzioa

(Ta zu gerría hasi ta gero fan baziñan Legazpira, ya Udanakua pasauta euen? Udanako frentia ta?)

- Nik uste dot pasauta euela. Bai, bai, bai. Zeatik e, ni han neuela hor Elgeta aldera ta pasaitten zian zerak, aireoplanuak. Mordua. Ta gu han karobi zahar batera ta sartzten giñan orduan bildurrakin. Ta bai, bai, pasauta euen. Udanakua pasauta, gero zan hori.
- Olabarrietan bapebe bonbarik jausi zan edo dana goixan izan zan?
- Eztakitt nik Olabarrietan ez zan. Han Udanan edo ez zan egon batenbat?
- Udanan hilddakuak be bai.
- Bai, bai, hori bai, egon zian bai. Geo beste... ez dakit.
- Baiña burrukia kalea ez zan etorri.
- Ez dot uste, ez, ez. Kalian uste dot pasau bakarrik ingo ziala o eztakit zela izan zan be.
- Bai, zeatik e, Alejok...
- Umiak giñan artian ta...
- Alejok kontaitten dosku handik Aurreko Mendira, Imittolatik Aurreko Mendira fan ziala eta geo Torrera. Ta Torretik "vigía" batzuk bialdu plazara, aber ze giro euen kalia. Torre, Torrealde.
- Torrealde, bai.
- Eta "vigiok" bueltan etorri ez. Eta eurak azkenian gabaz, jeitsi ziala

hamaikak aldera, eta bi edo hiru lagun metrailetakin xoiazela, eta plazako argi danak ixututa. Ta iñobez. Katurik be ez plazan. Eta portalik portal fan ziala bilddurrez, batenbatek bentanatik tiro ingo ete otsain edo, eta Zubillagara fan ziala handik. Eta geo handik Elorrixora.

- Ta hortik aurrerakorik ez dakit. Nik gurian egon ziana, hori bai. Eta aurreko egunian hor Legazpi aldetik pasau zian han goittik behera, guretik behera, bueno... igesi.

- Milizianuak?

- Ez dakit nik zer zien! Gu umiak itturrittik ura karriu, amandriak esnia baeukan egosi ta bi pitxarkada danai, pasau zian danai emun gosten zerbait. Ta guretik behera nik ez dakitt nora fan zian, Oñatittik aurrera fango zian. Ya baetozen Legazpi aldetik honutz itxuria, ta danak ba mendittik, Imittolatik behera.

### 8.34. Gerra hasi zenean

- **Hizlaria(k):** Biain Biain, Luziana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-106/009
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:09:23. **Bukatu:** 00:11:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- **Laburpena:** Gerra noiz hasi zen. Karobia erretzen zebiltzala sartu ziren erreketek, bi aldetatik. Milizianorik ez zen egon, soldaduak bai. Oinez joaten ziren Bergararaino, dantza egiteagatik, Oñatin ez zegoelako. Arrasateko asko joan zen Oñatira bizitzera, ihesi.

### Transkripzioa

- Nik zierto-ziertua ezta kint /ez dakint/ gerra noiz hasi zan, solamente ba, ze esangot /esango dot/ gu karobi erreten gebitzela bai, eta nik hamabost urte neukala, ba reketiak nola sartu zian, batian batetik eta bestian bestetik, ta gu bilddurrez .

- Ze aldetatik sartu zian ba reketiak, ze...?

- Aloña aldetik, Miñagoitti hor goittik eta Olabarrieta aldetik, ya hartuta eukain dana reketiak.

- Eta hemen milizianuak etzian /ez zian/ egon?

- Milizianuak? Ez. Hemen soldauak egon zian baiña milizianorik etza /ez zan/ egon, soldauak bai, soldauak hemen egon zian denpora gutxixan e? Ta gero hemendik Bergarara fan zian. Ta gu faten giñan Bergarara dantza ittiatik oiñez, bandadak...

- Soldauakin dantza ittera?

- Soldauakin dantza ittera, han musikia egoten zan ta.

- Ta hemen, Oñatiko plazan, etzan /ez zan/ muskarik egoten?

- Etzan /ez zan/ egoten.

### 8.35. Gerran hildako araoztarra

- **Hizlaria(k):** Lazkano Lizarralde, Eusebio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa - Goiria Mendiola, Nerea

- **Erref:** ONA-109/030
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:29:11. **Bukatu:** 00:30:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- **Laburpena:** Gerran, araoztar bat hil zen: Sinforoso, Madinakoa. Balaz hil zutela uste du. Tristeza zen egoera, noiz hilko ziren beldurrez egunero, hiru urtean.

### Transkripzioa

-... edo, edo, ze giro egon zan Araotzen gerra denporan? Han hildakorik egon zan, gerran hil zan iñor Araotzen?

-Bat hil zan, bat hil zan.

-Zein izan zan?

-Sinforoso.

-Sinforoso? Ze etxetakua?

-Maiñakua, Azkoittiña.

-Azkoittiña.

-Haxe hil zan bakarrik, e?

-Sinforoso horren apellidua badakitzu?

-Zumalde.

-Ta zelan hil zan?

-Gerran, gerran. Zelan hilgo zan ba? Balia sartuta gero.

-Baliakin, o bonbiakin be izen leike e?

-Baliakin uste dot hil zala. Orduan e, tristia zan ha, tristia! Bizitteko pozik ez! Gaur batzuk eta bixar beste batzuk. "Gaur be hil dittuk honenbeste, ta bixar gutakua izango dok". Holaxe beti. Hiru urtian ibili in bihar da hola, e?

-Bai, ez ibilttia hoba!

-A, ez ibilttia hoba baiña ez euen ihes eitteik, e! Nora?

## 9. Euskara

### 9.1. Eskolak erdaraz eta diziplina zorrotza

- **Hizlaria(k):** Ugarte Umerez, Nikolas
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-049/006
- **Iraupena:** 0:04:33. **Hasi:** 00:16:25. **Bukatu:** 00:20:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** Eskolak erdaraz jaso zituzten. Maristetan diziplina gogorra zegoen. Maisuari aurre egin beharrean ere izaten ziren batzuetan.

### Transkripzioa

- Eta maristetan, bueno monjekin, erderaz ingo zetsuen monjak, ezta?

- Ez naiz akordaitten, baiña uste dot baietz, maristakin bai, erderaz.

- Kanpotarrak zian?

- Ba tartetan euskaldunen batzuk eta etorten zien, direktoria urte askotan izan zana hermano Carlos hau uste dot Antzuolakua zala ta euskeraz be itten eben, baiña eskolarik eta hola ez, ezta pentsau be ezta. Naparrak be bazian banakan batzuk, bai, euren artian.

- Eta Maristak gogorrek zian?
- Hareik bai, haik gogorrek zien.
- Zorrotzak.
- Haik gogorrek zien. Haik ya "dictadores". Han goizeko beatzittatik eguardiko hamabittara, eta ordu bittatik bostetara izaten zan eskolia, eta beatzittan joan eta danoiri jarten oskuen zerian, patixuan, illaran. Eta atzenengoko urtian, g(a)iñera, akordaitten naiz euki geben direktoria ba zan la letxe esaten dana. Harek pentsau eizu, formaitten zittuan taldiak eskola barruan, "equipos", eta arduraduna, ni bastante aldiz izaten nintzan arduraduna, ez dakit zeatik, haundixenetako bat nintzalako edo zeatik, eta sartu oskuen buruan hola norberak zera, norberan lagunak, batzuk egoten dia leku guztietara berandu aillagaittian diranak, ba geuk zela exijiu "hi, etorri" porke gero haren araberan emuten oskuen punto batzuek, eta hillen atzenien sari batzuk, ez dakit zer sari, ez naiz akordaitten zer sari izaten zien, baiña behintzet bai emuten oskuen holako sari batzuek, ezta? Eta geu arduraketan giñan lagunairi: "Hi, benga e, argi porke", hainbesteraifñokotxe zerakin.
- Hori egurra emutia modukua da, ezta?
- Bueno bien, baiña aparte egurra be baitta. Ni akordaitten naiz neure koiñatua, oin nere koiñatua dan bateri behin, galdera bat in, ta ez otsalako ondo erantzun, aurrekaldera pasau eragin, ipiñi han belauniko horrek hermano Carlosek hasi blou, blou, blou, hamalau golpe emun otsan, ez hola zerak baiña bai, nehiko.
- Min emuteko modura.
- Bai.
- Min eta aparte, han danen aurrian.
- Danan aurrian, danan aurrian, hori izaten zan zera.
- Zeatik hamalau golpe?
- Ba horixe, ha hasi zan, oso nerbiosua zan maixua be, hamalau moduan izan zekien hamar edo izan zekien hamasei, ezta? Baiña guk lagunok edo han geontzenak horixe dakou buruan, hola guk lagun artian kontu horreik etaraten dittugunian, holako gauzak urteten daue berihela, platora. Hamalau, e? daunba, dunba, dunba, hamalau emun otsan eta gero beste batzuek be, maixu batzuk euzen nehiko gogorrek, nehiko gogorrek, bai. Nik neuk desarroillua nahiko aguro euki neben, gazterik in nintzan haundi, ezta? Eta bat euen "maixo txikixa". Ta neri ondiok lagun arteko afarittan eta batek esaten dost: "Hi izan hintzan bakarria maixu bateri...", jotia intentau nontan eta heldu notsan besotik. Bera baiño haundixaua ixa nintzan ni, eta ez notsan itxi joten. Dios, harek hartu nontan neri gorroto bat!
- Klaro, berandako umia ziñan.
- Bai ba, eskolako sarreran zan, ondiok akordaitten naiz nun, eta oin lagun arteko zera eukitten dogunian, sarri esaten dost lagun batek, "Heu izan hintzan han bakarria"! baiña ez, ni bakarrik ez, beste batzuk be baeuzen frente...
- Bai, frente itxia orduan maristeri izango zan kriston reboluziñua.
- Honbre, horixe zala, ez pentsau, e? Gero beste batzuekin oso ondo arreglaitten nintzan, oso ondo.
- Danetik egongo zan.
- Bai, han momentu hartan ez dakit zeatik, uste dot ikusten nindduala, ba esan dotsueten moduan, aguro desarrollau nintzalako ba ez dot esaten nagusi ezta, baiña bai, hola deportian ta be inddartsua nintzan ta, holako gauzak bai, ta harek hori ez eben onarketan itxuria.
- Zeluak. Bera txikiña zalako igual inbirixia.
- Zeluak edo... bera txikixa zan, "maixo txiki" eukan zera, bai, ezizena.

## 9.2. Miren Arantza edo María Aranzazu

- **Hizlaria(k):** Uriarte Eizagirre, Miren
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-057/003
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:03:12. **Bukatu:** 00:05:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** Euskal izena ez zioten onartu erregistro zibilean.

### Transkripzioa

- Beziñua ebillen hemen, Errementeriko Jose Luis difuntua edo zera ikasten, hau, abogau edo ikasten. Aurretik erlijiosotarako egon zan eta gero por libre edo ebillen abogautarako gure Errementerikua ta harek in otsan gestiñua edo lanok itxuria. Bixak ziran euskaltzale amorratuak, nere ama be bai, eta Miren Arantza ifiñi otsain papelian izenori, ta hala in euen hareik, Miren Arantza, ta gero han ametiu ez, leheningo ifiñi bai, baiña handik zera atara nebenian, hau seguro sozialeko papelak itteko atara nebenian, han ikusi neben zeori, partida de nazimientuko zeori. Orduan papeleri artian ondo aprobetxaitten zan, alde bittatik eskribiuta. Ta zera, borrauta eta atzera azpikaldian María Aranzazu ipiñitta. Miren Arantza borrauta, kenduta. Ta bi edo hiru buelta in bihar izan zittun Jose Luis horrek, Miren Arantza ipiñi bi(har) zala eta ez zala.

- Baiña Miren onartu in euein, e?

- Ez ba!

- Miren be ez?

- Miren ez, Arantza bai, Miren Arantza nola Arantza zan, baiña gero Aranzazu, Miren Aranzazu.

- Baiña María Aranzazu...

- Bai ba, María Aranzazu gero, ez euen hartu, ez euen; ha in ebelakuan etorri zan, baiña gero ez osten ametiu, ta "en cambio" elizan María Aranzazu dakot, leheningotik ifiñi nostain, elizan bautismuan, María Aranzazu neuken. Baiña juzgauan, klaro, hara fan zan zera ittera, aittan lekuan hori mutillori, Gernetako Filomenaren nobixua izandakua, gero ezkondu zan beste anaiakin baiña, eta retxazauta neukela zeori, Miren Arantziori. Oin neri betik Miren esan xostai hemen, e!

## 9.3. Biblia euskarara itzultzen

- **Hizlaria(k):** Irizar Guridi, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-073/008
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:14:49. **Bukatu:** 00:17:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Euskara » Euskararen egoera  
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak

- **Laburpena:** Bere semeak Araotzeko Paulo fraidea izan zuen bizikide Donostian. Paulok hiru urtean jardun zuen Biblia euskaratzen, Arantzazuko bere gelan sartuta.

### Transkripzioa

- Eta gero hortik etorri zuan hona, hemen Arantzazura, gero Donostian euki xuein eurok hiru-lau bat, etxe baten egoten zittuan. Araoztarra bat, Paulo.  
- (...)  
- Horen anaia franziskanua eta hor hiru-lau bat egon zirala. Hara fan aurtxuan horrek euki xuan lana fuertia. Hiru bat urte in txuan horrek Arantzazun zeldan sartu bai, bere kuartuan, Biblia euskerara traduzitten. Horreik orduan ekipua ibilli dok hor, protestantiak-eta danak ibilli zittuan; baiña hori dok pixurik gehixen eruen ebena, hori bibliori euskerara traduzitten. Zeatik honek zela grieguok eta latiñok eta harutzaokuok eta honatzaokuok, honek lengua asko xakik, afiziñua euki xok beorrek gaiñera eta, horrek bakaziñotan be etxera etorten zanian etxera, saludau bai baiña fan itten zuan, edo Irlandara -do, Inglaterrara ingles ikastera-edo, Frantziara frantses ikastera-edo. Leku danetan konbentuan zela "hotel pagado" eukitten dauen, danian xakuei ba konbentuak, afeziñua hortarakotxe. Eta hori Biblia traduziu xuan kolejixuan, hiru bat urte bai.  
- Urten be in barik!  
- Urten ba reunixua eukenian, batian Mondrauera ta bestian Segurara edo zerara...

### 9.4. Meteorittoa Zañartun?

- **Hizlaria(k):** Urzelai Aiañtui, Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-075/012
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:31:55. **Bukatu:** 00:34:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elortza, Kepa
- **Gaia(k):**  
Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia  
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena:** Batzuen esanetan, meteorito batek utzitako harri pila handi bat dago Zañartun, Iturri Zahar inguruan. Harrizko horma sail luzeak ere badaude inguru haietan; gerrarako edo ganaduentzako eginak, nork daki. Zabaleta abadea ibili omen zen misterio horiek argitu guran, baina ez zuen arrakasta handirik izan. Bakuetik harri pilaraino "Zabaletaren bidea" izeneko bidexka bat dago.

### Transkripzioa

- Ni jubilau ta gero, txakurrakin basuan nabillela kaza denporan, Iturri Zahar esaten xaugun leku horretan, txakurra ulia harro-harro egindda, nere artian ba "ze pasaitten dok?" Eta zaratia entzuten neben piñu artian, "ze pasaitten dok hemen?". Hala fan naiz begira eta gizon bat, Garaialde ikusi neben. "E!" esan notsan: "Zer dabitzu hemen?" ta "hemen nabil!" Orduan ibiltten zan hori perretxiku billa, ez dakit zelako perretxiko klase bat, asko egoten da, asko egoten zan basuan, oin ezkutauta egongo da seguramente. Hor dagoz Iturri Zaharra entzunda eukiko dozue zuek, hor dago harri pilla bat, harri pilla haundi bat, esaten meteoritua ete dan ala ez

ete dan. Zabaleta abadia ez zeuen zuek ezagutuko, entzunda igual euko dozu zuk.

- Entzunda bai.

- Entzunda. Hori da zientifikua, zala esaten euen, egon zan epoka baten Zabaleta sendia. Bakuetik Zabaleta sendia, hor harri pillara, eta hor inguruan egozen tremendako pareta zaillak indda. Oin be egongo dira baten batzuk. Tremendako pareta zaillak indda, eta horrek hori itxuria han ibilli zan ikusten, honeik gudarako indda ete dagoz? Gerrarako indda ete dagoz? Eta ez dakit, ez dot uste. Honeik ganaduentzako zeozer indda. Pareta asko dago hemen indda. Eta hartan geratu giñan. Horko sustarrrik iñok be ez dau atara.

- Itturri, zuk Itturri Zahar ze esaten dozu, Zañartukua? Honein Etxeaundiko zera? Etxeaundittarren...?

- Etxeaundittarren terrenua esaten dozu?

- Bai.

- Terrenuak horreik izango ziren, onduen dauena behintzet bat oin Upaiñek erositta, Etxeaundik be hantxe onduen dakoi, baiña...

- Bittoriano Etxeaundik esan doskun berak iñ ebela, hauxe lan hau berau itten, berak iñ ebela itturri hori.

- Bai, itturrixa, han ha beheko zailla horrena da, justu-justu ezkiña harrapaitten dauena. Baiña pillia, harri pillia dauena ez da beria, bere terrenua. Itturrixan egon za?

- Ez, ezta.

- Lehengunian esan nostan batek itturrixa total galdu dala oin.

- A bai, e?

- Bai, horrek iñ eben baiña iñok gehixau kasorik iñ ez eta badakitzu...

- Maittasun haundixakin iñ eben ba.

- Horixe! Inaguraitten eta danian egon giñan gu han! Botilla ardaa, bi botilla ardaa eren bai, eta bat eran geben eta bestia gorde han bai, eta hurrengo fan giñanian topau ez.

## 9.5. Erdaraz nola ikasi zuen

- **Hizlaria(k)**: Txintxurreta Goenaga, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref**: ONA-085/004
- **Iraupena**: 0:01:56. **Hasi**: 00:06:48. **Bukatu**: 00:08:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Leturia, Ane
- **Gaia(k)**:
  - Euskara » Euskararen egoera
  - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- **Laburpena**: Anaia Madril aldean zauritu zuten. Kataluniar nagusiekin ondo konpontzen zen Maritxu. Goienetxen esnea saltzen zuten kalera, eta erdaldun asko zegoen herrian ordurako. Horri esker, Donostiara joan zenerako, nahiko ondo egiten zuen erdaraz.

## Transkripzioa

-Ta zure anaioi zan gaztiaua zu baiño?

-E?

-Zu baiño gaztiaua?

-Ez, bi urte zaharraua. Aspaldi hil zan, kanzerrakin. Bi anae hil xat nei kanzerrakin.

-Eta hori, gerran, nun eriu eben ba?  
 -Hori eriuiko euen, ba, zeien, hor Madril aldian eo hor eriu zan. Nun ez dotsut /eztotsut/ esango, ahaztuta dakot. Bai.  
 -Ta zuek ze moduz entenditten ziñain zeuen nagusixakin, katalanokin?  
 -A, ondo, oso ondo. Neretako oso onak izan zian. Eta porteriak esaten nostan: "Maria,¿ha estado usted en muchos sitios sirviendo?" y "No, es la primera vez que vengo a servir. Estábamos en caserío, no teníamos ni un real y pues he venido así" . "Que mala suerte has tenido Maria.", "¿Si?", "En un año seis chicas ya ha cambiao", "¿Si? Ah pues no sé, yo no sé, pero pa mí son buenos". Baiña nei ondo trataitten nindduen.  
 -Baiña zuk erderaz, ya nahiko erdera bazekitzun ordurako?  
 -Bai, erderaz... Erderaz guk txikittatik ikasi geben erderaz, zeatik esnia saltzen geben bai baserritik. Ta hemen kastillanauak, ordurako kastellano asko euen, eta herrira etorten zien kastellanauakin erderaz guk... ez ondo, baiña ondo entendittekou mouan gekixen erderaz.  
 -Eta katalanak eurak euren artian katalanez.  
 -Euran artian katalan itten euen. Haik berbaik be ez euen eitten erderaz. Neri bakarrik erderaz.

## 9.6. Abade eta medikuei berorika berba egin beharra

- **Hizlaria(k):** Txintxurreta Goenaga, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Erref:** ONA-085/009
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:20:18. **Bukatu:** 00:23:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
 Euskara » Tratamenduak  
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola  
 Euskara » Tratamenduak » Berorika
- **Laburpena:** Eskolan Santa Lutzian ibili zen, fraide edo abade izandako bat maisu zutela. Maritxuren seme-alabak ere auzoan hasi ziren eskolan. Maritxuren maisua Murgiako Santa Kurtz errotako Migel izan zen. Eskola euskaraz eta gaztelaniaz jaso zuen. Maisuari zuka egiten zioten berba, baina abadeei berorika egin beharra zeukaten, medikuei bezala.

### Transkripzioa

-Orduan zu eskolan gerra aurretik ibili ziñan, ezta? Ibili baziñan.  
 -Bai, eskolan ni hementxe! Zeian, Santa Lutzian. Hementxe, e, ez dakit /eztakitt/ fraidia o abade eondakua o eztaikit zer zan maisua. Ta haretzek erakutsi oskun eskolia, ta ondo! Ta nere umiak be, honek be mas bien hementxe eon zian, ta maistrak be onak eon zian hemen umiai eskolak erakusteko. Maistrak be onak euki gittuan ta hemengotxe eskolia daukuu guk.  
 -Zuk goguan dakotzu maisuen izena? Orduan euki zeuben maisuena.  
 -Migel zan, bai.  
 -Migel, frailia edo...?  
 -Ez. Ba, ez dakit /eztakitt/ fraille eondakua zan ala abare eondakua zan, ez dakit. Hementxe Santa Kruz baserrikua zan izatez.  
 -Errotakua?  
 -Hementxe Murgi auzokua. Santa Kruz, "caserío Santa Kruz".  
 -Baina errota da, ezta?



-Errotia, bai. Horkotxia zan. Horrein, oin dauzenen tio izango zan.  
 -Eta eskolok euskeraz emoten otsuein edo erderaz?  
 -Bueno, bai, euskeraz be bai ta erderaz be bai. Orduan erderaz euen ordenia, itteko umieiri erderaz, ta erderaz be itten oskun ta...  
 -Baiña euskeraz be bai.  
 -Euskeraz be bai, bai. Bai, oso maisu ona izan zan, e? Oso seberua.  
 -Gerra ostekuak kastigo asko jasoten zittuain euskeraz itteaitik, ta berriz gerra aurrekuak ez.  
 -Kastigo... hola euskeraz ta erderaz ittearren kastigo asko ez eben emoten. Kastigo haundixena euki geben, abare bat eon zan hemen, Don Leonardo. Bai? Eta hari danak esaten otsain Zabaleta. Eta guk be, "Han! Zabaleta badator!". Ta berak entzun igual. Eta horren gaiñian zerik haundixena, esaten oskun: "Ez deskuidau esaten Zabaleta, e! Esan Don Leonardo". Ta bueno!  
 -Baiña ez zan Zabaleta ala?  
 -Zabaleta zan! Baina "Don" ez zeukan! "Don" bihar.  
 -"Don Zabaleta" esan bihar.  
 -Ez, ez, "Don Zabaleta" ez gotsan esaten, Zabaleta!  
 -Zabaleta.  
 -Apaizari orduan errespeto haundixa jakon, ezta?  
 -Bai ta maixuak esaten [eben]: "Horri Don Leonardo esan, e! Ta, han, badator Don Leonardo esan. Zabaleta ez esan". Baiña, tartian...  
 -Eta zuek maisuari zuka edo berorika edo zela itten zotsain?  
 -"Zu" esaten gotsan guk, beti "zu".  
 -Eta abarieri?  
 -Abariai "berori".  
 -"Berori".  
 -Bai, hori bai, hori bai "berori".  
 -Ta medikuari ta?  
 -Medikuari be baitta. Medikuari be beti "beori". Gero be bai, e! Gero be guk ezautu dittuun medikuari beti "beori".

## 9.7. Burdinarea nola egin

- **Hizlaria(k)**: Aizpeurrutia Etxeberria, Jenaro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arana, Iñaki - Oregi, Lide
- **Erref**: ONA-178/017
- **Iraupena**: 0:02:50. **Hasi**: 00:27:51. **Bukatu**: 00:30:41
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Arana, Iñaki
- **Gaia(k)**:  
 Euskara » Lexikoa  
 Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea  
 Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak
- **Laburpena**: Burdinarea zelan egiten zuten azaltzen du.

### Transkripzioa

- Burdiñaria zelan eitten ziñuen?  
 - Hauxe dok samurrena, kuadraua ekarri hamengua, "por ejemplo cuadrado de veinte" hogeikua, tiratu besteik ez, neurrixan moztu ta kitto. Ta tiratzeko? Berotu, hamentxe berotu bihar, honek lan gehixau xakok, honek in bihar xok hau, forma hau, honek egurrian gora ez dau pasau bihar; formatxua emon ta geo hau puntiau, hau zaillaua, lan gehixau, ta

hauxe burua pittin bat arreglau ta kitto.

- Eta zulua eitteko, zerekin?

- Puntzoiakin, berotu, plasta! Puntzoia egurrian ipinita zulaketako, hau dok "por ejemplo", hau dao kirtenian sartuta, hamendik sartzen bozu ultzia hor urtengo dau, blangaatu edo rajau ez itteko ifintten notsan arandela bat burdiñiakin, atzian beste bat, ta hamen sartzen notsan hori puntzoioi, ta puntzoia eoten zan ba kirtenakin, eskuakin ibili barik hamen hartu ta zarta! Zulua.

## 9.8. Uhala nola egin

- **Hizlaria(k)**: Aizpeurrutia Etxeberria, Jenaro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arana, Iñaki - Oregi, Lide
- **Erref**: ONA-178/018
- **Iraupena**: 0:04:12. **Hasi**: 00:30:41. **Bukatu**: 00:34:53
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Arana, Iñaki
- **Gaia(k)**:
  - Euskara » Lexikoa
  - Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea
  - Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak
- **Laburpena**: Uhala egiteko eman behar ziren urratsak.

### Transkripzioa

- Burdi-erruberak zelan eitten ziñuzten?

- Lenengo biok uhala, geo biok egurra; egurra hamen itten zuan bertan. Arotz gurian jeneralian aitta ibiltten xuan, aittajunak be bai, baiña aittak sasoi hobia xakon orduan. Tabloiak zerran ebai ta eukitten zittuen beati-hamar bat urtian pillan sikaketan, sendua izate zuan ta. Hareik bata bestiak josi, baiña josi zeakin e, honeik burua daukan moduko ultzia bi punta zorrotzak ta tablero bat, hau, hamen zulua baleko sartu hor ta bestia amen sartu ta pegauta hola. Haik lenengo ultziak, holako ultza zarrak, goixan sartuta ta behian sartuta, erdiz erdi, bat erdixan da bestia beste erdixan, biña edo hiruna ultza. Geo, len ibiltten zuan uhala, uhalan alturia bueno horri esate xakon normalian nobentakua.

- Zelan eitten zan uhela?

- Ebai, han batu, lelengo uhala ekarri Patxionetik eta Bitorixatik eta, "treinta por treinta o veintiocho por veintiocho" kuadraua, neurrixan ebai. Llantiak bixok egurrak baiño pittin bat gutxiau, berotuan nasaittu itten dok eta. Hoi hotzian hor doblau! Hoi hotzian batek albo batea ta bestiak bestea, itten zuan doblau, bastante ondo itten zuan bi lagunekin, bai. Hor zea itten zuan, aprosima itten zanian geo hamen katxarru horreaz, hau, batu eindda badau, kanpotik jo, amen zulua eoten zuan, kanpotik, eta uhala hola badau hamen hola ipiñi ta barruan golpia emun ta beroi batzen dok neurrira, pegaitteko bixak, txafiana atara, formia etara bixak pegatzerakuan geratu deixen altura berdiñian. Gero berotu hor uhala, eta beroketan danian etaraten dok bi zeekin tenazekin gaiñian; geo hamendik eltzeixok tenazakin, ta faten dok sartuaz-sartuaz...

- Eta gero uretan sartu?

- Ez! Keiketan ez badao ez, keia badako bai; bestela hotzittu deixela. Egurra labrau barik dau, geo ipini lurrian da formia onekin. Lenau atxurrak, atxur orrekin gasta, gasta, gastatzen albo bittatik, ta geo itten ako

neurrixak hartu ta burtzillan zuluia, ta ha inddakuan hona; txapak preparauta, hor zulatuta, ha zulatu zeakin, berbikiñakin, zulatu ta ultzia zazta, zazta, zazta, sartu albo batetik, ta geo beste errematxia amen; beste zeak igual, haik´e burtzillan kontrako...

### 9.9. Uhala nola egin

- **Hizlaria(k):** Aizpeurrutia Etxeberria, Jenaro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arana, Iñaki - Oregi, Lide
- **Erref:** ONA-178/019
- **Iraupena:** 0:03:21. **Hasi:** 00:34:53. **Bukatu:** 00:38:14
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Arana, Iñaki
- **Gaia(k):**  
Euskara » Lexikoa  
Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea  
Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak
- **Laburpena:** Uhala egiteko prozesua pausoz pauso azaltzen du.

#### Transkripzioa

- Baiña kosta eingo zan ba uela hor bertan egurrian sartzia, ezta?  
- Keba! Ez, berotuta egon bixok e, uala dana berotuta! bueltaka, ortxe pasadaka, pasadaka, aiketa zuluak... zuluak indda or taladruan, zulutik obatu olako zer batekin, ultze batekin trik! Bueltaka, bueltaka, bueno ointxe xak ondo au, zuri-zuri itten danian, broust!

[...]

- Eta bueltan iltzak josi?  
- Amendik urten aurretik ia! ultziak, lisuak, buru baiak, goittik bea sartu beai porsiakaso, amabi zulo ero amairu.

### 9.10. Aizkorak egiteko prozesua

- **Hizlaria(k):** Aizpeurrutia Etxeberria, Jenaro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arana, Iñaki - Oregi, Lide
- **Erref:** ONA-178/020
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:38:14. **Bukatu:** 00:40:14
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Arana, Iñaki
- **Gaia(k):**  
Euskara » Lexikoa  
Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea  
Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak
- **Laburpena:** Aizkorak galtzairutu eta zorroztu egiten zituzten.

#### Transkripzioa

- Aixkora asko galtzairutu dozu zuk hemen, zelan eitten ziñuan?  
- Aixkora zarra ekarten bozu galtzairaketako, ebai in bihar dozu dasta!  
Dana ebai, hau eoten dok sendua hau, geo hoi pletinioi doblau, hor enkajau bihar dau e, ta geo bixak berotu ta lenengo goittik bera ta gero

golpia hemetikaldera, haik eta pegau arte, gero "en cambio" tiratu, luzetu, lenengo pegau baiña golpiak aldrebes barrura jota e, albo bittan. Eta gero desteran hor zorroztu. Beste sudada bat hor, biren artian, baiña zapaldu in bihar, emun ein bihar!

- Eta gero pulidu?

- Guk ez dou pulidu sekula be, horreik pulidu ta horrek fabrikakuak dia, horreik gerokuak dia. Hau tenplia igual, hau rebenidua ta, oin sartzen dozu labian, ze galtzairu da F521, dana labera hainbeste graduaziñokin, hartzen dozu ta broust!, golpera olixotara; geo etaraten dozu ta rebenidu ba ez dakit zenbat gradu dan, atzea ixten daue han ta kitto; ta zuek olixua erabiltzen ziñuen hortarako? Guk ez, betik ura.

### 9.11. Igitaiak, segak

- **Hizlaria(k)**: Aizpeurrutia Etxeberria, Jenaro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arana, Iñaki - Oregi, Lide
- **Erref**: ONA-178/026
- **Iraupena**: 0:01:11. **Hasi**: 00:47:41. **Bukatu**: 00:48:52
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Arana, Iñaki
- **Gaia(k)**:  
Euskara » Lexikoa  
Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea  
Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak
- **Laburpena**: Hagindun igitaiak ere egiten zituzten. Haginak zinzolarekin ateratzen zitzaizkion igitaiari. Igitai eta segak egiteko teknika, prozesua.

#### Transkripzioa

- Eta iddetaixak eta holakuak be ingo ziñuen ez?

- Itten xuan bai, baiña hamen ez jaok, hamen dauana etxian inddakua ez behintzat, hau ez behintzat. Baiña honek ez dauka hagiñik. Hagiñik ez, horrek ez jok hagiñik, baiña hau dok segian mouan pikaittekua ta bestiak gurian itten zienak hagindunak.

- Eta hagin horrek zelan eitten ziñuen?

- Zintzelakin, berotu lenengo, suberatu, materiala suberatu, ta gero zintzelakin taka-taka, ta gero tenplia emun, akabautakuan; agiñak etara.

### 9.12. Baserriko lexikoa

- **Hizlaria(k)**: Aizpeurrutia Etxeberria, Jenaro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arana, Iñaki - Oregi, Lide
- **Erref**: ONA-178/027
- **Iraupena**: 0:00:32. **Hasi**: 00:48:52. **Bukatu**: 00:49:24
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Arana, Iñaki
- **Gaia(k)**:  
Euskara » Lexikoa  
Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- **Laburpena**: Baserriko tresnen izenak; lexikoa.

### Transkripzioa

- Eta aizotzak eitten ziñuzten, karreteruak eta erabiltzen zebenak bide bazterrak eta garbitzeko?

- Guk ez juau ein, ez; batzuk esaten xok laizotza beste batzuk esaten xok marrajua, nik esate xat marrajua.

## 10. Natura

### 10.1. Karobiak erretzeko urteko sasoi egokiena

- **Hizlaria(k)**: Urzelai Biain, Andres
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Olañeta, Amaia - Urkiola, Argiñe
- **Erref**: ONA-179/007
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:05:54. **Bukatu**: 00:06:54
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:  
Natura » Meteorologia  
Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena**: Udaberriari egiten ziren. Neguan zergatik ez.

### Transkripzioa

- Zein zan sasoirik onena karia eitteko?

- Ba, udabarrían eitten zien [...]. Neguak badakitzu zer dakon?

Deskargaitteko denpora [...] txarra, zeatik karia, ba, sutan eitten dau hori, erreten, karia eitten [surik emonik]. Astelehenian letz sua emuten xako, ezta? [...] Egoten zan, astelehena, martizena, eguaztena ta eguena. Hiru egun ta gau bat, hiru egun ta lau gau edo lau gau ta hiru egun, lau egun ta hiru gau... hola eitten geben. Gero hiru bat egunian deskantsaitten egon bihar eben, oseake, hozketan, eskuakin etaraten zan ha dana ta. Ha gorittutakua eskuakin etaratzen zan. Ta negu partian egoten zana zan egualdi txarra. Hari mobitten baxakon ura, goitik eurixa eitten baldin baeben, izaten zan eskuetan ebalteko gauza txarra.

## Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

### 1. Ginea Bissauko kriolera (101-007/003)

Ginea Bissaun hainbat hizkuntza hitz egiten dira, baina hedatuetan kriolera da (portugesara, bertako hizkuntzekin nahastuta). Kriolera familiakoekin erabiltzen du.

### 2. Ginea Bissaun jaioa (101-007/005)

Aurkezpena: izena eta jatorria.

### **3. Bissautik Kubara, handik Portugalera eta ondoren Euskal Herrira (101-007/006)**

Euskal Herrira Master bat ikastera etorri zen, Kubatik. 11 urterekin joan zen Kubara bizitzera, ikasketa beka batekin. Bere adineko asko bidali zituzten, barnetegi batera. Portugalera joan zen bi urterako eta handik Oñatira.

### **4. Oñatira egokitzea erraza (101-007/007)**

Oñatira etorri zenean, ordurako bi lagun oñatiar zituen, eta ez zitzaion gogorra gertatu egokitzapena. Gaztelaniaz ere bazekien, Kubatik.

### **5. Kubara, 11 urterekin (101-007/008)**

11 urterekin Kubara joan zeneko oroitzapen txarrak ez dauka. Ume mordoa joan ziren, 200dik gora, eta etxean bezala sentitu zen, lagunartean.

### **6. Integratzeko arazorik ez (101-007/009)**

Oñatin ez du integratzeko arazorik izan. Bi lagun zituen eta haien koadrilan sartu zen zuzenean, eta jendea ezagutzen joan da. Ez du arazorik izan.

### **7. Afrikar bakarra, iritsi zenean (101-007/010)**

Beste atzerritar batzuekin duen harremanaz mintzo da. Bertakoekin zein kanpokoekin, denekin dauka harremana. Iritsi zenean, afrikar bakarra zela dio. Orain gehiago daude, eta urtero afaria egiten dute.

### **8. Dakizkien hizkuntzak (101-007/011)**

Hiru hizkuntza dakizkiela dio: portugesa, kriolera eta gaztelania. Euskara eta ingelesa ikasten ari da.

### **9. Euskara ikasteko prozesua (101-007/012)**

Portugalen, Coimbran, zegoela hasi zen euskarazko lehen hitzak ikasten, lagun euskaldunekin. "Zoroniak" esaten zuen "zorionak" esan ordez. Oñatira heldu zenean, euskaltegian eman zuen izena. Issac lagun azkoitiarrarekin ere dezente ikasi zuen. Etxean ere euskaraz egiten dute.

### **10. Ez du Gineako ohiturarik gorde (101-007/013)**

Ez du Ginea Bissauko ohiturarik mantendu. Arroza da plater nagusia han, hemen ogia bezala. Baina Wednesdayk noizean behin bakarrik jaten du arroza. Erljio aldetik antzeko ospakizunak dituzte Ginea Bissaun, musulmanen "arkumearen jaia" kenduta. Musika bai, entzuten du, baina ez dauka norekin dantzatu.

### **11. Euskaldunak itxi samarrak (101-007/014)**

Euskaldunak hasieran oso itxiak direla dio, Kubatarrak ez bezala; desberdintasun hori igarri du, baina ez du kritikatzten.

### **12. Hiztegia krioleraz I (101-007/016)**

"Epa" edo "kaixo" ez dute erabiltzen. Ginea Bissaun zortzi zonalde daude, eta toki bakoitzean bertakoa erabiltzen da agurtzeko. Oinarrizko hitz batzuk esaten ditu krioleraz.

### **13. Hiztegia krioleraz II (101-007/017)**

"Ongi etorri" eta "on egin". "Eskerrik asko" desberdin esaten da zonaldearen arabera. Keinuzko hizkera erabiltzen dute "bai" eta "ez" esateko.

### **14. Hiztegia krioleraz III (101-007/019)**

"Maite zaitut", "maitasuna" eta "101 hizkuntza".

### **15. Cabo Verdeko kriolera, antzekoa (101-007/020)**

Ginea Bissauko kriolera eta Cabo Verdekoa oso antzekoak dira, oinarri bera dutelako: portugesa. Kuban Cabo Verdeko asko egon ziren; hasieran aparte zeuden, baina gero batera eskolan.

### **16. Gustuko esamoldea kreoleraz (101-007/021)**

Kubako lagunaren wassap taldearen izena "Kundindin de blufus" da. Esanahia esplikatzen du.

### **17. "Yarama": eskerrik asko (101-007/025)**

Tribu bakoitzak agurtzeko bere hizkuntza erabiltzen du. Eskerrak emateko "yarama" erabiltzen dute Bissau hiriburuan, eta berez fulera da.

### **18. Esaera bat krioleraz (101-007/027)**

Esaera bat krioleraz. Esanahia: ezkonduak (umea daukaten bikoteak) maleta eta labezomorroa bezala dira, beti daude elkarrekin.

### **19. Gazteagoa zenean, kirolzalea (101-007/030)**

Ez dela gaztea dio, bere herrian zaharra dela. Kirol asko egiten zuen gaztetan. Saskibaloia, beisbola, futbola... egiten zituen Kuban. Oñatiko herri txapelketan ibili da, baina ordezeko gisa. Mendia eta korrika egitea.

### **20. Poteoari buruz (101-007/031)**

Poteoari buruz hitz egiten du. Badu ohitura tabernaz taberna ibiltzeko, lagunekin.

### **21. Zinema, irakurtzea eta idaztea (101-007/032)**

Pelikulak ikustea gustatzen zaio baina zinema aretora joatea ez, jende asko egoten delako. Irakurtzea eta idaztea ere gustatzen zaizkio. Gaztelaniaz pentsatzen du eta gero itzuli.

### **22. Oñatin, dantza egiteko aukera gutxi (101-007/033)**

Kuban bizi zenean ez zen oso parrandazalea; berandu hasi zen ateratzen. Dantza egiten nola ikasi zuen kontatzen du. Oñatin aukera gutxi dauzka saltsa dantzatzeko.

### **23. Teknologia berriak, harremana mantentzeko (101-007/034)**

Teknologia berriak erabiltzen ditu, familiakoekin egoteko, baina ez da oso zalea. Facebook hasieran asko erabiltzen zuen Kuban ezagututako lagunekin harremanetan egoteko. Ez dauka Twitter. Interneteko "lagunei" buruz hitz egiten du. Teknologia gaizki erabiltzen da batzuetan.

## **24. Familiatik datorkio musikarako zaletasuna (ONA-004/006)**

Anaiarekin hasi aurretik Angiozarko soinujole batekin ibiltzen zen. Solfeoa ikasten ibili zen gaztetan; gero bandan sartu eta hantxe praktikarekin ikasi zuen gehiena. Gaztetatik izan zuen zaletasuna eta 18-19 urterekin Zubillagatik Oñatira etortzen zen partikular solfeoa ikastera. Familiatik datorkio musikarako zaletasuna.

## **25. Iturria egiteko harriak (ONA-017/001)**

Iturria egiteko materiala erreka-harria dela azaltzen du. Losak bertan egin zituen eta harri biribilak Olatz errekatik ekarri zituen. Beste harriak bideetan aurkitutakoak dira. Honen inguruko azalpenak.

## **26. Iturrixar iturria inguruetan ezaguna (ONA-017/002)**

Iturria berak konpontzea pentsatu zuen, inori konpromisorik eman gabe. Bere amak 1935ean dagoeneko analizatzera bidali zuen bertako ura. Inguruetan ezaguna da Iturrixar iturria, baina jendea ez da joaten ur bila bertara normalean.

## **27. Iturria egin zueneko azalpenak (ONA-017/005)**

Hilabetean egin zuen iturria. Depositua eta baldosak eginda ekarri zituen, baina beste gauza asko bertan egin zituen. Iturria egin zueneko azalpenak.

## **28. Lursailak herri-lurrak izandakoak (ONA-017/007)**

Mugarria non dagoen erakusten die elkarrizketatzaileei. Terrenoak bere familiarenak ziren. Itxura denez, garai batean herri-lurrak ziren, baina gerora banatu egin ziren sailak.

## **29. Iturrizar ingurua (ONA-017/010)**

Inguru guztiak Iturrizar dauka izena. Lehen ez zegoen hoderik eta halakorik, baina ura edateko moduan zegoen iturriari. Putzua pixkanaka moldatzen nola joan den.

## **30. Inoiz agortzen ez den iturria (ONA-017/012)**

Abendua-urtarrila inguruan izaten omen du ur gehien iturriak. Inoiz agortu gabeko iturriak agortuta ikusi dituela azkenaldian aipatzen du. Inguru horretan, ostera, uda eta negu beti omen dago ura.

## **31. Iturria egin zueneko azalpenak (ONA-017/013)**

Iturriaren inguruko lanak 3 laguneren artean egin omen zituzten. Nola bururatu zitzaion iturriari daukan forma ematea. Iturria egin zueneko azalpenak.

## **32. Iturriaren inguruko azalpenak (ONA-017/015)**

Iturriaren inguruko azalpenak. Iturria egin zueneko azalpenak.

## **33. 1492an Oñati jaurerria zen (ONA-024/003)**

1492an Oñati jaurerria zen, konderrria, ez hiribildu klasiko bat. Inguruko herriak jaiotze agiria (carta puebla) baduten arren, ez du halakorik Oñatik.



### **34. Oñati Gebaratarren esku (ONA-024/004)**

Gebaratarrak, Nafar erregeen inguruan sortutakoak eta gero Gaztelakoen lagunak, ziren XV. mendean Oñatiko jaunak. Inguruko herrietan ere bazituzten ondasunak.

### **35. Oñatiren itxura XV. mendean (ONA-024/005)**

XV. mendean Oñatiko kasko zaharra gaurkoaren itxura hartzen hasita zegoen, San Juan eta Lekunberri auzoekin batera. Herria errekan gora eta errekan behera deskribatuta.

### **36. Burdingintza eta sute arriskua (ONA-024/006)**

Zura zen eraikuntzarako material nagusia, eta hori izan zen 1489an Kale Barriko sute izugarriaren arrazoi nagusia, nahiz eta ez bakarra. Burdingintza industria indartsua zegoen orduan Oñatin; mea ekarri, oletan burdina egin eta auzoetako nahiz kaleko sutegietan lantzen zen burdina hori. Ultzezin famatuak ziren orduan Oñatin, eta erreminta eta armagintzarekin batera sutegi kopuru handia zegoen herrian, baita errementariak ere. Iltzeak Sevillara eta Lisboara bidaltzen ziren. Duela 500 urte baino gehiago zeuden olak Zubillaga auzoan. Ontziginek eta batez ere banastaginek pisu handia izan zuten Oñatin. Garai hartan hasi ziren eraikuntzan harria gehiago erabiltzen.

### **37. Kondearen ondasunak Oñatin (ONA-024/007)**

1448an kondearen eta ahaide nagusien arteko borroka izan ziren, Oinaztar eta Ganboatarren artekoak. XVI. mendetik aurrera Gebaratarrak indarra galtzen hasi ziren, erregearena nabariagoa egiten zen heinean. Baina oraindik Dorre etxea eta lur eta baserri asko zeukan kondeak Oñatin. Horrez gain, San Migel parrokia, Bergarako Santa Marina eliza eta Uzarragako parrokiako patronoa ere bazen.

### **38. Orduko baserri-auzoak (ONA-024/008)**

Oñatiko baserri-auzoak egituratuta zeuden, Arantzazu izan ezik; hemen 1560 inguruan eraiki zen Ama Birjinarentzako ermita, eta hango baserri batzuk geroagokoak dira. 1489ko sutearen ondoren Oñatin egindako bizilagunen zerrenda moduko batean, 4-5 mila lagun ageri dira, inguruko herrietan 2-3 mila zeudenean, eta Donostian bertan 6-7 mila. Biztanleen erdia inguruko baserri-auzoetan bizi zen.

### **39. XVI. mendeko eraikuntza garrantzitsuak (ONA-024/009)**

XVI. mendean aldaketa etorri zen Oñatiko kale aldera: hainbat eraikuntza oso garrantzitsu eraiki ziren mende horretan. 1510-1520 artean San Pedro auzoko Lazarragatarrak kalera etorri ziren, gaurko dukearen etxean bizi izatera. Parrokia barruan kapera bat eraiki nahi izan zuten, euren hilobia han jartzeko, baina dukeak, orduko San Migel parrokiako patronoak, ez zien baimenik eman obra egiteko. Lazarragatarrek Errege Katolikoen gortean lortu zuten Bidaurretako monasterioa eraikitze baimena, eta kondearekin auzi luze bat izan ondoren eraiki zuten. 1530 inguruan Oñatiko seme batek, Avilako eta Mallorkako apezpiku izandako Rodrigo Mercado de Zuazolak, kondearen baimenarekin parrokia barruan kapera eder bat eraiki zuen, bere mausoleoa bertan jartzeko. Parrokiako klaustroa. Obra zaila bezain ederra. Erregearen gortean aristokraziak lortutako diruarekin eraikia. Unibertsitatea 1539-1550, eraikuntza zibila, elizatik apartekoa.

#### **40. Karegintzan ibilia da (ONA-027/006)**

Bera ere ibilitakoa da karea egiten. Karegintzaren inguruko azalpenak. Lanak bukatutakoan bazkaria edo afaria egiten zuten.

#### **41. Lihoaren prozesua; ehuleak (ONA-027/008)**

Goruetan egin izan du. Lihoa ereiten zuten. Lihoaren prozesua. Lihoa ez zen ebakitzen, zuztarretik ateratzen zen. Eguzkitan lehortu ondoren jo egiten zen. Etxe guztietan egingo zela haria uste du. Ehuleak. Hariak ehuleetara eraman eta ehunak egiten ziren. Antzuolan zegoen ehulea eta hara eramaten zuten haria.

#### **42. Baserriko lanen inguruko azalpenak (ONA-027/009)**

Baserrian bizi izan da. Baserriko tresnak. Ganadua garrantzitsua zen baserrian. Burdinarea, area... eskuz erabili behar izaten ziren, nahiz eta ganaduen laguntza izan. Ze animalia izaten zuten baserrian. Lehen baserrian lur guztiak lantzen ziren eta gaur egun dena zelai dago. Lehen denetik ereiten zen: artoa, garia, baba...

#### **43. Gariaren inguruko lanak (ONA-027/010)**

Baserrian zerk ematen zuen lanik gehien. Gariaren prozesua: zemendian (azaroan) erein, abuztuan ebaki, lotu... eta gero jo egin behar izaten zen.

#### **44. Auzolana; lurketa (ONA-027/013)**

Lehen auzolanean egiten ziren lan asko. Auzolanean egiten ziren lanak. Lurketa nola egiten zen. Urtean behin baino gehiago egin behar izaten zen lurketa, lurra behera joaten zen eta.

#### **45. Norbait hildakoan "entierro-bazkaixa" (ONA-027/024)**

Norbait hiltzen zenean etxean txahala hiltzen zuten "entierro-bazkaixa" emateko. Gero bederatziruarenak ere egiten ziren.

#### **46. Baserriko eguneroko bizimodua (ONA-028/001)**

Baserriko bizimoduaren inguruko azalpenak. Goizean ganaduei azpiak egin ondoren gosaltzen zuten. Salda eta esnea zopekin gosalduei ondoren sorora lanera. Bazkaltzeko babak jaten zituzten, besterik ez zelako egoten. Emakumeek sukaldea jaso eta gizonek siesta egiten zuten. Igandean goizean mezara joaten ziren, gero emakumeek etxea jaso eta gizonek bestelako lanak.

#### **47. Artoa zuritu bitartean asmakizunetan (ONA-028/002)**

Udazkenean garoa ebagi eta gaztainak batzera joaten ziren. Neguan gaztainak apartatu. Artoa zuritu bitartean asmakizunak asmatzen zituzten. Artoa zuritutakoan "sorgin-afaria" egiten zuten sagar erreekin. Hurrengo egunean lanekin jarraitu behar. Garia, artoa eta arbia noiz ereiten ziren.

#### **48. Gari-jotzea; artoaren inguruko lanak (ONA-028/003)**

Gari-jotzea; batzuetan oholean jotzen zuten kolpeka edo bestela "trillau". Astoarekin errotara eraman eta han ehotzen zuten. Ogia, taloak, eta abar egiten zituzten. Udaberrian artoa ereiten zuten. Laietan ere egin izan zuten. Artoa ereiteko lanak. "Erpillak".

#### **49. Lixiba nola egiten zuten; ehunezko arropak; lihoa; ehuleak (ONA-028/004)**

Arropak nola garbitzen zituzten; lixiba nola egiten zen. Ontzi handi batean arropak xaboiarekin jarri eta gaintik sutako hautsa botatzen zitzairen. Gero errekan astintzen ziren. Lehengo arropak gogorrakoak izaten ziren, ehunezkoak. Aurrekoek goruetan egiten zutela azaltzen du. Lihozko arropak. Haria nola egiten zen: lihoa garia bezala ereiten zen eta gero putzuetan eduki ostean jo egiten zen. Ehuleek egiten zituzten arropak ehunarekin.

#### **50. Astoari eragiten zitzaizkion lanak (ONA-028/005)**

Larunbatetan joaten ziren baserriak kalera. Astoarekin oinez jaisten ziren. Astoak bestelako lanetarako ere erabiltzen ziren: soroan, basotik egurra ekartzeko. Belarra segarekin ebakitzen zuten orduan. Bidea zegoen lekuetan idiekin eta aldapa handietan astoarekin ekartzen zuten belarra. Ira (garoa) Arantzazu ingurutik ekarri behar izaten zuten, herri-sailetatik. Bide txarrak izan ohi ziren orduan.

#### **51. Abereentzako jatekoa; txerri-hiltzearen inguruko ohiturak (ONA-028/006)**

Baserrian zituzten abereak: behiak, ardiak, ahuntzak. Zerekin gobernatzen zituzten abereak. Lehenago zelai gutxiago izan ohi zen, soro gehiago izaten zelako (artoa eta garia ereiteko). Gariaren lastoa, belarra eta pentsua ematen zieten abereei. Udaberrian belarra gutxiago zegoenean, arbola-orriak ematen zizkieten. Txerria ere izaten zuten. Txerria hiltzen zutenean banketea egiten zuten; honen inguruko kontuak.

#### **52. Doktrina ondo jakin behar pazkoetan txartela hartzeko (ONA-028/007)**

Sermoiak. Pazkoetan "pazkozkoa" egin behar izaten zuten. Doktrina ondo jakin behar izaten zuten. Abadeak galderak egiten zizkien eta ondo erantzunez gero txartela ematen zien, bestela ez. Doktrinako txartela eta komuniokoa. Prozesioa.

#### **53. Mendian ardiak zaindu eta goizean esnearekin etxera (ONA-028/008)**

Ardiak mendian zaintzen zituzten. Bertan lo egin eta goizean ardien esnearekin etortzen ziren. Goizean esneekin berandu etorriz gero errieta jaso behar. Gaztak ere egiten zituzten.

#### **54. Umetako jolasak: txirikiletan, potolaka... (ONA-028/009)**

Umetako jolasak: sokasaltoan, "potolaka" intxaurrekin, txirikiletan. Txirikiletan nola jolasten zuten. Mutikoen jolasak; beste jolas batzuk. Neskek trapuekin egiten zituzten kopinak. Urtebetetzeetan jasotzen zituzten opariak. Beste jolas batzuen inguruko azalpenak.

#### **55. Emakumeak kontu-kontari txorizoak egiten (ONA-028/010)**

Txerria hiltzen zutenean emakumeak elkartu eta kontuak esanaz txorizoak egiten zituzten. Eskuz egin behar izaten ziren lan guztiak lehenago.

## **56. Aitaren errieta jaso zueneko anekdota (ONA-028/011)**

Hego-haizea zegoenean, edo epel zegoenean, oinutsik ibiltzea gustatzen zitzaien. Nagusiagoei oinutsik segika jarraitu ostean, aitak ipurdikoak eman zizkioneko anekdota.

## **57. Umetako anekdotak (ONA-028/012)**

Umetako anekdotak. Horatik erorita, min hartu zueneko. Beste behin, anaiak astoa zirikatu eta astoa eta biak erori ziren. Kolpe handiak izan arren, aitak ez zion errukirik izan eta hurrengo egunean idien aurrean ibiltzera (itaurrera) joan behar izan zuen.

## **58. Anaiari gertatutako anekdota (ONA-028/013)**

Umetako anekdotak. Anaia oker samarra omen zen. Behin "Puxetia egosten" (arropa garbitzen) zeukaten. Harentzat, sobratutako ura joateko, "pototxiña" deitzen zioten zulo bat izaten zuten sukaldean. Anaia saltoka eta jolasean zebilela, buruz aurrera sartu omen zen "pototxiñera".

## **59. Karegintzaren inguruko azalpenak (ONA-029/007)**

Karobiaren ataka. Karobia nola joaten zen betetzen; lehenbizi "anporrak" sartzen ziren eta gero su eman. Karobiaren inguruko azalpenak. Nola ixten zen karobia, sua kanpora irten ez zedin.

## **60. Karea egiteko lehengaiak (ONA-029/008)**

Karobirako lehengaiak: kareharria, otea eta egurra. Nondik ekartzen zen karea egiteko lehengaiak. Otak basotik ekartzen ziren leretan. Pago-egurra norberaren basokoa izaten zen. Beraiek azkenaldian behintzat pinua erabiltzen omen zuten. Kareharria ere inguruetatik hartzen zen. Honen inguruko azalpenak.

## **61. Harriak nola jartzen ziren karobian (ONA-029/009)**

Karobian harriak ipini behar dira, baina ez horma egiteko moduan, baizik tarte pixka batekin, "suak korridu deixan". Azkenengo jartzen den harria da karobia ixten duena eta hari "kiltzia" deitzen zaio. Karegintzaren inguruko azalpenak. Suarentzat lekurik ez bazegoen karobian, brasa atera behar izaten zen "belakixakin". Beste karobi batzuek zuloa izaten zuten azpialdean eta horrela brasa hiltzen joaten zen.

## **62. Karobia udaberrian (ONA-029/010)**

Etxekoek edo bi etxeren artean egiten zuten karobia. Karobiak udaberri inguruan egiten ziren; arrazoiak azaltzen ditu.

## **63. Ota asko behar karobirako (ONA-029/011)**

Ota asko ekarri behar izaten zen karobirako eta erre ahala joaten ziren ekartzen, gainera, beti prest edukitzea komeni zen eta. Erregai gehiena ota izaten zen eta egurra amaieran sartzen zitzaion.

## **64. Adarrak beheko sutarako; "gelaatzua" (ONA-029/012)**

Beheko sutarako abarrak erabiltzen ziren lehenago. "Gelaatzua"; oraindik etxean gordeta dutela aipatzen du. Euren baserria 400-500 urte ingurukoa omen da.

### **65. Karea sozio egindakoan giro hobean (ONA-029/013)**

Karea beste etxe batzuetakoekin sozio egiten zenean jende asko biltzen zen eta giro ona izaten zuten, baina etxeok bakarrik egin behar zutenean, lana latz egin behar izaten zuten.

### **66. Karobirako kareharria; karobia nola kargatu (ONA-029/014)**

Kareharria ekartzeko lana gizonezkoek egiten zuten. Harria gurdian ekartzen zen. Kareharri asko behar izaten zen karobirako. Karehaitza behar zen karea egiteko, lapitz-harriak "tiroa" egiten du eta. Honen inguruko azalpenak. Karobia betetzeko ez zuen edonork balio, ondo jakin behar zen eta. Bere aitari leku askotatik deitzen zioten lan horretarako. Nola jartzen ziren harriak karobian. Amaieran "kiltzia" sartzen zen goitik behera.

### **67. Harriak hartzen duen kolorea erre ahala (ONA-029/015)**

Karobia erretzen doan heinean, harriek gorri kolorea hartzen dute. Beheko harriak gorritzen direnean garra puntara joaten da, goitik ikusteko moduan. Behin erretakoan, kolore berdeska hartzen du harriak, hauts-kolore tankerakoa.

### **68. Karegintzaren inguruko azalpenak (ONA-029/016)**

Karegintzaren inguruko azalpenak. Karobiaren arkua nola egiten zen. Karobia lehenbizi azpitik eta lekurik ez zegoenean goitik kargatzen zen. Zenbaitetan harriren batzuk erori eta berriz jarri behar izaten ziren.

### **69. Anporrak lehenbizi karobia berotzeko (ONA-029/017)**

Normalean karobi barruan ura egoten da eta hasieran karobia berotzea komeni izaten da. Horretarako anporrak sartzen dira hasieran, harek karobia berotzen du eta. Anporrari otarekin edo zerbaitekin su eman eta harek karobia berotzen du.

### **70. Karobia erretzeko prozesua (ONA-029/019)**

Bazkalostean ematen zioten su normalean karobiari. Anporrak erretzen egoten ziren denbora luzez eta hurrengo goizaldera arte ez zuten bestelakoak sartzen hasi beharrik. Karobia erretzeko prozesua.

### **71. Bihurra; "sapiñue" (ONA-029/021)**

Bihurra nola egiten den; "sapiñue" zer den: haritz adar meheekin egiten den lotura, gero uztarrian sartzen zena.

### **72. Karegintzaren inguruko azalpenak (ONA-029/023)**

Karegintzaren inguruko azalpenak. Su motela behar izaten zen. Ataka: erreondoko tubo antzekoa. Kontuz egin beharreko lana zen.

### **73. Zenbat denbora behar duen karobiak erretzeko (ONA-029/024)**

Ataka jarritakoan indartzen zen sua eta ordutik aurrera ota sartu eta sartu ibili behar izaten zen. 2 gau eta erdi inguru behar izaten zituen euren karobiak erretzeko, txikia zen eta. Gauez karobia zaintzeko txandak egiten zituzten.

#### **74. Karobia etengabe zaindu behar (ONA-029/025)**

Bi lagun egoten ziren lantzean karobia zaintzen. Bero handia egoten da karobiaren aldamenean. Su altuari eutsi behar zaio eta eguraldi txarra egiten badu nola konpondu izan diren azaltzen du. Behin elurra egin zien. Karegintzaren inguruko azalpenak. Karobia etengabe zaindu behar izaten zen, edozein momentutan sua kanpora irten zitekeen eta.

#### **75. Harri zatiei karobi barrura bultza egiteko "kusiña" (ONA-029/026)**

Sardearekin bultza egiten zitzaien zatiei berriz karobi barrura. Beraiek "kusiña" deitzen zioten bi hortzeko sarde modukoa erabiltzen zuten.

#### **76. Karegintzaren inguruko azalpenak (ONA-029/028)**

Karegintzaren inguruko azalpenak. Harriak nola goritzen diren; gero "belundu" egiten omen dira. Karobia erretakoan, tapatu egiten da. Egun oso bat utzi behar izaten zen karea hoztu bitartean. Orduan ez zen eskularrik eta artean harria beroa egoten zen.

#### **77. Karea eskuz ateratzen zen karobitik (ONA-029/029)**

Eskuz ateratzen zen karea karobitik. Banastak bete eta gora pasatzen zituen behean zebilenak, gora atera behar izaten zen eta. Karobitik ateratako harriekin nola egiten zen karea: ontzi batean ipini, ura bota eta makila batekin eragin. Hurrengorako ere ondo kontserbatzen zen karea. Jendea etortzen zitzaien baserrira kare bila.

#### **78. Karea hondatzen duten faktoreak; "gorringoa" (ONA-029/030)**

Karobia hondatzen zuten faktoreak. "Gorringoa" zer den; harria gainetik karea egin, baina barrutik erre gabe geratzen zen batzuetan.

#### **79. Herritar baten inguruko anekdotak (ONA-029/033)**

Estraperloko kontuak. Ezkontzetarako, pattarra behar izaten zen; eta, ezkontza baterako, estraperloan ibiltzen zen bati eskatu zioten. Horren inguruko anekdota. Beste behin, emakumeei anisa eman eta mozkortu egin ziren. Bere aitonak kontatzen zizkion halako anekdotak.

#### **80. Herritar baten inguruko pasadizoak (ONA-029/034)**

Lursail batzuen inguruko pasadizoa. Ezagun bat tratularia dela aipatzen dute. Horren inguruko kontuak. Ezagun batek ezkontza-tratuak egiten omen zituen. Herritar batzuen inguruko pasadizoa.

#### **81. Bikote baten inguruko pasadizoa (ONA-029/036)**

Lehenagoko anekdotak. Bikote bat ezkondu eta goilareak erosteko garia ebakitzera joan ziren. Horren inguruko pasadizoa.

#### **82. Karea etxeak zuritzeko, soroarentzako, animalien hanketako gaitzak sendatzeko... (ONA-029/038)**

Baserri batzuetakoak besteei laguntzera joaten ziren eta trukean etxerako lain kare ematen zitzaien. Karea nori saltzen zioten. Kanean ere etxeak karearekin zuritzen ziren. Adrian igeltseroa. Karea soroa desinfektatzeko ere ona omen

zen, baina beraiek ez zuten horretarako erabiltzen. Ardien hanketako gaitzak sendatzeko ere erabiltzen da karea. Bera mutikoa zela behiak egon ziren "hankaminarekin". Haiek sendatzeko (desinfektatzeko) karetera ateratzen zituzten behiak.

### **83. Mutikotan karearekin irabazitakoa ezkutuan poltsikora (ONA-029/039)**

Karea arroaka neurtzen zen, (arroa 1= 12.5 kg). Arroa garestien saldu zutenean zazpi errealetan saldu zuten. Inoiz etxean bakarrik zegoela norbait erostera etorri gero, zakua azkar eman eta errealak poltsikora, igandean gastatzeko. Orduan gaztetxoei ez zitzaien pagarik ematen igandetan. Kalera ere egun berezietan joaten ziren soilik.

### **84. Erromeriak Urtiagainen (ONA-029/040)**

Gerra aurretik Urtiagainen erromeria egiten zen jaiero eta jende asko joaten zen inguruetatik. Bolalekua ere bazegoen bertan.

### **85. Karea egiten ari zirela, elurra (ONA-029/042)**

Karobia egiten ari ziren batean, elurra egin zien bota eta bota. Apirila zen; lehenbizi euria egin zien eta gero elurra. Hori izan zen karea egitean gertatu zitzaion anekdota handiena.

### **86. Ilea orrazteko modak; ile luzearen moda (ONA-039/005)**

Aitarekin lanean hasi zenean ilea makinarekin mozten zuten eta gaina guraizeekin konpondu. Bera soldaduskatik itzuli zen inguruan ilea "a navaja" moztea zegoen modan. Soldaduskatik etorri eta Tolosan egon zen lehenbizi pixka bat ikasten. Ondoren 24-25 urte ingururekin Donostian ibili zen ikastaro batzuetan. Ilea mozteko modeloak beraiek aurkitu behar izaten zituzten. Azterketa ere egin zieten ikastaro amaieran. Handik laster modan jarri zen ile luzea, "Beatles"en eraginagatik edo. Moda desberdinak.

### **87. Aita barbero lanbidean nola hasi zen (ONA-039/007)**

Bere aita soldadu joan aurretik fabrikan zebilen lanean. Soldadutzan barbero lanak egin zituen eta handik itzultzean ez zuen fabrikara joateko gogorik. Ilea apaindegi baten laguntzailea behar zutela esan zioten eta hantxe hasi zen lanean. Barberoa Irubietta baserriko semea zen. Neskalaguna donostiarra zuen eta hara joan ziren azkenean. Orduan bere aita haren lokalarekin gelditu zen.

### **88. Lanbide asko probatua: basoa, ikazkintza, eskopetagintza eta forja (ONA-041/002)**

14 urterekin aitak esan zion lanean hasi behar zuela. Lehenbizi basoan ibili zen Ezpeletarekin pinuak botatzen. Gero ikazkin lanetan ere aritu zen. Eskopetak egiten ere ibili zen 8 urtez eta Eibarko Aranzabal eta Sarasketarentzat egiten zituzten eskopetak. Handik forjara pasa zen eta "Forjas de Zubillaga"n ibili zen lanean hauek Azkoitira joan ziren arte.

### **89. "Enara" forjarainoko bidea nola egin zuten (ONA-041/003)**

"Forjas de Zubillaga" lantegiak Azkoitira alde egin zuenean, euren kontura jarri zuten lantegia. Hasieran Zufiriaren lantegia hartu zuten alkilerrean. Zer nolako lanak egiten zituzten. Geroago Zubillagako forjetara pasa ziren. Hasierako izena "Gaitu" zuten, sozio zirenen izenekin sortua. Baina antzeko izena zuen

beste lantegi bat zegoelako "Enara" jarri zioten izena gerora. Gerora "Ulma forja" bihurtu zen.

### **90. Ulma kooperatibaren hasiera (ONA-041/004)**

Ulma kooperatiba euren baino lehenagokoa zen. Euren 12. kooperatiba omen zen. Ulma lantegia Kurutzeko etxearen bajuetan hasi omen zen. Handik pabiloia sortu zuten gerora eta azkenean gaur dagoen lekura pasatu zen lantegia.

### **91. Gariaren ereitetik errotarainoko bidea (ONA-041/006)**

Garia azaroan ereiten zen eta ez zuen lan handirik izaten heldu bitartean. Heldutakoan igitaiarekin ebakitzen zen eta metak egiten ziren. Garia ihartutakoan harri gainean jotzen zen, alea soltatzeko. Gerora, makinak hasi zirenean, lehenbizi matxakan alea soltatu eta haize-errotan alea garbitu ostean arkan gordetzen zen alea. Gazta gari artean sartzen zen arkan, hobeto kontserbatzeko.

### **92. Torrea baserria Garai lantegiarena zen (ONA-041/007)**

Torrea baserria Garairena (Garai fabrikakoa) zen. Gabonetan errenta ordaintzera joan behar izaten zuten eta gariarekin eta oilaskoekin ordaintzen zioten. Gerora baserria erosi egin zuten. Garia lantegia aspaldikoa da; lehenago pospoloak egiten omen zituzten.

### **93. Ezkailutan errekan, Torreko tabernan bazkariak emateko (ONA-041/009)**

Errekan ezkailutan ibiltzen ziren sarearekin. Torrean taberna izan zutenean Soraluze inguruko jende asko etortzen zen zarbo-ekzailuak jatera. Gazteagotan amuarrainetan ere ibiltzen zen. Lehenago amouarrainak, kangrejoak, aingirak... denetarik izaten zen errekan.

### **94. Txatarren orde, bizikleta (ONA-041/010)**

Umetako entretenimendua futbola edo bizikleta izaten ziren. Ur-handiekin txatarra zatiak etortzen ziren errekan; eta, haiek txatar-biltzaileari salduta, trukean bizikleta erosi zuten.

### **95. Idiekin errekatik gora igo behar (ONA-041/014)**

Etxe inguruetan zituzten terreno batzuetara joateko errekatik zehar joan behar izaten zuten idiekin, San Prudentziotik Oñatirako trena ere ingurutik pasatzen zelako eta beste biderik ez zutelako.

### **96. Felix Aranzabal soinujolea Torreazoko jaietan (ONA-041/015)**

Torreazooan oso erromeria ona egiten zen. Felix Aranzabal soinujolea etortzen zen Eibartik. Bere osaba joan zitzaion bila San Pedroetarako soinujolea behar zutela eta.

### **97. San Pedroak Torreazoon (ONA-041/017)**

San Pedroak ospatzen ziren Torreazoon. San Pedro biharamunean "Txantxilipiztei" (Santxolopetegi) auzokoak etortzen ziren merienda egitera eta gero Madalenetan, hango jaietan, beraiek joaten ziren. Erromeriak amaiera ordua izaten zuen eta Guardia Zibilak egoten ziren ordua zaintzen.



Felix "Itsua" soinujolearentzat eta Vitoria saxofoijoleentzat eszenatokia beraiek egiten zuten egurra basotik ekarrita. Soinujolea bi egunetarako etortzen zen eta bertan geratzen zen lotan.

### **98. Inguruetako jaiak; San Migelak (ONA-041/018)**

Jende asko etortzen zen Torreko tabernara. Torreauzoko jaiak inportanteak ziren. Zubillagan ere San Pedroak ospatzen ziren. San Migeletan joaten ziren kalera. Herriko musika bandak jotzen zuen orduan eta behin Arabako banda militarra ere etorri zen. Herri-kirolak ia ez zen egoten orduan jaietan.

### **99. Maristetan lehiaketak, nork galdera gehiago asmatu (ONA-041/019)**

Mezara igandero joan behar izaten ziren. Mojekin ibili ostean maristekin ibili zen eskolan eta seigarren maila egin ostean lanean hasi zen. Eskolan zer ikasten zuten. Gauza gehienak buruz ikasten zituzten. Gelan erdiak erdien kontra ("romanos" y cartagineses") lehiaketa egiten zuten nork galdera gehiago asmatu. Gaztelaniaz ikasten zuten eta euskaraz hitz eginez gero eraztuna jartzen zieten. Egunaren amaieran eraztuna zuena zigortu egiten zuten.

### **100. Zañartuko mojak (ONA-041/020)**

Mojetan ikasi zueneko kontuak. Sor Fortunata irakaslea Artajonakoa zen. Beste irakasle batzuk: sor Maria, sor Sofia, sor Carmen. Bera soldadu zegoela, hanka moztu zion sor Carmeni, trenak harrapatu baitzion. Zañartuko mojen ardura eliza zaindu eta eskolak ematea zen. Denak kanpotarrak ziren.

### **101. "Tiro al plato" a futbol zelaian (ONA-041/021)**

Familian aurrekoengandik datorkie ehizarako zaletasuna. "Tiro al plato" an ere aritzen ziren. Oñatin futbol zelaian egiten zen, baina beste herri batzuetara (Legazpi, Eibar...) ere joaten ziren. Bere osabak "lanzaplato" deitzen zioten makina zuen eta harekin aritzen ziren futbol zelaian. Ehizara kanpora joaten ziren, eperretara. Orduan ez zeukan edozeinek kotxea eta kotxea zutenekin joaten zen.

### **102. Motoan Nanclares-era ehizara; Arantzazurako autobusa (ONA-041/022)**

Herrian nortzuk zuten kotxea garai hartan. Beraiek motoa zuten, "Brio 98". Ze matrikula zuen gogoan du. Anaia eta biak Nanclares-era joaten ziren motoan, bien erdian txakurra hartuta ehizara. Oñatiko autobusak. Arantzazura igotzen ziren autobusak jendez beteta ibiltzen ziren, goi eta behe, eta sarritan beraiei ekartzen zizkieten freno barilak soldeatzeko. Aurretik jendea astoan ibiltzen zen.

### **103. Aita banastagilea; banastak egiteko prozesua (ONA-041/024)**

Aita banastagilea zen. Lehenbizi gaztainak ekartzen zituzten basotik eta, ez zitezen lehortu, uretan eduki. Handik labera sartzen zituzten eta han berotzen zirenean zimitzak ateratzen ziren. Kutxila batekin zimitz haiek landu eta gero banastaren forma ematen zitzaion. Bera ere ibiltzen zen aitari laguntzen, batez ere zuloak estaltzen, geratutako zuloak zimitz txikiagoekin estali behar izaten ziren eta.

#### **104. Lehen gaztaina asko (ONA-041/025)**

Gaztaina galdu egin zen asko basoetan, Enrikeren ustez, pinuaren eraginez. Lehenago gaztaina asko jaten zen. Eurak ere mendira (Olabarira) joaten ziren eta zakukada beteta etortzen ziren. Erreta edo egosita, bietara jaten zuten.

#### **105. Eguneroko jatekoa eta gabonetako (ONA-041/026)**

Orduan baba eta patata izaten zen eguneroko jatekoa. Babari sartzen zitzaion txerrikiren bat ere. Garbantzia estimatua izaten zen, noizbehinka jaten zuten eta. Gabonetan beti egoten zen zerbait berezia. Ardoa eta pattarra ere Gabonetan bakarrik egoten ziren.

#### **106. Gabon zaharretan "Misa del gallo" (ONA-041/027)**

Gaueko 12etan "Misa del gallo" egoten zen Gabon zaharretan eta jende asko joaten zen. Bera ez zen joaten normalean. Auzoko gazteak ibiltzen ziren gabon-eskean.

#### **107. Torreko taberna ezaguna zarbo-ekailutan (ONA-041/029)**

Torrera jende asko etortzen zen zarbo-ekailuak jatera. Tabernan gertatutako pasadizoa. Erreka osoan ibiltzen ziren arrantzan. Batek zirikatatu eta besteak sarearekin harrapatu.

#### **108. Auzolanean egiten ziren lan asko (ONA-041/031)**

Auzolanean lan asko egiten zen lehenago. Gari-jotzen ere etxerik etxe ibiltzen ziren, elkarri lagunduz. Bidegintzan ere auzolanean aritzen ziren. Lehenagoko bideak.

#### **109. Basora garotara (ONA-041/032)**

Basora garotara joaten ziren idiekin eta gurdiarekin, sarritan bide txarretatik eta aldapa handietan. Garoa ganaduari azpia egiteko erabiltzen zen. Gero harekin satsa egiten zen eta hura sororako ongarriztat erabiltzen zen. Karea ere erabiltzen zen soroan, lurra harrotzeko.

#### **110. Gaztagintzaren inguruko kontuak (ONA-047/002)**

Zenbat gazta egiten zituen eta beste kontu batzuk.

#### **111. Graziano bertsogilea (ONA-047/003)**

Graziano bertsogilearekin kalera joan zen bateko kontuak. Grazianoren bertso batzuk kantatzen ditu.

#### **112. Urtiagaineko erromeriak (ONA-047/006)**

Erromeriak Urtiagainen; fraideen kexak dantza lotuagatik. Urtiagaineko bolalekua eta jatetxea.

#### **113. Nobiotan (ONA-047/007)**

Bere gizona nola ezagutu zuen kalean, eta nola ezkondu ziren.

#### **114. Gerra denborako aisialdia; senarra gerran zaurituta (ONA-047/009)**

Gerra denboran, mutilak etxetik kanpo eta festa egiteko lagunik ez. Bere gizona gerran nola zaurituta suertatu zen kontatzen du.

#### **115. Sakaponak (ONA-047/010)**

Umetako jolasak. Sakaponak eta takatakak.

#### **116. Argia eta ura etxean (ONA-047/011)**

Lehenengo arropa garbitzeko makina. Argia eta ura noiz ipini zituzten. Argia lehenago ura baino.

#### **117. Gaurko ura eta lehenengo iturriak (ONA-047/012)**

Gaur egungo ur-horniketa eta lehenengo iturriak.

#### **118. Bizargintzako tresneria (ONA-049/010)**

Gaur beste era batera ikasten da ile-apaintzea, akademietan; lehen praktikaren bidez ikasten zen. Zenbait erreminta eta garaiko tresneria gordetzen ditu Nikolasek, egunen baten museo antzeko zerbaiteko egiteko ametsarekin. Labana eta aitzur zaharrak, zorrozkaileak, etab.

#### **119. Ohitura zaharrak (ONA-049/011)**

Lehen sarriago joaten zen jendea bizarginarengana. Baita kokotea eta patillak konpontzera ere. Txandak txapa batekin ematen zituzten. Lan orduak bukaera gabekoak ziren, batez ere asteburuetan. Zapatuetan bizartegian bertan afaltzen zuten, lanean jarraitzeko.

#### **120. Igandetan ere lanera (ONA-049/012)**

Bere aitak domeka goizetan ere egiten omen zuen lan garai baten, goizeko 6etako meza entzun ondoren. Lehenengo bezeroak urrutien zeuden baserrietatik etortzen ziren igandetan.

#### **121. Tertulietarako ohitura; lan ordu luzeak (ONA-049/013)**

Tertuliarako ohitura handia zegoen. Bezero batzuk zine egunetan, zinearen aurretik nahiz ondoren joan zitezkeen ilea moztera. Tabernariak ere gauean taberna itxi ondoren joaten ziren bizartegira.

#### **122. Ile-apaindegiko anekdotak (ONA-049/014)**

Mutikoen ilea moztea 50 zentimora igo zenekoa, eta beste anekdota barregarri batzuk.

#### **123. Bizarginen beherakada (ONA-049/015)**

Xaboia etxean prestatzen zuten. Garai batean bizarra kentzea zen bizarginen eginbeharrik nagusiena, baina bizarra kentzeko makina elektrikoak urrundu zuen bezero asko bizartegietatik. Ile-apaindegirako tresneria asko Eibarren egiten zuten.

#### **124. Orrazkeren modak (ONA-049/016)**

Hirurogeiko hamarkadan modan jarri zen labanaz ilea moztea. Nikolasek euren Elkartearen bidez, Donostian ikasi zuen mozte berria, norberak 'modeloa' eramanda.

#### **125. Ilea mozteko erak (ONA-049/017)**

Lehengo eta oraingo ilea mozteko erak.

#### **126. "A lo garçon" orrazkera (ONA-049/018)**

Andrak ez, baina neskatilak joaten ziren Doroteorenera "a lo garçon" moda izan zenean. Baita zirkuko jendea ere. Nikolas bizargin lanetan hasi zenean 8-9 bizartegi eta ile-apaindegi zeuden Oñatin gizonezkoentzako.

#### **127. Sarramendin jaioa (ONA-053/002)**

Sarramendi baserrian jaio zen 1918. urtean. Han bizi izan zen soldadutza bukatu zuen arte. Gero gerrara joan behar izan zuen. Gerra bukatu eta lanean ibili da jubilatuta arte.

#### **128. Bost urte soldadu (ONA-053/004)**

Soldadutza garaian gerra suertatu zen. Oroimen oso txarrak ditu gerra denborakoak. Denera, bost urte eta erdi egin zituen soldadu. Sevillan eman zituen bi urte, jasan ezineko beroarekin udetan.

#### **129. Arabara garia ebakitzera (ONA-053/008)**

Erdararekin arazoak izaten zituzten arren, Joxe Mariren aitajauna eta auzokideak Arabara joaten ziren garia ebakitzera sega bizkarrean hartuta; auzo bakoitzeko segalariak urtero herri berdinerara joaten ziren. Eurak eskolan defenditzeko beste erdara ikasi zuten.

#### **130. Sarramendiko monagilo (ONA-053/009)**

Za&ntilde;artun ere ibili zen eskolan eta monagilo ikasketak ere egin zituen bertan. Mutikotan egiten zituzten jolasak: "atxintxika" karrerak, "harrapo-harrapoka"...

#### **131. Kalean jantzetxea (ONA-053/013)**

Lehengo mendi-bideak oso egoera txarrean zeuden; baserrietako astoak eta gurdiak ezezik, karreteroak ere haietatik ibiltzen ziren. Jantzetxea ere oso garrantzitsua zen baserritarrentzako; baserriko gauzeekin ordaintzen zuten haren erabilera.

#### **132. Auzoko gizartea (ONA-053/015)**

Eskola Larrañan zegoen eta eliza, berriz, Garibaiko partean. Jaietan meza entzun ondoren, Lizargaraten elkartzen ziren. Urtean behin, abuztuan, Antzuolako sailetan inguruko milaka lagun elkartzen ziren jai giroan.

#### **133. Baserriko lanak (ONA-053/016)**

14 urte arte eskolara joan zen. Etxean beti lanean. Soroetan noiz eta zer ereiten zen azaltzen du. Neguan ikatz apur bat egiten zuten. Udarari belar ihartzea izaten zen. Simaurra egiteko garoa ere batzen zuten.

### **134. Lantegira lanera (ONA-053/018)**

Soladuskatik etorri eta Garai lantegian hasi zen lanean. Euskal Herritik kanpora joaten ziren muntaketak egitera. Lan egun luzeak izaten zituzten eta zapatuetan ere lanera joaten ziren. Bere garaian ere izaten ziren lan istripuak.

### **135. Etxeko jakiak (ONA-053/020)**

Etxean txerriak hazten zituzten etxerako edota salmentarako. Gazurarekin eta etxeko berdura eta soberakinekin gobernatzen zituzten txerriak. Ardikiarekin egindako zezina eta gaztainak (bere garaian) ere ohikoak ziren etxeko elikaduran; baita etxean egindako ogia eta taloak ere.

### **136. Arropak zaintzen (ONA-053/021)**

Ur-deposituak teilatuko urak biltzen zituen. Edateko ura iturritik ekarri behar izaten zuten. Arropak astoan kargatu eta albergara joaten ziren garbitzera, puxeta egin ondoren. Itxitura gainera esekitzen zituzten garbitu eta gero, eta erne ibiltzen ziren inguruetan ijitorik bazebilen.

### **137. Umetan erizain; garaiko janariak (ONA-057/008)**

Zumarragan bizi zirenean, eskolara joan beharrean ama zaintzen geratzen zen. Garai hartako jatorduetako janari asko gaur egun ez dira estimatzen.

### **138. Putreak etxe inguruan (ONA-057/011)**

Aldameneko baserri inguruak putrez beteta ikusi zituen Mirenek egun batean. Baserrikoek txerri bi hil eta atarian freskatzen utzita alde egin zuten etxetik, eta haien usainera hurbildu ziren putreak.

### **139. Putreekin oroitzapen txarrak (ONA-057/014)**

Izu handia pasa zuen Mirenek putreekin eta oraindik ere ezin ditu ahaztu haien begiradak.

### **140. Artzain gaztea (ONA-058/007)**

10 urterekin Arabako mendira joaten zen egunero ardiak jeztera, eguraldi ona edo txarra izan. Ekaitz gogorarekin mendian galdu zen behin, baina lortu zuen artaldea aurkitu eta jeztea. Nekatuta sartu zen kamainan.

### **141. Etxera esnearekin (ONA-058/008)**

Ekaitz gogor baten ostean, arreba joan zitzaion hurrengo goizean bila mendira, esnea etxera eramateko. Arreba ekaitzaren ondorioez izututa iritsi zen Manuelengana.

### **142. Erdara ezin ikasi (ONA-058/010)**

Eskolan zazpi urterekin hasi zen. Erdara ez zuen ulertzen, baina matematiketan nahiko ondo konpontzen zen. Gasteizen egon zen erdara ikasten, sukalde batean lanean, baina sukaldean denak euskaldunak ziren. Soldadutzan ere euskaldunak suertatu zitzaizkion inguruan.

### **143. Ondo jan eta gutxi gastatu (ONA-058/012)**

Orain hobeto bizi garela dio Manuelek. Baina dirua errazegi lortzen dela eta ez dela lehen bezala zaintzen. Jakiak lehen garbiagoak zirela dio, eta elikagarriagoak. Abereek ere hobeto jaten zuten lehen eta gaixotasun gutxiago izaten zituzten.

### **144. Bekatu erdia (ONA-058/019)**

Artzain lagun bat San Bernardora konfesatzera joan zenekoa azaltzen du. Hausnarketak jarraitzen du bekatuak erdira jaitsi arte.

### **145. Lapitzik ez eskolarako (ONA-060/006)**

San Prudentzian hasi zen eskolan, baina lapitzik erosteko dirurik ere ez zuen. Sei bat urte eman zituen eskolan, baina orduan ez zen kurtsoen jarraipenik egiten, ezta gurasoak asko arduratu ere. Maistra euskalduna zuten baina eskolak erdaraz jaso behar izaten zituzten.

### **146. Etxera mela-mela (ONA-060/007)**

Euria zen egun batean, maistrak ez zion zira hartzen utzi eskolako lagun bati. Bustita ailegatu zen etxera eta aita haserre joan zitzaion maistrari. Bere auzoko bi urteko ume bat erreka erori eta ito egin zen.

### **147. 14 seme-alaba (ONA-060/011)**

14 ume izan eta gero, minbiziak eraman zuen Karmenen ama 57 urte zituenean.

### **148. Artzain lanetan (ONA-060/021)**

Hirurogeita hamar bat ardiko artaldea, hiruzpalau behi eta idi pareak zituzten Azkarretan. Idiak kendu zituztenean sei behi jarri zituzten. Gizonik ez etxean eta gorriak ikusi zituen Karmenek ardiak zaintzeko.

### **149. Kalera saltzera (ONA-060/022)**

Gazta eta ardi-esnea saltzen zuten kalean; ortuko gauzak etxerako izaten ziren.

### **150. Bizitza gogorra emakumeek baserrian (ONA-060/023)**

San Prudentzioko baserrian argindarra bazuten baina urik ez. Azkarretan beti ezagutu ditu argia eta ura. Duela 30 bat urte izan zuen lehenengo arropa garbigailua; ordura arte eskuz garbitzen zuen harraskan. Emakumeen bizia oso gogorra izan dela dio Karmenek.

### **151. Felix Ireneo izena (ONA-062/006)**

Eskolan euskaraz aritza debekatua zuten. San Ireneo egunean jaio zen, Arrillagarenean. Aitajaun ordea udaleko idazkaria izan zen.

### **152. Kakao espainiarra (ONA-062/008)**

Txokolatea etxepean egiten zuten eta denda bat ere bazuten bertan. Kakaoa eta kafea biak ala biak xigortzen zituzten. Gerraostean, kakaoaren jatorria aldatu beharra izan zuten eta Espainiako afrikar kolonietatik ekartzen zuten.

### **153. Salestarren barnetegian (ONA-062/014)**

Salestarretan goserik ez zuten pasatu baina jaten justu samar ematen zieten. Diziplina gorde behar izaten zuten baina salestarrak ez ziren oso gogorak. Jai egunetan Bilbora edo mendira joaten ziren egun pasa eskolatik.

### **154. Deustun bost urtez, ikasten (ONA-062/015)**

Bost urtetako ikasketak egin zituen Deustun. Entretanimendu nagusia futbola izaten zen. Ikasketak bukatu eta berehala Bilbora itzuli behar izan zuen, baina oraingoan soldadutzara.

### **155. Gari tresneria (ONA-064/003)**

Gari lanetarako erabiltzen zuten zenbait erremintari buruz hitz egiten du. Peoi gisa behin bakarrik egin zuen lan; industrian berriz, behin ere ez.

### **156. Eskolara kalera (ONA-064/006)**

Eskolan Maristekin hasi zen. Eskolara bidean kalera esnea eramaten zuen marmitatan. Gero Agustinoekin ere ibili zen ikasten.

### **157. Etxeko abereak (ONA-064/008)**

Etxean ganaduak eta idiak zituzten. Astoa hainbat lanetarako erabiltzen zuten: arropak garbitzeko, errotara aleak eramateko eta errekaduetarako, besteak beste. Esnea saltzen zuten kalean. Ardirik ez zuten izan lñaxioren garaian.

### **158. Babarrunak eta gaztainak (ONA-064/009)**

Ortuko gauzak jaten zituzten. Babarruna zen jaki nagusia eta neguan berriz gaztaina.

### **159. Larraña auzo zabala (ONA-064/016)**

San Balandran, Azalditako txabola inguruan abuztuan ospatzen zen jaia oso jendetsua izaten zen. Nahiz eta askok jakin ez, gaurko Oñatiko San Lorentzo eta Olakua auzuneak Larraña auzoaren barnean daude.

### **160. Kale baserriak (ONA-064/018)**

Oñati zeharo aldatu da. Lehen herrian kale baserri asko zeuden baina haien ordezkari kale etxeak eraiki dira. Toki Ederreko hormak egiteko materiala berak garraiatu zuen. Hormagintzan ere lan egin zuen.

### **161. Garbitzera errekarra (ONA-064/021)**

Garai batetan "bozaderatik" hartzen zuten ura; gero "bozaderatik" ponpaz ura andel txiki batera igotzen zuten eta bertatik hartzen zuten. Teilatutik ere hartu zuten beranduago eta azkenik mendiko iturri batetik ekarri zuten ura etxera ur-hodien bitartez. Garbitzera errekarra joaten ziren. Jolasera "Pullanguaren" ondora joaten ziren.

### **162. Eskola ibilbidea (ONA-066/004)**

Bi urtetan eskolara Zarautura joan zen. Sor Karmen izan zuen maistra bertan. Handik ospitalera eta gero maristen ikastetxetara, "Maixo Baltzakin". Eskolak erdaraz jaso zituen oso-osorik. Euskaraz egiten zuenak zigorra jasotzen zuen.

### **163. Ardiak edo behiak (ONA-066/007)**

Jabier lanean hasi zenean kendu zituzten ardiak. Orain ganaduak kendu dituzte eta ardiak jarri berriro.

### **164. Harginak eta arotzak (ONA-066/008)**

Albarritza baserrian, garai batean, etxebizitza bakarra zegoen. hala ere, sute baten ondorioz etxea berreraiki zuten eta bi etxebizitza egin zituzten. Jabierren aitajaunak erosi zuen baserria; ordura arte erreteroa izan ziren bertan. Aitajaunetik datorkio Jabierri hargintza zaletasuna. Bere aita berriz arotza zen.

### **165. Arantzazun igeltsero (ONA-066/010)**

Igeltsero ikasten hasi eta Arantzazuko eliza berria egiten parte hartu zuen. Hala ere, bertako harginak galziarrak eta zamorarrak ziren batik bat.

### **166. Parrokiko lanak (ONA-066/012)**

Parrokian egin zituen zaharberritze lan asko hargin moduan, Reyesek (alkateak) aginduta.

### **167. Harriaren artisaua (ONA-066/014)**

Hormagintzan hasi eta harria lantzen bukatu zuen. Soldadutzako baimena lortu eta lan solte batzuk egiten zituen aitajaunarekin. Mila lan ezberdin egin zituen parrokian; bi gotzainen ezkutuak tartean.

### **168. Gasteizko lanak (ONA-066/015)**

Oñatin ez ezik, Gasteizen ere egin zuen lan. Lehenengo kanposanto ondoan eta gero Goribar Goitin izan ditu tailerrak.

### **169. Futbola dantza baino nahiago (ONA-066/018)**

San Juan zelaian jolasten zuten futboleak. Baita etxe azpiko bidean ere. Igande iluntzetan kalera joaten ziren bueltatxo bat ematera. Garagaltzako auzotarrak ez ziren dantza zaleak. Auzokoak kuadrillan joaten ziren kalera.

### **170. Auzoko jaiak (ONA-066/019)**

Garagaltza auzoko jaiak San Juanetan ospatzen zituzten. Torre auzoko eta Garagaltza auzoko jaiak jendetsuak izaten ziren. Jaia ordu batean bukatzen zen, bi guardia zibilen zaintzapean. Bi egun irauten zuten jaiak.

### **171. Eskolara eta lanera (ONA-068/004)**

Lana egitea garrantzitsuagoa zen eskolara joatea baino. Ume zaintzan hasi zen 11 urterekin. Saskigintzan ere ibili zen gerra aurretik, Atzeko Kaleko Oixanean. Eskolak erdaraz jaso zituzten, maistrak euskaldunak izan arren.

### **172. 12 urterekin umezain (ONA-068/011)**

11 urterekin utzi zion eskolari lanean hasteko. Bere ama bi negutan besterik ez zen joan eskolara. Pilarren gurasoak baserritarrak ziren.



### **173. Gerra osteko gosea (ONA-068/013)**

Gerra ostean ematen zuten ogia jan ezindako modukoa zen. Etxe osteko ortuko gauzeekin konpondu behar izaten zuten; gurasoen baserrietatik esne apur bat ere ekartzen zuten. Gerra bukatu zenean Soralezera joan zen neskame.

### **174. Trenez Maltzagako erromeriara (ONA-068/015)**

Soraluzen zegoela igande batzuetan etortzen zen Oñatira, baita herriko jaietara ere. Trenez egiten zituen joan-etorriak. Soralezeko jendea oso alaia zela dio Pilarrek. Igandetan Soralezetik Eibarrera edo Maltzagako erromeriara joateko ohitura zuten.

### **175. "Ufalak" (ONA-068/016)**

Susto handia pasatu eta gero ikasi zuen Pilarrek soralezetarrak "ufala" deitzen diotela uholdeari. Bere garaian zegoen txarategitik egin dute saihebidet berria. "Gila"-ren taberna orduan ere bazegoen.

### **176. Arropa garbitzen (ONA-068/019)**

Bai zapatu osoa lanean, bai "Sábado inglés"-a eta baita geroago zapatu osoa jai, hirurak ezagutu zituen Pilarrek. Laneko arropak garbitzen ematen zituen zapatuak, sukaldea erabat petrolio usainez kirastuaz. Berak beti ezagutu du argindarra eta ura etxean, baina bere amak ez. Sei familia bizi ziren errentan San Anton kaleko etxean. Arropak "Lagarto" xaboiak garbitzen zituzten txandaka bi ahizpek. Garai lantegian ezagutu zituen lehenengo oporrak astebetekoak izan ziren; geroago bi asteakoak izatera iritsi ziren.

### **177. Intxaur-saltsa eta kafea (ONA-068/020)**

Gabonetako "extrak" intxaur-saltsa eta bakailaoa izaten ziren. Turroia neska handia egin eta gero jan zuen lehen aldiz. Eguneroko jatekoa babarrunak ziren, edo garbantzuak igandeetan. Kafea luxua zen eta ardoa edo sagardoa noizbehinka bakarrik hartzen zen.

### **178. Soldata etxean utzi (ONA-068/022)**

Lanean irabazitakoak etxean entregatzen zituen. Aitak "Potteo"-ren tailerlean egiten zuen lan.

### **179. Kaletik Berezaora eskolara (ONA-070/004)**

Roke Azkune eta Trianako neska-mutilek Berezaoko eskolan ikasten zuten.

### **180. Neska-mutilen jolasak (ONA-070/006)**

Neskek "sapakonetan" (tortolosean) eta lurrian marraztutako laukietan zehar harria bultzatzen egiten zuten jolas. Mutilek kaniketan eta "tronpuetan pottoka" ere jolasten zuten. Kanikak erositakoak edo etxean buztinez eginak izaten ziren. "Tokan" ere jolasten zuten batzuetan.

### **181. Sasoian sasoiko jolasak (ONA-070/007)**

Bolatokirik ez da inoiz egon Berezaon. Neskek sokasaltoka jolasten zuten. Udaberrian "sapakonetan" (tortolosean) eta udazkenean sokasaltoka jolasten ziren. Txirikiletan udazkenean jolasten zuten, neskak eta mutilek elkarrekin.

### **182. Anaia zaharrenaren lanak (ONA-070/008)**

Etxean lana zegoenean eskolara ezin izaten ziren joan. Batzuetan "itaurrean" ibili behar izaten ziren eta, bestetan, anaiarik zaharrenek umeak edo lapikoa zaindu behar izaten zuten gurasoek etxetik kanpo lanean baziharduten. Lau anai-arreba ziren, Joxe Mari zaharrena. Horregatik ikasi zuen berak eskola gutxi.

### **183. Zotzak egiten 45 urte (ONA-070/010)**

45 urte egin ditu Joxe Marik "palillo" (zotz) lantegian lanean, 15 urterekin hasita. Arropa esekitzeko kakoak egiten zituzten garai batean. Zur lan astuna zen. Nafarroako Erriberatik ekarritako makal zura lantzen zuten gehien. Gai batzuetarako Urbasa aldetik ekarritako pagoa eta urkia ere erabiltzen ziren.

### **184. Zotzak egiteko prozesua (ONA-070/012)**

Egurra hezean lantzen zuten. Zotzak ebaki eta gero lehortu eta leuntzen zituzten haize beroarekin.

### **185. Korrikalari ona (ONA-071/006)**

Sei hilabete inguru egin zituen Elorrion nobiziatua egiten. Orduan utzi zion eskolari. Intxortako lasterketan, araoztar baten atzetik, bigarren iritsi zen helmugara.

### **186. Errotan eta landare mintegian lanean (ONA-071/007)**

Zazpi urte bete zituenetik etxetik kanpo bizi izan da Juane. 11 anai-arreba ziren etxean. Marianistetatik Bergarara joan zen lanera. Lehenengo errotari eta okin ibili zen eta gero landara mintegi batean egin zuen urtebete. Handik soldadutzara joan behar izan zuen.

### **187. Aginaldetik Estañoakoara (ONA-071/011)**

Li&ntilde;atzibarko errotan bizi izan ziren Juane eta familia Ugaztegitik jaitsi zirenetik. Ganaduak bazituzten Li&ntilde;atzibarren, nahiz eta errota ugazabak eramaten zuen. Aginalde baserria utzi zutenean teilatua eta egurra kendu zioten. Esta&ntilde;okoa baserri etxea erosi zuten orduan, auzoan bertan. Urrexolan ez dute orain ganadurik baina bai ardiak.

### **188. Abadeari hurrak harrapatzen (ONA-071/013)**

Eskolan jolas-orduetan ere ezin zuten euskaraz egin. Txapa bat izaten zuten euskaraz egiten zuenari emateko. Abadeari hurrak harrapatzea zuten jolasik gustukoena. Baloirik ez zuten, ezta pilotalekurik ere. Neskek eta mutilek elkarrekin ikasten zuten.

### **189. Aterki industria Oñatin (ONA-071/016)**

Garai lantegian ekoizitako aterkien egiturarako piezak banatzen zituen Juanek. Lantegi edota etxe partikularretara eramaten zituen eta egitura osatu eta tela jarri ondoren berriro jaso. Jende asko jardun zen garai hartan aterkigintzan Oñatin. Ezpeleta eta Zirrinkain tailerretan aterkiak ekoizten zituzten. Bai aterki eta bai itzalkin ("sombrella") egiturak egiten zituzten Garai lantegian.

### **190. Gidabaimena ogitarteko baten truke (ONA-071/017)**

Garai lantegian aterki lanak bukatu eta tutugintzan eta latoiarekin hasi ziren lanean. Juanek gidabaimena Salbatoren atera zuen. Bertan praktikak egin eta gidabaimena atera. Ogitarteko bat ordaindu behar izan zuen gidatzeko baimenaren truke; beste guztia Garai lantegiak ordaindu zuen.

### **191. Arabako euskaldunak, gipuzkoarrak (ONA-071/023)**

Arabar euskaldunik ez zuen ezagutu Juanek, baina hemendik joandako jende asko bizi zen bertan.

### **192. Gurdi, lantegi edota baseritik ogibidea (ONA-072/004)**

Karretero asko zeuden garai batean, ogibidez lanean zihardutenak. Beste batzuek lantegietan egiten zuten lan, baina bazeuden oraindik ogibide bakarra baserria zutenak. Bere aitak eraiki zuen etxe ondoko zerrategia, eta gero bertan egin zuen lan.

### **193. Haritz handi bat lurrean (ONA-072/007)**

Erretako baserriak berreraikitzen ibili zen Iñaxio aitarekin. Oñatin bi Zelabarren baserri daude, biak haritzez inguratuta garai batean. Izugarritzko haritz handia bota behar izan zuten bidea zabaltzeko.

### **194. Zotz industria (ONA-073/004)**

Palillo borobila Japon eta Brasiletik ekartzen saiatu ziren, Chinakoak aurkitu aurretik. Txinatar langileek ez omen dute hilabete batean, gurean egun batean irabazten den dirua jasotzen. Betik palillologintzan hasi zenean, Espainia guztian hamar halako lantegi zeuden, gaur gehienak ezkutatuta; horietako batzuk Betik-ek berak bereganatu zituen.

### **195. 1916an Martezkoan jaioa (ONA-073/006)**

1916. urteko San Pedro egunean jaio zen Pedro. Bera eta bere anai-arrebak eta sei seme-alabak Martezkoa (Martelopezkoa) baserrian jaioak dira.

### **196. Lanean eta gau-eskolan (ONA-073/013)**

Apendizitisa izan ostean, sendatu eta gero zerrategian jarraitu zuen, gerra hasi zen arte. Orduan ez zegoen ordaindutako bajarik, istripu-asegurua besterik ez zuten lanean. Lanean zebilela Zubillagako gau-eskolan ikasi zuen.

### **197. Zerrategia erosi Zubillagan (ONA-073/015)**

Diortxueneko Pedrok eta berak pentsatu zuten Zubillagan salgai zegoen zerrategia erostea. Nikolas Errastirekin elkartu eta erosi zuten hiruren artean. 25.000 mila pezeta aurkitu behar izan zituen Pedrok bere zatia ordaintzeko.

### **198. Lehenagoko ardiak gogorragoak (ONA-073/019)**

Lehenagoko ardiek, Pedrok dionez gosea pasatzera ohituta zeudenek, gaixotasun gutxiago izaten zuten. Baina batzuetan gaztaina-jana egin ondoren, lehertu egiten ziren ardi batzuk.

### **199. Trenaren inaugurazioa (ONA-073/021)**

Askazubi Zubillaga auzoko baserria izan arren, bertakoak Koixkarko (Korosbizkar) elizara joaten dira. Antzuelas baserrian morroi zegoela trenaren inauguraziora etorri zen kalera. Berak zortzi urte zituen eta luxuzko inaugurazioa gogoratzen du; Madrilgo nagusi guztiak etorri omen ziren.

### **200. Ibilaldi luzeak neska-laguntzen (ONA-073/023)**

Lizargarate aldera joateko joera handia zuen Pedrok. Lizargarateko erromeriatik neska-laguntzera kaleraino joaten ziren gaztetan.

### **201. Goroeta auzotik Oñatira (ONA-075/007)**

Goroeta auzoko Iraban baserrietik etorri zen gaztetan Oñatira Jesusen amona, eta honen ama Zumarragakoa zen. Birramonaren lehen lau abizenak "Bengoa" ziren.

### **202. Kubatik herentzia (ONA-075/008)**

Jesusen amonaren anaia bat Kubako gerrara joan zen. Etxera itzultzean desagertu egin zen betirako. 1947an, herentzia handi bat iritsi zen Kubatik Bengoatarrentzat. Bailaran Bengoatar ugari dauden arren, Bilboko batzuek jaso zituzten herentziako milioiak.

### **203. Amonaren ahizpa arrantzaleen munduan (ONA-075/009)**

Kontu kontatzaile ona zuen amona. Igitaiarekin joaten zirela Arabara garia ebakitzen esaten zion amonak. Amonaren ahizpa bat Donostiako portuan oso ezaguna egin zen, neskame joan eta gero. Ahizpa honen arrantzale kontuak azaltzen ditu Jesusek.

### **204. Kanoikadak San Jose egunean (ONA-075/016)**

Gerra denboran, jendea oso beldurtuta zegoen auzoan, nahiz eta Oñatin frontierik egon ez. Jesusen etxetik Udanako tiroketa entzuten zuten, baita Arrasate aldekoa ere. Beraiek Bakuera joaten ziren gerra ikustera. San Jose egun batean, kanoikada batzuk erori ziren Antsolopetegitik ez oso urrun.

### **205. Errepidean jolasean (ONA-075/020)**

Jesusek eskolatik alde egin eta gero beste hiru maistra egon ziren auzoko eskolan. Bera 14 urterekin Garai lantegian hasi zen lanean. Errepidean jolasten zuten futboleko. "Txirikiletan" garizumako jolasa izaten zen. Auzoko neska-mutil taldeak elkartzen ziren txirikiletan jolasteko errepidean.

### **206. Basoan jolasean eta gaztainak batzen (ONA-075/022)**

Basoan katagorriak harrika harrapatzen edota txori habiak bilatzen ere ibiltzen ziren. Gaztaina denboran gaztainak batzera joaten ziren Koixkar (Korosbizkar) aldera. Gaztainadia zuten baserrientzako gaztaina elikagai garrantzitsua izaten zen gaztainok irauten zuten artean.

### **207. Salda eta gaztainak (ONA-075/023)**

Santu Guztien egunetik San Andres egunera bitartean ereiten zen garia. Bukatzen zenean danbolinean erretako gaztainak jaten ziren. Salda eta gaztainak atera omen zuen Euskal Herria aurrera. Arrautzak gaixorik

zeudenean bakarrik jaten zituzten, indarrak berreskuratzeko. Etxean bi txerri hiltzen zituzten urtean.

### **208. Tiruena baserrian jaioa (ONA-077/001)**

Bernabek ez daki bere baserriaren "Tiruena" izena nondik datorren. Lehenagoko dokumentuetan "Antuena" bezala agertzen da. 1931ko ekainaren 10ean jaio zen Bernabe Tiruena baserrian. Auzoa asko aldatu da azken urteetan. Etxeak berriztatuta dira eta baita etxe berriak egin ere, baina baserriar gutxi geratzen dela dio Bernabek.

### **209. Baseritik ULMara (ONA-077/002)**

Bernabe gaztea zenean 60 auzotar ziren Olabarrieta auzoan. Gaur baserri batzuetan hiru edo lau etxebizitza daude. Hamar anai-arrebatatik zazpi gelditzen dira gaur. 35 urtera arte baserrian egon zen, gero ULMAn ekin zion lanean. Basolan guztietan aritutakoa da, ikazkintzan izan ezik.

### **210. Ganaduak eta soroak (ONA-077/003)**

Auzoan, mendiko baserrietan egiten zuten ikatza kalean saltzeko. Karegintza umetan ezagutu zuen. Behiak bazituzten, baina ardiak bere aitajaunarekin bukatu ziren Tiruengan. Soroan garia, artoa, baba, etab. ereiten zuten.

### **211. Azokan saldutakoekin erosketak egin (ONA-077/004)**

Labesua astero egiten zuten. Ogia bukatuz gero, aldekoeki eskatzen zieten. Ama zapatuetan joaten zen kalera astoarekin, asterako erosketak egitera eta etxeko gauza batzuk plazako azokan saltzera.

### **212. Ama Arabatik etorritako neskamea (ONA-077/005)**

Igandetan goizeko seietako mezara joaten ziren kalera, gero baserriko lanak egin ahal izateko. Bere ama, Arabako Erentxun herrikoa, 12 urterekin neskame etorri zen Olabarrietako Arrazola etxera. Euskara ondo ikasi zuen.

### **213. Aitaordea auzo-eskolako maisu (ONA-077/006)**

Sei ume izan eta gero, aita hil egin zen eta aitaren anaia zenarekin ezkondu zen bigarren ezkontza ama. Aitaordea auzoko maisua ere bazen eta harekin ikasi zuen Bernabek. Aitaordearekin beste lau ume izan zituen amak. Ehun bat ikasle elkartzten ziren auzo-eskolako gela batean, maisu berarekin denak.

### **214. Auzoko maisuak, baina eskolak erdaraz (ONA-077/007)**

Eskola zaharra eliza ondoan zegoen. Bernaberen aitaordeak maisugintzari utzi zionean, Jurgi baserrikoa izan zen maisu berria, harik eta eskola nazionalak hasi ziren arte. Orduan eskola-etxe berria eraiki zuten auzoan. Eskolak erdaraz jaso zituzten. Euskaraz egiten zuenari eraztun bat ematen zioten eta jolas-ordurik gabe geratzen zen eraztuna zuena.

### **215. Doktrina euskaraz (ONA-077/008)**

Eguraldi txarra egiten zuenean, etxean lan gutxi egoten zen eta eskolara joan ahal izaten zen Bernabe. Hamar urterekin utzi zion eskolari. Neguan, aitak etxean ematen zien eskola. Doktrina euskaraz eta erdaraz irakasten zuten eta bietan ikasi zuen Bernabek, doktrina osoa buruz. Geroago, galarazi egin zuten euskal doktrina. Monagilo lanetan ere ibili zen Bernabe.

## **216. Monagiloa abadearekin baserrietara (ONA-077/009)**

Abadeak mezan esandakoei erantzuten zien monagiloak. Elizara joateko gai ez ziren olabarrietarren etxeetara abadea monagiloarekin joaten zen elizkizunetarako. Garai hartan elizkizunak latin hutsez izaten ziren. Elizakoak ematera ere abadearekin joaten zen Bernabe, kanpaia joz, eurak zihoazela ohartarazteko.

## **217. Pazkoetako derrigorrezko jauna hartzea (ONA-077/010)**

Pazkoetan jauna hartzea derrigorrezkoa zen. Abadeak etxe bakoitzean zegoen kristau beste txartel uzten zituen, jauna hartzea ziurtatu ahal izateko. Gero, jauna hartzeaz bat, txartel hori erretilu batean utzi behar izaten zuen auzotarrak.

## **218. Monagilo lanak; mezak latinez (ONA-077/011)**

Olabarrietako elizan jardun zuen Bernabek monagilo lanetan. Baserrietara joaten zirenean, beti jasotzen zuen diru-sarixoren bat. Arrazolatarren etxera igandero joaten ziren etxeko kaperatxoan meza ematera. Meza guztiak latinez ematen ziren. Berak ulertu ez arren, buruz ikasita zituen esan behar zituen guztiak. Abadea kaletik etortzen zen, parrokiatik.

## **219. Iminakada bat gari abadearentzat urtero (ONA-077/013)**

Abade batzuk beste batzuk baino eskuzabalagoak ziren monagiloari diru-saria ematerakoan. Batzuek ahaztu ere egiten zuten batzuetan monagiloaren saria. Elizako kanpaiak sakristauak jotzen zituen. Garai batean, urtean iminakada bat gari eman behar izaten zion baserri bakoitzak abadeari.

## **220. Gerra ostean auzoan errotarik ez (ONA-077/014)**

Mezan erretilua birritan pasatzen zen, aurrena elizako gastuetarako eta, bigarrenez, abadearentzako. Gariak lan asko ematen zuen: erein, ebagi, jo eta gero errotara eraman behar zen. Olabarrietan errota bat zuten. Gerra ostean itxi egin zuten eta Bernabek Arantzazu, Araotz, Tokillo eta baita Telleriarteko errotetara eraman izan zuen auzoko garia ehotzera.

## **221. Etxeko ekoizpena entregatzera behartuta (ONA-077/015)**

Antzuolara ere joaten ziren Oñatitik gariarekin, gauez, errota gobernuaren aginduz itxita zegoelako. Arantzazu eta Araotzeko errotak debekutik libre omen zeuden. Gerra ostean baserri guztiek entregatu behar izaten zuten etxean ekoizten zen alearen zati bat udaletxean, labrantzaren azaleraren arabera kalkulatuta. Bernabek 15-16 urte zuen arte iraun zuen alea eman behar horrek.

## **222. Taloak bai, baina txorizorik gabe (ONA-077/016)**

Gerra ostean kalean gose handia pasatu omen zuen jendeak. Auzoan ere izan omen ziren arazoak gosearekin. Tremesa pusketak alde batetik bakarrik bustitzen zituzten urdaiaren koipean, bestela amona haserretu egiten zen eta. Txerria hazteak asko laguntzen zuen etxean jatekoa izateko. Taloa ia egunero jaten zuten, koipetan bustita edota esnetan zopatuta.

### **223. Garotara urruti joan behar (ONA-077/017)**

Etxeko gaztainadirik ez du gogoratzen Bernabek. Tiruenenean ez zen gaztaina asko jaten. Bera gaztea zenean, Olabarrieta inguruan gaur ikusten diren pinudi gehienak zelaiak ziren. Orduan basoak gorago zeuden. Garotara urruti joaten ziren, Legazpi aldeko basoetara. Irailetik azarora ia egunero joaten ziren garoa ebakitzera. 40 bat gurdikada behar izaten zituzten urte osorako. Garoa ganaduei azpiak egiteko erabiltzen zuten.

### **224. Basolanak; Udanako taberna (ONA-077/018)**

Basolanetara oinez joaten ziren Udana aldeko basoetara, bazkaria eta lanabesak aldean hartuta. Udanako tabernan ikazkin, mandozain eta basomutil asko elkartzen ziren. 20 laguneko basomutil koadriletan lanean arituta dago Bernabe.

### **225. Basoak landatzen (ONA-077/019)**

"Monta&ntilde;eruak" izenarekin ezagutzen zen elkarte bat zegoen garai hartan, baso hektarea asko zituena. Elkarte honek mutil asko alokatzen zituen basolanetarako. Basoak landatzeko garbitu ondoren, landareak sartzen zituzten. Ganaduengandik babesteko itxiturarik ez zen egiten orduan. Satsa urarekin nahastu eta horrekin igurzten zituzten landareak. Alanbre arantzaduna agertu zen arte basoetan ez zen itxiturarik egiten. Egurrezko hesiak nola egiten zituzten gogoratzen du Bernabek.

### **226. Xabalo eta Urubilen tabernak (ONA-077/020)**

Kalera kuadrillan joaten ziren; itzultzerakoan bertsoan etorten ziren. Jai egunetan Xabalon tabernara joaten ziren afaltzera; hau itxi zutenean Urubillera, eta hau ere itxi zutenean Etxeberriarenera. Oraindik ere jaiero afaltzen dute Etxeberriarenean, azkenengo 40 urte hauetan egin duten legez.

### **227. Auzoko jaietan bertsolariak (ONA-077/021)**

Bertso-saioetara joatea gustukoa zuen Bernabek. Donostiara joan izan ziren bertsolari omenaldietara. Donostiara joateko, Brinkolaraino autobusez eta handik treneguz egiten zuten bidaia. Lazkao Txiki, Agirre eta Garmendia bertsolariak gogoratzen ditu Olabarrietako jaietan kantatzen.

### **228. Lehengo "Patroziño" jaiak (ONA-077/022)**

Auzoko jaiak gaur egun maiatzaren lehenean ospatzen dira, baina lehen "Patroziñoak" ziren. Pazko egunetik 40 egunera ospatzen zituzten orduan jaiak. Lehengo jaietako giroa beste bat zela dio Bernabek. Jaietarako ilusio gehiago izaten zuten lehen. Soinujolearentzat astoak tiratutako ondo apaindutako orga prestatzen zuten. Suziriak jaurti eta orgaren atzetik Artzubi baserriraino joaten ziren. Artzubi beti egon izan zen Olabarrietako auzo-bileretan, baina jada ez dago auzoan.

### **229. Ohitura zaharrak berpiztu nahian (ONA-077/023)**

Jaietako orgaren atzetik Udana aldeko baserrietatik itzulia ere egiten zuten. Ugarte baserriko ortuzainen orga erabiltzen zuten jaietan. Orgaren ohitura berpizteko saiakera bat izan zen duela urte gutxi, baina ez zuen emaitza onik izan. Elizpean egiten zuten pilotan Olabarrietan. Bernaberen anaia bat Espainiako txapelduna izan zen pilotan amateurretan.

### **230. Anaia gerran preso (ONA-079/005)**

Gerra denboran, anaia frontean harrapatu eta "gorriek" Bartzelonara preso eramán zuten. 18 kilo galduta itzuli zen kartzelatik.

### **231. Anaiak espetxean osasuna galdu (ONA-079/006)**

Bartzelonan gose handia pasatuta, Zaragozara eramán zuten anaia. Handik etxera itzuli eta gutxira, pleuraz gaixotu eta birika bat kendu zioten.

### **232. Etxerako garia Arabatik estraperloan (ONA-079/007)**

Bigarren anaia bat ere eramán zuten gerrara. Ourenseko ospitalean zortzi hilabete gaixorik egon ondoren itzuli zen etxera, gerrarako alfertuta. Bitartean, etxeko garia udaletxean entregatzera behartuta zeudela, etxean errazionamenduan jasotako ogi jangaitzarekin bizi behar. Arabatik gauez estraperloan ekartzen zuten garia, eta kaleko Tokilloko errotara eramaten zuten ehotzera, hori ere gauez.

### **233. Errazionamendu garaia (ONA-079/008)**

Gerra ostean itxi zutenetik ez da berriro ireki Arantzazuko errota. Orduan kaleko Li&ntilde;atzibarreko errotara eramaten zuten garia. Hamabostean behin olioa eta kafe apurtxo bat jasotzen zuten errazionamenduan. Eho gabeko laurdendutako artoarekin egindako opil batzuk ere egunero ematen zizkieten, baina jangaitzak ziren, Asunzionek dioenez.

### **234. Gerrako kontu tristeak (ONA-079/009)**

Asunzionek gogoan du nazionalistak izateagatik kaskamotz utzi zituztela batzuk kalean. Don Basilio zenaren eta Eustakio dendariaren alabak, Naparreneko Margari eta beste hiru edo lauri ebaki zieten ilea, "bengantziagatik" Asunzionen esanetan.

### **235. Eskolara Arantzazura oinez (ONA-079/011)**

1916ko ekainaren batean jaio zen Asunzion Azpilleta baserrian. Ikasitako eskola guztia Arantzazuko eskolan ikasi zuen. Neskatila-mutiko kuadrilla joaten ziren oinez eskolara, bidean jolasean. 11ak aldera iritsi eta 12 eta erdiak arte doktrina ikasten zuten. Arratsaldean hiruretatik lauretara izaten zuten eskola.

### **236. Eskolara mendi-bideetatik (ONA-079/012)**

Bi kuadrilla joaten ziren eskolara, batzuk errepidetik eta besteak menditik. Mendietxebarrin (Mi&ntilde;eruena) oraindik bizi ziren, eta hango lau ume joaten ziren Asunzionekin batera, Arrolatik beste bi eta bidean Sorandietakoekin elkartzen ziren. Nahiko jolas eginda iristen ziren eskolara.

### **237. Arantzazuko fraidea maisu (ONA-079/013)**

Arantzazuko fraide bat zen eskolako maisua. Eskolak erdaraz jasotzen zituzten, baina oraindik ez zegoen zigorrik euskaraz berba egiteagatik. "Padre" Balanzategi izan zen Asunzionen irakaslea. Irakurtzen baino kontuak egiten gehiago irakasten zien. Bere kabuz ikasi zituen gero gauza asko.



### **238. Umeak ezin eskolara bidali (ONA-079/014)**

12-13 urtera arte joan zen eskolara, bost edo sei urterekin hasita. Ezin ziren lau urteko umeak bidali baserritik eskolara menditik. Lau birbiloba ditu jadanik Asunzionek.

### **239. Gurasoak gazterik hil zitzaizkion (ONA-079/016)**

Jolas asko egiten zuten umetan, baina penatuta dago Asunzion eskola gehiago ikasi ez izanagatik. Aita hiru urte zituela eta ama 16 zituela hil zitzaizkion. Anai-arrebak aitajaun-amandreekin geratu ziren. Hauek ere joan zirenean, izeba batekin geratu ziren etxean. Azpilletan 7-8 ganadu izaten zituzten, baina uztarrarian zebiltzanak besterik ez zituzten jezten; besteak mendikoak ziren.

### **240. Arantzazun baserri gutxi bizirik (ONA-079/017)**

Bost anai-arreba izan ziren, baina eurretatik bi gazterik hil ziren. Asunzion 28 urterekin ezkondu zen Gesaltza baserrira. Arantzazun gaur egun bost baserritan besterik ez da jendea bizi.

### **241. Etxean lan ugari (ONA-079/019)**

6-7 ganadu eduki izan dituzte Gesaltza baserrian. Asunzion Gesaltzara ezkondu zenean, 13 lagun ziren etxean. Berak bere lau seme-alabak zaindu eta etxeko lanak egiten zituen. 42 urterekin gizona hil zitzaion, eta egun latzak etorri ziren horren atzetik. Hirutik 12 urtera arteko lau umerekin geratu zen, baina bizimodua aurrera ateratzeko gai izan zen.

### **242. Urrexolako Errotan jaioa (ONA-080/002)**

Jose Luis Urrexolako Errotan jaioa da. Errekatik beste aldera badaude Urrexolako terrenoak, Uribarrikoekin muga egiten dutenak. Garagaltza eta Zañartu arteko mugak ez daude oso argi Jose Luisentzat.

### **243. Arbasoak Araotzetik etorritakoak (ONA-080/003)**

Jose Luis Madinabeitia Uriarte du izena, eta ama Araotzekoa zen, Txantonena baserrikoa. 1941ko apirilean jaio zen. Bere aita umea zela bizkarrean ekarri zuten Urrexolako beste baserri batetik Errotara, familia etxez aldatu zenean. Aitajauna Araotzetik etorritakoa zen.

### **244. Errotan errotarik ez (ONA-080/004)**

Aitajauna Errotara bizitzera etorri zenean, hiru etxebizitzako etxe zabal bat zen, terrenorik gabekoa. Pitinka-pitinka etxe osoa bereganatu zuen, terreno batzuk erosiak bat. Jose Luisen aitak Zerrajeraren Olateko zentrolean egiten zuen lan. Denborarekin lanari utzi egin zion. Jose Luisek ez zuen bere etxeko errota lanean ezagutu. Lamiategi eta Zuazolako errotetara eramaten zuten astoan etxeko garia ehotzera.

### **245. Lantegian hasi behar lanean (ONA-080/007)**

Behin behorrak gaineratik bota zuen lurrera. 8-10 ganadu-buru egoten ziren Errotan. Soldaduskatik etorri eta gero pila lantegian hasi zen lanean.

### **246. Lantegira ezin moldatu (ONA-080/008)**

13 urterekin hasita zegoen basoan lanean. Bost negu egin zituen basoan lanean, uda partean aitarekin etxean jarduteko. Basoan garbiketari eta pinu

sartzen ziharduen. Soldaduskatik etorri eta laster lantegian hasi zen eta jubilatuta arte egon zen bertan. Asko kosta zitzaion lantegira moldatzea, txorikumeari kaiolara bezala, baina handik dirua zetorren eta baserritik ez. Etxean ganadua gutxitu egin zuten.

#### **247. Baserria aitajaunarengandik zuzenean berarengana (ONA-080/009)**

Dozena bat urte hainbat lanpostutan jardun eta gero, lantegiko gau-zaintzan ekin zion. Oso ordutegi txarra zuen eta azkenean bera nekatuta zegoela enpresak aurretiko erretiroa eskaini zion, eta 58 urterekin etxean geratu zen. Errotan aitajauna zen baserritar petoa; aita ez hainbeste. Aitajaunarengandik berarengana pasatu zen baserriaren ardura.

#### **248. Bainuetxea Errotan (ONA-080/010)**

Ur sufretsuak ere badaude Urrexolako Errotan. Etxe inguruko putzu batetik etxeratu zuten ur hori hodi bidez, eta etxearen zati bat egokitu zuten jendeak bainuak hartzeko. Amandreak prestatzen zituen bainuontziak, uraren tenperatura neurtuta. Bainuontzi bi eta bi oheko gelatxo bat zuten bainu-hartzaileentzat.

#### **249. Ostatudun bainuetxea zen (ONA-080/011)**

Errotan ostatua hartzen zutenek goizean hartzen zuten bainua; ondoko gelan izerdia bota eta gero gosalduta egiten zuten. Bi bainuontzi zeuden eta bainuak 15-18 minutukoak izaten ziren. Bainuen prestaketak amonak lehenengo eta amak gero egiten zituzten. Errotako logelak betetzen zirenean, Olateko osabaren etxean egiten zuten lo bezeroek.

#### **250. Bainuak sendatutako gizona (ONA-080/012)**

Baziren herritik espresuki bainua hartzera etortzen zirenak ere, bizikletaz. Erreumak bihurritutako Torreazoko gizon bat astoak tiratutako organo etortzen zen bainua hartzera. Denborarekin, bizikletaz joateko gai izan zen. Antsolopetegitik ere etortzen zen beste gizon bat bizikletaz.

#### **251. "Bederatziurrena" bainuetxean (ONA-080/013)**

Bost, zazpi edo gehienez 9 bainuko tratamenduak izaten ziren. Jose Luisen ustez, inongo gaitzik gabe batzuek Errotan "bederatziurren" ederra pasatzen zuten, euren etxeetan lan pilak emaztearentzat utzita. Baina beste batzuk benetan erreumak okertuta etortzen ziren.

#### **252. Emakumeak finagoak gizonak baino (ONA-080/014)**

Bainuetxera etortzen ziren gizonetakoek jan eta edan besterik ez zuten egiten. Emakumezko batzuk, ordea, ahal zuten neurrian baserrian laguntzen saiatzen ziren. Arropak zorrotz batean sartu, makila baten puntan eseki eta sorbaldan hartuta, inguruetako herrietatik ere etortzen zen jendea bainuak hartzera.

#### **253. Bainu osasuntsuak (ONA-080/015)**

Bainuetxean atzerritarrik ez du gogoan Jose Luisek. Tratamenduak eraginkorrak ziren, dirudienez. Nahiz eta orduan aseguratik ez egon, baziren medikuaren aginduz joaten zirenak ere. Auto istripu batean ama, anaia bat eta arreba bat hil zitzaizkion eta orduan utzi zioten bainuak emateari Errotan.

#### **254. Bainuak udazkenean hartzen ziren (ONA-080/018)**

Bainuak hartzeko garaia udazken aldera izaten zen. Jose Luisek umetan gogoratzen da familiak belar gainean lo egiten zuela batzuetan, bainu hartzaileentzako logela gehiago eduki ahal izateko. Bezeroek jatorduak Errotan egiten zituzten. Hostoa ereriaz batera gure osasuna ahuldu egiten omen da, eta horregatik izan daiteke udazkenean bainuak hartzearena.

#### **255. Erlakaiztenen misterioa (ONA-080/019)**

Bainuarena diru-iturri bat zen Errotarentzat. Bainuaz gain, atsedean onartzen zuten bezeroek, oporraldi antzeko bat. Jose Luisek dio kantuan eta bertsoetan ere ibiltzen zirela bezero batzuk. Behin erlakaizten bat zuen gizon bat etorri zen bainuak hartzera. Bainua hartu eta gorputz osoa bete zitzaion erlakaiztenez. Arropak ezin jantzita geratu zen, baina handik gutxira erlakaizten guztiak ezkutatu zitzaizkion betirako.

#### **256. Ukuiluan egin zioten "ebakuntza" (ONA-080/020)**

Jose Luisek behin izan zuen erlakaiztena, soldaduskara joan aurretxoan. Aulki batean eseri eta ukuiluko zutabe batera sokaz lotu zuten bere lagunak. Orduan Telesforo "Moño"kuak "ebakuntza" egin zion: bizarra kentzeko labainarekin erlakaizten hori atera ondoren, zauria lixibarekin erre zion. Harrezkero ez du gehiago erlakaiztenik izan. Gaur egun ezingo zen horrelako "ebakuntzarik" egin, baina orduan pentsatu bezain azkar egin zioten. Lanegun bat besterik ez zuen galdu Jose Luisek bere erlakaiztenagatik. 20 urte zituen orduan.

#### **257. Jose Luisen neska-laguntze kontuak (ONA-080/021)**

Gaur egun bere emaztea denarekin (Otaolui Txikiko Felisa) neska-laguntzen metro erdi aparte joan behar izaten zen. Gero etxera Urteagandik behera plomadan jaisten zen. Araotzera neska-laguntzera joan zen batean harrika hartu zuten araoztar batzuek.

#### **258. Egun batean bi neska-laguntze (ONA-080/022)**

Orduko neska-laguntzeetan neska ukitu ere ezin zen egin. Aretxabaletako Goroeta auzoko Santiago jaietara joan eta egun berean bi neska-laguntze egin zituzten berak eta Zubillagako beste lagun batek. Bigarrenetik itzuli eta gero, goizeko laurak aldera bakoitza bere etxera itzuli behar.

#### **259. Gerra osteko gosea ez du gogoan (ONA-080/024)**

Ez du gogoratzen gerra osteko gosea garaia. Garai hartan bere ama umea erditu berri zegoela aldeko baserrietik esnea ekartzen ziotela eta horrelako kontuak entzunak ditu. Garia udaletxera eraman beharra bai du gogoan.

#### **260. 9 urterekin Donostiara (ONA-082/002)**

9 anai-arrebaren artean, zortzigarrena izan zen Basili eta berak eman zion jarraipena Goienetxe baserriari. 9 urterekin, Donostiara joan zen bisitan eta bertara bizitzera joateko eskatu zion amari. Donostiako Amara, garai haietan, ihiz beteta zegoela dio. Igeldora funikularrean igo zela ere gogoan du.

#### **261. Lehenagoko trenbideak (ONA-082/003)**

Brinkolaraino autobusez joan eta handik trennez joaten ziren orduan Donostiara. Oraindik ez zegoen Zumarragako geltokia, ezta autobus zuzenik

Donostiara ere. Trenez Oñatitik Maltzagara eta handik Donostia edo Bilbora joatea bazegoen. Basili Bilbora, medikuarengana, trenez joaten zen. Orduan trenea Eibarko herriaren gaintxotik pasatzen zen.

### **262. Otsailaren 29an jaioa (ONA-082/004)**

1922ko otsailaren 29an jaio zen Basili Txintxurreta Goenaga. Martxoaren batean jaiotakoa dela esan izan du beti, baina pasaporte atera zuenean jakin zuen erregistroan otsailak 29an jaioa zela jartzen zuela.

### **263. Semea eta besoetako elkarrekin hazi zituen amak (ONA-082/005)**

Lehen batxilergoa nahikoa zen Udaleko idazkari izateko. Orain berriz 30 urterekin oraindik jendea ikasten ari da. Altzibar Garaiko baserrikoa zen Basiliren ama; Goienetxera ezkondu zenean hirugarren andrea izan zen etxean, gizonaren ama eta amona bizirik zeuden eta. Basilirekin, 9 anai-arreba izan ziren. Amak besoetako zuen iloba bat ere etxean hazi zuen, umearen ama hil zenean. Basiliren anaia gaztearekin titia banatuta hazi zuen iloba hori.

### **264. Pasio-hilketa Oñatin (ONA-082/006)**

Oñatiko plazako eskolan hasi zen Basili, "Señorita Puri" eta "Señorita Lola" maistreakin. Eskola denboran Oñatin izandako pasio-hilketa baten lekuko izan zen Basili.

### **265. Hilketaren zehaztasunak (ONA-082/007)**

Mutilak bi tiro eman zizkion neskari eta gero bere burua hil. Bedeinkatu gabeko lurrean ehortzi zuten hiltzailea. Neska zortzi egun geroago hil zen. Gaurko aurrerakuntzekin neska hura bizirik aterako zela uste du Basilik. Neska 18 urteko Arrola baserriko alaba zen. Hiltzailea, El Asturiano ezizenez, Oñatin apopilo zegoen kantabriar bat zen.

### **266. Eskolak euskaraz (ONA-082/008)**

Gerra hasi aurretik, Berezaio auzoko eskolara pasatu zen. Eskola hartan, oso maisu ona izan zuen, Migel, fraide izateko bidean kaleratutakoa. 68 neska-mutikok ikasten zuten euskaraz elkarrekin gela batean. Gerrarekin bukatu ziren eskolok. Migel maisua espetxeratu egin zuten, eta gero Osintxura joan zen. Plazako eskolara joateko, zapatak erosi behar izaten zituzten, Berezaoko eskolara, ordea, abarkekin joatea bazuten.

### **267. Frankistek kaskamoztuak (ONA-082/011)**

Gerra ondorentxoan-edo, beste eskolarik ezean, albaitariaren etxean jaso zituen klase partikular batzuk. Albaitariaren alabek kaskamotz utzi eta albaitaria Oñatitik bidali zutenean bukatu zen hango eskola. Gogoan du geroago, Berezaoko eskolan, egunean lau bider abesten zutela Cara al Sol. Uribarri auzoko eskolara ez dira inoiz joan Goienetxetik.

### **268. Gerran etxean gurasoekin bakarrik (ONA-082/012)**

Anaia gaztea eta koinatua gerrara gorriekin joan ziren, eta bera bakarrik geratu zen etxean gurasoekin; orduan hasi zen bera maiorazko. Anaiarik zaharrena Eibarrera eraman zuten militar beharretara. 14 urtetatik aurrera ez zen gehiago eskolara joan. Esnea eramaten zuen kalera eta erdaldunei esnea saltzen ikasi zuen erdara apur bat.

### **269. Idiekin elurra kentzen (ONA-082/013)**

Gerra denboran lau ganadu buru eta idi pareak zuten etxean. Aitak goldean egiten zuen beste baserri batzuetan, eta negu partean Arantzazuko bidean elurra kentzen ibiltzen zen idiekin. Hiru-lau idi pare joaten ziren Arantzazutik kalera elurra kentzera. Behin idiak ia ito egin ziren lanean Arantzazun. Elurra kentzeko makina Arantzazun lotu eta beherakoan elurra kendu eta gero, makina gora eraman behar izaten zuten berriro.

### **270. Urteetan esne-saltzailea izan zen (ONA-082/014)**

Ez dute ez ardirik ez eta behorrik inoiz izan etxean, astoa aldiz bai, urte askotan eraman izan du esnea kalera. Portalekuko astoak lotzeko lekuan uzten zuen astoa. Esne-saltzaile bezala jardundako azkenengo urteetan 30 bat bezero zituen. Egutero 548 eskailera igo eta jaisten zituen esne banaketa lanetan.

### **271. Gaztainak bota eta sagarra sartu (ONA-082/015)**

Arrautzak eta babarrunak ere saltzen zituen. Babarrun asko eta oso ona egiten omen zen Goienetxan. Udazkenetik aurrera sagarrak ere saltzen zituen. 1934. urtean gaztainadiak bota, lurra landu eta Aldundiak ogerleko bat sagarlandarako emanda, 70 landara sartu zituzten. Garoen zuztarrak ere den-denak atera behar izan zituzten.

### **272. Sagarrak plazara (ONA-082/016)**

Landatu eta 10 urtetara hasi ziren sagarondoak fruitua ematen. Gaur egun landatzen diren sagar batzuk urtebetera ematen dute alea, baina urte gutxi irauten dute landarok. Astoa sagarrez ondo kargatuta joaten zen plazara saltzen. Bere belaunaldikoek batak besteari laguntza emateko beti gertu zeuden. Oraingo jendea ez dela holakoa uste du Basilik.

### **273. Franco, Mola eta Chamorro (ONA-082/017)**

Bera esnea saltzen zebilenean, inork ez zuen esnearen kalitatea kontrolatzen. Chamorro Oñatiko medikuak esanda aldatu zuen Basilik umeendako esnearekiko betiko ohitura bat. Francok Mola hil zuenean, hau zihoan aireplanoaren pilotua Chamorro medikuaren anaia zen.

### **274. Esnari ura botatzen (ONA-082/019)**

Gogoan du Basilik sasoi batean berari ere kontrolatzen ziotela esnea. Baina berak Lana lantegiaren sorrerarekin lotu zuen garai haietan, Lana izan behar omen zuen hemengo esnearen kudeatzaile eta. Txantxa batzuk egiten ditu esnea urarekin gehitzeaz. Etxeko txakur eta katuak ez dute nahi kaleko esnea edaterik.

### **275. Kupoak bete ezinda (ONA-082/020)**

Gerra ostean garia eta patata kupoak eman behar izaten zituzten baserritarrek udaletxean. Urte txarretan arazoak izaten zituzten kupoak agindutakoa betetzeko. Goienetxeko lurrian arbi eta babarrun oso onak egiten ziren, ez ordea artoa eta garia.

### **276. Gidabaimena Arraten atera zuen (ONA-082/021)**

Berea senar Agustin Kortabariaren etxean, Eiziar Goikoan, askoz ere gari gehiago izaten zuten. Kotxea gidabaimena Arraten atera zuen, Oñatitik autoeskolako kotxea berak eramanda.

### **277. Mojak bizi izan ziren Goienetxen (ONA-082/023)**

Bera umea zenean ez zegoen inongo aurrerakuntzarik. Gogoan du sua sukaldearen erdian zegoenean, eta alboan labesua ogia egiteko. Basiliren birraitona izan omen zen familiko lehena Goienetxen bizitzen. Aurretik Bidaurretako mojak bizi omen ziren bertan. Basiliren aitajaun-amandreak erosi zuten baserria 14.000 errealeko mojei ordainduta. Artaldea izan omen zen Goienetxen mojen garaian, artegia utzi bai zutelako etxe ondoan. Nahiz eta txerritegi bezala erabili duten beti, oraindik ere "artegia" deitzen diote. Goienetxen bizi izan zen morroi bat Bidaurretan ehortzi zuten.

### **278. Baserrian obrak 1926. urtean (ONA-082/024)**

Irategia egiteko aitak eta amak bizkarka atera zuten lurra eraikin zahar batetik. 1926. urtean eraiki zioten etxeari beste solairu bat, ganadua eta ganbarak etxebizitzagatik aparte utzi zituelarik. Amandrearen anaia bik lagunduta erosi ahal izan zuten etxea. Bi anaiok Madrilera joan ziren gaztetan eta bertan aberastu ziren.

### **279. Ama botika ezagatik hil zen (ONA-085/010)**

Maritxuren ama oso gaixorik zegoen, eta botika gabeziagatik hil egin zen. Medikua, Joxe M. Galarza, eta bere familia porrot eginda geratu ziren gerra denboran nazionalisten aldekoak izateagatik. Ama hil zenean 7 seme-alaba bizi ziren oraindik etxean.

### **280. Medikua baserririk baserri (ONA-085/011)**

Don Jose Maria medikua baserririk baserri ibiltzen zen bere kotxe zaharrarekin. Kotxea matxuratzen zitzaionean Maritxuren anaia Juanek konpontzen zion. Maritxuren senarra izango zena jaio zenean, gau hartan bertan bera eta Urtiagaingo Maritxuren erditzeaz arduratu zen Joxe Mari medikua, oinez ibiltzen zen garaian. Erditzeetan etxeko amonak edota aldeko etxekoren batek laguntzen zion medikuari.

### **281. Anaia saiatuak Maritxurenak (ONA-085/012)**

Gerra aurretik Goienetxen neska-mutil asko ziren. Mutilek tailerra jarri zuten kalean. Anaia gaztea oso alaia zen. Honen broma batzuk azaltzen ditu Maritxuk. Ama mila pezetako bat ikusi gabe hil zen. Maritxuren anaia Joxek sortu zuen "Tubos Chinchurreta" lantegia.

### **282. Hiru eskola ezberdinetan ikasi zuen (ONA-085/014)**

Santa Lutziako eskolara etorri aurretik, herriko plazakoan ibili zen. "Señorita Pura y Señorita Lola" izan zituen maistra. "Señorita Purari Siete moñitos" esaten zioten. Eskola baino gehiago eskulanak irakasten zizkietela eta, amak Ospitaleko eskolara bidali zuen. Han mojak ziren maistrak, Sor Gracia eta Sor Paulina. Baina Berezaio auzora maisua etorri zenean, Berezaokora bidali zuen aitak. Hona kaletik eta beste auzo batzuetatik ere etortzen ziren ikasleak.

### **283. Eskolako jolasak (ONA-085/016)**

Toka-torreka, gorde-gordeka (ikasle baten ukuiluan ganadu artean) eta horrelako jolasak egiten zituzten.

### **284. Behi jezten Mendikoan (ONA-085/017)**

Goienetxen denetariko lanak egiten zituen. Mendikoara ezkondu zenean, bere amaginarrebak hatz bat hondatuta zuen eta behiak esku batez jezten zituen. Neskamea zuten Mendikoan. Etxeko amak bakarrik jezten zuen behi ostikolari bat jetzi zuen Maritxuk lehenengoan arazorik gabe.

### **285. Umetan itaurrean (ONA-085/018)**

Bera ezkondu eta amaginarreba lau urtera hil zen. Hiru behi eta idi pareak zituzten Mendikoan. Gogoan du Maritxuk bere aitak idiekin goldatzen zituela beste baserri batzuetako soroak. Bera ibili izan zen inoiz itaurrean aitaren idiekin. Berak pezeta bateko propina jasotzen zuen eta aitak 10 pezeta, egun osoan idiekin goldean egiteagatik.

### **286. "Juliantxo"ren lanak (ONA-085/020)**

"Juliantxo"-k elizondoko eskola berriaren obrak bukatu zituen eta eliza bera ere konpondu zuen. Santosen dendan hazi zen, eta LOYOLA txokolategiaren ugazaba izan zen. Eliza ondoan dagoen txaleta berak eraiki zuen. Bai Goienetxetik eta bai Mendikoatik eraman zuen urteetan esnea kalera Maritxuk. Hiru alaba izan ditu.

### **287. Auzoetako jaiak (ONA-085/022)**

Lezesarriko jaiak lehen Gabonetan ospatzen ziren, San Estebanetan. Orain udaran ospatzen dituzte jaiok. Orain ez da egiten, baina Maritxu gaztea zenean auzoko jaietan auzo barrenean, Portalekuan, egiten zuten erromeria. Bereaz azoan Santa Lutzia egunean ospatzen dira jaiak. Gaztea zenean Asentzio egunean Murgiako jaietara joaten ziren. San Prudentzioko jaietara ere joaten ziren, oinez.

### **288. 'Hijas de María' kongregazioaren arauak (ONA-085/023)**

Soinujoleak alaitzen zituen jaiak. Dantza apur bat egin eta ilunabarrerako etxera itzultzen ziren. Hijas de María kongregazioak debekatu egin zuen arren, dantza lotuan egiten zuten. Hijas de María kongregazioko kideei zinta kendu edota taldetik botatzen zituzten dantza lotuan eginez gero. Zinta eta mantilarekin joan behar izaten zuten mezetara Hijas de María kongregaziokoek.

### **289. 'Hijas de María' kongregazioaren inguruko kontuak (ONA-085/024)**

Hijas de María kongregaziokoak astelehenero elkartzen ziren, bakoitzak 60 puntuko bale bat jasotzeko. Señorita Maritxu eta Dama Maria ziren kongregazioko buruak. Mutilek ere bazuten kongregazioa, San Luisena, baina Maritxuren ustetan mutilek ez zieten jaramon handirik egiten araei.

### **290. Elizako betebeharrak (ONA-085/025)**

Gizona fededuna zuen eta amaginarreba oso elizkoia. Urtean behin "Pazkoazkoa" egitera joaten ziren senar-emazteak Arantzazura, konfesatu eta jauna hartzera. Joan-etorria oinez egiten zuten. Mezara joaten ziren, baina bezperetara joateko ohiturarik ez zuten. Garizuman Goienetxetik goizeko seietan joaten ziren parrokiara kalbarioetara.

### **291. Auzoko eskola nork eraiki zuen (ONA-087/003)**

Auzoko eskolan hasi zen ikasten. Eskola, Santa Kruz ermita eta bost mojentzako etxea nork eta noiz egin zituen azaltzen du.

### **292. Kaleko maristen eskolara (ONA-087/004)**

Bederatzi urterekin maristen eskolara joan zen. Oinez joaten zen eskolara. 14 urtera arte ibili zen maristetan. Auzoko eskolako Karitateko mojen oso oroitzapen ona du. Kaleko Ospitaleko mojen ordena berekoak ziren.

### **293. Zañartuko eskolara beste auzoetatik (ONA-087/005)**

Urte askoan Zañartun egon zen Sor Karmen moja tren geltokian hil zen, istripuz. 1906. urtean eraiki omen zuten Santa Kruz ermita. Zubillagatik hasi eta Casablanca auzorainoko (gaurko Otadui Zuhaiztia) neska-mutilak joaten ziren Zañartuko eskolara.

### **294. Eskolan instrukzio militarra (ONA-087/006)**

Zurezko fusilak hartuta, instrukzioa irakasten zieten mojek eskolan. Mojetan ez, baina maristek zigortu egiten zituzten euskaraz mintzatzeagatik. Zigorrok azaltzen ditu Joakinek.

### **295. Eskolara bizikletaz (ONA-087/007)**

Maristetako maisu batzuk gogoratzen ditu. Bizikletaz joaten zen kalera azken eskola urteetan. Gutxitan galdu zuen eskola baserriko lanengatik. Eskola bukatu eta gero, kaleko akademia batean ikasi zuen.

### **296. Zelakua auzunea (ONA-087/008)**

Zelakua auzuneko baserrien inguruan neska-mutiko asko elkartzen ziren jolaserako. Neskatilek eta mutikoek aparte ikasten zuten. Eskola urteak bukatu eta gero baserrian geratu zen. Aita berak 17 urte zituela hil zitzaion.

### **297. Amak etxeko ardura guztiak (ONA-087/009)**

Gerraostean etxeko garia, artoa eta babarrunaren zati bat Udalari eman behar izaten zitzaion. Sei behi zituzten baserrian. Etxeko eta baserriko lan guztien ardura amak zuen.

### **298. Auzoetako jaiak (ONA-087/010)**

Auzoko jaiak Santikurtzetan izaten ziren; gonbidatu bazkariak, berriz, San Pedroetan, eta kalera gonbidatuta Gorpuzti egunean joaten ziren.

### **299. Erromeriak eta Guardia Zibila (ONA-087/011)**

Guardia Zibilek erromeriaren amaierako ordua zaintzen zuten. Inguruko auzo-jairik handienak San Pedrokoak (gaurko Torreauzo) ziren. Bergarako Pazkoetako jaietara trenez joaten ziren.



### **300. Barkilleroak jaietan (ONA-087/012)**

San Prudentzioko jaietara joan zen batean, barkilleroari karamelu bat erosi eta bueltarako tren ordaintzeko dirurik gabe geratu zen. Treneko txartel-zulatzailea Etxebarrialdeko Bernabe zen. Barkilleroa Zartura ere etortzen omen zen.

### **301. Igandetean kalera, zinera (ONA-087/013)**

Bergarako festetarako trenari bagoi gehiago eransten zizkioten. 17 urte ingururekin hasi zen igandetean kalera joaten. Aloña zinemara joaten ziren. Azkenengo trenean Torreauzora bueltatzen ziren, eta mus aldi bat jokatu ondoren, etxera joaten ziren.

### **302. Aitarekin egur lanean (ONA-087/014)**

Aitari egur lanetan laguntzen zion. Zuhaitzak bota, egurra prestatu eta zerrategietara garraiatzen zuten. Eurak erabiltzen zituzten karreteroak aipatzen ditu. Karreteroak euren artean antolatu eta egiten zituzten lanak. Egurra kamioientzako karga lekuetara eramaten zuten. Tren geltokira ere bai, batzuetan.

### **303. Errepideak eta karreteroak (ONA-087/015)**

Errepide berriak egiteaz bat, karreteroen lana gutxitu egin zen. Auzoko errepidea auzolanean egin zuten.

### **304. Mahastiak Zañartu auzoan (ONA-087/017)**

Joakinek ezagutu ez zituen arren, Zañartu auzoan mahastiak egon omen ziren. Idiekin lantzen zituzten mahastiok.

### **305. Auzoko txakolina eta tabakoa (ONA-087/018)**

Lehenago txakolina egiten omen zuten. Ipentza baserriko aitajauna Santik tabako landareak hazten zituela gogoratzen du.

### **306. Etxeko esnea eta arrautzak saltzen (ONA-087/019)**

Lur-sailak oso zatituta zeuden, eta garoa ebakitzean mugak ondo zaindu behar izaten zituzten. Joakinek etxeko esnea kalera eramaten zuen, eskolara bidean bezeroei banatzeko. Amak arrautzak saltzen zituen.

### **307. Arrautzak kare-esnetan kontserbatu (ONA-087/020)**

Motorrez arrautzak erostera etortzen zen gizona gogoratzen du. Baserririk baserri ibiltzen zen. Sobratzen ziren arrautzak kare-esnetan gordetzen ziren. Arrautza eta esnearen salmenta zen diru iturri nagusia.

### **308. Lehen landatzen ziren pinu motak (ONA-087/021)**

Garai baten pinu silbestrea eta pinu maritimoa (Pinus pinaster) bakarrik zeuden. Gero insignisak (Pinus insignis) ordezkatu zituen. Basoetan gaztaina-txara asko zegoen, saskigintzarako "ondageia" jasotzeko. Gaitzak gaztainaondoak hondatu zituen, eta harrezkero pinua sartu zen.

### **309. Pinu ezberdinen lantzea (ONA-087/022)**

Pinu maritimoa duela 60 urte inguru ezkutatu zen. Horren egurrarekin egiten ziren orduan tarima, ate eta abarrak. Pinu ezberdinen ezaugarriak azaltzen ditu. Landatzeko edota botatzeko garai egokiak kontuan izaten zituzten.

### **310. Garabiaren lana, eskuz (ONA-087/023)**

Haritzondo gutxi geratzen ziren Joakin egur lanetan hasi zenerako. Garai hartan ez zegoen haritza landatzeko aukera handirik. Orduan botatzen zuten pinu guztia zuritu egiten zuten. Karga lan guztia eskuz egiten zen.

### **311. Egurra zerrategietara (ONA-087/024)**

Arrasateko Zerrajera lantegiak Zigarrola auzoan zuen zerrategira eramaten zuen egurra Joakinek. Oñatikoetarako ere egiten zuen lan. Hamalau zerrategi omen zeuden orduan Oñatin. Kalitateko egurra Zakariasen zerrategira eramaten zen, Olabarrietara.

### **312. Aita umetan galdu zuen (ONA-089/002)**

Maria Arregi Idigoras 1922an jaio zen, Olabarrieta auzoko Imittola (Imitola) baserrian (gaur galduta). Umetan aita galdu, eta bost anai-arreba geratu ziren amarekin eta aitajaun-amandreekin etxean.

### **313. Kale baserri batera umezain (ONA-089/007)**

Matingua kale-baserrian hasi zen neskame lanean. Baserri ondoan "Don Paco" bere zaldia zaintzen zuen. Bartoluen eta Agerrena kale-baserriak ere gogoratzen ditu; gaur denak galduta daude. Gaurko Euskadiko Etorbidea dena soro zen garai hartan. Ospitaleko eskolara joaten zen, arratsaldez bakarrik. Olabarrietako eskolan ere ikasi zuen negu batean.

### **314. Donostiara ospitalera (ONA-089/008)**

Legazpin umezain zegoela, eskuan kiste batek irten zion. Etxera itzuli zen eta harrezkero ez zen gehiago neskametzan jardun. Kistea Donostiako San Anton ospitalean kendu zioten, gerra denboran. Donostian senideak bazituen. Baita bertara neskame joandako auzokideak ere.

### **315. Etxean, ezkondu zen arte (ONA-089/009)**

Berak neskame joatea nahi zuen arren, etxean lan asko zegoen eta ezkondu arte bertan egon zen. Ama minbiziak eraman zuen, Mariak 20 urte zituela. Jolas gutxi egindako umea izan zen Maria.

### **316. Umea umezain (ONA-089/010)**

Matingua kale-baserrian umezain egon zenean, baserriko beste lan batzuk ere egiten zituen, itaurrean esaterako. Etxeko gizonak Oñatiko Egaña okindegitik Arrasateko Santa Agedara eramaten zuen ogia egunero. Mariak egosteko erremolatxa garraiatzen zuen galdarara. Etxeko lanetan ere laguntzen zuen. Matinguan ez zuen garbitzen arroparik, baina Legazpin egon zenean bai, etxe aurrean zegoen uraskan.

### **317. Etxe zahar baten, errentero (ONA-089/011)**

Imitolan ez zuten ez argindarrik, ez urik etxean, ezta ekonomika surik. Beheko sua bakarrik zegoen sukaldean. Etxea errentan hartuta zuten. 30 ogerleko urtero eta etxeko kapoi, bildots eta fruituekin ordaintzen zuten errenta.

### **318. Gerraostean goserik ez (ONA-089/012)**

Gerraostean garia eta babarruna udaletxera eramaten zuten. Errotak itxi zituztenean, garia Zumarragan ehotzen zuten. Kapritxorik gabe, baina goserik ez zuten pasatu gerraostean. Larunbatero joaten ziren plazara etxeko gauzak saltzera, astoa ondo kargatuta.

### **319. Plazako azoka (ONA-089/013)**

Aguazila etortzen zen azokako postua kobratzera. Fruta-denda gutxi zeuden Oñatin eta jende asko joaten zen erosketak egitera plazara. Lukas fruta saltzailearekin gogoratzen da. Olearena, Goñina eta Aitzekua dendak ere aipatzen ditu.

### **320. Kanpotar saltzaileak (ONA-089/014)**

Plazara kanpoko baserritarrak ere etortzen ziren fruta eta barazkiak saltzera. Gabiria, Bergara eta Arrasateko saltzaileak ezagutu zituen Mariak.

### **321. Arantzazura ezkondu zen (ONA-089/015)**

26 urterekin ezkondu zen, Arantzazu auzoko Arrikurtz baserrira. 9 laguneko familia zegoen orduan Arrikurtzen. Hasieran bere jaiotetxean baino lan gehiago ez zen izaten, baina umeak etorri eta senarra lantegian hasi zenean, lan gehiago egin behar izan zuen.

### **322. Etxe gainean harrobia (ONA-089/016)**

Arrikurtz baserriaren gainean harrobi bat zegoen, eta sarritan harriak erortzen ziren etxeko teilatura. Mariaren senarrak eta koinatuak harrobian egiten zuten lan.

### **323. Umearentzako lan gogorrak (ONA-089/018)**

Legazpira umezain joan zenean, etxeko ardiak jezten zituen. Oinak beti bustita izaten zituela eta hagineta mina gogoratzen ditu handik. Arropa garbitzen ere egiten zuen Legazpin. Han ez, baina errautsarekin egiten zuten lixiba bai Imitolan eta baita Arrikurtzen ere.

### **324. Arrikurtzen Imitolan baino aurreratuago (ONA-089/019)**

Urik ez zegoen Arrikurtz baserrian, baina Imitolan ez bezala, argindarra eta sukaldeko ekonomika bai. Soroan lihorik (linurik) ez zuen ezagutu Mariak. Arto-mazkalezko lastaira (jergoi) bat bazegoen Arrikurtzen. Koltxoiak ematen zituen lanak azaltzen ditu.

### **325. Etxeko garbiketa lanak (ONA-089/020)**

Xaboiak takoetan egoten ziren "Chimbo" edo "Lagarto" izaten ziren. Zoruak garbitzeko argizaria eta agoarrasa erabiltzen zuen. Astean behin garbitzen ziren zoruak.

### **326. Igande arratsaldean jai (ONA-089/021)**

Legazpin egon zenean, igande arratsaldea jai izaten zuen. Erreal birekin, Zumarragara joaten zen lagunekin.

### **327. Elgetako bonbardaketak (ONA-089/022)**

Gerra denboran, Oñatin ez zuen tirorik entzun, baina hegazkinak Elgetarantz joaten ikusten zituzten eta hango bonbardaketak ere entzuten ziren. Oñatiko preso eta hildako batzuen kontuak.

### **328. Gari-lanak baserritarrek elkarrekin (ONA-089/024)**

Garia igitaiarekin ebakitzen zuten. Gero lotu eta metak egiten zituzten. Garia jotzeko makina alokatu egiten zuten. Garia beranduago heltzen zen Arantzazun kalean baino. Garia ebakitzeko auzotarrek elkarri laguntzen zioten.

### **329. Imitola inguruko baserriak (ONA-089/025)**

Imitolako auzunean hiru etxe ziren, Kortabarri eta Sustiaberekin. Kortabarrin etxebizitza bi ezagutu zituen Mariak. Legazpi aldean zegoen Satui baserrikoek ere parte hartzen zuten gari-lanetan. Legazpiko mugan dagoen Satuikurtz bidegurutzearen berri ematen du Mariak.

### **330. Arantzazun gazta saltzen (ONA-089/026)**

Jai egunetan Arantzazura joaten zen gazta saltzera. Auzoko beste baserrietatik ere joaten ziren gazta saltzen eliza ondora. Kalera joan zirenean kendu zituzten ardiak. Legazpin ardiak jezten izaten zituen zailtasunak azaltzen ditu.

### **331. Bakoitzak bere platerean (ONA-089/027)**

Gazta besterik ez zuten saltzen. Behi esnea etxerako izaten zen; gainerikoa txahalek hartzen zuten. Ardi-esnea saltzen zuten batzuetan. Etxean gatzatua ontzi baten egiten zen, eta handik plateretara banatu. Bakoitzak bere plateretik jatea luxua zen aitajaunaren iritziz.

### **332. Baserriko jakiak (ONA-089/028)**

Babarrunak, azak eta urdaia ziren asteguneko eguneroko jakiak, urte osoan. Igandetean garbantzua eta okela egosia. Etxean fruta asko hartzen zuten. Sagarrekin pitarra egiten zuten. Gaztaina denboran egunero jaten zituzten gaztainak. Kontzezioak arte egosita, eta gero erreta. Ardoa gari-lanetan zebiltzanean bakarrik edaten zuten. Arrikurtzen idiak ere bazituzten.

### **333. Arantzazura eskolara (ONA-091/002)**

Arantzazuko Eskola-etxean frantziskotarrek ematen zuten eskolara joaten zen Karmen, oinez, eta bazkaria zapi batean batuta zeramala. Sabina ere berdin-berdin joan zen, baina lau urte geroago.

### **334. Fraideak eta Euskal Meza (ONA-091/003)**

Eguraldi txarrarekin ezin izaten zuten eskolara joan. Zazpi urterekin hasi eta 12 urtera bitartean ibili ziren eskolan. Aita Agirre, Aita Sarrigoitia eta Aita Lasa izan zituzten irakasle. Hilean behin, goizeko zortzietan Euskal Meza izaten zuten Arantzazun. Meza kantatua izaten zen.

### **335. Doktrina eta meza kantuak (ONA-091/004)**

Auzoko umeek Gesaltza baserrian ikasten zituzten doktrina eta meza kantuak, fraideek irakatsita. Euskara debekatu zutenean, euskal mezak bere hartan jarraitu zuen. Gainontzeko mezak latinez izaten ziren. Meza osoa fraideek eta eliz mutilek egiten zuten; fededunek entzun bakarrik.

### **336. Euskal Mezako kontuak (ONA-091/006)**

Euskal Meza gazteentzako bakarrik izaten zen, eta Arantzazutik aparte ez zuten holakorik ematen, Karmenen ustetan. Kamenek gogoan du mendian ardiak jetzi ondoren, baraurik joaten zela zortzietako Euskal Mezara. Eskola umeak eta Hijas de María kongregaziokoak joaten ziren meza horretara.

### **337. Fraide batzuk gogorragoak (ONA-091/007)**

Hijas de María kongregazioan mutilekin dantza egitea zen zigortutako bekatu bakarra, ahizpa bien esanetan. Aita Garmendia omen zen fraideen artean gogorrena.

### **338. Eskolako jolasak (ONA-091/008)**

Sugandilak harrapatzen, zuhaitzetara igotzen, toka-torreka, eta antzeko jolasetan jarduten zen Karmen eskolan. Sabina, berriz, sakaponetan, kilifroka, zazpi harrika eta halakoetan.

### **339. Eskolak erdaraz (ONA-091/009)**

Eskolak erdaraz izaten ziren, baina Karmenen denborarako ez zituzten zigortzen euskaraz mintzatzeagatik.

### **340. Doktrina euskaraz (ONA-091/010)**

Arantzazuko Gesaltza baserrian doktrina euskaraz irakatsi zieten fraideek auzoko umeei, baina eskolan erdaraz ikasi zuten doktrina hori.

### **341. Aita astozaina (ONA-091/011)**

Etxean zutenazienda azaltzen du Karmenek. Bere aitak gerra aurretik sei asto ingururekin lanean jardun zuen. Aita bertakoa zen, eta ama, berriz, auzo bereko Azpilletagoikoa baserrikoa.

### **342. Astozainen lanak (ONA-091/012)**

Aitak bere astoekin Urbiako ermita eraikitze materialak eraman zituen. Kataberako meategietatik Udanako labeetara ere eramaten zuen minerala.

### **343. Araba Menditik ikatza (ONA-091/013)**

Gerraostean, aitak Araba Menditik Kortakogainera (Arantzazurako bidean) ekartzen zuen Orbegozo lantegira joango zen ikatza. Ikazkinentzako ogia Karmenek egiten zuen etxeko labean.

### **344. Lapurren beldurrez (ONA-091/014)**

Aita astozainak eta Arantzazuko Errotako Klaudiok elkarrekin egiten zuten lan. Nafarroako mendietan garraio lanetan zihardutela, lapurrekin arazoak ekiditeko, aitari Catalunyako Somaten-ekoek pistola eman zioten. Behin bakarrik erabili behar izan omen zuen arma hori, herritxo batean txakurrengandik defendatzeko.

### **345. Garraioan eta estraperloan (ONA-091/015)**

Trenbide konponketa lanetarako materialak garraiatzen zituzten astoekin. Gerraostean idiekin ibili zen aita ikatz garraioan, Arrikurtz baserriko Damasorekin bazkide. Arabatik estraperloan ere asko jardun ziren. Aitak ekartzen zituenak amak kalean saldu edo trukatzeko zituen.

### **346. Estraperloa eta kupoia (ONA-091/016)**

Gauetz egiten zuten estraperloa. Estraperlistek elkarri laguntzen zioten. Ama Guardia Zibilekin ondo konpontzen zen, etxean merienda batzuk eman eta gero. "Abastos"en inspekzioak, gauzak nola gordetzen zituzten eta kupoaren gorabeherak azaltzen ditu Karmenek.

### **347. Garia eho eta labesua, gauetz (ONA-091/017)**

Errotak itxita egon zirenean, eskuzko makina batekin ehotzen zuten garia. Zuazolakako errotan gauetz garia ehotzen hasi ziren, eta bertara joaten ziren Aixkirritik. Labesua gauetz egiten zuten. Gaztainak ere entregatu egin behar izaten zituzten.

### **348. Gaztainak bai, baina oliorik ez (ONA-091/018)**

Gaztainak zeudenean, gaztainak eta salda izaten zen eguneroko afaria. Ardien ilea ere entregatzen zuten. Ogi falta ezagutu zuten, baina goserik ez. Errazionamendua jasotzera kalera joaten ziren. Dirua bazuten, baina erostekorik ez zegoen. Txerrien koipea edota ardien seboa erabiltzen zuten frijitzeko.

### **349. Errazionamendua (ONA-091/019)**

Errazionamendu-liburuxkak esaten zuena hartzeko eskubidea zuten, baina ordaindu egiten zuten hartutakoa.

### **350. Etxetik jatetxera (ONA-091/020)**

Karmen 23 urtera arte egon zen etxean, eta Sabina berriz 18ra arte. Ostalaritzan ekin zioten lanean. Asturiastik Parisera joan zen Karmen. Sabinak ostalaritzan egin zuen lan Parisera joan zen arte. Soldata, zerbitzuaren portzentaia eta propinak irabazten zituzten.

### **351. Arantzazun lanean (ONA-091/021)**

Arantzazuko Milikua jatetxean urtebetez egin zuen lan Sabinak. Karmenek Arantzazuko Hospederian egiten zuen lan gogorra azaltzen du.

### **352. Karmen Arantzazuko Hospederian (ONA-091/022)**

Hospederiako langileak bertan bizi ziren. Harrera eta sukaldea mojen ardura zen, baina beste lan guztiak langileek egiten zituzten. Mojen oroimen ona gordetzen du Karmenek. Bere lehenengo oporrak, Hospederiako mojek ordaindutako 8 eguneko egonaldia Urbiako Fondan izan ziren.

### **353. Argindarra baserri guztietan (ONA-091/023)**

Argindarra eta ura etxean beti ezagutu ditu Sabinak. Arantzazuko baserri guztiek omen zuten argindarra, Zerrajerakoa. Arropak garbitzera errekarra joaten ziren. Neguan arropak uretan eragitera besterik ez ziren joaten errekarra.

### **354. Gipuzkoako hainbat jatetxetan (ONA-091/024)**

Sabina Milikuarenetik Bergarara joan zen, senide batzuen zen Zubikoa baserrira. Handik Karmen ahizpa lanean zegoen tokira joan zen, Hernanira. Gero Donostiako Aita Marin ere jardun zuen.

### **355. Fraideak dantzaren aurka (ONA-091/025)**

Igandetan herriko auzoetako erromerietara joaten ziren. Arantzazun ez zen igandero dantzarik izaten. Batzuetan, Aixkirri baserri gainean egiten zuten dantzaldia, bertara soinu-jolea ekarrita. Fraideek ez omen zuten onartzen dantzarik Arantzazun.

### **356. San Juan meza (ONA-091/026)**

Arantzazuko jaietan ez zen egoten auzoarentzako mezarik. Auzo meza bakarra, auzoak berak ordainduta, San Juan eguneko izaten zen. Oso polita omen zen, auzoko ume guztiak loreak eta San Juan sendorrak bedeinkatzera eramaten zituztenean.

### **357. Hiru Sinforoso (ONA-103/003)**

Aita pontekoak Sinforoso zuen izena. Araotzen bazen beste Sinforoso bat, Madinakoa. Tiburtxi izeba inguruan bizi zen. Frontean hil zen, Ebron, Madinakoa.

### **358. Erostarbe baserria (ONA-103/006)**

Erostarbe baserrian 500 urtean gorde da Erostarbe abizena. Emaztearen baserria, hara ezkondu zen. Urrexolan lurak ikara egin zuen, eta baserria mugitu egin zen.

### **359. Bainuetxean jaioa (ONA-103/008)**

Bainuetxean jaio zen, eta martxan ezagutu zuen. Errota, berriz, ez. "Joxe errota" nola hil zen, errotaria. Gero, zerrajera egon zen. Jaturabeko errota ere desagertu zen.

### **360. Urrexolako eskola (ONA-103/010)**

Don Jose Migel apaiz araoztarra eta Pedro Lizarralde: kanpaia jotzen zuen hiletetan. Harekin ibili zen eskolan, elizpetik igota, kanposantu ondoan, Urrexolan. Miruerrekan, Don Pedro Zurutuza maisuak hurritz-makilak eskatu zizkion; eraman eta bera egurtu zuen haiekin. Miruerrekako eskolako maisua. Aitzurrarekin jota oiloa nola hil zuen.

### **361. Uribarriko eskola (ONA-103/011)**

Uribarriko maisuarekin, Jausororekin, ere ibili zen eskolan. Bazkaria zapi batean eramaten zuen; txorizo muturra galdu zuen, behin. Oinez joaten zen errotatik, Benanziorekin. Madariak lapurtzen zituzten, Txopekua sagardotegian. Ezpeletanean egon zen morroi gero, urte bian.

### **362. Gasteizen tripa-truke (ONA-103/012)**

Maristetan gau eskolan ibili zen, eta Gasteizen ere egon zen erdara ikasten, Corazonistekin. Jolastorduetan eskola garbitzen zuen, ikasketak ordaintzeko. Tripa-truke.

### **363. Soldadu gerra garaian (ONA-103/014)**

"Transmisiones" sailean egon zen soldadu, morse alfabetoa ikasita. Palentziako herri batean egon zen. Sevillan ere bai. Sarjentuaren deskuidua: eskuzko bonba intxaur adarrean tratatu, eta eztanda egin zuen. Belarria mindu zitzaion, eta ebakuntza egin zioten, Valladoliden. 41eko kalenturarekin. Hilzorian egon zen. Gerra garaia zen.

### **364. Morse alfabetoa ikasi zuen (ONA-103/015)**

Teruelen soldadu asko hil ziren. Boluntarioak eskatu zituzten "Transmisiones" sailerako. Morse alfabetoa ikasi zuen. Gerra denboran, fusila erabiltzen ikasi zuen, baina ez zuen erabili. Kodeak. Somosierran egon zen. Istripua nola gertatu zen. Paretaren kontra harrapatu zuen bonbak. Nicasio Barreira nola hil zen, ura edanda.

### **365. Irratiak konpontzen (ONA-103/016)**

Hilabetez ibili zen "Transmisiones"en. Burua ona izan du. Morse kodea nolakoa zen. Sarjentuaren pare ibiltzen zen, ondo ikasi zuen. Kataluniako frontean egon zen, irratiak eta telefonoak konpontzen. Sei posizio zeuden. Mandoak telefono kablea nola hautsi zuen. Hildakoen usaina.

### **366. Bi urte gerran eta lau soldadu (ONA-103/019)**

Kordoban eta Extremaduran ere ibili zen. Bi urte egin zituen gerran, eta gero ia lau kuarteletan. Gosea pasatu zuten. Etxetik dirua bidaltzen zieten. Ogia gordetzen ibiltzen ziren.

### **367. Bainuetxea nola galdu zen (ONA-103/020)**

Errotan bizi izan da. Auto-istripuan hil ziren koinata eta bi seme-alaba, 1970ean. Bainuak prestatzen eta sukaldean ibiltzen ziren amona, eta gero ama. Istripuarekin bukatu zen bainuetxea.

### **368. Ganadua (ONA-103/021)**

Ganadua: lau behi pirenaiko zituzten. Ardiak ere bai. Itaurrean ibiltzen zenean ez zen eskolara joaten. Eskolan erdaraz ikasten zuten, baina ez zuten ulertzen. Doktrina.

### **369. Zelaakoan morroi (ONA-103/027)**

Zelaakoan egon zen morroi, bitan, eta Araotzen ere bai. Pinuak botatzen ibiltzen zen, trontzarekin, Zelaakoan.



### **370. Etxean urik ez (ONA-103/029)**

Bainuetako ura ez zen edateko ona, baina berak edaten zuen. Errekara joaten ziren arropa garbitzera.

### **371. Errazionamendu garaia (ONA-105/024)**

Neskametzako lanak: etxea garbitu, umezain, sukaldari... Goizean ogitxo bat ematen zieten, egunerako. Jatorduak. Errazionamendua txandaka jasotzen zuten inguruko baserriek. Ogi beltza. Garia entregatu behar izaten zuten. Tremesa. Gaztaina gordinak jaten ibiltzen ziren.

### **372. Lizargarateko erromeriak (ONA-105/034)**

Lizargaratera joaten ziren erromeriara, Sarramendiko Gregorio zen soinu-jotzailea. Arrolako Ramonek jotzen zuen aurretik. Bekatu larria zen mutilekin dantza egitea. Apaizek kontrolatu egiten zuten. Don Eleuteriok gogor egiten zuen, eta esaten zuen neskak zeukala errua.

### **373. Baserriko tresnen museoa (ONA-105/046)**

Senarrak museo antzekoa jarri zuen etxean, baserriko tresnekin. Berak egindakoak ziren gehienak edo berak erabilitakoak. Erretiroa hartu eta gero hasi zen. Behor zurdazko soka egiten zen, idien burukorako. Narrua nola lotzen zen. Bahea.

### **374. Eskola garaia (ONA-106/002)**

Gerra aurretik ibili zen eskolan. Neguan bakarrik joaten ziren eskolara. Lehenengo plazan ibili zen, eskola nazionaletan, eta gero ospitalean. Erdaraz ikasten zuten irakurtzen, baina doktrina euskaraz. Ahizpa zaharragoek euskaraz idazten ikasi zuten. Sei urterekin hasi zen eskolan.

### **375. Eliza kontuak euskaraz (ONA-106/003)**

Do&ntilde;a Fermina maistra erdalduna zen, plazakoa. Eta ospitalean, Sor Elisea. Zigor handirik ez zuten, belauniko jartzea bai. Euskaraz egitea libre zen. Doktrina eta elizako gauzak euskaraz.

### **376. Umetako jolasak (ONA-106/005)**

Jolasak: sokasaltoan, txerrefika pilotarekin, harrapo-harrapoka... Txirikiletan, pote-poteka, gorde-gordeka. Arbolarik arbola ere bai. Neska-mutikoak elkarrekin ibiltzen ziren.

### **377. Neska eta mutil, nork bere eskola (ONA-106/006)**

Adinaren arabera zeuden banatuta gelak, auzo-eskoletan ez bezala. Neskak eta mutilak aparte; mutilak maristetara joaten ziren, eta eskola nazionala Santa Marinan zegoen. Murgian ez zegoen eskolarik, Berezaon bai.

### **378. Esnea partitzen (ONA-106/008)**

Berezaoko eskola gertuago egon arren, kalerako ohitura zuten. Esne partitzen zuten eskolara joan aurretik. Bazkaltzera etxera joaten ziren. Arratsaldean eskulanak egiten zituzten, tapeteak eta.

### **379. Erreketeak (ONA-106/010)**

Auzora ez ziren sartu errekketeak, Goienetxeatik jaitsi ziren herrira. Intxorta aldean tiroketa asko egon zen, eta Oñatitik ere entzuten ziren.

### **380. Baserriko lanetan eta neskame (ONA-106/011)**

Etxean ganadua zuten, lauzpabost behi. Esne apur bat kalera saltzen zuten. Aitajauna etxean bizi zen, gerra urtean hil zen. Neskame joan ziren ahizpa gehienak. Bera notarioaren etxean egon zen lanean, Gomendio etxean, lau urtez. 20 urterekin hasi zen. Gero ere joan zen. Sebastian Gabiola durangarra.

### **381. Plazara saltzera (ONA-106/015)**

Morroirik ez zuten izan baserrian. Baratz txiki bat eta soro asko zituzten. Garia, artoa, babarruna... Arrautzak zituzten, saltzeko. Plazara joaten ziren saltzera. Gereziak, sagarrak... Goizean goiz joaten ziren plazara, bizkarrean hartuta. Sagardorik ez zuten egiten. Sagar motak.

### **382. Artoa sartzen (ONA-106/019)**

Baserriko lanak. Area, burdin-area... Arto sartzen hiru bizilagun ibiltzen ziren, alerik ale. "Leakua" zer zen. Elorrixakoak-eta, mordoa elkartzen ziren, baina lana ere asko zegoelako.

### **383. Gari-jotzeko makinak (ONA-106/021)**

Leakuaren ondoren makina etorri zen, eta hura ere hiruna zen. Txandaka erabiltzen zuten. Gari-jotzeko makina ere bazuten. Gero, makina handia etorri zen; baserri baxerri ibiltzen zen. Egun bakarrean birena egiten zuen. Dirutan ordaintzen zioten. Garia entregatzen zuten udaletxean, etxean falta arren. Maizterrak ziren.

### **384. Garia erre, ereiteko (ONA-106/022)**

Garia nola lotzen zen. Botika botatzen zitzaion, erre, ez usteltzeko. Ganbaran lehortzen zen, erein aurretik. Kare biziarekin erretzen zen, desinfektatu, botika etorri aurretik. Gari neurriak: miña eta fanega.

### **385. Gari lekuak (ONA-106/024)**

Artoa elkarrekin, baina garia bakoitzak berea ereiten zuen. Ebakitzaera bai, joaten ziren Azkarretara. Gari lekuak. Toki batzuetan beranduago heltzen zen garia, batera erein arren.

### **386. Estraperloa (ONA-106/025)**

Kupoan zer eramaten zuten ez du gogoratzen, gariak aparte. Garia non ehotzen zuten: Santakrutzenen eta Tokillon. Estraperloan Araotzera joaten ziren, garia ehotzera, astoarekin. Errotak itxita egon ziren, baina Guardia Zibilak ezikusia egiten zuen zerbait emanaz gero.

### **387. Dantza egitera Olabarrietara (ONA-106/028)**

Dantza egitera nora joaten ziren. Olabarrietara joaten ziren. Murgian Asentzio Eguna ospatzen zen. Filamornika eta jazbana egoten ziren. Olabarrietara joaten ziren domeketan; musika normaldu zenean, plazara.

### **388. Bi ahizpa moja (ONA-106/034)**

Beti Jauregi baserrian bizi izan da. Neskame zegoela ere sarri joaten zen. Ahizpa hil egin zen, aita ere bai, eta bera geratu zen etxeko kargu. Amama lanak egin ditu. Bi ahizpa moja joan ziren. Bata Fidel Castrorekin ibili zen, Guadarraman. Kristalezko galtzak Kubatik ekarri zizkion ahizpak, galtza finak.

### **389. Itsasoa umetan ikusi zuen (ONA-106/042)**

Itsasoa noiz ikusi zuen lehen aldiz. Doktrinatik joaten ziren, txangoan. Debara, Zumaiara, Zarautzera... Donostiara ere bai. Bazkaria eramaten zuten, zapata kaxan. Autobusez joaten ziren.

### **390. Trena (ONA-106/046)**

Lehenengo aldiz Bergarara joateko hartu zuen trena, Pazkoatan. Oinez joaten ziren bestela.

### **391. Dirua eta medikuak (ONA-106/048)**

Dirurik ez zen egoten orduan. Errenta ordainduz gero, pozik. Medikua ere kobratu egiten zuten urtero. Don Jose Maria Arzelus medikua, Don Bizenteren aita. Jose Mari Galarza behar handia zegoenean bakarrik joaten zen.

### **392. Udaberriko lorea (ONA-107/001)**

Bertso batekin egin du bere aurkezpena, eta baita bizimodua nolakoa zen azaldu ere.

### **393. Jaio eta berehala bataioa (ONA-107/003)**

Ugaztegin jaio zen, Erdikoetxean. Jaioteguna. Bataio eguna ospatu du beti, nahiz eta aurreko egunean jai. Azkar bataiatzen zuten lehen, umea hiltzen bazen linbora ez joateko.

### **394. Aita, bertsolari (ONA-107/005)**

11 urte zeuzkala hil zitzaion aita bere aitari; amona alargun geratu zen bost umerekin. Eskolara egun batean bakarrik joan zen aita. Aita oso famatua zen, bertsoan egiten zuen, ezkontzetan-eta. Gaita ere bazuen. Fermin Urkia.

### **395. Aitapuntakoaren pasadizoa (ONA-107/008)**

Aitak kontaktzen zuen pasadizoa: ezkontza batean aitaponteko zela, neska polita eta gizona itsusia zirela, eta apaizak pentsatu zuela aitapontekoa bera zela ezkongai.

### **396. Etxea nolakoa zen (ONA-107/010)**

Beheko etxera joan ziren bizitzera, etxe hobea zen hura. Besteak tximiniarik ere ez zeukan; lau ate zituen sukaldeak. Bat ganbarara, bestea ukiulu ertzerara... Gelak nolakoak ziren.

### **397. Ugaztegiko familiak (ONA-107/012)**

Ugazabak ziren erdiko etxean, eta behekoa erosi zuten gero. Ugaztegin bost familia bizi ziren. Aretxabaletakoa zen, Goronaetakoa. Urribarrira joan zen aitarekin, 9 urterekin.

### **398. Milizianoak baserrietan (ONA-107/015)**

Kafea falta zen etxean, eta aita bila joan zen; mahuketan sartuta ekarri zuen milizianoek emandako kafea. Aita eta anaia kobara joan ziren lotara, milizianoen beldurrez. Baserrian egon ziren mordo bat. Gizon bat nola hil zuten. Bost mutilek beraien buruak entregatu zituzten, gosetuta. Uribarriko gazte asko hil ziren. Araotzen bakarra hil zen.

### **399. Agerretik Antzuenera bizitzera (ONA-109/002)**

Agerre Etxeberrin jaioa. Antzuenera joan ziren bizitzera, beste etxea zaharra zelako eta eskola urruti zutelako. Araoztarrak zituen gurasoak. Zazpi anai-arrebatan laugarrena zen.

### **400. Claudio maisuarekin eskolan (ONA-109/003)**

Eskola ondoan bizi arren, ez zuen askorik ikasi. Zortzirekin hasi eta hamabi urte arte. Claudio maisua; erdalduna zen. Makilarekin jotzen zuen. Berak ura eramaten zion iturritik.

### **401. Eskola garbitzen; Don Martin apaiza eta pilota (ONA-109/007)**

Umetako jolasak. Zigortutako umeek eskola garbitzen zuten, astean behin. Kanposantu ondoko frontoi zaharrean jokatzen zuten pilotan. Don Martin apaizak partidako txakur handia kobratzen zien, bere pilota erabiltzeagatik. Hark egiten zituen pilotak. Murgialdaikoa zen.

### **402. Garizuman, txirikiletan (ONA-109/009)**

Txirikiletan egiten zuten Garizuman, Ugaztegiko zelai batean. Garizumako jolasa zen. Gordeketan, Txorro-Morro.

### **403. Maisua, elizara nor doan kontrolatzen (ONA-109/011)**

Larunbatetan ere eskolara. Maisuak zaintzen zuen elizara nor joaten zen. Belarrondokoak. Joxe Agirre zen sakristaua. Gripearekin hil zen.

### **404. 19 urterekin gerrara; Asturiasen zauritua (ONA-109/015)**

Eskola bukatu eta baserriko lanetan. 19 urterekin gerrara. Donostiara joateko deialdia. Erdaraz ez zekien. Lizarran 18 egun egin zituen, esku-bonbak botatzen ikasten. Handik Balmasedara. Alferezak esaten ziena. Asturiasen balaz zauritu zuten: lepotik sartu, eta bizkarretik irten. Valdesillaseko ospitalera. Iruñera, gero. 1937.

### **405. Teruelgo borroka; 18 grado zero azpitik (ONA-109/016)**

Valdecillaseko ospitalean, minak ezin egonda. Teruelgo borrokara, gero. 18 grado zero azpitik. Hankako behatzak mozten zizkieten askori, batez ere mairuei. Bera bota onak zituelako salbatu zen, larruzkoak.

### **406. Zauritu zutenekoa (ONA-109/019)**

Esku-bonbak botatzen zebilela zauritu zuteneko xehetasun gehiago kontatzen ditu.

#### **407. Hildakoari zapatak kenduta (ONA-109/021)**

Toledon zeudela bukatu zen gerra. Bartzelona alderaino joan zen gerra bukatu aurretik. Zapatak apurtuta zituen, eta hildako bati kendu zizkion; beste batek kazadora hartu nahi zuten, baina balaz zulatuta zegoen.

#### **408. Hiru urtean soldadu; behin, etxera ihesi (ONA-109/022)**

Gerra amaituta ere, ez zuten etxera bidali. 3 urte egin zituen soldadu. Beste batzuek gehiago. Behin, baimenik eman ez zieten, ihes egin zuten etxera. 18 hilabete etxera joan gabe. Zarauzko alferezak lagundu zion gero; beste batek fusilatu egin nahi zuen.

#### **409. Teruelen, anaiak ez zuen ezagutu (ONA-109/024)**

Beste anaia bat ere soldadu, Gregorio; Teruelen elkartu ziren behin. Anaiak ez zuen ezagutu, itxura eskasa zuelako. Hildakoak mandoetan.

#### **410. Etxera bueltatu eta gero, ezkontzea onena (ONA-109/026)**

Etxera bueltatu zenean, amak esan ziona: garai txarrak zirela, eta onena ezkontzea zuela. 26 urterekin ezkondu zen Errastiko alaba batekin.

#### **411. Garia entregatu beharra; Zerrajeran lanean (ONA-109/032)**

Soroan zer zuten. Gerra ostean, garia entregatu beharra. Araban erosten zuten gero, gauez, etxerako nahikoa ez zutelako. Zerrajeran ibili zen lanean. 1941ean hasi zen. Bertako enkargatua zen aita; haren ordeztatu zen. Ur kanalak. Tunelak kanpotarrek egin zituzten; istripua.

#### **412. Kanalak konpontzen eta zentrolean (ONA-109/034)**

12 urtean kanalak konpontzen ibili ostean, zentrolean hasi zen lanean. Denera, 42 bat urte. 65ekin erretiratu zen.

#### **413. Lantegian eta etxean lanean; sei seme-alaba (ONA-109/036)**

Baserriko lanak berak eta arrebak egiten zituzten. 11 pezeta irabazten zituen. Sei seme-alaba izan zituzten. Moldatu ziren nolabait.

#### **414. Trinitate jaiak, Araotzen (ONA-109/039)**

Lehenengo jaiak. Trinitateak, bi egunekoak. Mutikoak zirenean, propina ematen zieten. Meza eta dantza. Panderoa eta ahoko soinua. Igandetan ere dantza izaten zen. Hiru taberna, Araotzen. Zumalde, Mantxuena...

#### **415. Auzoko batzarrak, Auzozalia etxean eta saloian (ONA-109/041)**

Saloia pilotakelua baino lehenago egin zen. Saloia auzoarena zen. Arrasateko batek proposatu, eta auzolanean eginga. Antonio Uriartek ordaindu zuen materiala. Auzozalea etxean egiten ziren aurretik batzarrak; alkatea joaten zen, eta kanpaiak jotzen zituzten.

#### **416. Gerra ostean janaria urri (ONA-109/043)**

Baserrian zaila da bizimodua, lehen eta orain. Tremesa. Gerra ostean, janarekin estu. Babarruna egunero, urdaiarekin. Txorizoa, egun berezietan bakarrik. "Gaztaina erriak eta sagar irakiña, afai jakiña". Gosaltzeko, esnetaloak ala tremesa. Ogirik ez.

#### **417. Hil kanpaiak eta su kanpaiak; "aingeruak" (ONA-109/045)**

Kanpaiak: su kanpaiak azkarrak izaten ziren. Aingeru kanpaia tristea zen, eta hil kanpaia ere bai. Gizona edo emakumea hil, berdin jotzen zen. Lehen askoz ume gehiago hiltzen ziren: mutikoen eramaten zituzten kaxa zuriak bizkarrean.

#### **418. Eskola auzolanean egin zuten (ONA-109/048)**

Auzolanean egiten ziren gauzak. Bideak, eskola. 40 egunean, eskola egiten: langile bakoitzari ardo kuartilua, iluntzean, Mantxuengan. Ez zioten eman nahi, gaztea zela eta. Harginari "auntza" eramaten zion berak. Uriarte zen obrako arduraduna.

#### **419. Errekara bota, eta hil (ONA-109/050)**

Araozko presa baino lehenago, baserriar bat errekkara bota zuten, amorrua ziotelako, eta hil egin zen.

#### **420. Aita, esneak batu eta partitzen (ONA-110/002)**

Araozko Zumalde baserrian jaio zen. Araoztarrak zituen gurasoak. Taberna eta estankoa zuten. Gainera, aita Araozteko esne denak batzen zituen, kalera eramateko. Tripa-trukeko morroiak zituzten.

#### **421. Zumaldeko taberna (ONA-110/003)**

Jende asko joaten zen tabernara, Arrasatetik eta Aretxabaletatik... bertakoek harrika egiten zieten. Trinitate jaietan, Irizar okindegikoak laguntzera joaten ziren. Sukaldaria eta zerbitzariak ere eramaten zituzten. Bildotsa egoten zen, okela gisatua, tripakiak, flanak, oilaskoak... Estankoa ere bazen.

#### **422. Trinitate jaietan, gonbidatuak (ONA-110/005)**

Tabernak ez zuen ordutegi jakinik, baina oso berandu ere ez zuten ixten. Gauean gizonak bakarrik egoten ziren. Eliza ondoko jaia bukatzean joaten ziren, Trinitate jaietan. Orkestra egoten zen: saxofoia, soinua eta jazbana. Lo eta jan Zumalden egiten zuten. Guardia zibilek ere mahai beran jaten zuten. Baserrietan gonbidatuak egoten ziren, eta dotore jartzen zituzten mahaiak.

#### **423. Umetako jolasak (ONA-110/006)**

Zumalden jaio ziren denak, anaia zaharrena izan ezik. Umetako jolasak, belarrekin eta sardina latekin. Aixenarekin egiten zuten soka, sokasaltoan egiteko. Garizuman txirikiletan egiten zuten. Makilarekin txirikila urruti bota behar zen, eta gero handik marrora; bi talde izaten ziren. Txirikila airean hartuz gero, marrora bota beharrik ez. Neskak neskekin eta mutilak mutilekin ibiltzen ziren normalean.

#### **424. Zapakunak (ONA-110/008)**

Zapakunak (tortolosak): saka, ponte, aldar eta toras. Pilota gora botatzen zen. Bildots hezurak. Koloretako papertxoetan batzen zituzten zapakunak, eta bustita, kolorea hartzen zuten. Etxean bildotsak bazituzten.

#### **425. Bederatzi urterekin, behizain (ONA-110/009)**

Behizain ibili zenekoa. Izeba-osaben etxean egon zen bederatzi eta 11 urte artean. Sei behi gobernatzeko zituen. Eskolatik etxera zuzen joan behar izaten zuten. Astoari banastak berak jartzen zizkion, eta arbi bila hiru-lau buelta egiten zituen. Belar beltza mozten zuten, igitaiarekin, oiloei jaten eman, arrautzak batu... Zaperoa zer zen. Saia. Hogeitaka oilo zituzten.

#### **426. Gatza oilandari, arrautza egiteko (ONA-110/010)**

Oilanda batek kanpoan egiten zituen arrautzak, eta ipurdian gatza jartzen zion lehengusuak, arrautza azkar egiteko eta non egiten zuten ikusteko. Etxean ere gauza bera egiten zuten gero. Baserrietan saldu egiten ziren arrautzak. Plazara joaten ziren, larunbatetan, astoekin, eta bueltan kafea, azukrea, olioak... ekartzen zuten. Konfiteroaren lotzen zituzten astoak batzuek.

#### **427. Pitxarrera pixa (ONA-110/013)**

Ur bila joaten ziren pitxarrekin, iturrietara. Mutiko batek, Gregoriok, esan zion berarekin joateko, eta berak ezetz, egona zela. Pitxarrean pixa egin zion.

#### **428. "Libiri-labara" (ONA-110/014)**

Ohitura zegoen behizain zebiltzane abixua emateko, behiek ihes egiten zietenean, burla-haizez. "Libiri-labara".

#### **429. Gari sailean farolarekin (ONA-110/015)**

Sukaldeko lana asko gustatzen zitzaion, baina ez zioten uzten. Garia ebaki eta lehortzen uzten zen, ondoren lotzeko. Hego haizearekin nahastu egingo zela eta, goizaldean farolarekin argi egiten ibili zen gari sailean.

#### **430. Eskola garaia (ONA-110/016)**

Bi eskola zeuden, bat mutikoena eta bestea neskena. Txaketuaneko Juli zen maistra hasieran, eta gero se&ntilde;orita Mercedes. Josten erakutsi zieten. Eskola erdaraz ikasten zen, baina beraiek ez zekiten zer esaten zuten ere. Inspektorea zetorrela eta, Franco eta Pio XII aita santua zirela argazkietakoak esan zien maistrak.

#### **431. Gasteizko ikastetxea (ONA-110/017)**

12 urte arte egon zen eskolan, eta gero kolegiara joan zen. Aita hil zen, eta taberna itxi zuten. Aitaren gaixotasuna. Txileko osabek lagundu zieten fakturak ordaintzen. Anaia zaharrenak Txilera eramane zituzten, eta bi gazteenak Gasteizko ikastetxe banatara bidali zituzten. Bost urte egin zituzten interna, Sagrado Corazon eskolan. Erdaraz zen dena. Jan eta lo, dena han egiten zuten. "Las vascas" ziren. Noizean behin paseoa egiten zuten Armentiarantz.

### **432. Ikastetxeko bizimodua (ONA-110/019)**

Ikastetxeko bizimodua. Egunero mezetara. Binaka egoten ziren arrasketan. Dutzarik ez zegoen artean. Bainerak bazeuden, baina hankak astean behin garbitzen zituzten eta bainatu hamabostean behin. 70 interna zeuden. Uniformea zuten, urdin iluna, eta oinetako beltzak. Udan kapela eta negurako kaputxa ipini zieten. Bata beltzak, almidoizko lepo zuriarekin. Mezetarako, bata gainetik abrigoa jartzen zuten. Mantilla eta misala. Mezetatik jangelara joaten ziren zuzenean. 13 neskame zeuden, ikasi alde. Bi moja beti zain egoten ziren. Hasieran kafesnea izaten zuten, ogiarekin, eta gero txokolatea jarri zuten, bolloarekin. Jangelatik logelara eta handik eskolara. Zigorrak: paperean 1.000 aldiz idaztea, eskola ordua luzatuta.

### **433. Kantuzaletasuna (ONA-110/022)**

Amak panderoa jotzen zuen, horrelaxe dibertitzen ziren. Musikazaleak ziren familian. Dantza egitea eta kantatzea gustatzen zaizkio. Modako kantuak: "Tengo una vaca lechera". Euskarazko kantuak, Gabonetan eta. "Markesaren alaba" zekien ondo amak.

### **434. Teofiloren soinua (ONA-110/024)**

Bertsorik ez zen kantatzen etxean, baina iluntzean Teofilok soinua jotzen zuen, eta berak dantza egiten zuten. Hamabietakoa jotzen zutenean bukatzen zen, eta denak etxera; neguan zortziak aldean zen "hamabittakua".

### **435. Txarriduna taberna (ONA-110/026)**

Ahizpa Txarriduna tabernan egoten zen zerbitzatzen asteburuetan, eta aste barruan fabrikari zebilen. Pepita zen jabea. Laguntzera joan zen bera ere, kontuak egitera eta kobratzera.

### **436. Autobusa Araotzeraino (ONA-110/028)**

Araotzera igotzeko Garaiko langileentzat kamioia jarri zuten lehenengo eta gero autobusa. Larunbatetan Oñatiarrak autobusak jartzen zituen. Lana kanpoan egiten zutenak etxera joaten ziren astebururako. Taxistak ere ibiltzen ziren bueltara larunbatetan. Bestela, oinez. "Diarixua" egoten zen egunero Arantzazura, autobusa. Asto gainean igotzen ziren batzuek, baina gehienak oinez.

### **437. Kafeari txingarra botatzea (ONA-110/030)**

Izebaren etxean, kafeari txingarra botatzen zioten. Beheko suan harrizko lapikoetan egiten zen jana. Izebak kafea nola ehotzen zuen, goizean. Ilinkixarekin txingarra hartu eta kafe lapikoan sartzen zuen. Umetan ere hartzen zen kafea, sagardoa ere bai. Anisa eta koñaka botatzen zitzaion kafeari; sorora eramaten zen, afari-meriendarekin. Baserriko ogia, tremesa, urdaia, txorizo errea, gazta, ardoa eta ura. Berak ere edaten zuen ardoa bota muturretik.



#### **438. Arbia ereiten (ONA-110/031)**

Arbia garia egondako lekuan ereiten zen. Burdinarea, area, goldea. Lurra prestatu ondoren, aitzurrarekin zuloak egiten ziren. Arbi haziak botatzen zituen batek, eta atzetik estali. Simaur pixka bat ere botatzen zitzaion. Miaztu egiten zen gero. Arbi buruak. Abuztuaren 20rako ereinda egoten ziren haziak, San Bernardo egunerako. Neguan arbia jaten zuten behiek. Oiloen zaperorako eta txerrientzat ere bazen.

#### **439. Gasteiztik bueltan, Zahorren lanean (ONA-110/033)**

Gasteiztik bueltatu zenean, Araotzen egon zen urtebete edo, eta gero Zahor txokolate lantegian egin zuen lana ezkondu arte.

#### **440. Kutxa barruan lo (ONA-110/035)**

Pedro anaiaren pasadizo bat. Aizkorben zegoen bera, eta anaia txikia zen. Ama ohean zegoen, eta Maritxu ahizpa sukaldari. Gauean mutikoa falta zen, eta ezin topatu. Kutxa baten barruan aurkitu zuten, lo.

#### **441. Izara zuria ira pilan (ONA-110/040)**

Zelai batzuk oso urruti egoten ziren; behiekin haraino joan eta etxera noiz joan behar zuen jakiteko, mendi tontorrera igotzen zen, etxeko ira pilan izara zuria jarri zuten ala ez ikusteko.

#### **442. Amaren txantxak (ONA-110/042)**

Bizilagunekin bromak erabiltzen zituzten. Ezkontza bat izan zuten, eta almendra eske mutikoak. Alkanforrak eman zizkieten almendrez ordez. Etxe kontran kontu kontari zebiltzan hiru mutil, eta amak txindurriak bota zizkien.

#### **443. Juanitosena denda birramonak ireki zuen (ONA-111/002)**

Aita Urrutxuneko etxean jaio zen. Aitajauna Araotzekoa zen: Bittor Arregi. Juan Candaudap birraitonaren kontuak: Juanitosena dendaren izena nondik datorren; karlisten eta liberalen arteko liskarrak; pospolo lantegia kendu zioten eta ezkutatu egin behar izan zuen. Josefa Antonia birramonak jarri zuen denda.

#### **444. Ama, errementariaren alaba; gurasoek nola ezagutu zuten elkar (ONA-111/006)**

Amaren kontuak: errementariaren alaba zen. Aitonaren tailerra, Trianan. Apotzagako amona. Ama non jaio zen. Bere gurasoek nola ezagutu zuten elkar: Ama Frantzian egon zen ikasten, eta Madrilgo familia bati frantsesa erakusten zegoen, Huelvan. Aita, berriz, kartzelan; hari zerbait eramateko eskatu zioten.

#### **445. Ikasketak: merkataritza, dekorazioa eta joskintza (ONA-111/008)**

Eskolako kontuak. Benediktinetan ikasi zuen lehenengo. Merkataritza gero, Donostian. Horretarako lehenengo Oñatin prestatu zen, eta ondoren Mariaren lagundian, Bergaran. Pedro Oleaga. Dekorazioa ere ikasi zuen, postaz; arropa mozten eta egiten ere bai.

#### **446. Dendako lanetan gustura; denetik saltzen zuten (ONA-111/009)**

Beti gustatu izan zaio dendako lana. 11 urterekin hasi zen dendan lanean, aitaita Bitorrekin. Jostailu denda moduan hasi zena bazar bihurtu zen. Denetik saltzen zuten, 1979 arte: janaria, haziak, burdinazko gauzak, papera... Lentejak, ehunezko zakuetan.

#### **447. Jergoiak, koltxoiak eta artilea (ONA-111/010)**

Jergoiak (lastairak) egiten zituzten baserritarrek neguan. Horretarako materiala saltzen zuten dendan: malgukiak... Udan jorratzen ziren koltxoiak; haria saltzen zuten, orratz bereziak... Mertzeria ere bazen. Artilea saltzen zuten asko. Anekdotak.

#### **448. Denda, gerra aurretik I; bankua (ONA-111/011)**

Meza-liburuak, arrosarioak, lumak... saltzen zituzten. Perfumeak egiten zituzten. Gerra aurretik, aitajauna eta amandrea seme zaharrenarekin zeuden dendan, Joxerekin. Gozogintza ikasten ari zen beste seme bat; Bartzelonan almendra-negozioa jarri zuen. Roxita izebaren denda. Banco Bizkaia ere beraiena zen, baita Vascongadas aseguruak ere. Gerra garaian kendu egin zieten dena. Bankuko itsulapikoak eta giltza.

#### **449. Denda, gerra aurretik II (ONA-111/012)**

Dendan gerra aurretik saltzen zituztenak aipatzen jarraitzen du: likore eta ardo barrikak; perfumeak eta sukalderako ontziak; kalamua, txorientzat; gozokiak; espeziak. Kanpotik ekarritakoak: saltxitxa alemaniarrek, luma estilografikoak. Bitartekari gabe egiten zuten lana: bordatuak Suitzatik eta Txekiatik kristala. Gerra garaian galdutako paketea. Bere jaunartzea.

#### **450. Denda, gerra aurretik III (ONA-111/013)**

Bitxiak: Madrildik ekartzen zuten urrea. Txekiako kristala, Babariako portzelana... Joxe Arregi. Lanparak. Ontziak non erosten zituzten. Oinetakoak, galtzerdiak. Barruko arropa.

#### **451. Gerra garaiko sakeoak; familiaren historia (ONA-111/014)**

Gerra garaian bi aldiz hustu zuten denda, sakeatu. Emakume bati esker, gauza batzuk berreskuratu zituzten. Aitita kartzelan zegoen, osabak Langileen Batailoian... Aita Gijonen zegoen gerra hasi zenean; Santoñan harrapatu zuten gero. 1941etik aurrera, dendan egon ziren gurasoak. 1966an ezkondu zen, eta dendan jarraitu zuen. Beste denda bat jarri zuen, osagarri bezala: ehun-denda.

#### **452. Bezeroekin gertuko harremana II: baserritarrak (ONA-111/017)**

Jantzetze moduan erabiltzen zuten denda bezero batzuek. Polainak eta abarkak kendu, eta zapatak jantzi. Errazionamendu kartila. Baserrietan dirurik ez zegoen, baina janaria bazuten: babarruna, gazta, arrautzak... Garaikoetxea gozotegikoek arrautzak erosten zizkieten karean sartzeko. Pastel Peregrinoren formula nork daukan. Baserritarrek trukea egiten zuten, eta ordaintzeko larri ibiltzen ziren.

### **453. Bezeroekin zuten harremana III: fakturak banatzen (ONA-111/019)**

Familia aberatsek ere kontua zuten dendan, eta hile bukaeran ordaintzen zuten. Bera bizikletan ibiltzen zen fakturak partitzen. Garai, Cegasa... Diruz ordaintzen zuten.

### **454. Bezeroekin zuten harremana IV: etorkinak (ONA-111/020)**

Lehenengo etorkinak, galziarrak. Apopilo egoten ziren. Mutil batek aitari eman zion dirua, soldadutzan zegoen bitartean gordetzeko. Eskutitzak idazten zizkion bati, eta irakurtzen erakusten zion beste bati.

### **455. Harremana aldatu egin da (ONA-111/022)**

Oñatik 8.000-9.000 biztanle zituen, baina lehengo harremana ezberdina zen. Zergatik aldatu den hori. Dirua nola gordetzen zen, kutxan. Erbestean zeuden familiei lagundu zien aitonak.

### **456. Errenta ordaintzeko modua: kapoiak, bildotsa... (ONA-111/023)**

Santo Tomas egunean eta Pazkoa astean errenta ordaintzea nola egiten zen: kapoiekin, arrautzekin, bildotsarekin... Aitajaunak bitartekari lana egiten zuen. Kapoiak hil, eta Donostiara bidaltzen zizkieten etxejabeari, errekadistarekin.

### **457. Dukearen erosketak; haziak (ONA-111/024)**

Dukearenak ere joaten ziren dendara; erosketak egiten zituzten, eta dukea joaten zen ordaintzera. Likoreak, turroiak. Haziak, baratzerako botika... Udan tomatea potetan sartzen zen; kortxoak eta azidoa. Gramoka jartzen zituzten. Azukrea kiloko poltsatan sartzen ere ibiltzen ziren.

### **458. Lehengo dendak eta negozioak I (ONA-111/026)**

Inguruan zeuden dendak aipatzen ditu, Etxaluzetik hasita. Ziordiena fruta denda, Danbortxuena, Agirrebalzategi, Milikuena, Santosena... Kooperatiba, Oleagena, Galarzaren botika, Lukasena.

### **459. Gabonak: lehen pinua eta turroiak (ONA-111/027)**

Gabonetako lehen pinu naturala beraiek jarri zuten dendan. Sakrilegioa zen orduan, erlijioaren kontrako ikurra zelako. Kritikak izan zituen. Misiolari oñatiarrei eta erbestean zeuden familiei turroiak bidaltzen zizkieten. Frantziara edo Londresera joatea ilargira joatea bezalaxe zen orduan.

### **460. Lehengo dendak eta negozioak II (ONA-111/029)**

Alhondigara joaten ziren arbitrioak ordaintzera: barrikak, azukrea... Fakturak. Estanku zaharra. Goiko estankoa. Osaba Pericok kontatzen zuen pasadizoa: neska bat nola hil zuten. Letamendi, Claritarena... Fonda Ona, Bujeruena...

### **461. Lehengo dendak eta negozioak III; bakailoa (ONA-111/031)**

Kale Zaharreko dendak, eskuma aldekoak. Yarza, Lasa, Rakelena... Bakailoa noiz eta non saltzen zen, eta nondik ekartzen zuten; beraiek asko saltzen zuten, eta Egañarenak ere bai.

#### **462. Lehengo dendak eta negoziok IV (ONA-111/033)**

Hankaluzena denda desagertu da... Silleroena, alpargateroarena, konfiteroarena... Egañena da aldatu ez den bakarra. Txokolateriak: Zahor, Orbea. Harategiak: Joxerena, Migelena...

#### **463. Bosgarren belaunaldia dendan (ONA-111/035)**

Orain Plazaola dagoen lekuan alpargateroa zegoen. Tabernak eta bankuak. Juanitosena dendan bosgarren belaunaldia dago lanean; beste denda batzuen kasuak: Kirrinena, Santosena, Letamendirena...

#### **464. Dendariak ferietara elkarrekin (ONA-111/036)**

Erretratu bat, dendariak agertzen direna, aipatzen du Maribik. Dendarien elkarteak. Ferietara joaten ziren dendariak, Bordelera eta; parranda ere egiten zuten hala.

#### **465. Ikasketak II (ONA-111/038)**

Hiru urterekin hasi zen Beneditinetan, eta hamar arte. Gero, Bergaran interna egon zen. Bartzelonako ikastaroak. New Yorketik lore apainketarako liburuak bidaltzen zizkion Enrike Arana taxilariaren alabak.

#### **466. Dantzak eta bekatuak (ONA-111/040)**

Umetan plazan egiten zuten dantza, bandarekin. Zer egiten zuten gustuko mutilekin dantza egiteko. Garizumako debekuak eta kongregazioak. Beraiek ez zieten kasu handirik egiten; bikinia. Jazbana, Bergaran. Txokoko festa.

#### **467. Auzoetako jaietara: Araotz, Murgia, San Pedro (ONA-111/041)**

Auzoetako jaietara ere joaten ziren. Bezero baserritarrek gonbidatuta. Araotzera, Murgialdaira... Ezkondu zen urtean, 23:00etan etxean egon behar zuen. San Pedroko jaietara, trenbidetik.

#### **468. Debekatutako filmak eta treneko abentura (ONA-111/042)**

"Lo que el viento se llevó" pelikula ikustera joan ziren Eskoriatzara, eta ez zieten sartzen utzi. 3 R zen. Bueltan, trena trenbidetik irten zen, eta oinez bueltatu behar izan zuten. Mutilek atera zituzten trenetik; haiek neskalgunei bisita egiten egonak ziren, Arrasaten eta.

#### **469. Senarra nola ezagutu zuen (ONA-111/045)**

Senarra nola ezagutu zuen kontatzen du. Bergaran, Errege bezperan, dantzan. Autoa zuen bakarretakoa zen Oñatin. Soldadutzara Afrikara bidali zuten, eta egunero idazten zion. Lehen presa zuten ezkontzeko, dena bekatua zelako.

#### **470. Dendaria izatea, polita baina gogorra (ONA-111/048)**

Denda gustatzeko, bertan jaioa izan behar dela dio. Dendaria izatea oso gogorra da, asteburuetan ere lan egin behar delako. Beti paketeak jartzen, erakuslehoak prestatzen... Cadiz turroiak.

#### **471. Mendira joatea eta hondarra saltzea (ONA-111/049)**

Mendira asko joaten ziren: Arantzazu, Urbia, Usako... Jaumendira ere bai. Harriekin hondarra egin, eta saldu egiten zuten, sukaldeko txapa garbitzeko. Txakur handia. Caritasen kobrezko baleak, gerra ostean, janaria lortzeko.

#### **472. Errazionamendua; garbantzuak, azukrea, kafea eta olioia (ONA-111/051)**

Errazionamendu kartila ezberdinak zeuden. Garbantzuak eta babarrunak Leonetik, zuzenean; gero, bitartekariak sartu ziren. Azukrea, Bilbotik. Kubako azukrea, ehunezko zakuetan. Kafea ehotzen zuten. Hankaluzenean kafea erre egiten zuten. Olioia bidoietan etortzen zen; marmita formako edukiontziak zituzten olioarentzat; bonbarekin, botilara.

#### **473. Ona Fondako giroa; udatiarrak (ONA-111/052)**

Ona Fondakoak familiakoak ziren; errepresentanteak egoten ziren. Udatiarrak ere bai. Bezero onak ziren; oporren bukaeran ordaintzen zuten, dena batera.

#### **474. Joskinak, pentsiorik gabe (ONA-111/054)**

Jostunek ez zuten pentsioa kobratzerik; atzera begirako eragina zuen legea atera zutenean, bai: paperak egin zituzten dendako bezeroak zirela esanez. Neskazaharrak ziren gehienak. Beharrak ere ezberdinak ziren lehen: berokiak, bizitza osorako.

#### **475. Ugaztegi buruzko bertsoak I (ONA-112/002)**

Bere jaiotetxeari, Ugaztegi baserriari buruzko bertsoak.

#### **476. Ugaztegi buruzko bertsoak II (ONA-112/004)**

Ugaztegi buruzko bertsoak.

#### **477. Goroetako eskolan, maisua gogorra (ONA-112/006)**

Goroetako eskolan ibili zen, Don Jenarorekin, baina oso denbora gutxian. Oso gogorra zen. Makilarekin jotzen zituen mutikoak. Anaia bat jo zuen, eta Ugaztegi joan zenean, aitak zer esan zion. Amandreak konpondu zuen giro txarra.

#### **478. Etxaluze eta Bekoetxea nolakoak ziren (ONA-112/008)**

Etxean zeintzuk bizi ziren. 11 senide ziren. Amandrea. Neskamerik ez zuten. Etxaluzen jaio zen, eta hiru urte zituenean joan ziren Bekoetxera. Tximinia gabeko etxea zen. Sukaldeak lau ate zituen, eta sua sukalde erdian. Beste etxea nolako zen.

#### **479. Ugaztegiko giroa (ONA-112/010)**

Sei bat behi eta txahalak zituzten, eta ardiak. Bi etxetako lurak zituen aitak. Mutilak gerrara joan ziren, eta lan asko baserrian. Ugaztegiko etxeak zeintzuk ziren; harreman ona zuten. Botoa nola aldatzen zuten, aho batez erabakita. Amandrea, karlista.

#### **480. Aita ez zen ikasia, baina argia bai (ONA-112/012)**

Aita eskolara egun bakar batean joan zen; ama alargun geratu zen, berak 11 urte zituenean. Bertsolaria zen aita, eta gaita jotzen zuen. Eztei errondetan ibiltzen zen. Bi eguneko ezteiak.

#### **481. Estraperlorako, erdara (ONA-112/014)**

Aitak ez zekien irakurtzen, ez idazten. Erdaraz ere ez, baina ulertu bai. Arabara joaten zen, estraperlora, beste bat itzultzaile lanetan jarrita, baina hura ere antzeko zebilen.

#### **482. Uribarriko eskolan; neskame Barrenekora (ONA-112/016)**

Goroetako eskolatik (Aretxabaleta) Uribarrira (Oñati) joan zen; Barrenekora joan zen bizitzera, baserriko lanak egiteko. Arropak zapi batean bilduta. Lehengo lapikoak. Babarrunak denek batetik jaten zituzten, koilarekin. Aste denerako egiten zuten kafea. Aita eta ama deitzeko esan zioten. Itaurrean. Baserriko lanak.

#### **483. Uribarriko maisua, euskaltzalea (ONA-112/018)**

Uribarriko maisua, Felipe Jausoro; abertzalea zen. Euskaraz idazten eta irakurtzen erakusten saiatu zen. Batuketak egiten ere ez zuen ikasi. Neguan bakarrik joaten zen eskolara.

#### **484. Baserri giroko anekdotak (ONA-112/020)**

Barrenekoan bazituzten idiak. Behiak kaskarrak ziren. Goldea. Tanteluko Txominen kontuak: behiak ekartzera joan zen batean, bide izkinan agertu zitzaion. Askan arropa garbitzen ari zela esan ziotena. Anekdotak.

#### **485. Barrenekoan argia bai, urik ez (ONA-112/022)**

Barrenekoan urik ez zegoen, argia bai. Irratirik ez. Baserritarren ezjakintasuna aipatzen du, ez zekitela behar besteko etekina ateratzen.

#### **486. Goiz oheratzen ziren (ONA-112/024)**

Negurako belarra batzen zuten, Barrenekoan. Ugaztegiko kontuak. Argia nondik zetorren; ipurtargia. Goiz oheratzen ziren. Gosetuta jaikitzen ziren.

#### **487. Gerra hasiera; anaietako bi soldadu (ONA-112/026)**

14 urte bete aurretik bueltatu zen etxera, eta gerra hasi zen. Biharamunean, milizianoak etxean zituzten. Gasteizko lehen bonbak entzun zituzten. Bi anaia zituen gerrarako adinean; Francok biak eraman zituen. Bat Elizondon egon zen, zaldiak zaintzen, eta bestea kanoiekin, Gatzaga inguruak.

#### **488. Milizianoek Ugaztegin gosaltzen zuten (ONA-112/027)**

Milizianoek Ugaztegin gosaltzen zuten, eta Arabamendira joaten ziren. Aretxabaletara jaisten ziren. Ugaztegiko txabolan egiten zuten lo. Araozko mutilak batu zitzaizkien gero. Txorimaloak jarri zizkieten behin, erreketez jantzita.

#### **489. Gerrako kontuak: beldurrez, aitzakia bila (ONA-112/029)**

Bi mutil joan zitzaizkien etxera behin, behi bat galdu zutela esanez. Beldurra zuten egia esateko. Goseak zeuden. Milizianoengana entregatu ziren.

#### **490. Nazionalak geldituta, eta milizianoak gogortu; Intxorta sutan (ONA-112/031)**

Milizianoak Ugaztegin. Aretxabaleta hartu ostean, frontea non geratu zen. Nazionalak geldituta egon ziren, eta bitartean milizianoak gogortu egin ziren; kosta egin zitzaien garaitzea. Osaba batek esaten zuena. Intxorta sutan utzi zuten.

#### **491. Hegazkina nola erori zen (ONA-112/033)**

Gurutzebarrin zeuden, soldaduek aurrera nola egiten zuten ikusten. Hegazkinak Gasteizen kargatu eta bueltan joaten ziren. Hegazkin bat lurrera erori zen, Gatzaga aldean. Batzuk ikustera joan ziren, eta bere anaiarekin egin zuten topo han.

#### **492. Gerran hildakoak eta zaurituak, Araotzen eta Uribarrin (ONA-112/035)**

Bi anaiak eraman zituzten soldadu. Batek zortea izan zuen, baina besteak ez: tifusa ere harrapatu zuen. Ez du ulertzen Errepublikako gobernuak zergatik ez zuen soldadurik hartu; gero Francok bai, kinta mordoa. Araotzen boluntario gutxi, eta bakarra hil zen gerran. Zaurituak. Uribarrin, berriz, pila bat hil ziren; batzuk aipatzen ditu.

#### **493. Frontea Murun (ONA-112/037)**

Murun geratu zen frontea, Aretxabaletan. Ahizpak tiroak entzun zituen han. Oñati hartu egin zuten.

#### **494. Milizianoak Ugaztegin: harremana (ONA-112/038)**

Ugaztegin egon ziren milizianoak nongoak ziren; errepublikanoak ziren, erdaldunak. Gero euskaldunak batu zitzaizkien, boluntarioak. Armatuta zeuden. Milizianoekin izan zuten harremana ona izan zen.

#### **495. Aretxabaletara Oñatira baino gehiago (ONA-112/040)**

Hamabostean behin jaisten ziren herrira; Aretxabaletara joaten ziren Oñatira baino gehiago. Merkeagoa ote zen. Saltzera ere Aretxabaletara: gazta, arrautzak... Mezetara, Araotzera. Goroetara ordubete, eta Araotzeko elizara ordu erdi.

#### **496. Apaiza Arabara pasatzeko komeriak (ONA-112/041)**

Goroetako apaizaren kontuak. Milizianoak han zeudela, Arabara pasatzea bururatu zitzaion, Francoren aldera. Ugaztegiara joan zen laguntza bila. Anaiak lagun milizianoak zituen. Ikusi egin zuten apaiza, eta milizianoak atzetik. Tiroketa. Apaiza zuloatik nola atera zuten.

#### **497. Apaizaren bertsoak, sabela betetzeko (ONA-112/043)**

Ugaztegiara joaten zenean, apaizak kantatzen zuen bertsoa. Ikaragarritzko jatuna ei zen. Txerri-hiltzeak bezainbesteko beldurra ematen zion berari apaiz hark. Apaizak eman zion sustoa.

#### **498. Apaizaren jan beharra (ONA-112/045)**

Apaizaren jan beharra. Txerri-saiheskia eta patata erreak, buskantzak... Anekdotak. Berakatz-zopa jarri zion behin aldekoak, Damianak.

#### **499. Aretxabaletako medikua eta Oñatikoa (ONA-112/047)**

Apaizei berorika hitz egiten zieten. Aita gaixorik zegoen batean, Joxe Mari Galartza medikua joan zen. Aretxabaletakoak ez zuen nahi izaten, urruti zegoelako. Anekdotak. Astoarekin jasotzen zuten medikua Araotzen. Anekdotak.

#### **500. Umea hegazkinean Ugaztegiara (ONA-112/049)**

Araozko andre batek egiten zituen emagin lanak. Komadrona. Mezetatik bueltan, anai-arreba bizkiek zer esan zieten: "Hi, aldekuan umia ekarri jone!"; hegazkinean ekarri zutela uste zuten. Pedrotxo anaiaren irteerak: San Antoniori esan ziona.

#### **501. "Batiuak" eta anisa (ONA-112/051)**

Ume jaioberria bisitatzea: "batiuak" (atsolorrak edo martopilak). Aitona batek berak egindako anisa eraman zuen, eta andre denak mozkortu. Ezkontzak lotzen ere famatua zen gizona: ardi baten truke topatzen zuen bikotea.

#### **502. "Batiuak" eta bataioak (ONA-112/053)**

"Batiuetara" andreak bakarrik joaten ziren. Goroetan izaten ziren bataioak, Jaunartzeak...

#### **503. Eztei-errondak eta anekdotak (ONA-112/055)**

Eztei-errondetara joaten zen aita. Giputxeko alaba oso ederra ei zen, inude egondakoa, baina senarra itsusia. Aitaponteko moduan zegoen aita, baina apaizak pentsatu zuen ezkongai zela.

#### **504. Neskame Donostian; oilo itsuei buruzko bertsoak (ONA-112/058)**

Gerra ostean Donostiara joan zen neskame. 1940an. Etxe dotorea zen, baina gaizki egon zen han eta utzi egin zuen. Gero bi neskame hartu zituzten, eta haien lagun egin zen. Bi oilo zahar zituzten patioan, eta haiek nola hil zituzten; bertsoak, berak asmatuak.

#### **505. Neskame, gose garaian (ONA-112/060)**

Beste etxe batean hasi zen lanean gero, eta han oso ondo. Baina gerraostea zen, eta miseria zegoen. Taxilaria zen gizona. Emaztearekin haserretu, eta errazionamenduko kartilako hautsi zuen senarrak. Hura nola konpondu zuten.

#### **506. Donostian, zomorroak etxean (ONA-112/063)**

Neskame zegoela gertatu zitzaiona: zimitzak eta labezomorroak zeuden etxeetan. Lehen egunean, goitik behera jan zuten. Erre egin zituzten zomorroak.



### **507. Etxean dirurik ez zuen entregatzen, ezta jaso ere (ONA-112/064)**

Neskame moduan 10 duro irabazten zituen. Ez zuen etxera dirurik bidaltzen, jaso ere ez; baserrian ez zegoelako. Behi baten dirua eman zien aitak bi ahizpei, erdibana egiteko.

### **508. Donostian, Txomineneara dantzara (ONA-112/065)**

Hamabi urteko ahizpa hil zenean bueltatu zen Donostiatik, eta ez zen berriz joan. Donostian zegoela, Txomineneara joaten zen dantzara, igandetan. Bederatzietarako etxean egon behar zuen.

### **509. Urtiagaingo erromeriak eta orduko giroa (ONA-112/067)**

Urtiagaingo erromeriak, igandero. Senarrak soinua jotzen zuen, baina ezkontzean utzi egin zuen. Orduko giroa. Gaur egungo bizimoduari buruzko iritzia. Gaizki iruditzen zaio umeei dena libre uztea.

### **510. Usakon neskame zegoela bota zuen bertsoa (ONA-112/071)**

Usakon egon zen neskame, urtebete inguru. Orduan ere joaten zen jendea bainatzera. Ezkailu-jana egiten zuten auzoko gizonak. Bertsorik botatzen ez zuenak ardoa ordaindu behar zutela erabaki zuten; berak gizon baten ordeztu bota zuen, eta bost pezeta eman zizkion. Bertsoa kantatzen du.

### **511. Arantzazura, ehunezko soinekoekin (ONA-112/074)**

Puxeta (lixiba) hamabostean behin egiten zen. Lihozko ehuna. Amandreak kontatzen zuena: liho jotzera joaten zen Goroetara. Gerra denboran, telarik ez zegoen eta amak ehuna eman zien soinekoak egiteko. Alpargatak, galtzerdi zuriekin. Gerran zaurituak, Arantzazun. Olabarrietako bi mutilek lagundu zieten etxera.

### **512. Puxeta egiteko modua (ONA-112/076)**

Ugaztegin alberka zuten, arropa garbitzeko. Tina batean jartzen zituzten arropak, sutarako hautsarekin. Ur irakina. Aitaren txistea.

### **513. Barrenekoan gozo tratatu zuten (ONA-112/077)**

Beti gozo tratatu zuten Barrenekoan; etxeko mutilzaharra beti berarekin jolasean zebilen, beti zirikatzen.

### **514. Burgosen, Patricio Etxeberriarentzat lanean (ONA-112/080)**

Lau urte egin zituzten Burgosen, Patricio Etxeberriarentzat lanean. Sukaldeko lanak, etxeko jira eta arropa zegoen bere kargu, 20-30 gizonena. Etxeak egiten ari ziren han. Langileen pabilioiak. Semea izateko Oñatira joan zen. Baldintza txarrak, Burgosen.

### **515. Burgosko kontuak (ONA-112/082)**

Burgosera trenean joan ziren. Oñatin ere trenea zegoen orduan. Gabonetan, etxera joateko zeudela, txoferrak mozkortu egin ziren. Batek kolpea hartu zuen kopetan. Ohera eraman ezin.

### **516. Gerrari buruzko bertsoak (ONA-112/087)**

Berak asmatutako bertsoak irakurtzen ditu. Gerrari buruzkoak.

### **517. Ama kantuzalearen bertsoak (ONA-112/089)**

Berak asmatutako bertsoak: semeek ama sendagilearena eramaten dute, amak kantu gehiegi egiten duelako.

### **518. Gerrari buruzko bertsoak II (ONA-112/091)**

Berak 78 urterekin idatzitako bertsoak irakurtzen ditu, gerraren kontrakoak, gaur egungo politikari eta langabeziari buruzkoak.

### **519. Senarrari idatzitako bertsoak (ONA-112/093)**

Senarrari idatzitako bertsoak, hura hiltzean. Kantatu egiten ditu lehenengoak eta azkenak errexitatu.

### **520. Senarrari idatzitako bertsoak II (ONA-112/095)**

80 urte bete zituenenean idatzi zituen bertsoak, senarrari zuzenduak.

### **521. Medikuek ekartzen omen zituzten umeak (ONA-119/001)**

1930. urteko Gabon zahar egunean jaio zen, Koixkar (Gorobizkar) baserrian. Orduan umeak medikuek ekartzen omen zituzten. Ama etxekoa zen, eta aita berriz Aretxabaletako Goroeta auzoko Markietegi baseritik etorritakoa.

### **522. Eskola eta maisuen etxea bat zen (ONA-119/002)**

Sarramendiko eskola berrira joaten zen, baina euria zenetan bakarrik. Ikasleek babarrunak etxetik eramane, eta maisuak egosten zituen. Maisua eskolan bertan bizi zen. Gau-eskolak ere ematen zituen. Maisuak alde egin zuenean bukatu zitzaizkion eskolok.

### **523. Euskaraz egiteagatik zigorra (ONA-119/003)**

Eskolan euskaraz egiten bazuten, maisuak sutarako egur bila bidaltzen zituen beheko pagadira.

### **524. Militarrek etxe inguruetan (ONA-119/004)**

Gerra denboran, gogoan du militarrek etxe inguruan egoten zirela, sasi artean arrastaka. Guardia Zibilak auzoko elizako kanpaiari tiroka ere ikusi zituen.

### **525. Militarrek eta Guardia Zibilak (ONA-119/005)**

Militarrekin oso harreman gutxi izan zuten baserritarrek. Legazpi, Zumarraga eta Antzuolatik etorri omen ziren Gorobizkarrera militarrok. Gerraostean Guardia Zibilek lapurretak egin omen zituzten auzoko baserrietan.

### **526. Mutikoak baserriko lanetan (ONA-119/006)**

Mutikotan itaurrean eta garia eta artoa ereiten jardundakoa da. Lehen lantzen ziren soro asko gaur pinudiak dira. Lizar abarrak moztu, sendorretan etxera ekarri eta itzuntzen (orriak kendu) zituzten, ganaduei emateko. Belarra gurdian edota sendorka ekartzen zuten.

### **527. Idaurrarekin garia jotzen (ONA-119/007)**

13 urterekin Jesus auzorik auzo gari-ebakitzen ibiltzen zen. Gari jotzea babarrunak jotzeko idaurrarekin eskuz egiten ezagutu zuen. Geroago matxaka makina ekarri zuten.

### **528. Garia jotzen auzolanean (ONA-119/008)**

Gari jotzeko makina modernoa ekarri zuten auzoko 14 baserriren artean. Etxerik etxe eramaten zuten gari jotzekoa, hiru idi parerekin. Ia bi egunetako lana izaten zen etxe bakoitzean. Gari jotzea auzolanean egiten zen.

### **529. Gari-jotzea bekatu Santiago egunean (ONA-119/009)**

Santiago egun batean garia jo gabe utzi behar izan zuten, abadeak bekatua zela esan zuelako.

### **530. Elurte handiak izaten ziren (ONA-119/010)**

Artoa erein eta ernetzen zenean, babarruna sartzen zuten ondoan. Soroan artoa eta garia txandatu egiten zituzten. Artoa bildu, eta abenduan garia ereiten zen. Eguraldiak sarritan atzeratzen zuen garia ereitea. Metrotik gorako elurteak normalak ziren garai hartan. Erbi ehizara joaten ziren elurretan.

### **531. Larunbatetan baserria abade-etxe (ONA-119/011)**

Elurte handietan jendea ez zen mezetara joaten. Orduan jaiko meza bi ematen zituzten, gazteentzako goizean goiz lehena. Abadea larunbatetan etortzen zen, eta Jesusen baserrian egin zuen lo 40 urtean. "Abadearen kuartoan" egiten zuen lo.

### **532. Jesus ikazkin (ONA-119/012)**

Jesus ikazkin ibili zen etxe inguruko basoetan. Egosteko egurra non eta nola ebaki eta prestatzen zuen azaltzen du.

### **533. Txondorrek zaintzen (ONA-119/013)**

Txondorra nola egin eta sua nola ematen zion azaltzen du, baita lo egiten zuen txabola eta ohea nolakoak ziren ere. Hiruzpalau txondor batera egosten izaten zituen. Familia osoaren lana izaten zen.

### **534. Ikatza saltzen (ONA-119/014)**

Ikatza eginda zegoenean, zakuetan sartzen zuten. Karreteroek 18 zaku kargatzen zituzten gurdiko. Ikatza kaleko etxeetan banatzen zuten. Araozko Mantxuenak ere erosten zien, arkumeak erretzeko. 300 bat ikatz zaku betetzen zituzten urtean.

### **535. Ganaduak eta ardiak etxean (ONA-119/015)**

Etxean ganadua, idiak eta ardiak zituzten. Artzaina ama zen, eta gero Jesusek berak jarraitu zuen ardiekin. Gazta asko ez zuten egiten.

### **536. Gose garaian lapurrak baserrira (ONA-119/017)**

Gose garaian, Jesusek norbait argetitik arkumeak lapurtzen harrapatu zuen, eta eskopeta tiroz uxatu zuen. Errotak itxita zeudenean, garia eskuz ehotzeko makina bat erosi zuten.

### **537. Garia Antzuolako errotara (ONA-119/018)**

Jesusek 30 urtez Antzuolako Azkarate errotara eraman zuen garia ehotzera. Antzuolan garia ehotzea auzoko errotan baino merkeagoa omen zen. Gerraostean Antzuolara gauzez joaten zen errotara.

### **538. Lapurra irten zitzaion bidera (ONA-119/019)**

Antzuolatik bueltan zetorren gau batean, bidean lapurra irten zitzaion. Lapur hori jo eta etzan zuen, eta hanka egin ahal izan zuen.

### **539. Behorrak eta erleak baserrian (ONA-119/020)**

Pinuak landatzen lan asko egin zuen Jesusek. Behi gorotza urarekin nahastuta erabiltzen zuten landara gazteak abereengandik babesteko. Behorrak eta erleak ere bazituzten baserrian.

### **540. Piztiak harrapatzen trebea (ONA-119/021)**

Azeri, basakatu, azkonar eta beste piztia batzuk harrapatzen trebea da Jesus. Garai batean, azeri buztan bakoitzagatik 1.000 pezeta ematen zuten. Elur sasoiak harrapatzen zituzten piztiok gehienetan. Pozoia ere erabiltzen zuten. Piztiak bizirik harrapatzeko era azaltzen du.

### **541. Piztiak erakutsi eta saria jaso (ONA-119/022)**

Piztia harrapatu eta gero, piztia bizkarrean hartuta etxerik etxe ibiltzen ziren, dirua jasotzen. Oñatiko Pagouso elkarteak azeri buztan bakoitzagatik 1.000 pezeta ematen zituen. Oilagorrek nola ehizatzen zituen azaltzen du.

### **542. Baserritarren Ermandadea (ONA-119/024)**

Baserri batzuen artean antolatutako Ermandadea zuten auzoan. Txandaka izaten zuten "puestoko idiskoa" (hazitarakoa). Ganaduren bat galtzen zenean, Ermandadeak ugazabari laguntzen zion. Koixkarrera (Gorobizkar) behi asko ekartzen zituzten idiskotzera. Bost ogerleko kobratzen ziren estaltzeko.

### **543. Auzotar ezagunak (ONA-119/027)**

Domingo Askazubi, Maurizio artzaina, Asakazubiko Joxepa eta Bixentaren ama antzuolarraren kontuak.

### **544. Anaiak soinujoleak (ONA-119/028)**

Jesusen anaiak, Joxe Marik eta Pedrok, soinu zahar batekin euren kasa ikasi zuten soinua jotzen. Gero Santa Ageda batzen eta erromerietan jotzen zuten soinua.

### **545. Gorobizkar, Garibai eta Aurrekomendia (ONA-119/029)**

Nahiz eta oñatiarrentzat Koixkar (Gorobizkar) eta bere Ermandadeko baserri guztiak "Aurrekomendia"n egon, "Aurrekomendia" ez da auzo bat. Hiru auzotako zatiak daude bertan: Larrañaga, Zubillaga eta Garibaikoak hain zuzen ere. Koixkar Garibai auzokoa da.

#### **546. San Balandran erromeria Azalditan (ONA-119/030)**

Auzoko jaiak Corpus Egunetik zortzigarrenean ospatzen dituzte. Azalditako zelaietan San Balandran erromeria ezaguna ospatzen zuen Antzuola, Bergara, Oñate eta Legazpiko jendeak. Hiru dantzari korro egoten ziren, eta borrokak ere izaten ziren.

#### **547. San Balandran jaia abuztuan (ONA-119/031)**

San Balandran egunean Koixkarretik Larrañaga auzoko Antzuelas baserrira joaten ziren konbidatuta. Abuztuaren 20an ospatzen zen San Balandran. Gaur egun Lizargaraten ospatzen da egun hori.

#### **548. Esaerak (ONA-119/032)**

Adar azala eta adar azala botatzea zer den azaltzen du. Beste esaera batzuk.

#### **549. Habaila eta txorikumeak (ONA-119/033)**

Jesusen anaia Felixek "habraillia" (habaila) nola erabiltzen den azaltzen du. Txori habiak bilatzen zituzten, eta txorikumeak handiak zirenean, harrapatu eta etxera ekartzen zituzten, jateko.

#### **550. Jolasak eta eliza kontuak (ONA-119/034)**

Mutikotan txirikiletan jolasten zuten. Elizpean pilotan ere bai. Jaietan goizean mezara eta arratsaldean arrosarioa errezatzera joaten ziren. Garizuman berriz, arrosario ostean kalbarioa egiten zuten eliza barruan.

#### **551. Arta-zuritzea auzolanean (ONA-119/035)**

Arta-zuritzen auzolanean egiten zuten; ilunkaran hasi eta gauean berandu bukatzen zuten. Danbolinean erretako gaztainak jan, esne katilukada bana edan eta bakoitza bere etxera joaten zen.

#### **552. Arta-zuritzen berandura arte (ONA-119/036)**

Ilundu arte artoa sartzen jarduten zuten, gero afaldu eta arta-zuritzera joateko. Gau erdian gaztaina errekin jan, esnea edan eta etxera. Etxe bakoitzetik pitxerkada bana esne eramaten zuten. Bost baserritako dozena bat lagun elkartzen ziren auzolanean.

#### **553. Gari-ebakitzea auzolanean (ONA-119/037)**

Gari-ebakitzea auzolanean egiten zuten. Beste auzo batzuetara ere joaten ziren garia ebakitzera, igitaiaekin. Behe aldeko baserrietan lehenago heltzen zen garia. Gaur egun auzolana ezkatatuta dagoela diote anaia biek.

#### **554. Ira-lekuak pinudi bihurtuta (ONA-119/038)**

Baso bideak auzolanean zaintzen ziren. 40 ira-gurditik gora ekartzen zituzten urtero etxera. Orduko ira-lekuak gaur egun pinudiak dira.

#### **555. Ganadua basoko larrera (ONA-119/039)**

Ganadua egunez basora bidali, eta ilunkaran bila joaten ziren etxeratzeko. San Migel inguruan, ganadua zelaietako bibelarretara eramaten zuten. Lizar hostoa ere orduan biltzen zen.

### **556. Auzoko eliza auzolanean eraikia (ONA-119/040)**

Auzoko eliza Jesusen aitak eta beste zenbait auzotarrek auzolanean egindakoa da. 1925. urtean eraiki omen zen eliza hori. Eltzikorta baserrian bizi zen amerikarrak dohainik bota omen zion zorua elizari.

### **557. Goiko Benta, betidanik ostatu (ONA-127/004)**

Goiko Benta osatu bezala ezagutu du beti. Etxea egin zenetik da benta. Arantzazu nolakoa zen bera umea zela. 200 fraidegai zeuden. Orduko tabernak.

### **558. Eskolan, fraideekin; txangoak Urbiara (ONA-127/007)**

Sei-zazpi urterekin hasi zen eskolan, fraideekin. Jose Luis Sarrigoitia maisua, oso ona. Urbiara joaten ziren udan, eskolatik. 1924an egin zen Urbiako eskola. Artzainak, zegamarrak eta.

### **559. Gerra izan zenean, ez zuten asko igarri (ONA-127/009)**

Gerra hasi zenean, umea zen, eta eskolan erdaraz ikasi behar zuten. Gerra ez zuten asko igarri. Auzoko mutil asko joan ziren, kintak harrapatuta.

### **560. Gerra garaian, Arantzazun ospitalea (ONA-127/011)**

Arantzazuko ostatuan ospitalea jarri zuten gerra garaian, urtebetean edo. Soldaduak egon ziren.

### **561. Esnea saltzen zieten fraideei (ONA-127/013)**

Bentaz aparte, ganadua ere bazuten. Esnea fraide komentura saltzen zuten, egunero. 8-10 esne behi. Behorrak eta artaldea, ehun bat ardi.

### **562. Arantzazuko haizea, medikuak gomendatua (ONA-127/018)**

Gaixo zeuden umeekin joaten ziren familia batzuk, sendagileak mendiko giroa gomendatuta. Eta umeak osatu egiten ziren.

### **563. Egunean eguneko jana, beti freskoa (ONA-127/020)**

Hozkailu gabe ondo konpontzen ziren. Kaletik ekartzen zuten jana, egunean egunekoa. Gatz-arkak. Dena freskoa jaten zuten. Txerria hiltzen zuten. Arraina gutxi erosten zen. Autobusa egoten zen Oñate;atira joateko, "diarixua". Fraideen kamioian, bestela. Bildotsak astoarekin eramaten zituzten harategira.

### **564. Etxeko lan banaketa (ONA-127/022)**

Jatorduak antzekoak ziren. Ama sukaldari ona zen. Kroketak, postreak... Etxeko ardura banaketa. Artoa errotara eraman, eta taloak, gose denboran. Babarruna, patata. Emakumeak, etxeko lanetan. Lehen, albergan, eskuz, garbitzen zituzten arropak. Ez du "puxeta" ezagutu. Lihoa ere ez.

### **565. Eguraldia lehen eta orain, antzekoa (ONA-127/025)**

Eguraldia lehen eta orain antzekoa dela dio. Negu gogorrak eta onak, denetik izaten zirela; lehorreak ere bai. Euria eskatzeko mezak, eta eguraldi ona egiteko ere bai.

### **566. Harremana fraideekin eta fraidegaiekin (ONA-127/026)**

Fraideekin harreman ona zuten. Fraidegaiak Iturrigorri aldera joaten ziren; familiakoekin joaten ziren bentara. Erromesaldiak; autobusetan joaten ziren Arantzazura. Bidea nolakoa zen.

### **567. Artzainen umeak, eskolan Arantzazun (ONA-127/029)**

Urbiara norekin joaten ziren. Urbiako artzainen umeak ere Arantzazura joaten ziren, Aita Lasarengana, udan. Maiatzean joaten ziren Urbiara. Artzainak Oñatira joaten ziren, zaldiz Arantzazura eta gero autobusean.

### **568. Estraperloa eta errazionamendua (ONA-127/035)**

Goiko Bentako sukaldea nolakoa zen. Egurra eta ikatza, ekonomikarako. Labesua. Ogia egiten zuten batzuetan. Errazionamendu garaian, taloak. Errotara joaten ziren. Garia gauzez ere eho izan zuten. Arabatik ekarritako irin zakuak. Kontrolak. Patata entregatu beharra.

### **569. Basilika berria, Oteiza eta Aita Santuaren baimena (ONA-127/037)**

Basilika berria egin zutenean, Oteiza Goiko Bentan egon zen. Lanen arduraduna, Martin Inda, hamabi urtean egon zen bertan apopilo. Bost logela zituzten lehen; hamar gehiago egin zituzten. Eliza bukaeran joan ziren Oteiza eta. Pascual de Lara margolaria hil egin zen. Muñoz. Basterretxea. Aita Santuaren baimena, apostoluak egiteko.

### **570. Franco Arantzazun, eta haren emaztea Goiko Bentan (ONA-127/042)**

Franco Arantzazun egon zenekoa. Paliopelan sartu zuten elizara. 1940 urte inguruan izan zen. Beste egun batean Francoren emaztea egon zen Goiko Bentan bazkaltzen.

### **571. Telefonoa jarri zutenean (ONA-127/048)**

Etiketrik ez ziren asko irteten, beti lanean. Telefonoa jarri aurretik, ospederiara joaten ziren; han zegoen zentrala.

### **572. Gazta egiteko prozesua I (ONA-127/050)**

Gazta beti egin izan dute. Amak utzi zionean bera hasi zen. Inspektoreak hasi zirenean, esnea saltzen hasi ziren. Gazta egiteko prozesua. Osinak, ilerik ez pasatzeko. Gatzagia. Prentsa.

### **573. Gazta egiteko prozesua II (ONA-127/052)**

Gazta egiteko prozesua esplikatzeko jarraitzen du. Gatz uretan sartzen zuten gazta, lehortu aurretik. Kea, kolorea emateko.

### **574. Txorizoak egiteko prozesua (ONA-127/054)**

Txorizoak nola egiten zituzten. Txerriaren zatiak. Paletak, solomoak... Piperrak, gatza, piper hautsa... Hirugiharra, urdaia. Eskuz txikitzen zuten. Berakatza. Bi egunean salmoeran. Hesteak erosi egin behar, txahalarenak.

### **575. Odolosteak eta "mortzilak" (ONA-127/056)**

Buzkantzak eta odolosteak nola egiten zituzten. Tipula eta porrua. Arrozarekin ere egiten zituzten: "mortzilak". Orain ezin egin, debekatuta dago eta.

### **576. Eskola ez zen neskatiletzat, amaren ustez (ONA-128/001)**

Amak esaten ziona: neskatilek ez duela eskolarik behar, etxeko lanak direlako haren ardura. Umetan, baserriko lanak. Itaurrean, gurdia kargatzen... Amari aurpegiatu zion eskolara bidali ez izana.

### **577. Gurasoek nola ezagutu zuten elkar (ONA-128/005)**

Aitak eta aitona Murgialdai baserriak egin zituzten, harginak ziren. Landetako atletik pasatzen ziren etxerakoan, eta han esan zieten lau alaba bazituztela. Haietako batekin ezkondu zen. Ama 18 urterekin joan zen Araotzera. Baina bera baino urrutiagotik joandakoak ere baziren.

### **578. Garaineko ekonomatoan ikasi zuen kontuak egiten (ONA-128/009)**

Garaik ekonomatoa zabaldu zuenean, hara lanera joateko eskatu zioten. 16 urte egin zituen han. Han ikasi zuen kontuak egiten, baita idazten ere. Etxeko sukaldean egiten zituen letrak umetan, ikatzarekin, umetan.

### **579. Gasteizko Casinoa bota zutenekoa (ONA-128/010)**

Anai baten kontuak. Gasteizko casinoa botatzeko eskatu zion arkitekto batek. Casinoko materiala berehala desagertu zen, jendeak txabolak egiteko hartu zuen eta.

### **580. Zortzi urterekin neskame, Garagartzara (ONA-128/013)**

Oso gazterik irten zen etxetik. Lagun batek eta biak arrandegia jarri zuten kalean. Zortzi urterekin neskame joan zen Garagartzara. Hango pasadizo bat. Amandrea joan zen bere bila, ez zutelako oso ondo tratatzen.

### **581. Donostiara neskame (ONA-128/015)**

Donostiara joan zen hamabost bat urterekin, neskame. Liburutegiak zituen kondea zen ugazaba. Txaleta. Maria ahizpa eta biak joan ziren, baina ahizpa bidali egin zuten. Han egiten zituen lanak: sukaldari, txakurzain... Emaztea frantsesa zen. Narziso anaia joaten zen soldataren bila.

### **582. Aitaren heriotza eta ahizparen jaiotza (ONA-128/016)**

Aita gazte hil zen. Hargina zen. Don Basiliok aitari esan ziona. Aitaren arnasa-estua. Ahizpa jaio zenean hil zen aita; ahizpa horren kontuak, Garainean egon zela neskame.

### **583. Txomineneara dantzara (ONA-128/018)**

Txomineneara joaten ziren dantzara, igande arratsaldetan, Donostian neskame zegoela. Neskame asko elkartzen ziren han. Bi urte inguru egin zituen.



#### **584. Arrandegia jarri zuen Plaxidarekin (ONA-128/019)**

Anaiak gerratik etorri zirenean, aldeko Plaxida Lazkanok arrandegia jartzea proposatu zion. Etxean animatu egin zuten. Berdura plazan egon ziren lehenengo eta gero Irizar okindegiaren parean. Plaxidaren familiaren kontuak. Amaren josteko makina.

#### **585. Arrandegia ixteko arrazoiak (ONA-128/021)**

Plaxida laguna Donostiara ezkondu zen, eta bera geratu zen arrandegiaren kargu. Kanpoko emakumeak hartu beharra arazo bihurtu zitzaion. Gizona itsasoan zegoen. Itxi egin zuen lokala, eta jabeak salaketa jarri zion. Reyes Korkostegik esan ziona. Zezinena bizarginari eman zion lokala.

#### **586. Arrandegiko kontuak: arrain klaseak (ONA-128/023)**

Donostiatik ekartzen zuten arraina, trenean. Morenok ekartzen zion dendaraino. Lagunaren nobioak bidaltzen zien arraina. Saltzen zituzten arrain motak aipatzen ditu. Mariskoa jateko ohitura handirik ez zegoen. Erosleak.

#### **587. Gose garaiko kontuak (ONA-128/024)**

Arrandegia noiz ireki zuen, gerra ostean. Gose garaia. Galarza aurrean bizi izan zen 33 urtean; izeba batek babarruna eramaten zion. Atea irekita egoten zen, eta emakume batek babarrun katilukada ostu zion.

#### **588. Pasaiaiko Botero tabernan lanean (ONA-128/027)**

Senarra Pasaian ezagutu zuen, Botero tabernan zegoela lanean. Andre batek esanda joan zen. Mostradorean egoten zen, zorua garbitzen zuen. Ospelak. Txikitoak. Joxe Botero zein zen, arraun entrenatzailea. Luzuriagako langileak joaten ziren babarrunak jatera.

#### **589. Joxe Boteroren kontuak (ONA-128/028)**

Joxe Boteroren kontuak. Haren ontzia hartuta arraunean joaten zen bera, baina ez zekien igerian.

#### **590. Anaiak gerran eta beraiek goldearekin lanean (ONA-128/030)**

Gerra hasi zenean, etxean zegoen. Anaiak gerrara eraman zituzten, eta ahizpak ibili behar izan zuten goldearekin lanean. Francok eraman zituen anaiak; zaharrenak zortea izan zuen, besteari bala pasatu zitzaion buru gainetik.

#### **591. Araoztar bakarra hil zen gerran: Sinforoso Zumalde (ONA-128/031)**

Gerran bakarra hil zen Araoztik. Hogeitik gora joan ziren. Meza eskaini zion Arantzazuko Ama Birjinari, denak osorik bueltatzeko. Hil zen mutil horrek ahizpari esan ziona. Sinforoso Zumalde. Teruelen hil zen. Nola ekarri zuten, eta nolako hileta dotorea egin zitzaion. Baltsamatu egin zuten gorpua; santua zela zabaldu zen.

#### **592. Gerra garaiko elikadura (ONA-128/033)**

Gerra garaia. Ama larunbatero joaten zen plazara. Aizgaineke txabolatik patata ekartzen zuten gurdiaekin. Oiloak, esnea, azukrea, txokolatea...

Hamabi behi izaten zituzten. Txahalak. Patxi "Txolo" joaten zen okela bila. Kirrineneko harategia.

### **593. Oñatin zeuden arrandegiak (ONA-128/034)**

Zenbat arrandegi zeuden, bera gaztea zela: Kaximira eta Guadalupe. Arrasatetik Txantxote joaten zen. "Peskadorek" (Moyua) ere jarri zuen arrandegia. Lau arrandegi. Pasadizo bat, neskame batek kexua, legatza ez zelako freskoa.

### **594. Soldaduak baserrian; hegazkina erori zen Aretxabaletan (ONA-128/036)**

Gerra garaian, militarrek Araotzen. Etxean izan zituzten soldaduak; bat lruñekoa zen. Frontea geldu egon zenekoa. Beste etxe batzuetan ere bazeuden. Araotzen tirorik ez, baina hegazkinak bai. Elizan bezperetan zeudela entzun zutena: hegazkina erori zen Aretxabaletan.

### **595. Senarra, marinela (ONA-128/037)**

Senarra izango zena Pasaian ezagutu zuen. Eskutitz pila bat idatzi zioten elkarki. Kartak komunera botatzen zituen berak. Arantzazun ezkondu ziren, eta kalera joan ziren bizitzera. Bankuko Jaimek etxea erosi zion Olakuan. Senarra itsasontzi handietan ibiltzen zen: Txina, Japonia...

### **596. Itsasgizona ala baserritarra hobe? (ONA-128/039)**

Itsasoko gizonarekin ez ezkontzeko gomendatu zion Narzisok. Berak zer erantzun zion. Anaiaren ezkontzan elkartu ziren, eta gustatu egin zitzairen senargaia. Hika. Julian Txopitea zuen izena senarrak, eta Lekeitiokoa zen.

### **597. Itsasokoek baserritarrak nola ikusten zituzten (ONA-128/042)**

Senarra ohitu zen baserriko bizimodura, baina atzeratua iruditzen zitzairen. Lekeitioko antzara eguna. Senarra izeba batek hazi zuen, lehengusuekin. Marina izeneko batek esan zion ontzian zorabiatu egingo zela, baina alderantziz gertatu zen.

### **598. Etxe batean ezin bi esklabu egon (ONA-128/044)**

Bizimodu gogorra izan zuen. Negarrez pasatzen zituen gauak, senarra hain urruti izanda. Baina sekula ez inoren aurrean. Garain hasi zenean lanean, senarra etxera eramana zuen. Bizimodu ona izan zuen aurrerantzean hark.

### **599. Araozko plazan dantzan; soinu-jotzaileak (ONA-128/047)**

Ez zen erromerietara joaten, senargaia zuelako. Aurretik, Araozko plazan ibiltzen ziren dantzan igandero. Txapartak jotzen zuen soinua; umezurtza zen. Anixetak jotzen zuen panderoa. Amak zazpi seme-alaba ikusi zituen dantzan: larri, zazpi pare alpagata apurtuko zituztelako.

### **600. Brinkolatik Araotzera oinez joan zenekoa (ONA-128/049)**

Maria ahizpa Nuarbeko mutil batekin ezkondu zen. Bisitan joan zen batean, trenak ihes egin zion. Brinkolatik Araotzera oinez joan zen. Amak esan ziona. Brinkolatik Olabarrietara bidea zegoen. Urbiara joaten zen jendea.

### **601. Bide ertzean hartutako sustoa (ONA-128/050)**

Amak kalera bidali zuen enkarguak egitera, astoarekin: Zapata inguruan, gizon bat ikusi zuen. Sustoarekin dardarka. Gerra denbora zen.

### **602. Aita lur-jabeentzako lanean (ONA-130/002)**

Aita nekazaria zen. Etxean behi bat eta astoa bazituen, baina lur-jabeentzako egiten zuen lan. Idiak eta horrelakoak "señorituek" bakarrik omen zeuzkaten. Lehengo ohituretan etxeak etxebizitza bakarrekoak ziren, ukuilu eta guzti.

### **603. Aita Oñatira lan bila (ONA-130/003)**

Bizimodua estu ikusten zuen aitak, eta berak bakarrik trena hartu eta Ciudad Rodrigotik Brinkolara etorri zen. Handik Oñatira eta bertan "Forjas de Zubillaga" lantegian aurkitu zuen lana.

### **604. Oñatin, familiarentzako etxea txukuntzen (ONA-130/005)**

Oñatiko Haitzekua denda gaineko ganbara alokatu eta etxebizitza itxura eman zionean, Moralejan geratu ziren emazte eta umeak ekarri ahal izan zituen Eusebioren aitak. Urtebete geroago industria krisi larrian sartu zen, eta aitak lana galdu zuen. Gutxieneko soldatarekin geratu zen langabezian.

### **605. Moralejara eta berriro Oñatira (ONA-130/007)**

Aita gutxieneko soldata kobratzen geratu zenean, Moralejara itzuli zen familia, gurasoak eta anaia bi. Sei hilabete geroago, aitak Oñatitik abisua jaso zuen lanera itzultzeko. Itzuli egin zen, eta etxea bilatzen ziharduela, hirugarren semea jaio zitzaion Moralejan. Triana auzoan (Gaur M. Azaoratza kalea) alokatu zuen etxea, eta berriro familia elkartu ahal izan zen.

### **606. Umetan euskara ezin zuen ulertu (ONA-130/008)**

Moralejatik bigarrenez etorri zirenetik Oñatin bizi dira. Hasieran, Eusebio jolasera kalera irteten zenean, negarrez bueltatzen zen etxera, ezin zuelako euskara ulertu. Ez omen zegoen etorkin asko Oñatin. Bere aita izan zen Oñatira etorritako lehen extremadurarra. Eusebiok lagun artean ikasi zuen euskara.

### **607. Etorkinak Oñatiko tabernetan (ONA-130/009)**

Galiziar batzuk ba omen zeuden Oñatin. Gaurko Galizia Taberna, orduan "Bar Caserío" omen zen. Eusebioren aita etorri berri zela, Txopekua tabernan ez zioten txikito bat atera tabernariak erdara ulertzen ez zuelako.

### **608. Familia Oñatin ondo integratu zen (ONA-130/010)**

Euren jokaera ikusita, Eusebioren familia laster onartua izan zen Oñatin, eta herritarrek integratzen lagundu zieten. Gurasoak eta seme-alabak euskaldundu egin ziren. San Martineko bola eta tokea jokoak gogoratzen ditu Eusebiok.

### **609. Lehengo tabernak (ONA-130/012)**

Esteban Urmenetak "Bodegón Xolonpo" taberna kudeatzen zuen, Galarza medikuaren etxe parean zegoena. Gero galiziar batzuk hartu zuten taberna hau. Izarra taberna ere ezagutu zuen.

### **610. Txikiteroen greba (ONA-130/013)**

Ardo txikitoaren prezioa pezeta batera igo zutenean, jendea protestatzeko marmiritan ardoa hartuta ibiltzen zen, kalerik kale, tabernen aurrean edaten. Mendiko kaleko saskigintza gogoan du Eusebiok.

### **611. Akelena baserria (ONA-130/014)**

Akelena baserria eta bere ondoan zegoen Mendaroren zerrategia (gaur biak galduta) ezagutu zituen. Santa Marinako Herriko Eskola ere bai. Eusebio ez zen inoiz eskolara joan.

### **612. Umetan zumar-zuritzen (ONA-130/015)**

Atzeko kaleko "Cestería Madina"n hasi zen lanean Eusebio, zumar-zuritzen bederatzi urterekin. Txarrantxan pasatu ondoren, neskatila-mutikoek eskuz kentzen zituzten azalak. Otzarak eta aulkiak egiten zituzten. Bi urtez jardun zuen Eusebiok zumar-zuritzen.

### **613. Saskigintzatik okindegira (ONA-130/016)**

Zumar-zuritzen zebiltzan neskatila-mutikoak ez ziren eskolara joaten. 11 urterekin, Egañarenean okindegian hasi zen lanean. Ogia nola egiten zuten azaltzen du. 1.100 irin kiloren ogia egiten zuten egunero.

### **614. Konbentuetarako ogia (ONA-130/017)**

Oñatiko fraide eta moja guztientzako egiten zuten ogia Egañarenean. Ugazabaren emaztea dendan egoten zen, eta semeak ogiaren banaketa egiten zuten.

### **615. Zahor txokolatearen hasiera (ONA-130/018)**

Txokolatea ere egiten zuten Egañarenean. Iñaxio ugazabak egiten zuen lan hori. Hemen jaio zen Zahor izenarekin ezagutuko zen txokolatea. 16 urtera arte egin zuen Eusebiok lan Egañarenean.

### **616. Okinen lanak (ONA-130/019)**

16 urterekin "Pilas Tximist" (gaurko Cegasa Internacional) lantegian ekin zion. Okindegian ziharduenean, arratsaldean egiten zuen lo, ilunkaran lagunekin jolas, afaldu eta berriro ohera. Goizeko ordu batean lanera. Lau neurritako ogiak egiten zituzten. Inauterietan "Viena" ospetsuak eta garizuman "karapaixoak" ere egiten zituzten.

### **617. "Karapaixoak" (ONA-130/020)**

"Karapaixoak" nola egiten zituzten azaltzen du. Pila lantegian hasi eta gero, okindegian ere egiten zuen lan asteburu batzuetan.

### **618. Eusebio pila lantegian (ONA-130/021)**

Pila lantegian hasi zenean, agindutako guztiak egiten zituen. Geroago, pila ekoizpenean erabiltzen zuten ore berezi bat egiteko makina ekarri zuten, eta makina horretan hasi zen lanean.

### **619. Lan larregi egiten zuen (ONA-130/023)**

Ore berezia egiten zuen makinaren ardura hartu zuenetik, egunean 15 orduz egoten zen lantegian, zazpi egun astean. Ama larritzen hasi zen, semea

nahastu egingo zitzaiolakoan, eta aitak pila lantegiko nagusiekin hitz egin zuen.

### **620. Eusebio talde-buru (ONA-130/026)**

Eusebio talde-buru jarri zuten eta ordutegi normalean jarraitu zuen lanean. Horrela zegoela, soldadutza garaia iritsi zen. Soldadutzako baimen aldietan ere lanera joaten zen. Ulma kooperatiba sortu zenean, Kurtzetxon, bertan bazkidetzeko aukera izan zuen.

### **621. Triana auzoa (ONA-130/029)**

Triana auzo zaharreko kale-baserri, denda, taberna, labadero, trapero, etab. ekartzen ditu gogora.

### **622. Trianako beste denda batzuk (ONA-130/030)**

Trianan orain santua dagoen pareko etxean bizi zen. Artean ez zeuden auzoan Beilotzaren pentsu biltegia eta ezta beste dendatxoa ere. Esteban "Xolonpo"k kalean taberna eta Trianan fruta biltegia zituen.

### **623. Larraña auzoko baserriak (ONA-131/002)**

Antonena baserrian jaio zen. Non zegoen azaltzen du. Lehengo baserriak: Joxuena, Azkoitixena, Mendiola, San Lorentzo, Danbolin... Larraña auzoa, goia eta behea. Olako errota... Bidebieta eta Larrañako beste hainbat baserri aipatzen ditu.

### **624. Koixkar eta menditarrak; Lizargarate (ONA-131/003)**

Menditarrak elkartu egin ziren: Koixkar esaten zioten. Eskolari buruzko kontuak, errepublika garaian. Agustindarren etxea. Duruan eta Alkorta. Lizargarateko jaia, santurik gabeko santua.

### **625. Hiru tokitan eskolan: ospitalea, Santa Marina eta unibertsitatea (ONA-131/005)**

Eskolan gerra garaian ospitalean ibili zen, Sor Paulinarekin. Santa Marinar hiru eskola zeuden; Don Manuel Zendoia maisua. Maristak etorri zirenean, hara, unibertsitatera.

### **626. Baserriko lanak eta erlijioaren indarra (ONA-131/007)**

Bost ikasturte egin zituen unibertsitatean. Zerrategia jarri zuten etxean. Baserriko lanak. Arrebak etxetik joan ziren, eta anaia zaharrena eta bera geratu ziren; hura karretero zen. Beste anaia agustindar joan zen, 14 urterekin; hari etxeko janari onena eramaten zioten gose garaian. Arreba bat ere moja.

### **627. Serenoa ate joka tabernan, gauerdian (ONA-131/008)**

Parranda pixka bat egiten zuten, baina beti lanean, larunbatetan ere bai. Kalera afaltzera joaten zirenetan, serenoa ate joka gauerdian. Egun berezietan goizeko ordu biak arte egoten uzten zuten. Txarriduna.

### **628. Serenoa isilarazteko modua (ONA-131/010)**

Serenoak erosi egiten ziren. "Cuba" tabernan elkartzen ziren karreteroak; kafea eta puroa ordaindu, eta serenoa isilik. I&ntilde;axioren idiak bakarrik joaten ziren etxera. Zeintzuk egoten ziren tabernan.

### **629. Oñatin hamaika zerrategi; egurraren garrantzia (ONA-131/011)**

Oñatin 11-12 zerrategi zeuden, eta dozena bat lagun lanean bakoitzean. Igartua, Arretxe, Olalde, Galdos, Txintxurreta... zerrategiak aipatzen ditu. Karreteroak ere asko zeuden. Egurrari eskerrak familia asko bizi izan da. Pinua.

### **630. Egur asko saltzen zuten eraikuntzarako (ONA-131/012)**

Egur lanak. Enbalajea. Eraikuntza: enkofratua eta marketeria. Non saltzen zuten beraiek: Gipuzkoan, Bizkaian, Valentziara... Eraikuntzako egurra. Neurri jakinak. Egiten zuten dena saltzen zen. Negozioaren beherakadak noiz egon ziren. Orain ez da egurrik erabiltzen ia.

### **631. Juan Garai eta Toki-eder (ONA-131/016)**

Toki-eder bere aitak 18 bat urte zituenean egin zuen Juan Garaik (Inazioaren aitajaunak). Hiru-lau baserri erosi zituen: Larraña Etxeberri... Denak bota, eta berriak egin zituen. 1940an hil zen; gorpua nola eraman zuten gogoratzen du. Banaketa egin zuten hiru semeen artean.

### **632. Toki-Ederren historia (ONA-131/018)**

Txirringainena erosi zuen Juanitok, eta itxitura egin zuen. Juanito eta Cornelio Garai anaiak haserretu ere egin ei ziren elkarrekin, lur kontuengatik. Tunela Juan Garaik (Juanitoren aitak) egin zuen: derrigortu egin zuten lehengo bidea irekita uztera. Elizbidea zegoen San Lorentzora joateko. Ugarkaldekoak.

### **633. Artxubiko zerrategia (ONA-131/022)**

Artxubiko zerrategia osabak, aitak eta koinatuak jarri zuten, 1945ean. Anaiak eta berak egin zuten lana zerrategian. Artxubiko kontuak.

### **634. Egurraren prozesua I (ONA-131/024)**

Egurraren prozesua. Dena eskuz, hasieran. Polea sistema. Enbor-gurdia. Esku-zerrarekin ebakitzen zuten. Lehen motozerra Bordelen ikusi zuen; zerra elektrikoa, 1965 inguruan. Nafarrei erosi zizkieten motozerrak oñatiarrek.

### **635. Egurraren prozesua II (ONA-131/027)**

Enborra luzeran ebaki, oholak egiteko; begiz egiten zuten. Izkinak nola kendu. Azala ere aprobetxatu egiten zuten: alakak. Enbalajerako. Dena saltzen zen. Plazentzia, Bergara, Eibar... Baserritarrek pinuak botata erosten zituzten etxeak.

### **636. Egur motak, eta zuhaitzak noiz bota (ONA-131/028)**

Lizarra, alkazia, altza... Egurraren bizioak. Apalategiak. Tarima. Arbolak botatzeko, ilbehera. Haritza, pagoa... noiz bota behar diren. Uztarria, pagoarekin. Lihoputzuan edukitzen zituzten pago enborrak.

### **637. Pedro uztargilea etxez etxe (ONA-131/030)**

Uztargilea etxez etxe joaten zen; idiei neurriak hartu, eta bertan egiten zuen uztarria. Goiz batean egiten zuen. Pedro Lizarralde.

### **638. Pedro uztargilea (ONA-131/032)**

Pedro uztargilearen kontuak. Feria eguna. Lokala non zeukan. Neurria egindako uztarriak ere izaten zituen, prest. Uztarriak nola konpontzen zituen. Idiak eta behiak.

### **639. Ikasketak: maristak, batxilergoa eta Perito Mercantil (ONA-133/002)**

Eskolan 12 urte arte maristetan ibili zen, unibertsitatean. Maristak joan egin ziren gerra garaian; orduan batxilergoa jarri zuten han, institutua. Sei urteko ikasketak ziren. Beste lagun bat (Migel Aspiazu) eta bera Donostiara joan ziren soldadu, boluntario moduan, ikasten jarraitu ahal izateko. Perito Mercantil, hiru urtekoa.

### **640. Gerra ondoren, Galdos karretila-lantegira (ONA-133/004)**

Merkataritza-peritu izateko, akademia batean ikasi zuen, Donostian. Hori egiten hasi, eta gerra hasi zen. Gerora, hiru urte egin zituen Langileen Batailoietan. Oñatira bueltan, bulego batean hasi zen lanean, Galdos karretila-lantegian. Non zegoen.

### **641. Galdos karretila lantegia II (ONA-133/006)**

Galdos karretila lantegiko bulegari. Zein tresnaren kirtanak egiten zituzten han. Egurrezko karretilak, eta gero metalezkoak. Domingo Galdos zen ugazaba.

### **642. Torreko kontuak eta Kale Zaharrekoak (ONA-133/009)**

Torre auzoko dorrean tabernarik ez zegoen gerra aurretik. Ganadua bai. Soroan ere laguntzen zuen mutikotan. Itaurrean egiten zuen batez ere. Anaia gehiago joaten zen. Bi osaba bizi ziren han orduan, bata ezkondata. Kale Zaharrean zegoen bizikleta denda, Aloña; gerra ondoren taberna jarri zuten.

### **643. Kale Zaharreko negozioak, gerra aurrean (ONA-133/011)**

Kale Zaharreko dendak, gerra aurrekoak. Fonda Ona. Illarramendi. Guereka txokolateak. Lasena. Uztargillena. Arrillaga txokolateak. Leturia botika. Bujero taberna eta jatetxia. Txaketua. Bi pelukeria; Nicolasen aita. Patxitxorena gerra ostekoa da. Bankua.

### **644. Kale Zaharreko negozioak II; aita banastagina (ONA-133/013)**

Kale Zaharreko negozioak. Rodrigo Mugarzaren harategia. Luixena. Janari denda. Sillero gerokoa da. Bera etxe hartan jaio zen. Aita banastagina zen, eta tailerra zeukan etxe azpian. Sastreria eta ile apaindegia. Juan Igartua sastrea. Aurelio bizargina.

#### **645. Banastagintza eta institutoa (ONA-133/014)**

Banastagin gehiago ere bazeuden Kale Zaharrea. Egurra baserritarrek ekartzen zioten, gaztaina. Arrobaka. Uda bukaeran erosten zuten egurra, urte denerako. Aitari laguntzen ibilia da. Institutuan ez zuen astirik. 1928ko urrian hasi zen; matrikulak 100 pezeta balio zuen, liburuak bost duro. Aita 06:30ean jaikitzen zen, 12:30ean bazkaldu eta gero 20:30 arte lanean. Zazpi senidetan zaharrena.

#### **646. Euskaraz egiteagatik zigorra, gerra aurrean (ONA-133/016)**

Dena erdaraz ikasi zuen. Errepublikaren denbora. Euskaraz egiteagatik maristek zigorrak jartzen zituzten.

#### **647. Onraitaren lantegian I (ONA-133/018)**

Karretila lantegian hamar urtean ibili zen. Gero, 32 urte egin zituen beste tresna lantegi batean, Onraitarean. Aizkorak, aitzurrak... egiten zituzten. Espainian saltzen zuten. Lan faltarik ez. Administrazioa eramaten. 36 bat langile. Patricio Etxeberriatik ekartzen zuten burdina. Ugazabak: Benito Onraitaren eta Patxi Mendiola.

#### **648. Onraitaren lantegian II: prozesua (ONA-133/019)**

Aizkorak eta aitzurrak nola egiten zituzten. Labean berotu eta mailu mekanikoekin forma eman. Aizkora motak. Zorroztu egiten zituzten, eta pulitu. Gorriak pintatzen zituzten. Emakumeak, enpaketatzen. Kamioiz bidaltzen zituzten Zumarragara eta trenez.

#### **649. Onraitaren lantegian III: azken urteak (ONA-133/021)**

Bera jubilatutik aurretik jabez aldatu zen Onraitaren lantegia, eta ondoren itxi egin zen; langile gehienak Mugarza, Ugarte y Compañía fundiziora joan ziren lanera. Txintxurreta eta Garai.

#### **650. Urbian, Aita Lasarekin I (ONA-133/022)**

Mendizalea izan da. Domekero Urbiara joaten zen. Aita Lasa laguna zuen; meza ematera joaten zen hura, eta bera laguntzera. Euskaraz izaten zen. Eloi Tejada bilbotarra ere elizmutil lanetan. Preso egona zen hura ere. Zegaman zebilen lanean, paper lantegian; Brinkolatik igotzen zen. Ermitan bertan bazkaltzen zuten.

#### **651. Urbiako ermitaren inaugurazioa (ONA-133/025)**

Urbiako ermitaren inaugurazioan egon zen 1924an, aitarekin. Mutikoa zen. 18 bat urterekin hasi zen domekero joaten. Gerra denboran lau urte egin zituen Oñatira etorri gabe.

#### **652. Oñatiko abesbatzakoaren eta bandakoaren (ONA-133/026)**

Oñatiko abesbatzaren ere ibili da, puntura arte. Mutikotan hasi zen. Lehen dena gizakumeak. Solfeoa umetan ikasi zuen, Don Casimiro apaizarekin. Organista. Kantuak ez dira asko aldatu. Ez ziren kanpora joaten, beti parrokan. Bandan klarinetea jotzen zuen, gerra aurretik. San Inazio eguna; plazan jo eta diana, jai egun berezietan. Ibilbidea.



### **653. Ospitaleko administrailea I (ONA-133/029)**

Ospitale zaharrean hasi zen, administratzaile moduan; gero, Etxaluzen egon zen ospitalea. 25 bat lagunentzat zegoen tokia. Berriaren fundatzaileetako bat da.

### **654. Ospitalekol administratzailea II (ONA-133/031)**

1974ean inauguratu zuten ospitale berria. 1966 urte inguruan egon zen bera ospitale zaharrean. Reyes Korkostegik eskatu zion administrazioaren kargu egiteko. Erresidentziako administrazioa eraman zuen 2002. urtera arte, debalde. Milagrosako mojak noiz etorri ziren Oñatira.

### **655. Emaztea nola ezagutu zuen (ONA-133/035)**

Emaztea nola ezagutu zuen kontatzen du. Gorputz Eguna zen, 1947 urte inguruan. Txantxiku Txokon orkestra zegoen, kanpokoa, eta bi neskak gonbidatu zituzten hara; plazan dantzan zebiltzan neskak. Etxera lagundu zion. Oñatiko jaietan pixka bat hobeto ezagutu zuen. Lau urte nobiotan.

### **656. Jaietara nora joaten ziren (ONA-133/037)**

Bergarara joaten ziren hango jaietan. Bestela, beti Oñatin. San Pedro, Zubillaga, Olabarrieta... auzoko jaietara ere joaten ziren, Araotzera eta Urrexolara ez. Neska laguntza herrian bertan egiten zuten. Nobiotan lau urte eginda ere, beti formal.

### **657. Osintxutik bueltan guardia zibilekin izandako arazoa (ONA-133/040)**

Osintxutik Bergarara trenean zihoazela, ika-mika izan zuten batzuekin, leku faltarengatik. Guardia zibilak sartu ziren, Labe Garaietan; besteen lagunak ziren, eta atxilotu egin nahi zituzten. Etxera iritsi, eta Oñatiko guardia zibilak joan zitzaizkion etxera. Joateko komisariara. Arrasatera eraman zuten. Gero, libre utzi zuten, Reyes Korkostegiri esker.

### **658. Oñatiko "Ductor" akademia (ONA-134/002)**

Arantzazun bertan hasi zen eskolan. Batxilergoa Oñatiko akademia batean hasi eta Donostiako Peñafloida Institutuan bukatu zuen. Oñatiko "Ductor" akademiaren historia azaltzen du. Ikasketa orokorrak eta merkataritza irakasten zuten akademian.

### **659. Arantzazuko Benta omen zen jatorrian (ONA-134/004)**

Migelen etxearen jatorrizko izena Arantzazuko Benta zen. Fraideek jarri omen zioten "Goiko" Benta izena. Kortakogaingo Bentaren historia azaltzen du. Arrikruz baseritik pasatzen zen galtzada, Calahorra-ra zihoan. Arantzazuko fraideak han ordenatzen ziren.

### **660. Ostatuko ganbaretan ere erromesak (ONA-134/005)**

Arantzazuko Ama Birjina agertu eta laster sortu zen Arantzazuko Benta. Arantzazuko ostatuen bilakaera azaltzen du Migelek. Garai batean, udazkeneko zapatu gauetan, ostatuko ganbarak ere erromesek betetzen ziren.

### **661. Frigorifikorik ezean, zezina (ONA-134/006)**

Ostatuaz aparte, baserria ere bazen Goiko Benta. Etxeko txahal, txerri, ardi zahar, eta abarreen okelak prestatzen ziren ostatuko sukaldean. Urte batean, Arrosarioetarako behi bat eta hiru ardi hil omen zituzten. Eguraldia oso txartu zen eta okela guztia zezinatu egin behar izan zuten. Zezina nola egiten zuten azaltzen du.

### **662. Morroiak baserrian (ONA-134/007)**

Gurasoak eta zazpi anai-arrebak bizi ziren etxean, eta beti izan dute morroi edo neskameren bat. Morroietako bat nafar estraperlista bat izan zuten. Oñatin oso ezaguna zen "Juan Pelotas" ere izan zuten morroi.

### **663. Komentuko ganadu hiltegia (ONA-134/009)**

Esne behiak zituzten, fraideen komenturako esnea ekoizteko. Fraide eta ikasleen artean, 300 bat lagun egoten omen ziren komentuan. Goiko Bentako txahalak ere komentura joaten ziren. Komentuan euren hiltegia zuten. Nafarroara eskean joanda, fraideek urtero 40-50 ardi ekartzen zituzten Arantzazura.

### **664. Ardiak larreratzeko basoak (ONA-134/010)**

Fraideek Gomiztegi baserria erosi zutenean, bertarako errepidea egin zuten, dinamitaz eta pikatxoiz. Etxean artaldea beti ezagutu du Migelek. Ikatza egiten zen garaian basoak garbiak zeuden, eta ganadua bertan larreratu ahal izaten zen. Malla-Urbia, Aloñe edota Artaso-Gabonoko baso eta larreetara bidaltzen zituzten ardiak Arantzazuko baserritarrek.

### **665. Moxalekin oinez Iruñeraino (ONA-134/011)**

Gaztetan hasi zen Migel ganadu-tratulari jardunean. Hiltegiatara edota Arrasate, Gasteiz, Iruñea, Tafalla, Zumarraga eta Miranda de Ebroko ferietara eramaten zuen ganadua. Azken urteetan kamioietan, baina aurretik ganadua oinez eramaten zuen, bidean beste ganadu tratulari batzuekin elkartzuz. Zenbaitetan ehunka moxal batera eramaten zituzten.

### **666. Ardi zaharrak Ordiziara oinez (ONA-134/012)**

Ferietarako oinezko bidaietan, ganadua bidean larreratzen zuten, eta ferian bertan ganadu-bazka saltzaileak izaten ziren. Ardi zaharrak asteazkenero oinez eramaten zituzten Ordiziako azokara.

### **667. Otsoak Arantzazun eta Araotzen (ONA-134/014)**

Otsoak harrapatzeko zepoak badituzte etxean. XX. mende hasieran, Migelen amandrearen anaia bat otso-ehizan Arabaraino joan omen zen, Arantzazun tiroz zauritutako otso baten atzetik. Otsoak hildako fraide baten istorioa kontatzen du. Araotzeko Neskien Begia lekuan ere, otsoak neskaren bat hil omen zuen.

### **668. Hartz eta gizaki hezurdura zaharrak (ONA-134/016)**

Migelek ez daki otsoen kontu guztiak egiak izango diren. Arantzazuko kobazulo batean Migelek "Oso Cabernícola" hartz baten hezurdura osoa aurkitu zuen. Beste kobazulo batean, Gastiazoroko koban, lau gizaki ehiztari familien hezurdurak aurkitu zituen.

### **669. Mikeleteak eta Guardia Zibilak (ONA-134/018)**

Mandatuak egitera kalera joaten ziren. Arabatik ere gauza asko ekartzen zituzten. Migelen sasoian Guardia Zibilek zaintzen zituzten mugak. Mikeleteek oso etxe ederra izan omen zuten. San Juan Artia baserrian jendea bizi izaten ezagutu zuen Migelek.

### **670. San Juan Artia baserria (ONA-134/019)**

Garai batean Arabatik ekartzen zuten Arantzazuko ostatueterako okela. San Juan Artia baserriak benta bezala ere jarduten zuen. Hango umeak Arantzazun eskolatzen ziren eta lo egiten ere bertan geratzen ziren.

### **671. Urbiatik Arantzazuko eskolara (ONA-134/020)**

Urbiako artzainen umeak ere Arantzazuko eskolara etortzen ziren. Artzain asko egoten ziren Urbian, herri askotatik etorritakoak.

### **672. Basilika berria eraikitzen (ONA-134/022)**

Erromatik agindua etorrira, Basilika berriaren lanak 14 urtez geldi egon ziren. Eliza zaharra erditik gora bota zuten, zabalagoa eta altuagoa egiteko. Ehun bat galiziar langile egon ziren lanean Arantzazun.

### **673. Oteiza Arantzazun bizitzen (ONA-134/023)**

Oteiza eskultorea urte pare batez egon omen zen Arantzazun lanean, Goiko Bentan ostatu hartuta. Jenio bat omen zen Oteiza. Bere emazte Itziarrekin bizi izan zen Arantzazun.

### **674. Basilikako artista ospetsuak (ONA-134/024)**

Luzio Muñoz, basilikako erretaularen egilea; Moreno, Oteizaren laguntzailea, gero Oñatin bizitzen geratu zena; Txillida, basilikako ateak egiten jardun zen bitartean; edota Basterretxea bera ere egon ziren Goiko Bentan ostatu hartuta.

### **675. Gomiztegi baserria (ONA-134/026)**

Fraideek Gomiztegi baserria erosi zuten. Gomiztegin aurretik bizi izan ziren pertsonak aipatzen ditu Migelek.

### **676. Askotariko abereen granja Gomiztegin (ONA-134/027)**

Hasieran, fraideek esne-behiak jarri zituzten Gomiztegin. Behiak gaixotu egiten ziren eta ardiak zaintzeari ekin zioten. Geroago artzain eskola jarri zuten bertan. Oilo-zaintzan eta txerriak hazten ere jardun zuten Gomiztegin garai batean.

### **677. Bokazioa jaisten (ONA-134/028)**

Fraideek ikastetxe berria eraikitzeaz bat, fraidetzarako bokazioa jaisten hasi zen.

### **678. Erromerietara oinez (ONA-134/030)**

Kotxea eduki zuen arte ezin izan zuen erromeria askotara joan. Herriko jaietan bakarrik joaten ziren autobusez kalera. Arabako San Bernardoetara oinez joaten ziren.

### **679. Urtiagain eta Txopekua (ONA-134/031)**

Urtiagain taberna eta Txopekua sagardotegia nola sortu ziren azaltzen du.

### **680. Ardiak zaintzera edo eskolara (ONA-136/002)**

Magdalena (Santxolopetegi) auzoko eskolara joan zen. Artzain lanak asko mugatu zuen bere eskolatzea. Aita gazterik hil zitzaion, eta Gregoriok apenas ezagutu zuen.

### **681. Eskola gaztelaniaz (ONA-136/003)**

Eskolatik Espainiako banderarekin irten eta ibilaldi luzea eragiten zien maisuak, Cara al Sol abestuz. Don Mateo Bab&ocute;n zen maisu gaztelaua. Gerrak ez omen zuen eten eskolara joatea.

### **682. Karretero lanak (ONA-136/004)**

Etxean zortzi ganadu buru zituzten, eta artaldea mendian. Idiekin egur garraioan ibilitakoa da Gregorio. Pinu enborrak gurdi motzarekin nola garraiatzen zituzten azaltzen du.

### **683. Laiak eta goldeak (ONA-136/005)**

Gregorioren sasoirako laia lana desagertuta zegoen. Ajuria edota Aranzabal markako goldeak zeuden orduan. Gari-jotzea auzolanean egiten zen. Larrainean idiekin garia jotzen ezagutu zuen.

### **684. Gariak ematen zituen lanak (ONA-136/006)**

Larrainean bakoitzak bere garia jotzen zuen. Gari-jotzeko lehenengo makina, Larraña auzoko Uriko baserrikoak ekarri zuen Zubillagako gariak jotzera. Leintzetik ere etorri izan zen halako makina bat. Garia ebakitzeko eta jotzeko lanak azaltzen ditu.

### **685. Garia auzolanean jotzen (ONA-136/007)**

Auzotarrek elkarri lagunduta jotzen zuten garia makinarekin. Lastoa ganaduak jaten zuen neguan. Haize errotarekin garbitzen zuten gari alea.

### **686. Artzain mendian (ONA-136/008)**

Artoa eta babarruna batera ereiten ziren. Babarruna artoa baino lehenago batzen zen. Talo asko egin eta jandakoa da Gregorio. Mendian artzaintzan zegoenean, taloa ardien esnearekin hartzen zuen. Udan, hiru hilabetez, gosaria eta afarria taloa esnearekin izaten zuen.

### **687. Artzainaren bazkaria (ONA-136/009)**

Mendian artzaintzan zegoenean, eguerdietan babarrunak jaten zituen egunero, astean behin etxetik ekartzen zioten ogiarekin lagunduta. Bera mutikoa zenean, etxean ez zuten ardorik izaten, dirurik ez omen zegoelako erosteko.

### **688. Medikua astogainean baserrira (ONA-136/011)**

Ama gaixorik zegoenean, Alzuru medikua kotxez etortzen zen Zubillagara, eta Gregorio astoarekin joaten zen medikuaren bila. Asmatikoa omen zen medikua, eta "Ideales" zigarroak erretzen zituen.

### **689. Errepidea baserriraino (ONA-136/012)**

Alzuru medikuaren ondorengoa Joxe Mari Galarza izan zen. Etxera errepidea 1945. urtean egin zuten. Lehenengoz ikusi zituen GMC kamioiak gogoratzen ditu.

### **690. Kalera trenez joaten ziren (ONA-136/013)**

Kalera joateko, Zubillagaraino oinez joan eta han trena hartzen zuten. "Kedun" trena ezagutu omen zuen Gregoriok. Auzoa kez estaltzen omen zuen tren hark, baina oinez joatea baino hobea zela dio. Tiket barik trenean sartuz gero, txartel-zulatzaileak bikoitza kobratzen zuen.

### **691. Neguan eskolarako bide txarrak (ONA-136/015)**

Neguan eskolara lokaztutako gurdi bide zahar batetik joaten zen. Gregorio gaztea zenean agertu omen ziren gomazko katiuskak. Gerra denborako gomazko abarkak berehala eteten ziren.

### **692. Nazionalak Oñatin sartu zirenean (ONA-136/016)**

Nazionalak Udanatik behera, auzoko Bakue mendi tontorretik behera, Oñatin sartu zireneko tiroketa entzun zuen Gregoriok. Gorriek Kanpazartik (Arrasaten) botatako kanoikada batzuk jausi omen ziren Oñatiko lurretan, herrira iritsi gabe.

### **693. Gregorioren baserria Oñati eta Aretxabaletako lursailetan (ONA-136/017)**

Lehertu gabeko granadak ikusi zituen mendian. Zubillagan ez, baina Bedoñan (orduan Aretxabaletako auzoa, gaur Arrasatekoa) militarrek sartu ziren. Gregorioren baserriko terreno gehienak Aretxabaletan daude.

### **694. Denbora gutxi eman zuen lantegian (ONA-136/018)**

Zubillagako Gaitu lantegian egin zuen lan urte gutxiz, baserrirako tresneria egiten. Lantegia Azkoitira joan zen, eta Gregoriok artzaintzari heldu zion berriro.

### **695. Sarramendiko eskola I (ONA-140/002)**

Olabarri baserrikoa da. Sarramendiko eskolan ibili zen, Santiago Arriolea maisu bergararrarekin. Gregorio Larrañaga izan zen hurrengo maisua. Felix maisua, Peru bezala ere ezaguna. Eskola zaharra ez zuen ezagutu; Mateo Arrese zen han maisua.

### **696. Sarramendiko eskola II (ONA-140/003)**

Zazpi-zortzi urterekin hasi zen eskolan. Etxean lana zegoen, eta 13 bat urterekin utzi zuen. 60 bat lagun elkartzen ziren. Zein baserritatik joaten ziren hara: Askazuri, Arrandegi, lau Koixkar... Arrola. Kaleko mutiko bat etxean izan zuten, eskolara bertan joateko.

### **697. Sarramendiko eskola III: babarrun katiluak (ONA-140/004)**

Eskolara egunero joaten ziren, bakoitzak katilukada babarrunekin; hantxe egosten zuen maisuak, eta bertan bazkaltzen zuten. Erdaraz jakin ez, eta kantuan ikasten zuten. Doktrina, katona. Maisua ez zen bertan bizi; baserrietan egiten zuen lo, txandaka. Eskolarekin zer gertatu zen.

### **698. Igartuanean lanean, kateak eta kakoak egiten (ONA-140/006)**

Eskola bukatzean etxean ibili zen denbora batean, eta gero Igartua lantegian hasi zen, kakodun posteak eta kateak egiten. Toki askotara bidaltzen zituzten. 25 urte egin zituen han. Eskuz egiten zen lan asko. 60 urte zituenean porrot egin zuen lantegiak. Burdinazko posteak. Bilbon jarri zituzten pila bat, Gran Vian.

### **699. Kanean apopilo, Igartuanean hasi zenean (ONA-140/008)**

Igartuan lanean zebilela apopilo egon zen Antonio Arrueren arrebaren etxean. Patrua kaleko ferratokitik behera bizi zen, okindegiaren gainean. Hark nola deitzen zion kale hari. Kantonoste. 36 urterekin joan zen kalera bizitzera. Gero, ezkondu egin zen.

### **700. Baserrian lana ugari, presarik ez (ONA-140/010)**

29 hektarea terreno ditu Olabarrik. Behiak basoan ibiltzen ziren eta ardiak ere bazituzten. Gazta egiten zuen amak. Zazpi duro izaten zen kontribuzioa; duro bakarra sobratu arren, lasai. Lehen ez ziren presaka bizi. Ordularia bazuten etxean.

### **701. Gariaren lanak eta errotak (ONA-140/011)**

Idirik ez zuten hasieran. Garia Errekalden lehenago heltzen zen, eta hara joaten ziren; txandaka. Ezagutu du txanketea; lan luzea zen. Matxaka. Garia eralgi egiten zuten. Murgiako errotara eramaten zuten garia ehotzera. Antzuolara ere joanda dago errotara. Zuazolako errota.

### **702. Gerra ostean, errotara gauzez (ONA-140/013)**

Gerra ostean errotak itxia egon ziren, eta gauzez ere joaten ziren Zuazolara; arreba hantxe zegoen neskame. Guardia Zibilak ez zituen harrapatu. Dolaetxera joan, eta Zartuko bidetik. Garia eta babarruna entregatu beharra. Aita Olabarrikoa zen, ama Aingerukoa.

### **703. Basoan iratan eta gaztainatan; jatorduak (ONA-140/015)**

Baso lanak. Udazkenean, iratan eta gaztainatan. Gaztainak eta esnea. Berakatz salda eta leka patatak. Orduko jatorduak: babarrunak. Denak batetik jaten zuten, etxeko bederatzi lagunek. Gosaria, 08:30ean. Ilundu arte lanean.

### **704. Baso lanak. Haritzak botatzen I (ONA-140/016)**

Basoan ilundu arte lanean ibiltzen zirenekoa. Beste bi lagunekin (Sarramendiko bi anai) trenbideak egiteko haritzak ebakitzera, trontzarekin. 15 pezeta ordaindu zieten eguneko. Basoa non zegoen. Aireplanoa erori zen tokia. Olabarrietako zerratokia. Karreteroak. Kargaderoa eta kamioiak.

### **705. Baso lanak. Haritzak botatzen II (ONA-140/018)**

Haritzak botatzen hiru lagun ibili ziren. Sasiak kendu. Trontzarekin haritz bat botatzeko ordu pare bat bai! Lehengo trontzak nolakoak ziren. Motozerra. "Kaskia". Karreteroak idiekin joaten ziren bertaraino.

### **706. Karretero lanetan ere ibilia (ONA-140/019)**

Karretero lanetan ere ibilia da. Zeintzuk ibili ziren aipatzen du. Apeak. Uriko Inazio oso indartsua zen.

### **707. Ardi lanak eta janztetxea (ONA-140/021)**

Aita eta anaia artzainak ziren; berak ez du ikasi ardiak jezten. Neguan Torretxebarri Txikira bidaltzen zituzten ardiak. Bildotsak. Janztetxera eramaten zuten esnea, gatzatua egiteko. Janztetxea non zuten. Abarkak aldatzen zituzten han. Katiuskak.

### **708. Gerrako kontuak; Madalenako zubia bota zutenekoa (ONA-140/022)**

Gerrako oroitzapenak. Hasi zenean, Olabarrin zegoen belarra ebakitzen; zarata entzun zuten. Madalenako zubia bota zuten. Egurrezkoa egin zuten. Milizianoak Torrera joan ziren Lizargaratek behera. Anaia soldadu zegoen Donostian, sukaldari. Eltzikortako anaietako bat gerran hil zen, Teruelen uste du: Juane Erostegei.

### **709. Auzolana; plazara saltzera (ONA-140/024)**

Gari lanez aparte, ez zen beste auzolanik; bidegintzarako bai, etxe bakoitzetik bat joaten zen. Ira etxe ondoan zuten; Torrekoak gaizki ibiltzen ziren, urruti zutelako. Gaztaina saldu ere egiten zuten; ama joaten zen plazara, eta arreba zaharrena, Ramona. Patata, arrautzak... Arreba Bergarara ere joan izan zen, San Antoniora, han gehiago ordaintzen zutelako, astoarekin.

### **710. Abadiñora feriara, astoa eroatera (ONA-140/025)**

Koixkartik Abadiñora joan zirenekoa, feriara astoa eroatera. Bueltan, Apatamonasterion gizon bat hilda, eta Guardia Zibila. Kanpanzar. Oñateko eta Arrasateko feriak. Fruta arbolak bazituzten Olabarrin, baina denak hondatu ziren. Orain ez da inor bizi Olabarrin.

### **711. Lizargarateko kontuak: erromeria, taberna, lurrak (ONA-140/027)**

Lizargarateko erromeria; Sarramendik ahoko soinua jotzen zuen han, filarmonika. Lizargarateko taberna. Eltzikortakoak han bizi ziren lehen, eta, lur kontuak zirela tarteko, bota egin zituzten: eztabaida piztu, eta juramenturik egin nahi ez. Juramendua nola izaten zen, epaitegian apaizarekin. Elorriokoa zen gero Lizargaraten bizi zena; haren semeak egin zuen taberna. Berak eraman zion gaztaina egurra.

## **712. Lizargarateko erromeria eta Asaldittakoa (ONA-140/029)**

Lizargarateko erromeriak, igande iluntzean. Dantza. Behiak hartuta, bueltan. Bolatokia zegoen; txakur txikia bota. Asaldittako jaiari jende asko biltzen zen (Antzuola, Zumarraga...); erromeria. Ardoa eta sagardoa eramaten zituzten gurdiz. Musika: Antzuolako "Gorri" soinu-jotzailea. Bartolo erroskilak saltzera joaten zen, eta denak saldu. Joakin mandazaina.

## **713. Larrañako baserriak nola hustu ziren (ONA-140/034)**

1961ean ezkondu zen. Ordurako Larrañako baserriak hustuta zeuden. Torretxebarri erre egin zen. Errekalden zerrategia jarri zuen Antoniok. Baserriak ez zuen bizitzeko ematen. Pedro Koroso izan zen azkena alde egiten. Lehengo bideak, txarrak.

## **714. Behi pintoek askoz esne gehiago (ONA-140/036)**

Behiak bazeuden, Estenagara ezkondu zenean: lau. Baina esne gutxikoak. Suitzarren ordeztuak jarri, eta askoz esne gehiago. Orain 200 bat buru dituzte, batzuk Agerren. Umeak txikiak zirenean 16 behi zituen.

## **715. Bizimodu aldaketa; garia ebakitzeko makina (ONA-140/037)**

Garirik ez zegoen ordurako Estenagan. Bizimodu aldaketa. Garia ebakitzeko makinarekin Olabarrin eta inguruko beste baserri askotan ibili zen. Gasteizen erosi zuen makina: Ajuria y Aranzabal.

## **716. Garia ebakitzeko makina eta gari lanak (ONA-140/039)**

Gari makinarekin egun bakarrean ebakitzen zuten gari dena; lehen, zortzi egun behar. Garia txanketean jotzea. Soldaduskan Logronon zegoela han gari lanak nola egiten zituzten. "Malakatia" makina, matxaka mugiarazteko.

## **717. Zinemara, ezkondu berritan (ONA-140/041)**

Ezkondu berritan zinemara joaten ziren Aloñara; dantzara ez. Lana egiten zuen larunbatetan ere; "sábado ingles" zer zen, arratsaldea jai. Orduan zubirik ez zegoen. Auzoko giroa. Ganadu jatekoa eramateko ere errazago Murgian Olabarrin baino.

## **718. Eliza, "hamarrenak eta primiziak" (ONA-140/043)**

Olabarritik mezetara Koixkarrera joaten ziren, eta aurretik kalera ere bai, gurasoekin. Abarkak garbitu. Lizargarate. Gerra aurretik "eminiun" bana gari entregatzen ziren parrokiari, "hamarrenak eta primiziak" ordaintzeko. Denak batu eta bera joaten zen eramatera. "Mayoral". Don Felix Arrazola apaiza.

## **719. Garai hartako baserria nolakoa zen (ONA-141/004)**

Baserria nolakoa zen kontatzen du. Bizimodua goiko solairuan egiten zen lehen. Behean ukuilua, egurtegi eta simaurtegia zeuden. Abereentzako askak egurrezkoak izaten ziren.



### **720. 1939. urtean iritsi zen ura herrira (ONA-141/007)**

Gerra aurretik hasi ziren herrira ura ekartzeko lanak egiten. Gerra denboran geldirik egon zen proiektua eta azkenik 1939. urtean iritsi zen Aizkorriko ura herrira. Ordura bitartean errekatik edo harraskatik hartzen zuten ura.

### **721. Labaderoa eta "albergea" (ONA-141/008)**

Arropak garbitzera ez ziren guztiak herriko harraskara joaten. Bakoitzaren baserri paretik pasatzen zen errekan moldatzen ziren. Baserrian "albergea" (harrizko uhaska) ere bazegoen.

### **722. Bizimodu pobrea, gogorra oso (ONA-141/009)**

Bizimodu gogorra zen hura. Pobrea. Etxetik kanpora ere egiten zuten lana. Garia jotzeko lehenengo makinez hitz egiten du.

### **723. Gariaren inguruko lanak (ONA-141/010)**

Garia igitaiarekin ebaki eta metetan pilatzen zuten. Burua, txoriek jan ez zezaten, estali egiten zuten. Etxera gurdiz ekarri, eta ganbaran jotzen zuten, eskuz. Nola egiten zen kontatzen du.

### **724. Garia garbitzea (ONA-141/011)**

Garia eskuz jo edo makinaz jo, ez zen alderik egoten. Berdin garbitzen ziren gero. Garbitze prozesua nola egiten zen kontatzen du

### **725. Eskola garaiak (ONA-141/013)**

Brinkolako eskolan ikasi zuen. 1933. urtean eraiki zuten eskola hura. Aurretik, Telleriarteko eskolan ikasi zuen. 9 urterekin hasi eta 12 urte zituenerako morroi bidali zuten. Eskolan ezer gutxi ikasi zuela dio.

### **726. "Ittulan" makina bat ibilitakoa (ONA-141/014)**

8-9 urterekin "ittulan" (itulan egin) asko ibilitakoa da. Zertan datzan azaltzen du.

### **727. Diru gutxi erabiltzen zen. Trukea, gehiago (ONA-141/015)**

Gerra aurretik ez zegoen dirurik. Arrautzak kalean salduz ateratzen zituzten txanpon batzuk. Hala ere, orduan gaur egun bezainbeste arrautza ez omen zen jaten.

### **728. Urteko ehun pezetagatik morroi 12 urterekin (ONA-141/017)**

Auzolanean ibili eta litro erdi bat ardo jasotzen zuten ordainetan. Errazioa esaten zitzaion horri. Auzolanean zebilela, lanerako fina zela ikusi, eta urteko ehun pezetaren truke, morroi hartu zuten beste baserri batean.

### **729. Morroi baten lanak (ONA-141/019)**

Morroi batek lan mota asko egiten zituen. Zertan aritzen zen kontatzen du. "Peazarea" (saski mota bat) zer den azaltzen dio elkarriketatzaileari.

### **730. Gabonetan, hiru egun jai eta bakailao bat! (ONA-141/021)**

Gabonetan, hiru egun jai izaten zituzten morroiek eta bakailao bat jasotzen zuten opari.

### **731. Eskolako bidea auzolanean egin zen (ONA-141/022)**

Urtean pare bat aldiz, eskolarako bidea konpontzen zuten auzolanean. Eskuz egiten zen guztia, makinarik gabe. Gizon artean harro egiten zuten lan mutikoek.

### **732. Gerraren hasiera (ONA-141/023)**

Hamabi urte zituen gerra hasi zenean. Ehizarako eskopetak ez beste armarik ez zegoela dio. Ondo gogoratzen ditu orduko trintxerak. Bizkaia aldera bizilagun asko joan zen ihesi. Beste asko, mendian ezkutatu zen.

### **733. Patrizioren fabrikan egiten zituzten bonbak (ONA-141/024)**

Patrizio Etxeberriaren lantokian gerrarako bonbak eta antzerakoak fabrikatzen zituzten.

### **734. Hamar oilasko soldaduentzat erre behar (ONA-141/025)**

Mendiz iritsi ziren soldaduak. Jende asko zegoela gogoratzen du. Soldaduentzako otorduak prestatzera behartzen zituzten baserritarrak.

### **735. Ihesi joandakoak tiroz bota (ONA-141/026)**

Fusilamenturik ez zen egon Legazpin baina Udana gainean ihes egindako legazpiar batzuk tirokatu zituztela kontatzen du. Kamino izkinan botata lagatzen omen zituzten gorpuak.

### **736. Gerrari buruzko informaziorik ez (ONA-141/028)**

Legazpitik, Elgeta aldera joan ziren soldaduak. Informazio gehiegi ez zitzairen iristen irrati eta telefonorik ez zutelako. Gerrako zaratak entzuten zituzten ordea. Gerra kontuez beraien artean hitz egiten zuten.

### **737. Garia Arabatik estraperloan (ONA-141/029)**

Gerraosteko gosez ari da. Hamabost urterekin estraperloan ibilitakoa dela kontatzen du. Arabatik ekartzen zuten garia astoz baina errotak prezintatuta egoten ziren. Errotarietranpa txikiak egiten zituztela aitortzen du: zaratarik gabe ehotzen zuten garia gauez. Guardia Zibilaren beldur ibiltzen ziren beti.

### **738. Hamabost urterekin fabrikara lanera (ONA-141/031)**

Hamabost urterekin, morrontza utzi eta Patrizio Etxeberriaren fabrikan hasi zen lanean. Lan klase asko egin izan zituen bertan.

### **739. Hiru pezeta eta erdi eguneko Patrizioen fabrikan (ONA-141/032)**

Patrizioena lantoki ona zela dio. Morrontzan baino diru gehiago irabazten zuen bertan: hiru pezeta eta erdi eguneko. Sei egunez egiten zuen lan, zortzietatik hamabiak arte eta arratsalde, ordu bat eta erdietatik bost eta erdietara. Etxera itzultzen zen bazkaltzera.

### **740. "Sábado inglés" (ONA-141/033)**

Aurrerago, sei eta erdietara bitartean egingo zuten lan. "Sábado inglés" esaten zitzaion horri: astean zehar bost ordu gehiago lan eginez larunbat arratsaldea jai izaten zuten. Hala ere, larunbat arratsalde hura etxean lanean pasatzen zuten, orduan ez omen zegoen gaur egun bezalako biziorik eta.

### **741. Aisialdiko xelebrekeriak (ONA-141/035)**

Fabrikan irabazitako dirua ere etxean entregatzen zuen Markoxek. Aisialdian zer egiten zuten kontatzen du. Bergara, Eibar, edo kostaldera joan izaten ziren igandeetan bizikletaz. Ardo pixka bat eran eta xelebrekeriaren bat egin ostean itzultzen omen ziren etxera. Karta jokoan eta billarrean ere aritzen ziren.

### **742. Ospitaleko eskola (ONA-142/004)**

Oñatiko txikitako oroitzapenak oso onak dira. Ospitaleko eskolan eta plazako eskolan ibili zen. Dotrina ere han ikasten zuen. Gaur egun Oñati oso aldatuta dagoela iruditzen zaio. Ospitaleko eskola nolakoa zen kontatzen du

### **743. "Con flores a María" (ONA-142/005)**

Eskolan abesten zituzten kantak gogoan ditu. "Con flores a María" kantatzen du. Maiatzean ospitaleko kaperara eramaten zituzten loreak ofrendan.

### **744. Euskara gutxietsita zegoen (ONA-142/006)**

Erdaraz ikasi zuten nahiz eta eskolan euskaraz hitz egiten lagatzen zieten. Gerraostean erdarak indar handia hartu zuela dio eta, garai hartako guraso asko eta askok, euren seme-alabei erdara irakastea nahiago izan zutelako kontatzen du. Euskara gutxietsi egiten zen.

### **745. Oñatin "zapakonetan" jolasten zuten (ONA-142/010)**

Lagunartean joaten zen eskolara. "Zapakonetan" (tortoloretan) jolasten zuten batez ere.

### **746. Señoritak emandako paperekin laboreak egiten zituen (ONA-142/011)**

Oñatiko plazako eskolara joaten ziren doktrina ikastera. Doktrina irakasten zion "señoritak" postal moduko batzuk oparitzen zizkiola gogoan du. Postal haiekin zer nolako laboreak egiten zituen azaltzen dio elkarrizketatzaileari.

### **747. "Belengo portalian" gabon-kanta (ONA-142/015)**

Gabon bezperan kantuan ateratzeko ohitura zegoen Oñatin. Orduan kantatzen zuten "Belengo portalian" abestia kantatzen du.

#### **748. Gabonetako ohiturak (ONA-142/016)**

Gabon bezperan, etxez etxe abesteko ohitura zegoen. Etxe batean gertatutako anekdota dakar gogora. Gabon-gaueko afaria nolakoa izaten zen kontatzen du eta baita afalosteko kantua abestu ere.

#### **749. Urtean hiru bederatziurren nagusi (ONA-142/018)**

Urtean hiru bederatziurren garrantzitsu egoten ziren: maiatzekoa, Jesusen bihotzekoa eta Ama Birjinaren kontzepziokoa. Gazte guztiak kalean elkartzen ziren egun garrantzitsu haietan. Kontzepzio eguna deskribatzen du.

#### **750. Udaberriko "konfurue" (ONA-142/020)**

Apaiza etxez etxe ibiltzen zen udaberrian "konfurue" (konjurua) eginez. Pitxar bat urez bete eta erramu hostoa sartzen zitzaion. Erramu harekin bedeinkazioa botako zuen gero apaizak. Erabilitako ur bedeinkatu hura gorde egiten zuten gero, ekaitz egunetan soroetan bedeinkazioa botatzeko. Ordainetan apaizari hamarretakoa ematen zioten eta baita arrautzak ere.

#### **751. San Joani eskainitako abestia (ONA-142/021)**

Telleriarteko eliza San Joani dago eskainia. Santuari kantatzen ziotena abesten du.

#### **752. Mirandaolako gurutze santua (ONA-142/023)**

Legazpin "Santikutzak" ospatzen dira. Gurutze Santua Legazpin gordetzen zen garai batean. Duela urte batzuk Patrizio Etxeberriak Mirandaola eraiki zuen. Gurutze santuaren istorioa kontatzen du.

#### **753. Legazpiko prozesioak, zoragarriak (ONA-142/024)**

Prozesio zoragarriak egiten ziren Legazpin. Bidean zeuden gurutzeak gaur egun kanposantuan omen daude. Elizatik irten eta ibilbidea nondik nora izaten zen kontatzen du. 50 mutiko inguruk hartzen zuten parte prozesioan. Haiek jantziak deskribatzen ditu.

#### **754. Txirrita-ren bertsoa (ONA-142/026)**

Bertsopaperetatik Txirritaren bertsoak kantatzen zituzten. Haren bertso bat esaten du.

#### **755. Hamahiru urterekin Bergaran neskame (ONA-142/029)**

Bergarako Azpileta baserrira joan zen neskame hamahiru urterekin. Familia urrun sentitzen zuen eta nahikoa negar egin zuela aitortzen du. Umeak zaintzeaz gainera, ganaduaz ere arduratzen zen. Lan gogorra zen baina gustura jarduten zuen, beti kantuan.

#### **756. Neskame izan arren, beste lan asko egin behar (ONA-142/030)**

Bergaran neskame zegoela, umeak zaindu eta baserriko lanetan laguntzeaz gain, esnea eta etxean egindako sagardoa saltzera joaten zen egunero herrira.

**757. Berrogei duro urtean eta jantziak ordainetan.  
(ONA-142/033)**

Neskame izateagatik jantziak eta berrogei duro jasotzen zituen urtean eta ordainetan. Diru hura aitak jasotzen zuen etxerako.

**758. Zilarrezko duroak zapatetan ezkutatuta  
(ONA-142/035)**

San Joanetako jaietarako Bergaratik Telleriartera etorri zen. Bergarako nagusiak sagardo botilak eta zilarrezko lau duro eman zizkion. Diru hura, zapatetan ezkutatuta, amari ekarri zion.

**759. Orduko dirua (ONA-142/036)**

Diru gutxi erabiltzen zen orduan: txakur txikiak, txakur handiak, errealak, pezetak eta duroak. Txanponak izaten ziren. Ez zegoen paperezko dirurik.

**760. Urteko 500 pezeta Albako Dukesari (ONA-142/037)**

Errenta ordaintzeko 500 pezeta aurreztu behar izaten zituzten urtean. Udaberrian, Albako Dukesa Donostiara etortzen zenean, erretero guztiek urteko errenta eta arrautzak eta oilaskoak entregatu behar izaten zizkioten.

**761. Neska eta mutil, denak elkarrekin (ONA-142/040)**

Gaztetan, mutilak bizikletaz eta neskak trenez, hara eta hona ibiltzen ziren. Edonora joanda ere, elizan amaitzen omen zuten beti txanpona bota eta arrosarioa errezatuz. Neska eta mutil, denak elkarrekin ibili ohi ziren.

**762. Urbira "apretakin" (ONA-142/041)**

Urbira, Santio egunez edo Andremari egunez joaten ziren lagunartean. Janaria etxetik eramaten zuten, mutilek erabiltzen zituzten motxiletan. Alpargatekin joaten ziren

**763. Ardoa eta azukrea zapatak garbitzeko (ONA-142/042)**

Jai egunetan, zapatak janzten zituzten kalera jaisteko. Ardoa eta azukrea erabiltzen zituzten haien garbitu eta distiratsu uzteko.

**764. Astean behin baino ez zuen ikusten senargaia  
(ONA-142/045)**

Hogeita sei urterekin ezkondu zen. Astean behin ikusten zuten elkar ezkondu aurretik. Gaur egungo gazteek eguna telefonoan pasatzen dutela iruditzen zaio. Paseoan aritzen ziren, besterik ez zegoen. Senargaiaren etxera lehenengo aldiz joan zeneko eguna ondo gogoratzen du.

**765. Uribarriko eskolan, Felipe Jausoro maisuarekin  
(ONA-143/002)**

Sagastizabal baserrikoa da. Uribarrin ibili zen eskolan, hamar urtera arte. Felipe Jausoro zen maisua; ez zen apaiza, ezkondata zegoen. Uribarriko maisu-etxea. Lau urterekin hasi zen eskolan. Euskaraz eta erdaraz ikasten zuten. Euskara maite zuen maisuak. Preso egon zen gerra denboran.

### **766. Uribarriko eskola eta umetako jolasak (ONA-143/004)**

Umetako jolasak, eskolatik irtenda. Txirikiletan, zapakonak, harrapaketan, banku bankuka, zankarrankan... Eskolan zenbat ziren: 40 bat neska-mutil, adin askotakoak. Zein baserritako umeak ziren.

### **767. Sagastizabal baserriko bizimodua (ONA-143/006)**

Egunero joaten zen eskolara. Itaurrean gerora ibili zen gehiago. Bederatzi senide ziren, bera laugarrena. Ama Larrañako Elordui baserrikoa zen. Lau-bost behi zituzten, idirik ez. Ardirik ere ez. Sagastizabal baserriaren kokapena.

### **768. Lehengo sukaldea eta otorduak (ONA-143/008)**

Etxean ez zuten urik, baina oso gertu iturria bai. Argindarra beti izan zuten. Beheko sua. Tximinia, horma ondoan. Lapiko handiak. Denak batetik jaten zuten umea zela. Katilua altzoan jarrita. Orduko jatorduak: salda eta esnea goizean, eta eguerdian beti babarruna; domeketan garbantzua. Urdaia, txorizoa. Afaria: gaztainak, neguan, eta esnea edo salda. Tremes zopak. Garia eta artoa.

### **769. Lihoa ezagutu du (ONA-143/010)**

Lihoa ezagutu du soroan, baina ez da asko akordatzen. Amak haria egiten zuen liñuarekin eta amandreak ere bai. Haria egitea. Liña-putzurik ez zuten, etxean ereiten ere ez du ezagutu.

### **770. Gasteizera neskame, hamar urterekin (ONA-143/011)**

Eskola amaitu ostean, hamar urterekin Gasteizera bidali zuten. Azkarragako Bitoriano apaizgaiak esanda, Amezketako anai-arreba batzuegana neskame. Baldintza bat jarrita, arratsaldean eskolara joatea. Baina eskolan arratsaldean laboreak egiten zituzten, josi, eta ez zuen besterik ikasi. Josten ere bazekin aurretik, amak erakutsita. Diputazioko plazan egon zen. Ama nola hil zen, erditzean.

### **771. Tripatruke Gasteizen, erdara ikasteko (ONA-143/013)**

Tripa truke egon zen neskame, ez zioten ordaintzen. Zapatak erosten zizkioten noizean behin. Nahiko oroitzapen ona du. Eskolan zeudela, inspektore bat joan zen; "historia sagrada" galdetu zion, eta ondo erantzun zuen. Erdaraz. Felipe maisuari eskerrak, erdaraz eta euskaraz, bietara moldatzen zen.

### **772. Gasteizen ahizpa eta biak, txandaka (ONA-143/015)**

12 urterekin etxera bueltatu zen, eta ahizpa nagusia joan zen Gasteizera, erdara ikastera. Gero berriro joan zen, eta beste urtebete egin zuen. Enkarguak eta etxeko lanak egiten zituen.

### **773. Legazpin neskame; esnea partitzen (ONA-143/017)**

Neskame bidali zuten Legazpiko Makatzaga baserrira. Hiru urte han. Egunero esnea saltzen zuen, behiak jertzita. Auzoko beste esnedunekin asto lasterketak. Esne partiketa. Gerra hasi zen. Esne hartzaileak: kontzejua... Neurriak. Bueltan enkarguekin etxera.

#### **774. Legazpin zegoela, gerra hasi zen; Txomin lagunari gertatutakoa (ONA-143/018)**

Legazpin neskame zegoela hasi zen gerra. Ahizpa zaharragoa urtebetean egon zen han. Ama hil zen, eta amandrea ere bai. Gerra hasi zenean, bazekiten zerbait. Nafarroatik ihes eginda zeuden batzuk. Ondoko baserriko mutilari gertatu zitzaiona (Makatzaga Etxebarriko Txomin): Bizkaira joan eta preso hartu zuten. Trenean zeramatela, istripua izan eta hil egin zen.

#### **775. Aztiriako eliza eta erromeriak (ONA-143/019)**

Makatzaga Legazpikoa zen, baina Aztiriara joaten ziren mezetara, baita erromeriara ere. Erromeriak nolakoak ziren, soinu-jotzailea. 16 urte zituen. Apaizak ez zuen dantza lotua debekatzen. Goiko Benta.

#### **776. Udanan fusilatuak; Txomin lagunari gertatua (ONA-143/021)**

Legazpin egon zen gerra garaian. Udanako borrokak. Uribarriko mutilak fusilatu ere egin zituzten: Urtzelaikoa eta Otadui-Etxebarrikoa. Aireplanorik ez du gogoan, ezta baserrietan militarrik egon zenik ere. Makatzaga-Etxebarriko mutilaren (Txomin) kontuak aipatzen ditu, lehen baino zehaztasun gehiagorekin, ihesi joan eta gero nola hil zen. Lagun berezia zen.

#### **777. Makatzagako bizimodua (ONA-143/023)**

Gerra garaian, ez zuten aldaketarik igarri Legazpin. Bere etxetik inor ez zen joan gerrara, gaztetxoak zirelako. Makatzagan zeintzuk bizi ziren. Esnea saltzen zuten eta ardiak zituzten. Berak egiten zituen lanak.

#### **778. Legazpitik Oñatira: Guineanean neskame (ONA-143/025)**

Legazpitik Oñatira: Gineanean egon zen neskame. Etxea non zegoen. Hiru urte egin zituen han, gustura. Liburuak zeuden han, eta komunean sartuta irakurtzen zituen. Salvador Guinearen emaztea oñatiarra zen. Hiru seme eta lau alaba zituzten.

#### **779. Neskametzako lanak, Gineanean (ONA-143/027)**

Gineanean zein lan egiten zituen. Hiru neskame ziren, sukaldaria eta bi dontzeila. Etxeko garbitasunak egiten zituen, eta liburuak irakurri. Txaleta zen, dotorea. Garaineko semeek hango alabekin zuten harremana. Soldata jasotzen zuen orduan, eta lehenago ere bai, Legazpin: 150 bat duro, urtean. Aitak kobratzen zuen.

#### **780. Gineanean uniformearekin; dirua, etxean entregatu (ONA-143/029)**

Gineanean, uniformearekin egiten zuten lana. Bik zerbitzatzen zuten mahaia, eta asko ikasi zuen. Gerra ostea. Karlidak ziren. Hiru seme ingeniari zituzten; propina ematen zieten, bost duro. Etxean entregatzen zuen hori ere. Etxerako dirua lortzeko izan zituen komeriak, dirua tela erosten gastatu zuen batean.

#### **781. Oñatiko dendak (ONA-143/031)**

Oñatiko dendak: Santosena tela denda, Lukasena dendaren ondoan. Juanitosiena. Ritana.

### **782. Plazan musika banda igandero (ONA-143/033)**

Gineanetik kalera joaten ziren erostera eta mezetara. Plazan bandak jotzen zuen igandetan. 20:30ean bueltan egon behar zuten. Uribarrin ere egoten zen erromeria: Urteagainen, Txopekuan... Filarmonika. Dantzazalea zen. Eduardo Aspiazurekin egiten zuen dantza.

### **783. Plazan musika banda igandero II (ONA-143/035)**

Aurreko pasartearen jarraipena. Maiztegineko Maria Luisarekin txotisak egiten zituen dantza Eduardo Aspiazuk, eta berarekin pasodobleak. Artean ez zegoen ezkondata.

### **784. Anai-arreben ezkontzak eta aldaketak (ONA-143/039)**

Ahizpa ezkontzean bera etxera bueltatu zen. Anaia ezkondu arte egon zen han. Ugaztegiko Jazinta ezkondu zen baserrira. Arabako Zuazo hotelera joan zen, bainuetxera lanera hilabete ingururako. Oheak egiten eta mahaiaik zerbitzatzen.

### **785. Frantziara, frantsesa ikastera (ONA-143/041)**

Frantziara joan zen, frantsesa ikastera, gero Donostian jatetxeren batean lana egiteko asmoarekin. Bordele ondoan egon zen eta gero Parisen, neskame, senar-emazte judutar batzuekin. De Gaulle.

### **786. Paristik bueltan, ile apaindegia jarri zuten (ONA-143/043)**

Paristik bueltan, ile apaindegia jarri zuen ahizpa gazteenarekin, Sabinarekin, Oñatiko. Hura ile apaintzaile eta bera aurpegiko tratamenduak egiten eta depilatzen. Madrilen ikastaroak egin zituzten, aurretik. Pasadizoa: Madrilen Fernando Rey artistaren emaztea izan zuen bezero moduan. Parisen ikasi zuen gehiena.

### **787. Ile apaindegia Kale Barrian (ONA-143/045)**

Madrilen zortzi-hamar hilabete egin zituzten, eskola onenetan ikasten, Oñatiko ile apaindegia jartzeko. Kale Barrian jarri zuten. Sabina erretiratu arte egon zen.

### **788. Oñatiko ile apaindegiak (ONA-143/048)**

Oñatiko ile apaindegiak. Tere eta Juli ile apaintzaileak. Kale Zaharrean Olaldeko ahizpak (Maritxu eta Martina Ugarte). Abenidakoa kanpokoa zen.

### **789. Neskatielen lanak baserrian; umezain (ONA-146/002)**

Denak baserrian jaiok dira. Umetan itaurrean egiten zuten. Eustaki ez zen eskolara joan, hori mutilen kontua zela eta. Neskatielen ardurak zeintzuk ziren: sukaldea, puxeta, jostea... Itaurrean eta umezain. Eustakik umetako kantu bat abesten du: "Lolotxo monta eta".

### **790. Garainean umezain; "arre-arre mandako" kantua (ONA-146/004)**

Franziska Garainean egon zen umezain, eta madame-ak frantsesez erakusten zizkien abestiak umeei. Garaineko Inazio-eta zaindu zituen berak; hara ezkondu zen, eta zazpi urte egin zituen han. Umea altzoan hartuta, "Arre arre



mandako" kantatzen zutela dio Susanak. Umeak nola garbitzen zituzten, altzoan hartuta; Eustakik lihoarekin igurtzita, tinan.

### **791. Liñua I: haria egiteko prozesua (ONA-146/006)**

Lihoa erreka bazterrean beratzen zen, liña-putzuetan. Sortatu, trangatu, gozatu eta haria egin. Latza zen lihoa. Aitajaunak egiten zuen, eta Franciscak hala ikasi zuen haria egiten. Goruarekin. Lihoa ezagutu du Eustakik: landarea nolakoa den. Trangan jo, eta barruko muina kendu. Azalarekin, sua. Eskuarekin gozaten zuten. Haziak gorde, hurrengo urtean ereiteko.

### **792. Liñua II: noiz erein, noiz ebaki, ehulea (ONA-146/007)**

Liñua noiz loratzen zen. Hazia erori egiten zitzaion, eta loratu aurretik ebaki behar zen. Gero zabal-zabal utzi, lehortzeko. Sortatxoak egin, matazak, putzuan sartu, eta astebete eduki. Trangatu. Ehulea Trianan zegoen. Ehuna arkan gordetzen zuten. Garbituaz bigundu egiten zen. "Subana", erre kara puxeta jotzera.

### **793. Liñua III: izarak, Tetuan kaleko ehuleak (ONA-146/008)**

Trianako ehuleari haria eraman eta hark egiten zuen ehuna. Joskura zeukan erdian izarak; karreteko hari sendoarekin egiten zuten hori. Bi ehule zeuden Oñatin, biak Tetuan kalean. Tetuan izenaren jatorria: Tetuaneko gerrarako kanoi bat egin zuten bertan, eta bost idi parerekin jaso zuten Brinkolara.

### **794. Triana auzoaren izena eta bertako errementariak (ONA-146/009)**

Oñatiko Triana auzoaren izena nondik datorren kontatzen du Eustakik. Burdintxuenak mozkortutako mutilei esandakoa. Trianan baserritarrak eta errementariak egoten ziren. Baserriko tresnak bertan zorrozten eta konpontzen zituzten. Trillua.

### **795. Laiatik goldera, aldaketa handia (ONA-146/010)**

Laian egiten zen dena garai batean. Makalena erdian jartzen zuten. Goldea atera zuten gero: golde txikia eta handia. Golde handia ez zuen edozeinek; alokatu egiten zuen. Bi idi pare. Goldean nola egiten zuten kontatzen du Eustakik; izkinak aitzurtu. Bi ahizpak anaia baino indartsuagoak ziren; Otalako Xantik esaten ziena.

### **796. Mutilen eta nesken lanak baserrian; itaurrean (ONA-146/012)**

Neskatilen eta mutikoen lanak baserrian. Gaztagintza emakumeen lana zen. Tresnak konpontzea gizonena. Uztargileak. Uztarria enkarguz egiten zen. Burukoa. Itaurrean ibiltzea ez zitzaion inori gustatzen. Eustaki-eta Argiñenera joaten ziren itaurrean egitera; haiek ez zuten umerik eta beraiek hamabi ziren.

### **797. Jolastu beharrean, umezain; umeen jantziak (ONA-146/013)**

Umezain, umetatik. Francisca Garainean ibili zen. Susanari erreala ematen zioten. Zazpi erreal irabazten zituen astean: jolastu beharrean umezain. Orduko pardelak; umeak nola janzten zituzten. "Paxia". Legazpiko bati gertatu zitzaiona, anekdota.

### **798. Garaineko neskameen kontuak I (ONA-146/014)**

Eustakiren ahizpa Garainean egon zen neskame. Franciscak ere zazpi urte egin zituen Garainen umezain. Eustakiren ahizpa nolakoa zen. Haren kontuak: etxeko andreak jarri zion tranpa, fidatzekoa zen jakiteko, eta "señorito" esku luzeari eman zion zaplaztekoa.

### **799. Garaineko neskameen kontuak II (ONA-146/015)**

Inazio Garairi ipurdia berotu zionekoa kontatzen du Franciscak. Gorputz Eguna; zikin-zikin egin zen baratzeko askan. Neskame eta umezain berriei jartzen zizkieten tranpak: dirua, janaria... Kurasanak nondik ekartzen zituzten.

### **800. Udatiarrak, autoak eta Apaolaza medikua (ONA-146/018)**

Oñatin bizi ziren familia aberatsak. Dukearena. Udan kanpotarrak ibiltzen ziren. Lehen automobilak: Garai eta Apaolaza. Eustaki elizan mareatu egiten zen, eta Apaolaza medikuarengana eraman zuen amak.

### **801. Araotzeko apaiza, Murgialdaikoa (ONA-146/019)**

Araotzen Murgialdaiko seme bat zegoen abade: Don Martin. Eustakik ahizpari gertatu zitzaiona kontatzen du, komuniorik ez ziola eman paparra bistan zuela uste zuelako. Amak apaizari esan ziona. "Petxeroa" nola jartzen zen. Domekako arropa. Gaur egun nola den.

### **802. Infernua eta "kondenatuak" (ONA-146/021)**

Eustakik kontatzen du behin sermoitik bueltan amak zuen larritasuna: apaizak esan zien umeren bat kondenatuta bazegoen haren gurasoak ere kondenatuta zeudela, eta berak hamabi seme-alaba! Semeak erantzun ziona.

### **803. Jaiotzak eta emaginak (ONA-146/023)**

Erditzeetan medikua ez zen ondoan izaten, normalean. Susanaren ama etxez etxe ibiltzen zen, emagin. Eustakiren erditzeak. Francisca ere partera ibili da; bere betebeharrak. Liñuzko haria, zilbor-hestea lotzeko. Franciscak hazitako nesketako bat 21 urterekin hil zen.

### **804. Umea tititik noiz kendu; inudeak (ONA-146/024)**

Emaginaren lanak. Umeari titia ematea eta noiz zen titia kentzeko ordua. Esnea ateratzea. Eustakiri inude joatea eskaini zioten, baina ez zuen onartu. "Mamadoreak". Franziskak ezagutu du hori.

### **805. Umeak aireplanoan eta Paristik; sexua tabua zen (ONA-146/026)**

Umeak nondik zetozen. Aireplanotik botatzen zituztela umeak eta zelaian izara jarri behar zela esaten zieten. Izara ikusten zuten aldiro, pentsatzen zuten umea zetorrela. Paristik. Sexua tabua zen. Eustakiren nobioa ez zen etxera sartu ezkondu arte. Apaizari kontatu beharra. Musua ere bekatu. Orain, berriz, fraideak ere laztanka!

### **806. Neska laguntza; araoztarrak eta kanpotarrak borrokan (ONA-146/028)**

Neska-laguntza normala zen, baina bidean musurik ez. Garaiz iritsi beharra. Etxekoak zain, leihotik begira. Araotzen lagunak ziren etxera laguntzen zien mutilak. Kanpotarrak ez zeuden ondo ikusita. Leintzarrak harrika hartzen zituzten. Makilakada ederrak eman zizkieten behin Aretxabaletako hiruri: larri zaurituta. Gerra aurrean.

### **807. Araozko erromeria eta dantzak (ONA-146/030)**

Araozko esaera. Erromeria nolakoa izaten zen. Filarmonika. Dantza lotua libre zen; apaizak ez zuen ezer esaten. Bi neska dantzan ari baziren, bi mutil hurreratzen ziren. Kalabazak. "Amaitakua" jo orduko etxean.

### **808. Alabak aita ezagutu ez, itsasotik bueltan (ONA-146/032)**

Nobioarekin urtetan ibiltzen ziren, ezkondu aurretik. Eustakik senarra itsasoan zuen; ume txikiak ez zuen aita ezagutu, bueltatu zen batean.

### **809. Itsasgizonarekin ezkondu? (ONA-146/034)**

Anaiak Eustakiri esan ziona, itsasgizonarekin ezkontzeko asmoa zuelako. Diruduna hartzea gomendatu zion. Senarra ezkontza batera gonbidatu zuten, eta orduan ezagutu. Normala iruditu zitzaien.

### **810. Eustaki ekonomatoan lanean, 16 urtean (ONA-146/036)**

Erretiroa hartu ostean, Garairen ekonomatoa ireki zutenean, lana eskaini zioten. Berak ezetz, baina tranpa egin zioten. 16 urte egin zituen han lanean. Senarra etxera bueltarazi zuen, 58 urterekin, eta gustura bizi izan zen Oñatin.

### **811. Eskolako kontuak eta umetako jolasak (ONA-153/001)**

Eskolako kontuak esaten dihardu Juanik; neskatilak gustatzen zitzaizkion maisuari. Makilarekin jotzen zuen. Zigorrak. Umetako jolasak aipatzen dituzte. Diaboloa, txirikiletan, sapakonetan, gorde-gordeka...

### **812. Gabonak eta umetako lanak (ONA-153/002)**

Gabonetan zer egiten zuten: Eztenaga baserrira joaten ziren arregitarrak, eta gero mezetara. Ahizpa bakoitzaren lanak zeintzuk ziren, eta beraien arteko ika-mikak. Pili txerrikokian sartzen zuten umetan. Bixentak zer egiten zien ahizpa gazteei, kasu egiteko; ile apaintzaile lanak egiten zituen etxean, baita anaiari ere.

### **813. Murgiaiko errotara mutil mordoia; baserriko lanak (ONA-153/003)**

Murgiaiko errotara mutil asko joaten ziren, beraiek ikusteagatik. Estraperloa. Mairidirea jartzen zuten, guardia zibilak zeudela abisatzeko. Karobia erretzen. Idiekin lanean, Marixabel hirutan erori zen errekarra. Egur lanak. Lan asko egindakoak dira.

#### **814. Arbia; errotan ogirik ez zen falta, gose garaian (ONA-153/004)**

Arbiaren lanak, Murgiako errotan. Erlijioaren indarra: "intentzioak" partitzen. Juani okerrago ibili zen gose denboran. Ogia eta labesua. Ogia lapurtu zioten amari. Tremesa, morokila.

#### **815. Behiak jeztea; Linda behia (ONA-153/005)**

Linda izeneko behia zeukaten Juanik eta. Behiak jeztea eta untxiak hiltzea. Gose garaiko kontuak. Tremesa eta taloa. Arregitarren amaren taloak. Maiztegi txokolateak.

#### **816. Gurasoekin zuten harremana (ONA-153/006)**

Ama ona zutela dio Marixabelek: sagar erreak prest beti. Aitari laguntzen zion berak, eta Bixentak amari gehiago. Untxiak hanka egin zionekoa, Garai lantegira lanera zihoala.

#### **817. Gabonetan gertatutakoa: izebaren etxea (ONA-153/007)**

Marixabelek Gabonetan gertatutako istorio bat kontatzen du. Don Jose Mariaren denda (orain Eskolatxo). Marixabel eta Bixenta izebaren etxera joan ziren, afaltzera. Salda eta urdaia. Izebaren etxea nolakoa zen. Lapurrak sartzen zitzaizkion ganbarara. Ohea nolakoa zen.

#### **818. Ahizpa zaharrenak amandrearekin Debara (ONA-153/008)**

Amandrearekin joaten ziren oportetara bi ahizpa zaharrenak. Gibelegoa zuen amonak, eta Debara joaten zen bainuak hartzera. Hirugarrena, Bittori, ere eraman zuten behin; hark egin zuen bihurrikeria.

#### **819. Lehengo opariak; errege eguna (ONA-153/009)**

Gabardinak. Lehenengo erlojuak. Amandrearekin zuten harremana. Oraingo umeek ez ei dakite jolasean. Errege egunean, harrizko panpina. Piku lehorren orde, astoaren kaka jarri zion morroiak, Etxarri Aranazko Migelek. Non ote den.

#### **820. Morroiak: Migelek jasotako belarrondokoa (ONA-153/010)**

Morroi asko izaten ziren baserrietan, tripa truke. Migel morroiaren kontuak: arbi banastakadak ekartzera bidali zituzten Bixenta eta biak; belarrondokoa eman zion, esku-arina zelako. Arbia hustu, eta kandela sartzen zioten.

#### **821. Errotako salmentak; estraperloa eta salaketa (ONA-153/011)**

Errotako Araia astoa. Santa Lutziara, kapoiak saltzera. Berdura plazan, sagarrak saltzen; Pili engainatu egiten zuten, Marixabel ez. Artoa jandako oiloak. Emakume batek arto irina eskatu zion amari, estraperloan. Salaketa jarri zion gero; isuna: 30.000 pezeta. Guardia zibilak.

### **822. Esku-luzeei egurra; dena bekatua zen (ONA-153/013)**

Nobio kontuak. Marixabelek istorio bat kontatzen du. Esnea partitu ondoren, Garai lantegira zihoala, mutilzahar batek egin ziona. Nobioak zer esan zuen. Dena bekatua zen, eta birjina ezkontzen ziren.

### **823. Ardoarekin egiten zituzten tranpak (ONA-153/016)**

Lehengo txikiteoa. Egunero 80 litro ardo saltzen zituzten. Ostegun santu egunean jartzen zutena: antxoak, urdaiazpikoa... Artzain txakur lehiaketa egunean egiten zituzten tranpak: ardo merkea garestiaren prezioan. Orduko tabernak. Nobio kontuak.

### **824. Diortxueneko asto eta katu janak (ONA-153/018)**

Diortxuena eta Vitoria tabernen arteko lehia. Beraingana jende gehiago joaten bazen, besteak haserre. Tabernari atseginak ziren beraiek. Asto janak eta katu janak, untxia delakoan. Katuari nola igartzen zaion. Bezeroekin dantzan.

### **825. Juaniren pretendientea (ONA-153/020)**

Juani ahizparen tabernan egoten zenean, Itsasondoko mutil bat ezagutu zuen; karta idatzi zion.

### **826. Ameriketara zihoazenei despedida, Diortxuenean (ONA-153/022)**

Armaginak apopilo egon ziren Diortxuenean, araoztarrak. Ameriketara zihoazela eta despedida egin zieten. Urrexolako eta Araozko bezeroak. Haiekin zuten harremana.

### **827. Diortxueneko bezeroak eta janaria (ONA-153/024)**

Arazoko baserritarrak ere joaten ziren Diortxuenera. Prestatzen zuten janaria. Ogiduna. Arrain saltzailea: bakailaoa. Ontziak garbitzen zituen andreak zer egiten zuen.

### **828. Arregi Arregi abizenen zergatia (ONA-153/027)**

Baserriko lanak. Ama, Florentina, ospiziokoa zen; baserriko abizena jarri zioten: Arregi. Donostiara joan ziren zerbait jakin nahian. Ospizioko gehiago ere baziren Oñatin; normala zen etxekoekin ezkontzea.

### **829. Garai bateko ezkontzak eta gerokoak (ONA-153/029)**

Lehengo ezkontzak askotan derrigortuak izaten zirela dio Pilik, maitasunik gabeak. Ezkontza urteurrenak. Beraien ezkontzak, bazkaria eta despedida non egin zuten.

### **830. Burdin begetala (ONA-178/022)**

Burdin begetala, iluna izaten zen. Teknika eta lexikoa.

### **831. Karobien jabetza (ONA-179/003)**

Karobiaren jabeak baserritarrak. Herri-lurretan baserri askoren artean egindako karobia ere aurki zitekeen.

**832. Karobia erretzearen inguruko azalpenak; eguraldi onaren garrantzia (ONA-179/008)**

Zenbat denbora behar izaten zen erretzeko. Noiz atera behar da. Euriak kalte handia (gertatutako ipuin bat kontaktzen hasten da, geroago jarraitzen du).

**833. Karobia egiteko eguraldi egokiena (ONA-179/010)**

Euria zegoenean zer egiten zuten. Zergatik egiten ziren udaberrian. Zein ingurutan egiten ziren gehiago. Lur buztintsua. Teileriak.

**834. Karobietan erabiltzen ziren erregaiak: egurra, ota (ONA-179/017)**

Zer erretzen zen karea egiteko. Ota. Erabiltzen ziren tresnak.

**835. Karobiaren erretze-lana (ONA-179/018)**

Zenbat egunetan egoten zen erretzen. Zenbat egur sartu behar den. Gaua basoan pasatu behar.

**836. Harriaren ezaugarriak zeintzuk ziren (ONA-179/020)**

Botatzen zen harria zelakoa zen.

**837. Karobigintzaren inguruko anekdota (ONA-179/024)**

Anekdota bat kontaktzen du.

**838. Karobiaren egitura (ONA-179/026)**

Karobiaren egitura.

**839. Harriaren inguruko azalpenak; harrijoleak (ONA-179/028)**

Harria nondik ekartzen zen. Anaia harria ateratzen ibilitakoa. Zelan ateratzen zen; tresnak, dinamita. Harrijoleak.

**840. Harria karobira zelan eramaten zen; neurriak (ONA-179/029)**

Harria zelan eramaten zen karobira. Gurdiak zelakoak izaten ziren. Karea arrobaka neurtzen zen.

**841. Harria karobira zelan, zenbat sartzen zen (ONA-179/030)**

Zenbat harri behar izaten zen; nola sartzen ziren karobian erretzeko.

**842. Karobia egiteko toki egokia (ONA-179/032)**

Karobiak toki ederra behar izaten zuen inguruan.

**843. Karobigintza auzolanean (ONA-179/034)**

Zenbat lagun jarduten zuten lanean. Auzolana.

#### **844. Karetegia (ONA-179/039)**

Etixerako izaten zen karearekin zer egiten zuten. Baserrian karetegian gordetzen zen.

#### **845. Karobiak; karearen erabilera (ONA-180/002)**

Karobiak egiteko orduan erabiltzen ziren tresnak. Karea zertarako erabiltzen zen: etxeak egiteko; soroan botatzeko...

#### **846. Karearen erabilera (ONA-180/003)**

Batzuk errekan arrainak harrapatzeko karea botatzen zuten uretara. Gaztainazalak ere putzu batera botaz gero, arrainak laster tontotzen omen ziren. Karea soroan erabiltzen zen, kokoak hiltzeko. Korta garbitzeko ere oso ona zen.

#### **847. Karea (ONA-180/004)**

Karearekin zerikusia duen gertaera.

#### **848. Karea; arriskua (ONA-180/005)**

Karearekin kontu handia eduki behar izaten zen; arriskutsua. Horren adibide den gertaera bat kontatzen du.

#### **849. Karobia (ONA-180/006)**

Karea egitea, ikatza egitea baino lan gogorragoa. Lehenengo 3 egunetan etengabe zaintzen egon behar izaten zen karobia.

#### **850. Karearen erabilera (ONA-180/007)**

Ganadu gaixo bat edukiz gero, karea erabiltzen zen desinfektatzeko.

#### **851. Karearen erabilera (ONA-180/008)**

Hezurretako minarendako karea ur beroarekin nahastu eta lurrun hori hartzen zuten batzuek.

#### **852. Azkenengo karobiak (ONA-180/009)**

Azkenengo karobiak, 1950.hamarkadan. Gazteak lantegietara; bizimodu aldaketa.

#### **853. Ikatzaren gainbehera (ONA-180/010)**

Ikatzak urte batzuk gehiago iraun zuen.

#### **854. Karobiaren inguruko azalpenak (ONA-180/012)**

Tresnak. Egurra sartu behar izaten zaio karobiari; egurra baino gehiago abarra. Su-hila; garrik gabeko sua. Hori ez da komeni karobirako. Txara eta abarrak. "Tantaixa", pago-egurrari esaten zaio. "Pago-linderuak". Pagoa lepatu.

#### **855. Karobiaren inguruko azalpenak (ONA-180/014)**

Baserritarrak badaki karobia erretzeko zein den egur egokiena. Basoa jo, txara jo esaten zaio egurra mozteari.

### **856. Karobiaren inguruko azalpenak (ONA-180/015)**

Adarra eta abarra. Zuhaitz adartsua. "Pago-sastrapak", adartsuak dira. Karobiak sugarra behar du eta abarrak izaten dira egokienak erretzeko.

### **857. Karobiak; ikazkintza (ONA-180/016)**

Karobia erretzen zegoen bitartean zer jaten zuten. Ikazkintza.

### **858. Bissautik Kubara, handik Portugalera eta ondoren Euskal Herrira (ONA-204/002)**

Euskal Herrira Master bat ikastera etorri zen, Kubatik. 11 urterekin joan zen Kubara bizitzera, ikasketa beka batekin. Bere adineko asko bidali zituzten, barnetegia batera. Portugalera joan zen bi urterako eta handik Oñatira. (bi hizkuntzatan egiten du: euskaraz eta Ginea Bissauko krioleraz)

### **859. Oñatira egokitzea erraza (ONA-204/003)**

Oñatira etorri zenean, ordurako bi lagun oñatiar zituen, eta ez zitzaion gogorra gertatu egokitzapena. Gaztelaniaz ere bazekien, Kubatik.

### **860. Koadrila Oñatin (ONA-204/005)**

Oñatin ez du integratzeko arazorik izan. Bi lagun zituen eta haien koadrilan sartu zen zuzenean, eta jendea ezagutzen joan da. Ez du arazorik izan.

### **861. Afrikar gutxi, hasieran (ONA-204/007)**

Beste atzerritar batzuekin duen harremanaz mintzo da. Bertakoekin zein kanpokoekin, denekin dauka harremana. Iritsi zenean, afrikar bakarra zela dio. Orain gehiago daude, eta urtero afaria egiten dute.

### **862. Euskara ikasteko prozesua (ONA-204/009)**

Portugalen, Coimbran, zegoela hasi zen euskarazko lehen hitzak ikasten, lagun euskaldunekin. "Zoroniak" esaten zuen "zorionak" esan ordez. Oñatira heldu zenean, euskaltegian eman zuen izena. Issac lagun azkoitiarrarekin ere dezente ikasi zuen. Etxean ere euskaraz egiten dute.

### **863. Gazteagoa zenean, kirolzalea (ONA-204/011)**

Ez dela gaztea dio, bere herrian zaharra dela. Kirol asko egiten zuen gaztetan. Saskibaloia, beisbola, futbola... egiten zituen Kuban. Oñatiko herri txapelketan ibili da, baina ordezko gisa. Mendia eta korrika egitea.

### **864. Poteatzeari buruz (ONA-204/012)**

Poteoari buruz hitz egiten du. Badu ohitura tabernaz taberna ibiltzeko, lagunekin.

### **865. Zinema, irakurtzea eta idaztea (ONA-204/013)**

Pelikulak ikustea gustatzen zaio baina zinema aretora joatea ez, jende asko egoten delako. Irakurtzea eta idaztea ere gustatzen zaizkio. Gaztelaniaz pentsatzen du eta gero itzuli.



### **866. Oñatin dantza gutxi (ONA-204/014)**

Kuban bizi zenean ez zen oso parrandazalea; berandu hasi zen ateratzen. Dantza egiten nola ikasi zuen kontatzen du. Oñatin aukera gutxi dauzka saltsa dantzatzeko.

### **867. Teknologia berrien erabilera (ONA-204/015)**

Teknologia berriak erabiltzen ditu, familiakoekin egoteko, baina ez da oso zalea. Facebook hasieran asko erabiltzen zuen Kuban ezagututako lagunekin harremanetan egoteko. Ez dauka Twitter. Interneteko "lagunei" buruz hitz egiten du. Teknologia gaizki erabiltzen da batzuetan.

### **868. Txokolategi eta uztargile eskola ondoan (ONA-231/001)**

Ospitalera (garaiko eskolaurrea-edo bertan zegoen, Karitateko Ahizpa mojek kudeatuta) Calle Colegio edo "Ikastola" kaletik sartzen ziren. Inguruko lantegi, denda eta tailerrak, eta haiekiko umeen harremanak azaltzen ditu.

### **869. 'Garoa' zinearen sorrera (ONA-231/002)**

'Garoa' zinea ez omen zegoen oraindik, baina bai "zine parrokiala", abade etxean. Abade etxea handitu zenean jarri omen zuten 'Garoa'.

### **870. Maristen institutua; mezak latinez, sermoia euskaraz (ONA-231/004)**

Gerra denboran Institutua kendu eta 1939tik 1963ra arte maristak egon ziren berriz Unibertsitatean, eta haiekin ikasi zuen Jerardok. Eskolak erdaraz izaten ziren arren, ez zituzten zigortzen euskaraz berba egiteagatik. Euskaraz abesten zituzten kantu bakarrik aipatzen ditu. Erdal abesti "ez oso pedagogiko" batzuk gogoratzen ditu. Elizkizunetan erabiltzen omen zen euskara. Meza latinez, baina sermoia euskaraz; 'Bezperak' eta arrosarioko 'letaniak'; ere latinez kantatzen ziren.

### **871. Doktrina, katekistak eta gipuzkera (ONA-231/005)**

Kalean ez, baina baserri auzoetan doktrina euskaraz ikasten zuten. Elizkizun batzuetan gipuzkerarekin gaizkiulertuak izaten zituzten.

### **872. Ikasgaiak eta frankismoa (ONA-231/006)**

Maristetan geografia, gramatika, historia, matematika eta beste gai batzuk ere ondo ikasi zituzten; Espainiako historia ikuspegi bakarrekoa (Frankismoarena) jaso zuten, errejimenaren kantuekin apainduta.

### **873. 'El libro de España', maristetan (ONA-231/007)**

Maristetan irakurritako 'El libro de España' liburua gogoratzen du. Gerrako umezurtz batek penintsulan zehar egindako bidaia kontatzen da liburu horretan; gerra aurrean idatzi eta 1938an 'ukitutxo' batzuk emandako liburua zen.

### **874. Euskal Herririk ez ikasgaietan (ONA-231/008)**

Espainiako gauza asko ikasi zituzten 'El libro de España' liburuan, baina ez Euskal Herririk. Geografia gustuko zuen; mundu guztiko errekarik ikasi zituzten, baina Euskal Herrian ez zegoen errekarik, ez eta Oñatin bertan ere.

### **875. Jolasak, kirolak eta pilotalekuak (ONA-231/009)**

Unibertsitateko patioan egiten zuten jolas. Herriko beste jolasleku batzuk aipatzen ditu; kalea bera, plazak, pilotalekua... bizikleta, pilota eta futbol zaletasuna sendoak ziren. Herriko pilotari nagusiak aipatzen ditu, eta mutikoekin nola jolasten zuten kontatzen du. Auzoetakoak, 'zinepeko'a eta beste pilotaleku batzuk, baita partikularrak ere, gogoratzen ditu.

### **876. Saturrarango seminarioa (ONA-231/010)**

Maristetatik Saturrarango seminariora jo zuen Jerardok. Hondartzara joateko tren bidaiak kontatzen ditu, baina itsasoa 'deskubritu' seminarioan egin zuen. Seminarioa Saturrarango kartzela izandako eraikuntzan zegoen.

### **877. Jerardorentzat Gipuzkoa ezezaguna (ONA-231/012)**

Seminarioak ei ziren ikasteko erarik merkeenetarikoak. Gipuzkoa Saturrarango seminarioan deskubritu zuen, Lizartza, Errezil, Asteasu eta beste hainbat lekutako ikaskideei esker.

### **878. Seminarioan ikaskide euskaldun eta erdaldunak (ONA-231/013)**

Gaztelera zen hizkuntza nagusia seminarioan; ikaskide asko erdaldunak ziren, batez ere arrasatearrak eta eibartarrak. 4-5 urte kostatzen zitzaion ikaskideekin euskaraz egiten ohitzea.

### **879. `Orixe´ren euskaratze lanak (ONA-231/014)**

Iparraldean `Orixe´k latinez eta euskaraz idatzi zuen elizako meza-liburua, neurri berebean hizkuntza bietan. Beste eliz ereserki batzuk ere euskaratu zituen. Euskaraz gauza horiek idazteko gaitasuna bazela ikustea, deskubrimendu bat izan zen Jerardorentzat.

### **880. Ondarroako `Txakur handi´ zubia (ONA-231/015)**

Saturraranen ekaina arte bakarrik egoten ziren, hondartza eta haitzarte guztiak eurentzat zituztela. Mendira edo olagarrotara joaten ziren, baita Ondarroara ere. Ondarroako zubi mugikorra (`Txakur handi´ zubia).

### **881. Eskolako oporraldiak (ONA-231/016)**

Gripe gogor bategatik hilabete beranduago hasi ziren eskolan 1957an . Hiru oporraldi izaten zituzten urtean, baina udakoak luzeegiak zirenez, 15 bat egun ematen zituzten Saturraranen udaran.

### **882. Oñatiko abadegaiei janzkera eta ibilbideak (ONA-231/017)**

Oñatiko agustindarren eta frantziskotarren seminarioetan opor laburrak izaten zituzten. Abadegaiek beti beltzez jantzi behar izaten zuten, eta batzuek, 17 urtetik gorakoek, sotana edo abitua ere bai. Arantzazutik Forura joaten ziren lehenengo, eta nobiziotza Zarautzen egin eta gero, Olitera joaten ziren.

### **883. Oñatiko parrokia eta agustindarrak lehian (ONA-231/018)**

Agustindarren seminarioaren eragina Oñatin. Mezen inguruan ba ei zegoen lehia parrokiaren eta agustindarren artean. Bakoitzak bere mezak, auzoak...

### **884. Agustindarrak, kontzilioa, seminarioak (ONA-231/019)**

Agustindarrek Oñatin hasten zituzten ikasketak, eta bizpahiru urtetan Aroko seminarioan ikasi ondoren, Oñatin bukatzen zuten teologia kurtsoekin. 1965-6-7an Kontzilioak aldaketa handiak ekarri zituen liturgian, herri hizkuntzen erabileran, eta abarretan eta seminario asko hustu egin ziren. Garai hartan egokitu zen San Lorentzoko seminario berria eraikitzea, herriak dirutan lagundutakoa. Oñatiko agustindar asko Bilbora joan zen.

### **885. Donostiako seminarioa (ONA-231/020)**

Saturrararen ikasturte bat egin zuen, eta Donostian baino askeago bizi ziren han; Antigua auzoko leku ezegoki batean eraiki zuten seminarioa, Andreu gotzain katalanaren garaian. Gutxi irteten zuten seminariotik.

### **886. Konfirmazioak eta gotzainak (ONA-231/021)**

Urte askoan Oñatin eliz-konfirmaziorik egin gabe zeuden, eta Jerardorenean parrokia bete-beteta zegoen. Konfirmazioen gorabeherak. Euskal Herriko gotzain batzuk.

### **887. Anton Garro irakaslea; 'Lauaxeta' (ONA-232/002)**

Anton Garro irakasleari esker ezagutu zituen euskal idazle eta liburu asko. Euskararen kontrako euskara irakasleak ere izan zituen. Santuen bizitzetara buruzko euskal liburu batekin hasi zen euskaraz irakurtzen. Gero etorriko ziren 'Gara', 'Kresala'... 'Lauaxeta' ren liburu klandestinoak aipatzen ditu.

### **888. Villasante eta Euskal Literatura (ONA-232/003)**

Villasanteren "Historia y Literatura Vasca" goitik behera irakurrita, eta Garro irakaslearen laguntasunarekin, euskal literatura egon bazela konturatu zen. Lau berbatan laburtzen du Villasanteren lana.

### **889. Seminarioetan lehen aldizkariak euskaraz (ONA-232/004)**

Seminarioko ikaskide batzuek literatura talde bat eratu zuten, Jerardoren gidaritzapean. Beste kurtso batzuekin elkarlanean euskal aldizkari bat atera zuten ('Ezibide'). Garai bertsuan pasiotarrek, frantziskotarrek ('Jakin'), agustindarrek ('Erein'), eta beste zenbaitek ere antzerako lanetan ziharduten, 60ko hamarkada hasieran.

### **890. Antzerki eta oratoria euskaldunak (ONA-232/005)**

Seminarioko ikasleen artean 'Ehun Ducat' antzerkia egin zuten. Euskaraz izatea zen berririk handiena orduan. Oratoria trebatzeko ere hasi ziren euskara erabiltzen. Garaiko abade euskaltzaleak aipatzen ditu: Atxaga, Aranalde, Aranburu edota Letamendia, Lekuona, etab.

### **891. `Boga Boga´ euskal kantu liburua (ONA-232/006)**

Seminarioko ikasleek 'Boga Boga' kantu liburua atera zuten, Anton Garro irakaslearen partiturekin. Ehun bat euskal kantu tradizionalak osatzen zuten liburua. Errepresio gogorrik ez zuten pairatu, norbaitek Iparraldera seminarioz aldatu behar izan zuen arren. Gerora, Kontzilioa ere urte haietan izan zen, gauzek hobera egin zuten.

### **892. Liturgia euskaldun bateratua (ONA-232/007)**

Liturgia euskaratzea aurrerapen handia izan zen euskararen erabileran, eta Iparraldeko, Gipuzkoako eta Bizkaiko elizak euskal testuak bateratzea aldaketaren beste zantzu bat izan zen. 1964an Lazkaon bildu ziren probintzia horietako seminarista ezagunak, era klandestinoan.

### **893. Euskaltzainak, aldizkariak, Arantzazu (ONA-232/008)**

1964an Mitxelena, Labaien, Irigarai eta Aresti euskaltzainak ezagutu zituen Loiolan. Garaiko lehen euskal aldizkari literarioen garrantzia azpimarratzen du (`Euzko Gogoa&acute;; `Egan&acute;;...) Arantzazuko `Jakin&acute;ek ere lan asko egin zuen arlo horretan. Han elkartu ziren batean Rikardo Arregi, Setien, Aresti, Kapanaga... "Gora Euskadi!" bategatik izandako arazoak azaltzen ditu.

### **894. Lehen urratsak euskalgintzan (ONA-232/009)**

Loiolan 1964an izan zen bileran Nemesio Etxaniz eta Arestiren arteko bromak, eta Mujikaren hiztegiaren fitxak azaltzen ditu. Era honetan hasi zen Jerardo euskalgintza munduan sartzen, justu seminariotik irten aurretik.

### **895. Euskara seminario eta komentuetan (ONA-232/010)**

'Krutwig'ek kritika zorrotza egin zion orduko elizari, elizgizon franko euskaltzaleak ziren arren. Espainiako Unibertsitate publiko gabeko lurralde bakarra Euskal Herria zen, eta seminarioak eta komentuak izan ziren euskal mundua lantzeko leku bakarrak.

### **896. Euskara elizan (ONA-232/011)**

Elizak, nahitaez, herritarrekin hartu-emanak izateko euskara erabili behar zuen, baita sermoi eta misioetan ere. Seminarioetan ere hasi zen hori igartzen.

### **897. Hirurogeiko hamarkada bizia (ONA-232/012)**

II. Kontzilioak herri-hizkuntzak onartu zituen liturgiarako. Euskara txukuna, itzulpen onak eta Diarzek Lertxundirekin egindako salmo ulergarriak euskalgirotu zuten elizkizuna. Hirurogeiko hamarkadan eta hurrengo urteetan giro politikoak sekularizazio nabarmena ekarri zuen, eta baita hainbat kultur mugimendu ere: Ikastolak, `Ez Dok Amairu´, `Zeruko Argia´, Euskal alfabetatzea, Euskara Batua, editorial berriak, emakume idazleak... 1968ko salbuespen egoeran antzerki mundua zigortuta.

### **898. `Oñatz´ elkartearen sorrera (ONA-232/013)**

Hirurogeiko hamarkada horretan jaio zen Oñatiko `Oñatz&acute; taldea, hasiera batean herriko neska-mutilen arteko elkarte bat. Besteak beste, bi antzerki talde sortu zituen `Oñatz&acute;ek; bata euskarazkoa eta bestea gaztelerazkoa. Hor sartu ziren Jerardo eta lagunak buru-belarri. Hitzaldiak ere antolatu zituzten.

### **899. Euskal antzerki militantea (ONA-232/014)**

Oñatz Elkartearekin bi antzerki lan egin zituzten euskaraz, militantzia kutsu nabarmenarekin. Araotzeko saloian egiten zen aurre-estreinaldia, 'Garoa' zine aretoan estreinaldia emateko; Arrasateko 'Gurea'n, Bergarako 'Novedades'en, Eskoriatzan, Eibarren... 1967an izan ziren emanaldiak. Jerardok Bilboko 'Kriselu' antzerki taldean ere hartu zuen parte, Deustun ikasten hasi zenean.

### **900. Urte gogorak Euskal Herrian (ONA-232/015)**

1968ko salbuespen egoerak eten zuen orduan bizi zen euskal kulturaren loraldia. 1970ean Burgosko prozesua izan zen eta Euskal Herrian errepresio urte gogorak bizi izan ziren. Soldaduskan eta Alemanian ikasten eman zituen Jerardok urte haietako batzuk. Alemaniatik itzuli zenean laugarren antzerki lana prestatu zuen, Arestirena, Oñate; atitik kanpo ematean boikotatu egin zutena. Antzerkigintzako lanez jardun da Jerardo.

### **901. PREU eta Zeruko Argia, Donostian (ONA-236/001)**

1965ko ekainean seminarioa utzi, eta Donostian jarraitu zuen, orduko PREU frogara prestatzen eta klase batzuk ematen. Zeruko Argia astekarian idazten ere hasi zen, Rikardo Arregik 'zirikatuta', Saizarbitoria, Sarasola, Garmendia, Urretabizkaia eta abarrekin batera.

### **902. Ez Dok Amairu eta Gaur taldeak (ONA-236/002)**

Bilbora joan zenean utzi zion Zeruko Argian idazteari, eta Xabier Kintana orduan ezagutu zuen. Ez Dok Amairu ere laster sortu zen, baita Donostiako Gaur artista taldea ere (Oteiza, Basterretxea...). Donostiako Sto. Tomas Lizeoan Ramon Agirrerri, Koldo Mitxelena-ren semea eta abarri eman zizkien klaseak euskaraz.

### **903. Deustura ikastera (ONA-236/003)**

Donostian jakin zuen Deustuko unibertsitatean beka bat sortu zela, Letrak ikasteko, eta aurkeztu egin zen; euskalduna eta mutila izan behar zuen hautagaiak, eta bera izan zen bakarra. 1966-67 ikasturtean filologia alemana ikasten hasi zen, Filosofia eta Letretan.

### **904. Alemana ikasten eta euskara irakasten, Bilbon (ONA-236/004)**

Lehenengo bi ikasturteak batera egin zituen, eta hirugarrenean ekin zion filologia alemana ikasteari. Euskal Filologia artean ez zen ikasgai bat. Jose Luis Goti medikuak eta bere emazte Mari Angeles Larreak sortutako bekari esker egin zituen ikasketok. Bilbon euskara klaseak ere ematen zituen Jerardok. Deustun, Karmelo Rotaetxe eta Patxi Altunari esker, euskara irakasten hasi ziren. Altunaren 'Euskera Hire Laguna' metodoa baliatu zuten hartarako, Jerardok barne (1967-68 ikasturtean).

### **905. Euskara bizkaieraz irakasten (ONA-236/005)**

Deustura euskara ikastera jende heldua ere joaten zen. Euskaltzaindiak ere ematen zituen klaseak, Xabier Peñaren metodoarekin bizkaieraz, batua artean sortu barik zegoelako. Noizean behin polizia joaten zen euskara klasetara, nortasun agiriak eskatzera. Jerardok ere Peñaren metodoa erabili zuen bere klasetan, bizkaieraz. Patxi Altunaren metodoak batuarekin antzekotasun gehiago omen zuen.

### **906. 'Kriselu' antzerki taldea (ONA-236/007)**

Bilbon Euskaltzaindiak sortutako antzerki taldea eta haren kideak aipatzen ditu. Taldearen 'Kriselu' izenaren gorabeherak azaltzen ditu Jerardok. Taldearen zuzendaria Xabier Elorriaga izan zen. Garaiko euskal antzerki giroa.

### **907. Antzezlanak itzultzen (ONA-236/008)**

Jerardok 'Kriselu' talderako itzulpen batzuk egin zituen; Ricard Salvaten obra bat itzuli zuen katalanetik, erdi-bizkaierara. Bilboko Aiala aretoan, Bergarako Novedades aretoan eta Durangon ere antzeztu zuten lan hori.

### **908. 1968ko 'udaberria' (ONA-236/009)**

Bilboko 'Kriselu' antzerki taldean eta Oñatiko 'Oñatz' taldean aritu zen aldi berean. 1968ko 'Udaberria'ren oiartzunak nabaritu ziren ikasleen artean. 'Triunfo' aldizkariak eman zuen haren berri.

### **909. Pariseko 'Udaberria' eta salbuespen egoera (ONA-236/010)**

1968 urtean, Parisko eta Pragako 'Udaberria'ren garaian, hemen tiroketak eta ETaren lehen hildakoak izan ziren. Txabi Etxebarrieta Bilboko ikasleen liderra zen. Jerardo Alemanian zela hil zuten Manzanos polizia Irunen, eta ondoren salbuespen egoera deklaratu. Badaezpada ere, Bartzelonatik bueltan itzuli zen etxera, ikaskide asko atxilotuta edo ihesean baitzeuden.

### **910. Euskararen batasuna. Euskaltzaindia (ONA-236/011)**

Garai horretan, 1968 inguruan, euskararen batasuna prozesu nekoso batean murgilduta zegoen jada. Euskaltzaindian derrigorrezkotzat jotzen zuten batasun hori. 1964ko Baionako bileran gutxi batzuk onartu zituzten. Euskaltzaindiaren sorrera eta Arantzazuko eta Loiolako kongresuak aipatzen ditu. 1968an Oñatin egitekoa zenaren gorabeherak azaltzen ditu.

### **911. Euskaltzaindiaren Arantzazuko kongresua (ONA-236/012)**

1968ko irailean ospatu zen Euskaltzaindiaren kongresua Arantzazun. Salbuespen egoeratik, Oñatin egitekoa zena Arantzazun ospatu behar izan zen. Jerardo joan zen egunen batean, baita urduri samar joan ere.

### **912. Antzerki eta aldizkari euskaldunak Bilbon (ONA-236/013)**

'Kriselu' antzerki taldeko kide batzuek antzerkian edo zinemagintzan jarraitu zuten; Xabier Elorriagak eta Begoña Foruriak, esaterako. Euskal aldizkari batzuk elizaren babespean sortu ziren: 'Anaitasuna' Frantziskotarrena edo 'Zeruko Argia' kaputxinoena kasu. Idazle anitzek hartu zuten parte sorrera hartan: 'Basarri', Nemesio Etxaniz, Artetxe, Rikardo Arregi, Torreal dai, Kintana, Aresti, Imanol Berriatua... Aldizkari haiek lan asko egin zuten euskara batuaren alde.

### **913. Soldadutza Galizian, itsas armadan (ONA-236/014)**

Bilbon zegoela 'etena' izan zuen Jerardok, soldadutzara joatea egokitu baitzitzaion, baita itsas armadara egokitu ere, 26 urte beteta zituelako. Ferrolen itsasontzi barruan zirela hasi zen Burgosko epaiketa, 1970ean. Galizia ezagutu eta galiziera ikasteko baliatu zuen soldadutza. Soldaduskako pasarte batzuk kontatzen ditu.

### **914. Soldadutzan Saharako kostaldea zaintzen (ONA-236/015)**

Itsasontzi zahar batean ekin zion soldadutzari. Maniobretan egin behar txarrak izaten zituzten, baina Saharako kostaldea zaintzera gustura joaten zen. Kanariar uharteak ezagutzeko aukera ere izan zuen. Jerardo han zela irletako sumendi batek erupzioa izan zuen.

### **915. Ikasketak bukatu (ONA-236/017)**

Soldadutzatik itzuli zenean ikasketak bukatu zituen, errebalida eta tesina bat, alemanez eginda. 1972ko martxoan itzuli zen, astebeteko atzerapenarekin litzentziatuta, Ferrolen izandako izugarrizko greba baten ondorioz.

### **916. Münsterrera ikastera (ONA-236/019)**

1970ko hamarkadako giro politiko traketsa azaltzen du. Alemaniako Münsterreko unibertsitatean joan zen ikastera. Neska-lagunarekin joan zen, baina horretarako ezkondu egin behar izan zuten. Münsterren aurretik ezagutzen zuen Joxe Azurmendi zegamarra zegoen, etxera itzuli ezinik hango telebistan Burgosko prozesuari buruz egindako deklarazio batzuegatik. Garai berean Pako Garmendia, Jesus Mari Mujika, Joseba Arregi edota Lorentxo Igarzabal ere bertan ikasten zeuden.

### **917. Alemaniako egoera soziopolitikoa (ONA-236/020)**

Oporretan Münsterren ikasle askok egiten zuten lan. Bertan egindako lanak azaltzen ditu. Gerraosteko egoera latza zegoen oraindik Alemanian. Unibertsitatean bazen ezkerreko giroa; Baader-Meinhof taldearen sorrera gogoratzen du. Espartakistak eta mitinak.

### **918. Municheko atentatua eta garaiko kontuak (ONA-236/021)**

1972ko udaberrian iritsi ziren Alemaniara eta udan Municheko Olinpiar jokoetan atentatua izan zen. Haren eragin itzela azaltzen du. Garaiko historiako kontu batzuk: Prusiako iheslariak, Kant; Silesia eta orduko lurralde aldaketak.

### **919. Ezin Humboldti buruzko tesinarik egin (ONA-236/023)**

Deustuko unibertsitatean tesinarako gaia aukeratzeko Aita Santamaria dekanoarekin adostu beharra zegoen; European euskara ezagun egin zuen 'Guillermo Humboldt eta Euskal Herria' proposatu zion Santamariari. Dekanoak, baina, ez zion baimenik eman, tesina gaia euskararekin lotuta zegoelako.

### **920. Bertol Brecht, Humboldtten ordezkari (ONA-236/024)**

'Humboldt eta Euskal Herria' gaia aukeratu ezin, eta 'Bertol Brecht-en ondorengo antzerkia' aukeratu zuen bere tesinarako Jerardok. Alemanian

orduan bazegoen ezkerreko antzerkia, 'antzerki dokumentala' deitzen ziotena. Jerardok Calvo Sotelok esana gogoratu zuen orduan: "Antes España roja que rota".

### **921. Gau Eskolak eta euskara klaseak (ONA-237/001)**

Alemaniatik itzuli zenean, tesina idazten bukatzen, aurrenengo umea bidean, lanik gabe... Gau Eskola batzuk ematen hasi zen, baita euskara klase batzuk ere. Gau Eskolen sorrera eta historia apur bat azaltzen du. Lehenengo euskara klaseei buruz hitz egiten du. 1973-74 urtetako kontuak.

### **922. Egoera politikoa. Bergarako ikastola (ONA-237/002)**

Oñatz taldeko antzerki taldean ere hartu zuen parte, Bitoriano Gandiagaren lan bat prestatzen. Euskalgintzan ere jardun zuen. 1974an Bergarako Aranzadi Ikastolan hasi zen lanean. Garai hartako Carrero Blanco, Francoren azken hilketak, Saharako 'Marcha Verde'a, etab., aipatzen ditu. Hiru urtez jardun zuen Ikastolan Bergara, Antzuola eta Elgetako neska-mutikoei irakasten.

### **923. Ikastolatik UNEDera (ONA-237/003)**

Aranzadi Ikastolaren kokapena eta hastapenak azaltzen ditu. Irakasle gehienak emakumeak ziren. 'Alkartu Nai' elkartearen lanei buruz hitz egiten du. Bergarako Seminario zaharraren aurreko eta garaiko erabilera. Jesuitak, Dominikoak, Ikastola... UNEDen sorreraraino (1976-77)

### **924. Euskara UNEDen (ONA-237/004)**

UNEDen euskararen gaia landu zen, hitzaldi, antzerki, abeslari, erakusketa etab.ekin. Bigarren ikasturtean Eusko Jaurlaritzak ezarritako 'B' eta 'D' euskara gaitasun mailak irakasten hasi ziren. Xabier Kintana, Xabier Mendiguren eta Jose Ramon Etxeberria, 'Hiru Mosketeroak' etortzen ziren ikastaroak ematera. Azkenean, UNEDen Euskara departamentu ofiziala sortzea lortu zuten.

### **925. Euskaltzaindia UNEDen (ONA-237/005)**

'B' eta 'D' euskara gaitasun mailak, eta geroko 'EGA' tituluak, Euskaltzaindiarekin lankidetzan irakasten zituzten UNEDen, eta hari jarraituz antolatu zuten 1978ko Euskaltzaindiaren VIII. Biltzarra, UNEDen bertan. Antolakuntzan parte hartu zuten batzuk aipatzen ditu.

### **926. Jende asko euskara ikasten/irakasten UNEDen (ONA-237/006)**

Lau lagun eta idazkari bat besterik ez ziren 'B' eta 'D' mailak irakasteko Euskal Herri osotik larunbatero UNEDera etortzen zirenei. Inguruko lagun askok lagundu zuten klaseak emateko orduan. Larunbatetan Bergara jendez lepo egoten zen, euskara ikastera etorrira. Aitzindariak izan ziren UNEDen horretan.

### **927. UNEDeko ikasle eta irakasle (ONA-237/007)**

'EGA' maila agertu zenean, UNEDen irakatsi zuten. Aurreko 'B' mailarekin ere jarraitu zuten, 'Sakontze maila' izen berriarekin. Linguistika edota beste ikastaro batzuk ere, euskaraz, ematen zituzten. Besteak beste Txillardegia, Alfonso Irigoien, Ibon Sarasola, Joseba Sarrionaindia edota Miren Azkarate izan ziren ikasle, irakasle, edo biak, orduko UNEDen. UEUra ere joan ziren UNEDetik klaseak ematera.



### **928. UEU, UNED, Sarrionaindia (ONA-237/008)**

UEUra ere joan ziren UNEDetik klaseak ematera. UEUren sorrera eta bilakaerari buruz mintzo da. Sarrionaindia, 'Sarri'ren atxiloketa eta haren ondorioz UNEDen egin zuten 'gose huelga' aipatzen ditu. Euskara UNEDen sartzea erraztu zuen, besteak beste, ikasketa araututako bat ez izateak eta Trantsizio garai korapilatsuan Madrileko kontrola zailagoa izateak.

### **929. Irakasleen euskal gaitasuna (ONA-237/009)**

Eskoriatzako Irakasle Eskolarekin elkarlanean, euskaraz irakasten zuten maisu-maistra edota Gau Eskoletako irakasle asko prestatu zituzten euskal irakasle eta euskal gaitasun tituluak lortzeko. 'D', 'B' eta EGA mailak irakatsiaz aparte, UNEDek beste gauza asko egin zituen, bertako azpiegiturak aprobetxatuz.

### **930. Euskara batuaren bilakaera (ONA-237/010)**

Bergarako Euskaltzaindiaren Biltzarrean landutako gai eta hartutako erabaki batzuk. Geroko euskararen bilakaerari buruzko hausnarketa; hiztegia, 'h'a, aditz eta deklinazio... eta hedabideen eragina bilakaera hartan. Gipuzkeria, Bizkaitarrak...

### **931. Hedabideak euskararen bilakaeran (ONA-237/011)**

Euskadi Irratian Euskara maila nahiko mugatua darabilte dio. Hedabideen eragina betidanik erabili diren hitzak beste batzuekin ordezkatzeko. Idatzizkoa ez, baina ahozkoa pobretzen ari dela deritzo. Oratoria ere pobre samarra ikusten du. Hainbat adibide jartzen ditu.

### **932. Hur, gertu eta hurbil (ONA-237/012)**

Aurrera baino batzuetan atzera ote doan euskararen kalitatea zalantzan dago Jerardo. Adibide zehatzak jartzen ditu hori azaltzeko: hur-gertu-hurbil...

### **933. Batua eta Oñatiko (ONA-237/013)**

Jerardo gaztea zeneko Oñatiko euskararen berezitasunak eta erabilera, hau, inguruko herriekokin alderatuta oso zabala zena. Batuaren bilakaeran Oñatikoarekin 'desadostasunak'. Orduan hasi ziren euskalkien eta batuaren arteko zubigintzari buruz pentsatzen.

### **934. Euskalkien iraupena (ONA-237/014)**

Oñatin, eta baita Azkoitia eta Azpeitia bezalako herrietan bertako euskarari sendotasunez eutsi zaio; beste herri batzuetan, emigrazioaren eraginez-edo, posible izan ez dena. Nahiz eta gazteen euskara Jerardoren adineko jendearenarena bezalakoa ez izan gaur egun, Oñatin euskarak indartsu dirau. Gauza da nola lehengo berba eta esaerak gorde, lotu eta txertatu gaur egunekoan.

### **935. Hitanoa: batzuekin bai, besteekin ez (ONA-239/002)**

Hika txiki-txikitatik egin du, baina berezia da honen erabilera, batzuekin egitera ohituta dagoelako, eta beste batzuekin ez zaiolako ateratzen. Begirune kontua ere bada, edozeini ezin zaiolako egin. Gurasoek egiten zioten hika, baina Maria Angelesek haiei inoiz ez. Ahizparekin adibidez egin izan du beti, baina anaiari zuka.

### **936. Auzotik kalera, alde handia I (ONA-239/003)**

Araotz auzotik kalera jaitsi zen Maria Angeles. Alde handia sentitu zuen hitz egiteko moduan, hitanoaren erabileran... Gaur egun lagunartean erabiltzen du hika, baina ez guztiekin.

### **937. "Edozeinei ezin hika egin" (ONA-239/004)**

Mari Tere, Maria Angeles eta Jesusa harriturik gelditzen dira gaur egun hika egiteko moduarekin. Haiek hikarekin konplexuz beteta egon omen dira. Gaur egun, ordea, ohiturak aldatu egin dira. Adibidez, harrigarria da haientzat gazteek euren gurasoei hika egitea, baita bikotearekin hika aritzea ere.

### **938. Etxeberria jatetxeko lankideekin hika (ONA-239/007)**

Hamasei urterekin jaitsi zen Araoztik kalera, Milikuene jatetxean lan egitera. Ondoren, hamazazpi urterekin, Etxebarria jatetxean hasi zen lanean. Bertako lankide batzuekin hika egiten zuen.

### **939. Auzotik kalera, alde handia II (ONA-239/008)**

Aldaketa handia igarri zuen Araotz auzotik kalera jaistean. Kalera etorrira ere, Araozgo lagunekin hika egiten saiatzen da.

### **940. Senarrarekin zuka, semeekin hika (ONA-239/009)**

Jesusak senarrarekin beti zuka egin du, nobio garaitik hona. Seme biekin, ordea, hika egiteko ohitura du, batez ere haserre dagoenean.

### **941. Klean hika egitea gaizki ikusirik (ONA-239/012)**

Etxean ikasi zuen hika egiten, anai-arreben artean eta lagunartean egiten zuen. Gurasoek hari egiten zioten baina berak haiei ez. Gurasoek euren artean zuka egiten zuten ordea. Klean hika egitea gaizki ikusirik zegoen, erdara zen nagusi hainbat gunetan, adibidez, koruan.

### **942. Norekin egiten duzu zuka eta hika? (ONA-239/013)**

Umeekin euskaraz egitea erraz irteten zaio Mari Tereri, baina zuka. Gazteei hika egiten hasteko garaia zein den ez daki. Jende ezezagunarekin zuka egiten du, eta konfiantza izatean, hika.

### **943. Hitanoa, ohitura eta konplexua (ONA-239/015)**

Auzotik herrira jaistean 'baserritar konplexua' entitzen zutela aipatzen dute, ia erdararik ez baitzekiten, eta euskara ere ezberdina zutelako. Bestetik, klean baziren euren artean hika egiten zuten gizonak, baina ez zekiten emakumeari hika egiten.

### **944. "Araoztarkeriak" (ONA-239/017)**

Araoztik kalera jaistean hizkuntzarekiko eta izaerarekiko konplexuak izan zituzten hirurek. Euren euskara ona ez zela adierazteko askotan erabiltzen zen "arazokeriak" esabidea. Araoztarra izateak gaur egun dituen konnotazioak txarrak.

#### **945. "Ya vienen las caseras" (ONA-239/018)**

Araoztarrak baserri munduarekin lotzen zituzten beti, eta burla egiten zieten horregatik. Araozgoak beti elkarrekin egoten ziren, eta orokorrean mutil artean. Oñatiko hitanoa.

#### **946. "Euskarak ez zuen ezer balio" (ONA-239/020)**

Umeak zirenean euskarak ez zuen batere prestigiorik, kaltegarritzat zuten denek, eskolan dena erdaraz zelako. Erderaz ikastera jende mordoak joaten zen Araba aldera. Eskolan dena gaztelaniaz izateak eman zizkien arazoak. Oñatiko hitanoa.

#### **947. Eskola oso gaztetan utzi beharra (ONA-239/022)**

Eskolara joateko gogorik ez zuten izaten, nahiago zuten etxean lanean gelditu. Eskolan gaizki pasatzen zuten, ez baitzuten erdararik ulertzen. Eskola, ordea, oso gaztetan utzi zuten, 12-13 urterekin, lanean hasteko. Gau eskolara joaten ziren gero. Oñatiko hitanoa.

#### **948. Hitz egin nahi, baina ezin (ONA-239/023)**

Lanean hasi zirenean, erdaraz hitzik ez zekiten. Beharrarekin, azkenean, ikasi zuten. Inguruan erdaraz gaizki jakin baina jo eta ke erdaraz ari zirenak gogoratzen dituzte. Gaur egungo gazteen euskara.

#### **949. Zuka, hika eta berorika (ONA-239/025)**

Gurasoei zuka edo berorika, eta apaizari berorika. Errespetu kontua da hika egitea edo ez egitea. Oñatiko hitanoa.

#### **950. Hitanoa, gizonen artekoa (ONA-239/027)**

Txikitatik hika erabili badute ere, hikaren erabilera ez da berdina izan gizonen eta emakumeen artean, ezta auzorik auzo ere. Hitanoa Oñatiko zein auzotan hitz egin izan den.

#### **951. Hasieran zuka, konfiantzarekin hika (ONA-239/029)**

Hitanoa erabiltzea ez zaie edozeinekin irteten. Hasiera batean zuka egiten dute, eta konfiantza izandakoan hika. Ez zaie erraza egiten gazteei hika egitea, baina penaz ikusten dute hitanoaren transmisio falta. Konplexuak hika egiteagatik. Oñatiko hitanoa.

#### **952. Hitanoa gaur egun hobeto ikusita al dago? (ONA-239/030)**

Hitanoa gehiago baloratzen da gaur egun, eta erosoago sentiarazten ditu horrek hika hitz egiten dutenean. Eskatu ere egiten diete hika egiteko.

#### **953. Osasuntsu ikusten al duzue hitanoa Oñatin? (ONA-239/032)**

Mutilen artean gordetzen dela konturatu dira, baina nesken artekoaren egoera txarra da. Seme-alabei ez diete transmititu, baina haserretzen direnean irteten zaie hika egitea. Oñatiko hitanoa.

#### **954. Emakumeen artean gaztelania nagusi (ONA-239/034)**

Mutilek askotan euren artean hika egiten dute, baina ez diete emakumeei hika egiten. Euskara ere kasu askotan gizonen artean hobeto gorde da tamalez. Araotzen, ordea, denek mantendu dute euskaraz egiteko ohitura. O&ntilde;atiko hitanoa.

#### **955. Zergatik galdu da noka? (ONA-239/036)**

Aspalditik datorren kontua dela diote, izan ere, betidanik hitz egin dute gizonen artean bai euskaraz, eta baita hika ere. Emakumeek, ordea, behin etxetik irtendakoan, ez zuten hika egiten, ordinariora zelakoan. O&ntilde;atiko hitanoa.

#### **956. Txakurrari hika (ONA-239/037)**

Animaliei orokorrean hika egin izan diete, kasu gehienetan aginduak baitira. O&ntilde;atiko hitanoa.

#### **957. Zure buruari hika egiten al diozu? (ONA-239/039)**

Gizonen forma erabili ohi izan dute askotan euren buruarekin hitz egitean. O&ntilde;atiko hitanoa.

#### **958. Zer ematen dizue hikak zukak ematen ez dizuenik? (ONA-239/041)**

Konfiantza, ohitura, gertutasuna, naturaltasuna.

#### **959. Hika galduko balitz, zer? (ONA-239/043)**

Altxor bat galtzea bezala litzateke. Umeei transmititzen ez bazaie galtzeko arriskuan ikusten dute.

#### **960. Emakumeak galtzak jartzen (ONA-239/045)**

Gaztetan gona gehiago erabiltzen zuten. Garai bateko jantziak, artilezko galtzerdiak eta albarkak. Berokiari buelta ematen zioten zaharra zegoenean. O&ntilde;atiko hitanoa.

#### **961. Umetako jolasak: sakaponak, torre-torreka... (ONA-239/046)**

Errekrean, frontoian... jolasean ibiltzen zirenekoak. Aixenak ateratzen ibiltzen ziren soka saltoan aritzeko. Frontoira mutilak hurbildu orduko alde egiten zuten neskek. Torre-torreka, gorde-gordeka, tabetara... Sakaponak gozoki-paperez margotzen zituzten. O&ntilde;atiko hitanoa.

#### **962. Txirikiletan jolasean (ONA-239/047)**

Txirikiletan ibiltzen ziren Errotabarrin eta txirikilalekuan. Berokiari buelta emanda aritzen ziren. O&ntilde;atiko hitanoa.

#### **963. Elurretako jolasa: goikoak behekoen kontra (ONA-239/048)**

Elur-pelotaka ibiltzen ziren, goikoak behekoen kontra aritzen ziren. Harria sartzan zuten elurraren barruan. O&ntilde;atiko hitanoa.

#### **964. Txorizotxo eguna ospatzen (ONA-239/049)**

Inauterietako asteartean izaten zen Txorizotxo eguna, Araotzen. Opiltxoak egiten zizkieten euren amek. Oteari sua eman, txorizoak bertan jarri, eta erreta jaten zituzten auzoko umeek. Aitzulo kobazulo ingurura eta Aitzgainera joaten ziren txorizoak erretzera. Suaren gaintetik saltoka aritzen ziren. O&ntilde;atiko Hitanoa.

#### **965. San Elias egunean emakumeak lan eta lan (ONA-239/050)**

San Elias eguneko ospakizuna, bazkaria eta erromeria egoten zen. Beti gizonak eserita eta emakumeak lanean gogoratzen dituzte. San Elias ermita gaur egun. O&ntilde;atiko hitanoa.

#### **966. Garbitokiak, tertulian aritzeko aitzakia (ONA-239/052)**

Tertulian aritzeko aitzakia ziren garbitokiak emakumeentzat. Goiz osoa ematen zuten han. Iturrira ur bila joatea. O&ntilde;atiko hitanoa.

#### **967. Arropa garbigailua, asmakuntza ederra (ONA-239/054)**

Etxera garbigailua eraman zuten lehen aldia. Irratia eta telebista. Kantuak eta nobelak gaztelaniaz. O&ntilde;atiko hitanoa.

#### **968. Mutilak tabernara, neskak ez (ONA-239/056)**

Araotzen ez zen taberarik, saloia egon zen, baina geroago. Gaztetan ez ziren tabernan sartzen, helduagotan, ordea, bai. Telefonoa zen tabernan, eta deiak nola egiten zituzten kontatzen dute. O&ntilde;atiko hitanoa.

#### **969. Gizonak eta emakumeak, baserriko lanetan (ONA-239/058)**

Hirurak aritu dira baserriko lanetan, gazte-gaztetatik, gustura gainera. Jan ohi zituztenak. O&ntilde;atiko hitanoa.

#### **970. Gari-jotzea eta arto-zuriketa (ONA-239/059)**

Gari-jotzean jandakoa, arto-zuriketako festa... Errosarioa errezatzea, beldurrezko istorioak... O&ntilde;atiko hitanoa.

#### **971. Abadeari beldurra (ONA-240/002)**

Elizak indar handia zuen. Araotzen abadearekin harreman txarra izan zuten, beldurtuta izaten zituen umeak. Konfesatzera joan behar izaten zuten, eta ez zekitenean abadeari zer esan, txokolatea lapurtu zutela esaten zuten. O&ntilde;atiko hitanoa.

#### **972. Mutilekin dantza egiteagatik eskolatik bota (ONA-240/003)**

Urte batean abadeak mutilekin dantza egitea debekatu zuen. Batzuek kasurik egin ez, eta eskolatik bota zituzten. Don Josek ipinitako zigorrak. O&ntilde;atiko hitanoa.

### **973. "Pentsamendu txarrak izan al dituzu?" (ONA-240/005)**

Don Jose abadeak askotan galdetzen zien ea pentsamendu txarrak izan zituzten, zer ziren ez bazekiten ere. Abade gazteak herrian sartzen hasi zirenekoa. O&ntilde;atiko hitanoa.

### **974. Sexuaz ezin hitz egin (ONA-240/007)**

Sexuaz ez zuen inork hitz egiten, eta orokorrean oso gutxi jakiten zen sexualitatearen inguruan, animaliekin ikasitakoa besterik ez. O&ntilde;atiko hitanoa.

### **975. Mutilek neskak etxera lagundu (ONA-240/009)**

Dantzatzera joaten zirenean emandako kalabazak. Mutilek neskak etxera laguntzea. Azken abestia zein zen jakiten zuten, zein ordutan etxera itzuli jakiteko. O&ntilde;atiko hitanoa.

### **976. Pedro Joxeren disko-jogailua hautsi zutenekoa (ONA-240/010)**

Behin Pedro Joxerekin haserretu eta haren disko-jogailua hautsi zuten. O&ntilde;atiko hitanoa.

### **977. Gizakumeek baino libertate gutxiago (ONA-240/012)**

Gizakumeek ardua gutxiago dutela sentitzen dute, umeen zaintzan, etxeko lanen banaketan... O&ntilde;atiko hitanoa.

### **978. Maria Jesus eta hika (ONA-242/003)**

Amak agintzean hika erabiltzen zuen, aitak, ordea, ez. Maria Jesusek ez zien gurasoei hika egiten, errespetu falta zelako.

### **979. Hika: orain gaztetan baino gehiago (ONA-242/005)**

Gaur egun gehiago egten du hika gaztetan baino. Seme-alabei ez die transmititu.

### **980. Hika modu naturalean (ONA-242/008)**

Betidanik jaso du hika Milak, euskararekin batera. Senideen artean beti hika egin du, baita gurasoek haiei ere.

### **981. Elkarteak hika egiten laguntzen du (ONA-242/011)**

Ez du gogoratzen txikitan hika hitz egin izana. Amak eta lagunek hika egiten zuten. Belenek anaiekin hika egiten du, baina anaiek hari zuka. Elkarte bateko kide da, eta bertako kide diren beste emakumeekin hika egiten du.

### **982. Olabarrietan hika gutxi (ONA-242/015)**

Mutilek euren artean hika egiten zuten, baina ez du oroitzen neska-mutilak euren artean hika aritzen zirenik.

### **983. Kalean hizkuntza ohitura desberdinak (ONA-242/016)**

Auzotik kalera (O&ntilde;atira) jaitsitakoan hizkuntza ohiturak aldatu zitzaizkien, bai hikari eta bai euskarari dagokienean. Euskaraz egitean 'las caseras' deitzen zieten.

#### **984. Baserritarra izateagatik burla (ONA-242/017)**

Auzotik kalera jaitsitakoan, baserritar izanagatik seinalatu egiten zituzten. Eskolan beti erdaraz ikasi izan zuten. Burla ez egitearren, erdaraz hitz egiten zuten, baina gaizki.

#### **985. Erdararik ez jakitean, muga asko (ONA-242/019)**

Erdararik ez jakiteak mugak jartzen zizkion jendeari, esaterako, medikura joateko garaian, askotan ama lagundu behar izaten zuten.

#### **986. Euskaldunak erdara hutsean (ONA-242/021)**

Jende morderoa, gaztelania ikasi eta gaztelania gutsean egiten hasi zen, baita etxean ere. Behin ohitura hartuta, aldatzea oso zaila da.

#### **987. Hika modan? (ONA-242/023)**

Ez die inork hikarik ez egiteko eskatu, kontrara, gaur egun moda-modan dagoen kontua da, gehiago baloratzen da.

#### **988. Nork erabiltzen zuen hika? (ONA-242/025)**

Gizonek erabiltzen zuten batez ere, kalean zein auzoetan.

#### **989. Seme-alabei hika egiten al diezue? (ONA-242/028)**

Hika, egitekotan, semeei egiten diete, alabei egitea asko kostatzen zaiela diote.

#### **990. Zergatik galdu da hika? (ONA-242/029)**

Transmisio faltaren ingurukoak. Ohiturak, hikaren erabilera inkontzientea.

#### **991. Emakumeek gehiago egiten zuten erdaraz (ONA-242/031)**

Erdaraz gehiago egiten zuten emakumeek, baserritarrak izateagatik emakumeei egiten zitzaielako burla, eta ez gizoni. Euskara gizonek gorde duten bezala, hika ere beraiek mantendu dute. Gizonezkoen elkarteek ere ez dute lagundu. Gizonak eta emakumeak ez ziren berdin baloratzen.

#### **992. Noiz erabiltzen da hika? (ONA-242/033)**

Lehenengo hitza nolakoa, handik aurrerako jarduna halakoa izango da. Ezezagunekin zuka, inguruko betidaniko jendearekin hika.

#### **993. Animaliekin hika, landareekin zuka (ONA-242/035)**

Animaliekin hika, landareekin zuka. Norberaren buruarekin hika, baina batzuetan mutilen forma erabiltzen du Maria Jesusek.

#### **994. Zer da hika zuentzat? (ONA-242/037)**

Normaltasuna, konfiantza, parranda giroa, errebelde izatea, ondo pasatzea...

#### **995. Hika, hizkuntzaren beste arlo bat (ONA-242/039)**

Hika galduko balitz pena sentituko lukete. Hizkuntzaren beste arlo bat da beraientzat hika, gramatikalki oso aberatsa den tratamendua.

### **996. Galtzak lehen aldiz (ONA-243/002)**

Maria Jesusek Parisen erosi zituen lehen galtzak. Belenek, ordea, galtzak txikitatik jarri izana gogoratzen du. Milak hamasei bat urterekin erosi zituen lehen aldiz. Gizonak larritu egin ziren emakumeak galtzak jartzen hasi zirenean. O&ntilde;atiko hitanoa.

### **997. Lehenengo labadorak (ONA-243/003)**

Belenek betidanik ezagutu izan du labadora, Milak eta Maria Jesusek, ordea, ez. Eskuz eragiten zitzaion garai batean labadorari. O&ntilde;atiko hitanoa.

### **998. Gizonezkoen lanak, gogorragoak? (ONA-243/004)**

Etxeko zein baserriko lanen banaketa. Belenen etxean, emakumeek gehiago egin dituzte etxeko lanak gizonek baino. Etxean emakumeak bakarrik zeudenean, ordea, emakumeek egiten zituzten egin beharreko guztiak. O&ntilde;atiko hitanoa.

### **999. Emakumeen sozializazioa: meza eta erosketak (ONA-243/006)**

Emakumeen sozializazioa betebeharre loturik egon ohi zen, mezari eta erosketei hain zuzen. Izan ere, berriketan aritzeko aitzakia ziren horiek. Mezara joan beharra. O&ntilde;atiko hitanoa.

### **1.000. Eskolan denak batera (ONA-243/008)**

Arantzazun neska-mutilak batera egoten ziren eskolan, Araotzen, aldiz, ez. Olabarrietan denak batera aritzen ziren txikitaan, baina behin eskola nazionalean sartuta, ez. Mezetan gizonak batetik eta emakumeak bestetik. O&ntilde;atiko hitanoa.

### **1.001. Umetako jolasak (ONA-243/010)**

Maria Jesusen kasuan, Olabarrietan, denak batera jolasten ziren txikitan. Sokasaltoan, saponetan, zankarrankatan... neskak bakarrik aritzen ziren. Mutilekin batera harrapaketan, txorro-morrora, pote-poteka... O&ntilde;atiko hitanoa.

### **1.002. Erromeriak: zeinek kalabaza gehiago eman (ONA-243/012)**

Erromerietan neskak neskekin aritzen ziren dantzan, eta mutilak hurbiltzen zitzaizkien dantzan egitera gonbidatzeko. Kalabaza mordoa ematen zuten. O&ntilde;atiko hitanoa.

### **1.003. Ezkondu aurreko sexua bekatu (ONA-243/014)**

Emakumeek sexu-harremanak izatea gaizki ikusirik zegoen, gizonek izatea, aldiz, ez. Bekatua bazen ere, nobiotan eta ezkontzeko asmoa izandakoan bakarrik izaten ziren harremanak. O&ntilde;atiko hitanoa.

### **1.004. Gizonak tabernan, emakumeak kafetegian (ONA-243/015)**

Domeketan kafetegira joaten ziren neskak, baina ez tabernara. Tabernara sartzekotan, gizonekin batera sartzen ziren. O&ntilde;atiko hitanoa.



### **1.005. Gizakumeek askatasun handiagoa (ONA-243/016)**

Emakumeek duten askatasuna, gauzez bakarrik ibiltzea, presioa... Belenen kasuan, semearekin gehiago hitz egin du gaiaz alabarekin baino. O&ntilde;atiko hitanoa.

### **1.006. Haurdunaldiak ezkutatu egiten ziren (ONA-243/018)**

Inguruan haurdunaldiak ezkutatzea bizi izan du Belenek, batez ere, ezkontzatik kanpokoak zirenak. O&ntilde;atiko hitanoa.

### **1.007. Garai bateko familiak, handiak (ONA-243/020)**

Seme-alaba gehiago izaten zituzten garai batean, euren belaunaldian gutxiago. Adopzioa ere oso ohikoa zen. O&ntilde;atiko hitanoa.

### **1.008. Gizonaren baimenik gabe, ezer egiterik ez (ONA-243/022)**

Behin ezkontuta, emakumeak senarraren baimena behar izaten zuen edozein jarduera ekonomiko burutzeko. Horregatik, ezkontu aurretik egiten saiatzen ziren denak. Franco hil zenean, kendu egin zituzten neurri hauek. O&ntilde;atiko hitanoa.

### **1.009. Emakumeek 'Zerbitzu Soziala' (ONA-243/024)**

Pasaportea eskuratzeko zerbitzu soziala egin behar izana. Eskolan laboreak. O&ntilde;atiko hitanoa.

### **1.010. Zer egin noka berreskuratzeko? (ONA-243/026)**

Mintzapraktikak, tertuliak, irakaskuntza formala... O&ntilde;atiko hitanoa.

### **1.011. Hika, etxetik lagunartera (ONA-244/002)**

Etxean anai-arreben artean hika erabiltzen zuten, baita lagunartean ere. Gurasoek hika egiten zioten Mertxeri.

### **1.012. Hika erabiltzeari utzi, eta gero berreskuratu (ONA-244/004)**

Konturatu gabe bereganatu zuen Mertxek hika, eta ez du bera ere hika egiten hasi zen momentua gogoratzen. Hala ere, adin-tarte bat egon zen non ez zuen hika erabiltzen, kale-giroan gaztelania entzuten baitzen asko. Gero errekuperatu zuen hika. Gaur egun gertuko lagunekin hitz egiten du Mertxek.

### **1.013. Kanean, hikaren erabilera okerra (ONA-244/005)**

Gizonekin hika egiteko ohitura gutxiago du Mertxek. Kontu serioez hitz egiteko garaian, zuka darabil. Kaletar zenbaitek berdin egiten diete emakumei eta gizonei hika.

### **1.014. Etxean zeharka ikasi zuen hika (ONA-244/008)**

Rosak hika etxean jaso bazuen ere, ez zuen zuzenean jaso. Amak bere ahizpekin beti hika egiten zuen. Gurasoek, ordea, ez zieten seme-alabei hika giten, ezta Rosak haren anai-arrebekin ere. Lagunartean hika egiten hasi zen, baina umetan ez.

### **1.015. Heldutan hika egitea erabaki (ONA-244/010)**

Eskolan sekula ez zuten euskaraz egiten, erdaraz alfabetatu ziren. Rosak gogoan du hika ez zela bere haurtzaroraren parte izan, baizik eta helduagotan egindako hautu kontziente bat izan zela hika erabiltzea. Hika (eta euskara) baserri girora mugatzen zen.

### **1.016. Alabekin hika gutxi (ONA-244/011)**

Alabekin oso egoera jakinetan erabiltzen du hika Rosak, esaldi labur eta zehatzekin.

### **1.017. Hika gaizki ikusirik al zegoen? (ONA-244/013)**

Baserritar konplexua izaten zuten askok, bereizketa handia baitzegoen kaletarren eta baserritarren artean. Kaletarra eta erdalduna izatea zen finena. Ondorioz, hika baserritar kontua bezala ikusten zen, informalegia eta zakarra.

### **1.018. "Barrenetik urteten dotzun hizkera" (ONA-244/015)**

Hikaren erabilera ohiturei oso loturik dago, inkontzienteki erabiltzen den hizkera bat da, eta horrek egiten du berezia. Kanean ere baziren hika egiten zutenak, baina batez ere auzoetan gorde zen.

### **1.019. Hika zuka baino gogorragoa (ONA-244/017)**

Mutilek euren artean emakumeek baino gehiago egin izan dute euskaraz eta hika. Beharbada, hika zakarragoa edo maskulinoagoa bezala ikusi izan da.

### **1.020. Hika gehiago erabiltzen dute mutilek (ONA-244/019)**

Hika gutxi entzuten da gaur egun Oñatin, eta erabiltzen dutenen artean ere, mutilak gehiago dira. Kaleko hizkera moduko bat bilakatu da. Gaur egun hika gehiago baloratzen dela sentitzen dute, hobeto ikusita dagoela.

### **1.021. "Hika aproposagoa da tabernarako" (ONA-244/022)**

Rosari asko kostatzen zaio dendan hika egitea, banakako batzuekin egiten du bakarrik. Hala ere, errazago egiten du bestea gazteagoa den kasuetan.

### **1.022. Animaliei hika, loreei zuka (ONA-244/024)**

Oso inguru txikikoa da hika. Animaliekin, hika errazago. Lore bati, ordea, zuka.

### **1.023. Hikari propaganda egin behar zaio (ONA-244/026)**

Hurbiltasuna ematen die hikak. Hika galtzea ez da komeni, pena handia emango lieke. Hika erabiltzea da biziraupenaren giltza. Hobeto ikusita dago gaur egun mutilek hika erabiltzea neskek erabiltzea baino.

### **1.024. Nola berreskuratu hika? (ONA-244/027)**

Hezkuntzaren bitartez hika berreskuratu daitekela uste dute, eskolan hika irakatsiz.

### **1.025. Marmolezko labadora (ONA-244/029)**

Ez dute oroitzen labadora noiz izan zuten lehenengo aldiz. Rosaren kasuan, marmolezkoa zen, eta eskuz egiten zitzaion. Uribarriko eskolan denak elkarrekin egoten ziren. Mertxe oinez joaten zen eskolara.

### **1.026. Lehenengo galtzak 16 urterekin (ONA-244/031)**

Mertxek bere lehenengo galtzak gogoratzen ditu, zabal-zabalak. 16-17 bat urte zituzten lehenengo aldiz jantzi zituztenean.

### **1.027. Nesken lana, itaurrean (ONA-244/032)**

Neskatilen lana itaurrean izan ohi zen. Oso lan aspergarria izaten zen Mertxe eta Rosarentzat. Hondarra batzen ere aritzen ziren. Eskola garaian, josten erakustera joaten zen emakume bat Mertxeren eskolara. Oñatiko hitanoa.

### **1.028. Tabenetan sartzen ziren gaztetatik (ONA-244/034)**

Arantzazun kongregazioa zegoela gogoratzen du Mertxek. Mertxe eta Rosa gaztetatik joan izan dira tabernara, ez zen gizonen eremura bakarrik mugatzen. Oñatiko hitanoa.

### **1.029. Gona motza janzteko trikimailuak (ONA-244/036)**

Gizonek askatasun handiagoa izan dute beti, etxera beranduago bueltatzeko, adibidez. Gona motza jartzeko trikimailuak. Emakumeak itxuraz ere formala eman behar zuen. Oñatiko hitanoa.

### **1.030. Ezkondu eta lana utzi (ONA-244/038)**

Ezkondu ondoren lana uztea oso ohikoa zen, Mertxeren kasuan, hala egin zuen, baina ondoren berriro hasi zen lanean. Lantegietan behartuta egoten ziren ezkondutakoan lana uztera, ordainsari bat ematen zitzaien emakume horiei.

### **1.031. Mutilekin dantzan (ONA-244/040)**

Mutilek dantza egiteko gonbidatzeko zain egoten ziren askotan neskek. Hala ere, nesken artean ere dantzatzen aritzen ziren. Oñatiko hitanoa.

### **1.032. Ume askoko familiak eta neskame joan beharra (ONA-244/042)**

Ume askoko familiak izaten ziren garai batekoak, eta askotan denek ez zuten eskolara joateko aukerarik izaten. Neskame joaten ziren neska asko. Oñatiko hitanoa.

### **1.033. Hika gurasoengandik jaso (ONA-246/003)**

Etxean ikasi zuen Pilarrek hika, gurasoek hika egiten baitzioten. Anai-arreben artean ere hika egin izan du beti, baita auzoko lagunekin ere. Oñatiko hitanoa.

### **1.034. Hika egunerokotasunean (ONA-246/005)**

Iloba zaharrenei hika egiten die, besteei erdizka. Etxean denekin egiten du hika, baita lagun eta lankide zehatz batzuekin ere. Oñatiko hitanoa.

### **1.035. Hika ikastekotan, egoki ikasi (ONA-246/007)**

Euskara batuan ikasitakoek ez dute belarria Oñatiko hikara eginda. Hitanoa irakastekotan, Oñatiko irakatsi beharko litzateke, eta ondo irakatsi gainera, bai gizonei eta bai emakumeei nola egin, noiz egin... Oñatiko hitanoa.

### **1.036. Hika, nori egin eta nori ez egin (ONA-246/009)**

Norberaren pertzeptzioaren arabera da hika erabiltzea. Adinekoei ez zaie egiten, baina estatusaren arabera ere aldatu egiten da tratua.

### **1.037. Hika etxetik kanpo ikasi zuen (ONA-246/012)**

Hika ez zuen etxean ikasi. Anaiek euren artean hika egiten dute, baina Beatrizekin zuka. Gurasoek euren anai-arrebekin hika egiten zuten, baina seme-alabekin zuka. Familiatik kanpo ikasi du, beraz, hika. Eskolan erdaraz ikasi zuen, kalean, eta erdara bihurtu zen bere hizkuntza nagusia. Ondoren, 17 bat urterekin, euskaraz egiten hasi, eta hika ere berreskuratu zuen.

### **1.038. Hika egin, zuka jaso (ONA-246/014)**

Beatrizi hika egiten dioten gizakumeak bere adin-tarte berekoak dira gehienak. Auzoan, berriz, Beatrizek hika egiten die gizonei, baina eurek zuka egiten diote.

### **1.039. Auzoan kalean baino hika gehiago? (ONA-246/016)**

Kalera jaistean, euskararen erabilera txikiagoa zen, eta ondorioz, hikaren erabilera ere bai. Gizonen artean hika egitea ohikoagoa zen, emakumeen arteko noka, berriz, oso gutxi entzun zuten kalean. Oñatiko hitanoa.

### **1.040. "Caseritas" (ONA-246/018)**

Txikitan, kaletarrek "caseritas" deitzen zieten euskaldunak izateagatik, baina honek ez zien konplexurik eragin. Oñatko hitanoa.

### **1.041. Emakumeek erdararako joera handiagoa? (ONA-246/020)**

Nabarmenki kalean emakumeek gehiago egiten zuten gaztelaniaz gizakumeek baino. Mutilek euren artean euskaraz hitz egiten zuten, baina neskekin ez, ezta neskek euren artean ere. Gaur egun gaztelania zabaltzen ari da herrian Piliren iritziz. Oñatiko hitanoa.

### **1.042. Euskararen kontrako jarrerak (ONA-246/022)**

Garai batea bizi izan zituzten euskararen kontrako jarrerak, gaztelaniaren inposaketa. Hala ere, gaur egun gertatzen ez dela uste dute. Hika 'zakarra' zelako pentsamendua. Oñatiko hitanoa.

### **1.043. Transmisio-etena, kontzienteki (ONA-246/023)**

Bai Oñatiko euskara eta bai Oñatiko hika 'zakarra' iruditu izan zaie zenbaiti, euskara eredugarria Tolosakoa zelakoan. Gaur egungo hikaren egoera transmisio faltak eragindakoa dela diote, batzuren kasuan, nahita utzi zaio hika transmititzeari, zakarra, errespetu falta... zelakoan. Oñatiko hitanoa.

### **1.044. Baserritarrek euskara gehiago (ONA-246/025)**

50-60. hamarkadan hobeto gorde zuten euskara (eta hika) baserritarrek. Eskola erdaraz izateak ere kalte handia egin zuen. Gizonek, ordea, hobeto gorde dute. Oñatiko hitanoa.

### **1.045. Hikaren inguruko kontzientzia-hartzea (ONA-246/027)**

Hikaren inguruan orain hasi da jendea kontzientzia hartzen. Kanpotik bizitzen du jende askok, ikastea beharrezkoa izango ez balitz bezala. Seme-alabei transmititzea hautu kontziente bat da. O&ntilde;atiko hitanoa.

### **1.046. Ohiturak aldatzea, oso zaila (ONA-246/028)**

Behin zuka egitera ohituta, oso zaila da hika egitera pasatzea. Askorentzat erronka euskara mantentzea da. Harreman motak tratamenduan asko eragiten du, baita aldarteak ere. O&ntilde;atiko hitanoa.

### **1.047. Katu arrari noka (ONA-246/031)**

Beatrizek katuari hika egiten dio, gainera, batzuetan noka irteten zaio katuarekin. Pilik, ordea, mandoari eta astoari hika, behiari zuka. O&ntilde;atiko hitanoa.

### **1.048. Euren buruarekin hika (ONA-246/033)**

Pilik bere buruari noka egiten dio. Beatrizek bai hika eta bai zuka egiten du bere buruarekin. O&ntilde;atiko hitanoa.

### **1.049. Hikak segurtasuna ematen du (ONA-246/035)**

Hika hitz egiten duen horiekin hurbiltasuna eta segurtasuna sentitzen du Pilik, zukarekin sentitzen ez duena. Beatrizek gauza bera sentitzen du, baina baita zuka egiten duenekin ere. O&ntilde;atiko hitanoa.

### **1.050. "Hika galtzea ondare bat galtzea litzateke" (ONA-246/037)**

Harremantzeko modu bat, ondare bat, hizkuntzaren beste adar bat galtzea litzateke hika galtzea Pili eta Beatrizentzat. Berorika galtzea ez litzateke berdina izango. O&ntilde;atiko hitanoa.

### **1.051. Hikarekin malguagoak izan beharko genuke? (ONA-246/039)**

Errespetuaren adierazle da adineko jendeari gazteago batek hika ez egitea, baina adinekoak gazteari hika egitea oso arrunta da. Gaur egun, hika berreskuratzeko prozesuan, malgutasun handiagoa dago hikaren erabileran, eta txipa aldatzea besterik ez dela dio bikoteak. O&ntilde;atiko hitanoa.

### **1.052. Zer egin hika berreskuratzeko? (ONA-246/041)**

Gutxika-gutxika erabiltzen hasi, transmititu, irakatsi... beharko litzateke hika. O&ntilde;atiko hitanoa.

### **1.053. Hikak harrotasun puntu bat ematen al du? (ONA-246/043)**

Zenbait gizonen, nahiz eta etxean ikasi ez, euren kuadrilan hika egiten dute, hikak euskalduntasun mota desberdin bat emango balu bezala. Emakumeen kasuan, ordea, hika ez da harro egoteko moduko zerbait izan. O&ntilde;atiko hitanoa.

### **1.054. Errekara arropa garbitzera (ONA-247/002)**

Larrainan ez zegoen arropa garbitokirik, Errekalde errekkara jaisten ziren. Pilik etxean ura ezagutu du, baina labadora lehen aldiz nahiko berandu eduki zuten etxean. O&ntilde;atiko hitanoa.

### **1.055. Mutilen jolasak eta neskenak, ezberdinak (ONA-247/004)**

Neska-mutilak batera egoten ziren Beatrizen eskolan. Kaniketari aritzen ziren mutilak, gorde-gordeka denak. Kromoak. O&ntilde;atiko hitanoa.

### **1.056. Hamaika ogibide galdu dira (ONA-247/006)**

Ohitura asko galdu direla dio bikoteak, baita lanbide asko ere: banastagina, karreteroia, baserriko zenbait lan, joskina... Gari-jotzea auzoan. O&ntilde;atiko hitanoa.

### **1.057. "Auzotarren harremana galdu da" (ONA-247/007)**

Ordu mordera pasatzen zuten sukaldean, etxeko lanak egiten, artoa zuritzen, errosarioa errezatzen... Auzotarren harremana galdu egin da. O&ntilde;atiko hitanoa.

### **1.058. Elizak indar handia (ONA-247/009)**

Elizak etxeetan eragin handia zuen. Familia eredu handia, ezin ligatzea, jaunartzea, elizara dotore joan behar izatea, kongregazioak... O&ntilde;atiko hitanoa.

### **1.059. Ezkutuan irakurri behar (ONA-247/010)**

Piliren ama oso elizkoia zen, eta mezara egunero joaten zen. Eskolan ere elizak indar handia zuen, eta giro erlijiosoa oso zabaldukir zegoen gizartean. Parrokoak Piliri irakurtzea arriskutsua zela esan zion. Bekatuak asmatu beharra. O&ntilde;atiko hitanoa.

### **1.060. Prakkak lehen aldiz (ONA-247/012)**

Pilik bigarren eskuko prakkak jantzi zituen lehen aldiz, ahizparenak. Beatrizek 19-20 urterekin jarri zituen lehen aldiz.

### **1.061. Oñatz taldeak gauza asko aldatu zituen Oñatin (ONA-247/014)**

Domeketan elkartzen ziren lagunak, astean zehar ez baitziren biltzen. Kalean egoten ziren neskak, mutilak, ordea, tabernan. O&ntilde;atz gazte-taldea: antzerkia, dantza... O&ntilde;atiko hitanoa.

### **1.062. Emakumeek josten ikasi behar (ONA-247/015)**

Piliri gertatutako anekdota. Jostea betebehari moduko bat zen emakumeentzat, eskolan ere irakasten zen. O&ntilde;atiko hitanoa.

### **1.063. Baserriko lanen banaketa (ONA-247/017)**

Emakumeek gehiago egiten zuten etxe barruko lana kanpokoia baino. Ganaduaz eta soroaz gehiago arduratu izan dira gizonetzkoak. O&ntilde;atiko hitanoa.

#### **1.064. Sexua, bekatu (ONA-247/018)**

Bekatua zen ezkondu aurretik sexua izatea. Larriena ezkondu aurretik haurdun gelditzea zen, eta hauek ezkutatuta egoten ziren etxean. O&ntilde;atiko hitanoa.

#### **1.065. Gizonak lehenago atera, beranduago bueltatu (ONA-247/019)**

Gizonek askatasun gehiago izan dute orokorrean, adibidez, gauez etxera bueltatzeko garaian, kanpoko herrietara parrandan joatean... O&ntilde;atiko hitanoa.

#### **1.066. Erromeriak: mutilak dantza eske (ONA-247/021)**

Erromerietan mutilak joaten ziren neskei dantzari egiteko eskatzera. Bestela, neskek neskekin dantzatzen zuten. Dantzalekuan, ordea, neskek ez ziren mutilen gonbitearen zain egoten. O&ntilde;atiko hitanoa.

#### **1.067. Umeak umeak zaintzen (ONA-247/023)**

Ume-zaintza handia egon da anai-arreben artean, batez ere alaben artean. Oso ohikoa zen alaba zaharrenak haren anai-arrebak zaintzea. O&ntilde;atiko hitanoa.

#### **1.068. Neskame lana, ohikoa (ONA-247/024)**

Neskame lanak egitea oso arrunta zen garai batean. Pilik neskameak ezagutu izan ditu etxean, tripa-trukean. O&ntilde;atiko hitanoa.

#### **1.069. Ezkondutakoan lana utzi (ONA-247/025)**

Beatrizen lankide askok lana utzi zuten ezkondutakoan. Lan eskaintza handiagoa zen garai batean gaur egun baino. O&ntilde;atiko hitanoa.

#### **1.070. Batuaren eragina euskalkian (ONA-249/004)**

Hitanoan ez daki, baina euskalkian eragin du eskolako euskarak, eta bertako hitz eta esamolde jator batzuk galdu egin dira; asteko egunak, adibidez. "Umearen zorionak dira" esaldia aipatzen du.

#### **1.071. Gazteen euskara maila (ONA-249/008)**

Kezka dauka ea D ereduan ikasiko Oñatiko gazteak gai ote diren batuan ondo moldatzeko. Oñatieraz ere justu samar sumatzen ditu batzuek...

#### **1.072. Sozializatzeko moduak (ONA-249/014)**

Sozializateko modu diferenteak izan dituzte emakumeek eta gizakumeek. Bizitza sozialagoa zuten gizonek. O&ntilde;atz-ekin hasi ziren gauzak egiten. Neskek ohitura handiagoa zuten erdaraz jarduteko mutilek baino. Oraingo egoera zein den.

#### **1.073. Berbalagunak eta Euskaraldia (ONA-249/017)**

Berbalagunari buruz hitz egiten du. Euskaldun berriek Euskaraldian txapa jartzeko dituzten beldurrez. Askotan ez diegu bidea errazten eta erraz kritikatzeko ditugu. Euskaraldiaren eraginkortasunari buruz dihardu.

#### **1.074. Kanean, lagunartean eta fabriketan erdaraz (ONA-250/004)**

Lagunartean erdaraz egiten zuten, batez ere fabriketan. Mutilek euren artean euskaraz egiten zuten, baina neskei erdaraz zuzentzen zitzairen. Senideen artean beti hika egin dute.

#### **1.075. Etxean hika entzun du beti (ONA-250/008)**

Etxean betidanik entzun du hika, gurasoek osaba-izebekin hitz egiten zuten. Amandreak eta aitajaunak ere hika egiten zuten. Gurasoek hika egiten zieten, eta anaiarekin beti egin izan du.

#### **1.076. Seme-alabei hikarik ez (ONA-250/009)**

Hernanin bizi da Eli, baina hango kuadrilakoekin eta ikastolako zenbaitekin hika egiten du, baita senarrarekin ere. Seme-alabei, ordea, ez die hika egiten.

#### **1.077. Zaharragoari hikarik ez (ONA-250/014)**

Lagunartean hika egiten zuten euskaraz egitean, baina erdaraz ere asko hitz egiten zuten. Adinak hikaren erabilera baldintzatzen zuten.

#### **1.078. Norekin egiten duzu hika? (ONA-250/015)**

Lagunartean asko erabiltzen du hika, baina seme-alabekin ez. Lehengusu eta lehengusinekin egiten du hika.

#### **1.079. Mariaxunek hika ez du etxean jaso (ONA-250/018)**

Gurasoek ez diote inoiz hika egin, ezta Mariaxunek anaiei ere. Amak Legazpiko euskalkian egiten zien, eta bere anai-arrebekin hika egiten zuten, baita aitak bere anai-arrebekin ere. Mariaxunen anaiek euren artean ez dute hika egiten, baina bai Mariaxunen senarrarekin.

#### **1.080. Agustindarrek bideratutako mugimendua (ONA-250/019)**

Hamasei bat urte zituztenean, agustindarrek bultzatuta, kulturaren eta euskararen inguruan taldeak sortzen hasi ziren. Honekin batera, Mariaxunek hika ikasi zuten.

#### **1.081. Ezkondu aurretik hika, ondoren zuka (ONA-250/022)**

Ohikoena izan da nobiotan hika egin arren, ezkondukoan zuka pasatzea. Milak eta Elik senarrarekin hika egiten jarraitzen dute ordea.

#### **1.082. Zubillagan hika asko egiten al zen? (ONA-250/024)**

Eliren izebek beti hika egiten zuten lagunekin eta anai-arrebekin. Auzoan hika egitea oso arrunta zen, zabaldurik zegoen. Transmisio etena Eliren belaunaldiaren ondoren egon da (65 urtetik beherako artean).

#### **1.083. Bizitza auzoan, eskola kanean (ONA-250/025)**

Belaunaldi batetik bestera hikaren erabilera asko galdu da. Beharbada, eskolara kalera jaitsi izanagatik da, edo gazteagoek erdaraz gehiago egiten dutelako. Hika egiteko modua ere aldatu da.



### **1.084. Vatikanoko II. elizbatzarra eta Oñatiko kultur mugimendua (ONA-250/027)**

Vatikanoko II. elizbatzarra ospatzeak seminarioetan eragin handia izan zuen. Ondorioz, agustindarrek mugimendu kulturala martxan jarri zuten Oñatin. Auzoetako mezetara joaten hasi ziren, abesti berriak sortzen, heziketa berritzen eta abar. Auzoetan ekintza asko antolatu ziren, liburutegiak sortu... Eli eta Mila JOC mugimenduan sartu ziren.

### **1.085. Euskaraz alfabetatzen hasi (ONA-250/028)**

Elizaren babesean, Oñatin kultur mugimendua sortzen hasi zen. Euskara irakasten hasi ziren Oñatiaren 'Metodo radiofonico' bidez, jendea euskaraz alfabetatzeko balio izan zuen.

### **1.086. Auzotarra eta euskalduna izateagatik iraindu (ONA-250/030)**

Gizakumeen artean euskaraz egiten zuten, baina erdaraz zuzentzen zitzaaien emakumeei. Euskaraz egiteagatik konplexu asko zituzten baserritarrek, izan ere, askotan iraintzen zituzten emakume baserritarrak kalera joaten zirenean. Parrokiara joatean ere, auzoetako umeak atzean esertzen ziren. Maristetako ikasleak eta eskola publikokoak ere ez ziren modu berean tratatzen.

### **1.087. "Que pena que no seas castellana" (ONA-250/031)**

Elik ondo idazten zuen, baina euskalduna izateagatik baldartzat hartzen zuen maistrak, euskara atzerakoia balitz bezala.

### **1.088. Elizara buruko-zapirik gabe joatea erabaki zutenekoa (ONA-250/033)**

Auzotarra izateagatik sufritutakoak. Elizan atzean esertzen ziren, eta uniformerik ez zuten eskola publikora joaten zirelako. Auzo mailan elizara burukorik gabe joatea erabaki zuten.

### **1.089. Hika, burla egiteko arrazoi? (ONA-250/034)**

Baserritarra eta euskalduna izateaz gain, hika egitea burlarako eta bazterkeriarako arrazoi bat gehiago zen batzuentzat. Errespetu faltatzat jotzen zuten zenbaitek. Kaleko neska gazteek, orokorrean, erdaraz egiten zuten.

### **1.090. Auzotik kalera, penaz (ONA-250/036)**

Martinez de Zuazo ahizpak kalera jaitsi ziren bizitzera, eta penaz bizi izan zuen hori Elik. Auzotarrek oso harreman estua izaten zuten, eta auzotik kalera jaiste urrutira bizitzera joatearen modukoa zen. Oñatiko hitanoa.

### **1.091. Bederatzietan berbernatik etxera (ONA-250/037)**

Zubillagatik kalerko berbenara jaisten ziren dantza egitera. Bederatziak eta bostean izaten zuten azken autobusa auzora itzultzeko. Ahalik eta gehien luzatzen zuten dantza, eta gero korrika joan behar izaten zuten autobusa hartzera, etxera berandu ez iristeko. Oñatiko hitanoa.

### **1.092. Zergatik galdu da hika? (ONA-250/039)**

Eliren iritziz, hika desprestigiatuta eta baztertuta egon da. Handinahiak zituztenek hika alderatu egin zuten. Garai batean oso arrunta zen denen artean hika egitea, baina hikak fama txarra hartu zuenean, erabiltzeari utzi zitzaion, askotan, modu inkontzientean.

### **1.093. Emakumeei hika gizonen moduan egiten diete askok (ONA-250/041)**

Emakumeen artean hika egiteko ohitura asko galdu da. Gizakumeen artean, aldiz, askok kalean ikasi dute, baina gizonen forma bakarrik. Ondorioz, emakumeei gaizki egiten diete hika.

### **1.094. Kanpotar asko Zubillagan (ONA-250/042)**

Zubillagara kanpoko jende asko joan zen bizitzera denbora gutxian, nafarrak, kantabriarrak, andaluziarrak... Oso auzo industrialak izan da beti. Etorkinen seme-alaba batzuek euskaraz ikasi zuten.

### **1.095. Gizonen sozializazioa, desberdina (ONA-250/044)**

Elkartek, tabernek... leku handia zuten gizonen sozializazioan. Bertan elkartzan ziren ia egunero, eta beharbada, hika gordetzen lagundu du honek. Emakumeak, ordea, ez ziren ia kalean egoten, eta gutxiago tabernetan. Honen ondorioz, tabernetan egoteko ohitura horrek jarraitu egin du, eta gizonen arteko harreman-sarea belaunaldiz-belaunaldi mantendu egin da. Belaunaldi batetik aurrera, auzoko eskola itxi, eta kalera jaisten ziren eskolara. Oñatiko hitanoa.

### **1.096. Zein baldintza behar dira hika egiteko? (ONA-250/046)**

Hika egitearen atzean zenbait baldintza daude, ezin da edozeinekin hika egin. Haien artean: gertutasuna, konfiantza, ohitura... Oñatiko hitanoa.

### **1.097. Animaliekin hika ala zuka? (ONA-250/047)**

Sarak txakurrari zuka egiten dio, baina senarrak hika. Mariaxunek zuka katuari. Elik zuka egiten zuen lehen baserriko animaliekin. Euren buruarekin, ordea, hika egiten dute denek.

### **1.098. Zer ematen dizue hikak? (ONA-250/049)**

Satisfazioa, normaltasuna, konplizitatea, konfiantza, gertutasuna...

### **1.099. Lehenengo labadorak (ONA-251/002)**

Labadora asmakuntza handia dela diote. Hasiera batean, asmatutako labadorak gaboia botatzeko ziren, eta gero norberak atera eta lehortu egiten zituen. Arropa bakoitzak bere erara garbitzen zuen. Oñatiko hitanoa.

### **1.100. Umetan, neska-mutilak batera? (ONA-251/004)**

Neskak sakaponetan, salto-saltoka, pelotan, bole-boleka... Mutilekin batera ibiltzen ziren askotan eskolan. Futbolerako lekuri ez zegoenez, beste jolas batzuk biltzen zituzten. Oñatiko hitanoa.

### **1.101. Berorika erabiltzeko eskatu (ONA-251/005)**

Elik berorika erabili behar izateari buruzko anekdota bat kontatzen du. O&ntilde;atiko hitanoa.

### **1.102. Neskek laboreak, mutilek marrazkia (ONA-251/007)**

Madalenako eskolako kideak eta lagunak. Adin ezbedineko ikasleak nahasturik egoten ziren. Atean egun batean neskek laboreak izaten zituzten, eta mutilek marrazkiak egiten zituzten. O&ntilde;atiko hitanoa.

### **1.103. Aldaketak bizi izan dituen belaunaldia (ONA-251/009)**

Garai bateko ohituren galera. Eten handiagoa egon da Eliren belaunalditik hurrengoetara, aurrekoetan baino: autoak, aparatuak... Gaztetan bizitakoa eta helduek kontatutakoa antzekoa izan da euren kasuan, gaur ordea ez.

### **1.104. Jatekoa kontserbatzeko trikimailuak (ONA-251/010)**

Jateko ohiturak asko aldatu dira garai batetik hona. Ezkontzetan, adibidez, oilaskoa jaten zen lehen. Garia ereitea. Janaria ondo mantentzeko egiten zituztenak. O&ntilde;atiko hitanoa.

### **1.105. Abadeak Zubillagara gustura joaten ziren (ONA-251/012)**

Elizaren indarra. Astean behin joaten zen apaiza Zubillagara meza ematera. "Eibar txiki" esaten zioten Zubillagari, jende askok kale egiten baitzuen mezan. O&ntilde;atiko hitanoa.

### **1.106. Don Leandro eta Don Benigno apaizak (ONA-251/014)**

Don Benigno oso apaiz irekia zen, Don Leandro ere oso apaiz ona omen zen. Baraualdia egin beharra. O&ntilde;atiko hitanoa.

### **1.107. Emakumeak eta galtzak (ONA-251/015)**

Elik hogeit bat urterekin erosi zituen galtzak lehen aldiz, lanerako behar zituen eta. Iratan ibiltzeko galtzak erabiltzen hasi zen, zauriz betetzen baitzen bestela. O&ntilde;atiko hitanoa.

### **1.108. Tabernako komunera ezin joan (ONA-251/017)**

Neskak ez ziren tabernan sartzen, eta mutilekin sartu behar zuten tabernan komuna erabili ahal izateko. Mariaxun eta lagunak zinera joaten ziren arratsetan, gero kafetegira sartzen hasi ziren.

### **1.109. Hotza pasatzen zuten neskek kalean (ONA-251/018)**

Urtean hirutan egoten zen berbena herrian. Neguan kalean gora eta behera egoten ziren neskak, eta hotz handia pasatzen zuten, ezin baitziren tabernara sartu. Umetz kafetegia irekitzea asko eskertu zuten. O&ntilde;atiko hitanoa.

### **1.110. Josten ikasi behar (ONA-251/020)**

Etxeko lanez gain, josten ere ikasi behar izaten zuten neskek. Horretarako, laboreetara joaten ziren. Eliri maistrak beka bat eskatzeko gomendatu zion, eskatzera joan eta orduantxe konturatu zen Eli 'pobrea' zela. Josten ikastea

oso beharrezkoa zen, arropa adabakiz beterik eukitzen baitzuten. O&ntilde;atiko hitanoa.

### **1.111. Lana uzteagatik dirua eman (ONA-251/022)**

Ezkondutakoan emakumeak lana uzteagatik ordaindu egiten zen. Frankismo garaian derrigorrezkoa zen hori. Penaz utzi zuen lana Mariaxunek. O&ntilde;atiko hitanoa.

### **1.112. Gustuko mutila etorriko zain (ONA-251/024)**

Dantzara joaten zirenean, neskek neskekin egiten zuten lana, baina beti ere gustuko mutila non zen jakinda, dantzan gonbidatuko zituzten zain. Gero, dantzalekua ireki zuten, eta bertara joaten ziren dantzara. Gustuko mutilekin bakarrik dantza egitea abentura hutsa zen. O&ntilde;atiko hitanoa.

### **1.113. Auzoko mutilen lagun, kaleko mutilekin dantzan (ONA-251/025)**

Auzoko mutilekin batera askotan egoten zirenez, lagunarteko harremana zuten, ez zuten haiekin dantzarik egiten igandetan. Kalekoekin, ordea, bai. O&ntilde;atiko hitanoa.

### **1.114. Binaka dantza egiteko eskatzera (ONA-251/026)**

Binaka joaten ziren mutilak neskengana dantzan egiteko eskatzera. Mutilak ezagunak zirenean, erraz jakiten zuten zein zen laguntzera zihoana, eta zein dantzan eskatzera. Baina, beste batzuetan, mutil biak ezezagunak zirenez, ez zuten jakiten zein zen interesa zuena eta zein laguntzen ari zitzaiona. O&ntilde;atiko hitanoa.

### **1.115. Edaria eta tabakoa gizonen kontua (ONA-251/028)**

Gauetz berandu arte gelditzeko garaian gizonak askatasun handiagoa zuten emakumeek baino. Azken trena hartzen zuten etxera joateko. Emakumeek parranda ez zuten modu berean bizitzen, ez baitzuten edaten, ezta erretzen ere. Ondorengo belaunaldietan hori aldatu egin zen. O&ntilde;atiko hitanoa.

### **1.116. Antisorgailurik ez zuten ezagutzen (ONA-251/031)**

Ezkundu aurretik sexu-harremanak izateari beldur handia zitzaion, ezkondu aurretik haurdun gelditzea oso gogorra izaten zen, bai emakumearentzat eta baita familiarentzat ere. Bestetik, ordea, antisorgailurik ez zuten ezagutzen, eta ohikoa zen emakumea haurdun zegoela ezkontzea.

### **1.117. Geroz eta familia txikiagoak (ONA-251/033)**

Ume askoko familiak ziren ohikoenak, batez ere nagusiagoen kasuan. Mariaxunen amak esan zion Arantzazun fraide bat zegoela, sexu-harremanak noiz izan zitezkeen eta noiz ez azaltzen zuena (haurdun ez gelditzeko).

### **1.118. "Etxean neskame sentitu gara" (ONA-251/035)**

Anaiak zerbait behar izanez gero, arrebak beti lagundu egin behar zion. Emakumeak lana etxeane ta etxetik kanpo egin behar izate hori apurtu nahi izan dute Mariaxunek, Elik eta Milak. O&ntilde;atiko hitanoa.

### **1.119. Hika ez zaio edozeini egiten (ONA-252/004)**

Hika konfiantzazko pertsonekin bakarrik egiten dute. Koadrilan beste birekin bakarrik egiten dute hika (Ixiar eta Kontxi).

### **1.120. Natik senarrarekin hika (ONA-252/008)**

Auzoan ikasi zuen hika Natik, etxean ez zioten egiten eta. Karmenekin hika egiten du, automatikoki. Senarrarekin ere bai; Beasaingoa da hura. Horren eraginez, Natik euskara apur bat nahastuta dauka.

### **1.121. Auzoan hika egiteko ohitura handia (ONA-252/011)**

Alabei ez die hika egiten Natik. Karmenek ere mutilei hika egiten die baina neskei ez. Gurasoei zuka egiten zien Karmenek, baina haiek berari beti hika. Lekunberrin (Trianan) hika egiteko ohitura zuten kalean.

### **1.122. "Triana", auzo berezia (ONA-252/013)**

Lekunberrikoak basati samarrak zirela diote. "Kontuz honekin, trianarra dok eta!".

### **1.123. Auzokoekin hika orain ere (ONA-252/015)**

Umetatik ikasi zuen hika Karmenek. Gurasoek beren senideekin ere hika egiten zuten. Auzoan hika egiteko ohitura zuten umetan. Gaur egun ere askorekin egiten du hika Karmenek.

### **1.124. Erderaz, norbere buruari inportantzia emateko (ONA-252/021)**

Erdaraz egiten zuten batzuetan, beren buruei inportantzia emateagatik edo. Mutil batzuekin ere bai.

### **1.125. Auzokoak auzokoekin (ONA-252/023)**

Auzokoak auzokoekin ibiltzen ziren, ez ziren beste auzo batzuetako umeekin nahasten.

### **1.126. Triana aparteago geratzen zen lehen (ONA-252/025)**

Triana aparteago geratzen zen lehen. Orain dena da bat.

### **1.127. Hika, "harreman goxoagoa" (ONA-252/028)**

Hitanoak konfidantza eta goxotasuna ematen duela diote.

### **1.128. Erdararen eragina hitanoaren galeran (ONA-252/033)**

Erdera sartu izanak hitanoaren galerarekin zer ikusia izan dezakeela uste du Karmenek. Eta orain ere erdara ikusten du nagusi. Euskararen kontzientzia, Franco hil ostean.

### **1.129. Gero eta gutxiago egiten da hika (ONA-252/035)**

Hika hitz egiten dutenak gutxi direla dio Karmenek, egoera aldatu egin zela erderaren eraginez. Gazteek ez dute hika asko egiten.

### **1.130. Mutil gazteek gehiago egiten dute hika neskek baino (ONA-252/037)**

Neska gazteek ez dute hika egiten. Mutil gazteek askoz gehiago.

### **1.131. Txakurrari hika, lorei zuka (ONA-252/039)**

Txakurrari hika egiten dio Karmenek eta katuei ere bai, baina lorei zuka. Beren buruekin ere hika egiten dute.

### **1.132. Hika: konfidantza eta gertutasuna (ONA-252/040)**

Hikak gertutasuna eta konfidantza ematen die, konplizitate bat.

### **1.133. Hika kalean ikasi zuen (ONA-254/003)**

Mari Karmenek kalean ikasi zuen hika, etxean ez baitzuen jaso. Kaleko lagunekin ez du hika egiten, baserritarrekin, bai. Anaia zaharrarekin ere hika egiten du. Aitak anaiarekin hika egiten zuen.

### **1.134. Semeekin hika egiten du (ONA-254/004)**

Semeekin hika egiten du. Senarrarekin, ordea, erdaraz egin du beti, Arrasatekoa baita hura, eta asko galdu zen euskara han senarraren belaunaldian.

### **1.135. Nola jaso duzue hika? (ONA-254/007)**

Etxean hika entzun dute betidanik, izan ere, mugimendu handia zegoen euren baserrian. Aitaren lagun eta senide asko joaten ziren bertara denbora pasatzera, eta haiekin denekin hika egiten zuen. Marijeri eta Beatrizi hasieran zuka egiten zien, gero dena hika. Amak ere hika egiten zien. Senideen artean gehienekin hika egiten dute, gazteenarekin izan ezik.

### **1.136. Hika eta idatzi gabeko arauak (ONA-254/009)**

Idatzi gabeko arauak daude hikaren erabileran. Marijeren iritziz, txikitan zuka egiten zitzairen umeei, baina behin 6 urteak bete zituztenean (Jaunartzea egitean), hikara pasaten ziren gurasoak. Beatrizek haren alabari ez dio hika transmititu. O&ntilde;atiko hitanoa.

### **1.137. Eskolek asko erdaldundu zituzten gazteak (ONA-254/010)**

Kolegioek eragin handia izan zuten mutilengan, eta asko erdaldundu zituen. Marije eta Beatrizek auzo -eskolan ikasi zuten, eta eskolatik atera bezain pronto, euskaraz eta hika egiten zuten. Maistrak zigortu egiten zituen euskaraz egiteagatik. O&ntilde;atiko hitanoa.

### **1.138. Kalean bizi ziren auzotarrak lagun (ONA-254/011)**

Auzotik kalera jaitsi zen familia bizitzera. Bertan, ordea, auzotik jaitsitako gazte guztiak bildu eta lagun-taldea egin zuten. Hika hitz egiten zuten haien artean. Ahizpa moja joan zen eta moja nagusiari hika egitetik berorika egitera pasa behar izan zuen. O&ntilde;atiko hitanoa.

### **1.139. Mutilarteko hika biziago (ONA-254/013)**

Familian eta etxean hika egiten dute, baita euren adineko gertuko jendearekin ere. Mutilei samurrago egiten die hika Marijek. Mutilen arteko hika biziago dagoela uste du. Oñatiko hitanoa.

### **1.140. Kale-giroan hika gaizki ikusirik (ONA-254/014)**

Eskolan auzoko umeek egiten zuten hika, eta, bartezen ere, mutilen artean erabiltzen zen. Hikak ez zeukan inongo prestigiorik, eta ez zegoen ondo ikusirik. Oñatiko hitanoa.

### **1.141. Laudioko euskararen egoera (ONA-254/016)**

Marijek, lana dela eta, Laudioko egoera soziolinguistikoa ongi ezagutzen du. Oñatin kasu batzuk dauden bezalaxe, Laudion bada belaunaldi bat euskara transmititu ez zaiona, gurasoek erdararik jakin ez, eta seme-alabek dena erdaraz egiten dutena. Hizkuntza ohiturak aldatzea oso zaila da. Oñatiko hitanoa.

### **1.142. Hika norekin erabili izatea da gakoa (ONA-254/017)**

Beatrizek ez dio alabari hika transmititu, gurasoei egiterik ez baitie, eta haren laguneartean hikarik ez dute erabiltzen. Hika jakitea kontu bat da, eta hika norekin hitz egin edukitzea beste bat. Oñatiko hitanoa.

### **1.143. "Niri egin hika nesken moduan!" (ONA-254/018)**

Nesken arteko hika gehiago galdu da mutilen artekoa baino. Ondorioz, mutilena bakarrik dakien jendeak, hori bera erabiltzen du bai neska bai mutilekin. Neskek, ordea, normalean bi formak jakiten dituzte. Oñatiko hitanoa.

### **1.144. Zergatik galdu da gehiago nesken arteko hika? (ONA-254/019)**

Emakumeak beste fase batean egon omen dira beti, zintzoagoak, finagoak... izan behar. Hika ez zen dotorea gizartearentzat, eta hori dela eta, emakumeak hika egiteari utzi ziotela uste du Marijek. Beatrizek denbora askoan ez zuen norekin hika egin. Oñatiko hitanoa.

### **1.145. Ezin hikarik egin (ONA-254/020)**

Beatrizek normalean zaharragoekin egin du hika, haren adineko inork ez baitzuen hika hitz egiten. Oñatiko hitanoa.

### **1.146. Gizonen eta emakumeen sozializazioa, desberdina? (ONA-254/022)**

Hika oso loturik dago sozializazioarekin. Emakumeen eta gizonen sozializazioa, ordea, oso desberdina zen, eta horrek hikaren erabileran, galeran eta transmisio faltan eragina izan dezake. Gainera, Mari Karmenen garaian, neskek eta mutilak ez ziren denak elkarrekin egoten, baizik eta bakoitza bere aldetik. Auzoz auzo, ordea, asko aldatzen da egoera, izan ere, Araotzen neska-mutilak batera egoten ziren beti. Oñatiko hitanoa.

### **1.147. Desberdina zen kaletarra edo baserritarra izatea (ONA-254/023)**

Mari Karmenen garaian, emakumeak ez ziren bakarrik tabernara joaten, kategoria baxukoa balitz bezala ikusten zen hori gizartean. Lagun guztiak kaletarrak izateak ere euskararen erabileran (eta hikarenean) eragiten zuen. O&ntilde;atiko hitanoa.

### **1.148. Dena gaztelaniaz ikastearen ondorioak (ONA-254/024)**

Biderkaketak, zenbakiak... gaztelaniaz ikasten zituzten eskolan, eta gaur egun euskaratzea asko kostatzen zaie. Marijeren aitak Arabara joan behar izan zuen gaztelania ikastera. Adela izeneko maistra elebiduna zen, eta bi hizkuntzak jakitea ona zela transmititu zien. O&ntilde;atiko hitanoa.

### **1.149. Ahoz euskaraz, idatziz gaztelaniaz (ONA-254/026)**

Gogoan du Marijek anaia soldadutzara gaztelaniaz jakin gabe joan, eta handik gutunak gaztelaniaz idatzi izana, eskolan gaztelaniaz idazten ikasi baitzuten denek. O&ntilde;atiko hitanoa.

### **1.150. Baserritarra izatea lotsagarria zen (ONA-254/028)**

Hika eta euskara bera gutxituta zegoen oso Frankismo garaian. Hika batez ere emakumeen artean galdu zen. Gizonen arteko harremana baserri-girokoa zen askotan, eta hika mantendu zuten. Mari Karmenek gogoan du kalean zehar behiak gidatzen zituela, baserritar izaera ebidentzian uzteko modu bat zen hori eta lotsaz bizi zuen.

### **1.151. Hilerokoaz ezin hitz egin (ONA-254/029)**

Arantzazura oinez joan ziren batean, Mari Karmeni hilerokoa jaitsi zitzaion, eta gertuko batekin gurutzatutakoan, kontatu egin zion. Amak errieta handia egin zion hilerokoaz hitz egin zuelako. O&ntilde;atiko hitanoa.

### **1.152. Amandreak linterna erabiltzen jakin ez (ONA-254/031)**

Goizeko seietako mezara joaten ziren bizilagun guztiak, sua edo linterna eskuan. Amandreari linterna oparitu zioten, baina ez zekien erabiltzen. O&ntilde;atiko hitanoa.

### **1.153. Hika egitea errebelde izatea al da? (ONA-254/033)**

Hika egitea errebelde izateko beste modu bat da Mari Karmen eta Marijerezat. Emakumeei mutilen hika egitea. Hurbiltasuna eta konfiantza ematen du hikak. O&ntilde;atiko hitanoa.

### **1.154. Abadearen aitari ere berorika (ONA-254/034)**

Zuka errespetu moduan, hika konfiantza bat dagoenean erabiltzen da. Berorika erabiltzen zen garaian, ordea, hika multzo berean zeudenei egiten zitzaien, gizarteko talde berekoei. Bakoitzarekin zein tratamendu erabili esan beharrik ez zen. O&ntilde;atiko hitanoa.



### **1.155. Bikotearekin normalean zuka (ONA-254/036)**

Araotzen neskak eta mutilak denak batera egoten ziren. Lagun-taldetik, bikoteak sortu eta elkarri hika egiten zioten. Marijerentzat, ordea, bikotean zuka egitea iruditzen zaio naturalena. O&ntilde;atiko hitanoa.

### **1.156. Norberarekin hitz egiteko, mutilen hika (ONA-254/038)**

Mari Karmenek bere buruarekin emakumeen hika darabil. Marijek, ordea, bai hika eta bai zuka, hikaren kasuan, mutilena. Ametsetan, egoera larritan, hika, besteala zuka. Mari Karmenek erdaraz hitz egiten du ametsetan. O&ntilde;atiko hitanoa.

### **1.157. Umeei euskaraz egitea da naturala (ONA-254/040)**

Mari Karmenen amaginarreba eta ataginarreba burgoskoak dira, baina umeei euskaraz egiteko konpromisoa hartu zuen Mari Karmenek haiekin, ez baitzitzaion umei erdaraz egitea ateratzen. O&ntilde;atiko hitanoa.

### **1.158. Euskaraz egiteagatik errieta (ONA-254/041)**

Euskaraz egitea gaizki ikusirik zegoen garaian, justifikaturik zegoen oso euskaraz egiteagatik jendea zigortzea edo errieta egitea. Hala ere, Marijek seme-alabei euskaraz egitea erabaki zuen, senarra erdalduna bazuen ere. O&ntilde;atiko hitanoa.

### **1.159. Laudion bizitza euskaraz egiteko erabakia (ONA-254/043)**

Hizkuntza ohitural aldatzea asko kostatzen da. Bizitza osoan norbaitekin gaztelaniaz egitera ohituta, oso zaila da euskarara pasatzea. Marijek Laudion erosketak euskaraz egitea erabaki zuen. O&ntilde;atiko hitanoa.

### **1.160. Animaliei eta landareei hika (ONA-254/045)**

Animaliei normalean hika egin izan diete, batez ere txakurrari. Marijek behiei zuka. Mari Karmenen amak loreei hika egiten zien, mutilen forman. O&ntilde;atiko hitanoa.

### **1.161. Jaungoikoari hika? (ONA-254/047)**

Leizagarrak Jaungoikoari hika egiten zion. Marijeren iritziz intimitate kontua dago tartean, etxean hika (konfiantzazko eremuan) eta elizan zuka edo berorika egiten zitzaion. Mari Karmenen amandreak ere hika egiten zion Jaungoikoari. O&ntilde;atiko hitanoa.

### **1.162. Etxeko jauna hildakoan, lehen abisua haren erleei (ONA-254/049)**

Etxeko jaunak zaintzen zituen baserrietan erleak. Jauna hildakoan, erleei ematen zitzaaien lehen abisua, zerurako bidean lagun zezaten. Erleei zuka egiten zitzaaien. O&ntilde;atiko hitanoa.

### **1.163. Erleen mundua (ONA-254/050)**

Prestigio handikoa zen erleen mundua. Harrigarria egiten zaio Marijeri orain erleak salerostea, izan ere, garai batean harrapatu, eta behin erlauntzak marka izanda, inork ez zuen beste inoren erlerik jasotzen. O&ntilde;atiko hitanoa.

### **1.164. Hikak zer ematen dizue? (ONA-254/052)**

Hurbiltasuna, konfiantza, etxeko izaera. Hika galduz gero tristura handia emango lieke, 'espezie' bat galtzea moduan. Hizkuntzaren zati garrantzizko bat galtzea litzateke. O&ntilde;atiko hitanoa.

### **1.165. Hikaren berpiztea emakumeen ikuspegitik (ONA-254/054)**

Emakumeen ikuspegitik bultzatu beharko litzateke hikaren berpiztea, mutilen forma eta neskena ikasiz.

### **1.166. Baserritarren euskara aberatsagoa (ONA-254/056)**

Mari Karmenen iritziz baserritarren euskara aberatsagoa da eta izan da kaletarra baina. O&ntilde;atiko hitanoa.

### **1.167. Nesken eta mutilen arteko lan banaketa baserrian (ONA-255/002)**

Nesken eta mutilen lanak baserrian. Marijek, lau anaia zituenez, kanpoko lan gutxi egin behar izan zuen. Eurenean neskek etxe barruko lanak egiten zituzten. Anaiak soldadu joan zirenean bakarrik tokatu ei zitzaion sardea hartzea. Mari Karmenek itulan edo ortuan lan egiten zuen. Ortuko lanak askotan emakumeen ardura izaten ziren. Bestelako lanak ere egin behar izaten zituen, anaiak gazteagoak zituen eta. Garia ereiteari noiz utzi zioten.

### **1.168. Bekatua emakumeekin lotzen zen (ONA-255/003)**

Elizak indar handia zuen sasoi batean. On Migel apaiz emakumezalearen inguruko kontuak. Haurdun geratzen ziren emakume ezkongabeak aldarera igoarazten zituzten meza nagusitan, herri osoaren aurrean lotsagarri uzteko. Bekatuak emakumeekin lotzen ziren beti eta ondorioak ere emakumeek jasaten zituzten.

### **1.169. Kaltea eragin arren, elizak indar handia (ONA-255/004)**

Elizak kalte handia egin zuen Marijeren ustez. Franco paliopean ibiltzea, jainkoa bakarrik ibil zitekeen lekuan ibiltzea, harrigarria egiten zitzaion garai bateko ezkerreko jendeari. Hori ikusi arren eta herrian nahi zuena egiten zuen abade emakumezale bat egon arren, elizak bete egiten ziren. Fenomeno berezia da sinesmenarena.

### **1.170. Emakumeek, ezkontutakoan, lana utzi? (ONA-255/005)**

Garai bateko emakumeek lana uzten zuten ezkontzen zirenean. Gainera, dotea ematen zitzaien. Gerora, emakumeek lanean jarraitzeko aukera izan dute, baina Marijek dio ez ote zitzaien lana bikoiztu orduan, etxeko zereginak egiten emakumeak jarraitu zuelako.

### **1.171. Gizonezkoak umeak zaintzen hasi zireneko kontuak (ONA-255/006)**

Emakumeek askotan ez dutela zaintza lana besteen esku utzi izan dio Marijek, autokritika eginez. Gizonezkoak umeen zaintzan hasi ziren garaietako kontuak. Mari Karmenek kontatzen du ume-zain zebilen aitona bati "zer, oilarra txita zain?" esan ziotela. Zaintza gizonen esku uzten zuten emakumeak kritikatu egiten ziren.

### **1.172. Gizonezkoak etxeko lanetan edo umeen zaintzan (ONA-255/007)**

Garai bateko gizonak ez zeuden ohituta etxeko lanak egiten. Arrebak baldin bazituzten, haiek egiten zituzten etxeko lanak; esaterako, anaien oinetakoak garbitzea. Pixkanaka aldatzen joan da, baina oraindik ere bide luzea dagoela dio Marijek. Gizonezko batzuk orain dela gutxi hasi dira etxeko lanak edo umeen zaintza osoki euren gain hartzen.

### **1.173. Gizonezkoek lehentasuna saltokietan (ONA-255/008)**

Erosketak egiterakoan, emakumeek ekonomiari gehiago begiratzen diotela dio Mari Karmenek. Garai batean, saltokietan ilaran zain zeudenean, gizonezkoek lehentasuna ematen zitzaizela kontatzen dute.

### **1.174. Etxeko lanen banaketa naturaltasunez egin beharko litzateke (ONA-255/009)**

Marijeren iritziz azken urteetan eman dira gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko lehen urratsak. Askotan lanak erdibana egin behar direla esaten da, baina banaketa hori naturaltasunez egin beharko litzateke. Normaltasun hori lortzeko oraindik pare bat belaunaldi pasa beharko direla uste du.

### **1.175. Garai bateko "puxetia" eta lehenengo garbigailuak (ONA-255/011)**

Garbigailua asmakizun onenetakoa izan dela diote, aurretik emakumezkoek eskuz garbitu behar izaten zituzten arropak eta. Garai bateko mekanikarien arropak garbitzea nolako lan nekagarria izaten zen. Etxera lehenengo garbigailua eraman zutenean, Marijeren amak ez zuen nahi izarak han sartzerik, izan ere "puxetia" zeremonia antzeko bat izan zen amarentzat. Izaren garbiketa prozesu luzea izaten zen; gero, ilargi betea zegoenean, zelaian zabaltzen ziren, xaboia emanda, eta biharamunean urarekin astindu.

### **1.176. Hika txiki-txikitatik entzun du (ONA-256/003)**

Txiki-txikitatik ikasi zuen hika Bittorik. Anai-arrebekin, bizilagunekin eta eskolan erabiltzen zuen hika. Maistrari, gurasoei eta adinekoei zuka egiten zieten denek

### **1.177. Nobiotan zuka (ONA-256/005)**

Bittorik anai-arrebekin hika egiten bazuen ere, amandreak hikarik ez egiteko eskatu zien. Nobiotan, mutilarekin zuka egiten zen.

### **1.178. 17 urterekin hikatik zukara (ONA-256/007)**

Anai-arreben artean beti hika hitz egin dute. Lagunartean ere bai, baina 17 urteak betetzean, zuka erabiltzen hasten ziren, lehenengo mutilekin, neskekin gero. Hika egiteari 'hittato' esaten zioten.

### **1.179. Seme-alabei hika, bilobari zuka (ONA-256/009)**

Gaur egun Bittorik hika erabiltzen jarraitzen du, ahizpekin eta gertuko lagunekin. Seme-alabekin askotan hika erabiltzen du, nahiz eta batzuetan zuka egin. Ilobari, ordea, zuka egin dio.

### **1.180. Eskolan ere hika (ONA-256/015)**

Gurasoek Xeferiri eta haren senideei zuka hitz egiten zieten. Anai-arreba zaharrenei ere zu egiten zieten azken hiru ahizpa gazteenek, baina euren artean hika egiten dute. Lagunekin beti erabili izan du hika, eskolan bertan.

### **1.181. Baserrietan hika gehiago (ONA-256/017)**

Euren aurrekoek gurasoei berorika hitz egiten zieten, baita aitajaunari eta amandreari ere. Araotzen normalena zen kalean hika egitea. Gaur egun asko nabaritzen da euskararen kalearen eragina. Hika baserritarrek hobeto gorde dute.

### **1.182. Euskararen galera Oñatin (ONA-256/019)**

Frankismo garaian euskaraz hitz egiteko ohitura asko galdu zen Oñatin, gaztelania inposatu baitzuten. Euskara baserritarren kontua balitz bezala ikusten zen gizartean, eta Araozgoei burla egiten zitzaian baserritarrak eta euskaldunak izateagatik. Eskolan, gainera, dena gaztelaniaz egiten zen. Gaztelaniarik ez jakitea lotsaz bizi zuten. Oñatiko hitanoa.

### **1.183. Euskaraz hi, zu eta berori (ONA-256/021)**

Euskaraz hiru forma bereizten ziren, baina zuka hitz egitea errespetuz hitz egitearen modukoa zen. Gaur egun adineko jendeari 'usted' esaten zaio gaztelaniaz.

### **1.184. Zeini hika eta zeini zuka? (ONA-256/023)**

Ezezagunei ez diete sekula hika egiten, ezta oso umeak direnei ere. Oso eremu txikian erabiltzen da. Kaleko lagunekin zuka. Oñatiko hitanoa.

### **1.185. Hika egiteko, maiz elkar ikusi behar (ONA-256/025)**

Euren artean euskaraz egin dute beti, baina denbora asko bada elkar ikusi ez dutela, zukara pasatzen dira nahigabe. Erdaraz hitz egiten hasi zen jendea Oñatin Frankismo garaian. Enkarna gerraurreko ikastolara joan zen, baita bere anai-arrebak ere, Koruetako Don Genarorekin.

### **1.186. "Emakumeak aurrera egiteko erdaraz jakin behar izan du" (ONA-256/027)**

Hika mutilen artean gehiago mantendu da nesken artean baino. Gizonek etxetik kanpo aisialdi gune gehiago izan dituzte, bekatua zen lehen emakumea tabernara joatea.

### **1.187. Ezezagunei hika egitea, lotsagabekeria (ONA-256/029)**

Konfiantza izatea, lagunak izatea... beharrezkoa dira hika erabiltzeko. Euren aurreko emakumeek beti hika egiten zuten.

### **1.188. Hika, etxekoen modukoei (ONA-256/030)**

Hika ez zaio edonori egiten, beste konplizitate bat sortzen da hika egiten denarekin. Etxekoen modukoak direnei egiten zaie.

### **1.189. Mutikoei errazago egiten diete hika (ONA-256/032)**

Hika zakarra dela askotan entzun dute, baina bestetik, konfiantza handia ematen du. Enkarnak mutilei errazago egiten die hika neskei baino.

### **1.190. Umeei zuka, gero hika (ONA-256/034)**

Garai batean hika gehiago erabiltzen bazen ere, ume txikiei ez zietzaien hika egiten. Behin 8-9 urte betetzean, zukatik hikara pasatzen ziren automatikoki.

### **1.191. Txorizotxo eguna nola ospatzen zuten (ONA-257/003)**

Umetan Txorizotxo eguna nola ospatzen zuten kontatzen du Bittorik. Basora joan, txorizoa makilan sartu eta sutan erre ostean, jan egiten zuten. Mendi guztia su txikiz beteta ikusten zen. Umeek eskolan jai izaten zuten.

### **1.192. Arropak garbitzeko prozesua (ONA-257/005)**

Garai batean arropak garbitzeko, xaboia eman eta ontzi handi batean ipintzen ziren. Gainean trapu bat ipini eta sutako hautsa botatzen zen eta haren gainetik ur irakina. Erramua ere botatzen zuten, usain gozoa emateko. Garai bateko harizko arropak. Bittorik errekan arropa nola jotzen zuten azaltzen du. Besteek garbitokia zuten arropak astintzeko. Orain garbitokia berritu egin dutela dio Enkarnak, nahiz eta erabili ez.

### **1.193. Sutako hautsa, arropak eta ontziak garbitzeko (ONA-257/006)**

Gazteak zirenean arropa sasi gainean esekitzen zen, sikatzeko. Sutako hautsak oso ondo garbitzen zituen arropak, baita ume txikiei jartzen zitzaizkien zapiak edo hilerokoarekin zikindutakoak ere. Sukaldeko ontziak garbitzeko eta distira emateko ere erabiltzen zen. Sukaldean nola jartzen ziren tapak zintzilik.

### **1.194. Emakume baserritarra lan eta lan (ONA-257/008)**

Ezkondu eta gero lan ugari: etxeko lanez gain, umeak zaindu behar. Baserriko emakumeek ez zuten izaten ezertarako astirik. Gizonak askoz libreago ibiltzen ziren; neguan Mantxuenera joaten zirela jokora dio Enkarnak, andreak etxean lanean utzita. Gizonak lantegietan lanean hasi zirenean, etxera diru apur bat ekartzen zutelako, gustura. Ugaztegiara ere joaten ziren jokora gizonak. Han Araotzen baino giro hobea egoten zela diote.

### **1.195. Bittori, haize motak bereizten abila (ONA-257/009)**

Bittoriren senarra ehiztaria zen eta andreari esaten zion goizean goiz jaiki eta haizea nondik zetorren begiratzeko. Oraindik ere "haizeari igartzen" ona dela

dio Bittorik. Haize klaseak: "nafar-hegoia", "amillana", "gaztel-hegoia", "gorbeixanua"... Zuhaitz motak ere ondo ezagutzen dituztela diote.

### **1.196. Etxean egindako aulkiak (ONA-257/010)**

Enkarnaren senarrak gereziondo egur ugari omen zuen ganbaran gordeta, erretiroa hartzen zuenean, altzariak egiteko. Sukaldeko aulki ugari hark eginak direla dio. Bittorik zumitzarekin aulkien ipurdiak nola egiten zituen azaltzen du.

### **1.197. Lehen arropa konpontzen eta gaur egun nahita apurtzen (ONA-257/011)**

Neguan denbora gehixeago izaten zuten eta beti zerbait egiten aritzen ziren. Izara zaharrei buelta eman eta nola josten zituzten. Apurtutako prakak josten ibiltzen ziren sarri eta, horregatik, ez dute gustuko gaur egun prakak apurtuta eramateko dagoen moda. Tatuajeak eta sudurreko eraztuna ere ez dituzte gustuko. Garai batean idiskoari jartzen zitzaion muturrean eraztuna, mendeen hartu ahal izateko.

### **1.198. Mutikoeak abadeari itzulitako ordaina (ONA-257/014)**

Bittorik Enkarnaren anaiaren inguruko pasadizo bat kontaktzen du. Behin abadeak mutikoei merienda emango ziela agindu zien, egurrak sartzearen truke, baina ez zuen hitza bete. Gero, mezatan mutikoeak abadeari egin ziotena.

### **1.199. Elizaren eta abadeen indarra; aldaketa Gabilondo abadearekin (ONA-257/015)**

Garai batean dena zen bekatu. Dantza egiten zuten neskak kongregaziotik botatzen zituzten. Denak egoten ziren kongregazioetan sartuta. Behin "Markesaren alaba" abesten ari zirelako elizpetik bidali zituztela dio Bittorik. Orduko abadeak; gazteak ziren eta ezin zutela eraman besteak ondo pasatzen ikustea uste dute. Abadeei ere ezkontzeko aukera eman beharko zitzaizela pentsatzen dute. Gabilondo abadeak ekarri zuen aldaketa herrira.

### **1.200. Aste Santuan eliza zaintzen, deabrua etor ez zedin (ONA-257/016)**

Aste Santuetako ohiturak. Gau eta egun elizan egoten ziren, txandaka, zaintzen, deabrua etor ez zedin. Ordu erdi belauniko eta ordu erdi eserita. Emakumeak egunez eta gizonetakoak gauez. Elizak indar handia zuen.

### **1.201. Emakumeentzat ez zen lanik falta baserrian (ONA-257/018)**

Emakumezkoen eta gizonetako lanak baserrian. Neguan neskak josten ikastera edo jatekoa prestatzen ikastera joaten ziren. Asko neskame joaten ziren gero. Mutilak neguan etxean eta, bestela, basoan ikazkintzan asko. Orbela batzen, ira ebakitzen, gurdia kargatzen... zer lan egiten zituzten. Negua hobeto pasatzen zuten baserrian, baina emakumeek beti aurkitzen zuten lanen bat egiteko: haria egin, umeentzat arropa josi...

### **1.202. Emakumeak prakak janzteak bekatu (ONA-257/020)**

Emakumeek ez zuten prakarik janzten. Enkarnaren koinata senide moja bisitatzera joan zen prakak jantzita eta moja asko asalatu zen. Xeferik, berriz, San Blasak bedeinkatzera elizara bonbatxoak jantzita joan zen ezagun bati

abadeak nola kargu hartu zion kontatzen du. Etxeko gizonen prakak janzen zituzten, baserriko lanetarako edo eguraldi txarragatik behar izanez gero.

### **1.203. Lehenengo garbigailuak (ONA-257/024)**

Garbigailua lagun ona dela diote. Enkarnak izan zuen lehenengo garbigailua Otsein markakoa zen eta ura bota behar izaten zitzaion, arropa astintzeko. Gaur egun jada arropa erdi-sikatuta irteten da. Kalean lehenago hasi omen ziren garbigailuak baserrietan baino. Aurretik arropak astintzera errekarra joaten zirela dio Bittorik.

### **1.204. Neskei etxera lagundu ostean, mutilak berriz tabernara (ONA-257/026)**

Garai batean emakumeak tabernan sartzea bekatua zen eta eurak kanpoan geratzen ziren, gizonak tabernara sartutakoan. Dantzan egitearren, mutilek ordaindu egin behar izaten zuten. Ez zuten diru askorik izaten. Araotzen "faborez" eskatzen zieten mutilek neskei, dantza egiteko. Neskei etxera lagundu eta gero, mutilak tabernara itzultzen ziren. Ugaztegitarrak nondik bueltan joaten ziren etxera.

### **1.205. Mutilak iluntze aldera hasten ziren dantzan (ONA-257/038)**

Neskak elkarrekin irteten ziren dantzara eta mutilak izkinatik begira. Iluntze aldera hasten ei ziren dantzan mutilak. Teofilotxo soinu-jotzailea. Mutilek ordaindu egin behar izaten zuten dantza egiteagatik; neskak debalde.

### **1.206. Iluntzean, gustuko mutilak etxera laguntzeko zain (ONA-257/040)**

Dantzan egiteko mutilek neskei "faborez" eskatzearena Araozko kontua omen zen. Neskak iluntzean zain egoten ziren, ea gustuko mutila etorriko ote zen etxera laguntzeko. Gustuko mutilaren arreta erakartzeko egiten zituztenak.

### **1.207. Gerra sasoiari Beasainen neskame (ONA-257/043)**

Bittori gerra sasoiari Beasainen egon zen neskame. Soldaduak zeuden bera egon zen etxean eta azpian okindegia. Nolako gosea pasa zuen adierazten duen pasadizoa kontatzen du. Ahizpa Zumarragan zegoen eta haren bitartez Antzuolako beste etxe batera joan zen gero.

### **1.208. Elizako sermoi gogorak; doktrina (ONA-257/044)**

Ezkondutako aurretik sexu-harremanak izatea ez zen errespetuzkoa. Ukitu txiki batzuekin konformatzen zirela dio Bittorik. Mendean hartuta zeuzkatela dio Xeberik, elizan sekulako sermoiak botatzen zizkieten eta. Doktrina euskaraz ikasten zuten elizan eta eskolan gaztelaniaz. Behin maistrak bazkaltzera joan gabe zigortu zituenean gertatutakoa.

### **1.209. Hika egiteko ohitura; hikaren etorkizuna (ONA-257/046)**

Norbaitekin hika edo zuka hitz egiteko ohitura aldatzea zaila da. Gaztetxoek hika ikasiko ote duten komentatzen. Hika ia galduta egon dela diote.

### **1.210. San Cristobal Colon eskola (ONA-258/004)**

Bere lehen oroitzapenak San Cristobal Colon eskolakoak dira. Han doktrina oso ondo ikasi zuen, baita matematika taulak ere. Erdaraz egiten zuten dena eskolan, nahiz eta eurek jakin ez.

### **1.211. Errepublika etorri zeneko oroitzapena (ONA-258/006)**

Oñatira Errepublika etorri zeneko eguna gogoan du Joxefak. Eskolan errezatu edo ez errezatu gatazka egon zen.

### **1.212. Araoztik Oñatira (ONA-258/008)**

Auzotik herrira jaisten ziren askotan. Igandetan eta herriko jaietan soinu-jolea egoten zen eta bertara joaten ziren. Dantza lotuan aritzen ziren arazorik gabe. Kanpotik Araotzera joandako mutilei harriak bota zizkieten. Sexua bekatua zen.

### **1.213. Ama izandakoari bisita (ONA-258/009)**

Ume bat jaiotzen zenean, ama izandakoaren gertuko emakumeak elkartzen ziren gutziak jateko.

### **1.214. Umetako jolasak (ONA-258/011)**

"Soy la reina de los mares" jolasera, pauloka, harrapaketa... aritzen ziren.

### **1.215. Diru gutxi tabernan xahutzeko (ONA-258/012)**

Hiru taberna zeuden Araotzen, baina oso diru gutxi zegoen orduan, eta oso gutxitan joaten ziren bertara.

### **1.216. Eguraldi onarekin, eskolan ume gutxi (ONA-258/013)**

Igandetan sozializatzen zuten, astean zehar beti zegoen lana. Eskolara ere eguraldi txarrarekin bakarrik joaten ziren. 80 ume biltzera iritsi ziren.

### **1.217. Amandrearekin zuka, gainontzean hika (ONA-258/015)**

Amak eta amandreak hika egiten zieten gazteak zirenetik, umetan, ordea zuka. Umeei eta adinekoei zuka egin izan diete beti. Lagunekin ere beti hika. Nobiotan ere hika egin zuen Joxefak. Abadearekin berorika egiten zitzaion garai batean.

### **1.218. Sehaska-kanta (ONA-258/017)**

Amandrea oso kantuzalea zen, baita Joxefa ere. Sehaska-kanta.

### **1.219. Ilobei zuka (ONA-258/019)**

Hika zakarragoa dela eta, alabei hika egin die baina ilobei zu.

### **1.220. "Hika ez da ondo ikusita egon" (ONA-259/003)**

Etxean jaso dute hika Zumalde ahizpek, baina amaren aldetik batez ere. Aitak tarteka egiten ziren ahizpetako batzuei. Auzoan hika egin dute beti, lagunekin, eta euren artean ere bai.



### **1.221. Semeek hika, alabek zuka (ONA-259/004)**

Euren seme-alabei dagokienez, ez diete inoiz hika egin. Hala ere, semeek euren artean hika egiten dute, alabek zuka egiten dute orokorrean. Arantxak ilobei hika egiten die, beti ere, adin batetik aurrerakoei.

### **1.222. Hika egiteagatik burla (ONA-259/006)**

Arantxak hasiera batean zuka egiten zien ilobei, baina gero, kontzienteki, hika egitea erabaki zuen, gaztetan asko sufritu baitzuen hika gaizki ikusita zegoenean. Baserritarrak eta kaletarrak nabarmentzen zituen hikak (eta euskarak).

### **1.223. Arrasaten dena erdaraz (ONA-259/007)**

Ana Mari Arrasatera joan zen 1964. urtean, denek erdaraz hitz egiten zuten han. Lankide batek, ordea, euskaraz egiteko eskatu zion, hura ere euskalduna baitzen. Ondoren, 1970 bitartean, jende asko euskaldundu zen gau-eskolei esker.

### **1.224. Arrasaten euskaraz soilik baserritarrekin (ONA-259/008)**

Eugenik eta Natik Lanbide Heziketa Arrasaten egin zuten. Bertan baserritarrak ziren beste ikasleekin bakarrik egiten zuten euskaraz, gainontzean dena erdaraz. Oñatira itzuli zirenean, ordea, ikaskideak herrian ikustean euskaraz hitz egiten zuten haiekin. Ana Mari Fagorren lanean aritu zen, eta 70. hamarkadaren bueltan jende mordo euskaldundu zen. Eugenik eta Natik ere euskara eskolak jaso zituzten, euskaraz idazten jakiteko, izan ere, haur eskolan dena erdaraz ikasi zuten. Joera zuten ezagunekin beti euskaraz eta hika egiteko.

### **1.225. Euskarak balorerik ez zuen, gutxitu egiten zen (ONA-259/010)**

Auzoetatik kalera jaitsi, euskara alde batera utzi eta euren eguneroko bizitza gaztelaniaz egiten duen jendea ezagutzen dute Zumalde ahizpek. Oso ohikoa zen garai batean ingurune erdaldunetara joan eta euskara ahaztea, begi onez ikusten zen hori. Eskolan ere euskararen kontrako jarrera gogorra zen oso.

### **1.226. Apaizak Araozera joateko ikasi zuen euskaraz (ONA-259/012)**

Baserritarra eta Araozgoa izateak gainontzekoengandik bereizten zituen, urrutikoa izatearen modukoa zen. Konplexuak izaten zituzten sarritan horregatik. Eskolan ere oso giro falangistan ikasi zuten. Apaiza, ordea, euskaldunberria zen. Elizan eta eskolan dena buruz ikasten zuten, askotan, esandakoa ulertu gabe.

### **1.227. Gertukoekin hika (ONA-259/014)**

Ahizpen artean beti hika egin dute, baita gertuko lehengusinekin ere. Garai batean lagun-lagun zituztenekin, ordea, beti ez dute modu berean egin. Hasieran hika, gero zuka, eta orain berriro hika berreskuratzen ari dira.

### **1.228. Zuka, finagoa? (ONA-259/018)**

Badira zenbait familia O&ntilde;atin, gurasoek seme-alabei hika egin arren, hika alboratu eta zuka erabiltzen dutenak, zuka finagoa kategoriakoa eta finagoa delakoan.

### **1.229. Hikaren galera: moda, konplexuak... (ONA-259/020)**

55 urtetik beherakoen belaunaldian, gizonen artean hika mantendu da, baina emakumeen artean ez. Ana Mariren iritziz, moda kontua izan daiteke. Hika egiteagatik burula jaso izanak eta horrek sortutako konplexuak transmisio etenean eragina izan du.

### **1.230. Hika ezin da edonon egin (ONA-259/022)**

Hika garai batean ez zen edozein tokitan hitz egiten. Gaur egun ere, batzuekin hika eta besteekin zuka erabiltzen dute. Jendea harritu egiten da hika entzutean. O&ntilde;atiko hitanoa.

### **1.231. Emakumeak sozializatzeko aukera gutxiago (ONA-259/025)**

Emakumeek sozializaziorako aukera gutxiago izaten zuten gizonen baino. Hala ere, emakumeak josteko biltzen zirenean, tertulian egoten ziren. Zumalde ahizpek ez diete ez semei ez alabei hikarik egin, hala ere, ohikoa da hika semei bakarrik transmititzea.

### **1.232. Gurasoei erdaraz hitz egien zieten batzuek (ONA-259/026)**

Zukaren eta hikaren moduan, euskararekin eta gaztelaniarekin antzekoa gertatzen zen. Gurasoek seme-alabei euskaraz egiten zieten, baina eurek gurasoei erdaraz, esaterako, Natiren senarraren etxean. Ana mariren garaian debekatuta zegoen euskara, eta eskolan zigortu egiten zituzten euskaraz hitz egiteagatik. Zumaldetarrek euskaraz egiten jarraitu dute aitzak euskaraz egiteko esaten zuelako, nahiz eta debekatuta egon.

### **1.233. Abadeak euskaraz egiteko esan (ONA-259/027)**

Arrasateko eskola profesionalean oso gaizki pasa zuten Eugenik eta Natik, euskaldun bakarrak beraiek zirelako, eta erdaraz ez zekitelako. Hala ere, abade bat bazen euskaraz egitera animatzen zituena, asko baloratzen baitzuen honek euskara.

### **1.234. Zer behar da norbaiti hika egiteko? (ONA-259/030)**

Norbaiti hika zuzentzeko, konfiantza, ohitura eta gertutasuna behar direla aipatzen dute. Arantxaren kasuan, jende gazteagoari egitea ateratzen zaio, nahiz eta medikua izan (kategoriako jendea). Hika egiteko ohitura

### **1.235. Animaliei, hika? (ONA-259/031)**

Txakurrari beti hika, baita astoari ere. Behiekin ez dute denek argi.

### **1.236. "Iratargi amandria" (ONA-259/033)**

Ez dute landareei hitz egiteko ohiturarik izan, ilargiari, ordea, beti kantatu izan diote, eta kantua euren seme-alabei ere irakatsi diete. 'Amandria' (amona) hitzaren erabilera.

### **1.237. Norberarekin, hika ala zuka? (ONA-259/035)**

Euren buruarekin, Arantxak hika egiten du, Eugenik bai zuka eta bai hika. Natik, adibidez, hika. Ana Marik zuka.

### **1.238. "Hika pentsatu gabe irteten da" (ONA-259/037)**

Oso garrantzitsua da hika Arantxarentzat. Ana Marik bere nortasunaren zati bat bezala ikusten du hika. Eugenik ez dio bestelako garrantziarik ematen. Konplizitate gehiago duten jendearekin ateratzen zaie ahizpei hika erabiltzea.

### **1.239. Hika galduko balitz, zer? (ONA-259/038)**

Euskararen zati bat da eurentzat, eta penagarria litzateke hain txikitatik barneratu duten zerbait desagertzea. Arantxari biloba txikiei egitea gogorra egiten zaio belarrira.

### **1.240. Txorizotxo Eguna, Araotzen (ONA-260/002)**

Txorizotxo Eguna egun handia izaten zen Araotzen. Koadrilaka joaten ziren Aitzgain aldera, eta otei sua emanda egiten zuten sua, txorizoak erretzeko.

### **1.241. Txorizotxo Eguna II (ONA-260/004)**

Txorizotxo egunean mutilekin elkartzen ziren, eta lehen zigarroak erretzeko ere aprobetxatzen zuten.

### **1.242. Arropa garbitzeko modua (ONA-260/006)**

'Subana'. Labaderoan 'jotzen' zuten arropa. Erramua ipintzen zioten, usain goxoa emateko, eta zelaian zabaldu. Otsein markakoa zen lehenengo garbigailua, baina ez zuen akklaritzen.

### **1.243. Ezkondu eta gero lanean jarraitzea (ONA-260/008)**

Ezkontzean normala zen lana uztea; derrigortuta zeuden sasoi batean, legez. Ez zegoen ondo ikusita jarraitzea. Beraiek lanean jarraitu zuten, eta kritikak entzun zituzten. Haurdun egonda umea jaio arte jarraitzen zuten lanean.

### **1.244. Kongregazioa eta bekatuak (ONA-260/009)**

Mariaren alaben kongregazioa; eugeni ez zen kongregaziokoa izan. Bekatuak asmatzen ibiltzen ziren, konfesatzera joan behar zutenean. Mutilekin dantza egitea debekatuta zegoen, garai batean.

### **1.245. Mutilek askatasun gehiago? (ONA-260/011)**

Neskek baino askatasun gehiago zuten mutilek. Beraiek neskak ziren denak, eta baserriko lanak zein barrukoak, denak egiten zituzten. Etxe askotan mutilek bakarrik egiten zituzten ikasketak.

### **1.246. Neskak mutilek ateratzen zituzten dantzara (ONA-260/012)**

Zain egoten ziren mutilek dantzara noiz aterako zituzten.

### **1.247. Senargairik ez izatea gaizki ikusita (ONA-260/014)**

Idaho dantzalekuan beti ezkinan egotea. Berdura plazan topatu zuten nobioa ahizpetako batzuek. Gaizki ikusita zegoen senargairik ez izatea. "Hi neskazahar geratuko haiz".

### **1.248. Nesken eta mutilen jolasak desberdinak? (ONA-260/016)**

Mutilak pelotan ibiltzen ziren eta borrokan, neskak ez. Beraiek pauloka eta torre-torreka ibiltzen ziren. Txirikilan ere neskak bakarrik ibiltzen ziren normalean.

### **1.249. Umetako lanak (ONA-260/018)**

Zaharretik gazteenera 10 urteko diferentzia dute, eta elkar zaintzen zuten. Umezaintzaz aparte,

### **1.250. Garay fabrikan hasi zen hika egiten (ONA-261/003)**

14 urterekin Garay fabrikan lanean hasi zenean, araoztar asko zegoen bertan, eta haiekin elkartu eta hika egiten hasi zen, euren artean hika egiten baitzuten. Lantokitik kanpo, ez zuen ia hika entzun Edurnek.

### **1.251. Hika oso gutxiarekin darabil (ONA-261/004)**

Gaur egun oso gutxiarekin egiten du Edurnek hika, fabrikako lagun zehatz batzuekin, eta bakan batzuekin. Kalekoekin ez du hika egiten.

### **1.252. Euskara alboratzen hasita (ONA-261/006)**

Eskolan txikitatik dena erdaraz ikasi, eta euskara alboratzen hasia zegoen Edurne Garay fabrikan hasi zenean. Araoztarrek, ordea, euskaraz egiten zuten euren artean, eta horrela hasi zen Edurne euskaraz, eta hika. Mutilen artean hika egiten zuten Garagaltzan, baina emakumeek ez.

### **1.253. Gurasoek alabei zuka, semei hika (ONA-261/009)**

Anaiek euren artean hika egin dute, baina ahizpen artean zuka egin dute beti. Gurasoek alabekin zuka egiten zuten, mutikoekin hika. Izebak hika egiten zien. Aitak haren anai-arrebekin hika egiten zuen.

### **1.254. Lana eta hika, aldi berean (ONA-261/010)**

Auzoan oso gutxi ibil izan da Mertxe. Lazkaora joan zen gartzetan, eta bueltakoan, Oñatin erdaraz egiten zuen. Gerora, lantegian hasi eta hika hasi zen. Behin lantokian hasita, kuadrilan ere euskaraz egitean hika egiten zuen. Araoztarrekin beti hika egiten du.

### **1.255. Edo hika, edo erdaraz (ONA-261/012)**

Lantegian sartu zirenean, auzoetako jendea elkartu zen, haiek bakarrik egiten baitzuten euskaraz. Haien artean hika egiten zuten gainera. Hortaz, euskaraz eta hika egiten zuten batzuekin, eta erdaraz besteekin.

### **1.256. Gaur egun hika gutxi (ONA-261/013)**

Euskara bai, baina hika oso gutxi entzuten da orokorrean. Mutilen artean gehiago entzuten da, baina emakumeen artean ez. Eurek ez diete seme-alabei hika egin, baina senarrek semei bai.

### **1.257. Garagaltza eta Oñati, bi mundu (ONA-261/015)**

Baserriko eta kaleko euskara beti desberdina izan da Oñatin, baina kalean batez ere erdaraz egin izan da.

### **1.258. Hika, edukazio txarrekoa (ONA-261/017)**

Mertxeren kasuan, inguruko zenbaitek adierazi diote hikak duen ospe txarra, umeari egin behar ez zaiola eta edukazio txarrekoa dela. Baserritarren kontua zen lehen, ezjakinena. Gaztelania erabiltzea finagoa zen jendearentzat.

### **1.259. Emakumeek erdararako joera (ONA-261/018)**

Belaunaldi batetik besterako jauzian asko igartzen da hizkuntza ohituren aldaketa. Bestetik, emakumeek izan dute orokorrean erdararako joera.

### **1.260. Hika, baserritarren kontua (ONA-261/020)**

Oñatin hika egiten duen jende gehiena auzotarra da eta baserritarra. Kaleko euskara nahiko pobrea izan omen da, eta kalean ez da ia hika egin.

### **1.261. Oso jende gutxik ezagutzen du hika (ONA-261/022)**

Gaur egun hika oso jende gutxik ezgautzen du, gazteek ez dute ezagutzen, ezagutzekotan mutilek. Edurneren eta Mertxeren adinekoek inbidiaz bizi dute hika jakitea.

### **1.262. Euskara batua eta hika (ONA-261/024)**

Eskolan Euskara Batua ikasteak, hikaren erabileran eragin du, izan ere maila akademikoan behintzat ez da hika irakatsi.

### **1.263. Ikastolaren eragina hitanoan (ONA-261/027)**

Oñatiko gazteek ikastolan dena euskaraz ikasi badute ere, hikaren kontzepturik ez dute ikasi. Gainera, etxean ez zaie transmititu, eta horrek guztiak hikaren galeran eragin du Mertxeren iritziz.

### **1.264. Norekin egin daiteke hika? (ONA-261/029)**

Konfiantzazko pertsona, euskaraz ondo dakienarekin. Gurasoei ez zaie hika egiten. Ezezaguna izatekotan, errazago egingo lioke Mertxek mutiko bati.

### **1.265. Hika egiten duen azken belaunaldia (ONA-261/030)**

55 urtetik beherako emakumeek ez dute euren artean hika egiten.

### **1.266. Txakurrari hika, landareei zuka (ONA-261/031)**

Txakurrari hika egin izan dio Mertxek, esaldi jakinetan Edurnek ere hika egin izan dio. Landareekin zuka.

### **1.267. Modu naturalean, inkontzienteki (ONA-261/033)**

Hika modu naturalean erabiltzen dute, ez da hautu kontziente bat izaten. Konplizitate berezi bat sentitzen dute hika hitz egiten duten horrekin.

### **1.268. Hika galduko balitz, zer? (ONA-261/034)**

Pena handia, gaur egun nahiko galdua badago ere. Euskararen atal bat galduko litzateke.

### **1.269. Hika indartzeko bideak (ONA-261/036)**

Eskolan landu, euskaltegian irakatsi.

### **1.270. Familia ugariak baserrietan (ONA-262/001)**

Garai bateko familiak oso handiak ziren. Beraiek etxeko txikiak dira biak, baina bestela etxean anai-arreba txikiagoak zaintzea zen ohikoena. Mahaia jendez beteta beti. Mertxek-eta neska denek logela bakarrean egiten zuten lo. 2 eta 3 ohe berean.

### **1.271. Emakumea eta prakak (ONA-262/003)**

Edurne uniformearekin joaten zen eskolara. Lehenengo prakak gimnasia egiteko jantzi zituen. 14-15 urterekin minifalda jantzita ibiltzen ziren.

### **1.272. Lehenengo labadora (ONA-262/005)**

Mertxek gogoan du noiz erosi zuten lehenengo garbigailua; hala ere, errepara joaten ziren arropa aklaratzera. Edurnek ere albergan garbitzen zuen arropa.

### **1.273. Mutilek askatasun gehiago? (ONA-262/007)**

Etxean ez zuten mutilek baino askatasun gutxiago, baina kalean bai. Ez zegoen ondo ikusita neskak tabernara sartzera. Beraiei ez zieten ordurik ipintzen, etxeko gazteenak zirelako, baina beren ahizpei bai.

### **1.274. Umeen heziketa lehen eta orain (ONA-262/008)**

Umeak eduki eta segituan bueltatzen ziren lanera. Lehenengotakoak izan ziren ezkondu eta lanean jarraitu zutenak. Edurnek ez daki horrekin asmatu zuten ala ez.

### **1.275. Galdutako ohiturak: arrosarioa errezatzea (ONA-262/010)**

Galdutako ohiturei buruz dihardute: denek elkarrekin bazkaltzea eta jaietan elkartzera. Errosarioa eta letaniak errezatzea.

### **1.276. Neskak tabernara bai? (ONA-262/012)**

Beraien garairako neskak hasita zeuden tabernara sartzera, baina bakarrik ez. Gaizki ikusita zegoen. Txaketuan geratzen ziren. Arantzazun, gizonak Milikuanera sartzera eta emazteak kanpoan geratzen ziren.

### **1.277. Mutilek dantzara noiz aterako (ONA-262/013)**

Zain egoten ziren, mutilek dantzara noiz aterako zituzten. Idahon eta erromerietan. Golden diskotekara ere joaten ziren. Mertxe gaizki sentitzen zen kalabazak ematen. Eserita egoten ziren, ilaran.

### **1.278. Etxean neskame lanetan (ONA-262/014)**

Neskame lanetan ez dira ibili, gaztetxotan hasi zirelako lantegian lanean, baina etxean bai. Mutilek egiten zituzten baserriko lanak eta neskek etxekoak. Edurnek ez du baserriko lanik egin: belarretan, adibidez. Mertxek bai, baserrikoak eta etxekoak, biak.

### **1.279. Sexu harremanik bai ezkondu aurretik? (ONA-262/015)**

Ezkondu aurretik sexu harremanak bai, baina ezkutuan, gurasoei esan gabe. Mertxeren ahizpak beste garai batekoak dira. Informazioa falta zuten.

### **1.280. Neskatielen eta mutikoen jolasak diferenteak (ONA-262/016)**

Nesken eta mutilen jolasak diferenteak ziren. Mertxek mutikoekin jolasten zuen, inguruko baserrietan denak mutikoak zirelako. Kozineketan jolasten zuen Donostiako lehengusuarekin. Eskolan mutilak futboleak eta neskak briletean. Pote-poteka denak elkarrekin. Sakaponak.

### **1.281. Elizaren indarra gutxitzen-gutxitzen (ONA-262/017)**

Beraien garairako elizak ez zuen hainbesteko indarrik. Umeak zirenean bai: mezetara baraurik. Konfirmazioa egin zuten, lanean hasi ostean, baina gero mezetara ez ziren joaten. Ezkondu aurretik konfesatzera joaten ziren batzuek.

### **1.282. Baserriko lanen banaketa (ONA-262/019)**

Baserriko lanak mutilek egiten zituzten, eta etxeakoak neskek. Lustrea atera, arropa plantxatu... arbia ateratzera zakua buruan ipinita joaten ziren. Amak denetik egiten zuen, kanpoan zein barruan lana. Amak jezten zituen behiak ere.

### **1.283. Zerbitzu soziala egin behar (ONA-262/020)**

Eskolan ikasi zuten josten, baina gutxi. Bainika. Zerbitzu soziala egin behar izan zuen Mertxek, gidabaimena atera ahal izateko, eta han ere bainika eginarazi zioten.

### **1.284. Ezkondutakoan lanean jarraitu zuten lehenak (ONA-262/021)**

Ezkontzean normala zen lana uztea. Garai lantegian beraiek izan ziren lehenengoak jarraitzen, eta kritikatu egin zituzten. Beraien taldean gehienak geratu ziren. 18 urterekin istripua izan zuen Edurnek, eta bi urte egin zituen bajaran. Mertxek ez zeukan asmorik lantegian hainbeste urte pasatzeko; sartu zenean esaten zuena kontatzen du: ezkondu ala monja, baina lantegian hainbeste urtean ez.

### **1.285. Emakumeak gutxien kobratzen den postuetan eta postu txarrenetan (ONA-262/022)**

Lan berean berdin kobratzen zuten gizonak eta emakumeak, baina gutxien kualifikatutako postuetan ipintzen zituzten emakumeak, eta, horrenbestez, gutxien kobratzen den postuetan. Eskulana emakumeentzat eta automatizatua gizakumeentzat.

### **1.286. Gurasoek eta ikaskideek hika, ahizpekin zuka (ONA-264/003)**

Gurasoek hika egiten zioten gaztetan Mirariri. Ahizpen artean zuka egin dute beti, baina eskolan beti hika egiten zuten denen artean. Gurasoek lehenengo bi alabei egin zieten hika, gazteenari zuka. Izebek hika egin diete, baina osabek zuka.

### **1.287. Ezkondu ondoren zuka (ONA-264/005)**

Mirariren gurasoek nobiotan hika egiten zuten, baina behin ezkondukoan zukara pasa ziren, errespetuaren adierazle gisa. Gaur egun, ordea, hika egiten duten senar-emazteak badaude.

### **1.288. Kalean ez hika eta ez zuka (ONA-264/007)**

11 urterekin jaitsi zen Mirari Araoztik Oñatira, eskolara. Kaleko hizkuntza nagusia gaztelania zen. Gogorra izan zen Mirarirentzat, erdararik ez baitzekien orduan. Baserritarra izateagatik lotsatzen zen kalean. Egoera horrek bultzatuta, auzokoak zirenak batu eta konfiantza berreskuratu zuen.

### **1.289. Oñatiko hika ulertu ez (ONA-264/008)**

Lagun azpeitiar batekin hika ari zela, lagunak hizarik ez egiteko esan zion, ez baitzuen Oñatiko hika ulertzen.

### **1.290. Hika egin edo ez egin (ONA-264/009)**

Askotan pentsatu izan du egoera zehatzetan hika erabili edo ez. Besteak zuka egiten badio, zuka erabiltzen du. Araoztarrekin egiten du hika batik bat. Gaur egun familiako gazteekin hasiko da hika egiten, baina ikasi egin behar dute lehenengo.

### **1.291. Etxean hika egiteko ohiturarik ez (ONA-264/011)**

Gurasoek hika egiten zieten, baina haiek gurasoei zuka. Hortaz, etxean zuka erabiltzera ohitu zen Mirari. Alaba gazteenari zuka egitea ohiko jarrera izan da.

### **1.292. Hika: etxean, eskolan eta auzoan (ONA-264/014)**

Gurasoek hika egiten zuten Agurtzane, Koldo eta euren anai-arrebekin. Anai-arreba guztiek hika egin izan dute euren artean. Eskolan hika egiten zuten orokorrean, baina zaharragoekin zuka. Adinaren araberako tratamendua.

### **1.293. Araozgo eskolan ia zugarik ez (ONA-264/016)**

Araozgo eskolan ia inork ez zuen zuka erabiltzen. Ohitura kontua da hika. Agurtzanek fabrikan gaizki pasa zuen hika gaizki egiten zizotelako. Oñatiko hitanoa.

### **1.294. "Behar den moduan hitz egin" (ONA-264/017)**

Agurtzaneri askotan esan izan diote gizonek "behar den moduan" hitz egiteko, hots, hizarik ez egiteko haiei.

### **1.295. Kalera jaitsitakoan, koplexuak etorri (ONA-264/019)**

Agurtzane kalera jaitsi zenean, oso gaizki pasa zuen erdaraz ez zekielako, baserritarra zelako... Konplexuz beteta bizi zen. Mirarik ere gaizki pasa zuen oso, kalean bizi ziren auzotarrak bildu ziren arte.

### **1.296. Maiorazgoen artean, zuka (ONA-264/021)**

Zuka, batzuentzat, kategoriako forma zen, jende ikasiak, alfabetatuak erabiltzen zuena. Maiorazgoen kasuan ere, kontu guztiak zuka entzun ditu Agurtzanek.



### **1.297. Abadeari berori (ONA-264/022)**

Amandreak abadea zetorreanean, hari berori egiteko agintzen zien. Jende askok galdu zuen euskara kalera jaistean, eta gero, euskararekin batera hika berreskuratu zuten.

### **1.298. Ohitura aldaketak hitanoaren erabileran (ONA-264/024)**

Gaur egun ez da hika euren gurasoek erabiltzen zuten moduan erabiltzen, arau batzuk hautsi egiten dira. Gurasoek, behin 11 urte inguru betetzean, hika egiten zieten haien seme-alabei. Hirukoteak, ordea, orokorrean zuka erabiltzen du seme-alabekin.

### **1.299. Ohiturak aldatzea, zaila (ONA-264/026)**

Behin hika egitera edo zuka egitera ohituta, oso zaila da tratamendua aldatzea.

### **1.300. Euskararen loraldiak zuka indartu al du? (ONA-264/028)**

Euskararen loraldia gertatu zen 60ko hamarkadatik aurrera, ikastolekin erabateko indarra lortu baitzuen. Euskara Batuaren sorrerak zukari indarra eman eta hika atzean gelditzea ekarri zuela uste dute.

### **1.301. Hikaren erabilera, genero kontua? (ONA-264/030)**

Zergatik gertatzen den ez dakite, baina hirukotea ere konturatu da hika mutilen artean bizi dela gehiago, nesken edo emakumeen artean baino.

### **1.302. Oñatiarrak ez direnekin ere hika (ONA-264/032)**

Mirarik lanean beste birekin egiten zuen hika, Arrasateko kaletar batekin, eta garagatzar batekin.

### **1.303. Erdaraz egitetik hika egitera (ONA-264/034)**

Gertutasuna, konfiantza, elkarrekin egoteko ohitura beharrezkoak dira hika egiteko. Mirariren kasuan, lankideekin hasiera batean erdaraz egiten zuen, gero zuka, eta gero hika. Hasieran umeei zuka egiten zaie, mutikotan hi.

### **1.304. Tabernan hi, elizan zu (ONA-264/036)**

Eliz-giroan zuka zen nagusi, tabernan, ordea, hika hitz egitea zen ohikoagoa, giroa informalagoa baitzen.

### **1.305. Baserriko animaliekin, hika (ONA-264/037)**

Txakurrari batez ere hika. Loreei ere zuka egiten die Mirarik.

### **1.306. Norberaren buruarekin hika (ONA-264/038)**

Euren buruarekin hika egiten dute hirurek. Agurtzaneren eta Miraren kasuan, mutilen hika ateratzen zaie batzuetan. Koldok, animaliei sexuaren arabera hika egiten die.

### **1.307. Zuka eginez gero, seinale txarra (ONA-264/039)**

Konfiantza, ohitura, gertuko harremana... ematen die hitanoak.

### **1.308. "Araozgoak bezelakoak behintzat ez izan" (ONA-264/042)**

Euskara garai batean baserriarekin lotzen zen moduan, berdin gertatzen zen hitanoarekin. Baserritarra izatea eta hika egitea gizarte maila baxukoa izatea zen, ezjakinarena. Araozgoak eredu txartzat zituzten gurasoek.

### **1.309. Zer egin hika errekuiperatzeko? (ONA-264/044)**

Gizonen artean erabiltzetik, gizon eta emakumeen artean hitz egitera pasa beharko litzateke. Gizonek ez dakite emakumeei nola egiten zaien hika.

### **1.310. Familia ugariak (ONA-265/002)**

Orain familiak ez dira ume askokoak, baina lehen bai. Ume-umetatik elkar zaintzen aritzen ziren.

### **1.311. Emakumeak gizonei kopiatzen I (ONA-265/003)**

Agurtzaneren aitari ez zitzaion batere gustatu alabak prakekin ikustea. Zigarroa erretzen hasi ziren, gizonei kopiatzen.

### **1.312. Emakumeak gizonei kopiatzen II (ONA-265/004)**

Beste adibide bat jartzen dute: mendi lasterketak. Kirolean ere emakumea mutilena kopiatzen, gutxiago ez izateko, osasunerako txarra izan arren. Martxoaren 8an gizonek ere manifestazioan egon behar dutela dio Mirarik.

### **1.313. Garbigailuak eta "puxetia" (ONA-265/005)**

"Puxetia" ezagutu dute. Hango urarekin garbitzen zieten burua Koldori-eta.

### **1.314. Umetan itaurrean ibili behar (ONA-265/006)**

Itaurrean ibiltzen ziren umetan, eta ez dute oroitzapen onik.

### **1.315. Baserritarrak gutxiagotzat zituzten (ONA-265/007)**

Akonplejatuta zeuden baserritarrak. Orain ez dute halako diferentziarik kaletarrekin. Lehen baserritarrak kultura gutxiagotzat zituzten. Koldo seminarista batzuei Araoztik Urbiara laguntzera joan zen behin, oinez, 8-9 urterekin, eta haiek ez zekitela oilarra eta oiloa desberdintzen. Araozko erromeriak. Araotzen bizimodu propioa zuten.

### **1.316. Txorizotxo Eguna (ONA-265/008)**

Eskolan arratsaldea jai izaten zuten, Txorizotxo Eguna ospatzeko. Agurtzaneren amandrea pospoloak gordetzen egoten zen umeei emateko. Sua egiten zuten, eta txorizoak bertan erretzen zituzten. Mirarik anekdota bat kontatzen du, nola gaizkitu zen.

### **1.317. Ezkondu eta emakumeak lana utzi (ONA-265/009)**

Dotea ematen zieten emakumeei, ezkontzen zirenean lana uzteko. Batzuek kotxea erosi zuten diru horrekin. Gizonak etxeko lanak egiteaz libratzen ziren. Etxeko lanen banaketa. Koldok ontziak garbitzea begi txarrez ikusten zuen haren aitak, eta Mirarik ere beste kasu bat aipatzen du, bere semea puntua egiten hasi zenekoa: aitajaunari ez zitzaiola ondo iruditu.

### **1.318. Elizaren indarra (ONA-265/010)**

Dena bekatu. Elizaren indarra: aldaketa handiak ezagutu zituzten beraiek, urte gutxian. Apaiz gazteak gitarrarekin mezan.

### **1.319. Neskatilen eta mutikoen jolasak (ONA-265/011)**

Araotzen mutikoek ez zuten txirikilan jolasten: neskatilen jolasa zen. Aste Santuko jolasa zen, Garizumakoa. "Pauloka" ere ibiltzen ziren eta briletean. Anekdotak kontatzen du Mirarik, harrapaketan jolasten gona apurtu zitzaionekoa.

### **1.320. Etxean jositako arropa (ONA-265/012)**

Dotore jantzita ibiltzen ziren, ahaleginak eginda behintzat. Etxean josten zituzten arropak, emakumeek. Koldok gogoan du amaren josteko makinaren hotsa, gauetan. Kantzontzilo 'reforzatuak'. Anastasio saltzaile arabarra aipatzen dute. Legazpiko Mirandaolara linuzko arropa Urruzulatik hara emandakoa ei da.

### **1.321. Neskame eta morroi (ONA-265/014)**

Ohikoa zen neskame joatea. Fraisoroko ume asko horrela jaiotakoak zirela dio Mirarik, abusuen ondorio. Familia ugariak ziren eta umeak kanpora bidalita, aho bat gutxiago etxean. Mutikoak fraidegai, Arantzazura, eta neskak moja.

### **1.322. Komentuetako trapu zaharrak ezkutuan (ONA-265/016)**

Koldok dio egunen batean historia idazten bada, milaka emakumeren tragedia agertuko dela, baina ez du uste komentuetako trapu zaharrak erraz aireratuko direnik. Neska askok komentuetan tratu txarra jasotzen zuten. Koldoren ustez, fraide-etxeetan perbertsioa segurua da.

### **1.323. Mirariren amandrearen bi ahizpa moja (ONA-265/017)**

Mirarik bere amamaren bi ahizpa moja joan ziren. Amama hil zenean etxera joan zen tia moja, eta 16 misterioko errosarioa errezatu zuten. Tia mojari janaria (gaztak eta txorizoa) eta arropa eman zizkion Mirariren amak, eta tia mojak janari guztia sakristauari eman zion.

### **1.324. Dantzan eta tabernetan (ONA-265/018)**

Mutilek eskatzen zieten dantza egiteko neskei. Kalabazak ematen zituzten, batzuetan. Beren garaian beraiek neska eta mutil sartzen ziren tabernara, elkarrekin.

### **1.325. Umeen heziketa lehen eta orain (ONA-265/019)**

Umeen heziketa gaur egun aitona-amonen esku. Hazi eta hezi ez direla gauza bera. Beraiek umetan obedienteagoak ziren. Adibidez, ez ziren mahaitik altxatzen, denak jaiki arte. Heztea zer den. Ezkertiarrek ez zeuden onartuta garai batean.

### **1.326. Gizonek askatasun gehiago? (ONA-265/022)**

Orain gizonek lehen baino gehiago egiten dituzte etxeko lanak. Orain aitajun-amandreak dira askatasun gutxiago dutenak, gurasoek aisialdia izan dezaten. Garai batean gizonak tabernara joaten ziren, emakumeak ez.

### **1.327. Gurasoek hika egiten zieten beti (ONA-266/002)**

Gurasoek hika hitz egiten zieten beti. Auzokoei edo beste pertsona batzuei, berriz, zuka. Anai-arreben artean hika hitz egiten dute. Zuka hitz egitea konfiantzarik ez edukitzea litzatekeela diote.

### **1.328. Gaztetan Galarza medikuarenera joan zenekoa (ONA-266/006)**

Mari Karmenek Garai lantegian lan egin zuen ezkondu arte. Lantegitik irteerakoan larritasuna sentitzen zuen eta amari esan zion. Galarza medikuarenera joan zen eta urdaila erorita zuela esan zioten. Aitarekin etxean izan zuen elkarrizketa.

### **1.329. Lagun gutxirekin hika (ONA-266/010)**

Lagunekin zuka egiten dute. Mari Karmenek lagun bakar batekin hitz egin izan du hika. Beste lagunak batekin hitz solteak bakarrik. Ohitura kontua da. Konfiantza handia izanez gero, nahi gabe ateratzen omen dira hitz edo esamolde solteak.

### **1.330. Hika egitea zakarragoa? (ONA-266/016)**

Joneri iruditzen zaio hika hitz egitea zakarragoa dela zuka egitea baino. Horregatik ez diote hika egin etxekoa ez den inori. Mari Karmenek, berriz, ohitura falta dela dio. Hika egitea konfiantza handiagokoa dela uste du.

### **1.331. Gurasoek seme-alabei hika (ONA-266/018)**

Gurasoek hika hitz egiten zieten. Joera hori zuten beste guraso asko egongo zirela dio Mari Karmenek. Hika egiteak ez zuen esan gura gutxiago maite zituztenik. Aitaren esaera.

### **1.332. Argentinako senidea hunkituta, hika entzutean (ONA-266/030)**

Joneri hika aurrera ateratzea gustatuko litzaioke, nahiz eta berak seme-alabei ez dien erakutsi. Mari Karmenek kontatzen du Argentinan bizi zen senide bat bisitan etorri zitzairenean, hika entzun eta hunkitu egin zela, aitaren hizketa zetorkiolako burura.

### **1.333. Kategoria handiagokoei zuka (ONA-266/035)**

Garai batean kategoria handiagoko pertsonen hika hitz egitea pentsatu ere ez. Konfiantzarik eta ohiturarik izan ezean, ez dute hika egiten. Baina errespetu falta ote da hika egitea?

### **1.334. Hika, zuka eta berorika (ONA-268/002)**

Hika zeinekin egin izan duen aipatzen du bakoitzak; Joxepi eta Mariaxun ahizpek, anaia gazteenarekin. Pilarrek gehienekin hika. Esperanzak, berriz, guztiekin zuka. Abadeei berorika egin behar izaten zitzairen.

### **1.335. Etxean zuka, lagunekin hika (ONA-268/006)**

9 anai-arrebetan gazteena zen Esperanza. Etxean ez zuen hika egiten. Anaiek euren artean bai, egiten zuten. Esperanzak kalean, Larra&ntilde;ako lagunekin hitz egiten zuen hitanoan. 14-15 urterekin txokolate lantegian hasi zen lanean eta han ere batzuekin egiten zuen. Auzokoen artean zuka erabiltzen zuten.

### **1.336. Anai-arreba gazteenekin hika, baina zaharrenekin zuka (ONA-268/010)**

Pilarrek anai-arreba gazteenekin hika egiten zuen beti, baina zaharrenekin zuka. Gurasoek beraiei batzuetan egiten zieten hika. Ez daki ziur gurasoek auzokoekin edo anai-arrebekin hika egingo zuten. Bere ustez, gazteleraren eraginez galdu zen gero hitanoan egiteko ohitura.

### **1.337. Eskolan euskara debekatua (ONA-268/011)**

Eskolan euskaraz egiteagatik zigortu egiten zituzten. Iturrira ur bila joatea edo sua egiteko adarrak biltzea izaten ziren zigor ohikoena.

### **1.338. Eskolatik kanpo, lagunekin hika (ONA-268/012)**

Umetako lagunekin hika egiten zuten. Adinekoei zuka egiten zieten.

### **1.339. Seme-alabekin ez zuen hitanoan egiten (ONA-268/013)**

Seme-alabei ez die hitanoan egin. Ez zen erabaki bat izan; gazteleraren menpean bizi ziren orduan. Pilarrekin gehiago egiten zuten gazteleraz, baina aitak ez zuen etxean gaztelerarik onartzen.

### **1.340. Zeinekin egiten zuten hika (ONA-268/017)**

Bi ahizpek elkarren artean hika egin ohi zuten, eta anaia gazteenarekin ere bai. Anai-arreba zaharrenekin, berriz, zuka. Gurasoek denei egiten zieten hika. Lagunekin ere hitanoan egiten zuten. Mutil lagunarekin zuka. Semeari eta ilobei gehienbat zuka.

### **1.341. Hitanoa eta euskara/gaztelerari dagokionez, auzoen arteko desberdintasunak (ONA-268/022)**

Hitanoari dagokionez, desberdintasun handiak ikusten dituzte kaleko edo baserri giroko auzoen artean. Kalean ia ez da egiten hika. Baserritar izateagatik ez dute konplexurik izan. Hala ere, Pilarrek gogoan du lehen jaunartzea egin zuenean errezoak eta abestiak gazteleraz ez zekizkienez, isilik gelditzen zela.

### **1.342. Hitanoa, baserritarren kontua (ONA-268/025)**

Hitanoa baserritarren kontua bezala hartu izan da, baliorik ez zaio eman eta horregatik galdu dela uste dute.

### **1.343. Hitanoa eta errespetua (ONA-268/026)**

Ezagutzen dute senarrari hika egiten dion emakume bat, baina ez zen ohikoa. Pertsona nagusiei hika egitea ere ez zen itxurazkoa. Hitanoa erabiltzeko "baldintzak".

### **1.344. Gaur egun, mutilek neskek baino gehiago hitanoan (ONA-268/027)**

Gaur egun gazteek asko egiten dute euskaraz. Baina mutilek gehiago egiten dute hika neskek baino.

### **1.345. Gaur egungo gazteen hitanoa, desberdina (ONA-268/029)**

Gaur egungo gazteen hitanoa desberdina da. Mutilei eta neskei berdin egiten diete, ez dakite noka erabiltzen.

### **1.346. Errespetua baino gehiago, konfiantza kontua da hitanoa (ONA-268/030)**

Hitanoaren kontua, errespetuzkoa baino, konfiantzazkoa dela uste dute.

### **1.347. Zergatik galdu da noka? (ONA-268/032)**

Emakumeen artean hitanoa galdu izanaren arrazoiei buruz dihardute. Emakumeek gaztelararako joera gehiago izan dute. O&ntilde;atiko hitanoa

### **1.348. Esparru informaletan emakumeek hika erabiltzeko zailtasun gehiago (ONA-268/035)**

Garai batean mutilek taberna giroan hika gehiago erabiltzeko aukera zuten. Emakumeak, berriz, tabernetan sartzea gaizki ikusia zegoen. Pilarrek duela gutxi tabernan sartzerakoan lotsa pasatu zuela kontatzen du.

### **1.349. Animaliei hika (ONA-268/037)**

Animaliei normalean hika egiten diete, baina ez dute bereizten arra ala emea den.

### **1.350. Mariaxun telefonoz hika ari zela, senarraren txantxa (ONA-268/040)**

Hika dabilzanean konfiantzazko norbaitekin hitz egiten ari direla esan nahi du. Behin Mariaxun telefonoz hika ari zela, haren senarrak esandako txantxa kontatzen du Joxepik.

### **1.351. Auzoen arteko tira-birak (ONA-268/043)**

Umetan, auzoen arteko burlak. Garibaikoei "Afrika" deitzen zieten.

### **1.352. Garbigailua eta "puxetia" (ONA-269/002)**

Garbigailua asmakuntza ona izan zela diote. "Puxetia", "subana" eta "sutako hautsa". Baserri gehienetan "albergak" zituzten.

### **1.353. Lehenengo irratia eta garbigailuak (ONA-269/004)**

Irratia ere asmakuntza ona izan zela diote. Lehenengoek armairuak ziruditen.

### **1.354. Gizakumeak beti libreago emakumeak baino (ONA-269/006)**

Gizakumeak beti libreagoak izan direla diote. Garai lantegian lanean zebilen emakume baten anekdota: senarra lotsatu egin zela umea zaintzeaz. Txiste bat kontatzen dute.

### **1.355. Umeen zaintza (ONA-269/008)**

Familia handiak ziren eta zaharrenek gazteenak zaintzen zituzten.

### **1.356. Emakumeak eta prakak (ONA-269/010)**

Gauza onenak beti gizakumeentzat zirela diote. Emakumeak prakak janzen hasi zirenean, gaizki begiratzen zieten.

### **1.357. Baserritarrak vs kaletarrak (ONA-269/012)**

Baserritarren eta kaletarren arteko diferentziak.

### **1.358. Ezkontzean emakumeak lana utzi (ONA-269/014)**

Ezkontzean lana uzten zuten emakumeek, umeen eta senarraren kargu egiteko.

### **1.359. Baserriko lanen banaketa (ONA-269/015)**

Baserriko lanak. Emakumeek lan asko egiten zuten baserrian, baina gizonek ere bai. Hika egin beharrean zuka egiten dute, eta elkarri kargu hartu.

### **1.360. Aurreko belaunaldiak eta gaztainak (ONA-269/016)**

Aurreko belaunaldiak: gaztainak eta pinuak landatu zituztenak. Gaztainak eta arto-zuriketa. Auzo-bilerak: arrosarioa errezatu, txisteak kontatu...

### **1.361. Dena bekatu (ONA-269/018)**

Dena bekatua zen, eta apaizari errespetua erakutsi behar zitzaion.

### **1.362. Umetako jolasak: txirikiletan (ONA-269/020)**

Umetako jolasak, diferenteak neska eta mutilentzat. Txirikiletan elkarrekin ibiltzen ziren, Garizuman. Sokasaltoa.

### **1.363. Sexuari buruzko pertzeptzioa lehen eta orain (ONA-269/021)**

Ezkondu aurretik sexurik ez lehen. Gaur egun, berriz, edozein umek galdetzen du horri buruz. Anekdotak bat.

### **1.364. Mutilek neskak dantzara atera (ONA-269/022)**

Mutilek dantzara noiz aterako zain egoten ziren. Tabernara joatea ez zegoen ondo ikusita.

### **1.365. Josten ikastea eta beste lan batzuk (ONA-269/025)**

Josten ikastea derrigorrezkoa zen sasoi batean. Anekdotak: erbi bat narrutzearen truke zinemarako sarrerak erosi zizkien anaiak. Katagorria omen da goxoa jateko.

### **1.366. Amak egiten dio hika (ONA-270/002)**

Amaren bidez jaso du hitanoa, etxean. Bi ahizpei egin die hika amak, eta etxeko bi osabek ere bai. Aitak noizbait baina gutxi. Egiten duen apurra amarekin egiten du, eta orain ahizpari gehiago egiten hasi da. Amarekin lehen ez zuen egiten, eta orain ere gaiaren eta momentuaren arabera.

### **1.367. Auzoan, hika egiteko ohitura (ONA-270/004)**

Amak anaiarekin hika egiten du, eta ahizparekin ere bai. Aitak koinatuarekin ere bai. Auzoan gizona hika egiten dute beraien artean, baina emakumeek guztiakin ez (Kamelakoekin eta Azkarretakoekin egiten du amak).

### **1.368. Amari hika egitea errespetu falta? (ONA-270/005)**

Berak gogoan duela, betidanik egin diete hika, ume-umetatik. Amari hika egiten badio, batzuek esaten diote hori ezin dela egin, errespetu falta dela.

### **1.369. Emakumeek Olabarrietan Murgian baino gutxiago hika? (ONA-270/006)**

Murgia auzoan bada ohitura hika egiteko. Orain Olabarrietan bizi da, eta han ere batzuek egiten dute. "Tierra santa" deitzen zioten Olabarrietari. Andolatzakoa aipatzen du.

### **1.370. Emakumeek hika egitea "atsoen" kontua (ONA-270/008)**

Fanpuenean (bikotearen baserrian) ez dute hika egiten. Bere bikoteak koadrilakoekin dena hika egiten du, baina nesken artean ez da egiten. "Atsoen" eta "baserritarren" kontutzat zuen berak ere, punturarte.

### **1.371. Gaztelania, sasoi batean euskararen aurretik (ONA-270/010)**

Baserritar konplexuak emakumeen artean hitanoaren galeran izan duen eraginaz dihardu. Hitanoa gutxietsita egon da. Bere eskola garaian ere gaztelaniaz hitz egitea hobeto zegoen ikusita euskaraz hitz egitea baino. Etxetik kanpora ez du hika egiteko aukera handirik izan. Berarentzat etxean erabiltzeko hizkuntza da.

### **1.372. Pertzeptzio aldaketa hitanoaren gainean (ONA-270/011)**

Pertzeptzio aldaketa izan du. Lehen baserritarren kontutzat zeukan, eta orain, berriz, gehiago baloratzen du. Mutil gazteen artean "guay" da hika egitea.

### **1.373. Hika egiten duten emakumeen profila (ONA-270/013)**

Hika egiten duten emakumeen profila zein den: errebeldia puntu bat ikusten du Nereak. Familia oso elizkoietan gutxiago mantendu ote den... Etxean naturaltasunez jaso duenez, berak ere egiten dio hika bere alabari batzuetan. Alabak 10 urte ditu.

### **1.374. Hitanoa ez emakume finentzat (ONA-270/015)**

Zergatik gorde da mutilen artean eta nesken artean ez? Errespetuaren kontua ikusten du hor Nereak. Emakumeak fina izan behar horretan hitanoa baztertu egin da.



### **1.375. Erdararako joera emakumeen artean (ONA-270/016)**

Adin bateko emakume euskaldunen artean ikusten du erderarako joera bat gizonezkoen artean ez duena ikusten. Sasoi bateko pentsakera: erderaz zebilen emakumea "finagoa" zela euskaraz zebilena baino, eta hika egiten zuena are baldarragoa zela.

### **1.376. Amarekin gero eta gehiago hika (ONA-270/019)**

Ahizpen artean gutxi egiten dute hika. Ez dira saiatu ere egin. Berak gehiago egiten du amarekin bere ahizpak baino.

### **1.377. Mutil gazteek ez dakite noka (ONA-270/021)**

Bere adineko nesken artean ez du hitanorik entzuten. Bi aipatzen ditu, badakitenak. Adin bateko gizonezkoek badakite noka, baina mutil gazteek ez.

### **1.378. Hitanoa hurbiltasunarekin lotzen du (ONA-270/022)**

Hitanoa hurbiltasunarekin lotzen du, laguntasunarekin, konplizitatearekin. Lanean hika egiten dio neska batek. Galtzea pena litzateke, eta hori gerta ez dadin, dakitenek transmititu egin beharko luketela dio.

### **1.379. Ingo xonau! (ONA-270/024)**

Ingo xonau! esaten.

### **1.380. Gurasoek ez diote Marixoli hika egin; auzoan ikasi du (ONA-272/002)**

Ez du hitanoa etxean jaso. Gurasoek egin dute beren senideekin eta auzoan ere entzun du. Zaharragoei hika egitea oso gaizki ikusita egon da. Osaba mutilizahar batzuek bere anaiari hika egin izan diote, baina berari ez. Koadrilakoekin egiten du hika Marixolek, eta auzoan ikasi zuen. Orain alabari egiten dio hika, ikasi dezan.

### **1.381. Ama-alabak elkarrekin hika, ikasteko (ONA-272/003)**

Alabari hika egiten hasi da, eta Iratik baimena dauka amari ere hika egiteko. Konturatu ziren neskek ez dakitela, eta mutilek ere ez noka. Iratik ez zekizkien nokako formak, eta erakusteko eskatu zion amari.

### **1.382. Marixolen gurasoen ustez hika egitea "gogorra" (ONA-272/004)**

Marixolen gurasoei "gogorra" iruditzen zaie alabari hika egitea. Iratik aitajunari egiteko eskatu zion, eta hark ezetz. Marixolek ez dauka pertzeptzio hori: berari gustatu egiten zaio. Hori bai, haserre dagoenean, demanda egiteko erabiltzen du gehien berak.

### **1.383. Hika eremu intimoan bakarrik momentuz (ONA-272/005)**

Zaila egiten zaio zuka egitetik hika egitera igarotzeko pausoa. Denbora gutxi daramate, eta ez dira oso konstanteak izan. Bakarrik daudenean ez dute egiten, gainera: eremu intimokoa da.

### **1.384. Iratiren adineko mutilek toka egiten dute, baina noka ez (ONA-272/007)**

Hitanoarekin izan duen esperientzia. Daukan erreferentzia amonarena da, eta bere adineko mutilena: hika egiten dute beren artean. Berari gaizki egiten zioten, noka beharrean toka, eta horregatik animatu zen amari eskatzera. Marixolen kasuan Araotzen ohikoa zen gazteen artean hika jardutea.

### **1.385. Noka bultzatzeko zer egin daitekeen (ONA-272/008)**

Hika ikastaroak eta tertuliak antolatuz gero, Iratik dio animatuko litzakeela. Ez zaio erraza iruditzen nesken artean modan jartzea, bere inguruan inork ez dakielako noka. Aditz-taulak ere ondo etorriko litzazkieke, zalantza dutenean erabiltzeko.

### **1.386. Gaztelaniaz egiteko nahikoa lan (ONA-272/010)**

Hikaren galeraren arrazoiak. Mutilek jarraitu egin dute erabiltzen, baina ez daki neskek zergatik utzi zuten. Garai baten gaztelania zen modako hizkuntza kalean. Marixolek ez zekien erdaraz eskolara joaten hasi zenean. Iratik ere euskaraz egin du bizimodua.

### **1.387. Kaletartze-prozesuak eragina hitanoaren galeran? (ONA-272/011)**

Hitanoa baserriarekin lotzen da, eta kaletartze prozesuak eragina izan dezake galeran. Araoztarrek mantendu dute beren artean, baina seme-alabei ez diete hika egin. Baserritarra izateagatik konplexurik ez du izan sekula Marixolek.

### **1.388. Neska eta mutil elkarrekin joaten ziren tabernetara (ONA-272/013)**

Sozializatzeko moduak ez dira berdinak izan neskentzat eta mutilentzat. Bere amaren sasoian emakumeek finak izan behar zuten, ez errebeldeak... Marixolek ez du hori bizi izan. Neska eta mutil ekarrekin joaten ziren tabernetara.

### **1.389. Eskolan ia dena zuka (ONA-272/014)**

Eskolan euskaraz ikasteko aukera etorri zenean, euskara ondo ikasiko dutela pentsatu zuten gurasoek. Eskolan zuka erakusten da, hika oso gutxi. Iratik ikastolan O&ntilde;atiko euskara ez du irakasgai moduan ikasi, baina 6. mailararte O&ntilde;atiko irakasleak izanda bai jaso du. Joxeina irakasleak hika egiten zien.

### **1.390. Hutsunea dago nokaren kasuan (ONA-272/015)**

O&ntilde;atin hitanoaren osasuna mutilen kasuan ona dela uste dute, baina neskena ez. Mutilek asko darabilte. Nesken kasuan hutsune bat dago. Amonak noka egiten du lagunekin eta ahizparekin.

### **1.391. Esaldi solteak hika, Iratik lagunekin (ONA-272/017)**

Iratik dio bere lagunekin ez duela hitanoari buruz hitz egin... baina esaten dituzte esaldi batzuk hika. Uste du batzuk animatuko lirakeela erabiltzera eta beste batzuk ez.

### **1.392. Hitanoak konplizitatea ematen du (ONA-272/019)**

Identitate-marka bat da hitanoa Iratirentzat. Beste lotura bat sortzen da, konplizitatea. Ez du uste bere adineko beste neskek hiak dakitenik, baina ez du galdetu. Bere bi lagunek (mutilek) ez dioete noka egiten, ez dakitelako.

### **1.393. Duela urte eta erdi hasi ziren elkarrekin hika egiten (ONA-272/021)**

Zer sentrazio hika egiteak? Gertutasuna, konfiantza, lotura bat... Duela urte eta erdi hasi ziren hika egiten, Irati Batxi-2n zegoela.

### **1.394. Ingo xonau! (ONA-272/025)**

Ingo xonau! esaten.

### **1.395. Gaztelaniaz nola ikasi zuten; nori zuka, hika edo berorika (ONA-273/004)**

Dena euskaraz egiten zuten eta kalera jaisten zirenean "caseras" esaten zieten, gaztelaniaz ez zekitelako. Garai batean pertsona nagusiagoei, medikuari edo fraideei zuka edo berorika egitea normala zen, baina, bestela, euren artean, hika. Bernardok Extremaduratik etorri zen batekin ikasi zuen gaztelaniaz.

### **1.396. Hika naturalki ikasi zuten, aurrekoei entzunda (ONA-273/005)**

Gurasoek euren anai-arrebekin hika hitz egiten zuten eta nahiz eta seme-alabei ez egin, inkontzienteki ikasi zutela diote. Osaba batek "hi, mutikua" edo "hi, neskatilia" esateko ohitura zuen, baina inoiz ez izen propioa esanda. Beraientzat hika hitz egitea inoiz ez da izan mespretxuzkoa, goxoa eta gertukoa baizik. Gurasoei beti zuka, errespetuagatik. Euren artean ume-umetatik hika.

### **1.397. Auzokoen artean hika; Arantzazutik Araotzera ezberdintasunak (ONA-273/007)**

Auzokoen artean hika hitz egiteko ohitura dute. Bernardok uste du auzo gehienetako ohitura hori izango dela. Euskara asko aldatzen da Arantzazutik Araotzera. Hika ere desberdina omen da.

### **1.398. Pertsona jakin batzuei oharkabeen hika (ONA-273/011)**

Bernardok dio auzoko lagunez aparte, beste gizonezko batzuei ere egiten diela hika. Emakumeei gutxiago. Dendan bezero batzuei beti hika egiten die, baina ez daki zergatik. Automatikoki irteten den gauza bat dela diote. Konfiantza izan behar da hika egiteko.

### **1.399. Hikaren beherakadaren arrazoiak zeintzuk ote? (ONA-273/014)**

O&ntilde;atiko kalean oso euskara gutxi entzuten zen garai batean. Euskaraz egitea baserritarrena zen eta hika ere bai. Hala ere, ez dute uste seme-alabei hika ez irakastea konplexuaren ondorioa izan denik. Ikastoletan jasotako euskara batuaren eragina aipatzen dute. Beraiek O&ntilde;atiko euskarari eutsi diote.

### **1.400. Hitanoaren galeraren arrazoiak (ONA-273/022)**

Kalean hika baserritarrena zela esaten zietenez, hain baserritar ez sentitzearren, zuka egiten zutela uste du Karmenek. Gainera, euskara batuak ere eragina izan duela uste dute. Euskara batuko hitanoa O&ntilde;atikotik oso desberdina dela dio Bernardok.

### **1.401. Neskek hika aritzeko esparru gutxiago (ONA-273/024)**

Emakumeek eta gizonak ez zituzten pareko esparruak hika aritzeko. Garai batean emakumeak ezin ziren bakarrik sartu kafetegian. Bernardok dio auzoko mutilak futboleko edo bola-jokoan aritzen zirela eta hika hitz egiten zutela elkarrekin. Neskatilak ez ziren inora joaten.

### **1.402. Hikak sortzen dien sentipena; hikaren etorkizuna (ONA-273/026)**

Hikak konfiantza handiagoa ematen die; zukak errespetua. Pertsona batzuekin automatikoki ateratzen zaie, baina beste batzuekin hika egitea (adibidez alabekin) pentsaezina da eurentzat. Hika galtzea pena litzatekeela diote, baina beraiek ez dutenez transmititu, galtze hori etor daitekeela ikusten dute.

### **1.403. Beñardo jaio zeneko kontuak (ONA-274/002)**

Beñardo jaio zeneko kontuak kontatzen dituzte bi arrebek, Karmenek eta Edurnek. 6 eta 4 urte zituzten. 9 senidetik txikiena zen Beñardo, eta anai guztien arropa eta oinetakoak erabili behar izaten zuen.

### **1.404. Amandreari buruzkoak (ONA-274/003)**

Brigida amandreari buruz hitz egiten dute. Edurnek gogoan du hil zenean errekan zegoela, zerbait garbitzen.

### **1.405. Ume negartia (ONA-274/004)**

Beñardok gogoan dauka sei urterekin titia hartzen zuela. Amak betuna eman behar zuen. Oso negartia ei zen umetan.

### **1.406. Gizakumeek askatasun gehiago zuten (ONA-274/006)**

Enrike anaiari zapatak garbitzen zizkion Edurnek, eta esaten zion 5 pezeta emango zizkiola, baina ez zizkion ematen. Ilean tupea ipintzeko zerbeza erabiltzen zuten mutilek. Enkarguak, jatorduak, etxeko lanak... dena emakumeek egiten zuten.

### **1.407. Lehenengo telebista eta garbigailua (ONA-274/007)**

Lehenengo telebista gogoan dute, Telefonen markakoa. Auzoko hirugarrena izan zen. Aurretik, Aizkurrira joaten ziren telebista ikustera. Fundamentuzko argindarrik ez zuten garbigailua ipintzeko. Euskarazko lehen saioa.

### **1.408. Josten ikasten umetatik (ONA-274/008)**

Neskei txiki-txikitik erakutsi zieten josten, etxean: barrenak, botoiak...

#### **1.409. Gurasoei errespetua zieten (ONA-274/010)**

Gurasoei errespetua zieten. 9 senide izan, eta hala ere inoiz ez zieten zaplasteko bat ere eman.

#### **1.410. Afaldu denak elkarrekin, sasoi batean (ONA-274/014)**

Galdutako ohiturak. Jatorduetan denak elkarrekin egoten ziren mahaian. Anekdotak bat kontatzen du Edurnek. Gabonak asko aldatu dira. Arantzazuko jaiak.

#### **1.411. Emakumeak tabernan ez (ONA-274/016)**

Emakumeak ez ziren tabernara sartzen. Ezkondu gabe haurdun geratzea ere gaizki ikusita zegoen.

#### **1.412. Lehen ala orain hobeto bizi? (ONA-274/018)**

Gutxirekin pozik bizi ziren. Orain hobeto bizi garela diote, baina familiako giroa lehen hobe izaten zela.

#### **1.413. Ezkontzean emakumeek lantokia utzi (ONA-274/019)**

Ezkontzean lana uzten zuten emakumeek. Karmenek lantegia utzi zuen eta, nahiz eta beste lan batzuetan ibili den, horren damua du.

#### **1.414. Baserriko lanen banaketa (ONA-274/021)**

Mutilen lanak baserrian gogorragoak ziren: pinuak sartu... Neskek etxekeo lanak gehiago. Aitak ardiak bai, baina ez zuen behirik jetzen: beti amak.

#### **1.415. Elizaren indarra (ONA-274/022)**

Elizaren indarra handia zen. Aita Lasa maisu ona zen. Bata besteari erakusten egoten ziren eskolan. Mezetara joan beharrean ehizara joan ziren mutil batzuek.

#### **1.416. Umetako jolasak (ONA-274/023)**

Baserrian antzeko jolasak egiten zituzten. Txirikiletan jolasean behatzean ebakia egin zioten Karmeni. Txirrinkan.

#### **1.417. Mutilek dantzara noiz aterako zain (ONA-274/026)**

"Bailamos?", eskatzen zuten mutilek. Zain egoten ziren neskek.

#### **1.418. Pikea auzoan (ONA-274/028)**

Pikerik ez zuten kaletarrekin, baina araoztarrekin bai, eta auzo mailan ere bai: behekoak eta goikoak.

#### **1.419. Ezkondu aurretik sexua bekatu (ONA-274/029)**

Ezkondu aurretik sexua bekatu. Mutilek askatasun handiagoa zuten. Beñardo ezkondu aurretik bi urtean bizi izan zen neskalagunarekin.

#### **1.420. San Bernardora, Arantzazutik (ONA-274/031)**

San Bernardora joan zirenekoa, kamioiarekin. Arantzazutik oinez joaten ziren, astoarekin.

### **1.421. Ama hika egiten hasi zitzaien anaiari eta berari (ONA-275/002)**

Etxean jaso du hitanoa. Bere amak-eta hika egiten dute senide artean. Anaiari eta berari zuka egiten zien umetan, baina egun batean hika egiten hastea erabaki zuen. Anek ez dauka norekin hika egin. Laudioko lagunekin euskaraz egiteko ere nahiko lan izan du.

### **1.422. Zeinek egiten dion hika (ONA-275/003)**

Anaiarekin esaldi solteak bai, erabiltzen ditu hika Anek. Baserri giroan errotuago dago hitanoa; basoko batzordean dago, eta haiek hika egiten diote; berak zuka erantzuten die. Amonak hika egiten zion, eta izebak ere batzuetan egiten dio. Bere O&ntilde;atiko koadrilan gurasoek inori ez diote hika egin izan, eta zaila ikusten du ohitura hori hartu ahal izatea.

### **1.423. Hika egitea, konfiantza seinale (ONA-275/005)**

Amak den-dena hika egiten dio orain, egoera guztietan. Kosta egin zitzaion hasieran, baina orain modu automatikoan egiten du. Amak esaten dio gurasoei ezin zaiela egin, eta berak ez dio egiten. Apaizei ere ezin zaie hika egin. Amak ahizpa monjari bai egiten dio hika (ahizpa delako monja baino lehen). Botere harremana markatzen duen tratamendu bat da hitanoa.

### **1.424. Ohiturak aldatu egiten dira: berorika (ONA-275/007)**

Adin diferentzia egon arren, laguna izanez gero posible da hika egitea. Auzoko gizon batek aitari berorika egiten zion, eta hori galdu zen bezala hitanoarekin lotutako ohiturak ere aldatzen ari dira.

### **1.425. Amak hika egiten dionean, harridura (ONA-275/008)**

Amak hika egiten dionean, lagun batzuek harritu egiten dira. Laudioko lagunak ez dira konturatu ere egiten, ez dakite zer den ere. Aneri, berriz, ilusioa egiten dio amak berari hika egiteak.

### **1.426. Oñatiko nokaren galeraren arrazoiak (ONA-275/010)**

Zergatik joan da galtzen noka eta toka ez O&ntilde;atin? Neskei errespetua izatea eskatu zaie eta sozializatzeko ere beste bide batzuk izan dituzte gizonek. Orain, nahiz eta jakin, egitea zaila iruditzen zaio berari ere.

### **1.427. Ohitura aldatzea zaila iruditzen zaio (ONA-275/011)**

Etxean jaso duten apurrek ez dute eduki zeinekin egin. Irati Barrena aipatzen du, proiekturako elkarrizketatutako gazteetako bat (Ongi tabernan egiten du lan neska horrek). Hastea izango litzateke, baina salto bat iruditzen zaio.

### **1.428. Hitanoaren egoera Oñatin (ONA-275/012)**

Euskararen egoera O&ntilde;atin askoz hobea da Laudion baino, baina hitanoa ez du osasuntsu ikusten: forma asko gaizki erabiltzen dira gazteen artean. Azkoitin osasun hobea du hitanoak. Bere mutil-lagunak beti hika egiten du mutilak diren lagunekin. O&ntilde;atikoek, berriz, hika eta zuka nahasten dute.

### **1.429. "Xaukena xauk" modan, Oñatitik kanpo ere (ONA-275/013)**

"Xaukena xauk" espresioari buruz. Gaur egungo gazteentzat hitanoa erakargarria da, Aneren ustez, baina ez daki ahalegin hori egiteko prest dauden. Exotikoa izan daiteke gazteentzat.

### **1.430. Hika egitea "plus" bat da Anerentzat (ONA-275/014)**

Onintza Legorburuk Antzuolan egindako ikerketaren arabera, mutil gazteentzat 'plus bat' da hika egitea: 'euskal label' batekin lotzen dute. Anek ere bai. Erakargarria egiten zaio.

### **1.431. Hika, egoera informaletarako (ONA-275/015)**

Mutilek ez dakite noka egiten, eta toka ere gaizki egiten dute askotan. Hitanoa konfiantzarekin lotzen du Anek, eta parranda giroarekin. Ez da egoera formaletarako.

### **1.432. Hika galduko balitz, zer? (ONA-275/016)**

Galtzea penagarria litzateke. Egunen batean alaba bat balu, ez du uste hari hika egiteko egingo liokeenik, berak bere amari bezala. Ingo xonau! ekimena sortu den arte ez du kontzientzia hartu, galdu egin daitekeenik. Pereza emango lioke hasieran hika-tertulietan parte hartzeak, baina merezi duela uste du.

### **1.433. Zer egin noka berreskuratzeko? (ONA-275/017)**

Zer egin noka modan jartzeko? Ahalduntze-prozesu moduan bizitzeak lagundu dezakeela uste du, baina berarentzat eraginkorragoa da konfiantza-zirkuluak sortzea. Hika-tertuliak egitea ideia ona iruditzen zaio.

### **1.434. Ingo xonau! (ONA-275/020)**

Ingo xonau? esaten.

### **1.435. Hikarekin zer harreman? (ONA-277/003)**

Etxean anaiek hika egiten diote elkarri, baina berari ez zion inork hika egin etxean. Villabonan bizi zenean, hika hizketan hasi zen Fleming ikastetxeko lankide batekin. Gipuzkeraz egiten zuen han, eta hitanoa ere bertakoa.

### **1.436. Villabonako hitanotik Oñatikora (ONA-277/004)**

Oñatierako hika oraintxe hasi da ikasten eta erabiltzen. Etxean ez diote hika egin izan; osabak eta aitak mutilei bai (bere senarrari bai), baina berari ez. Villabona ikasitakoa oñatieraz jartzen saiatzen da, bere erara eta hanka sartuaz.

### **1.437. Laguna duen emakume batek hika egiten dio (ONA-277/006)**

Badaude batzuek batzuetan hika egiten diotenak. Emakume batek hika egiten dio berari, baina alabari, berriz, ez.

#### **1.438. Ohiturak aldatzea ez da erraza (ONA-277/008)**

Nerea Agirrerekin (elkarrizketatua dago bera ere) hika egitea dauka orain erronka moduan, eskolan elkar ikusten dutenean. Ohiturak aldatzea ez da erraza. Bi alabei hika egiten ere hasi da.

#### **1.439. Hika gaizki egiteko askatasuna (ONA-277/010)**

Egunerokotasunean hika jardutea ez da erraza. Pertsona konkretuekin eta lana eginda lortzen dela dio. Konfiantza izan behar da gaizki egiteko, ikasten joan ahal izateko.

#### **1.440. Hika egiten hasteko prozesua (ONA-277/011)**

Villabonan egin zuen hika egiten hasteko prozesua. Hasierako zailtasunak aipatzen ditu. Egitura batzuk barneratu ahala, errazagoa da.

#### **1.441. Hikatertuliak (ONA-277/012)**

Mintzapraktika garrantzitsua da eta hika egiteko ere hori behar da: hikatertuliak, hikapoteoak...

#### **1.442. Hitanoaren osasuna Oñatin (ONA-277/014)**

Nesken artean hitanoa galtzen joan da, eta mutilen artean parranda giroan erabiltzen dela uste du edo oso baserri eremuko jendeak. Bestela, ez du hain osasuntsu ikusten mutilena ere. Emakumeei lotsa handiagoa ematen die gaizki eaateko beldurrak mutilei baino.

#### **1.443. Hitanoa eta oñatiera eskoletan (ONA-277/016)**

Eskoletan ez da hitanoa erakusten... erakustekotan oso gaineratik. Irakasleek ez diote behar besteko baliorik ematen hitanoari eta Oñatiko euskalkiari ere ez. Idatzizko dena euskara batuan da. Irakasleek beraiek ere ez dituzte Oñatiko aditz-formak behar bezala menperatzen.

#### **1.444. Ikasleek gero eta euskara maila apalagoa (ONA-277/017)**

Batuarekin eta eskolan ez bada euskalkia erakusten, normala ez jakitea. Aintzaneren ustez, euskara batua ere ez dute menperatzen gaztetxoek. Arazo hortaz konturatuta daude irakasleak.

#### **1.445. Ikasleek gero eta euskara maila apalagoa II (ONA-277/019)**

Gaztelaniaren eragina kaltegarria da euskararentzat.

#### **1.446. Hika zebilena, baserritarra (ONA-277/020)**

Frankismo garaian erdararako joera nagusitu zen. Euskarazko liburuak debekatu zituzten. Zuka egiten zuena baino maila baxuagokoa izango zen hika zebilena: baserritarrak. Baserri munduko adinekoak konplexuak dituzte oraindik ere.

#### **1.447. Azalaren kolore beltzarana: baserritar kutsukoa (ONA-277/021)**

Baserritarrari burla egiten zioten. Baserritarrak beltzaran egoten ziren, soroan lanean zebiltzalako, eta aberatsek ez zuten eguzkirik hartzen zuri egoteko.



#### **1.448. Baserriaren jakituria (ONA-277/022)**

Baserriari eta baserritarrei buruzko ikuspegia aldatu egin da. Baserritarrak erakutsi du lurretik bizitzeak zer garrantzia duen. Baserritarrek jakituria handia izan dute beti, nahiz eta eskolara joateko aukera gutxi izan.

#### **1.449. Zergatik joan da galtzen noka eta toka ez? (ONA-277/024)**

Lotsaren eraginez joan da galtzen noka: emakumeok konplexu gehiago dituzte. Emakumeen demostratu beharra. Bigarren mailan egon da beti emakumea.

#### **1.450. Noka konfiantzazko eremuetan bakarrik (ONA-277/025)**

Sozializatzeko modua desberdina zen gizonena eta emakumeena, sasoi batean. Emakumeek talde txikietan hika egingo zutela uste du, konfiantzazko eremuetan, baina hortik kanpora ez. Kalera bizitzera joandakoan ere hitanoa baztertzen zuten. Hitanoa baserri munduan gorde da ondoen.

#### **1.451. Seme-alabei hika ez egitearen arrazoia (ONA-277/027)**

Seme-alabei hitanoa ez transmititzearren arrazoia. Estatus kontua ikusten du Aintzanek: gutxiago izatearen pertzeptzioa. Gaur egun ondo ikusita dago, baina sasoi batean ez. Erabaki inkonszientea izan zela dirudi.

#### **1.452. Hikak ematen duena (ONA-277/028)**

Hika egitea mutil gazteen artean errebeldiarekin lotzen dela uste du Aintzanek, eta maskulinitatearekin ere bai. Aintzanerentzat plazera da hika egitea. Alabek hika egitea oso polita izango litzakeela dio.

#### **1.453. Hikak ematen duena II (ONA-277/030)**

Hitanoa konfiantza giroan erabiltzen du, ez edozeinekin. Oso jende bereziarekin egiten du hika. Nahiko luke koadrilan hika egin ahal izatea.

#### **1.454. Noka nola berreskuratu (ONA-277/031)**

Noka berreskuratzeko erabili egin behar da, beldur barik.

#### **1.455. Etxeko transmisioaren garrantzia (ONA-277/033)**

Etxetik jasotzea hitanoaren transmisioa, hori izango litzateke onena. Seme-alaba gazteak dituztenak egin dezakete hori. Ezin da karga guztia ikastetxeen gain ipini.

#### **1.456. Mutilak hika eta neskak erdaraz? (ONA-277/034)**

Nerabezaroan mutilek etxetik kanpo ikasten dute hitanoa sarri: kalean. Neskek bitartean erdarara jotzen dutela uste du Aintzanek. Nola lortu neskak ere hitanora erakartzea?

#### **1.457. Noka ahalduntze tresna? (ONA-277/035)**

Noka ikastea eta erabiltzea ahalduntze-prozesu moduan.

### **1.458. Emakumeen arteko hika "itsusia" (ONA-279/002)**

Koinatuarekin hika egiteagatik errieta egin zion amak behin, edukazio falta zelakoan. Kontxiren etxean ahizpek beti egin dute hika. Nagusiei ez diete sekula hika egin. Mariluren amak haren anaiekin hika egiten zuen, baina alabekin zuka. Gizonei hika eta emakumeei zuka egiteko joera.

### **1.459. Norekin hika, eta norekin ez? (ONA-279/003)**

Kontxik alabari zuka egiten dio, baina haserre edo umore txarreko dagoenean, hika. Txakurrei hika egiten diete. Kontxik Olabarrietako lagunekin ikasi du hika.

### **1.460. "Neri hika ondo egin, edo bestela ez egin!" (ONA-279/004)**

Mutilen artean gehiago entzuten da hika, baina gazteek darabilten hika askotan ez da zuzena, neskengana zuzentzeko mutilen forma erabiltzen da askotan.

### **1.461. Hika lagunekin ikasi du (ONA-279/006)**

Kontxik hika ez du etxean ikasi, lagunekin baizik. Haren etxean Goierriko euskara egiten zen, ama hangoa baitzuen. Aita nafarra zen, eta iparraldeko euskalkia zuen, ulertzen zaila. Hori dela eta, Oñatin Oñatiko hizkera erabiltzen du, eta etxean amarena.

### **1.462. Hika kuadrilari esker ikasi (ONA-279/009)**

Etxean ez dute sekula hika egin. Kuadrilan hasiera batean 5 ziren, eta Olabarrietakoekin elkartutakoan, hika egiten hasi zen. Gero gizona ezagutu eta haren arrebarekin hika egin du beti. Amak ez zuen begi onez ikusten emakumeen arteko hika. Alabari zuka egiten dio orokorrean.

### **1.463. Hika umorerako eta emakumeen artean (ONA-279/010)**

Hika grazia egiteko edo barregarria den zerbait esateko erabiltzen du alabarekin eta ahizpekin. Norekin egiten duen hika. Oso pertsona jakinekin egiten du hika, orokorrean emakumeekin. Gizonekin kintotan bakarrik.

### **1.464. Hika etxean, kuadrilan eta fabrikan (ONA-279/013)**

Etxean anai-arreben artean beti hika egin izan dute. Ahizpen artean, batzuetan, erdaraz egiten dute. Kuadrilan batzuen artean beti hika egiten dute, baita fabrikan ere.

### **1.465. Amak semeei hika, alabei zuka (ONA-279/014)**

Mariluk etxean hika entzun du betidanik, baina batik bat amak semeekin egiten zuenean, izan ere, amak alabei zuka egiten zien. Hala ere, anai-arreben artean beti hika egin dute. Izebak hika egin die.

### **1.466. Gurasoek hika egiten zioten tarteka (ONA-279/017)**

Etzetik jaso du hika Pilik, anai-arreben artean, izeba-osaben artean beti egin baitute. Gurasoek euren artean zuka egiten zuten. Aitak eta amak noizbehinka hika egiten zieten seme-alabei.

### **1.467. Animaliekin hika (ONA-279/019)**

Gizakiekin ez dute beti hika egiten, baina animaliekin bai, gertutasuna adierazten baitu hikak beraientzat.

### **1.468. Umeei adin batetik aurrera, hika (ONA-279/020)**

Mariluk ilobei ez die hika egiten. Kontxik, ordea, bai. Piliri adin batetik aurrera bakarrik ateratzen zaio umeei hika egitea.

### **1.469. Hika gehien emakume araoztarrek eta baserritarrek (ONA-279/022)**

Gizonen arteko hika ohikoa da, baina nokaren kasua oso bestelakoa da. Hirukotearen iritziz, kalean emakumeek ez dute ia hika egiten, araoztar eta emakumeek batik bat.

### **1.470. Hika erabiltzean, harremana goxoagoa (ONA-279/024)**

Kontxiren iritziz, hika egiten duenean, harremana goxatu egiten da, beste gertutasun ea konfiantzaren adierazle da hika. Konfiantzarik gabe ez zaie hika egitea irteten.

### **1.471. Gaztetan, erdararako joera (ONA-279/026)**

Gaztetan erdararako joera handia zuten. Askotan euren artean euskaraz hasi, baina segituan erdarara jotzen zuten. Eskolan erdaraz egiteak eragin handia izan du euren euskararen erabileran.

### **1.472. Hika "gogorregia" (ONA-279/028)**

Kotxiren amak emakumeen arteko hika gogorregia dela edo zakarregia dela esaten zion beti.

### **1.473. Hika baserritarrek beti (ONA-279/029)**

Baserriko jendearekin egiten dute batik bat hika. Fabrikan erdaldunasko egon da beti, baina baserritarrek beti euskaraz eta hika egin dute.

### **1.474. Zein da hikaren egoera? (ONA-279/031)**

Adin batetik beherako emakumeen artean galduta dago hika. Mutikoez eta gizonez, ordea, hika egiteko ohitura handiagoa dute.

### **1.475. Zergatik galdu da hika nesken artean? (ONA-279/032)**

Ikasketa guztiak erdaraz egin izanak eragina izan dezake hikaren galeran, baita baserritarra edo kaletarra izateak ere. Hala ere, zuka finagotzat hartu izan da askotan, batez ere, emakumeen artean.

### **1.476. Gizonek sozializazio handiagoa (ONA-279/034)**

Gizonek oso bestelako sozializazioa izan dute, besteak beste, sozializatzeko gune gehiago zutelako. Gizonak libreago bizi izan dira etxeko lanak egiteko ardurarik gabe. Harreman informalagoa edo konfiantzazkoa dute gizonek euren artean.

#### **1.477. Animaliei, sexuaren araberako hika? (ONA-279/036)**

Gehienetan sexuari erreparatu gabe, beti mutilen forma erabiltzen dute Kontxik eta Pilik.

#### **1.478. Zuen buruarekin, hika? (ONA-279/038)**

Kontxik haren buruarekin normalean hika egiten du. Mariluk eta Pilik bai hika eta bai zuka.

#### **1.479. Hikak konfiantza adierazten du (ONA-279/040)**

Konfiantza gehiago adierazten du hikak hirukotearentzat. Hala ere, konfiantza duten denekin ez dute erabiltzen, ohitura kontua ere bada.

#### **1.480. Zer egin hika errekuiperatzeko? (ONA-279/043)**

Gazteagoei hika egin, eskolan irakatsi...

#### **1.481. Neskame eta umezain lanetan (ONA-280/002)**

Neskame lanei buruz hitz egiten dute. Kontxik hiru ume zaindu zituen. Mariluk okindegian egin zuen lana.

#### **1.482. Neskak zain, mutilak dantza noiz eskatuko (ONA-280/003)**

Mutilek eskatzen zuten dantza egiteko, eta xeibre denak gerturatzten zitzaizkien, ez beraiek nahi zutenak.

#### **1.483. Ezkondu aurretik sexua izatea (ONA-280/006)**

Ezkondu aurretik sexua izatea normala zen beraien garairako, baina aurrekoentzat ez. Umezaintzari buruzkoak.

#### **1.484. Mutilek askatasun gehiago? (ONA-280/007)**

Mutilek askatasun gehiago zuten, baina anaiek bidea ere zabaldu zieten. Elizaren indarra. Mezetara ez joateko trikimailuak asmatzen zituzten. Maistrak kontrolatzen zituen.

#### **1.485. Garai hartako bekatuak (ONA-280/008)**

Desberdina zen bizimodua kalekoentzat eta baserritarrentzat. Orduko bekatuak aipatzen dituzte. Doktrina Garoanean ikasi zuten. Bost urterekin egin zuen Jaunartzea Kontxik, doktrina ondo ikasi zuelako.

#### **1.486. Umetako jolasak (ONA-280/009)**

Nesken eta mutilen jolasak. Neskak sokarekin eta gomarekin eta briletean. Mutilak txapekin eta baloiarekin ibiltzen ziren. "Alebi-alebi"ka elkarrekin ibiltzen ziren.

#### **1.487. Lehenengo garbigailuak eta telebistak (ONA-280/011)**

Marilu ez zen labaderora joaten arropa garbitzera; alberga zuten etxean. Lehenengo garbigailuak nolakoak ziren. Telebista. Boxeoa eta Eurovisión ikusten zituzten, beste batzuen etxeetara joanda.

### **1.488. Mundua asko aldatu da (ONA-280/012)**

Pozik ibiltzen ziren jolasean umetan, ohe azpitik bueltaka. Umeek orain ei ez dute hala jolasten. Orduan ez zegoen ordenagailurik. Irratia bai. Santua izaten zen sukaldez sukalde, etxerik etxe.

### **1.489. Josten ikasten; garai bateko arropa eta zapatak (ONA-280/013)**

Mariluk ez zuen josten ikasi, baina Kontxik eta Pilik bai. Juana jostunarentzat leka-patatak egiten zituen Kontxiren amak. Minigonak. Txarolezko zapatak giltzapean ipintzen zizkion amak Kontxiri, igandetarako bakarrik zirelako.

### **1.490. Umetako ilusioa, gabonetan (ONA-280/014)**

Gabonetan mazapanezko sugearen kajatxoaren beraien ilkusioa. Gero kromoak gordetzen zituzten bertan. Borragoma berezi batzuk ere bazituzten.

### **1.491. Prakak eta soinekoak (ONA-280/015)**

Beraiek gaztetatik jantzi dituzte, baina ondo jantzita joateko soinekoa jantzen zien amak umetan. Soinekua korbatarekin zuen Kontxik eta eskolarako uniformea. Monjetan diferentzia gehiago zegoen ikasleen artean eskola publikoetan baino.

### **1.492. Gurasoek senide eta lagunekin hika (ONA-281/002)**

Gurasoek ez diote hika egiten, baina beren anai-arrebeekin eta lagunekin hika egiten dute. Ama araoztarra dauka eta hika egiten segitu dute, baina Uribarrin gizonezkoen artean bakarrik mantendu da.

### **1.493. Aitak Alaiaren mutil-lagunari hika, baina berari ez (ONA-281/004)**

Araozko Beitikoa baserrikoa du ama, eta hark hika egiten du lagunekin. Aitak ere hika egiten die mutil askori, baina neskei ez; arrebei soilik eta lagunei. Berari ez diote egiten. Ez du galdetu zergatik. Bere mutil-lagunari hika egiten dio.

### **1.494. Lehengusuen artean, ikasteko nahia (ONA-281/005)**

Araozko lehengusu batek, Marixolek, egiten zion hika, baina beti zuzentzen aritzen zitzaion, eta ez zitzaion gustatzen: ez egiteko esan zion. Orain badu berreskuratzeko gogo. Lehengusuekin egin izan du hika, parranda giroan, baina ez du iraun gero. Umeei ez zieten hika egiten, koskortu arte; orain, berriz, betirako ume. Transmisioaren etena: askok ez dute etxean jaso. Mutilek, berriz, beti egin izan dute.

### **1.495. Belarria eginda dauka (ONA-281/006)**

Belarria eginda dauka, etxean entzun duelako. Zuzenean Marixolek bakarrik egin izan dio. Etxera mutilen batekin badoa, hari hika egiten diote, baina neskei ez.

### **1.496. Nokaren galeraren arrazoiak, genero ikuspegiarekin lotuta (ONA-281/008)**

Ez daki zergatik galdu den noka eta toka ez. Uste du nahi gabe gertatu dela, baina genero ikuspegiak zerikusia izan dezake. Ez dauka anai-arrebarik, baina

mutila balitz ia seguru dago egingo liokeela. Gertatu daiteke baserritar kutsua kentzeko hitanoa alde batera uztea. Eta apurka-apurka noka galtzen joan da. 55 urtetik beherako ia inork ez daki.

#### **1.497. Euskalkidunen konplexuak, batuaren aurrean (ONA-281/009)**

Gurasoek ez dakite euskal gramatikarik, erdaraz ikasi zutelako eta euskara ahoz aho transmititzen zen. Batua etorri zenean, baliteke euskalkiak garrantzia galtzea, eta hitanoak are gehiago. Ez zegoen konturatuta nesken artean galtzen zebilenik. Mutilen artean egiten da, baina gaizki.

#### **1.498. Hika ondo dakitenen perfila (ONA-281/010)**

Mutil gazteen artean hika gaizki egiten dela dio, "leikedok" moduko aditzak erabiltzen dituztelako. Hika ondo dakitenak baserritarrak izan ohi dira. Extremadurako gurasoak dituen mutil batek dena hika egiten ei du. Mutilek lanean ere ikasten dute hika.

#### **1.499. Sozializatzeko modu diferenteak mutilek eta neskek (ONA-281/012)**

Nesken eta mutilen sozializatzeko moduak desberdinak ziren. Aisialdia oso mugatua zuten emakumeek, eta baliteke horrek hitanoaren transmisio-faltan eragin izana. Tabernan egiten du lana, eta gazteen artean ez du noka entzuten; arantzazuko bi amandretxori bakarrik.

#### **1.500. Hitanoa ez dago gaizki ikusita gaur egun (ONA-281/014)**

Ondertieraz ondo egitea eta euskaraz ondo egitea ez dira gauza bera. Ondertiera ere aldatzen doa, gaztelaniaren eta batuaren eraginez. Ingo Xonau! taldearen sorrerak bere inguruan ilusioa piztu duela dio. Gaur egun ez dago hitanoari buruzko iritzi txarrik.

#### **1.501. Hitanoa jakitea, hizkuntza menperatzea (ONA-281/015)**

Antzuolako ikerketa aipatzen du elkarrizketatzaileak: mutil gazteek diote hitanoak "euskal label" edo plus bat ematen duela. Hizkuntza menperatzearekin ere lotzen du hitanoa Alaiak. Nortasuna ematen du, eta baserritar izaerarekin ere lotzen da: gaur egun harrotasunerako motibo izan daiteke, ez lehen bezala.

#### **1.502. Mutilek neskei gaizki hika sarritan (ONA-281/016)**

Mutilek askotan gaizki egiten dietek neskei hika, mutilei moduan. Baditu, hala ere, ondo egiten duten lagunak ere. 18 urte zituenean egiten zuen hika haiekin, baina gaur egun ez du harreman handirik. Alaiak errezago egiten die hika mutilei, gehiago entzun duelako. Noka egiteko pentsatu egin behar du, eta toka irten egiten zaio. Azkoitin ezagutzen ditu elkarrekin hika egiten duten bikoteak ere.

#### **1.503. Nahiko luke lagunekin hika egin (ONA-281/017)**

Gustatuko litzaioke lagunekin hika egitea, naturaltasunez. Noizen behin taberna giroan elkartzea ideia ona iruditzen zaio noka suspertzeko. Soka sortu dezake horrek. Adin askotakoak elkartzea komeni dela dio eta gizonezkoak be parte hartu beharko luketeela, hitanoa denon kontua delako.

### **1.504. Hitanoa galduko balitz, zer? (ONA-281/018)**

Hitanoa galtzea pena litzatekeela dio. Haurtzaroko oroitzapenekin lotzen du, lehenagoko amandreekin. Desberdina da zuka ala hika hitz egin: formak edukian ere eragina dauka.

### **1.505. Eskolan oñatierako aditz-taulak ikasten (ONA-281/020)**

Eskolan ikasi zituen oñatierako aditz-taulak, erdarakadak kentzeko asmoarekin... hitanoa ere eman zuten, baina irakaslea ez zen bertakoa eta berak etxean entzuten zuena desberdina zen. Alaiak kalean ez zituen etxean erabiltzen zituen hitz berak erabiltzen, modu inkontzientean.

### **1.506. Hitanoaren transmisioa Uribarri auzoan (ONA-281/021)**

Uribarri auzoan hitanoaren transmisioa adinekoen artean mantendu egin dela uste du, baita emakumeen artean ere. Industrializazioak eta inmigrazioak eragina dutela uste du: Zubillagan zailagoa dela mantentzea Uribarrin edo Araotzen baino. Kalean ez dira erabiltzen baserri munduan erabiltzen diren hitz batzuk.

### **1.507. Ama-alaben transmisioan etena (ONA-281/023)**

Senideekin eta lagunekin bai, baina ama-alaben artean ez da transmisioa mantendu. Alaiak uste du ez zirela kontziente galdu egin zitekeela. Askok ez dakite zergatik ez dieten alabei egin. Euskara galtzeko arriskua ere ez dute bizi izan adineko batzuek, arnasmuneetan. Berari ere gertatu zaio erdaraz gaizki moldatzea, eta erdaraz ikasteko lehengusu batek erdaraz egitea. Baina gaztelania ez ikastea ezinezkoa da gaur egungo gizartean.

### **1.508. Ingo Xonau! proiektuari buruz (ONA-281/025)**

Ingo Xonau! proiektua posible egin duena: Oñati arnasmune bat da eta hitanoa bizirik dago. Bestela, lehentasunak beste batzuk izango lirake. Ingo Xonau-ren inguruan elkartutako emakumeak hika egiten hasiz gero, noka zabaltzen joan daitekeela uste du.

### **1.509. "Ingo xonau!" (ONA-281/027)**

Hemendik aurrera saiatuko da inguruko umeei hika egiten, gurasoek berarekin egin ez dutena. "Ingo xonau!" esaten du.

### **1.510. Hika hitz egiten zutela ohartu ere ez (ONA-282/003)**

Anai-arrebek hika hitz egin izan dute elkarrekin. Ez du gogoan gurasoek berari nola egiten zioten, baina hika egingo zutela pentsatzen du, behintzat beraiek hala ikasi zuten eta! Orain konturatu omen dira hika hitz egiten dutela.

### **1.511. Alkateari hika, konturatu gabe (ONA-282/005)**

Eli Galdos alkate zen sasoian, harekin hitz egitera joan ziren udaletxera eta Mari Terek dena hika egin omen zion. Hori lotsagarria zela eta errieta egin zioten! Berak ohartu gabe egin zuela hika dio.

### **1.512. Lagunekin eta lehengusuekin hika (ONA-282/012)**

Lagunekin egiten zuen gehien hika, adibidez, Mari Tererekin, kuadrillakoa eta, gainera, auzokoa zen eta. Aitaren aldeko lehengusuak egon ziren euren etxean eta haiekin (edo behintzat lehengusu batekin) ere hitz egiten zuen hika, etxekeekin baino konfiantza handiagoa izango zuelako edo.

### **1.513. Hika ez zitzaien gustatzen, baina hika egiten zuten (ONA-282/014)**

Kanpantxo auzoko lagunak hika hitz egiten zuten elkarrekin. Oraindik ere Gasteizen urte askoan bizi den lagunarekin hala egiten dute. Hala ere, ez zitzaien gustatzen hika, baserritarrena zela pentsatzen zutelako. Gizonezkoena ez, baina emakumezkoen hika gaizki ikusita zegoen. Pertsona jakin batzuekin oharkabean ateratzen zaie; konfiantza handiagoko pertsonekin izango dela uste du Kontxitak.

### **1.514. Norekin hika; askotan oharkabean (ONA-282/020)**

Kontxitak anaiari ez zion hika hitz egiten, errespetuagatik edo, zaharragoa zelako. Baina bere adin ingurukoa zen lehengusu batekin hika egiten zuen. Auzoko lagun batzuekin ere hika egiten zuen. Mari Terek esaten dio berak uste baino pertsona gehiagorekin egingo zuela hika, baina askotan konturatu ere ez direla egiten.

### **1.515. Gerra aurretik doktrina euskaraz; gero gaztelaniaz (ONA-282/024)**

14 urtera arte ibili ziren eskolan. Gerraostean "Cara al sol" abestu behar. Eskolan dena gaztelaniaz ikasi zuten. Gerra aurretik, jaunartzea egiteko, doktrina euskaraz ikasi zuten, baina gerraostean hura ere gaztelaniaz. Urtebete egin zuten mojekin eta gero eskola nazionaletara. Irakasle izan zituzten moja batzuk aipatzen dituzte.

### **1.516. Euskal dantzekin Madrilen saria irabazi (ONA-282/028)**

Pospolinetan ibili ziren, euskal dantzak ikasten, "Círculo carlista"n. Madrilen sari bat irabazi zuten, baina kopa Donostiara eraman zuten, haien izenean joan ziren eta.

### **1.517. Emakumeek hika egitea gaizki ikusita (ONA-282/030)**

Emakumeen arteko hika gaizki ikusita zegoen, baldarra zela iruditzen zitzaien. Hortik etorriko zen hikaren galera. Etxekoak edo gertukoak ez zirenekin hika eginez gero, "geizki emuten xon" esaten zieten. Gizonezkoena, berriz, normaltzat hartzen zen.

### **1.518. Konfiantza izanez gero, hika; berez ikasi zuten (ONA-282/033)**

Kontxitak dio polita dela konfiantza duzunarekin hika egitea. Ezezagunekin ez litzaieke hika aterako. Zaharragoei hika egitea errespetu falta zen. Mari Terek dio inork ez diela hika erakutsi, berez ikasi zuten. Izan ere, euren sasoiaren eskolan dena gaztelaniaz egiten zen.



### **1.519. Sei hilabetez gau-eskolan, fabrikan lan egiteko (ONA-282/034)**

Kontxidak kontatzen du, 18-19 urterekin fabrikan lanean hasi zirenean, sei hilabetez gau-eskolan ibili behar izan zirela. Mojekin dena gaztelaniaz egiten zuten, nahiz eta bakarren batek euskaraz jakin. Sukaldean, josten, idazten, marrazten... denetarik egiten zuten. Iluntzean eskolatik irtendakoan "Naparranetik" bueltan Kanpantxora.

### **1.520. Euren buruari hika (ONA-282/038)**

Mari Terek dio bere buruari hika egiten diola. Gainera, zahartzarora eta bakarrik bizitzean, bakarrizketa gehiago egiten dutela diote.

### **1.521. Garai bateko komuna; arropa garbitzeko, uraska edo erreka (ONA-282/044)**

Garai batean ez zegoen dutxarrik; komuna, berriz, txiki bat, itegira zuloa zeukana. Garbigailua ezkondu eta gerora ipini zuten. Beraiek etxean uraska zeukaten. Beste batzuk errekarara joaten ziren arropak garbitzera. Kontxidak dio beraiek ura bazutela etxean, baina auzoko batzuk iturritik ekarri behar izaten zuten. Garbitokia ere handia zuten eta, garia jotzen zutenean, hantxe sartzen ziren.

### **1.522. Gari-jotzea, batzuek eskuz eta beste batzuek makinarekin (ONA-282/046)**

Gari-jotze kontuak. Mari Terek dio beraiek eskuz jotzen zutela. Eduki ere gutxi. Kontxitaren etxeok, berriz, "soziedade" eginda zuten beste hiru etxerekin. Ganadua ere Mari Tereren etxean bakarra eta Kontxitarenean bi.

### **1.523. Euren sasoiari umeak gutxirekin pozik (ONA-282/048)**

Garai batean gehiegiko errespetua zitzaion gurasoei eta orain beste muturreraino joan da. Gaur egun umeei larregi ematen zaiela uste dute. Euren sasoiari Errege egunean mandarina bat eta bi mahaspasa oparizat. Eta trapuarekin egindako marigoringoa. Hala ere, pozik. Gauzak asko aldatu dira alor guztietan. Garai bateko eskolako zigorrak; jo ere egiten zituzten.

### **1.524. Antzinako bizimoduaren inguruko gogoetak (ONA-282/049)**

Garai batean umeak sehaskan utzi eta gurasoak ortura lanera. Amandrea etxean bazegoen, hark eragingo zion. Garai batean 70 urtekoa zaharra zen eta orain beraiek 91 dituzte!

### **1.525. Garai bateko eguneroko jakiak; tortilla ogi mamiarekin (ONA-282/051)**

Egunero baba lapikoa bazkaltzeko, bakoitzarentzat txorizo zatitxo banarekin eta urdaiarekin. Gauean porru-patatak. Domeketan garbantzu. Taloa eta esnea. Tremesa. Tortilla egiten zenean, ogi mamia botatzen zitzaion, handiagoa irteteko. Aitak banastak eginda diru apur bat ateratzen zuen, baina dirurik ez zen egoten kalean ezer erosteko. Ogia etxean egiten zuten. Gerra sasoiari ez zuten goserik pasa.

### **1.526. Josten norekin ikasi zuten (ONA-282/053)**

Josten ondo ikasi zuten. Kontxitak Nati Errekalderekin ikasi zuten eta Mari Terek Maria jostunarekin. Arropak josten zizkieten, gainera. Gerora, Angelitaren gana joaten ziren; barruko arropak eta dena josten zituen. Garai bateko kamisoi zuriak.

### **1.527. Emakumea prakekin? Gonak ere luzeak (ONA-282/057)**

Mari Terek gogoan du, neskatilak zirela, elkarren artean komentatzen jarduten zutela beste neskaren bat ira ebakitzera prakekin joaten bazen. Ustez bekatua zela! Baina hori baino gauza logikoagorik! Emakumeek halako asko pasa behar izan zituzten. Paxarekin ibiltzen ziren, ezer ez markatzeko. Gonak ere luzeak, belaunak ondo estalita. Durangoko bonbardaketan hil zen ezagun bat aipatzen dute.

### **1.528. Aita Brinkolaraino oinez, egur bila (ONA-282/059)**

Mari Tereren aita zerrategian ibili zen lanean. Aurretik, tarte zegoenean, banastak egiten. Brinkolaraino ere joaten zen batzuetan oinez, egur bila, baita elurra egiten zuenean ere. Bizimodu gogorra zen garai batekoa, baina ikusiezin gutxiago eta konformidade handiagoa zegoen. Kontxitaren aitak banastak egiten zituen, baina soroak ere bazituzten eta han ere lan egin behar. Errepideak soroak harrapatu zituenean, bakea.

### **1.529. Auzokoekin elkartasun eta konfiantza handiagoa (ONA-282/063)**

Garai bateko bizimodua tristea zen, nahiz eta denak konforme bizi. Etxean gatza falta baldin bazen, aldekoarengana. Atea zabalik egoten zen etxeetan. Auzkoen artean elkartasun eta konfiantza handiagoa zegoen.

### **1.530. Lantegira sartu aurretik, baserriko lanak (ONA-282/065)**

Goizean zortzietarako lantegira joaten ziren, baina hara joan aurretik seietan jaiki eta baserriko lanak egin behar. Aitak beti esaten zion Mari Tereri aldamenekoak jada lanean zeudela eta jaikitze ohetik. Kontxita zazpi eta erdietan sartzen zen Garai lantegian.

### **1.531. Lezesarrikoek auzokoei egindako txantxa (ONA-282/067)**

Mari Terek Kontzejupetik aldizkarian Lezesarri baserrikoen inguruan irakurritako pasadizo bat kontatzen du. Beraiei gertatzen zitzaaien antzera, haiei ere errieta egiten zieten etxean, auzokoak askoz goizago joaten zirelako goizean sorora lanera. Egoera aldatu nahirik auzokoei egin zieten txantxa.

### **1.532. Aloñamendi animatzera Arrasatera joan zirenekoa (ONA-282/072)**

Kontxitak gogoan du behin bizikletekin Arrasatera joan zirela futbola ikustera. Beraiek Aloñamendin alde zeuden eta Zubillagako mutilak Bergararen alde. Etxerakoan, mutilok bidea itxi zieten. Zubillagakoek Bergara alderako joera. Bergarakoak "señoritoagoak" zirela diote. Hizkera ere desberdina.

### **1.533. Mutilei kalabazak dantzan (ONA-282/074)**

Domeketan dantzara joaten ziren. Mutilak dantza eskean etortzen ziren. Batzuetan etortzen ziren guztiei kalabaza eman, beste bat etortzea nahi zutelako, eta justu huraxe etorri ez! Garai batean lan-lekuan ere topatzen zen mutil-laguna.

### **1.534. Sexuaz hitz egitea ere bekatu (ONA-282/076)**

Garai batean sexuaz hitz egitea ere bekatua zen, nahiz eta ezkontzera joan. Mandamentuetan horixe izaten zen bekatu larriena, besteei ez zitzaieela ematen garrantzirik diote.

### **1.535. Misiolariak etorri ostean, haurdun ugari (ONA-282/079)**

Garai batean familia handiak zeuden, ume askokoak. Kontxitak dio beraiek bost zirela, baina abortu bat ere izan zuen amak. Misiolariak etorri ostean neska asko haurdun geratu zirela dio Kontxitak. Beraiek ez zekizkiten gauzak ere hantxe jakin omen zituzten.

### **1.536. Aitak seme-alabei hika egin die (ONA-283/002)**

Etxean jaso du hitanoa: hika egin die aitak, Antzuolako hika, hiru seme-alabei. Amak ez. Eta auzoan ere entzun du, gizakumeen artean. Emakumeen artean ez, ezta adinekoen artean ere.

### **1.537. Anai-arreben artean zuka; anaiak lagunekin hika (ONA-283/004)**

Jakin du auzoko emakume batzuek normaltasunez zerabiltela hitanoa, baina berak ez du emakumeen artean entzun. Berak ez du senideekin hika egin izan, aitak beraiei hika egin arren eta aitak bere anai-arrebekin hika egin arren. Amaren familian ez dago ohiturarik. Auzoan ere umetan zuka aritzen ziren beti neska-mutikoak. Anaia gerora hasi zen hika egiten, ehiza-lagunekin. Mutilen arteko kontua da hika gaur egun, eta mutilek ez dakite neskei hika hegiten.

### **1.538. Hitanoari buruz entzundakoak (ONA-283/006)**

Hitanoaren aurkakorik ez du entzun orain arte, ez diote ahlakorik transmititu, baina galdezka hasita, orain bai, entzun ditu gauza batzuk. Mutilen kontua dela, adibidez.

### **1.539. Euskararen zapalkuntzak eraginik bai nokaren galeran? (ONA-283/007)**

Baserritarrek erdaraz egiteko jokera izan zuten, frankismo garaian euskara desprestigiatuta zegoelako, baina berak ez du zuzenean hori bizi izan. Hitanoaren galeran eragina izango zuela dio, baina ez daki zergatik gertatu den gehienbat emakumeen kasuan, euskara guztientzat egon zelako zapalduta.

### **1.540. Neska eta mutil ez ziren berdin sozializatzen (ONA-283/008)**

Mutilen eta nesken aisialdia eta sozializatzeko moduak ez dira berdinak izan, eta horrek hitanoaren erabileran ere eragin du. Emakumeen kasuan, eremu intimoko hizkera bilakatu zen.

### **1.541. Egungo mutil gazteen erabilera, "berpizte" bat? (ONA-283/010)**

Nokaren galera handiagoa izan da tokarena baino, herri guztietan. Ikerketa egiten ibili denean, hainbat baserritan entzun ditu hitanoaren kontrako iritziak. Gazteen artean mutilek darabilte, baina bere ustez ez dute jaso aurreko belaunaldiek bezala, etxean naturaltasunez. "Berpizte" moduko bat ikusten du, erabilera aldaketa bat...

### **1.542. Gizakumeen arteko hikak "bizirauteko eremu" bat izan du (ONA-283/011)**

Elkarrizketatzaileak dio mutilen kasuan ez dela etenik egon hitanoaren transmisioan. Gizakumeen arteko hikak "bizirauteko eremu" bat izan du, eta emakumeenak ez. Hitanoa zatartzat jo zuten.

### **1.543. Euskara zaharrean hitanorik ez? (ONA-283/012)**

Hika, berorika eta zuka espainolaren eraginez sortutako tratamenduak direla dio, ez direla betikoak: 'Hi' zen singularra eta 'zu' plurala, eta 'zuek' gero sortu zen. Leizarragak hika hitz egiten zion Jaungoikoari.

### **1.544. Eskoletan batua gailentzeak herri hizkeren transmisioan eragin? (ONA-283/013)**

Euskara batua eta hitanoa. Eskolan ez diote hitanoa erakutsi, baina batuko hitanoko formak ulertzea ez zaio zaila iruditzen, hala ere. Batuaren aurrean euskalkiek izan dezaketen desprestigioak hitanoari ez zion mesederik egingo, seguruenez. Hitanoak ez dauka lekurik maila akademikoan, ahozkorako delako, eremu informalekoa.

### **1.545. Emakumeen formak berreskuratzea beharra (ONA-283/014)**

Hitanoaren osasuna O&ntilde;atin: anaia-eta ikusita, osasuntsu dagoela dirudi, indartsu, baina mutilen artekoa soilik da. Emakumeen formak oso gutxi entzuten ditu, baita adinekoen artean ere. Emakumeen formak berreskuratzea faltako litzateke.

### **1.546. Emakumeek hika egiteko erreparoa (ONA-283/016)**

Zaharragoi hika egitea zaila gertatzen zaio. Hik maila berekoen artekoa izateko muga dauka. Hala ere, oraingo mutil gazteek errazago egiten diete hika zaharragoi, emakumeek baino. Esango dutenaren beldur dira, "ausarkeria" ote den konfidantza handia ez dutenekin hala hitz egitea.

### **1.547. Hika egiteak konplizitatea ematen du (ONA-283/018)**

Bere kasa hasi zen hika egiten, galdu ez dadin. Erabiltzen duenean hurrekotasun bat sentitzen du pertsona horrekint. Asko ezagutzen ez dituenekin ere hasi da batzuetan, eta hika egite horrek konplizitate bat sortzen du.

### **1.548. Hitanoa galduko balitz, zer? (ONA-283/019)**

Hitanoa galtzea lastima izango litzatekeela dio. Aberastu egiten du euskara.

### **1.549. Zergatik hasi zen hika egiten (ONA-283/021)**

Etxean jaso bai, baina ez zuen erabiltzen, eta bazuen kezka hori. Horregatik hasi zen. Hasieran nahastu egiten zituen hika eta zuka. Hasieran arraroa egiten zitzaion, baina gero berez irteten dela dio. Ez du gogoan zeinekin hasi zen lehenengo, ez zen erabaki hain konzientea izan... O&ntilde;atin batekin bakarrik egiten du. Lagun eta lankideekin egiten du, eta denak ere euskararen pobretzearekin arduratuta daudenak dira.

### **1.550. Hitanoa, ahalduntzerako tresna? (ONA-283/023)**

Bere kasuan kontzientzia linguistikoarekin lotuta dago hitanoa erabiltzea. Ez du ahalduntze-prozesu moduan ikusten. Ez da kontziente izan nokaren galeraren arrazoiez, eta ez da emakume bila ibili hika egiteko: toka zein noka, biak berdin darabiltza. Baina uste du balio dezakeela berdinago sentitzeko.

### **1.551. Hasieran hika trakets samar: hi eta zu nahastuta (ONA-283/024)**

Hika egiten hasteko prozesua. Lotsarik ez, konfiantza zegoelako, baina aditzak falta zitzaizkion. Etxean entzundakotik atera zituen aditzak, batzuetan asmatu ere bai. Erabiltzeak konfiantza dakar. Hasieran ohikoa da lehenengo ohiturara joatea, zukara jotzea. Hizkuntza emozioekin lotuta dago, eta salto bat egitea suposatzen du. Zailena: gutxi egoten den jendearekin egiten jarraitzea eta taldeetan, hi eta zu nahasten direnean. Hi-k ez dauka pluralik.

### **1.552. Hikabizi eta Belarriprest (ONA-283/025)**

Azpeitiko neska batekin gertatzen zaiona: berak hika egiten dio eta hark zuka erantzun.

### **1.553. "Gainetik jartzearen" sentsazio deserosoa (ONA-283/026)**

Antzuolako neska batzuek esandakoaz dihardute: hika ez dakienari hika eginez gero "gainetik jartzearen" sentsazioa izatea. Maiderrri ere gertatu zaio anaiaren lagunaren koadrilakoekin. Hizkuntzak botere-tresnak dira.

### **1.554. Anaiarekin saiatu da hika egiten (ONA-283/028)**

Anaiarekin gertatzen zaiona: noizean behin ahalegina egiten du hari hika egiteko, baina hark zuka erantzuten dio eta desoreka sentitzen du. Berririo saiatuko da, hala ere.

### **1.555. Entzundakotik ikasi du hika egiten (ONA-283/030)**

Entzundakotik ikasi du. Antzuolako hitanoa eta O&ntilde;atikoak ez dira oso desberdinak, eta mutilena ere entzun du auzoan. Analogiaz ateratzen ditu aditzak. Badiharduguren aditz-taulak erabili izan ditu tarteka, idatzi behar izan duenean.

### **1.556. Taldean hika eta zuka nahasten direnean, arrarotasuna (ONA-283/032)**

Pertsona batekin bakarrik egonda arazorik ez dago hika egiteko, baina taldean hika dakitenak eta ez dakitenak baldin badaude, nahasketa sortzen da: bati hi, besteari zu... Berak ez du baimenik gabe, tratua egin gabe hika egiteko joerarik. Mutilak errazago hasten dira hika, mutil artean; lankide etorriberriari, adibidez.

### **1.557. Zer egin behar da Oñatiko noka berreskuratzeko? (ONA-283/033)**

Hizkuntzarekin kezka dutenak dira batez ere hika egiten hasi direnak, bere inguruan. Ez du uste "ikasteko zerbait" dela esatea denik bidea...  
Oñatiko noka berreskuratzeko, mutilen transmisio-modua kopiatzea proposatzen du. Emakumeen sozialazio-modua aldatu egin denez, eta hika erabiltzeko nukleo txikiak sortu daitezke. Ahalduzko tresna moduan ere balio dezake, arrazoi linguistikoez aparte.

### **1.558. Euskara menderatu behar da hika egiteko (ONA-283/034)**

Hitanoa erabiltzeko euskara menderatu behar da. Hika egiten duen lagun bat kalatana da: Jordi Serra. Dylan Inglis ere aipatzen du (biak daude elkarrizketatuta Ahotsak.eus proiektuan). Telebistan eta sare sozialetan hitanoa entzuteak ere lagunduko luke, baina euskaraz hizkera informalak ez dauka leku handirik.

### **1.559. Bai, ingo xonau! (ONA-283/036)**

'Ingo xonau!' esaten.

### **1.560. Errepublika garaian antzerkiak Bergarako Batzokian (ONA-290/004)**

Errepublika garaian Batzokietan eta Karlisten Zirkuluetan antzerkiak egiten ziren, batzuk euskaraz eta beste batzuk gaztelaniaz. Bergarako Batzokian ere bazegoen antzeztokia eta egiten ziren euskarazko antzerkiak. Gerraostean sortu zen Ernai taldeko batzuk gaztetan hor ibiliak ziren: Txomin Amasorrain, Juste Amenabar. Gogoan du 1950eko hamarkadan eskolatik joan zirenean ikusi zuela agertoki hura. Gerora jakin zuten Batzokia izana zela eta konfiskatuta egon zela. Nazionalisten edo errepublikanoen etxe eta lokalak konfiskatu egiten ziren.

### **1.561. XVIII. mendeko antzezlanak (ONA-290/005)**

1764an Xabier Muniberen "El borracho burlado" antzeztu zen Bergaran. Erdi euskaraz, erdi gaztelaniaz da obra. Orduko jauntxoek jarrera euskararekiko. Urte batzuk lehenago Barrutiaren "Acto para la Nochebuena" Arrasaten. Gero etena, XIX. mende bukaerara arte.

### **1.562. XX. mende hasiera: Toribio Altzaga eta Iztunde eskola (ONA-290/007)**

1905ean Lore Jokoak antolatu ziren Bergaran. Lore joko gehienetan egoten ziren antzerkiak. Toribio Altzagaren taldea XIX. mende bukaeran. Donostian 1915 inguruan Abelino Barriolak sortutako Iztunde eskolaren kargua hartu zuen Altzagak. Gerraostean Maria Dolores Agirrek jarraitu zuen talde horrekin, Jarrai taldea sortu arte.

### **1.563. Ernai antzerki taldea; Txomin Amasorrainen arrastoa (ONA-290/008)**

1965ean Ernai antzerki taldea sortu zen Bergaran. Juste Amenabar eta Txomin Amasorrain gerra aurrean ere ibiliak ziren. Langile porrokatuak eta euskaltzaleak. Txomin Amasorrainek arrasto handia utzi zuen Bergaran, arlo askotan: Urretxindorrek eta Ameslariak taldeak; mendizaletasuna; `Zeruko

Argia´ko kronikak. Jose Alvarez, Txominen oso laguna; muntaia guztietan parte hartzen zuen. Ernai taldeko besteak gazteagoak: Juan Luis Bikuña, Gabilondo, Arantxa Ibartzabal... Urte gutxiren buruan lau obra egin zituzten.

#### **1.564. Ernai taldeak antzeztu zituen lau obrak (ONA-290/010)**

Ernai antzerki taldeak antzeztu zituen lau obrak. Jacques Deval-en `Ordu eroslea´; gaia eta pertsonaiak. Txomin Amasorrainek euskaratu zuen. Victor Ruiz Añibarro pasaitarraren `Ito ala ezkondu´; Nemesio Etxanizek euskaratu zuen. Etxanizen lotura Bergararekin. Benedetti italiarraren `Argi izpi bat´, nahiko libreki moldatua. Antonio Maria Labaienen `Malentxo alargun´ izan zen lehenengotakoa. Labaien erreferentea izan zen antzerki munduan.

#### **1.565. Iñaki Ibarzabalek `Ama gaixo dago´ antzezlan egin zuen "Juventudes"eko gazteekin (ONA-290/011)**

Ernai antzerki taldekoak Lizargaraten egoten ziren. Bideo grabaketak ere egin zituzten bertan eta obra bat ere prestatu zuten. Iñaki Ibarzabalek Martin Ugaldek idatzitako `Ama gaixo dago´ obra egin zuen "Juventudes"eko gaztetxoekin 60ko hamarkada bukaeran.

#### **1.566. 60ko hamarkadako antzerki-mugimendua (ONA-290/012)**

60ko hamarkadan antzerki-mugimendu handia zegoen: Oñatin, Urnietan, Alegian, Aulestian, Deban (Lukas Dorronsorok bultzatuta) Azpeitian (Imanol Elias)... Iparraldekoekin ere bazuten harremana. Donostian talde indartsuenak lehenbizi Iztunde eta gero Jarrai. Talde horretako partaideak: Lete, Urretabizkaia, Gurmendi... Letamendiak euskaratutako Arthur Miller-en `Denak nere semeak´ obra egin zuen Jarrai taldeak eta gero Oñatiko taldeak eta beste hainbatek ere bai. Bergaran ere antzeztu zuten Novedades antzokian.

#### **1.567. Kriselu eta Jarrai antzerki taldeen harremana Salvatekin; talde "independentek" (ONA-290/013)**

Bilbora ikastera joan zenean, Kriselu antzerki-taldean sartu zen. Ordurako obra bat egin zuen talde horrek: Arestik euskaratutako Ugo Betti-ren "Ahuntz herri bidegabea". Bigarren obra orduan modan zegoen Brecht-ena izan zen. Antzerki-talde "independentek". Kataluniako Adrià Gual taldea zuzentzen zuen Ricard Salvatekin harremana zuten bai Beobidek eta bai Arestik eta haren bitartez egin ziren zenbait obra Jarrai taldean.

#### **1.568. Bilboko Kriselu antzerki-taldearekin Bergaran (ONA-290/014)**

Kriselu antzerki taldearen izenaren jatorria. Euskaltzaindiaren egoitzan egiten zituzten entseguak Bilbon, astean bi-hiru aldiz. Eztabaida politikoak izan zituzten obra prestatzerakoan, baina aurrera atera zen. Bilboko Ayalan antzetu zuten lehenbizi, gero Durangon eta hirugarrenez Bergarako Novedades-en.

#### **1.569. 1967an antzerki-taldeen biltzarra Zaldibarren; 1968an egoera-aldaketa (ONA-290/015)**

1967an antzerki-taldeen arteko biltzar handi bat egin zen Zaldibarren. Balentin Lasuen zen orduan Zaldibarko alkate. Salvatek etorri zen Bartzelonatik, Aresti ere egon zen, Kriselu taldeko kide asko ere egon ziren, nahiz eta ordurako sakabanatuta egon, Jarrai taldekoak, Zubikarai, Murua... Ernai

taldeko kide batzuk ere egon ziren, Markos Gabilondo esaterako. Euskal antzerkiaren norabidea eta arazoak aztertu ziren, besteak beste. 1968an egoera politikoak eraginda, askok kanpora alde egin behar izan zuten, beste asko preso... Eragin handia izan zuen horrek ez bakarrik antzerkian, baizik euskal produkzio guztian. Zatiketak eta ezinikusiak sortu arren, antzerki-talde batzuek aurrera jarraitu zuten. Oiarzungo Lartaun eta Intxixu.

### **1.570. San Prudentzio auzoko gazteek `Erramuntxo´ antzeztu zuten 1965ean (ONA-290/016)**

Toribio Alzagak 1920an euskaratutako Pierre Lotiren `Erramuntxo´ obra antzeztu zuten San Prudentzio auzoan bertako gazteek. Auspoko bilduman argitaratu berria zen. Jose Luis Guridi zegoen orduan abade San Prudentzian, Angiozarrera bidali zuten Letamendiarekin batera ikasia. Bere ustez horrek izango zuen eragina antzerki-obra egiteko. Argazkian 1965eko urtarrila zela jartzen du, beraz, Ernai antzerki taldeak egindako lehen antzezlanaren aurretik.

### **1.571. Oñatz antzerki-taldearen obra bertan behera zentsuragatik (ONA-290/019)**

Bera Alemaniatik itzuli zenean Oñatz antzerki-taldeak laugarren obra bat prestatu nahi zuen. `Hiru gizon bakarka´ liburuaren zati bat hartu zuten eta entseguak ere egin zituzten. Obraren itzulpena eskatu zieten eta Gandiagak egin zuen, baina hala ere ez zuen zentsura gainditu eta bertan behera geratu zen.

### **1.572. Frankismoaren azken urteetako giro nahasia (ONA-290/020)**

Frankismoaren azken urteetako giroa oso nahasia izan zen arlo askotan. Ernai taldea ere garai horretan desegin zen. Oraindik zentsura zegoen. Ezin zen edozer esan eta gauza asko antzerkiaren bitartez esan nahi izaten ziren. Ikastoletan ere liskarrak sortu ziren. Gerora, Trantsizio garaian, Maskaradarekin egin zela jauzi handia euskarazko antzerkian uste du.

### **1.573. 1974ko Bergarako kultura hamabostaldia (ONA-290/023)**

Begarako ikastolan hasi zen lanean 1974-1975 ikasturtean. 1974ko abenduan kultura hamabostaldi indartsua antolatu zen. Tolosan egiten ziren halakoak. Durangokoaz gain, herrietan ere liburu-azokak egiten ziren. Auspoa eta Kulixkaz aparte, ordurako hasiak ziren Lur, Kriselu, Etor... eta beste argitaletxe batzuk. Bergarako kultura hamabostaldiko egitaraua. Txondorra egin zen plazan. Bertsolariak: Mattin, Xalbador, Uztapide... Hitzaldiak ere izan ziren. Gripe izurritea zegoen eta hitzaldiren bat bertan behera geratu zen. Artean ez zegoen itzultzailerik eta Euskara Zerbitzurik Udalean eta gogoan du itzulpen batzuk egin izan zituela garai hartan.

### **1.574. `Makina´ antzezlanaren Bergarako ikastolako ikasleekin (ONA-290/024)**

Begarako ikastolan zebilenean antzerki txiki bat prestatu zuen ikasleekin: `Makina´. Lan hori Lur argitaletxeak ordura arte argitaratu gabeko lanekin kaleratu zituen bi antologietako batean irten zen. Antologia horietako hainbat lan aipatzen ditu. Tartean zegoen 1967an Zumalabe, Santamaria, Eizmendi eta Egigurenek sortu eta antzeztutako antzerkia.



### **1.575. Aranzadi ikastolaren hasierako lantaldea (ONA-290/026)**

Bera Aranzadi ikastola sortu eta hiru urtera iritsi zen. Ordurako ikastolan lanean zebiltzanak: Mari Karmen Amasorrain, Arantzazu Narbaiza, Maria Bitoria Arizmendi, Lide Mujika, Joxe Amilibia... Seminarioko dominikoen lokaletan hasi ziren eta zuzendaria Fernando Etxeberria zen. Jatorriz Salamancakoa zen Jaxinto Sanchez, fraide legoa, lan ezberdin askoren arduraduna izaten zen. Zamora lekeitiarra, Joxe Mari Elortza, Juan Martin Elexpuru, Agustin Amasorrain.

### **1.576. Aranzadi ikastolaren hasiera: baliabide gutxi eta talde handiak (ONA-290/027)**

Aranzadi ikastolan hiru ikasturte egin zituen. 1976-1977an UNED sortu zen eta gero hara pasa zen. Jesus Arpal. Ikastolaren hasierako urteetan baliabide gutxi zuten eta taldeak oso handiak izaten ziren. Dirua lortzeko bideak: taberna, errifak... Kuotak kobratu behar izaten zirelako eztabaidak. Sasoi batean ume asko ibili zen ikastolan.

### **1.577. Bergarako "Alkartu-nai" elkarte eta UNEDen sorrera (ONA-290/030)**

Bergaran bazegoen kultura mailan eragin nahi zuen "Alkartu-nai" elkarte. Binixio Berasategi, Julian Larrañaga, Jose Luis Elkorro, Valle... ziren kideak. Bergarak garai baten irakaskuntzan izan zuen garrantzia berreskuratu nahi zuten eta, horretarako, urte batzuk lehenago martxan jarritako UNEDen (Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionala) bidetik jo zuten. Zentrala Madrilen zegoen, baina beraiek gestionatu behar zituzten lokala, irakasleak... Zuzendari moduan Enseñanza-n historia irakasle lanean zebilen Jesus Arpal izendatu zuten eta haren emazte Adelina Moya arte irakasle moduan.

### **1.578. UNEDen arautu gabeko ekintzak: erakusketak, hitzaldiak... (ONA-290/031)**

UNEDek hasiera-hasieratik bazituen araututako ikasketak (zuzenbidea, historia...), baina baita arautu gabeko ekintzak ere (erakusketak, hitzaldiak...). Multzo hori aprobetxatu zen euskarazko hainbat eduki sartzeko. Lehenengo urtean bera izan zen arduraduna. Urtean zehar egin ziren ekintzak. Erakusketak: Nikolas Lekuonaren erakusketa, Xabi Otero, Jon Zabaleta, Angel Elvira... Joxe Mari Aranalderen hitzaldia, Imanol Larzabalen kantaldia, "Cómicos de la legua" antzerki independentea...

### **1.579. 1978an Euskaltzaindiaren biltzarraren hamargarren urteurrena UNEDen (ONA-290/032)**

1978an Euskaltzaindiak 1968an Arantzazun egin zuen biltzarraren hamargarren urteurrena zela eta, balantze bat egitea pentsatu zen. UNEDen egitea erabaki zen. 1978 hasieratik hainbat bilera egin zituzten bertan, Jose Mari Satrustegi euskaltzaina buru zela. Jesus Mari Larrazabal, Juan Martin Elexpuru, Sebas Agirre, Mikel Lasa... egon ziren UNEDetik antolakuntza batzordean. Letamendiak ere parte hartu zuen beste batzorde batzuetan eta kongresuko idazkari izan zen. 1978ko iraileko lehenengo egunetan ospatu zen UNEDeko areto nagusian. Villasante zen Euskaltzaindiako buru. Parte hartu zuten beste euskaltzain batzuk. Koldo Eleizalderen jaiotzaren urteurrena zenez, haren izenean egin zen kongresua.

### **1.580. Koldo Eleizalderi egindako omenaldiak (ONA-290/033)**

Koldo Eleizalde. Haren omenez egin zen 1978ko UNEDeko kongresua. Gerra aurretik egin zitzaion lehenengo omenaldia, Eusko Ikaskuntzak Bergaran egin zuen kongresuetako batean. Argazkian Urkijo, Bonifazio Etxegarai, `Orixe´, Aranzadi... azaltzen dira. Aranzadi, Aita Donostia eta Azkue agertzen diren Bergarako argazkia.

### **1.581. Euskara batuaren inguruko eztabaida 1978ko kongresuan (ONA-290/034)**

1978an UNEDen egin zen kongresura euskara batuaren aurka zeudenak ere joan ziren: Martin Olazar, Iruretagoiena, Oñatibia... Baina ordurako jada besteak indartuta zeudela dio. Mikel Zarate, Jesus Mari Sagarna... Antolakuntzakoek ez zuten izan saioak entzuteko asti askorik.

### **1.582. UNEDen Euskal Kultur Departamentuaren sorrera (ONA-290/035)**

UNEDen Euskal Kultur Departamentuaren sorrera. Euskaltzaindiak ordurako "D" eta "B" mailako tituluak sortuak zituen, baina ez zen ikastaro "arauturik" ematen, noizbehinkako ikastaro trinkoak bakarrik (Mendigurenak, Kintanak eta Etxebarriak). Hori dela eta, Euskaltzaindiarekin hitzarmena egin zen. Klaseak eta azterketak Bergaran izaten ziren eta Euskaltzaindiak titulu ofiziala ematen zuen. Orduan egin behar izan zituzten lanak: apunteak sortu eta abar.

### **1.583. Euskal Kultur Departamentuko ikasle eta irakasleak (ONA-290/036)**

Gogoan du hasieran jende asko matrikulatu zela "B" mailan, gehienak euskaldun zaharrak. UNEDen areto nagusian biltzen ziren. Euskal Herri osoko jendea joaten zen. Irakasleak: Ibon Sarasola (gramatika), Alfontso Irigoien, Txilardegi (fonetika), Jerardo bera (euskal literaturaren historia)...

### **1.584. Euskal Kultur Departamentuaren protestak Aldundiaren murrizketen aurrean (ONA-290/037)**

Euskal Kultur Departamentuan ikasle asko zituzten sasoian, Foru Aldunditik esan zieten murrizketak izango zituztela eta beraien departamentua izango zela lehenbizi kenduko zutena. Orduan mugimenduak sortu ziren: manifestazioak, protestak... Azkenean ez ziren ausartu murrizketak egiten eta indartuta atera zen departamentua.

### **1.585. EGA titulazioaren sorrera (ONA-290/038)**

Euskaltzaindiak euskara titulazioen ardura Jaurlearitzari pasa zionean eredu birmoldatu zen. Mikel Zalbidek Nicholas Gardnerren laguntzaz EGA titulua sortu zuen, Ingalaterrako eredu kontuan hartuta. Hizkuntzaren gaitasunari begiratu zitzaion.

### **1.586. UNEDen Sakontze Maila: sorrera, ikasleak (ONA-290/039)**

EGA sortu zenean, "B" mailarekin zalantzan egon ziren. UNEDek orduan Sakontze Maila sortu zuen. Urte askoan lan handia egin zen. Ahozko azterketak. Miren Azkarateren kasu berezia. Sakontze Mailatik pasatako hainbat pertsona ezagun. Irakasleak ere asko.

### **1.587. Euskal Kultur Departamentuko lantaldea eta laguntzaileak (ONA-290/040)**

UNEDen bere Departamentuko irakasle finkoak: Jerardo bera, Juan Martin Elexpuru, Xabier Pardo eta Tere Irastorza. Idazkaria Ana Agirre bergararra. Horiez gain, laguntzaileak izaten zituzten, batez ere larunbat goizetan izaten ziren saioetan: Sarrionandia, Joseba Usabiaga, Jose Felix Diaz de Tuesta, Estepan Plazaola, Beatriz Irizar...

### **1.588. Euskal Kultur Departamentua: soziolinguistika arloa (ONA-290/041)**

Soziolinguistika asko aztertu zen UNEDen Euskal Kultur Departamentuan. Juan Martin Elexpuru izan zuen horren ardura. Sanchez Carrion 'Txepetx'. Eskoriatzako Irakasle Eskolarekin batera hainbat ikasturte egin ziren. Hitzaldiak ematera Kataluniatik etorri ziren adituak: Rafael L. Ninyoles, Lluís Aracil, Strubell. Iñaki Arruti ere sarri joaten zen.

### **1.589. Partaide asko Euskal Kultur Departamentuak antolatutako kurtsoetan (ONA-290/042)**

Euskal Kultur Departamentuak antolatutako kurtsoetan jende askok parte hartzen zuen, bai irakasle moduan edo hitzaldiak ematen (Karlos Otegi, Josu Zabaleta, Villasante...) eta baita ikasle moduan ere. Larunbat goizetan Enseñanza-ko eta Migel Altuna ikastetxeko gelak ere erabiltzen zituzten leku faltagatik.

### **1.590. Irakasleek titulazioa lortzeko eskolak UNEDen (ONA-290/044)**

Garai batean irakasle asko zegoen eskolak ematen titulaziorik gabe. Horientzat eskolak antolatu ziren UNEDen Eskoriatzako Irakasle Eskolarekin elkarlanean eta euskara tituluarekin batera irakasle titulua atera zuten. Zenbait izen aipatzen ditu. Gogoan du Krutwig-ek hitzaldia eman zuela. Irakasle moduan nortzuk parte hartu zuten.

### **1.591. Euskal Kultur Departamentuaren amaiera (ONA-290/047)**

Euskal Kultur Departamentua 1995-1996an kendu zuten. Euskal Filologia ikasketak sortu zirenean, hasieran asko UNEDeko kurtsoetara joaten ziren, hango ikasketak osatzera. Gerora, filologia hobetuz joan zen eta UNEDeko ikasle kopurua gutxitzen. Patronatua berezia zen: Aldundiak, Udalak eta aurrezki kutxek osatua. Patronatua desegiten joateak ere eragina izan zuen. UNEDen matrikulen dirua Madrilera joaten zen, baina, hain zuzen ere, euren departamentuarena ez. Beraz, alde horretatik ez zegoen aitzakiarik. Hala ere, Departamentua kentzea erabaki zuen. Azken urteetako borroka eta amaiera tristea.

### **1.592. Lanbide zaharren hiztegia jasotzeko proiektua (ONA-290/048)**

UNEDen eta Bergarako Udalaren elkarlanari esker galdutako edo galtzear zeuden lanbideen inguruko hiztegia jasotzeko proiektua sortu zen. UNEDeko ikasle izandako zenbait kidek osatu zuten bilduma: 1. Linua, ehuna, artilea (Jaione Isazelaia); 2. Txondorrak, karobiak, elurzuloak (Amaia Olañeta eta Argiñe Urkiola); 3. Zura: arotzak eta etxegileak (Anaje Narbaiza); 4. Burdina: errementariak eta perratzaileak (Iñaki Arana). Zorionez, UNED itxi eta urte

batzuetara argitaratu ziren lanok, Bergarako Udalari esker. Xarles Bidegainen eta Miren Azkarateren aholkularitza izan zuten Euskaltzaindiatik.

### **1.593. "Juventudes parroquiales" en euskararen inguruko ikastaroa (ONA-290/050)**

Begarako "Juventudes parroquiales" en euskararen inguruan zegoen mugimendua. Ricardo Arregi eta Gabriel Arestiren hitzaldia. Euskararen inguruko lehenengotako ikastaroa "Juventudes" en egin zen. Iraskaleen artean Juan Antonio Letamendi eta Nemesio Etxaniz. Ikasturte amaieran agiritxo bat eman zieten. 1966-1967 ingurua izango zen.

### **1.594. Urretxindorrek eta Ameslariak talde bergararrak (ONA-290/053)**

Urretxindorrek eta Ameslariak talde bergararretako abeslari batzuk aipatzen ditu. Diskoak atera zituzten eta asko ibili ziren. Antzokiak bete egiten zituzten, Ez dok hamahiru taldeak indarra hartu aurreko sasoa zen eta.

### **1.595. Umetan emozioak gorde egiten zituen (ONA-291/003)**

Umetan zelakoa zen azaltzen du. Bere emozioak gorde egiten zituen eta ondoren lehertu egiten zen. Bromazalea zen.

### **1.596. LGBTIQ+ mugimenduko lagunak (ONA-291/005)**

Ez zeukan lagun talde finkorik herrian. LGBTIQ+ mugimenduko lagunak ezagutu zituenean, bere generoari buruz hausnartzen hasi zen, askotariko errealitateak ezagutu zituelako.

### **1.597. Umetan emakume plantak egiten (ONA-291/006)**

Jaialdi baterako mozorrotu zenean, neska ematen zuela iruditu zitzaion eta asko haserretu zen bere buruarekin. Emakumearen plantak egiten zituen, broma moduan, baina gustatu egiten zitzaion horrela jardutea.

### **1.598. Trans pertsonen buruz irudi txarra (ONA-291/007)**

Lagunen bitartez hasi zen transgeneroaren informazioa jasotzen. Hasieran trans izatea gauza txarrekin lotzen zuen eta ez zuen horrelakorik izan nahi, baina ondoren, onartu egin zuen.

### **1.599. Trans pertsonak komunikabideetan (ONA-291/008)**

Komunikabideetan trans pertsonen errepresentazioa nolakoa izan den aztertzen ari da. Azalpena ematen du.

### **1.600. Ahizpari eta familiari neska zela esatea (ONA-291/009)**

Bidea ireki zioten bi lagunekin landu zuen transgeneroaren gaia. Hasieran ahizpari kontatu zion. Gurasoekin ez zuen arazorik izan, nahiz eta hasieran kostatu egin zitzaion.

### **1.601. "Naizen" elkartearen laguntza (ONA-291/010)**

"Naizen" elkartearen adingabe transgeneroen elkartearen da. Dinamika azaltzen du. Bidea samurtu zioten elkartekoek, bereziki amari.

### **1.602. Lagunen, familiaren eta elkartearen babesa (ONA-291/011)**

Besteek norbere identitatea onartu dezaten nahi izaten dugunez, babesa behar izaten dugula kontatu du. Lagunek, familiak eta elkartek babesa eman izan diote.

### **1.603. Trans pertsonen onarpen eza arazo (ONA-291/012)**

Trans pertsonen artean, depresio eta suizidio tasak altuak dira. Tasa horiek erabat jaisten dira besteek norbere generoa onartzen dutenean, pertsona moduan onartzen dituztenean.

### **1.604. Zergatik aukeratu zuen Yuri izena (ONA-291/013)**

Gehien gustatzen zitzaion izena aukeratu zuen bere buruarentzat: Yuri. Japoniar kontuak gustatzen zitzaizkion eta lore izena dela jakin zuen.

### **1.605. Nortasun agirian izena aldatzeko trabak (ONA-291/014)**

Nortasun agirian izena aldatzea oso zaila da; eskakizun askori, paper kontu askori erantzun behar izaten zaio. Transentzat besteentzat baino zailagoa izaten da. Askotan prozesuan zehar tratu txarrak gertatzen direla kontatzen du.

### **1.606. Nortasun agirian generoa aldatzeko trabak (ONA-291/015)**

Nortasun agirian generoa edo sexua aldatzeko prozesua korapilatsua da. Zalantzan dago aldatuko duen ala ez. Osasun-sisteman transek izaten dituzten trabak azaltzen ditu.

### **1.607. Eusko Legebiltzarrari eskaera (ONA-291/016)**

Sinadura bilketa bat egin zuten Eusko Legebiltzarrean transen eskaerak entzun zitzaten. PP alderdiko erantzunak bakarrik jaso ditu, esanez pertsona moduan onartzen dituztela. Gehiago espero zuen.

### **1.608. Trans zela esan zuenean eskolan (ONA-291/019)**

Eskolan bere identitatearen berri eman zuenean, nahiko gaizki pasatu zuen, errepikatu egin zuelako gainera, momentu zaila pasatzen ari zelako. Tutorearekin berba egin zuen lehen egunetik eta kontuan hartzekoak azaldu zizkion. Hasieran zaila izan bazen ere, gero dena ondo joan zen.

### **1.609. Eskolan izena aldatzeko trabak (ONA-291/020)**

Eskolan izena aldatzeko trabak egon daitezke baina berez legez arazorik ez dagoela dio, eta borondatearen arabera izaten dela. Berak ez zuen trabarik izan.

### **1.610. Hormonatu ahal izateko prozedura (ONA-291/022)**

Argi zeukan hormonatze prozesuarekin hasi nahi zuela, gorputzean aldaketak izateko. Prozesua korapilatsua da. Bartzelonako "Transit" elkartekoekin harremanetan jarri zen eta proba batzuk eskatu zizkioten, eta haien laguntzaz berehala hasi zen. Endokrinoarekin jarraipena lortu zuen.

### **1.611. Hormonatu ahal izateko, psikiatrarenera (ONA-291/023)**

Transen testa deitzen zaiona egin behar izan zuen psikiatrarekin. Zentzurik gabeko gauzak galdetzen zizkiotela azaltzen du. Hormonak lortzeko tortura psikologikoa jasan behar izaten dela dio.

### **1.612. Hormonak hartzeko zailtasunak (ONA-291/025)**

Hormonatze prozesua psikiatrarekin baino endokrinoarekin izan beharko litzatekeela dio. Izan ere, traba asko jartzen badituzte, jendea bere kontura hormonak hartzen hasten dela dio.

### **1.613. Hormonek sortutako aldaketak (ONA-291/026)**

Menopausian izaten diren hormonak hartu zituen. Sintomak menopausian izaten direnen antzekoak izan zituela kontatzen du: beroaldiak, haserrealdiak errazago... Hormona zikloa bizitzen du. Prestatuta egon behar da hormonak hartzen hasterako, aldaketa handiak eragiten dituelako.

### **1.614. Trans izateko modu asko (ONA-291/027)**

Ez dago trans izateko modu bakarra. Ebakuntza egitea, hormonak hartzea, izena aldatzea... batzuek erabakitzen dute eta beste batzuek ez.

### **1.615. Hormonak hartu eta ebakuntza egiteko erabakia (ONA-291/028)**

Hormonak hartzea eta ebakuntza egitea erabaki zuen. Erabakitzeko prozesua nolakoa izan zen azaltzen du. Norbere burua asko ezagutzea beharrezkoa dela dio.

### **1.616. Hormonek itxura fisikoan eragiten dute (ONA-291/029)**

Ebakuntza bigarren mailako kontua dela dio. Hormonekin aldaketa fisikoa nabaritzen da kanpotik ere; jendea emakume moduan tratatzen hasteak eman zion poza azaltzen du.

### **1.617. Emakumeen estereotipoak apurtzen (ONA-291/030)**

Emakumearen itxurari buruzko kanonak zalantzan jarri zituenekoa kontatzen du. Estereotipoak erreproduzitzeko beharra sentitzen dute transek, onartuak izateko. Jendeari pentsaraztea gustatzen zaio.

### **1.618. Transexual eta transgenero (ONA-291/032)**

Transexual eta transgenero kontzeptuen arteko aldea azaltzen du.

### **1.619. Transen aldeko eta kontrako mugimenduak (ONA-291/034)**

"Chrysalis Euskal Herria" elkarteak kanpaina bat egin zuen zakila duten neskek eta bulba duten mutilak daudela erakusteko. Horrek kontrako mugimendua eragin zuen, eta gizartean gaiak presentzia handia izatea ekarri zuen.

### **1.620. Transak onartzen ez dituen feminismoa (ONA-291/035)**

Trans legearen zirriborroaren ostean, transak bere baitan hartzen ez dituen feminismo korronte batek hainbat kritika egin dizkio.

### **1.621. Feministen aldetik transen kontra erabiltzen diren argumentuak (ONA-291/037)**

Beretzat feminismoa berdintasuna da. Beraz, emakume transak aparte lagatzeak ez dauka zentzurik. Lesbianen edo emakume beltzen kontra erabili izan diren argumentu berdintsuak direla azaltzen du.

### **1.622. Transei kontra egiteko oso argumentu txarrak (ONA-291/039)**

Emakume transei edo trans legeari kontra egiteko oso argumentu txarrak erabiltzen direla dio.

### **1.623. Talde feministetan sartzeko beldurra (ONA-291/040)**

Feminista dela dio. Talde feministetan sartzeko beldurra ematen dio, ez baitaki onartua izango den.

### **1.624. Transek lana aurkitzeko zailtasunak (ONA-291/041)**

Transen artean langabezia tasa ehuneko laurogei ingurukoa da. Jendaurrean lanean transik ez da ikusten. Lana aurkitzeko zailtasunak izaten dituzte.

### **1.625. Mikele Grande, itxaropen iturri (ONA-291/043)**

Mikele Granderen dokumentalaz berba egiten du. Itxaropena sortu dio, esperientzia ona izan baitu Mikelek. "Naizen" elkartearen bitartez ezagutu zuen lehenengo transa Mikele izan zen.

### **1.626. Gertaera transfobo baten berri eman zueneko (ONA-291/044)**

laz "instagram" sare sozialean bideo bat jarri zuen, autobusean gertatutako esperientzia transfobo bat kontatzeko, eta jende asko jarri zen berarekin harremanetan, laguntza eskatzeko zein eskerrak emateko.

### **1.627. Autobusean izandako gertaera transfoboa (ONA-291/045)**

Autobusean gertatutako esperientzia transfoboa kontatzen du. Ondoren egindako bideoari buruzkoak aipatzen ditu.

### **1.628. Eraso transfobo asko jasandakoa (ONA-291/046)**

Egoera transfobo asko bizi izan ditu, bereziki parranda giroan. Itxuraz herriko gazteen artean onartuta badago ere, bizipen txar asko izan ditu. Eraso transfoboak jasan izan ditu internet bidez. Gaizki pasatu izan du, baina beldurrik ez.

### **1.629. Hirian herrian baino gusturago (ONA-291/047)**

Madrilera joan da ikasketak egitera eta oso gustura dago. Herria baino nahiago du hiria, aukera gehiago daudela sentitzen duelako.

### **1.630. Harremanetan onarpena bilatzetik gozatzera (ONA-291/050)**

Bere burua ezagutzeko balio izan dio bizi izandako prozesuak. Lehen besteen onarpenaren bila harremantzen zen eta orain, berriz, gozatzeko.

### **1.631. Bolada txarra pasa osteko ikaspenak (ONA-291/052)**

Bi urte inguruan depresioa eta bolada txarra pasatu zituen. Bi urtez ikasketak laga zituen. Bere burua oso ondo ezagutzeko balio izan zion.

### **1.632. Hitzaldiak herrian (ONA-291/053)**

Hitzaldi bana eman zuen Oñatiko gaztelekuan, gaztetxean eta institutuan. Galdera anonimoak erantzun zituen eta talde feministarekin ere eztabaidarako aukera izan zuen.

### **1.633. Euskalduna izateaz harro (ONA-291/054)**

Etxean gazteleraz berba egin izan duenez, eta umetan lagun askorik ez zeukanez, euskara ez du asko erabili izan. Asko gustatzen zaio euskara. Harro dago euskalduna izateaz. Chill Mafia, Hesian, Ken Zazpi, Zetak... oso gustuko ditu.

### **1.634. Oñatiko Maletenean jaioa (ONA-292/002)**

Maletenean jaio zen, Santa Marina auzoan. Aita Olabarrieta baserrikoa zen. Hiru anai-arreba dira eta bera da zaharrena.

### **1.635. Amona eta ama gerratik ihesi (ONA-292/003)**

Amonak ostatu bat zuen non apopiloak abertzaleak ziren eta gerran. Eibarko senide batek abisatuta jakin zuten mehatxatuta zeudela eta zigortu nahi zituztela bai bera eta bai ama. Ihes egin zuten Oñatitik eta 1938an bueltatu ziren. Amonari ostatua errekiatu zioten.

### **1.636. Errekisatutako josteko-makina berreskuta zuen amak (ONA-292/004)**

Gerra ondoren, errekiatutako josteko-makina berreskuratu zuen amak. Zirkulo karlistan zegoen.

### **1.637. Gerraren eraginak (ONA-292/005)**

Amak esaten zuen gerran denak biktimak izandakoak zirela. Beraien etxean amorruta eta gorrotorik egon ez bazen ere, beste etxe batzuetan ez zen horrela gertatzen.

### **1.638. Ama, inklusakoa umea izan zen (ONA-292/007)**

Hiru eta sei urte bitartean mojetan ikasi zuen. Eskola eta patioa nolakoak ziren. Dena gaztelaniaz eta neska eta mutilak banatuta. Aitak gaztelaniaz ez zuen inoiz egiten baina amak ondo egiten zuen, inklusakoa umea baitzen.



### **1.639. Maristetan euskaraz hitz egiteagatik zigortuak (ONA-292/008)**

Nahiz eta eskola gaztelaniaz izan, umeek haien artean euskaraz hitz egiten zuten. Zerbait naturalizat hartzen zuten. Ondoren maristetan ikasi zuen eta hor zigortu egiten zituzten euskaraz hitz egiteagatik. Eratzunaren zigorra. Euskaraz zeukan liburu bat kendu eta zortzi urtetara bueltatu zioten.

### **1.640. Kritikotasunak erlijiotik aldendu zuen (ONA-292/009)**

Fraide izateko ikasketak egin zituen, lau urtez Nafarroan eta beste lau Antzuolan. Botoak egin baino lehen atera egin zen, hamabost urte zituenetik oso kritiko bihurtu zelako. Galdera deserosoak egiten zituen ikasgelan eta fraideek bazekiten ezin izango zutela Josean menderatu.

### **1.641. Musikan nola hasi zen (ONA-292/010)**

Umetatik jaso zuen musikarekiko zaletasuna etxean. Amak oso ondo abesten zuen. Sei urterekin tiple izan zen Oñatin, koruan. Solo bat egin zuen ezkontza batean eta 50 pezeta jaso zituen. Eskolan ere musika ikasten jarraitu zuen, koruko zuzendaria izan zen eta gitarra eta bandurria jotzen ikasi zuen jotari batekin.

### **1.642. Gitarra irakaslea (ONA-292/011)**

Gitarra ikasi ondoren, Sebas hasi zen irakasten eskolan bertan. Ondoren, Oñatin ere eman zituen klaseak eta rondaila txiki bat antolatu zuen. Musika-tresna bat ondo ikasteko ordu asko eskaini behar zaizkio.

### **1.643. Irrintzi zortzikotea (ONA-292/012)**

Zortzikote bateko abeslaria izan da Sebas. Denak Oñatiko koruko abeslariak ziren eta Irrintzi kuadrillakoak. Izen bera jarri zioten zortzikoteari eta Gipuzkoako eta Euskal Herriko zortzikote lehiaketak irabazi zituzten. Bi diska grabatu zituzten eta Jose Maria Arzuaga zuzendaria hil zenean.

### **1.644. Disko klandestinoak grabatzen (ONA-292/013)**

Euskarazko bi diska ere atera zituzten, klandestinoki grabatuak, ez zutelako zentsura pasa. Grabazioa nola izan zen kontatzen du. Radio Paris-en entzuten zen haien musika.

### **1.645. Bakarleri bezala hamar urtez (ONA-292/014)**

1958 eta 1968 bitartean, bakarleri bezala ibili zen abesten, Ez Dok Amaitu sortu zen arte. Jose Mari Iriondoren bitartez lortzen zituen emanaldiak. Galdakaoko dantza-taldearekin abesten zuen ere.

### **1.646. Galdakaoko Andra Mari dantza-taldearekin abesten (ONA-292/015)**

Galdakaoko Andra Mari dantza-taldearekin abesten zuen, Iparragirrerren kantuak abesten. Bermeoko emanaldi batean, bere burua eta Iparragirrerena aurkezteko eskatu zioten, handik ez baitzen hain entzuna.

### **1.647. Modako abestiak euskaraz abesten (ONA-292/016)**

Denetarik kantatzen zuen baina ia dena euskaraz. Modan zeuden kantuak euskaratzen zituen.

### **1.648. Arrasate Orkestina I (ONA-292/017)**

Arrasate orkestinari buruz hitz egiten du: kideak, musika-tresnak...

### **1.649. Artisten arteko konpetentzia ez zaio gustatzen (ONA-292/018)**

Artista Berrien lehiaketan bigarren postua irabazi zuen, kanta modernoan atalean. Lehiaketetan parte hartzea ez zitzaion gustatzen, konpetentzia handia dagoelako.

### **1.650. Arrasate Orkestina II (ONA-292/019)**

Arrasateko orkestinan, euskaratutako atzerriko kantak jotzen zituzten. Andoni eta Juan Mari Lekuonak egiten zituzten frantsesezko eta italierazko itzulpenak.

### **1.651. Arrasate Orkestinaren diskoa eta kantak (ONA-292/020)**

Arrasate orkestinak zortzi abestiko diskoa grabatu zuen. Abestiez hitz egiten du. Diskoaren izena. Nemesio Etxaniz.

### **1.652. Musika modernoa egiten zuen, dantzagarria (ONA-292/021)**

Julen Lekuonaren testu bati musika ipini eta gitarra lehiaketa batean bigarren saria lortu zuen 1976an. Epaimahaiak musika modernoegia zela baloratu zuten. Bere diskak asko saldu ziren eta kontzertuetara ere jende asko joaten zen.

### **1.653. Ez Dok Amairuren sorrera eta lehen kontzertuak (ONA-292/023)**

1964ean hasi ziren Ez Dok Amairu sortzeko bilerak. Kantariak bakarrik biltzen ziren orduan: Jose Antonio Villar, Lourdes Iriondo, Joxean Artze, Mikel Laboa... Jose Mari Iriondok ikusi zuen bakoitza bere aldetik zebilela eta talde bat osatu behar zela. Lehenengo kontzertuak Gipuzkoan eta Iparraldean izan ziren.

### **1.654. Ez Dok Amairu uzteko arrazoiak (ONA-292/024)**

Ez Dok Amairu taldea uzteko arrazoiak kontatzen ditu: bere lanarekin ezin ondo uztartu, beti berdina abesten zuen eta ez zegoen bere buruarekin eroso eta taldekideen artean tirabirak hasi ziren.

### **1.655. Musika militantzia bezala (ONA-292/026)**

Jose Antoniok musikari bezala oso gutxi kobratzen zuen. Galdakaoko Andra Mari dantza-taldearekin parte hartzen hasi zenean, haiekin 300 pezeta kobratzen hasi zen saio bakoitzeko. Diskoekin aldiz, 34.000 pezeta galdu zituen. Musika militantzia bezala bizi izan du.

### **1.656. Bergarako Ariznoa dantzalekuko orkestrako kidea (ONA-292/029)**

Begarako Ariznoa dantzalekua estreinatu zuten orkestra moduan, Miguel Sagastume soinu-jotzaile eibartarrarekin. Dantzalekuko soinu-sistema beraiek instalatu zuten.

### **1.657. Bergarako Ariznoako orkestraren kideak (ONA-292/030)**

Ariznoa dantzalekuko orkestako kideak: Migel Sagastume, Felipe Vitoria, Eusebio Gomez, Paco Gomez... Emanaldiak nolakoak izaten ziren.

### **1.658. Ariznoa dantzalekua beti jendez lepo (ONA-292/031)**

Ariznoan, ostegun, larunbat eta igandeetan jotzen zuten. Igandeetan, arratsaldean eta gauean. Ordu-tegiak. Dantzalekua nolako zen. Neskak mahaiak okupatzen zituzten eta mutilek tabernaren barra. Bikote asko sortu dira Ariznoan eta gero beraien ezkontzetan jotzera gonbidatzen zituzten. 25-40 urteko jendea joaten zen dantzara.

### **1.659. Dantzalekuak ligatzeko lekuak ziren (ONA-292/032)**

Ariznoa dantzalekua izan zen inguruan orkestrarekin jotzen zuen dantzalekua. Geroago, diskoteka ere jartzen zuten orkestaren atsedendietan eta baten bat kexu agertzen zen, diskotekako musikarekin ezin zutelako neskekin dantza egin. Plazak ere ligatzeko lekuak ziren.

### **1.660. Ariznoan orkestrarekin jotzen zituzten kantak (ONA-292/033)**

Ariznoan, orkestrarekin hamarretik kanta bat euskaraz jotzen zuten. Jotzen zituzten kantak nola aukeratzen zituzten. Arratsaldeko eta gabeko saioak ezberdinak izaten ziren.

### **1.661. Kanta asko euskarara itzuli ditu (ONA-292/034)**

Orkestrarekin jotzen zituzten euskarazko kantak aipatzen ditu. Itzulitako kantak izaten ziren eta jendeak buruz zekizkien. Inoiz kantatu ez dituen kantak euskaratu zituen ere.

### **1.662. Urretxindorrek eta Ameslariak taldeekin harreman ona (ONA-292/036)**

Bergarako Urretxindorrek eta Ameslariak taldekoak lagunak zituen eta noizbait elkarrekin kantatu izan dute. Orkestren artean elkartasuna egoten zen. Gaur egun dagoen lehiakortasunari buruz hitz egiten du.

### **1.663. Musika, sentimenduen adierazle (ONA-292/038)**

Musika komunikazioaren arlo bat da. Sentimenduak adierazten eta komunikatzen ez baditu, ez du baliorik.

### **1.664. Euskararen egoera kolokan dago (ONA-292/040)**

Euskalgintzan ibili izan da Jose Antonio. Bere ekarpena ez da inoiz baliagarria izan, oso kritikoa izan delako beti. Euskararen egoera kolokan ikusten du. Erakundeek euskararen egoera hobetu dezakete, beharrezkoak diren neurriak hartu ezker. Borondate falta dago.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

*2024-05-05*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com